Bukatzeko nire familia eta lagunak eskertuko ditut. Lehenik nire aita, hura nire lehen sostengatzailea izan zelako eta niregan zuen konfiantzak motibatu nauelako. Lagunak eta bidean gurutzatutako pertsonak eskertzen ditut haien aholku eta sustenguengatik: Joana, Martin, Mattin, Clémence, Amaya, Peio... Ezin atzemanak diren liburuak atzemateko, David eskertu nahi dut. Maddi, Ana eta Txomin berrirakurketa fase luze hauetan laguntzeagatik, milesker. Bistan dena, ikerketa lan hori pedagogiari zentzua eman nahi duten pertsona guztiei zuzentzen da. Jendarte berdintsuago bat eraikitzeko gogoeta tresna bat bezala eraikia izan da eta ekarpen xume honen bidez eztabaidatzeko aukerak sortzen ahalko direla espero dut. Bukatzeko, lan hori bidean ukan dudan umeari zuzentzen diot, berdintasunaren alde borrokatzeko gogoa oraindik gehiago piztu didazulako.

## II- Marko teorikoa

1 Ikerketaren testuingurua: Hizkuntza, hezkuntza eta generoa

1.2 Euskal Herria, Euskararen herria, mugaz gaindi bizi den herria




**Irudia 1: Euskal Herriko mapa**

*Iturria: Erein*

Euskal Herria sei lurraldez osatua da. Nafarroa estatuen artean zatitua da, Nafarroa Garaia Hegoaldean, NFE osatzen du Espainiako administrazioaren barnean, eta Nafarroa Behera, Frantziako Lurraldeetan. Beste lurraldeak, Pays Vasco edo Pays Basque Moduan ezagutuak dira. Frantses lurraldean, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoa dira. EAEn hiru probintzia: Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba.

1.1.1 Geopolitika lurralde ezberdinetan




**Irudia 2: Espainiar lurraldeko mapa**

*Iturria: EHU*

Espainia 17 lurralde autonomotan antolatua da, bakoitza bere gobernu eta legedia egokituekin. Espainiako Estatuaren antolaketa autonomikoari erantzunez, lurralde batzuek Hezkuntza ahalmenak dituzte, hauen artean Euskadiko Autonomi Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak dira. Biak Euskal Herriko hegoaldean kokatuta dira eta Espainiar legeriaren menpe daude, zenbait arlotan legedi propioa edo egokitua izateko ahalmena badute ere[1].

Frantses estatuan, 13 eskualde eta 96 departamenduen autonomia mugatua da. Baiona, Lapurdiko hiriburua Pirinio Atlantikoen departamenduan kokatua da baina hiri administratibo nagusia Paue da, Biarnesen. Akitania Berria eskualdean, (2015tik), hiri administratibo nagusia Bordele da. 2015ean NOTRE legeak (LOI n° 2015-991 du 7 août 2015 portant nouvelle organisation territoriale de la République) deszentralizazioa eta eskualdeen tokia berriz definitu zuen frantses lurraldean. Horren bidez, herri elkargoak sendotu eta garatu dira – nahiz eta Euskal Herriarentzat galdegiten den Lurralde Kolektibitate eskaeraren inguruko mugimenduak segitzen duen –[2]. Bide honetatik, Ipar Euskal Herrian (Xiberoa, Baxe Nafarroa Lapurdi), Euskal Hirigune Elkargoa sortu zen, Pirinio Atlantikoen departamenduaren eta Akitania Berriko eskualdearen barnean dago.



**Irudia 3 Euskal hirugune elkargoko mapa**

Iturria: https://www.enbata.info/articles/lagglo-pays-basque-en-chantier/

EPCI (Euskal Hirigune Elkargoa), 2017ko urtarrilaren 1ean sortu zen eta egoitza Baionan du. Erakunde publikoa da. Lurralde elkargoa, 1150 langilez, 233 elkargo kontseilariz, 140 ordezkariz,

1 https://www.ehu.eus/seg/gizt/1/1
2 https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20130711/ipar-euskal-herriaren-geroa-hiri-elkargoa-dela-dio-orain-capdeviellek Batera plataformaren iritzia Lurralde Kolektibitateei buruz

158 hiriz eta 300 000 biztanlez osatua da.[3] Euskal hirigune elkargoak hizkuntza politika bat garatzen du euskara eta gaskoia kudeatzeko. Haien jarduerak Euskal Herriko kolektibitate zerbitzuetara, herriko etxeetara, elkargoetara (EEP) eta elkarteetara zabaltzen dituzte (EKE). Horrez gain, Euskal hirigune elkargoak kultura bultzatzeko xedea du eta eskualdea, departamendua eta herriekin lanean ari da.

#### 1.1.2 Testuinguru linguistiko-kulturala

Frantses eta espainiar estatuak estatu eleanitzak dira. Frantses metropoloan, 20 bertako hizkuntza inguru daude *Délégation générale à la langue française et aux langues de France*-ek[4]. Espainiar lurraldean ere bertako hizkuntzak anitzak dira[5]. Baina, bi estatuek legeztatzen dituzten hizkuntza politikak desberdinak dira. Frantziak, bertako hizkuntzak 2008tik frantses ondarearen partekoak bezala kontsideratzen ditu. Baina frantses lurraldeko hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Aldiz, Espainian, lau hizkuntza koofizialak dira haien lurraldeetan: Katalana, Balentziara, Galegoa eta Euskara.

### 1.2 Hizkuntza politikak, Espainian eta Frantzian. Hizkuntzen estatusa

#### 1.2.1 Hizkuntza legeak Frantzian

1958ko Frantziako konstituzioko bigarren artikuluaren arabera, errepublikaren hizkuntza frantsesa da[6]. Frantziaren batasun politikoa balore honetan oinarritzen dela azpimarratzen du Eneritz Zabaletak (2020): Boterea zentralizatua delarik, politikoki batasun bat delarik, kulturalki eta sozialki batasun bat sortzen da. Beste Europako estatuak hizkuntza eta kultura aniztasunari tokia egitea entseatzen dira. Frantzian, pluralismoa lantzea nekez egiten da. Hizkuntza politika proiektuek eta Euskal Elkargoak, euskara biziberritu nahi baldin badute, zailtasunetan aurkitzen dira oinarriak informalak direlako.

Frantses Lurraldeko Eskualdeko Hizkuntzen 2013ko ikerketaren arabera, eskualdeko hizkuntzen eta gutxituak diren hizkuntzen erabilera apaldu da. Frantses estatua bere babesa

3 https://www.communaute-paysbasque.fr/la-communaute-pays-basque/lorganisation/les-elus
4 Délégation générale à la langue française et aux langues de France, *Les langues*, Références 2016, 2nde édition, 2016.
5 https://tatutrad.net/lenguas-que-se-hablan-en-espana/
6 https://www.culture.gouv.fr/Sites-thematiques/Langue-francaise-et-langues-de-France/Politiques-de-la-langue/Droit-au-francais/Le-cadre-legal

bermatzeko engaiatu baldin bada, EEP-ren txosteneko ondorioek ere hiztunen apaltze bat erakusten dute.

> "Une étude produite par l'Office public de la langue basque parvient au même constat : le pourcentage de bilingues qualifiés de bascophones diminue de 22,5 %en 2006 à 21,4 %en 2011, notamment dans les zones urbaines et péri-urbaines. La proportion de ceux qui ont utilisé le basque à la maison avant l'âge de 3 ans continue de décroître : représentant 36 %des habitants de plus de 65 ans, elle n'est que de 18 %chez les 25-34 ans, et 14 %chez les 16-24 ans." (Ministère de l'éducation et la culture, 2013)

Hzkuntza gutxituek ez dute ikusgarritasunik eta prekarietatean dira. Frantses estatuaren borondate eskasa azpimarratua da. Txostenean, besteak beste, hizkuntza minorizatuei juridikoki toki bat ematea, jendartea sentsibilizatzea, estatua eta herri elkargoak hobeki antolatzea proposatua da.

Frantses kulturaren ministerioak DGLFLF-a (Délégation Générale à la Langue Française et aux Langues de France) 1994an sortu zuen, gobernuko linguistika politika animatzeko eta koordinatzeko.[7] OPLB (Office Publique de la Langue Basque) / EEP (Euskararen Erakunde Publikoa ), agertu zen, euskara garatzeko eta promozioa egiteko. Frantses Gobernuak DGLFLF-eko komisarioa izendatu zuen linguistika politikan laguntzeko[8]. EEP 2004an Baionan sortu zen, Frantses gobernuan IPE (Groupement d'Intérêt Public) bat da. IPE batek funtzionamendu eta kudeaketa araudi malguak ditu, eskubide publikoko pertsona juridiko bat da[9].

> "Helburu berezi baten inguruan antolatua da, gutxienez eragile publiko baten eta helburu berezi bat daukaten eragile pribatuen artean; misioa administratiboa, industriala edo komertziala izan daiteke. Baliabideak biltzen ditu eta epe mugatu batez eratua da"[10]

Partaide publiko eta pribatuek interes publikorako ahalbideak batzen dituzte. Erakundea, euskal hizkuntzaren politikaren onarpen bide luze baten emaitza da. EEPk euskara sustatzean, euskara elebiduna ezagutaraztean eta bere irakaspenaren garatzean oinarritzen da. EEP beste OPL-ekin

---

7 https://www.culture.gouv.fr/Sites-thematiques/Langue-francaise-et-langues-de-France

8 *Rapport d'évaluation de l'office publique de la langue basque* Aout 2016: file:///Users/cash/Downloads/201610RapportInspection2016-15Evaluation_de_l_office_public_de_la_langue_basque.pdf

9 EEPko IPE-ren aldaketa 2013an :https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Administratif/AK-ko_Dokumentuak/interneten_sartzeko.pdf

10 https://www.mintzaira.fr/eu/eep/egitura-juridikoa.html

(Office Publique de la langue Bretone, Office Publique de la langue Catalane, Office Publique de la langue Corse bezala) frantses estatuko Kultur Ministerioaren jarduera inter ministro eta frantses hizkuntzaren delegazio orokorraren menpe da. Helburuak, bost ardatz nagusiren inguruan antolatuak dira: euskaraz irakastea, eskaintza garatzea, irakaskuntzaren egituratze kualitatiboa, ikas materiala sortzea eta ikastetxeek bultzatutako hizkuntza egitasmoak garatzea. 2008an[11], EEP eta Euskaltzaindiaren artean hitzarmen bat sortu zen: Ipar Euskal Herriko euskara bizitza publiko eta pribatuan indartzeko, hizkuntza kalitatea eta Euskaltzaindiak baliabide ekonomikoak emateko[12]. Hori, aitzina pausu handia izan da, egindako eskariari erantzuten eta etorkizunari aurre egiteko baliabide berriak eskaintzen dituelako.

EKE edo ICB, 1990an sortu zen Uztaritzen. Frantses estatuak, eskualdeak, departamenduak eta herri elkargoak diruz laguntzen dute. Proiektuen arabera Crédit Agricolek, Eusko Jaurlaritzak eta Culture/Kulturak laguntzak ematen ahal dituzte. Euskal kultur erakundearen administrazio kontseilua Estatuko hiru ordezkariz, Akitania-Berria Eskualdeko bi ordezkariz, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduko bi ordezkariz, Euskal Hirigune Elkargoko bi ordezkariz, Eusko Jaurlaritzako ordezkariaz eta Nafarroako Gobernuko ordezkariaz osatua da. Kultur eragileen taldean 14 kide dira[13].

2004ean, EKE euskal kultura eta ondarean zentratu zen EEP sortu ondotik. 2007tik EKE-k ahozko ondareari eta sorkuntza kulturalari ematen die lehentasuna. EKE-k bere burua sorkuntzaren memoriaren laborategi bat bezala deskribatzen du. Bide horretatik, 2017an, EKE-k *Ethnopôles*[14] labela jaso zuen, 1996ean, Frantses kultura ministerioak sortutako *Consortiuma* da.[15] EKEren helburuetan, proiektu ezberdinak sartzen dira: 2008tik, ikus-entzuneko artxiboak[16]; erakusketa ibiltariak...[17] 2017ko urtarrilaren 1an, 150 elkarte partaide edo diru emaile ziren. Haien lan ardatzak lau zutabe nagusitan zatitzen ziren: aholkuak ematea, egituratzaileak sustatzea, kultura eragileak laguntzea eta informazioak zabaltzea. Herri elkargoentzat arte eta kultura heziketa proiektuak sortzen dituzte. Mediateketako ekitaldi kulturalak, kontaketa saioak edo idazle topaketak antolatzen dituzte. Elkarteei eta eskolei formakuntzak proposatzen dizkiete kultura, kudeaketa, antolakuntzaren

---

11 file:///Users/cash/Downloads/5.%20F%20-%20annexe%202008%20EEP%20EAE.pdf

12 Max Brisson, 2007, *L'Euskaltzaindia et l'Office de la langue Basque: un nouveau cadre de relations,* Euskera – LII

13 https://www.eke.eus/fr/institut-culturel-basque/presentation-et-fonctionnement/conseil-dadministration

14 https://www.eke.eus/fr/institut-culturel-basque/ethnopole-basque

15 https://www.eke.eus/fr/ethnopole-basque/qu-est-ce-que-ethnopole-basque

16 https://www.eke.eus/fr/institut-culturel-basque/programmes-et-principaux-dispositifs/programme-de-traitement-des-archives-sonores-et-audiovisuelles-anciennes

17 https://www.eke.eus/fr/institut-culturel-basque/programmes-et-principaux-dispositifs/expositions-itinerantes

inguruan. EKE Frantses estatuaren babespean da.[18]

Euroeskualdea 2011an sortu zen. Baina 1982tik, iparralde eta hegoaldeko eskualdeek Pirinioetako lan elkargoan parte hartzen zuten eta Europar Batasuneko sare eta proiektu ezberdinen barnean dira (ARFE, ANCORIM...). Hasieran, Euskadiren gobernuaren eta Akitaniaren arteko proiektua zen, baina 2017an, Nafarroako Gobernua Euroeskualdean sartu zen[19]. Egoitza Hendaian da eta helburua hizkuntza, kultura eta historia komun baten gainean oinarrituz, harremanak estutzea dela diote[20]. Euroeskualdearen lan ardatz nagusiak hauek dira:[21]

- Bi lurraldeen arteko komunikazioa hobetzea;
- Energia berriztagarriei balioa ematea;
- Formakuntzaren promozioa egitea (diploma bikoitzak eta irakasle - ikasleen mobilizazioa);
- Ikerketa berritzaileen garapena;
- Laborantza, elikatzea eta osasunari buruz gogoetatzea kalitatea eta ingurumena lehenetsiz;
- Dinamika kulturala eta artistikoa indartzea;
- Baliabide turistikoen balorizazio komun bat egitea[22].

### 1.2.2 Hizkuntza legeak Espainian, EAE-n eta NFE-n

Euskara ez da inoiz, bere lurralde osoan, hizkuntza ofiziala izan. 1978ko konstituzioak, Espainola Espainiar Estatuko hizkuntza ofiziala izendatu zuen eta lurralde historikoetako hizkuntzen izaera koofiziala izatera pasatu zen. Hizkuntza gutxituak Espainiako linguistikaren aberastasunaren ondare kultural bereziak bezala kontsideratzen dira eta errespetu eta babes bereziak ukango dituztela azpimarratzen du konstituzioak. Horrez gain, 148. artikuluak zehazten duenez, autonomiek horien konpetentziak modu hauetan beregain hartzen ahal dituzte: autogobernu erakundeen antolakuntza eta kulturaren, ikerketaren eta hizkuntzaren irakaskuntzaren laguntza Autonomoa Erkidegoan. Ondoren, Euskal Autonomi Estatutuarekin batera Euskararen legea (1982) ezarri zen indarrean, non euskara hizkuntza ofizial izendatu zuten gaztelaniarekin batera. Lege honek euskaraz mintzatzeko eskubidea

18 https://files.eke.eus/pdf/statuts-icb.pdf
19 Euro eskualdeko gobernantzaren parte hartzaileak: https://www.euroregion-naen.eu/leuroregion/gouvernance/
20 2014-2020ko plan estrategikoa: https://www.euroregion-naen.eu/leuroregion/plan-strategique-2014-2020/
21 Akzio ardatza: Euroeskualdearen herritartasuna: https://www.euroregion-naen.eu/wp-content/uploads/2020/03/Axes-plan-strat%C3%A9gique-2014-2020-Citoyennet%C3%A9-Euror%C3%A9gionale.pdf
22 Euroeskualdearen aktibitate txostena: https://www.euroregion-naen.eu/wp-content/uploads/2021/03/RA_NAEN_2020_FR_WEB_PAGES.pdf

onartzen dio edozein EAEko hiritarrari, baina espainola jakitea derrigorrezkoa da. Beraz, EAEko edozein biztanleri euskaraz aritzeko eskubidea zor zaiola onartzen du, baina espainola oinarrian da.

Aldez aurretik, Espainiako LGE (Ley General de Educación) ezarri zenean 1970ean, tokian tokiko hizkuntzetan irakasteko aukera ireki zen, eskoletan elebiduntasunari eta murgiltzeari atea irekiz. Horrek deszentralizazio moduko bat ekarri zuen. Eskualdeetako hizkuntzek haien lurraldeetan ofizialtasuna lortzeko baimena ukan zutenetik, euskararen eta euskarazko irakaskuntza modu normalizatu eta arautuan egiten da.

EAE-n, 10/1982ko legeak euskararen normalizatzeko oinarria osatu zuen. Historian lehen aldiz, euskara hizkuntza ofizial moduan onartzen du. Euskara babesteko, indartzeko eta normalizatzeko oinarriak jarri zituen. Euskarak jasandako bazterketaren ondoren eta duen egoera diglosikoari aurre egiteko, Normalizazioaren Legearen helburua, edozein maila edo funtziotan hizkuntza ofizialaren betekizunak bete ditzala da. Horren bidez, legediaren 2. artikuluak euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa dela dio. 3. artikuluaren arabera, euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan. 4. artikuluaren arabera, herri-aginteek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta, inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte. 6. 7. 8. eta 9. artikuluek, herritar guztiek herri administrazioetan, justizia guneetan, erregistro publikoetan eta herri aginteen arau xedapenetan bi hizkuntza ofizialak erabiliak izango direla segurtatzen dute.[23]

Nafarroako Foru Erkidegoan, 18/1986ko legeak euskarari buruzko legeak sortu zituen. 2. artikuluaren arabera, herritar guztiek euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea dute. 5. artikuluak Nafarroa hiru eremutan zatitua dela dio. Eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez euskalduna.

Orduan, 10. 11. 12. 13. 14. 15. eta 16. artikuluen arabera, eremu euskaldunetan, euskara gune, agiri, erregistro publiko eta justizian erabil daiteke. Eremu mistoetan, 17. artikuluaren arabera, euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Nafarroako Administrazio Publikoei zuzentzeko. Eremu ez euskaldunetan, Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei. Administrazio horiek interesdunei gaztelaniara itzultzeko eska diezaiekete edo 9. artikuluan aurrez ikusitako itzulpen zerbitzuak erabili daitezke.[24]

23 https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/euskara_legearen_itzulpen%20berria%20IZO.pdf

24 http://www.navarra.es/NR/exeres/80CF3F15-A9C6-40B2-867B-F7C50905CCD6.htm

## 1.3 Euskararen egoera mugaz gaindi

### 1.3.1 2016ko VI. Inkesta-soziolinguistikoaren emaitzak

2016an Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak egindako VI. Inkesta soziolinguistikoaren emaitzek Ipar Euskal Herrian euskara galtzeko arriskuan dela erakutsi dute, nahiz eta 2011tik aitzina pausu bat izan zen. 2016ean, Ipar Euskal Herriko 16 urtez goragoko hiztunen %20,5 euskaldunak (51.000), %9,3 elebidun hartzaileak (23.000) eta %70,1 erdaldunak (175.000) ziren.[25]




**Irudia 4: IV. inkesta soziolinguistikoa IEH-n**

Euskaldunen kopurua igotzen zen batez ere 16-24 adin tartean. Euskaldun hartzaile kopuruak ere gorakada bat segitzen zuen. Baina Ipar Euskal Herriko euskaldun kopuruak gorakada bat ukan baldin bazuen ere, inkestak erdaldun kopurua igo zela azpimarratzen zuen. Adin tarteek 65 urte baino gehiagokoen artean euskaldun zahar asko eta euskaldun berri gutxi direla erakutsi zuten. Aldiz, 16-24 adin tartean, euskaldun berriak nagusitzen ziren eta eskolaren euskalduntze prozesuak emaitza horiek justifikatu zituen. Baina nahiz eta euskaldun kopurua emendatu, euskararen erabilera apaltzen zen orokorrean:

> "Iparraldean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %18,3k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:
> a. %8,1ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
> b. Aldi berean, %10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Gainerakoek erdara erabiltzen dute beti (%77,2) edo ia beti (%4,5)." *(* VI. Inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016)." VI. Inkesta Soziolinguistikoa.

---

25 https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enquete_sociolinguistique/Ipar_gogoeta_2016.pdf

EAE-n, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %33,9 euskalduna, %19,1 euskaldun hartzailea eta %47 erdalduna zen.[26] :

> "Hiru lurraldeak kontuan hartuz, alde handiak daude batetik bestera. Gipuzkoako biztanleriaren erdia euskalduna da (%50,6). Bizkaian, ordea, biztanleriaren laurdena pasatxo da euskalduna (%27,6). Azkenik, Arabako biztanleriaren bostena da euskalduna (%19,2)."




**Irudia 5: VI. inkesta soziolinguistikoa EAE-n**

EAE-n ere, euskaldunen haztea gazteetatik etortzen zen, nahiz eta lehen hizkuntza EAE-ko hiru lurraldeetan nagusiki erdara izan. Inkesta soziolinguistikoaren arabera, galera handienak adinaren aldetik, 50 urtetik goiti ziren.




**Irudia 6: VI. inkesta soziolinguistikoa EAEn**

Euskararen erabileraren aldetik, inkestaren emaitzak bi faktore azpimarratzen zituen:

26 https://files.eke.eus/pdf/inkesta-soziolinguistikoa-2016.pdf

“Esan daiteke EAEn gero eta pertsona gehiagok erabiltzen duela euskara eta gero eta gutxiago direla erdara hutsean aritzen direnak. Hau da, ahozko euskararen presentzia apurka-apurka gero eta handiagoa da bai familian bai eremu hurbilean, baita eremu formalean ere. Baina, aldi berean,gertatzen ari da euskararen erabilera ez dela euskararen ezagutzaren neurri berean hazten ari. Hau da, euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenen kopurua gero eta handiagoa da, baina euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa duten horien artean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa duela 25 urte baino txikiagoa da gaur egun.”

NFE-n VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an Nafarroan 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %12,9 euskalduna %10,3, euskaldun hartzailea; eta %76,7, erdalduna zen.




**Irudia 7: VI. Inkesta soziolinguistikoa NFE-n**

NFE-n euskaldun kopuru handiena 16-24 urte artekoa zen:

“Euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan, batez ere 16-24koan. Gaur egun, Nafarroan 16 eta 24 urte bitarteko gazteen %25,8 da euskalduna, eta 25 eta 34 bitartekoen %18,8. Adinean gora egin ahala, gutxituz doa euskaldunen ehunekoa.”[27]

Baina eremuen errealitatearen egoera ezberdinek emaitzak ezberdinak direla lurralde batetik bestera azpimarratzen du inkesta-soziolinguistikoak.

Euskararen erabilpenaren aldetik, Inkesta soziolinguistikoak dio:

“Nafarroan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %12,2k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean: a. %6,6k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du

27 https://files.eke.eus/pdf/inkesta-soziolinguistikoa-2016.pdf

eguneroko jardunean.

b. Aldi berean, %5,6k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.

Gainerako guztiek (%87,8) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken hauen artean badela multzo txiki bat (%2,5) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.”

### 1.3.2 Hizkuntzen normalizaziorako bideak

Hizkuntzen botere sinbolikoa erakunde ofizial batzuen bidez eraikia da. Espainian, Real Academia Espaniola 1713an sortu zen. Bere egoitza Madrilen kokatzen baldin bada, erakundea beste munduko 21 akademiei lotua da. RAE-ren helburuak, espainola bere testuinguruari egokitzea, lurralde hispaniko guztietan batasun bat sortzea eta hizkuntza zuzentasun ezaugarriak ezagutaraztea dira. Akademia 46 titularrez, 60 akademia kide espainolez, akademia kide atzerritarrez, amerikar akademia kidez eta ohorezko akademia kidez osatua da.[28]

Frantses[29] akademia 1635ean sortu zen eta bere helburua frantses hizkuntzari ohorezko titulua ematea da. Hiztegia, etimologia eta ortografiari buruzko eztabaidak Frantses akademiaren oinarriak dira. Frantses akademia 40 kidez osatua da, betiko idazkari bat barne. Juridikoki, zuzenbide publikoko pertsona moralaren estatutua du eta Frantses errepublikako lehendakariaren babesa dauka. Akademia lau komisioz osatua da: administratiboa, hiztegia, literatura eta obra sozialen komisioak.

Euskaltzaindiaren egoitza nagusia Bilbon kokatzen da. XIX. mendean sortu eta 1919ean ofiziala bilakatu zen. Euskaraz, hau da, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da. Mintzaira horri buruzko ikerlanak egiten ditu, euskara babestea xedetzat du eta hizkuntzaren normalizazioko arauak eman ditu.[30] Hizkuntza babesteko, garatzeko eta legeztatzeko asmoa du erakundeak. Gramatika, hiztegia eta hizkuntza lantzen dituzte. Euskaltzaindiak lantalde eta batzorde ezberdinak ditu: iker saila, jagon saila, egitura batzorde – egitasmoak, eta egitasmo erakunde saialak. Euskaltzaindiaren antolakuntza hierarkizatua da euskaltzain oso, ordezkari, ohorezko euskaltzain...-

28 https://www.rae.es/la-institucion
29 https://www.academie-francaise.fr/linstitution/lorganisation
30 Euskaltzaindia.eus

en artean. Orotara berrehun eta sei pertsona Euskaltzaindiaren barne dira.[31] [32] [33]

### 1.3.3 Europar testuingurua eta diglosia

#### 1.3.3.1 Europa, hizkuntzak eta generoa

Tesia Europako testuinguruan oinarritzen da, hots mendebaldeko kulturan. Europa ez da homogeneoa eta testuinguru kultural ezberdinak desberdintzen dira.

Bilbaoren (2002; 91.orr) arabera, hizkuntza ez da mezuak komunikatzeko tresna soilik. Talde bakoitzaren arauak eta balio kulturalak hizkuntzaren bitartez transmititzen dira. Talde sentimenduak indartu egiten dira taldekideen erabilerarekin batera eta taldekoak ez diren kideak barne-harremanetatik at gertatzen dira. Hizkuntzak ez dira neutroak eta talde sozialen identitatearekin bat egiten dute.

Euskal eskoletan erabiltzen den oinarrizko tresna pedagogikoa, testuliburua da. Hemen ere, hizkuntzak eta generoak lotura badute. Euskaratutakoetan, euskal kulturari garrantzi gutxi ematen zaio. Kanpoko botere guneetan eraikiak izan diren testuliburuek ez dute euskal hizkuntzari eta kulturari zilegitasunik emanen. Atzerriko curriculumak saihestu behar dira euskaraz ekoiztutako testuliburuak eta literatura sendotzeko. Euskal Herrian sor daitekeen kultura eta irudikapen sozialak transmititzeko aukera agertu behar dira.

#### 1.3.3.2 Diglosia

Lionel Jolyk (2011; 182.orr), Diglosia kontzeptua 1959an agertu zela Fergusonek idatzitako artikulu batean adierazten du. Diglosiaren definizioak bederatzi kontzeptu barnatzen zituen: Funtzioa, prestigioa, tradizio literarioa, ikaste prozesua, normalizazioa, egonkortasuna, gramatika, lexikoa eta fonologia. Daniel Escribanok, (2015; 211.orr) diglosia egoera hori euskara batua eta euskalkien arteko harremanarekin konparatzen du.

31 https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/euskaltzainak/osoak
32 https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/euskaltzainak/ohorezkoak
33 https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/euskaltzainak/urgazleak

Fishmanentzat (1995; 129.orr) diglosia kontzeptu soziolinguistikoa zen. Jendarte batean, hizkuntza bat baino gehiagoren banaketa gertatzen baldin bada, egoera diglosikoa da. Lau egoera desberdintzen ditu:

a) Diglosia eta elebitasun kasuak.

b) Diglosia elebitasunik gabe.

c) Elebitasuna diglosiarik gabe.

d) Ez diglosiarik ezta elebitasunik ere.

Euskal Herriaren kasuan, Escribano (2015) eta Jolyrentzat (2011), egoera diglosikoa gatazkatsua bezala kontsideratua da. Jolyk, hizkuntzen banaketa funtzionalak menderatze fenomeno bat inplikatzen duela dio. Orduan, diglosiak bi bide proposatzen ahal ditu soilik: hizkuntza gutxituaren ordezkapena edo hizkuntza gutxituaren normalizazioa. Horrez gain, prestigioak eta hizkuntza irudikapenak leku handia hartzen du:

> "Jendartean banaketa funtzional hierarkizatua gertatzen bada hizkuntzen artean, egoera hori ezin da izan justua. Behe aldaera baino ez dakiten pertsonek egoera diglosikoa nozitzen dute, besteak baino gutxiago sentitzen dira. Batzuk menderatzaileak dira (A dakitenak) eta besteak minorizatuak, menderatuak (b baino ez dakitenak). Hizkuntza gutxitua baino ez dakitenak alienatuak dira, Bourdieuk aipatzen duen bezala: haien ekintzak menderatzaileen ikuspuntutik ikusten dituzte, adibidez, b hiztunarentzat bere hizkuntza ez da polita, A da polita eta egokia, prestigio handiagokoa. A erabiltzen duena b erabiltzen duena baino inteligenteagoa litzateke... Alienatuak, askotan, beraiek egiten dutena gutxiestera heltzen dira, beren burua mesprezatzera, gorrotatzera: a uto-gorrotoaren gatibu dira. Euskararen historian zehar horrelako adibideak asko dira eta arrazoiak ere anitz." Joly, 2011.

Era berean, Escribanok (2015) jendartean komunikazio funtzio berdinak bideratzeko bederen bi hizkuntza agertzen direnean, hizkuntza gatazka badela esplikatu du. Ondorioz, diglosia ikuspuntu hierarkiko batetik agertzen da. Jolyrentzat (2011), egoera gatazkatsu batean, diglosiarekin bukatu behar da hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko eta jendarte egoera justu batean aitzinatzeko. Hizkuntza plangintzak eta norabide desberdinak estrategiak aipatzen ditu Jolyk diglosiari aurre egiteko.

Euskal Herrian, Txepetxek elebitasun motak sakondu ditu. Hizkuntza arteko diglosia, hizkuntza botere bat dela esplikatzen du (1991). Botere politikoak distortsio sozialean eragiten du, hizkuntzaren komunitatean. Hiru maila desberdinetan eragina duela erakusten du: hizkuntzaren maila, hizkuntzaren komunitatea eta norbanakoaren maila.

- En el plano de la Lengua, donde consiste en una usurpacion de funciones que conduce a la

glotofagia.
- En el plano de la comunidad linguística: como desestructuración sociolinguísticos de sus grupos sociolinguisticos al imponerles un aprendizaje completo de la lengua ajena e impedirles un uso (y por tanto, un aprendizaje) completo de la lengua propia, permaneciendo al mismo tiempo los grupos sociales de la lengua invasora estructurados: esto es, monoglotas de facto.
- En fin, en el plano individual, donde consiste en un bilingüísmo transición (inestable o de extirpación) que culmina en el o en la generación siguiente merced a la quiebra del proceso de transmisión- en la desnativización: esto es, en la exterminación de la identidad linguística de partida.

Baina, Txepetxen arabera, egoera mota horietan, diglosia, ber momentuan, glotofagia edo genozidio linguistikoa da. Elebiduntasuna, hizkuntza ikasketa desorekatua dira. Diglosia hiru mailatan banatu daiteke :

1- Lehen mailako diglosia edo erdi-diglosia/ diglosia-ordea.

2- Bigarren mailako diglosia, funtzioen desmailakatzea hizkuntzaren lurralde batzuetan.

3- Diglosia orokorra edo lurraldeko diglosia. Funtzioen desmailakatzeari lotua da baina ez bakarrik. Hizkuntzen desmailakatzearen konponketa ez da bakarrik hizkuntzari lapurtutako espazioei lotzen : fagozitatutako eremu linguistikoak berrantolatuak dira.

## 2- Hezkuntza sistemak mugaz gaindi

### 2.1 Espainiako Hezkuntza Sistema autonomikoa EAE-n NFE-n

Espainiako Hezkuntza Sistemak Estatu mailako lege nagusi batek arautzen du. Bigarren zehaztapen maila bat dauka, eskumenak dituzten autonomi elkarteetan, haien artean EAE eta NFE-n.

#### 2.1.1 Derrigorrezko irakaskuntza: lehen Hezkuntza eta DBH, EAE-n eta NFE-n

EAE-n eta NFE-n, hezkuntza sistema hezkuntza maila eta curriculumen arabera antolatzen da. Haur Hezkuntzatik hasten da, nahiz eta epe hau derrigorrezkoa ez den. Derrigorrezko ikasketa epea 6-16 bitartekoa da, lehen Hezkuntza 6-12 bitartekoa eta 12-16 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza da. Hau gainditzuz gero, Eskolaratze Agiria lortzen da. Ondoren Batxilergoa edo Lanbide Heziketa ez dira derrigorrezkoak.

EAE-n eta Nafarroan Espainiako LOMLOE (Ley Orgánica por la que se modifica la LOE de 2006) legeak hezkuntza sistemak antolatzen ditu baina autonomia bakoitzak curriculum eta legedia propioa dute lehen hezkuntzan eta DBH-n. Hots, NFE-n, 24/2015 Foru dekretuak (apirilaren 22koak) Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen du[34] eta 60/2014 Foru dekretuak (uztailaren 16koak) Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen du[35]. Bestalde, Euskadin, 237/2015 Dekretuak, (abenduaren 22koak) Haur Hezkuntzako curriculuma zehazten eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen du[36], 236/2015 Dekretuak (abenduaren 22koak) Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehazten eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen du[37], eta 127/2016 Dekretuak (irailaren 6koak) Batxilergoko curriculuma zehazten eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen du[38].

### 2.1.2 Euskara EAE-ko Hezkuntza sisteman

XX. mendetik goiti eta batez ere hirurogei hamarkadatik aitzina euskararen irakaskuntza Ikastolen sortzeekin agertu da. Frankismo garaian, euskara debekatua izan zen baina euskarazko irakaskuntza garatzen hasten zen pixkanaka, etxe eskolen antolaketaren bidez hasieran eta ikastolen antolaketarekin, ondoren (Perez Urraza, 2019). 1970ean LGE ezarri zen, frankismoak zuen egoerari erantzuna eman nahian tokian tokiko hizkuntzei tokia eman zien (Etxeberria Balerdi, 2004; 281-313.orr). Euskal Autonomia Erkidegoan, 138/1983 euskararen erabileraren hezkuntza sistemako dekretuaren arabera, bi hizkuntza ofizialak ikasi behar dira. Horretarako, lau hezkuntza eredu proposatuak zaizkie derrigorrezko ikasketetako lehen mailako eta DBH-ko ikasleei. A ereduak gaztelania erabiliko du komunikazio hizkuntza gisara gai guztietan eta euskara, atzerriko ikasgai bezala irakatsiko da. D ereduan, euskara komunikazio hizkuntza izango da eta gaztelania atzerriko hizkuntza bezala agertuko da. B ereduak gaztelania eta euskara komunikazio hizkuntza bezala erabiliko ditu. X eredua, aldiz euskararik gabeko eredua da eta salbuespeneko kasuetan erabiltzen da. Eredu hori batez ere Euskal Herrian egoten ez direnentzat sortua izan da. Batxilergoa eta lanbide

34 https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0/
35 file:///Users/cash/Downloads/F1410295_LehenHezkuntzako-1.pdf
36 https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf
37 https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf
38 https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/09/1604054e.pdf

heziketetan A/X eredua eta D eredua proposatuko dira.[39] EAE-n eta Nafarroan, Espainia osoan bezala, ikastetxeak pribatuak edo publikoak dira. Pribatuen artean, gehienak itunpekoak dira hau da, derrigorrezko ikasketak, 6-16 bitartekoak, gobernuak ordainduak dira. Ikastolak eta eskola kristauak nagusiki pribatuak dira baina itunpekoak dira gehienak, hots, Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen ditu derrigorrezko ikasketak 6-16 urte bitartekoak.

| | Guztira | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | A eredua | B eredua | D eredua | X eredua |
| **Euskal AE** | **380.697** | **55.259** | **67.449** | **255.763** | **2.226** |
| Haur-hezkuntza | 78.045 | 1.794 | 12.210 | 63.669 | 372 |
| Lehen hezkuntza | 128.231 | 4.222 | 24.618 | 98.360 | 1.031 |
| Haurlehen hezkuntza berezia | 496 | 291 | 42 | 163 | - |
| Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH) | 87.410 | 5.407 | 19.357 | 62.086 | 560 |

**Irudia 8: Eskola ereduak EAEn**

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika abenduaren 2020a[40]

Eskola pribatu eta publikoen emaitzak ikusiz, 2020-2021ean, ikasle gehienek EAE-n D eredua segitzen dute. Ondotik, B eredua agertzen da eta bukatzeko A/X ereduak azaltzen dira.

### 2.1.3 Euskara NFE-ko Hezkuntza sisteman

Nafarroan, euskarari dagokion legedia EAEkoaz desberdina da. 1986an Nafarroako Legebiltzarrak Euskararen Foru legea onartzen du baina euskararen ofizialtasuna eta hezkuntza sistemaren eraldaketa ez da Nafarroa guztian egiten. Eskoletan euskara irakasteko oztopoak agertzen dira, UPN unibertsitatean barne[41]. Nafarroan erabiltzen diren hizkuntza ereduak EAE-koak bezalakoak dira, baina erabiltzeko eskubidea eskualdeak, hots irizpide geografikoak arautzen du.[42]

39 DECRETO 138/1983, de 11 de Julio, del Departamento de Educación y Cultura, *por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria en el País Vasco*
40 https://eu.eustat.eus/elementos/ele0002400/ti_Alumnado_matriculado_en_ensenanzas_de_regimen_general_no_universitarias_en_la_CA_de_Euskadi_por_territorio_historico_y_nivel_de_ensenanza_segun_titularidad_del_centro_y_modelo_linguistico_Avance_de_datos_2017-18/tbl0002427_e.html
41 Iritzi bilketa, *Euskararen egoera Nafarroan,* 2003ko martxoa-apirila 135. zenbakia
42 https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos

Eremuen arabera, proposatutako ereduak ezberdinak dira. Eremu euskaldunetan A, B eta D ereduak daude. Eremu mistoetan A, B, D eta G ereduak eta eremu ez euskaldunetan A, D eta G ereduak dira. 2015eko martxoaren 10eko 4/2015 Foru Legeak, 18/1986 Euskararen Foru Legea aldatzen du: D ereduko erreferentziazko ikastetxeak onartzen dira eremu ez euskaldunetan.[43] 2005 arte ikasleen gehiengoak G ereduan ikasten zuten, baina G ereduak beherakada erakusten duen bitartean, A eredua egokituz zioan, eta B eredua oso ahula izan zen beti. Ibilbide honetan D eredua etengabeko gorakadan agertzen zen. 2015eko legeak planteatu zituen aldaketen ondorioen informaziorik ez da agertu.

### 2.1.4 Frantziako hezkuntza sistema: Derrigorrezko irakaskuntza

Frantziako hezkuntza sistema hiru mailatan zatitua da: eskola, kolegioa eta lizeoa. Derrigorrezko irakaskuntza eskolan 6 urtetik 11urte arte doa. Ondotik, kolegiora doaz 11 urteko haurrak lau urtez (seigarrena, bosgarrena, laugarrena, hirugarrena). Hirugarrenaren bukaeran, ikasleek brebeta pasatzen dute. Lizeoak, hiru urtez ikasleak batxilergo orokor, profesional edo teknologikorako prestatzen ditu, kolegioaren ondotik.

Ipar Euskal Herriko irakaskuntza sistema frantziarra da eta haren legediak segitu behar ditu. Programak frantses estatuarenak dira eta baitezpadakoak dira ikastetxeetan. Irakaskuntza ziklotan eta konpetentzien arabera antolatua da (Lehen zikloa: ama eskola. Bigarren zikloa : CP, CE1, CE2. Hirugarren zikloa : CM1, CM2, 6. Laugarren zikloa : 5, 4, 3).

### 2.1.5 Euskararen irakaskuntza frantses sisteman

Frantses lurraldean, euskararen irakaskuntza ez da derrigorrezkoa. Hiru eredu proposatuak dira: eredu elebakarra (frantsesa) eredu elebiduna (frantsesa eta euskara baina ordu parekidetasunik ez) eta murgiltze eredua, Ikastola sisteman proposatua dena. Molac legeak eskola publikoetan murgiltzea proposatzen zuen eta parlamentuak alde bozkatu zuen, baina, gobernuak eta konstituzio kontseiluak artikulua zentsuratu zuten 2021ean Seaska eta ikastolak lanjerrean emanez.[44] Seaskaren estatutua berezia da: frantses gobernuarekin kontratupeko eskola laikoa da. Pribatua da eskola giristinoak bezala.

---

43 http://www.soziolinguistika.eus/node/3160
44 https://www.kazeta.eus/eu/info_kz/20210521/eneritz-zabaleta-zinez-gerla-deklarazio-bat-da

EEP-k frantses Hezkuntza Nazionalarekin hitzarmenak sortzen ditu hizkuntzaren garapenerako. 2004ko hitzarmenak, irakasle euskaldunen postuen irekiera eta inspektore eta konkurtsoak antolatzen zituen[45]. Bestalde, Ikas zerbitzuak ere, 2010tik elkarlan bat eramaten du frantses Hezkuntza Nazionalarekin. 2014ean, EEP eta Frantses Hezkuntza Nazionalaren rolak berriz definituak izan dira.[46]




**Irudia 9: Eskola ereduak IEH-n**

Iturria: Euskarazko eta euskararen irakaskuntza: 2004-2019 arteko bilakaera irakaskuntza orokorra

Sail elebidun eta murgiltze sailak kontuan hartuz, elebiduntasunak gorakada handi bat segitu duela nabarmendu du EEP-ko txostenak, batez ere kolegioetan. Baina, ikasleen gehiengoak eredu elebakarran murgiltzen da.[47]

Eskoletan elebiduntasuna bermatzeko, lau elkarte aipa daitezke Ipar Euskal Herrian: lehenik, Ikastolen sarea, Seaska, gurasoek antolatutako elkartea. Eskola publikoan bi guraso elkarte elebitasuna aldarrikatzen ari dira: Biga Bai eta Ikas Bi. Ikastetxe giristinoetan, Euskal Haziak, gurasoek sortutako elkartea dago.

45 https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/CONVENTION_CADRE_EN-CG64_26112004.pdf
46 https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/EEP-IKAS_hitzarmen_gehigarria_2014_izenpetua.pdf
47 https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/Prentsaurrekoak/2019/2019ko_eskola_sartzearen_bilana_eta_bilakaerak_20191210.pdf

Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolen elkartea, 1969an guraso batzuek Arrangoitzen sortu zuten. Haren helburua familia erdaldun edo euskaldunengandik etortzen ziren haurrei euskara murgilketan den eskola bat proposatzea zen. Seaskaren metodologiak eta pedagogiak, berritzaileak ziren eta haur elebidun orekatuak sortzeko misioa zuten. Frantses gobernuaren legeen arabera, Seaska, ikastola laikoen elkartea da eta estatuarekin kontratu peko eskola pribatua da. 1982ko uztailaren 1ean, Kultura ministerioak eta Seaskak lehen hitzarmena izenpetzen zuten. 1983an, hiru urteko hitzarmena izenpetua zen Seaskak urtero diru laguntzak eskuratzeko eta hezkuntza ministerioarekin Pedagogia Batzordea sortzen da eskola segitzea segurtatzeko. Baina 1994 itxaron behar da Ikastolak, kontratu peko eskola pribatuak bezala kontsideratuak izateko[48]. Ikastolak estatuaren kontrolpean mantenduak dira eta diru laguntza publikoak eskuratzen dituzte.[49] Oraindik frantses estatuak Ipar Euskal Herriko ikastolei diru laguntza batzuk segurtatzen dizkie irakasleentzat baina ikastolek diru iturri bat atzeman behar dute haien egoitzentzat, besteak beste. 2017-2018 ikasturtean, hogeita hamabi lehen mailako ikastola, lau kolegio eta lizeo bat baziren. Guztira, 3400 ikasle inguru ikastolan ziren Ipar Euskal Herrian. Seaskak eta Hezkuntza Nazionalak hitzarmen bat izenpetu zuten 2019-2022 tartearentzat. Helburua Seaskari emandako laguntzak neurtzea da (irakasle, tresnak, zuzendaritza, ikasleak...)[50] Seaska Ikastolen konfederazioen barne da. Euskal Herriko ikastola guztiak (Nafarroa, Euskadi barne) integratzen ditu[51] eta hezkuntza eta hizkuntza eredu komun bati erantzuten diote.

Biga bai eta Ikas Bi guraso elkarteek elebidun sailak bermatu nahi dituzte eskola publikoetan. FCPE frantses lurraldeko eskola publikoko buraso elkartearekin bateragarri dira[52]. Elkarteek eskola elebidunak babesten dituzte. Lehen mailako ehun eta bi eskolek sail elebiduna proposatzen zuten 2017an. Hamarretik zazpi ikasle publikoan eskolaratuak ziren Ipar Euskal Herrian, batez ere lehen mailan. Eskola publiko batzuetan, ikasleek ordu parekidetasunean ikasteko aukera dute. 15 kolegiok eta 5 lizeok elebidun sarea proposatzen dute publikoan eta helburua ahal bezainbat gai euskaraz irakastea dute, hor ere parekidetasunera iristeko. Guztirat, 6200 ikasle inguru sare publiko

48 https://seaska.eus/eu/historikoa
49 https://www.education.gouv.fr/les-etablissements-d-enseignement-scolaire-prives-2942
50 Hezkunde Nazionaleko Ministeritzaren, Seaska federazioaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmena
51 https://ikastola.eus/erakundea/organigrama
52 https://www.sudouest.fr/2012/09/12/ils-veulent-nous-monter-les-uns-contre-les-autres-818277-4054.php?nic

elebidunean dira[53]. Bi guraso elkarteek sare elebiduna kudeatzeko helburua dute: Biga bai elkartea 2003an sortu zen eta egoitza Bidarten du. Elebidun publikoaren burasoen elkartea da. Biga Baiek EEP-ren sustengua du. Ikas Bi, guraso eta irakasleek sortu zuten 1986an. Haien helburua elebiduntasuna eta euskararen garapena Euskal ikastetxe publikoetan eta Euskal Herrian orokorrean da. Ikas-Bi-ko burasoak 60 eskola baino gehiagoko administrazio kontseiluetan edo eskola kontseiluetan elkartzen dira gurasoen hitza ezagutarazteko, irakasleekin harremana egiteko edota euskararen irakaskuntza kalitatea zaintzeko.

Euskal Haziak, guraso, irakasle eta eskola giristino elebidunen zuzendarien elkartea da Ipar Euskal Herrian. 1967an, lehen ama ikastola elebiduneko klasea ireki zen Baionako eskola katoliko batean. 1983an, Euskal Haziak federazioa sortu zen, eskola pribatuetan euskal kultura eta hizkuntza bermatzeko helburuarekin. Ikastetxe pribatuen sareak, 32 lehen mailako eskola pribatu, hamabi kolegio eta zazpi lizeo batzen ditu. 2011an, lehen mailako eskola pribatuetan 4200 ikasle ziren eta haietariko 1920 sail elebidunean ziren, kolegioetan %26 eta lizeoetan %7. Euskal Haziek partaide ezberdinak dituzte: katolikoa, elizbarruti zuzendaritza edota EEP-ren diru laguntzak[54].

2004tik, Hiru Saretak elkarteak[55] Biga-Bai, Seaska eta Euskal Haziak elkartzen ditu. Plataformaren helburua euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintza zabaltzea eta sistematizatzea da. Ikastetxeetan euskararen presentzia balorean eman nahi dute eta Frantses Hezkuntza ministerioarekin harremanetan sartzen dira.

IKAS erakundeak rol nagusi bat jokatu zuen euskararen normalizazioaren bidean. 1901eko legearen arabera, diru helbururik gabeko elkarte bat da. 1996tik pedagogia zentro bat da. Ikas 1959ko agorrilaren 27 eta 28an Baionako Euskal Museoan sortu zen. 200 irakaslek parte hartu zuten Deixonne[56] legearen ildotik. Lege honek Frantziako bertako hizkuntzei (euskara barne) irakaskuntzan toki bat ukateko aukera ematen zien. Euskalgintza elkarteak, UEU sortu zuen.[57] 1980 hamarkadan "euskaraz bizi" ikus – entzuneko metodologiak sortu zituen ikasleak euskalduntzeko. 1997an IKAS berritua izan zen, frantses CRDP (Centre Régional de Documentation Pédagogique[58]) funtzioa ukan

53 https://www.ikasbi.com/?page_id=882
54 https://euskalhaziak.eus//
55 https://web.archive.org/web/20091012110735/http://www.hikhasi.com/artikulua/956
56 https://web.archive.org/web/20061117045008/http://www.languefrancaise.net/dossiers/dossiers.php?id_dossier=45
57 http://www.ikas.eus/?lang=eu
58 https://eduscol.education.fr/sigles/crdp-1

zezan (Eraso, Dufeau, 2019). 2010etik, EEP eta Hezkuntza Nazionalaren babespean da. 2021ean elkarte buru bat eta zortzi kide ziren[59]: bi ordezkari sare bakoitzetik (sare publikotik, sare pribatutik, ikastolen saretik eta beste bi AEKren izenean). Lau kidek burasoen taldea, sare publikoa, sare pribatua eta ikastolen sarea ordezkatzen dute. Bi kide kultura eta hezkuntza alorren ordezkari (barne Uda Leku) dira. Euskal Ikasketetako hiru kide[60] daude. IKER[61]- Euskal hizkuntza eta testuen ikerketa zentroa, CNRS-eko tutoretzapean – zentroko eta Euskaltzaindiko ordezkari bat da. Eskubidezko bi kide, erakunde publikoen ordezkari dira: Akademiako errektorea eta Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria (boz kontsultatiboa izanik).[62] Lan taldean, bederatzi pertsona dira. Haien hitzarmenaren arabera, Euskal Pedagogia Zerbitzuaren helburua, ikas material zerbitzua eta lau sareen (eskola publikoa, pribatua, ikastola eta AEK) federazio egituratzea da.

### 2.1.6 Euskal Herriko euskarazko eta euskarako goi mailako ikasketak

#### 2.1.6.1 Unibertsitate publikoak

Euskal Herriko Unibertsitatea, 1980an sortu den unibertsitate publikoa da. Unibertsitate handiena da, hogei zentro ditu (Ezkurdia Arteaga, 2019) Euskadiko lurraldeetan kokatzen da eta Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian bere campus ezberdinak ditu. Guztira zazpi konta daitezke (Gasteiz, Bilbo, Leioa, Portugalete, Donostia, Eibar eta Elgoibar). Orotara, 4900 irakasle, 1700 langile eta 48.700 ikasle baziren 2019an. Unibertsitateetan doktorego diplomaraino joan daiteke, lizentzia eta masterretik pasatuz. Euskarak toki garrantzitsu bat badu EHUko Unibertsitateetan, ikasketa gehienak euskaraz egin daitezkeelako. Laurogeita hamazazpi graduko ikasketen artean, laurogeita hamaseiek euskara integratu dute eta falta direnak euskara hutsean eskaintzeko bidean dira. Euskaraz ikasketak egiten baldin badira, ikerketa arloan ez da oraindik oinarrizko hizkuntza (Ezkurdia Arteaga, 2019)

1987an, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPN/NUP) sortu zen. Egoitzak Iruñean eta Tuteran ditu. Errioxa, Lleida eta Zaragozako unibertsitateekin, Bikaintasun Campusa osatzen dute. 23 gradu desberdin proposatzen ditu. Nafarroako gobernuak, NUPek euskarazko formakuntza batzuk proposatzen ditu, bere katalogoaren %10. Baina ez da euskal literatura edo filologiarik, nahiz eta ikasleen %33 euskalduna izan[63]. Ezkurdia-Arteagaren arabera (2019), irakasleen %15k euskaraz

[59] http://ikas.eus/spip.php?article2827&lang=fr
[60] Département inter unibersitaire d'études basques: https://www.u-bordeaux-montaigne.fr/fr/formations/offre-de-formation-2016-2020/master-XB/langues-litteratures-et-civilisations-etrangeres-et-regionales-LL.10/master-etudes-basques-MJI16_216.html
[61] https://www.iker.cnrs.fr/
[62] http://www.ikas.eus/spip.php?article2827&lang=eu
63 http://www.unavarra.es/sites/estudios/

kurtsoa eramateko gaitasuna dauka, %10k baino gehiagok euskaraz zerbait daki eta %75k ez daki ezer euskaraz.

Baionan, euskal ikasketak egin daitezke Ipar Euskal Herrian. Lizentzia Paueko (UPPA) fakultateko ardurapean da eta Masterra Bordeleko fakultateko ardurapean (Ezkurdia, 2019). Euskara lehen katedra 1948an antolatu zen Bordeleko (Bordeaux Montaigne) unibertsitatean. Euskal ikasketen diploma sakondua edo Euskal ikasketen doktorego bat egiteko aukera ematen zuten. 1969tik goiti, *Literatura, hizkuntza eta euskal zibilizazio* ikasketak egiteko aukera ematen zuen lizentziaren bigarren zikloan. 1970an, Paue eta Aturriko Herrialdeetan euskara opzioa irakatsia zen. 1981an, euskarako ikasketen elkartea Baionan (ACIEB) sortu zen lehen euskarako ikasketak bermatzeko Baionan. 1983an, ERA ikerketa taldea sortu zen Bordele Montaignen, 1999an, Iker bilakatuko zena. UPPA eta Bordele Montaignek hitzarmen bat izenpetu zuten 1986ean: Baionako fakultatean euskarako ikasketak egiten ahal ziren. Bordele eta Pauen, opzioak egin daitezke. 1989an DEUG, Lizentzia eta Maitrise diploma nazionalak euskal ikasketetan integratu ziren. Bide beretik, 1992-93 ikasturtean euskarako CAPES-a agertu zen. 2008an, euskarako ikasketek eta IKER-UMR-ak, Aturriko campusa integratu zuten.[64] 2019an euskal agregazioa sortu zen. Bere terminologia "*Frantziako hizkuntzen Agregazioa*" da.

2.1.6.2 Unibertsitate pribatuak

Deustoko unibertsitatea 1870ean sortu zen. Unibertsitate pribatu eta giristinoak, ekonomia, ingeniaritza, psikologia eta hezkuntza, euskal filologia, teologia, jendarte eta giza zientziak eta zuzenbidearen graduak proposatzen ditu.

Universidad de Navarra 1952an sortu zuen, OPUS DEI buruko Escriva de Balaguerrek. Egoitza Iruñean du eta bertan 42 gradu ezberdin ikas daitezke. Euskarako ikasketak egin daitezke: Euskal ikerketa diploma, Euskal hizkuntza eta kultura karrera sortuak izan dira.

Mondragon Unibertsitatea 1997an sortu zen eta Mondragon kooperatiben inguruko ekimena da. Lau fakultate ditu unibertsitateak: Goi eskola Politeknikoa, Enpresagintza fakultatea, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea, Gastronomia Zientzien fakultatea. Formakuntza gehienak

64 https://www.iker.cnrs.fr/-historique-.html

euskaraz proposatuak dira baina Gastronomia, Buisness Data Analytics bezalako ikasketak gaztelaniaz edo ingelesez dira.

### 2.1.7 Frantses eta espainiar estatuek eraikitako irakasleen formakuntzak eta generoa

#### 2.1.7.1 Euskadi eta espainiar lurraldeko hezkuntza legeak

Espainiar lurraldean, Frankismoak euskara eskoletan debekatu zuen. 1960ean, ikastolak sortzen ziren eta euskarari aitzina pausu bat emateaz gain, formazio eta erreferente ezberdinei buruz gogoeta bat hasi zen (Ariztizabal). Ber maneran, eskola publikoak 60 hamarkadan pixkanaka misto bilakatu ziren. Ikastolak, aldiz, hasieratik mistoak dira, Montessoriren eredutik edanda.

1990ean, LOGSE legeak pertsonaren garapen integrala helburu bezala finkatu zuen:

> "Helburu horrek Eskola Hezkidearen xede nagusiarekin bat egiten zuen: pertsonaren garapen partzialari mesede egiten zioten estereotipo sexistak gainditzea, pertsona bakoitzaren garapen globalari lagundu ahal izateko, betiere norberaren sexu, adin, etnia,… desberdintasunetik abiatuz, baina kulturalki ezarritako estereotipoetatik aldenduz. Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planean eta LOGSE-n planteatutako neurrietan oinarrituz, Hezkuntza Sailak Hezkidetzarako Aholkularitza sortu zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan." (Aristizabal Llorente, P, 2010)

2006ean, LOE legea sortu zen. Hemen, gizon eta emazteen arteko eskubideen berdintasunaren garapena aipatua da.

2007ko martxoaren 22an emazte eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lege organikoak, heziketa berdintasunean oinarritzen du.

> "El sistema educativo incluirá entre sus fines la educación en el respeto de los derechos y libertades fundamentales y en la igualdad de derechos y oportunidades entre mujeres y hombres. Asimismo, el sistema educativo incluirá, dentro de sus principios de calidad, la eliminación de los obstáculos que dificultan la igualdad efectiva entre mujeres y hombres y el fomento de la igualdad plena entre unas y otros."[65]

Gisa berean, legeak irakasleen formakuntza genero berdintasunean oinarritzea gomendatzen du:

---

65 https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-6115-consolidado.pdf

> “Horrez gainera, historian lehenengo aldiz, irakasleen hasierako eta etengabeko formazio ikastaroetan eta programetan, berdintasunaren printzipioa ikasi eta aplikatu behar direla zehazten du legeak” (Aristizabal Llorente, 2010.

2014ean LOMCE legeak atzerakada bat erakusten du: irakaskuntza segregatuak onartu egiten dira. 2020ko LOMLOE legeak genero berdintasuna bermatzeko eta generoen bortizkeriari buruzko prebentzioa egiteko asmoa du. Horrez gain, irakasleei ikasleen eta jendartearen aldaketekiko malgutasuna eskatzen deo. LOMLOE legeak irakasleen formakuntza berrikustea proposatzen du:

> “La formación profesional es también objeto de varias revisiones, con dos finalidades; una de ellas, la mejora en el reconocimiento social de los itinerarios formativos de formación profesional, para aproximarnos a las tasas de alumnado que opta por esta vía en el resto de los países europeos; la segunda, la flexibilización de las enseñanzas y la agilización de los procesos de incorporación de nuevos contenidos.”[66]

### 2.1.7.2 Frantses Hezkuntza Nazionaleko legeak eta generoa

**Taula 1: Generoaren inguruko legeen ibilbidea eskoletan Frantzian**

| Data | Lege mota | Legea |
|---|---|---|
| 1978 abenduaren 28a | Haby Legea[67] | Berdintasunaren alde, mutiko eta nesken arteko mistotasun behartua lehen eta bigarren mailan. |
| 1982ko uztailaren 22a | Agerkari ofiziala[68] | Irakasleak bere praktiketan berdintasunaren alde borrokatu behar du pentsaerak aldarazteko. |
| 2008ko apirilaren 10a | Agerkari ofiziala[69] | Irakaslea bortizkeria eta diskriminazio guztien kontra aritu behar da, batez ere homofobiaren kontra. |
| 2009 | Sarrerako agerkari ofiziala[70] | Sexismoa eta homofobia salatuak dira baina, ez dira “neskak” eta “mutikoak” ezberdinduak. Biktima guztiak kontuan hartuak dira, batez ere homosexualak. Irakasleen rola ere oroitarazten da, ikaslea babesteaz gain, kontzientzia harrarazi behar dio. |

66 https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2020-17264
67 https://www.education.gouv.fr/loi-ndeg75-620-du-11-juillet-1975-relative-l-education-3716
68 https://www.legifrance.gouv.fr/loda/id/JORFTEXT000000504203
69 https://www.education.gouv.fr/bo/2008/15/default.htm
70 https://www.education.gouv.fr/bo/2009/21/mene090xxxxxc.html

| | | |
|---|---|---|
| 2010 | Agerkari ofiziala[71] | Diskriminazio guztiak (sexu estereotipoak barne) aipatuak dira, baina ez dira argiki izendatuak. |
| 2011 | Agerkari ofiziala[72] | Estereotipo eta bortizkeria sexisten kontra borrokatzea adierazia da. |
| 2012 | Agerkari ofiziala[73] | Neska eta mutikoen arteko berdintasuna bizi araztea agertzen da. |
| 2013 | Agerkari ofiziala[74] | Diskriminazio forma guztiak borrokatu behar dira. Hiru ardatz nagusitzen dira: arrazismoa, homofobia eta neska eta mutikoen arteko promozioa. |
| 2014 | Agerkari ofiziala 75 | Ez da neska eta mutikoen arteko promozioa aipatzen, "sexismo" hitza aipatua da. |
| 2015-2016-2017 | Agerkari ofiziala[76] | Diskriminazio guztiak salatuak dira. Arrazismoa eta antisemitismoa izendatuak dira. |
| 2018-2019 | Agerkari ofiziala[77] | Elkarrekin bizitzeko plazeraren lantzea eta bestearen errespetua aipatuak dira. Sexismoa eta homofobia ez dira aipatzen. |

Ranchonen lanak, (2016) agerkari ofizialetan, heterosexualak ez direnentzat tolerantzia galdetzen dela, baina legeak ikuspegi heterosexual batetik eraikiak direla adierazia da. Gainera, mutiko eta nesken arteko berdintasunari buruzko gogoetak, frantses estatuaren etorkizun ekonomikoarentzat interesak baditu. Ikasleei formakuntza berdina eskainiz, orientazio aukera berdinak proposatzeko asmoa du frantses estatuak. Lanbide orientazioak bi sexuei zuzenduz, langileri aniztasun handiagoa ekartzen du, zahartzen den jendarte batean. Orduan, irakaslearen lanbidea etikoa izan behar da. Baina bere funtzioa praktikoa da, mundu profesionalean dituen ondorioak aurreikusten direlako (Ranchon, 2016).

#### 2.1.7.3 Frantzian irakasleen formakuntza eta generoa

71 https://www.education.gouv.fr/bo/2010/11/mene1006812c.htm
72 https://www.education.gouv.fr/bo/2011/18/mene1111098c.html
73 http://www.education.gouv.fr/pid25535/bulletin_officiel.html?cid_bo=59726
74 https://www.education.gouv.fr/bo/13/Hebdo15/MENxxx.htm
75 https://www.education.gouv.fr/bo/14/Hebdo21/MENE1411580C.htm
76 https://www.education.gouv.fr/bo/15/Hebdo22/xxx.htm
77 https://www.education.gouv.fr/circulaire-de-rentree-2019-les-priorites-pour-l-ecole-primaire-5291

Frantziako legeen arabera, irakasle berriak bere ikasketetan zehar, mutiko eta nesken arteko berdintasunaren sentsibilizazioak segitu behar ditu. ( Bousquet D, Vouillot F, Collet M, Fourtic Y, 2016)

> “ Les écoles supérieures du professoraet de l’éducation exercent les missions suivantes :« (...) Elles organisent des formations de sensibilisation à l’égalité entre les femmes et les hommes, (...)»”

Baina errealitatean, akademia batetik bestera, formakuntzak ez dira berdinak eta irakasle guztiek ez dute ibilbide berdina:

> “Principaux résultats quantitatifs du baromètre pour l’année 2014-2015 : La moitié des ESPE répondantes (12 sur 24) considère avoir formé la totalité de leurs étudiant.e.s 1 sur 3 déclare, en dépit de l’obligation légale, ne pas former la totalité de leurs étudiant.e.s (...)1 sur 2 propose un module dédié à la question de l’égalité filles-garçons. (...) Le volume horaire annoncé pour la formation est très variable d’une ESPE à l’autre : entre 2 heures et 57 heures annuelles en 2014-2015.” “Obstacles: Manque de prise de conscience des inégalités persistantes ; Manque de partenaires/chercheur.euse.s identifié.e.s sur le territoire ; Multiplicité des entrées à traiter et priorité donnée à la laïcité ou la lutte contre les discriminations.”

Frantses Hezkuntza Nazionalarentzat,[78] bigarren mailako irakasleak misio eta konpetentzia anitzak ditu. Irakasle lanaren oinarrian, frantses estatuaren baloreen ezagutzak eta pedagogia/didaktikari lotutako ezaugarriak izan behar dira.

Ikasleak eta haien ikasteko prozesua aipatuak dira. Hots, haurraren, nerabearen eta heldu gaztearen oinarri psikologikoa menperatzea, ikasketa prozesu eta mekanismoak jakitea eta irakaskuntzaren dimentsio kognitibo, afektiboak eta harreman dimentsioak ezagutu behar dira. Irakaskuntza ikasleen aniztasunari egokitu behar dira. Elbarrituak diren ikasleak, egoera zailak eta eskola uzten duten ikasleei erreferentzia egiten da.

Irakasleek, ikasleak haien formakuntzan laguntzen dituzte. Heziketa eta pedagogia ibilbideak sortzen, kultura, ezagutza eta konpetentzia komunak pasarazten dituzte. Horrez gain, kontseilu ezberdinetan parte hartzen eta irakasle desberdinen artean sekuentzia pedagogiko eta hezitzaileak eraikitzen dituzte.

78 Arrêté du 1er juillet 2013 relatif au référentiel des compétences professionnelles des métiers du professoraet de l'éducation, JORF n°0165 du 18 juillet 2013 page 11994 texte n° 4

Irakasle batek manera etikoan lan egin behar du eta ikasle guztiei behar duten laguntza eman behar die, ez du inor gutxietsi behar, zeharkako heziketetan bere ekarpena egin behar du eta estereotipo guztien kontra mobilizatu behar da. Ikasleak eta neska – mutiko, emazte – gizonen arteko berdintasunaren gaiaren inguruan mobilizatu behar ditu. Ikasleen ongi izatea eta seguritatea bermatu behar ditu eta baztertze eta diskriminazio forma guztiak salatu behar ditu. Arriskutsuak diren jarrerak identifikatu behar ditu, barne araudia errespetatu eta errespetarazi behar du eta ikasle eta familien konfidentzialtasuna errespetatu behar du.

### 2.2 Curriculuma eta hezkuntza sistemak: Curriculumaren definizioa

Curriculuma oinarrizko ezagutzen funtsa da. Europan, curriculuma kultura unibertsalaren erreferentzia da. Ezagutza kulturalak finkatzeaz gain, eduki soziopolitikoen oinarria da. Ezkurdiaren arabera, curriculumaren oinarri-oinarrian lurralde bakarrean biltzen diren herriak berdintzea bultzatzen da, baita klase sozialak eta gizabanakoak (Ezkurdia, 2008). Curriculuma, Estatuak ezartzen duen legea da, zeinaren arabera eskolan ikasten diren guztiak arautzen diren. Irakaskuntzako arlo guztiak lotzen dituenez, orohartzailea da. Hezkuntzaren Soziologiaren arabera, curriculuma eraikuntza soziala da, zeinetan botere harremanak eta ikuspegi ideologiko ezberdinak gurutzatzen diren.[79] Eskolaren bidez, ezagutzak sortzen eta banatzen dira. Curriculuma identitatearen eraikuntzaren parte bat baldin bada, bere edukiak eragina ukanen du maila pertsonalean eta sozialean (Ezkurdia, 2008). Orduan, curriculuma ez da antolakuntza neutro bat: proposatutako ezagutzak talde hegemonikoek hautatutakoak dira eta identitatearen eraikuntzan eragiten du.

Europako Kontseiluko *Guide pour l'élaboration des curriculums et la formation des enseignants*-en arabera, curriculum bat hezkuntza sistema maila ezberdinetan egiten da: maila internazionalean (supra) nazio/eskualde mailan (macro), eskola mailan (méso) klase mailan, irakasle mailan (micro) eta norbanako mailan (nano). Gradu horiek lotuak dira eta kontuan hartu behar dira curriculum bat sortua delarik (Beacco, Fleming, Goullier, Thürmann, Vollmer, 2015; 90..orr). Horrez gain, Curriculumak bi antolakuntza mota ditu: modu segregatua eta integratua. Modu segregatuan, jakintza iturria irakasgaika antolatua da. Frantses curriculumaren eredua da. Aldiz, Espainiar curriculuma modu integratuan antolatua da lehen Hezkuntzako lehen urteetan. Pixkanaka, diziplinek

79 Observatoire éducation et territoire *La question du curriculum?* https://observatoire-education-territoires.com/curriculum/

indarra hartzen dute, DBH modelo honen arabera antolatua da. Modu integratua erabiliz, metodologiaren aldetik malgutasun handiago bat agertzen da modu segregatuan baino. Orduan, frantses eta espainiar estatuek proposatzen dituzten antolakuntza desberdinek botere ideologia ezberdin bat dagoela adierazten dute.

Curriculumak hiru forma hartzen ahal ditu (Perrenoud, 1993):

1) Curriculum formala edo ofiziala, idatzia den curriculumaren segida da. Curriculum formala, hautaketa politiko eta kultural baten ondorioa da, talde hegemonikoek hautatutako ezagutzak biltzen ditu, haren ikasketa derrigorrezkoa da. Beharren arabera aldatzen da, hezkuntza sistemak estatuak planteatu dituen helburuei hobeki erantzuteko. Beraz, curriculum formala programatua da. Estatu eta argitaletxeen beharrei eta irakasleen programazioei eta hautuei erantzun bat ematen die. Curriculum formalak ikasleei modu antolatuan transmititu behar zaiena esplikatzen du eskolako kultura eta analisia normatiboa zabaltzeko. Testu ofizialen bidez, testuliburuak ikasle eta irakasleentzat oinarri didaktikoak dira. Horiek transmisioak kontrolatu, arrazionalizatu eta normalizatu nahi dituzte.

Horrez gain, curriculum formala esperientzia baten ondorioa da. Gertakarien, erakundeen eta beste aktoreen tresna da. Curriculum indartsu batek jakitateen antolakuntzari askatasun gutxi uzten dio:

> "Toutefois, les apprentissages de haut niveau, l'appropriation de connaissances, de représentations, de valeurs, de concepts, de techniques complexes passent généralement par une succession cohérente d'expériences formatrices. C'est cette succession, ce parcours qu'on définira comme un curriculum réel." Perrenoud.

2) Curriculum erreala, bitartekoa da, praktiketatik eta edukietatik kanpo kokatzen da. Curriculum erreala eskolan irakasten dena da, hautu baten ondorioa da. Baliabideei lotua da. Zein baliabide ematen ote da helburu bati erantzuteko eta curriculum formala planteatzeko? Formakuntzen bidez, zinezko hartzaileak kontuan hartzen dira. Curriculum errealak errealitateak nola funtzionatzen duen, ikasleen aktibitateak erakusten ditu. Bizi izan diren esperientzien emaitza da. Curriculum formalari zentzu berriak ematen ahal dizkio, teoria praktikan ematen duelako. Lurraldeen arabera, talde sozialen eta jatorri ezberdinen arabera, Curriculumak ez die ikasle guztiei modu berean eragiten. Mendebaldeko eskolatze masiboak, sozializazio prozesua menperatzeko borondateari erantzun zion. Curriculum errealaren orokortze bat da eta honen funtzioa sozializazio prozesu ezberdinak identifikatzea da.

3) Curriculum ezkutua, curriculumaren funtzionamendu inplizitua da. Curriculum ezkutua ikasia izan denaren emaitza da. Jendartearen dimentsioak berriz bideratzen ditu. Curriculum ezkutuak definizio bateragarri ezberdinak ditu Paunen (2005) arabera: Lehenik, curriculum ezkutua bada. Irakasleek argiki erran nahi ez dutena baina ikasleei transmititzen dietena da. Ondotik, curriculum ezkutua klaseko erritualei, espazioari lotutako arauei, irakasle eta ikasleen jarrerei lotzen da. Bukatzeko, curriculum ezkutua kargu moral bat da, androzentrismoa ahalbidetzeko tresna ikusezina da.

Curriculuma ezagutza metatuen emaitza da eta estatuak ezagutza horiek ordenatzen ditu. Curriculumak, ezagutza hegemonikoak antolatzen ditu (ondare kulturala, generoa, historikoa, soziologikoa...). Hezkuntza transmisioaren partaidea da eta mezulari nagusia, irakaslea da. Orduan, irakaslea ezinbestekoa da curriculuma zabaltzeko. Hezkuntza sistema estatuak egituratzen duenez, irakasleak planifikazioaren kontsumitzaileak baizik ez dira, aplikatzaile hutsak eta teknikoak (Bilbao, 2002). Curriculuma ez da tresna neutroa. Ikasleak bere herritar formakuntzarentzat jakin behar duena da, beraz, curriculumak jakin behar ez diren ezagutzak badirela suposatzen du. Jakitate batzuk besteak baino baliagarriagoak eta legitimoagoak direla agertzen da. Jakitate legitimo horiek sozialki antolatuak dira eta selekzio baten ondorioak dira (Barthes, Alpe, 2013;101-121..orr). Selekzio horiek talde baten interesen arabera egiten dira eta prozesu ideologiko batean parte hartzen dute. Jakitateak interes batzuen arabera erabilgarriak izan daitezke. Ondorioz, curriculuma aztertzean, forma hegemonikoak aztertzen dira eskolan. Dinamika horiek etnia, klase edo genero errealitate sozialen eraikuntzari eragiten dute. Honen bidez, curriculum ezkutuak zabaltzen duen ordena mantendu nahi da eta talde batzuen kapital kulturala eta interesak bermatu nahi dira.

Ezagutza hegemonikoek menpekotasun harremanak islatzen dituzte. Harreman horiek, argitaletxeen diskurtsoetan, proiektu pedagogikoen eta testuliburuen bidez agertzen dira. Curriculum ofiziala eta ezkutua ezberdintzen ahal dira. Curriculum ezkutuak eguneroko elkar-harremanak identifikatzen ditu. Irakasleen testu eta materialen hautuak eta ebaluazio eta planifikazio irizpideen antolaketak, hautu ideologiko eta kulturalen ondorioz egiten dira. (Ezkurdia, 2004; 19-20..orr)

Curriculumaren oinarrian, jendartearen ikuspegi liberala indartua da, mundu guztiaren onurarako adierazia den jendarte egitura da. Baina, askoren askatasuna mugatzen du, hain zuzen, ezagutzen hautu hegemonikoari erantzuten diolako eta bazter uzten dituelako beste hainbat ezagutza ez ofizial, emazteen gaineko ezagutzak edo errealitate soziokulturalak (Ezkurdia, 2004, 19-20..orr). Irakasleek, bi arazo nagusiei aurre egin behar diete (Paun, 2006, 3-13..orr): klasearen eta

curriculumaren kudeaketa, hots, eskolako jakitateen eraikuntza. Irakasleek curriculuma bideratzen dute eta baloreak transmititzen dituzte. Ikaslea hezkuntzaren eta curriculumaren zentroan dago, hark duelako mezua jasotzen (Thomas, Roby, 2008).

### 2.2.1 Espainian curriculum autonomikoa, EAE-n eta NFE-n

Curriculumak, mundializazioaren eraginez, informazioak mundutik herrira jasotzen ditu, hau da, unibertsaletik lokalera. XX. mendearen azken hamarkadaren erditik goiti, berezitasunak kontuan hartzen hasten dira, (Iztueta, 2017, 63-71..orr), baina, estatuek, ez dakite partikularretik abiatuta komuna edo unibertsala nola eraikitzen den. Horrez gain, arazo hori oraindik konplexuagoa da estatu-nazioen menpe diren nazioetan.

Orduan, euskal curriculumaren planteamendua zabaldua da. Baina, oraindik estaturik gabe, ezinezkoa da euskal curriculumari buruz hitz egitea (Iztueta, 2017). Hizkuntza minorizatu baten egoera normalizatzeko, estatu boterearen babesa ezinbestekoa da.

Garagorrik (2006), Euskal Curriculuma lekuan leku eta kultur ezaugarrien arabera desberdina izanen dela adierazten du. EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria lurralde administrazio ezberdinak direnez, kultur ezaugarri eta baldintzak ezberdinduak dira ere. Nahiz eta Garagorrik eta Erriondok euskal curriculumari hezkuntza oinarri berdinak ematen ahal zaizkiola adierazten duten, Estatuaren botere autonomikoa onartzen dute. Beraz, curriculum espainolari euskal dimentsioa erantsi behar zaio. Curriculuma unibertsaletik lokalera eraiki behar dela sinisten dute, ikuspegi autonomikoa da.

"Euskal Curriculumaren esparruak eta dimentsioak bereiztea prozesuaren logika ulertzeko lagungarria izan daiteke, baina errealitatean gauzak askoz ere dinamikoagoak eta sistemikoagoak dira." (Garagorri, 2006)




**Irudia 10: Garagorriren analisia: Mundializazioa curriculumaren eragina euskaran**

Alderantziz, Ezkurdiak, Bilbaok, Perezek eta Izuetak, curriculumaren eraikuntza propioa eta independentea defenditzen dute. Hots, hurbiletik unibertsalera joanez, curriculuma herrian txertatzeko. Estatuaren logika zentralizatuaren kontrako planteamendua da, boterea estatuaren eskuetan egoten baldin bada, ezin da euskal curriculuma sortu errotik.

2.2.1.1 Curriculuma EAE-n, Hizkuntza eta literatura arloak

Euskal Autonomia Erkidegoan, *Hezi Berri 2020* plana planteatua izan zen. Honen oinarrian, Garagorri eta Eriondoren dimentsioen inguruko teoria autonomista agertzen da. Bi zutabetan oinarritzen da[80]: hezkuntza sistemak aurrera eraman dira eta ugari eta arrakastatsuak dira. Eragile desberdinek parte-hartzen dute hezkuntzan hobekuntza, bideragarritasuna eta iraupena bermatzeko. Heziberri 2020 planak hiru egitasmo ditu EAE-rentzat:

- Lehen egitasmoa: hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa;
- Bigarren egitasmoa: Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum dekretuak;
- Hirugarren egitasmoa: Euskal Hezkuntza Legerantz hurbiltzeko urratsak ematea.

Bere dekretu curricularraren arabera, curriculumak alderdi hauek barne biltzen ditu: Errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko ezagutzak, mundura ireki eta beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzeko gaitasunak eta elkarrekin euskal jendarte demokratiko, tolerante eta solidario bat eraikitzeko baloreak. Sortutako curriculumaren helburua, herritar bakoitzak bere gaitasunak garatzea

80 Euskadiko Webgunea

da, sexu, sinesmen, jatorri eta baliabide ekonomikoei garrantzirik eman gabe.

Baina, plana hezkuntza hobetzea baldin bada, ez ditu Ipar Euskal Herria eta Nafarroa bere proiektuan integratzen. Helburua hiru eletasuna sustatzea baldin bada, ez du oinarri orekaturik euskararen garapenean Euskal Herriko lurralde administratibo guztietan (Perez, Ezkurdia, Bilbao, 2020). Egindako egitasmoa egokitzapen autonomikoa izan da, EAEn baina ez Nafarroan ez Iparraldean ez da martxan jarri, ezta kontuan hartu ere.

#### 2.2.1.2 Curriculuma NFE-n, Hizkuntza eta literatura arloak

NFE-n curriculuma [81] 2015eko urtarrilaren 2ko Foru dekretuak zehazten du. Nafarroako Gobernuak curriculuma sortzen du eta ikastetxeek aplikatu behar dute. 5. artikuluaren arabera, ikasleek zazpi gaitasun eskuratu behar dituzte *"edukiak modu bateratuan aplikatzeko haien ahalmenen garapen bezala ulertuta, jarduerak behar bezala egiteko eta testuinguru batean kokatutako problemak eraginkortasunez ebazteko"* Estatu espainolaren legeak moldatzen dituzte, hori legekoa delako.

6. artikuluaren arabera, NFE-ko EAE-n bezala, zazpi gaitasun nagusiak hauek dira:

a) Hizkuntza komunikazioa.
b) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.
c) Gaitasun digitala.
d) Ikasten ikastea.
e) Gaitasun sozial eta zibikoak.
f) Ekimena eta ekintzailetza.
g) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak

Curriculumak genero indarkeria aipatzen du 7. artikuluan: Ikastetxeek, irakaskuntzako programazioen bitartez eta Hezkuntza Departamentuak xedatzen duenaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra eta genero indarkeriaren edota desgaitasuna duten pertsonen aurkako indarkeriaren, indarkeria terroristaren eta indarkeria, arrazismo eta xenofobia forma ororen prebentzioa sustatzen duten balioen garapena bultzatu beharko dute.

### 2.2.2 Curriculuma Frantzian: Estatu zentrala, curriculum bakarra

81 24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

2015eko agerkari ofizialak programak eraberritu zituen ama eskolatik kolegioa arte. Programak ezagutza, gaitasun eta kultura oinarri batzuen inguruan antolatuak dira. Programa horien helburua koherenteagoak eta mailakatuagoak izatea da. Ikasketen erritmo ezberdinetan eta aniztasunean zentratzen da. [82]

Bost ardatz nagusi agertzen dira:

- Langaiak pentsatzeko eta komunikatzeko.
- Metodoak eta tresnak ikasteko.
- Pertsona eta herritarraren formakuntza.
- Sistema naturalak eta teknikoak.
- Munduaren irudikapenak.
- Aktibitate humanoa[83].

Frantses estatuko programak lau ziklotan banatuak dira:

Lehen zikloa ama eskolan da. Helburua ikasle guztien lorpenerako irakaskuntza oinarrizko ziklo bakar bat izatea da.[84] Hiru ardatz nagusitan banatua da:

- Haur txikiei egokitzen den eskola bat;
- Irakaskuntza modalitate bereziak antolatzen dituen eskola bat;
- Ikasleek ikasteko, hobetzeko eta elkarbizitzarako plazera hartzen duten eskola bat;

Bigarren zikloa (CP-CE2) lehen mailan kokatzen da eta oinarrizko jakitateen ikasketen zikloa da. [85]

Lehentasuna, irakurketa, kontaketa, idazkera eta bestearen errespetua dira:

> “Les enfants qui arrivent au cycle 2 sont très différents entre eux. Ils ont grandi et ont appris dans des contextes familiaux et scolaires divers qui influencent fortement les apprentissages et leur rythme. La classe s’organise donc autour de reprises constantes des connaissances en cours d’acquisition et d’une différenciation des apprentissages. Il s’agit aussi de prendre en compte les besoins éducatifs particuliers de certains élèves (élèves allophones nouvellement arrivés, en situation de handicap, éprouvant des difficultés importantes à entrer dans l’écrit, entrant nouvellement à l’école, etc.) qui nécessitent des aménagements pédagogiques appropriés.”[86]

---

82 https://www.education.gouv.fr/au-bo-special-du-26-novembre-2015-programmes-d-enseignement-de-l-ecole-elementaire-et-du-college-3737

83 https://www.education.gouv.fr/au-bo-special-du-26-novembre-2015-programmes-d-enseignement-de-l-ecole-elementaire-et-du-college-3737

84 https://www.education.gouv.fr/programmes-et-horaires-l-ecole-maternelle-4193

85 https://www.education.gouv.fr/programmes-et-horaires-l-ecole-elementaire-9011

86 https://cache.media.education.gouv.fr/file/30/62/2/ensel169_annexe1_985622.pdf

Bigarren zikloa beste lau ardatz nagusitan oinarritzen da: zentzua eta automatizazioaren eraikuntza oinarrizkoak dira. Frantsesa ikasketen tresna zentrala izan behar da. Konkretua eta abstraktua lotuak dira. Ahozkoa eta idatziaren arteko lotura egitea proposatua da.

Hirugarren zikloa indartzeen zikloa da, CM1etik 6.era doa. Ziklo honen helburua, bigarren zikloan ikasitakoa indartzea da. Ikasleak mintzatzera eta komunikatzera bultzatuak dira. [87]
Bost irakaskuntza ardatz dira ziklo honetan:

- Mintzairak pentsatzeko eta komunikatzeko;
- Metodologiak eta tresnak ikasteko;
- Pertsona eta herritarraren formakuntza;
- Sistema naturalak eta teknikoak;
- Munduaren irudikapenak eta aktibitate humanoak.

Laugarren zikloa 5etik 3.era doa eta ikasitakoa sakontzen du.
Ziklo honek hirugarren zikloko bost irakaskuntza ardatzak berriz hartzeaz gain, ikasleen nerabezaroan, konfiantza ingurumen bat sortzea galdetua da:

> "Lors des trois ans de collège du cycle 4, les élèves sont des adolescentes et des adolescents en pleine évolution physique et psychique. Les activités physiques et sportives, l'engagement dans la création d'événements culturels favorisent un développement harmonieux de ces jeunes, dans le plaisir de la pratique. L'élève développe ses compétences par la confrontation à des tâches plus complexes où il s'agit de réfléchir davantage que ce soit en termes de connaissances, de savoir-faire ou d'attitudes. Il est amené à faire des choix, à adopter des procédures adaptées pour résoudre un problème ou mener à bien un projet. Cela passe par des activités disciplinaires et interdisciplinaires. Tous les professeurs jouent un rôle moteur dans cette formation, dont ils sont les garants de la réussite. Pour que l'élève accepte des démarchesoù il tâtonne, prend des i nitiatives, se trompe et recommence, il est indispensable de créer un climat de confiance, dans lequel on peut questionner sans crainte et où disparaît la peur de mal faire."88

Bestalde, ikasleei mintzaira batetik bestera pasatzea galdetua zaie. Medio berriak eta informazioen kudeaketaren ezagutza, abstrakzioa eta modelizazioa, ikasleen sorkuntza, arduren - engaiamenduen zentzua ukatea eta normen errespetua laugarren zikloaren oinarrian kokatzen dira.

Lizeoa (bigarrena, lehena eta terminala) ez da ziklo baten barnean kokatzen, orientazioek

---

87 https://cache.media.education.gouv.fr/file/30/05/0/ensel169_annexe2V2_986050.pdf
88 https://cache.media.education.gouv.fr/file/30/62/8/ensel169_annexe3_985628.pdf

aniztasun bat proposatzen dutelako. Lizeoko programak 2019an berrituak izan ziren, hamar ezaugarritan oinarrituz:

- Kultura literario, historiko, humanista eta zientifiko komun bat eraikitzea.
- Zientzietako programak kontzeptu teorikoetan oinarritzen dira.
- Programek ikasleen sorkuntza, izpiritu kritikoa eta formakuntza zibikoa sendotu nahi dituzte.
- Hizkuntzetan, komunikazio gaitasunak indartu nahi dira.
- Zientzia ekonomia eta sozialen irakaskuntza 2.eko ikasle guztiei zuzendua da.
- Numerikoari toki berri bat ematen zaio.
- Irakaskuntza batzuek ikasgai anitzeko ezagutzak proposatzen dituzte.
- Programek hizkuntzaren menperatzeari eta ahozko garapeneko konpetentziei toki berezi bat ematen diete.
- Programek ikasketaren denbora ezberdinei oreka bat eman nahi diete.[89]

Frantses estatuko curriculum ofiziala helburu komun batzuen gainean oinarritzen da. Alde batetik, ikasle guztiei oinarri komunak proposatu nahi dizkie jendarteko aktore eta biztanle kontzienteak izan daitezen. Frantses hizkuntzaren irakaskuntza eta kulturaren ezagutza oinarrian kokatzen dira eta eraikitako ardatz guztiak frantses herritar idealaren inguruan antolatzen da. Langaiak eta mintzairak aipatzen badira ere, frantsesaren hobetzeari lotuak dira eta atzerriko hizkuntzei atea ireki arren, frantses lurraldeko kultura aniztasunak ez ditu kontuan hartzen. Frantses curriculuma zentrala da eta bere prestigioa eta dirdira programen oinarrian da. Bestalde, nahiz eta herritar kontzientea eta elkarbizitza aipatuak diren, generoen arteko berdintasuna, sexismoa eta irudimen hegemonikoa galdekatzea ez dira aipatuak curriculumean.

#### 2.2.2.1 Hizkuntza eta literatura arloak curriculumean

##### 2.2.2.1.1 Curriculuma eta literatura EAE-n eta NFE-n

Gorago, EAE-n, literatura curriculuma *Hezi Berri 2020* planak segurtatzen duela ikusia izan

89 https://www.education.gouv.fr/les-programmes-du-lycee-general-et-technologique-9812

da. Hizkuntzaren irakaskuntzaren aldetik hiru eduki multzo aipatzen ditu Hezkuntza sailak. "*Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrizketan aritzea"; "Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea"; "Literatura-hezkuntza".* Horiei*, "Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa" eta "Hizkuntzaren dimentsio soziala*" gehituak zaizkie. (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila 2010)[90]

Horrez gain, ikasleak bi hizkuntza ofizialen artean murgiltzen direnez, lau oinarri proposatzen dira eleaniztasunerako:

1-Hizkuntzaren ikaskuntza inklusioaren bidez eginen da ikasle guztiek hizkuntza garatzeko aukera ukan dezaten.

2- Hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarritzen da eta komunikazio kodeak ikasi behar dira.

3- Hizkuntzen irakasteko ikasgelak komunikazio guneak izan behar dira eta parte hartzea zaindu behar da.

4- Hizkuntzen irakaskuntzak hiztunekin jarrera positibo bat suposatzen du, pertsonen emozioen garapenean garrantzia dutelako.

Bestalde, Karmele Perez Lizarralderen (2014) tesiak, EAEko curriculumean genero literarioari buruzko erreferentziak oso gutxi direla adierazten du:

> "Lehen zikloan "Hainbat testu mota (ipuinak, olerkiak, abestiak, errimak, aho-korapiloak, asmakizunak, deskribapenak...) arretaz entzuteko eta gogora ekartzeko interesa izatea" (30. or.), eta bigarren zikloan "Ahozko testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, atsotitzak, asmakizunak..." (31. or.). Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumean, berriz, aipatzen da ikasleek euskal literaturako tradiziozko generoen (lirikoa, narratiboa eta dramatikoa) oinarrizko ezaugarriak ezagutu behar dituztela, bai eta ziklo guztietan ikasleek jakin behar dutela gaiari egokien dagokion generoa aukeratzen edo landutako ahozko zein idatzizko testu-generoak hauteman behar dituztela (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2007a; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2007 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2010), baina ez da zehazten genero zehatzik ezta generoen lanketa zehatzik ere." Perez Lizarralde, 2014.

Orduan, literatura generoen hautua oso zabala da eta didaktika irakaskuntzari begira, curriculumak ez du erantzun argirik eskaintzen (Perez Lizarralde, 2014).

NFE-n literaturari eta curriculumari doakionez, 3. artikuluak, *Gaztelaniazko eta, kasua bada,*

[90] (2010) *Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu currikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan* Eusko Jaurlaritza, hezkuntza saila.

*euskarazko testu eta mezu konplexuak, ahoz eta idatziz, zuzen ulertu eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea* aipatzen ditu. Informazioak xumeak dira eta EAE-ko curriculumean bezala, literatura zer den ez da zehaztua. Alta, ikastetxeek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma aplikatu behar dutela adierazia da 5. artikuluan. Didaktika ez da aipatua.

Orduan, EAE eta NFE-en, curriculumek irakaskuntza zaintzen dute. Baina, xehetasunetan, hutsune bat agertzen da literaturaren irakaskuntzan. Metodologia, tresnak eta didaktika ez dira zehaztuak eta proposatutako testuen irakaskuntza zabalegia da.

2.2.2.1.2 Curriculuma eta literatura frantses lurraldean

Frantses estatuaren programen arabera, ezagutza, konpetentzia eta kultura ezagutzak batuak dira eta bost alor nagusitan banatuak dira: hizkuntzak pentsatzeko eta komunikatzeko, metodologiak eta tresnak ikasteko, pertsona eta herritarraren formakuntza, sistema naturalak eta teknikoak eta munduaren eta aktibitate humanoaren irudikapena.

Euskararen irakaskuntzak, kolegio eta lizeoetan ardatz nagusi batzuei erantzuten die. Hizkuntza guztiek bezala, oinarrizko bost konpetentzia landu behar ditu: *entzutea eta ulertzea, mintzatzea, idaztea, elkarrizketa, hizkuntza baten aspektu kulturalak ezagutzea*. Horrez gain, 2018an, helburu kulturalak sortuak izan ziren maila bakoitzarentzat, gai nagusi baten gainean oinarrituz. 6.ean, *Bidaia* gai nagusia da. 5.ean *eskola eta jendartea da*, 4.ean, *zientzia* eta 3.ean *hizkuntza eta hizkerak* dira. Lizeoan, 2.etik, terminalera: *Mito eta heroiak, Espazioak eta trukeak, Botere forma eta guneak,* eta *Aitzinamendu ideia* dira. Lau gai horiek zeharkatu behar ditu irakasleak, autoreak, irakurketak, eta euskal kulturari lotutako informazio koherenteak proposatuz. Frantses gobernuko programek adibide batzuk proposatzen baldin badituzte, irakasleak bere hautuak egiten ahal ditu. Autore ezberdinak balorean emanak dira programa ofizialetan: garaikideak eta klasikoak.[91]

Frantses estatuak sortutako euskarako kolegio eta lizeoko programetako nozioak kontuan hartuz, 55 obra literario proposatuak dira. Horien artean 44 lizeoan dira eta hamar kolegioan.

Iparraldean euskararen irakaskuntza ez da egituratua. Ez da testuliburjudik oinarri ofizial bezala. Ikastetxe berdinean irakasleek ardatz ezberdinak segitzen ahal dituzte. Ikastetxe batetik

91 https://cache.media.eduscol.education.fr/file/28/37/0/ensel484_annexe5_1151370.pdf

bestera, maila batetik besterat, ikasleek ez dituzte ezaugarri berdinak lantzen, ez delako ibilbide zehatzik. Orduan, autore ezberdinak lantzeaz gain, garai, testuinguru ezberdinak irakasten dira. Ez da kultura literario komunik Ipar Euskal Herriko ikasleen artean.

Gorago ikusi dugun bezala, Hezkuntza Nazionalak, EEP-k eta Ikasek elkarlan bat eramaten dute euskararen eta euskaraz diren gaien irakaskuntza lerrokatzeko. Baina, 2020a arte kolegioan izan diren testuliburuak frantses programen Matematika eta Historia-Geografia-Emz itzulpenak ziren. Lizeoarentzat argitaratu ziren tresnak, lexikoak, ortografia, izen-aditz sintagmak... ziren. 2021ean, ez zen testulibur累rik edo euskara irakasteko metodologiarik argitaratuta bigarren mailan. Horrez gain, frantses Hezkuntza Nazionalak Ikasen lanak diruz laguntzen dituenez, elkarteak sortzen dituen metodologiak ez dira Euskal Herriaren testuinguruari egokituak. Frantses lurralde zentralizatuaren ikuspegia hartzen dute eta frantses curriculuma errespetatzen dute. Euskal curriculumaren proiektutik urrun kokatzen dira.

Testuliburuak eta materiala sortzeko indarrak eginak dira: 2014ean EEP-k 246,124 euroko diru laguntza eman ditu testuliburuak sortzeko. Haien artean, lehen mailarako tresna pedagogikoen itzulpenak sortu dira frantsesetik euskarara (*Pintzel Magikoa, Eskuzorroa, Sagutxo Margutxo, HaraMat CP*) eta euskarako metodologia bat *Euskara metodoa lehen mailan.* Bigarren mailarako, historiako bi testuliburu frantsesen itzulpena (*Historia 4.a* eta *Historia 3.*a) eta *Nerabeen galderak* argitaratu dituzte.[92]

EAE-n ekoiztutako testuliburuak iparraldeko irakasleentzat ez dira egokituak. Espainiar gobernuaren menpe dira. Iparraldeko irakasleek baliatu nahi baldin badituzte, ikasleei eta testuinguruari berrantolatu behar dituzte. Hemen, euskal curriculum nazionalaren beharra agertzen da.

#### 2.2.2.2 Curriculuma, ikaslea eta kultura kontsumo ohiturak

Irakaslea ezagutzen sinboloa da eta ikaslea aldiz, ezagutza formaletaz bete behar dena da. Curriculumaren baloreak transmititzeko, ikaslea pasiboa izan behar da proposatutako ereduak barnatzeko. Bilbaoren (2003) arabera, ikasle eredu hori formalizatuz, indibiduoa jendarteari egokitu beharko da. Curriculumaren bidez, gaztea jendartean integratzen da eta bere ezagutzak ez dira

92 Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuari Buruzko oinarrizko hitzarmena, 2014ko gehigarria.

bakarrik teknikoak eta zientifikoak, kulturalak bilakatuko dira ere. Eskolak ordena soziala berriz ekoizten duelarik, erabaki politikoen ondorioak dira. Orduan, klasean landutako edukiek gazteak eskolako taldean integratzen ditu.

Ikasleei irakatsitakoak haien munduaren irudikapenean eragina du eta jendartean "talde" sentitzeko sentimenduan ondorioak ditu. Ikaskideek kultura erreferentzia komunak dituztelarik, loturak sortzen ditu belaunaldi batean. Eskola eta curriculuma ikasleentzat oinarrizko jendarte eta sozializazio eragilea da. Baina aisialdien aniztasunaren garapenak garrantzia dauka nerabearen eraikuntzan.

Olaziregi Alustiak (1999) 1990-1994 artean EAEko gazteen irakurketa ohiturak zein ziren eta horien bilakaera zein zen aztertu zuen. 1990ean euskaraz astean zenbait aldiz irakurtzen zuten gazteak %18,6 ziren eta 1994ean %25,7. Aldiz, gaztelaniaz irakurtzen zutenak, %30,8 ziren eta 1994ean %32,2. Segitzeko, liburu bat hautatzerakoan, batez ere jendeen iritziei, autoreei edo tituluei ematen zioten garrantzia. Liburuaren itxura eta irakasleen iritziak ziren gutxien kontuan hartu zirenak. Aisialdia aipatzeko, sei aukeren artean, irakurtzea hirugarrenik heldu zen, lagunekin irten, eta irratia eta musika entzutearen ondotik. Telebistak toki asko hartzen baldin bazuen ere, irakurketaren ondotik agertzen zen. Bukatzeko, gazteak literatura irakurtzera nork bultzatzen zituen aztertzerakoan, zundatuen %91,1 irakasleak izendatzen zituzten, gurasoen edo lagunen aitzinean.

Aisialdien aniztasunaren parean, nahiz eta nerabeek geroz eta gutxiago irakurtzen dutela agerrarazia izan den, frantses gobernuaren azterketen arabera (2016), gazteek irakurtzen segitzen dute. Askok ez dutela nahi duten bezain bat irakurtzen diote. Hori beste aktibitateen lehiagatik edo denbora eskasagatik dela aipatzen dute. Zundatuak diren nerabeek gustukoen dituzten jardueren artean zazpigarrena, irakurketa da: telebista ikustea (%92), bideoak ikustea (%88), lagunekin egotea (%87), musika entzutea (%86), kirola egitea (%84) eta Interneten ibiltzea (%84) ondotik. Orokorrean, gazteek 3 orduz baino gutxiago irakurtzen dute aste guztiz frantses ikerketaren arabera. Teknologia berriek eragin bat dute irakurleen gain. Liburuak beste jarduerekin lehia zuzenean sartu dira. Hala ere, irakurketa eta literatura oinarrizko tresnak dira nerabeen ohituretan.

#### 2.2.2.3 Hezkuntza eta Internet

Internet eta irakaskuntzaren arteko lotura hurbila da. GAFAM-entzat, (Google, Apple, Facebook,

Amazon eta Microsoft) hezkuntza diru iturri interesgarria da.[93] GAFAM-ek irakaskuntza ahalbidetzeko sortutako tresnak anitzak proposatzen dituzte. Honen bidez, ikasle, irakasleen datu oinarri erraldoi bat sortu dezakete. Frantses estatuak, hasiera batean, GAFAM-en erabilpena zilegitu 2017an.[94]

> "Les entreprises auront accès aux annuaires des établissements et aux informations nominatives sur les élèves et les enseignants. Elles pourront suivre les déplacements et redoublements des uns et des autres, voir ce que le professeur X utilise comme ressource ou ce que fait l'élève Y. Ces données seront une manne pour le ciblage publicitaire ou pour revendre des informations à des partenaires." Café Pédagogique.

Alta, 2022an, frantses Hezkuntza Nazionalak GAFAM-ak debekatzeko asmoa zuela adierazi zuen. Akademia batzuetan, jadanik GAFAM-en erabilpenak ikastetxeetan mugatua izan dira:

> "Le Directeur des systèmes d'information (DSI) de l'académie d'Orléans-Tours a envoyé le 9 novembre 2022 un courrier à tous les chefs d'établissements pour leur annoncer qu'à partir du 1er janvier 2023 les accès à une longue liste de services et logiciels en ligne seraien t bloqués. Sont concernés » les stockages en ligne hors E.U dont les plus connus OneDrive, Dropbox, Googledrive, iCloud, (remplacé par Nextcloud); les suites bureautique en ligne comme Office365, Google (Docs, Sheets, Slides et Forms) et autres dont l'hébergement des données est hors E.U.; les outils de visioconférence comme Google Meet et Hangouts, Skype, Zoom, (remplacé par BBB); les outils de transfert de fichiers comme Wetransfert, Smash, GrosFichiers, Free Transfert, Dropbox transfert, (remplacé par Filesender et France Transfert); les messageries instantanées comme SnapChat, Whatsapp, Discord, Messenger, (remplacé par Tchap), le service de sondage Doodle, (remplacé par Evento) »." Ben Hamouda.

## 2.3 Testuliburua curriculumaren isla

### 2.3.1 Testuliburua oinarrizko baliabide didaktikoa

Testuliburuak, irakasleei eta ikasleei zuzendutako oinarrizko tresna pedagogikoak dira. Ikasleak eta bere familiak nozio berriak ezagutzeko, ulertzeko eta ikasteko bilduma dauka eta irakasleak kurtsoak prestatzeko laguntza bat du. Ber maneran, irakaskuntzan erabilitako testu liburuek curriculum ofizialari erantzuten diote eta konpetentzia, ezagutza komunak zabaltzen dituzte irakurleei. Horrez gain, testuliburu bati ekartzen zaion artak, ikasteko maila hobetzen laguntzen duela

93 https://www.lafinancepourtous.com/decryptages/finance-et-societe/nouvelles-economies/gafa-gafam-ou-natu-les-nouveaux-maitres-du-monde/
94 https://www.epi.asso.fr/revue/articles/a1706g.htm

frogatua izan da (Seguin, 1989), testuliburuak erreferente dira ikasleentzat.

XIX. mendeko hezkuntza-sistema estatalak sortzean, testuliburuak tresna ideologikoak bilakatu dira. Irakasle eta ikasleentzat eskola-kultura tresnak sortuz, administrazioek jakitate eta ezagutza zehatzak bermatzen dituzte eta beste batzuk, baztertzen dituzte: *"Argitaletxeek curriculum ofiziala interpretatu, birdefinitu, helburuak eta edukiak hautatuko dituztena, eta irakesleek ikasgelan garatzeko prozedurak eta estrategiak ezarriko dituztenak."* (Bilbao, Ezkurdia Perez, 2007; 7-27.orr)

Garagorrik (2006) testuliburuen hainbat funtzio zerrendatzen ditu: funtzio berritzailea, motibagarria, errealitatea egituratzeko funtzioa, ordezkatzeko, interpretatzeko balioa, irakaskuntzako helburuak eta edukiak kontrolatzeko funtzioa, gelan egiten den lanerako metodologia gidatzeko funtzioa, ikaslearen ikaskuntza prozesuan laguntzeko funtzioa, funtzio hezitzailea edota garai bakoitzeko irakaskuntza-ikaskuntza aukeren lekuko izatearen funtzioa.

Bilbaok (2019) testuliburuen erabilera masiboa esplikatzeko, elementu ezberdin hauek aipatzen ditu:

- Ikaskuntza errazteko baliabideak dira;
- Belaunaldi berrientzat irakasteko prestatzeko egien euskarriak dira;
- Kultura, ideologia bat transmititzeko tresna indartsuak dira;
- Banatu, erabil daitekeen kontsumo produktuak dira. Argitaletxeek hedatzen dituzte;
- Informazio iturri dibertsifikatu eta osoak dira.

Perezek (2004) egindako kritikak baieztatuz, Garagorrik (2006), testuliburuen funtzio hauek neurtzen ditu honela laburbilduz:

> " Ikuspegi bakarreko edukiak transmititzen dituzte.
> • Kulturaren ikuspegi estereotipatua aukeratzen dute.
> • Merkatuaren interesen baitan jokatzen dute.
> • Ideologia eta kultura nagusiaren menpe daude.
> • Sexismo, arrazakeria, zentralismo eta elitismoaren birsortzaile dira.
> • Ikasleen jarrera pasiboa eragiten dute.
> • Ikasleen jarrera kritikoa eragozten dute.
> • Planteamendu globalizatzaileak eta diziplinartekoak eragozten dituzte.
> • Berrikuntza eragozten dute.
> • Ikasleen ikasketa moduak eta erritmoak ez dira errespetatzen.
> • Uniformetasuna eragiten dute.
> • Adimena eragiteko estrategia ahulak eta mekanikoak erabiltzen dituzte.
> • Irakasleen desprofesionalizazioa eragiten dute." Garagorri, 2006.

Testuliburu bat sortzen delarik, logistika asko eskatzen du: politikarien eta hezkuntzaren profesionalen arteko konpromisoa da eta argitaletxeek curriculuma eskaeren araberako lana sortu behar dute. Erabaki eta hautuen antolakuntzak diru inbertsio handiak suposatzen ditu. Argitaletxeak testuliburuaren erabilpena masiboa izango dela segurtatu behar du, talde-lan handi bat duelako. Beraz, testuliburuaren kontrola estatuak eta argitaletxeek dute. Saldua izan aitzin, administrazioek haien onespena ematen dute. (Bilbao, Ezkurdia, Perez, 2006; 153..orr) Modu berean, argitaletxeek botere handia dute, curriculum ofiziala interpretatzeaz gain, helburuak eta edukiak hautatzen dituztelako.

Horrez gain, testuliburuetako testuek ingurumen soziokultural bati erreferentzia egiten diote eta balore batzuk zabaltzen dituzte. Perezen (2004) arabera, testuinguru sozio-subjektibo bat dute testuek eta lau elementu identifikatzen ahal dira: Toki soziala (eskola, familia...), esatariaren kokapen soziala, solaskidearen kokapen soziala eta elkarrizketaren helburua. Lau elementu horien arabera, testuaren zentzua eta mezua argitzen dira.

Testuliburuak sortzeko, autore, testu eta gaien artean hautuak egiten dira eta curriculumaren arabera antolatzen dira. Testu bakoitzak baloreak zabaltzen ditu. Testuliburuetan testu literario batzuk lehenetsiz eta beste batzuk baztertuz, mezu eta ideologia batzuk zabaltzen eta bermatzen dira. Mezu hori kontzientea edo inkontzientea izan daiteke, bakoitzak barnatu dituen estereotipoen arabera. Testuliburuak ikasleari deialdiak egiten dizkio, zer maitatu eta errespetatu behar duen eta zer baztertu edo mespretxatu behar duen adieraziz. Ikaslearen balore sistemaren antolaketan parte hartzen du (Cromer; Hassani Idrissi, 2011). Irakasleek, testuliburuetan oinarrituz, beste eredu eta modeloak baztertzen dituzte. Proposatutako errealitate bakarra, testuliburuena da. Hori da ikasleak egia bakar bezala ikasten eta barneratzen duena, bere balore sistema eta identitatea eraikitzeko (Ezkurdia, 2005)

### 2.3.2 Testuliburuaren bilakaera eta entitatea

Ikasmaterialen kontzeptua irakaskuntza-ikaskuntza prozesua laguntzeko asmoz sortua da (Garagorri, 2006):

> "Horretarako espreski sortutako baliabideak eta tresnak. Multzo honetan sar daitezke irakaskuntza ikaskuntza prozesua gela barruan laguntzeko asmoz plazaratzen diren eta irakasleen eta ikasleen eskuetan jartzen diren euskarri desberdinetako ikasmaterialak: curriculum ofizialak, testuliburuak, lan-koadernoak, gidaliburuak, erreferentziazko liburuak (entziklopedia, hiztegi, atlas, kontsulta liburu...), ikus-entzunezkoak (kaseteak, bideoak...), euskarri informatikokoak (disketeak, CD-Rom), interneten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak

laguntzeko aurki daitezkeen informazioak... Testuliburua, adiera honetan, ikasmaterial-mota bat da."
Garagorri, 2006

Testuliburua irakaskuntza bideratzeko tresna ikasmaterial erreferentea da. Euskal Herriko lehen eskola-liburua Larramendik sortutako *ABC edo Christianoen instructionea* (1571) zen. Baina, ikastetxeetan erdara irakatsia zenez, ez zen euskarako beste testuliburik idatzia izan XIX. mendea arte, hots euskal eskolak agertu arte:

"Perezen arabera, eskolarako sortutako euskal testuinguruan, 1900-1936 urteak oso emankorrak izan ziren; Bizkaiko Aldundien esku zeuden Auzo-Eskolen sorrerak euskarazko testuliburuen beharra azaleratu zuen, eta testu horiek sortzeko ahalegin handiak egin ziren Euskal Herri osoan". (Alonzo Amezua, 2010)

XX. mendean, eskolan hedatu den baliabide didaktikoa, geroz eta gehiago garatu da eskoletako euskararen garapenarekin bat. XX. mende hasieran, ikastoletako testuliburuak behar ziren eta Lopez Mendizabalek hainbat sortu zituen. Lehena, *Umearen laguna* zen (Etxaniz, 2011; 101.orr). Bere libururik ezagunena 1925ean sortutako *Xabiertxo* izan zen. Frankismo garaian etenaldi bat izan baldin bada, 1970eko legearen ondorioz, testuliburuen sorkuntza zartatuko da, hala nola 1973 eta 1974ean, Cinsa argitaletxeak *Mimi katua* edota *Elurra* bezalako liburuak argitaratu zituzten eta Mendigurenek *Saioka* testuliburuak 1974ean (Etxaniz, 1997). Alta, 70-80 hamarkadako pedagogia mugimenduek testuliburuen erabilpena galdekatu zuten eta beste baliabide didaktikoak erabiltzea aholkatu zuten, ikasleen ezagutza iturriak anizteko. Baina, testuliburuak oraindik irakaskuntza programen eta ikasgelaren zentroan izaten segitzen du (Alonso Amezua, 2009).

Euskarazko testuliburuen inguruan Bilbaok, Perezek eta Ezkurdiak eraman dituzten gogoetek, edukiek bilakaera bat ukan dutela eta garaien arabera testuinguru ezberdinak proposatuak izan zirela agerrarazi dute. Euskal Herrian eta atzerrian ekoiztutako testuliburuek ingurumen desberdinak dituztela frogatu dute. Baina Euskal Herrian ekoiztutako testuliburuak geroz eta gutxiago dira (Madrilen %38 argitaratzen dira, Bilbo edo Donostian %23 eta beste tokietan %26). Orduan, ikasleei proposatutako testuliburuak Euskal Herritik kanpo sortuak direnean, edukiek testuinguru ezberdin bat proposatzen dute (Bilbao, Ezurdia, Perez, 2005). Bere tesian, Bilbaok (2003) Euskal Herriko gazteentzat Euskal Herria heteronomoa dela dio. Testuliburuek ez dute euskararen lurralde osoaren errealitatea islatzen. Euskararen eta herriaren kultura ez dute entitate bat bezala adierazten. Euskal Herria aipatua delarik ez da testuinguru soziokulturala kontuan hartzen (Perez, 2014). Testuliburuetan datorren edukia ez da Euskal Herriaren errealitatean kokatua eta ez da haren kulturekin harremanean.

Bide beretik, Bilbao, Perez eta Ezkurdiak (2005), Euskal Herriko testuliburuak aztertzean ondorio

hauek atera dituzte: lehenik, Euskal Herrian euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz ekoiztutako testuliburuak ez dira eredu berdinekoak. Frantsesek ez dute Euskal Herria aipatzen. Gaztelaniazkoek ez dute Euskal Herriaren oinarri soziokulturala uztartzen eta euskarazkoak itzulpenak edo bertakoak izan daitezke. Azken hauen artean batzuek testuinguru soziokulturalean kokatzen dute edukia, beste batzuek eredu autonomikoan edo estatalean. Ipar Euskal Herriko testuliburuak Frantzia eta Europari irekiak dira, Hegoaldekoak aldiz, Espainiari. Ondotik, ikasleak ingurune hurbileko irudia aztertzen duelarik, Euskal Herriaren azaleko agerpena ukanen du, testuliburuetako edukiek lotura gutxi baitute Euskal Herriarekin (Perez, Ezkurdia, Bilbao, 2005 141-158..orr). Orduan, haien emaitzek nahiz eta euskarazko testuliburuak erabili, Euskal Herriaren ezagutzara ez dutela bideratzen erakusten dute.

Testuliburuen bilakaerari doakionez, Bilbaok, Ezkurdiak eta Perez Urrazak egindako azterketak errealitatearen aspektu batzuk nabarmentzen direla agerrarazia du. Generoen tratamenduaren arabera, eredu maskulinoak nagusitzen direla agertu da:

> "Euskal kulturako pertsona ezagunak ere, gehienak gizonezkoak direla azaleratu dugu gure lanetan (Bilbao, 2002, 2003, 2004, 2005), testuliburuetan horrela irakasten dela, berriro ere emakumezkoak alde batera utziz. Euskal kultura, antza, gizonek egiten dute." Bilbao, Ezkurdia, Perez, 2006.

Orduan, testuliburuek errealitatearen aspektu batzuk bere diskurtsoetatik baztertzen dituzte. Testuliburuak oraindik androzentrikoak zirela agerrarazia izan zen laurogei hamarkadan:

> "Agirian jorratzen den curriculumean berdintasunaren aldeko pausuak ematen diren arren, generoen arteko desberdintasuna landu egiten da. Ikasleek ikasiko duten edukietan ez dagonesken eta mutilen arteko parekotasunik; pertsonarik gehienak gizonezkoak dira, lehen bezala orain ere. Horrez gain, emakumeak nola agertzen diren, zein den eurek jokatzen duten rola, zein egoeratan agertzen diren aztertzea ere interesgarria da." Bilbao, Ezkurdia, Perez, 2006.

Hiru ikerlariek, ikonografiek generoen eredu mugatu eta estereotipatuak erakusten dituztela azpimarratu dute:

> "Testuliburuetako ikonografiaren bidez ematen diren identifikaziorako ereduak mugatuak eta estereotipatuak baitira. Emakumeak gizonezkoek ez bezala- rol gutxitan agertzen dira; familiarekin lotutako egoeretan agertzen dira gehienetan, ama,emaztea, amama edo alabaren rolean. Horixe da emakumeak testuliburuetan agertzeko erarik erabiliena" Bilbao, Ezkurdia, Perez, 2006.

Emazteen rolak familiari lotuak dira eta gehienetan ama, emazte, amatxi, alaba.. dira. Rola

mugatua ukateaz gain, emazteen tokia apala dela erakutsi dute testuliburuek. Beste elementu azpimarragarri bat, testuliburuek adierazten duten familia eredua nuklearra da nahiz eta jendarteko ereduak aldatzen diren.

### 2.3.4 Testuliburua eta edukiaren hautaketa: literatura eta ipuinak hizkuntzaren irakaskuntzan

Bilbaok (2002) idatzia eta egiaren arteko lotura aipatzen du: diskurtso idatziek egiaren efektua egiten dutela azaldu du, nahiz eta horiek ez egiazkoak izan. Diskurtsoa – idatzia edo ahozkoa – partziala da:

> "Aukeratze prozesu bikoitza egiten da, alde batetik esan nahi dena hautatzen da, eta bestetik esplizitatzen dena eta ezkutuan geratzen dena banatzen dira. Modu honetan errealitatea moldatu edo aldatu ere egin daiteke diskurtsoaren neutraltasuna edo objektibotasuna deuseztatuz. Ezkutuko curriculumaren bidez, esan barik esanez, errealitatearen aspektu batzuk nabarmendu egingo dira, beste batzuk diskurtsotik kanpo geratuko dira, errealitateari mugak jartzen bazaizkio. Diskurtsotik kanpo geratzen diren ideiak, kontzeptu edo edukiak, zeintzuk diren ikertzea interes handia dauka ideologiaren transmisioan, ezkutuko curriculumak daukan protagonismoa handia baita". (Bilbao, 2002)

Jendartearen kontraesanak curriculumean eta testuliburuetan agertzen dira eta curriculuma kultura tresna bat da. Beraz, testuliburuen edukiak hautatuak dira. Generoari buruzko ikuspegia modu maskulinotik garatua da: hautaketa batzuen bidez, emazteak modu murritzean adieraziak dira (Bilbao, Ezkurdia, Perez, 2006). Konfiantza harremanetan oinarrituz, estatuak eskola erabiltzen du balio kultural nagusituak inposatzeko. Bilbao, Ezkurdia eta Perez Urrazaren arabera, eskola ezagutzen banatzaile eta sortzaile bezala kontsideratzen dugu eta bertan lantzen den curriculumaren bidez, balio kulturalak eraikitzen dira (Bilbao, Ezkurdia, Perez, 2006, 89-110..orr).

Literaturaren lanketa hezigarria da eta irudimena lantzeko tresna da. Haur hezkuntzatik, ikasleak literaturarekin lotzen dira ikastetxeetan: irakasleek irakurtzen dizkieten ipuinek sozializatze prozesuan parte hartzen dute eta hizkuntzaren menperatzea zein munduaren ulermena ahalbidetzen dute (Recondo Villaron, 2020). Ikastetxeetan, literaturaren lanketa maiz testu-azterketen bidez egiten dela adierazten du Alonso Amezuak (2010): testu-azterketak literaturaren berezko ezaugarriak identifikatzeko bideak proposatzen ditu, ikasleak baliabideak barneratzeko eta sortzeko. Gisa berean, ikaslearen motibazioa, interesa eta esperientzietan aldarrikatua izan da literaturaren irakaskuntza. Bi eredu didaktikoei erantzuten die literaturaren irakaskuntzak: literaturaren historia irakastea eta gaitasun komunikatiboak lehenestea, hori curriculum-legeetan eta testuliburuetan agertzen da. Alonso

Amezuak (2010), liburu guztietan agertzen diren ezaugarri batzuk azpimarratzen ditu: eduki kontzeptualak lehenesten dira (literaturaren historia, idazlearen biografia, testuinguru soziokulturala), eskola-liburuen ariketek ez dute progresiorik testuliburuan zehar eta ikasmailen artean. Ezagutza praktikoa ez da aitzinatzen.

Literatura irakasteko, Alonso Amezuak azpimarratzen duen faktore nagusi bat, irakasleak ikaslearen kapital kulturala kontuan hartzea da, hots, ikasleak duen ezagutza gaiaren inguruan:

> "Irakaslea ezagutza horretan oinarritu behar da ikasketa-prozesua antolatzeko, baina testuliburuen azterketa honek iradokitzen du gutxi direla ezagutza horiek neurtzera bideratzen diren jarduerak."

Bukatzeko, Alonso Amezuak (2009), hizkuntza eta literatura irakasgaiak biltzeak literaturari kalte egite diola adierazten du:

> "Euskal Herriaren kasuan are nabarmenagoa da bazterketa hori, gazteen euskara-maila apalak beharrezko bihurtzen baitu hizkuntzaren irakaskuntza lehenestea. Edonola ere, ez da ahaztu behar hizkuntza irakasteko tresna baliagarria dela literatura." (Alonzo Amezua, 2009, *Erdigune literarioak irakaskuntzan*)

Testuak garai eta testuinguru zehatzetan sortuak dira eta testua bere markoan kokatu behar da bere ulermenarentzat eta interpretazioa egiteko. Alonso Amezuaren arabera, literaturaren irakaskuntzaren bidez, ikasleei modu kritikoan testuak lantzea erakatsi behar zaie eta testuingurua ezagutu behar da: erdiguneak eta periferiak, argitaletxeak, sariketa literarioak eta euskal autoreen bideak landu behar dira.

### 2.3.5 Hizkuntza, literatura, ipuinak eta testuingurua

#### 2.3.5.1 Literatura, ipuinak eta generoa

Laurence Arlauden (2004) memorian, ipuin zaharretan pertsonaia femeninoak autore maskulinoen ikuspegitik deskribatzen zituztela adierazia da. Pertsonaia femeninoen ezaugarri positiboak gaztetasunean, edertasunean eta maitasunaren proiekzioetan oinarritzen ziren. Haien aktibitateak bakardadean itxoitea eta ameskerietan egotera mugatzen ziren. Nortasun goxoa zuten eta beraien egiazko nahiei buruz ez genuen informaziorik. Pertsonaia femeninoak beren maitalearen bilaketan ere pasiboak ziren eta gertakarietan parte hartzen zuten interbentziorik egin gabe, haien

biziaz publiko ziren. Emaztea esfera pribatuan kokatua egoten zen, ezkontza, amatasuna eta etxearen mugetatik at atera ezinik.

Baina, genero estereotipoak ez dira ipuin zaharretan mugatzen eta inkesta garaikideek haurrentzako pertsonaiak sexistak direla erakutsi dute. 1970ko hamarkadan, Pricetoneko unibertsitatearen inkestak (Giannini Belotti, 1976, 137..orr) haur eta gazte literaturako 15 liburu sail aztertu zituen. Emaitzek 1225 ipuinen artean, 881en pertsonaia nagusiak mutikoak zirela eta 344 femeninoak zirela erakutsi zuten. Mutikoek, txabolak egiten, leizeak esploratzen zituzten eta aita laguntzen zuten. Neskek, aldiz irri egiten zuten, gatuekin jostatzen ziren eta bixkotxak egiten zituzten. Pricetoneko ikerlarien ondorioa mutikoak haurtzarotik menperatzaileak izateko baldintzatuak zirela eta neskak pasiboak izatera eramanak zirela zen. Nahiz eta ipuinetan, amak kasu gehienetan sukaldera mugatua izan, errealitatean 1977an, jadanik %40ek lanbide bat zuten. Orduan, mendebaldeko jendartea, literatura estereotipo kontserbadore batzuetara mugatua zen nahiz eta errealitatean aitzinamendu nabariak izan.

Sexismoak haur eta nerabeei proposatutako euskarrietan jarraitzen zuen 2015ean. Frantziako eskoletako testuliburu eta programetan, emazteen garrantzia gutxitua zen eta rol tradizionaletara mugatzen ziren. Adibidez, CPko irakurketa testuliburuetan, pertsonaien %40 femeninoak ziren. Haien arteko %70 garbiketa eta sukaldaritzen zuten. Aldiz %4 lanbide zientifiko bat zuten (Centre Hubertine Auclert, 2015)

Grace Ranchonek Frantses lurraldeko atzerritarrek frantsesa irakasteko testuliburuak (FLE) eta generoa aztertu zituen. Curriculum ezkutuaren subjektibotasuna azpimarratzen zuen eta generoa eta curriculumaren arteko lotura egin du. Ber maneran, Mosconik (2001; 97-109..orr) irakasleen praktikek sexuen arteko desberdintasunak sortzen zituela adierazten zuen. Bukatzeko, Zaidmanek (1996) eskolako mistotasuna aztertu zuen eta material didaktikoak jendarteak itxaroten dituen genero jarrerak ikasteko tresnak direla azpimarratzen zuen (Zaidman, 1997; 145-147.orr).

Curriculumak patriarkaren indarra instalatzen laguntzen du. Generoaren gaia tratatzen delarik, ikuspegia murritza da. Ez da genero aniztasunik irudikatzen eta emazteak ez dira modu nabarietan agertzen. Begoña Bilbaok (2004), emazteen presentzia testuliburuetan %7koa dela XX mende osoan erakutsi du.

Frantses Hezkuntza Nazionalak euskarazko programarik ez zuela baina autore batzuk gomendatzen zituela aipatu dugu. Autoreak aztertuz, orotara, hogeita hemeretzi autore maskulinoen

lanak eta bost autore femeninoenak (Itxaro Borda bi aldiz agertzen da zerrendan) agertu dira. Euskarazko literatura oinarrietan, proposatutako autoreen %91 gizonez osatua da.

#### 2.3.5.2 Euskal haur eta gazte literatura eta horri buruzko eztabaidak

Euskal Herrian, haur eta gazte literatura, Bizenta Mogelen *Ipui Onac* obrarekin 1805ean hasi zela erran ohi da. Liburuaren autoreak ahozko literaturaren baloreak ez zirela haurrentzat egokiak estimatzen zuen, beraz, alegia batzuk euskaratu zituen eta beste batzuk sortu, helburu morala batekin (Xabier Etxanizen, 1997):

> “Egileak “onac” adjektiboa jartzerakoan, ipuin horiek moralki onak direla adierazi nahi digu, ez dio hainbeste begiratzen ipuinon edertasunari edo horiek irakurtzerakoan izan daitekeen atsegingarri [...] Berez nahiko moralistak eta pedagogikoak diren osagaiak, oraindik ere moralagoak eta zuzenagoak egin ditu B. Mogelek. Argi dago ez dela estetika, ez hitzaren edertasuna idaztera animatu zuena egilea.”

Orduan, hasieran Euskal HGL-ren helburua liburu erlijioso eta didaktikoak sortzea zen haur euskaldunentzat, balore fededunak zabaltzeko. XIX. mende hasieran, Agustin Paskual Iturriaga lehen euskal pedagogo bezala agertu zen. Bere lana itzulpenetan oinarritzen zen eta helburuak didaktikoak eta moralak ziren. Mende horretan, Etxanizek (1997) dionez, euskal letretan haurra presente zela bazirudien. Baina haur liburu guztiak helburu didaktiko batekin eraikiak ziren, eta hor, helburua gaztelaniaren ikasketa zen. XX. mendea itxaron behar izan da haur euskaldunek literatura irakurtzeko.

XX. mende hasieran, Euzkal Pizkundea loratzen da eta bertan euskal literatura ere goi mailara heltzen da. Gerla zibilaren ondotik, idazle batzuek modernitatetik hurbiltzeko lanak sortu zituzten. XX. mendearen 60. hamarkadatik goiti, haur eta gazteentzako *Kili kili* eta *Ipurbeltz* bezalako aldizkariak zabaldu ziren, euskal haur gazte literaturari ikusgarritasuna emanez Euskal Herrian. Bestalde, itzulpengintzak oinarrizko toki bat ukan zuen. Adaptazio asko izan ziren (*Robinson Crusoé, Heidi, Printze Txikia...)* baina maiz haurren euskara mailak egokitzapenak egitea eskatzen zuen. Testu laburragoak, ekintza ugari eta deskribapen gutxirekin, oihurik ez zegoen irakurlegoa harrapatu nahian (Etxaniz 1997). Urte horietan oso zaila zen etxeko euskaratik kanpoko euskara entzutea. Euskal literaturaren zartatzea euskararen normalizazioarekin lotu zen. Ikus-entzuneko komunikabideek, liburugintzaren normalizazioak, alfabetatze kanpainek... urte gutxitan aldaketa handia eman zuten (Etxaniz, 1997).

Euskaltzaindiak euskara normalizatzeko eta eguneroko bizian integratzeko egindako lanaren ondotik, euskal irakurle kopurua garatu zen eta eskaera sortu zen. XXI. mende hasieran, urte guztiz

350 eta 400 liburu artean argitaratuak ziren haur gazte literaturan (Etxaniz, 2011; 24..orr). Sorkuntza igoera ikaragarri horrek pixkanaka euskal haur gazte literatura, literatura mota oso bat bezala kontsideratua izaten hasi dela eta bere publikoa atzematen ari zela erakusten du. 1990 - 2005 artean, 1900 liburu argitaratuak izan ziren urte guztiz, eta nahiz eta ez igoerarik ukan, publiko bat bazela eta egonkortasun bat atzemana izan zela adierazten du Etxanizek (2011; 82..orr).

2015eko *Euskarazko argitalpenei buruzko XI. Txostenak* (Eusko Jaurlaritza) haur eta gazte literaturaren tokia euskal merkatuan nagusia dela erakusten zuen. Heldu literatura baino gehiago ekoizten zen eta publiko handiago bat ukitzen zuen. Haurrei eta gazteei zuzentzen diren lanak merkatu sendo batean sartzen dira.

Haur Gazte literaturaren kontzeptua eztabaidatua da eta maiz soilik produktu bat bezala kontsideratua da. 2010an, François Busnelek, (2011) haur gazte literatura marketin kolpe bat baizik ez zela aldarrikatu zuen. Beretzat, helburu komertzial batekin sortua izan den generoa literarioa da. Ipuinak melengak eta sinplistak dira. Haren erranetan, hobeto legoke, gazteei haien adinekoa ez den literatura eskaintzea.

Orohar, mendebaldeko kulturan, haur gazte literaturak legitimitate falta handia sentitu du mendeetan zehar: batzuek haur gazte literatura kritikatzen dute eta besteek haren ezegonkortasuna eta genero horretan lan egiteko zailtasuna aipatzen dute. Alta, Fanny Barnabéren (2012) arabera, 1980 eta 2000 artean, haur gazte literaturak legitimitate literario eta artistikoak jaso ditu: bere erakundeak garatu ditu, sariak, saloiak, unibertsitate formakuntzak... sortuz.

## 2.4 Tesiaren helburu curricularrak

### 2.4.1 Euskal literatura corpusa eta pertsonaiak

Tesia haur gazte eleberrigintzan oinarritua da. Nahiz eta euskarako klaseetan askotan autobiografia, antzerkia, poesia eta komikia landuak diren, ipuina eta eleberriak baizik ez dira lantzen hemen. Testuliburuetako ipuinak eta eleberriak aztertuak dira. Ipuingintza laburra da eta gehienetan haurrei zuzenduak dira. Eleberriak edo nobelak, fikziozko narrazio luzeagoak dira, helduei ere zuzentzen ahal direnak.

Testuliburuetan, irudiak eta ariketak ez dira landuak eta ikerketa literaturan (ipuinak, eleberri parteak) oinarrituko da. Horrez gain, jatorriz euskaraz idatzitako testuak baizik ez dira aztertuko. Ipuinen neurria aldakorra izan daiteke testuliburuetan, ikasleen euskara mailaren eboluzioari egokitzen delako. Ohar gaitezke testuliburuetako ipuin gehienak ez direla izenpetuak. Aldiz, eleberrien zatiak direlarik, izenpetuak dira.

Tesiaren azterketak pertsonaia zentroan emanen du. Helburua pertsonaiak nola sortuak diren eta zein balore transmititzen dituzten ezagutzea da. Protagonistek eta bigarren mailako pertsonaiek genero estereotipoak mantentzen eta transmititzen dituztenez jakin nahi da. Genero estereotipoak agertzen baldin badira, autoreek eta argitaletxeek erabilitako tresnak estereotipoa mantentzeko azpimarratu nahiko dira.

### 2.4.2 Testuliburuen eta literaturaren azterketa Ipar Euskal Herriko ikuspegitik

Testuliburuen azterketa eta genero estereotipoak euskal literaturan jadanik landutako gaiak izan dira. Baina azterketa horiek hegoaldeko ikuspegitik eginak izan dira eta nagusiki EAE-ko begiradan bermatu dira. Gure tesiak testuliburua, literatura eta sexismoa Ipar Euskal Herriko begirada batekin lantzea proposatzen du. Nahiz eta nazio bat izan, Euskal Herria bi lurraldetan banatua da, hamaika ideologia, politika eta hainbat egoera sozial-ekonomikoetan. Faktore horiek bi errealitate proposatzen dituzte egunerokoan eta Ipar Euskal Herriko ikasle batek ez ditu hegoaldeko ikasle baten curriculuma eta tresnak ukanen.

Irakasleak ez dira manera berdinean formatzen ere ez. Helburua, hezkuntzaren bidez, ikasle modelo bat eraikitzea baldin bada, irakaslea ere ideologia honi batu behar da. Ipar Euskal Herriko ikuspegia hartuz, Euskal Herri mailan frantses lurraldean kokatzen den parteak zein toki duen euskal kulturan jakitea da. Gure ikerketak, Ipar Euskal Herriko euskarako ikasleek zein lotura duten euskararekin eta haien erreferentzia kulturalak agerrarazten ditu.

### 2.4.3 Euskal eta frantses curriculumen ikuspegi sexistak

Euskal testuliburu eta corpus literarioetako pertsonaiak aztertuz, euskal literaturan agertzen ahal den ikuspegi sexista ez dela euskal jendartean mugatzen agerrarazi nahi da. Frantsesa eta euskara diglosia egoera batean elkarbizitzen direnez, hurbiltasun horrek frantses kulturaren eragina dago.

Frantses literaturaren azterketa egiteko, euskal literaturako emaitzekin konparatuko da eta

euskal literaturarentzat sortutako analisia prozesu berdina segituko da. Hots, testuliburuen ipuinak baizik ez dira kontuan hartuak izango eta programetako eleberri multzo bat bakarrik aztertuko dira. Horrez gain, irudiak ez dira azterketan kontuan hartuko. Bi corpusentzat, analisi kualitatiboa eta kuantitatiboa erabiliko dira eta euskararentzat taula – metodologia berdinak erabiliko dira. Euskal literatura eta frantses literaturari dagokionez azterketa prozesu berdina erabiliz, emaitzak berdintzen edo urruntzen direnez agerraraziko da.

#### 2.4.4 Idazle, irakasle, ikasleak eta genero estereotipoen eraikuntza

Haur eta gazte literaturako pertsonaiak aztertzeko, hiru aktore nagusi definitu ditugu: idazlea, pertsonaiaren sorkuntzaren iturria dena. Irakaslea, testuak aukeratuko dituenak eta klasean landuko dituenak. Idazle eta ikasleen arteko lotura egiten du. Bukatzeko, ikaslea, nerabea, literaturaren hartzailea da, klase eremuan.

Euskal idazlea, eleberri sortzailea, pertsonaiaren iturria da. Hark pertsonaia bat eraikiko du ezaugarri batzuen arabera. Bere sorkuntza prozesua ezagutu nahiko da. Merkatuaren pisua zein den, hezitzaileak bezala kontsideratzen direnez eta zein balore transmititu nahi duten jakin nahiko du lan horrek.

Euskarako irakasleak ardura askori erantzun behar du. Irakasleak ikasleak bere gaira erakarri behar ditu eta kultura sendo bat proposatu behar die. Curriculumaren arabera, irakasleek euskal literatura landu behar dute. Baina obra baten hautua buruhaustea izan daiteke: euskararen ulermenari ala autorearen ezagutzari lehentasuna eman behar ote zaio?

Ikaslea informazioen hartzailea da. Curriculumak proposatutako ereduek bere nortasuna eta baloreak sortzea ahalbidetuko du. Ikasle bakoitza faktore askoren eraginpean da: lagun taldeak, aktibitate eta aisialdiak, familia eta eskola. Ikaslearen kultura erreferentziak ezagutuz, bere modeloak zein diren jakin nahi da. Bere ereduak sexistak direnez aztertuz, ikasleak, jendarteak dituen makurrak eta desberdintasunak barnatu dituenez agerrarazteko asmoa dugu. Nerabea literaturaren hartzaile nagusia da, beraz eleberriek proposatutako mezuak bereganatuko ditu.

## 3 Genero estereotipoak

### 3.1 Generoari buruzko ikerketak eta ikuspegiak

Hemen agertuko diren kontzeptuak, tesian oinarrian kokatzen dira. Kontzeptuak definituz, irakurketarako argipenak ekarriko dira.

### 3.1.1 Feminismoa

Feminismoaren historia zabala eta anitza da denbora eta tokien arabera. Definizio bat emateko, mendebaldeko jendarteko mugimenduetan oinarritzen diren definizioei erreferatuko gara.

Feminismoak mugimendu eta pentsamolde ezberdin asko bateratzen ditu. Frantses estatuan, ofizialki feminismoa XIX. mendean antolatzen zen. Alta, iraultza garaian jadanik aldarrikapenak agertzen ziren, besteak beste, Olympe de Gouges-en *Emazteen eta hiritarren deretxoak* testuarekin, oinarrizko eskubideen inguruko aldarrikapenak hasten dira.

Nahiz eta mozketa eztabaidatua izan, feminismoa lau uhin edo fasetan oinarritzen dela adierazia da. Lau olatu feministak eraikuntza sozialak dira eta kategoriak gibela pausu batekin eraikiak izan dira (Dagon de Goistisolo, 2011, 15-20..orr). Feminismoak errealitate ezberdinak aldarrikatzen ditu, ez direnak baitezpada mugimendu batean oinarritzen ahal. Orduan, uhin horiek, errealitatearen ulermena lagun lezakete, baina mugagarriak dira. Feminismoa anitza da, baita bere korronteen barnean ere.

*Lehen uhin feminista* XX. mendean agertu zen Erresuma Batuan eta bozka eskubidearen alde borrokatzen ziren. *"Suffragettes"*[95] izendatzen ziren emazteek politika arloan herritarrak bezala kontsideratuak izatea aldarrikatzen zuten. Botere politikoa aldarrikatzen zuten: bozka eskubidea, funtzio publikoak okupatzeko eskubidea eta herritar estatutua osoki ukan nahi zituzten. Militanteak haien borrokaren inguruan antolatu ziren, indarrak batuz edota elkarteak sortuz. *Sufragettak* supremazia maskulinoaren kontra borrokatzen ziren. Akzio bortitzak eramaten zituzten, gose grebak eginez, parlamentuak blokatuz, manifestatuz, kultura guneak irauliz. 1928an emazteek bozka baimena eskuratu zuten Erresuma Batuan. Frantses lurraldean, bozka baimena 1944an ukan zuten.

[95] https://www.oxfamfrance.org/inegalites-femmes-hommes/le-feminisme-a-travers-ses-mouvements-et-combats-dans-lhistoire/

Langile mugimendu hori borroka sozialean eta politikoan oinarritzen da, berdintzerako aldarrikapen sendoetan oinarritzen da.

60 hamarkadako feminismo bigarren olatuak, gorputza bere eztabaiden zentroan du. Simone de Beauvoirrek *Le deuxième sexe* (1949) saiakerarekin pentsamendu feminista eraldatzen du. Bere argudio nagusia "emaztea" kontzeptuaren ideia kulturalki finkatua zela zen. Hark, emazte jarrerari lotzen zaiona, generoari lotua zela esplikatzen zuen. *"Ez gara emazte sortzen, bilakatzen gara"* esaldiaren bidez bere ideia nagusia azaldu zuen: jendarteak gizon edo emazte egiten gaitu. Gure gustuak, ideiak, jokaerak, kulturari lotuak dira, ez biologiari. Autoreak ama eta emaztea desberdintzen zituen eta askatasun sexuala eta ugalkortasunaren kontrola eztabaiden zentroan ematen zituen. Bigarren mundu gerlaren ondotik eta 60 hamarkadan zehar, geroz eta emazte frantses gehiagok lanbide bat zuten. Honek haien autonomiarako lehen pausu bat ekarri zuen. Bide berdinetik, independentziara iristeko, emazteek haien gorputzaz jabetu nahi zuten, ugaltze eta erditzeak kontrolatzeko aukerekin. Abortua eta kontrazepzioa debekatuak ziren, praktikak klandestinoak ziren. MFPF-k (Mouvement Français pour le Planning Familial) bi elementu horiek legala izateko borrokatzen zen. (Dagorn de Goitisolo; 2011). Zientzia sozialak aitzinatzen ziren eta *Women studies* eta De Beauvoirren eredua segituz, patriarka ikertzen zuten. Berdintasunarentzat oztopagarriak ziren ordenak deseraiki zituen. Maskulinoa eta femeninoa gogoetaren zentroan ematen zuten eta generoa menpekotasun bat inposatzeko eraikuntza soziala zela teorizatzen zuten (Julia Kristeva, 2003).

Bestalde, kritika feminista anglo-amerikarra, 60-70. hamarkadan garatu zen. Amerikar pentsalariek, oinarri kultural bat behar zuten kritika feminista anglo-amerikarra garatzeko eta europar mugimenduetatik urruntzeko (Friedman, 1964) eta *French feminism* deitzen zuten korrontetik batea ere. Christine Delphyren (1996; 16.orr) arabera, mugimendu hori Estatu Batuar sorkuntza bat zen. Estatu Batuetan feminismoaren beste aspektu batzuk gogoetatuak izan ziren, haien testuinguruaren arabera, hala nola, *Black feminism,* eta feminista lesbianen mugimenduak. Feminismo heterosexualaren aspektu ezberdinak kritikatuak dira: arraza, klase, sexu, eta sexualitate modeloak... Mugimendu horren helburua, emazteen esperientziaz jabetzea zen. Mari Jose Olaziregi Alustizaren (1999) arabera, kritika feminista anglo-amerikarra ez zen bakarrik metodologia edo teoria mailan agertzen, politikan eta unibertsitate ikerketa guneetan ere garatzen ari zen.

80. hamarkadan, legalki emazteek gizonen eskubideak ukan zituzten eta haien gorputza nahi zuten bezala balia zezaketen. 90. hamarkada aitzin ez zen korronte feminista indartsu berririk izan. Hirugarren uhin feminista Estatu Batuetatik zetorren (Besnault, 2016) eta aniztasuna integratzen zuen bere mugimenduan: lesbianak, kolorezko emazteak... Nahastasun soziala aldarrikatua zen. Haien helburua eskuratutako askatasunak mantentzea baldin bazen ere, egiazko askatasunaren alde ere borrokatzen ziren. Hots, generoaren kontzeptua eta patriarkatuaren baloreekin moztu nahi zuten: feminismo postmodernoa zen. Pentsalariek identitate anitzak zituzten eta queer mugimenduetatik zetozen (Judith Butler) edo arrazatuak (bell hooks) ziren. Hetero norma kritikatzeaz gain, sexualitate positibo bat (*sex positivism*) aldarrikatua zen. Femeninoa eta maskulinoa deseraikitzen zituzten, identitate ez orekatuak kritikatzen ziren, feminismo esentzialista ukatzen zuten. Feminista berdintzaileari emazteak talde homogeneo bat bezala kontuan hartzea leporatzen zieten. Menpeko klasea eta hetero sexismoa eztabaiden erdigunean ezartzen zituzten.

“Laugarren uhin feminista” bat agertu zen 2010.hamarkadan justizia sozialean eta eskubide zibilen gainean oinarritua (Genthon, 2019). Emazteen arteko elkartasuna eta generoen arteko harremanetan oinarritzen zen. Internet eta sare sozialek eragin handia ukan dute laugarren mugimendu honen agertzean. Weinstein aferaren ondorioz, #Metoo edo #balancetonporc bezalako traolen bidez, bortxaketa, abusu eta jazarpen sexualen biktimak haien ahotsa entzunarazten hasi ziren. Haatik, laugarren mugimendua ez zen emazteen kontrako erasoen salaketara mugatzen, hirugarren olatuak hasi zuen bezala, generoari buruzko gogoeta orokortzen zuen LGBTQIA+ komunitatea eta jatorri etniko eta sozialak integratuak izan ziren.

Feminismoa maiz bi ikuspegietatik aztertua da. Ikuspegi esentzialistak gizonak eta emazteak oinarriz ezberdinak direla suposatzen du. Aldiz, feminismo materialistak edo konstruktibistak emazte eta gizonen arteko desberdintasunak eraikiak izan direla defendatzen dute. Esentzialismoak pertsona talde batzuk ezaugarri batzuen arabera definituak izaten ahal direla dio. Ezaugarri horiek esentzialak, objektiboak bezala deskribatzen dira. Amerikarrek 70. hamarkadan “french feminism” deitzen zutena feminismo esentzialista aipatzen zuten[96]. “Egalitatea ezberdintasunean” aldarrikatua delarik, sexua

96 https://cafaitgenre.org/2015/07/20/petit-lexique-du-genre-3-essentialisme-constructivisme-socialisation-de-genre/

eta generoak bat egiten dutela suposatzen da. Oinarri honetatik abiatuz, gizonak eta emazteak ezberdinak baldin badira, bateragarriak izaten ahal dira. Heterosexualitatea norma bezala kontsideratua da eta jendartearen oinarrian kokatzen da. Ondorioz, matxismoaren kontrako mugimenduak emazteen kontrako erasoetara mugatuko dira, homosexualitatea edota trans identitatea baztertuz.[97]

Konstruktibismoak eta mugimendu honetako aktoreek, haien diskurtso eta akzioen arabera errealitate sozial bat eraikitzen dela suposatzen dute. Generoa eta arraza, eraikuntza sozialak dira nahiz eta kategoria horiek eztabaidaezinak eta naturalak direla pentsatzen ahal den[98]. Orduan, kategoria sexuala bitan oinarrituz, jarrera, rol sozialak eta jantziak bezalako zatiketak agertu dira. Baina ez dira funtsezkoak eta historian zehar aldatu dira. Beraz generoak inposatutako hierarkia alda daiteke. Konstruktibismoak generoa ikasten dela suposatzen du. Sortzetik, hizkerak, kodeak ikasten dira. Jarrera horiek definitzeko ezaugarri bakarrak sexu femeninoa eta maskulinoa dira. Sexuek gure rol sozialak definitzen dituzte. Honen arabera, neska edo mutiko bat izaten ikasten da.

### 3.1.2 Sexua

Gure lanean, sexua organo sexualen arabera definituko dugu, hots, organo sexual femenino (eme) edo maskulinoen (arra) arabera. Alta, hautu hori eztabaidagarria da, ez dituelako pertsona inter-sexualak kontuan hartzen. Populakuntzaren %1 - %2 osatzen dute (Mascret, 2015). Beraz, sexuaren identitatearen gaiaren inguruan ñabardurak agertzen dira.

Sexuak ez du pertsona baten generoa, orientazio sexuala edo jarrera definitzen. Pertsonaia bat bere sexuaren arabera identifikatua baldin bada, pertsonaia zisgeneroa dela suposatuko da, bere generoak sexuarekin bat egiten duelako. Sexuak eta generoak ez dutelarik bat egiten, trans identitatea aipatzen da. Espainian, lege berrian, hortaz onartua da ofizialki.

### 3.1.3 Generoa

97 https://roseaux.co/2017/04/l-egalite-dans-la-difference-le-feminisme-essentialiste/
98 https://cafaitgenre.org/2015/07/20/petit-lexique-du-genre-3-essentialisme-constructivisme-socialisation-de-genre/

Sortzean kode batzuk barnatzen ditugu eta ezaugarri horien menpe egoten gara (Wittig, 1992). Jendarte heterosexualaren eraikuntzaren oinarria binarista da. Balore maskulino eta femeninoak asmatuz, jendartea bi taldetan banatua da: bat menperatzailea da eta bestea menperatua. Balore maskulinoak etengabe lehenetsiak dira eta balore femeninoak gutxietsiak. Orduan, jendarteak balore maskulinoak "norma" bezala integratzen ditu. Bortizkeria, lehiaketa eta indarra balorizatuak diren ezaugarriak dira. (Bourdieu, 1998) Emozioak, sentimenduak eta pasibotasuna ezaugarri femenino eta negatiboak bezala ikusiak dira. Sistema hori eraikia da eta sinesmenen gainean oinarritzen da funtzionatzeko. Talde androzentrikoak bestea du eta genero menperatzaile (maskulinoa) eta menperatu (femeninoa) sortuz, ez da genero neutrorik agertzen. (Bourdieu, 1998)

Generoa eraikuntza soziala da eta sexu biologikoak ez du baitezpada generoarekin harremanik. Judith Butlerren (2006) arabera, emazte gara, ingurumen heterosexual nagusi batean behar bezala funtzionatzen dugularik. Ideia horren arabera, "egiazko" emaztea heterosexuala izan behar da. Emaztea gizon heterosexualaren ikuspegitik identifikatzen da, bere rola jendartean, haren arabera ukanen duelako. Beraz, gure antolakuntza kulturalak ez die tokirik uzten norma nagusia segitzen ez dutenei. Kulturalki gure sexua, generoa, praktika sexuala eta gutizia lerrokatuak izan behar dira. Horrez gain, Butlerrek Wittingen (1992) ideia baieztatzen du: bi genero aipatzen baldin badira, bi soziologoek bat baizik ez dela diote: genero femeninoa. Genero maskulinoak nagusitasuna eta unibertsala adierazten duelako. Emazte kategoria, kultura ondorio bat da eta feminitateak aldaketa asko jasaten ahal ditu. Humano guztiak sexualizatuak dira, baina sexua ez da baitezpada generoaren kausa. "Emazte" edo "gizon" izateak ez lieke gorputzaren ezaugarriei erantzun beharko eta sexuak batasun artifizial bat proposatzen du.

Bukatzeko, generoa ez da bi kategoriatan baizik banatzen eta forma asko hartzen ahal ditu. Zibilizazio asko ez dira bi generotan mugatuak. Pazifikoko Samoe taldean, hirugarren genero bat agertzen da, *fa'afafine* (Tcherkézoff, 2022; 49..orr) deitutakoa. Sare sozialek sexismoa bermatu dela agertu da (Balleys, 2017; 33-44.orr). Baina hor ere, generoak toki bat dago. Adibidez, Facebookek, 52 genero ezberdin proposatzen ditu (Bourcier, 2014). Desmartxa horiek, generoaren inguruko gogoetak modan direla erakusten dute. Aldiz, Facebookek hainbeste genero mota zerrendatzen dituelarik, jendearen orientazioa eta generoa nunbait kokatu behar dela adierazten du, nahiz eta

mugak ez argiak izan.

Generoa eraikuntza soziala denez, jendarteak dizkigu gure jarrerak diktatzen. Alta errealitatea askoz malguagoa da. Horretarako genero estereotipoak aipatuko ditugu: estandar sexualei erantzun behar zaielarik eta jarrerak, norberaren trataera, generoaren arabera definituak direlarik, genero estereotipoak aipatzen dira.

### 3.1.4 Maskulinoaren ideia

Emazteak eta gizonak balore sexisten menpe dira eta genero estereotipoek inposatzen dizkieten jarrerak segitu behar dituzte. Sexismoaren eragina jendarte guztian agertzen da eta maskulinitateari lotutako ezaugarriek ere estereotipoak jasaten dituzte. Yves Raibaudek (2013) arabera, patriarkatua, matxismoa eta maskulinitate hegemonikoa definitu ditu.

Lehenik, patriarkatua gizonen autoritatearen gainean oinarritua den antolakuntza sozial eta juridikoa da. Menpekotasun soziala gizonen indarrarekin eraikitzen da. Gizona, balore horren arabera esfera publiko eta pribatuan, botere hori bereganatzeko, aldatuko da. Patriarkatua, edo jendarte patriarkala sistema politiko eta ekonomikoan oinarritua da eta kultura sexistaren emaitza da. Ondorioz, patriarkak emazteen ekintza esfera pribatura mugatzen du eta gizonei ahalbidetzen die esfera publikoan egotea.[99] Horrez gain, lanaren zatiketa sozialak kapitalismoa indartzen du. Lan sektore prekarioenak femeninoak dira eta emaztearen lana merke pagatzen ahal den langilea da. Ildo beretik, hetero patriarkatuak gizon heterosexualaren hegemonia eta nagusitasuna bermatzen ditu. Ondorioz, menpekotasuna gizon heterosexualen esku izango da.

Gizonek haien gizontasuna lehenesten dutelarik, matxismoa aipatzen da. Emazteak haien pean ikusten dituzte, batez ere prestigiozko arloetan. Matxismoak emazteak bigarren mailako betebeharretan mugatzen ditu. Matxismoak, falokraziarekin bat egiten du, gizonek baizik ez dutelako erabakitzen eta boterea dutelako. Matxismoa eta misoginoa bateragarri dira. Lehenak gizonen

99 https://www.unioncommunistelibertaire.org/Contre-le-sexisme-et-le-systeme-patriarcal-les-fins-et-les-moyens

nagusitasuna emazteen gain suposatzen du. Bigarrenak emazteen kontrako sexismoa adierazten du. Misoginoak emaztea mespretxatzen du eta etsaigoa erakusten dio. Beraz, misoginia, sexismo forma bat da. Modu berean, matxismoa misoginoa izan daiteke: emazteen kontra gorroto handi bat erakutsiz, batez ere emazteak rola tradizionaletatik kanpo bere burua goraki ematen duelarik. Horrez gain, matxismoa sexista, hetero sexista, homofoboa, transfoboa da eta balore patriarkalekin bat egiten du.

Maskulinitate hegemonikoak maskulinitatea rol batean mugatzen du. Connell eta Messerschmidten (2005) arabera, maskulinitate hegemonikoaren ezaugarri nagusiak, agresibitatea, lehiaketa, talde maskulinoari leialtasuna, emozioa zein intimitatea itotzea eta arrazionalizazioa dira. Horrez gain, irudimen kolektiboan, maskulinitatea finkatua den kontzeptua da. Gizonen jarrera testosterona eta burumuinaren antolakuntzaren ondorioak direla pentsatzen da. Alta, maskulinitate hegemonikoa, gizonak eta mutikoak norma matxista batean mantentzeko eta mugatzeko eraikia izan den kontzeptu bat da.

> “Hegemonic masculinity was distinguished from other masculinities, especiallysubordinated masculinities. Hegemonic masculinity was not assumed to be normalin the statistical sense; only a minority of men might enact it. But it was certainlynormative. It embodied the currently most honored way of being a man, it requiredall other men to position themselves in relation to it, and it ideologically legitimatedhe global subordination of women to men.” Connell, Messerschmidt; 2005

Maskulinitate hegemonikoa falozentrikoa da eta jendartea ikuspegi maskulino batetik bakarrik irudikatua dela suposatzen du. Gizonaren boterea sinbolikoki jendartearen ardatz guztietan agertzen da: artea eta kulturaren irudikapenetan, politikan, hiriaren eraikuntzan eta antolakuntzan, eskoletako espazioetan... Maskulinitate hegemonikoak alternatibei atea hesten die eta maskulinitate matxista batean oinarritzen da. Ber maneran, maskulinitateak harreman toxikoak eta bortizkeria fisikoak bideratzen ditu.

> “Because the concept of hegemonic masculinity is based on practice that permits men's collective dominance over women to continue, it is not surprising that insome contexts, hegemonic masculinity actually does refer to men's engaging intoxic practices including physical violence that stabilize gender dominance in a particular setting. “ (Connell, Messerschmidt; 2005)

Azkenik, androzentrismoak, mundua ikuspegi maskulino batetik irudikatzea suposatzen du. Jarrera hori kontzientea edo inkontzientea izan daiteke. Gure jendartean asimilatutako errepresentazio modeloak dira. Esentzialak bezala kontsideratuak dira baina jatorriz eraikiak dira. (Laqueur, 1992)

### 3.1.5 Sexismoa

1965ean, Paulin Leetek sexismo hitza erabiltzen zuen Franklin and Marchall College fakultateko forumean (Van der Steen, 2020). Hitz hori arrazakeriarekin paraleloan ematen zuen. Bi sistema horiek, egokiak ez diren ezaugarrietan oinarritzen dira jarrera batzuk justifikatzeko, biologiaren bidez (sexua, arraza… bezala). Carolin Birdek 1968an, sexismoak jendea bere sexuaren arabera epaitzea dela zehazten du (Bird, 1969). Sexismoa emazteen kontrako sistema bat da eta maskulinoa femeninoa baino gorago dela estimatzen du. Ikuspegi horrek jendartea antolakuntza patriarkal batean oinarritzen du.

Sexismoak forma ezberdinak har ditzake: Etsaigoa erakusten ahal du eta emazteekiko jarrera, ohar negatiboak biltzen ditu. Borondate oneko sexismoa dago ere. Hemen, emazteak babestu nahiko dira ahulak bezala kontsideratzen dira:

> "Le terme « bienveillant » est utilisé dans le sens où l'intention première de cette forme de sexisme est la protection voire la valorisation de l'individu tout en soutenant un système dans lequel les femmes se doivent d'œuvrer systématiquement pour correspondre à des critères physiques spécifiques et endosser des rôles imposés par la société." (Van der Steen, 2020)

### 3.1.6 Queer teoria

Queer (bitxia, arraroa) teoria genero ikasketen ardatza da. Generoa, hetereosexualek sortutako diskurtsoa elikatzeko eraikia da eta queer teoriak generoa eta sexua deseraikitzeko asmoa du (Macary Garipuy, 2006).

Queer teoria, Foucaulten gogoetari lotua dela agertzen da. Boterea errepresioa eta produkzioa da. Denak boterearen menpe gara. Sexualitatea gure humano identitatearen oinarria da. Foucaultentzat, sexua eraikuntza bat da, "fikziozko unitate" bat, oinarrizko printzipio faltsu bat da. (Macary Garipuy, 2006) Begirada horrek, ikusezintasunetik atera ditu pertsonaia periferiko guztiak: lesbiarrak, gayak, bisexualak, transexualak, transgeneroak... (Lasarte Leonet, 2010)

Queer teoriako boz eramaile nagusietan, Judith Butler edo Monique Wittig aipa daitezke. Haien kritika nagusiak aro modernoko borroka identitarioei lotuak dira eta aniztasunaren aldarrikapena egiten dute. Feminismoa, gay eta lesbianen mugimenduak galdekatzen dituzte generoa gainditu nahi delako. (Lasarte Leonet, 2010)

### 3.1.7 Emazte eta gizonei lotutako euskal definizioak

Euskaraz emazteari erreferentzia egiteko hainbat hitz agertzen dira: emazte, emakume, andre, andrazko, emakumezkoa hitzek kategoria berari egiten diote baina hitz bakoitzak bere definizioa dauka. Euskaltzaindiaren arabera, andrazkoak emaztea erran nahi du, sinonimoak dira. Andreak aldiz definizio ezberdinak hartzen ditu:

> "1iz. Arantziako Iraultza aurreko jendartean, emakume itzaltsua, jaunaren emaztea. Ik. **andere**. Jauregiko andrea. Zaldun batek edo andre batek gauza bera pairatuko du. Jatsuko jauna zuen aita, Azpilikuetako andrea ama.
>
> **2** iz. Emakumea, bereziki ezkondua edo adin batetik aurrerakoa. Andrea, gaur egun, gizona beste da eskubideetan. Etxe hartan andreak ziren denak. Bedeinkatua zara zu andre guztien artean. Andre eta gizon, neska eta mutil. Auzoko andre berriketari bat. Gabon, jaun-andreok!
>
> (...)
>
> 5 iz. Emakumezko santuei zenbaitetan ematen zaien titulua."100

*Andrazkoak* emazteari erreferentzia egiten dio, aldiz, *andrea* etxeko andreari lotua da.

Orduan, *andrazkoa* organo genitalei mugatua da baina *andreak* bere estatutua eta funtzio sozialari jendartean erreferentzia egiten du.

*Emakume*-a gizaki heldu emea da eta *andre*, *emazte* hitzen sinonimoa da. *Emakumezko* adjektiboak *emakumeari* lotuak diren ezaugarriak dira. Euskaltzaindiak proposatzen dituen bi definizioak sexuari lotuak dira eta genero estereotipoak integratzen dituzte (garbitasuna, gona...):

> **1** adj./iz. Sexu emekoa; sexu emeko pertsona. Ik. **emakume**. Ilargia ere emakumezkoa da euskal mitologian. Ama Birjinaren emakumezko garbitasuna. Elizan gizonezkoek jarri behar dute alde batean, emakumezkoek

---

100 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&Itemid=411&adm=&aurreratu=0&err=&eus=&gar=&kat=&lang=en&layout=aurreratua&num=&ona=&orria=24&sai=&sarrera=&view=frontpage

bestean. Euskarazko eresi horien egileak gehienetan emakumezkoak izaten ziren.

**2** adj. Emakumeari dagokiona, emakumearena. Emakumezko gonen azpian. Kanpoan emakumezko hizketa entzuten da. 101

*Emaztea*, gizonarekin ezkondua dena da, senar-emazte dikotomian oinarritua da. Baina, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan, emazte hitza emakume hitzaren sinonimoa da. [102]

*Eme* izena emakume, emazte eta emakumezko hitzen erroa da. Hori organo sexualei lotua da:

**1** adj./iz. Ernaldua izan daitekeen sexukoa. Ik. **urrixa**. Anton. **ar**. *Abere bikote bat, arra eta emea. Behia, zezenaren emea. Zerri handi bat, emea. Lehoi eme haserretua baino haserretuago. Palmondo emea. Lore emeak.*

**2** adj. Sexu horri dagokiona. *Gameto emeak.*

Baina emazte bati "*eme*" hitza erraten baldin bazaio negatiboa da:

**3** iz. *Adkor.* Emakumea. *Eme ergel hori! Eme ederra, hire ahizpa!103*

*Eme* eta *ar* osatzen (eta oposizioan) diren hitzak dira eta *arrak* organo sexualei ere egiten die erreferentzia.

**1** adj./iz. Ernaltzeko ahalmena duen sexukoa. Ik. **kotzo**; ordots **2**; **orots**. Anton. **eme**[2]. *Asto emearen ume arra. Igel arra. Arrak eta emeak. Talde horretan arrak agintzen du. Landare hori monoikoa da, hau da, lore arrak eta emeak ditu ale berean*.

**2** adj. Sexu horri dagokiona. *Loreetako organo arrak. Gameto arrak*. 104

---

101 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=emakumezkoa&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=411&lang=en&bila=bai

102 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=emazte&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=411&lang=en&bila=bai

103 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=eme&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=411&lang=en&bila=bai

104 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=ar&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=411&lang=en&bila=bai

*Ar* hitzak ez du konnotazio ezkorrik bere erabilpenean.

*Emakumea* hitzaren oposizioan *gizon* hitza agertzen da. *Emakumea* sexu emekoa baldin bada *gizona* sexu arra da. Baina *gizon* hitza ez da sexuan mugatzen. Gizona gizakia, humanoa da. Orduan, maskulinitateari lotua den hitz batek jendarte guztiari erreferentzia egiten dio.

> "1 iz. Gizaki arra, bereziki heldua dena. Ik. gizaseme; gizonezko; mutil. Anton. emakume. Gizon gaztea, zaharra. Gizon ahotsa. Gizon eta emakumeak elkarrekin. Gizon ezkondua. Hura zen, hura, gizon puska! Sendagilea hitz gutxiko gizona zen. Ezetz, gizona! Lasai, gizonak!
>
> **2** iz. Gizakia. Euskal Herriko lehen gizona. Gizona gizon denez gero, zer den galdezka ari da." 105

## 3.2 Generoa ulertzeko oinarri teorikoaren azterketa

### 3.2.1 Bourdieu: *La domination masculine*

#### 3.2.1.1 Tesia

Generoaren azterketa bideratzeko Pierre Bourdieuren *La domination masculine* saiakeran oinarrituko gara, lan horretan bi kontzeptu garatzen dituelako, *habitusa* eta bortizkeria sinbolikoa.

Bourdieu, gizon eta emazteen arteko sexu desberdintasunek gure desberdintasun sozialak justifikatzen dituen hatsarretik abiatzen da. Bere lanean, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun sozialak ulertzeko, gorputzen desberdintasunak aipatzen ditu, eta horrek sortzen duen errealitate kulturalaren eraikuntza deseraikitzen du. Horretarako, bere lanetan, kontrako esanahia duten kontzeptu bikoitzak erabiltzen ditu, Cabiliako jendartean generoaren eraikuntza nola burutu den azaltzeko. Gizon eta emazteen arteko ezberdintasun sozialak gorputzean agertzen dira eta oposizioan eraikitzen dira: gora/azpira, gainean/azpian, aitzinean/gibelean, zuzena/makurra, argia/iluna... (Bourdieu, 1998). Pentsaera eskema horiek unibertsalak eta objektiboak bezala aurkeztuak dira. Errealitatea bitasun horretan oinarrituta dagoela irudikatzen da, baina eraikuntza soziala dela jakinda. Eraikuntza hau, ohituran oinarritua dena, berezko moduan agertzen zaigu egunerokotasunean, *habitusa* da.

Beraz, kontzientzia kolektiboari oposizio hori menpekotasun helburu batekin eraikia dela

105 https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=gizon&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=411&lang=en&bila=bai

ohartarazteko zaila da. Sexuen zatiketa normala bezala agertzen da eta ikuspegi androzentrikoa eta maskulinoa neutroa bezala inposatuak dira. Orduan, *habitus*-a sexualizatua da eta sexualizatzen du. Gure jarrerak *habitus* batzuen arabera automatizatzen ditugu, arbitrarioa ahantziz.




**Irudia 11: Bourdieuren oinarrizko oposizio egokien eskema sinoptikoa, La domination masculine, 20..orr.**

Sexuen arteko desberdintasunek, generoen eraikuntza soziala eta lanaren zatiketa sexuala justifikatzen dituzte. Eraikuntza sozialek, maskulinoa aktiboa eta femeninoa pasiboa bezala antolatu dute. Printzipio honek, gutizia maskulinoa – posesio gutizia dena – eta gutizia femeninoa – menpekotasun erotikoa – erakusten ditu. Helburua gizonek haien feminitate partea ezeztatzea da. Maskulinitatea - *virilité* - indar sexualari lotua da. Gizonak kanpoan, publikoan, ofizialean kokatzen dira eta arriskuak, akzio ikusgarriak egiten dituzte. Emazteak aldiz, barnean, hezetasunean, azpian kokatzen dira. Haien rola etxean kokatzen da, gordetzen diren edo lotsagarriak diren jardunak betetzen dituzte. Emazteak menperatzaileen pertzepzio eskeman oinarritzen dira eta beraien buruaren ikuspuntu negatiboa dute. Emazteen oposiziok, estrategia sinbolikoen bidez agertzen dira, adibidez sorginkeria egiten dute. Akzio horiek ez dira nahikoak androzentrismoari aurre egiteko. Baina

menperatzaileen kritikak baieztatzen ditu, emazteak malefikoak dira.

*Bortizkeria sinbolikoa* garaipen maskulinoa instalatua delarik has daiteke. Eraikuntza sozialak objektiboak bezala proposatuak dira baina nagusitasuna gizonari ematen diote. Bortizkeria sinbolikoa etengabeko lanen eta erreprodukzioen emaitza da. Menpekoek menperatzaileek eraikitako kategoria horiek aplikatzen dituzte eta naturalak bezala integratzen dituzte. Ondorioz, menpekoak apaltzen dira haien irudikapenean. Bortizkeria sinbolikoa menpekoak menperatzailearen ikuspuntua integratua duelarik instalatzen da. Adibide bezala, Bourdieuk hierarkia sexuala aipatzen du: emazteek haiek baino gizon zaharrago eta handiago bat nahiago luketela adierazten dute gehiengoan. Menperatuek nahi gabe – gehienetan – inposatutako mugak onartzen dituzte. Botere sinbolikoa posible da jasaten dutenek parte hartzen dutelako eta zapaltzailearen ardura ezeztatzen dutelako. Ondorioz, bortizkeria sinbolikoa ezagutza eta ez ezagutza harreman batean oinarritzen da. Manu, aholku, mehatxu, erantzun eta aginduei botere "hipnotiko" bat ematen die (Bourdieu, 1998).

Eskola, Estatua eta Eliza, garaien arabera, emazteen baztertzeen oinarri nagusiak izan dira. Eskolak hierarkien kontzientzia du eta mantendu behar ditu. Emazteek produkzio esferei bidea irekia ukan dutelarik, jendartean, haien errepresentazioa aldatu da. Baina, emazteen tokia beti erdibideko lanbideetan kokatzen da eta autoritate, ardura postuetatik baztertuak dira. Beraz, nahiz eta neskak geroz eta gehiago eskolatuak izan, desberdintasunak ez dira desagertzen. Erakundeetako langileek historia menperatzaileen ikuspegietatik sortu dute.

Bestalde, Familia, Eskola eta Eliza, objektiboki antolatuak bezala agertzen dira baina, menpekotasunaren oinarriak dira. Familia sisteman, maskulinoaren nagusitasuna oinarritik agertzen da. Familian, lanaren zatiketa sexuala inposatzen da eta irudikapen legitimo bat zabaltzen da. Familia heterosexualaren eredua oinarria da. Heterosexualitatea unibertsala eta norma bezala kontsideratua bada, bide hori segitzen ez duten beste praktikak "anormalak" edo "natura kontrakoak" bezala agertzen dira. Orduan, ezin da emazteen eta gizonen harremanen arteko aldaketarik pentsatu, genero ordena mantentzen duten erakundeen mekanismoak aldatu gabe.

Ondorioz, emazteak gune publikotik baztertuak dira. Merkatu eta biltzarretan ez dute tokirik. Gune publikoak, karrika bezala, arriskuen esfera bezala agertzen dira. Joko serioenak gune horietan jokatzen direlako, ohorea bezala (Bourdieu, 1998). Orduan, ohorea aipatua delarik, gizonen arteko harreman bat suposatzen du, emazteak, hortik baztertuak dira. Emazteek eztabaida publiko batean parte hartzen dutelarik, atentzioa eta hitza ukateko borrokatu behar dira. Kexatzen baldin badira, emazte histerikoaren estereotipo sexistari erantzungo diote. Aldiz, seduzitzea erabakitzen baldin

badute, eta patriarkatuaren jokoan sartzen baldin badira, haien menpekotasuna onartzen dutela suposatzen da.

Baina pribilegio maskulinoak pisu bat dauka. Etengabe tentsioan egon behar du ohoreari eta maskulinitateari – *virilité* – baikorki erantzun behar diolako. *Egiazko gizon batek* esfera publikoan ospea eta kuraia erakutsi behar ditu. Balore maskulinoek balore femeninoak etsaiak dituzte ahulezia adierazten dutelako, maskulinitatea, feminitatearen kontra eraiki baita. Kuraia bezala kontsideratuak diren forma batzuk (polizia eta gerla egitea bezala) zuhurtasun eskasiak dira. Arriskuak hartzeko motibazioa ez da kuraian oinarritzen, taldearen onespena galtzeko beldurrean baizik.

#### 3.2.1.2 Bourdieuren oinarriak eta mugak

Landuko diren obrak bortizkeria sinbolikoan oinarritzen direnez jakiteko, maskulinitate eta feminitatearen oposizioetan oinarrituko gara. *Bortizkeria sinbolikoa* eta *Habitusa*ren kontzeptuak oinarri bezala hartuko ditugu gure corpusen analisietan. Desoreka harremanak mantenduak dira eta gure *habitusek* norma batean integratuak direla suposatzen dute.

Peggy Sastrek Bourdieuren ikuspuntua neurtzen du *La domination masculine n'existe pas* (2015) saiakeran. Nahiz eta nagusitasun maskulinoa egiazkoa dela adierazten duen, ez du Bourdieuren teoriarekin bat egiten. Soziologoaren arabera, nagusitasun maskulinoa asmatua izan den kontzeptua da. Bourdieuk nagusitasuna bortizkeria sinbolikoan eta *habitus*etan oinarritzen dela frogatzen baldin badu, Sastrek bere teoria biologian eta Darwinismoan oinarritzen du. Bere analisia esentzialistek, arra eta emearen arteko ezberdintasunak ez direla eraikuntza sozialak baina jendarte eta animali guztien artean existitzen direla erakusteko helburua dute. Bere ustez, biologiak oinarrizko rol bat dauka desoreka sozialean, adibidez, bortizkeria justifikatzeko. Sastrek Bourdieuren *ohorearen* kontzeptua berrikusten du: pertsona maskulino batek bere faman mehatxuak sentitzen baldin baditu, bortizkeria erabiliko du. Hori "ohorea" bezala kontsideratua izango da. Orduan, ohorea, gizonak bere burua defenditzea da: iraintzeko eta kolpatzeko gaitasuna da. Indarra famaren oinarrian da. Bourdieuk ohorearen kultura eraikuntza sozial bat bezala agertzen baldin bazuen, Sastrek historia demografikoan, jiteetan eta kultura pastoralean justifikatzen du. Beretzat, bortizkeria mekanismo batzuen ondorioa da eta espezie humanoa babesteko erabilgarria izan den eraikuntza izan da. Ber maneran, emazteen biktimizazioa galdekatzen du. Bourdieuk, *habitusen* ondorioz emazteek beren estatusa barnatu dutela aipatzen du. Bere ikuspuntuz, menpekoen armak ahulegiak dira menperatzaileei aurre egiteko. Sastrek, aldiz, gizon eta emazteen arteko ezberdintasunak eboluzioaren ondorioak bezala aipatzen ditu. Adibidez, pilulak emazte eta gizonen arteko sexualitatea

maila berdinean eman baldin badu, ez ditu emazteen milurteko haur sortzeen beldurrak ezabatzen ahal. Emazteek gizonek duten tokia ez dute hartu eta egoera hori onartzen dute. Sastrek gaurko jendartearen sexismoa biologiaren historiaren ondorio bezala erakusten du, Bourdieuk bere teoria, eraikuntza sozialen harremanetan oinarritu du.

Elisabeth Badinterrek (2003) nagusitasun maskulinoa galdekatzen du. Beretzat, nagusitasun maskulinoak eta maskulinitate hegemonikoak adoste orokor bat suposatzen dute. Baina, nagusitasun hori unibertsala baldin bada, konponbidea zein den galdekatzen du soziologoak. Gizon feministen eskuetatik etorri behar ote da? Autokritika kolektibo batetik? Pedagogian eta psikoanalisian esperantza ukan behar ote da? Badinterrentzat, arrisku nagusia esentzialismoan erortzea izango litzateke. Hots, ez da maskulinitate unibertsal bat bakarrik baina maskulinitate asko, feminitate asko bezala:

> “Les catégories binaires sont dangeureuses car elles effacent la complexité du réel au profit de schémas simplistes et contraignants. (...) Ce concept “attrape tout” en enfermant les hommes et femmes dans deux camps opposés, ferme la porte à tout espoir de comprendre leur influence réciproque et de mesurer leur commune appartenance à l'humanité.”

Modu berean, autoreak binarismoak manikeismoa sortuko duela adierazten du: Menperatzailea den sexua txarra da eta menperatua dena ona bezala adierazia da. Badinterrek emaztearen hitza sakratua bilakatzen dela adierazten du eta gizona estigmatizatua dela kritikatzen du. *Metoo* aferaren ondotik, feminismoa erradikala bilakatu dela gutxiesten zuen. Emazteen erranetan oinarritzen baldin bagara justiziari lehentasuna eman gabe, gizonen “hiltze soziala” “lanbide eta familia hiltzea” bezala kontsideratzen du Badinterrek (2020). Bortxaketaz akusatua den gizon bat epaitua izan arte, inozentzia merezi luke. Laburbiltzeko, menpekotasun maskulinoak emazteak biktimak bezala erakusten ditu, haiek ere menderatzaileak izan daitezkeelarik. Alta, ikuspegi hori zenbaki batzuekin neurtzen ahalko litzateke: frantses estatuan, urte guztiz, 98 000 bortxaketa biktima ezagutu dira da eta haietariko 84.000 emazteak dira[106]. Haien artean %10 salaketa jartzen dute. Gezurra erran dutenak %3 eta %8 artean dira, estatistiken arabera (Lisak, Gardinier, 2010; 318-1334.orr; Bala, 2005; 1333-1345.orr; Philip, 2006; 125-158.orr) Badinterrek egiten duen kritika ez da isolatua eta *Mémoire traumatique et victimologie* elkarteak esplikatzen du:

> “Cette réaction s’appuie sur des idées fausses : sur le fait que les femmes, les enfants qui se disent victimes de viol mentent fréquemment, et qu’il y a un nombre important de fausses allégations. Ce mythe est tenace, et les

106 https://www.ipsos.com/sites/default/files/files-fr-fr/doc_associe/rapport-enquete_ipsos-amtv.pdf

violences sexuelles sont les seuls crimes ou délits pour lesquels on soupçonne a priori la personne qui s'en déclare victime. Des rationalisations viennent alors alimenter ces idées fausses : les femmes mentent par vengeance, pour de l'argent, parce qu'elles ont honte d'avoir "fauté", les enfants mentent parce qu'ils sont manipulés par leur mère lorsque les violences sexuelles sont révélées lors d'une séparation (syndrome d'aliénation parentale), ou bien manipulés par des psychothérapeutes (faux souvenirs). Pourtant les fausses allégations de violences sexuelles chez les personnes qui portent plainte sont rares." (Rapport d'enquête: les francais.e.s et les représentations sur le viol et les violences sexuelles, 2015)

### 3.2.2 Monique Wittig, *La pensée straight*

Bourdieuren ikuspegiarekin kontrastatzeko eta bere ekarpenari ñabardurak ekartzeko, Monique Wittigen teoria tesiaren bigarren zutabea da. Monique Wittig oinarrizko filosofo feminista izateaz gain, menperatuen taldetik argibide teorikoak ekartzen ditu.

#### 3.2.2.1 Jendartea menpekotasunaren dialektikan oinarritua da

*La pensée straight* 1992an argitaratutako Wittigen artikulu multzo bat da. Honen bidez, soziologoak heterosexualitatea, generoa eta sexuei buruz bere gogoeta proposatzen du.

Autorearentzat, menpekotasuna dialektika batean oinarritzen da. Emazteak eta gizonak bi sexu kategoriatan definituak baldin badira, menperatzaile talde bat eta menperatu talde bat eraikitzeko helburuarekin da. Esklaborik ez baldin bada nagusirik gabe, ez da emazterik gizonik gabe. Maskulinoa eta femeninoa sortuz, menpekotasun ekonomiko, politiko eta ideologiko bati erantzuten diete. Ezberdintasunak naturalak direla pentsaraziz, menperatzaileen zatiketak bermatzen dira eta eztabaidaezinak bilakatzen dira. Baina ez dago sexurik. Zapalkuntzak du sexua sortzen.

Emazteek ez dakite gizonen menpe direla eta errealitatea azaltzen zaielarik ez dute sinetsi nahi. Aldiz, gizonek emazteen menperatzaileak direla badakite eta honentzat formatuak izan dira. Nagusitasunak hiru informazio irakasten eta inposatzen dizkigu:

1- Bi humano kategoria daude eta ezberdintasun batekin sortuak dira.
2- Sexua naturala, biologikoa, hormonala eta genetikoa da.
3- Familian lan zatiketa natural bat existitzen da.

Alta, nahiz eta bi sexuak oinarriz ezberdinak izan, bi kategorien artean harremanak sortu behar dituzte. Emazteek hitza hartzen dutelarik, euren diskurtsoa ez dela aski zientifikoa, ez aski teorikoa, ez eraikia leporatzen zaie. Ez dute hitza hartzeko baimenik.

Nagusitasunak esnobismoa bermatzen du. Gizon batek emazte batentzat duen gutizia ikuspegikoa baldin bada, emazte batek beste emazte batentzat gutizia baldin badu ulertezina da. Nola ukan dezakete menpeko bi pertsonek gutizia haien artean? Heterosexualitatea errealitatearen ukatzean oinarritzen da.

### 3.2.2.2 Jendartea ikuspegi heterosexualetik eraikia da: *straight pentsaera*

Jendartea heterosexualitatean oinarritua da eta harreman hori, naturala bezala kontsideratu behar da. Heterosexualitatea jendartearen oinarrian kokatzen da eta sexua bi kategoriatan banatzen du. Sexualitatea heterosexualitatean normalizatzen delarik, emazteen menpekotasuna agerrarazten da. Emazteak haien biologian mugatuak dira eta haien lana “naturala” bezala kontsideratuko da. Hala nola, haurrak egitea, haietaz okupatzea eta etxeko lanak egitea emazteen lana da. Honen bidez, emazteek jendarte heterosexualarentzat produzitzen dute. Orduan, sexu kategoriek, populakuntzaren erdia gizaki sexualak bezala kontsideratzen ditu, soziala baztertuz.

Diskurtso heterosexualak, lesbiana feministak eta gizon homosexualak zapaltzen ditu. jendartea heterosexualitatean oinarrituz, ezin da beste kategoriarik sortu. Zapalduei egindako bortizkeria materiala baztertua da. Diskurtso abstraktuek, zientifikoek eta komunikazio handiak zapaltze hori bermatzen dute.

Irudiek, filmek, argazkiek, afixek eta publizitateek emaztea menpe dela erakusten dute eta *straight pentsaera* bermatzen dute: pentsaera honek kultura heterosexuala jendarte guztien erroan dela suposatzen du. Heterosexualitateak bestea ezberdina den ideian oinarritzen da. Politikoki, ekonomikoki, sinbolikoki eta linguistikoki agertzen da. Orduan, emaztea, bestea da, ezberdina dena, proiekzio bat da. Gizonak, aldiz ez dira “besteak”. Wittigek kontzeptua kritikatzen du ez delako “izate-emazte” edo “izate-gizon”-ik. Kontzeptu horiek oposizio politikoak dira. Orduan, emazte eta gizonak klaseen bidez baizik ez dira existitzen.

Heterosexualitatea *kontratu sozial* bat da. Bi talde artifizial ezberdin existitzen dira. Gizonak ordena sozialean titulu “sozializatuak” bezala agertzen dira. Aldiz emazteak, titulu “naturalak” bezala agertzen dira. Beraz, emaztea izateko, heterosexuala izan behar da. Emazteak bere estatutuarentzat amore ematen baldin badu, ez du erran nahi bere estatutua onartzen duenik (Mathieu, 1991). Orduan, ikuspegi homosexual batetik, heterosexualitatea ez da “naturala” eta ez da sexualitate bakarrik. Heterosexualitatea eraikuntza batean oinarritzen da eta desberdintasun eta menpekotasun sozialak

justifikatzen ditu.

### 3.2.2.3 Emaztearen eraikuntza

"Emazteak" talde ideologiko bat da, eta "naturala" bezala agertzen da. Emazteak haien gorputzean eta haien gogoetan naturaren ideiarekin bat egitera bortxatuak izan dira. Baina ez da "emaztea" talde naturalik. "Emaztea" mito bat da. Emazte bat izateko haurrak egiteko gaitasunean oinarritu behar da. Emazte eta gizonen artean ezberdintasun natural bat badela onartzen baldin bada, historia naturalizatzen dugu, beti existitu balira eta beti existituko balira bezala onartuz. Orduan, gure menpekotasuna erakusten duten fenomeno sozialak naturari lotzen ditugu, aldaketa guztiak egin ezinak bilaka araziz. "Emazteak" hitza eraikuntza sozial bat da, "emaztea" hitza ez da existitzen, mito bat baita.

Wittigen iduriko, lesbianismoa talde ideologikotik eta mitotik ateratzeko gakoa da eta jendarte binaristatik ihes egiteko aterabide bakarra da. "Emaztea" natura kontrakoa eta mugatzailea da. Orduan, lesbiana izatea emaztea ez izatea erabakitzea da. Honek ez du suposatzen gizona bilakatzea denik baina kategoria sozial bikotzetatik ateratzea da:

> "Une lesbienne donc doit être quelque chose d'autre, une non-femme, une non-homme, un produit de la société et non pas un produit de la "nature", car il n'y a pas de "nature" en société. Refuser de devenir hétérosexuel (ou le rester) a toujours voulu dire refuser, consciemment ou non, de vouloir devenir une femme ou un homme"(Wittig, 1992; 57..orr)

Feminismoak bi zentzu ukaten ahal ditu. Wittigentzat emazteen alde borrokatzea, klase ikuspuntu bat ukatea eta klase hori desagerrarazteko helburuarekin aritzea da. Aldiz, beste batzuen iritziz, "emaztea" defenditzeko sortua da feminismoa, hots, emaztearen mitoa mantentzeko eta indartzeko, gorago aipatua izan den bezala. Bigarren kategoriako feministek "egalitatea ezberdintasunean" sustengatzen dute: ezberdintasunak naturalizatuz eta mitoak mantenduz. Wittigen helburua gizonen klasea desagerraraztea da. Gizonen klasea deseraiki ondotik, emazteen klasea desagertuko da, jabe gabeko esklaborik ez delako. Beraz, lesbianismoa, libre bizitzeko forma sozial bakarra bezala agertzen da.

### 3.3.4 Wittigen lanaren interpretazioak eta ondorioak

Falozentrismoari aurre egiteko, Wittigek sexuak deseraikitzea aldarrikatzen du. Orduan, mundu berri bat sortzea proposatzen du gizabanako libreak bezala biziz. Dena berrikustekoa eta

asmatzekoa da (Robin, 2011; 71-97..orr). Bere teoria berriz hartua izan da Judith Butlerren eskutik: heterosexualitate bortxatuaren eta naturalizatuaren erakundearen baldintza, generoa eta bere harreman bikoa da. Maskulinoa eta femeninoa oposizioan dira, gutizia heterosexual baten ikuspuntutik (Butler, 1990; 93..orr). Askatasuna eta anti konformismoa suposatu ordez, lege berriek lege zaharrak ordezkatu dituzte. Kategoria berrien sorkuntza ulergarriagoa bezala agertzen da menperatzaileentzat. Ez dute duda eta anbiguetatea jasaten. Genero kategoriak biderkatuz, askatasun faltsu bat sortzen da. Besteak eraikitako mugen arabera bere burua definitzea da. Alta, Wittigek unibertsalismoan perspektiba humano guztiak norma bezala agerrarazi nahi ditu.

Bestalde, homosexualitatea eta batez ere lesbianismoa genero kategoria binarioen konponbidea bezala agertzen da. Baina, heterosexualitatea eraikuntza bat baldin bada, zergatik ez beste bide bat eman? Luc Schicharinen (2017) arabera, gizon heterosexual *post-straight* izan daiteke. Bere helburu politikoa bere jarrera soziala kontrolatzea eta bere hitzen eta ekintzen kontzientzia hartzea da asimetriak ulertzeko. Jarrera zientifiko doble bat duela dio:

> "Je parle ainsi d'une attitude scientifique double car, oui, je regarde et j'analyse les représentations à partir de mon propre point de vue, mais d'un autre côté, ce point de vue est fortement informé par les discours minoritaires."

Orduan, heterosexualitate klasikoa eta heterosexualitate *post-straight*-a ezberdintzen ditu. Bere heterosexualitatea ez du naturala edo normala ikusten baina subjektibitate mota bat bezala, nahiz eta jendarteak nagusitasun subjektu bat bezala ikusten duen. Heterosexual *post-straight*-ak talde minorizatuak eta justizia soziala ditu helburu bezala.

### 3.2.5 Bourdieu eta Wittigen teorien bateragarritasuna

Bourdieuren teoria nagusitasunaren eraikuntzan oinarritzen da. Wittigek heterosexualitatea eta normak ikertzen ditu. Bi teorien oinarrian, eraikuntza sozialaren kontzeptua agertzen da. Jendartea bi kategoria artifizialetan zatitua da. Zatiketa hori organo sexualetan bakarrik oinarritzen da eta ez du erdibiderik proposatzen. Generoa sexuaren menpe da eta genero horrek jendartean integratua izateko, errespetatu behar diren kode sozialak, jarrerak eta harremanak diktatzen ditu. Heterosexuala eta maskulino/femenino binarismoan kokatzen ez dena ez da normala edo naturala. Alta, eraikuntza hori menpekotasuna instalatzeko erabilia da. Kategoria batek (maskulinoak) bestea (femeninoa) zapaltzen du eta menpe ematen du. Menpekotasun honek kontzeptu heterosexualean oinarritzeaz gain, jendarte

guztia honen arabera antolatzen du. Orduan, arlo politikoa, soziologikoa, ekonomikoa, linguistikoa eta kulturala nagusitasun horren menpe dira. Bourdieuk deitzen duen bortizkeria sinbolikoa da.

Emazteak harreman horien menpe baldin badira, ez dira baitezpada haien egoeraz kontziente, bortizkeria sinbolikoa barnatua dutelarik. Eraikuntza sozialek haien menpekotasuna “naturala” bezala integratzen dituzte, *habitus* bilakatzen dira. Gizonak, aldiz, menperatzaileak izateko formatuak izan dira eta haien boterea baliatzen dute. Bourdiek emazteak borrokatzeko arma sendorik ez duela adierazten du. Alderantziz, Wittigek lesbianismoa giltza dela aldarrikatzen du: patriarkaren zirkuitutik aterabidea da. Wittigen analisia Bourdieurena baino urrunago doa. Bourdieuk jendartea binarismoaren prisman mugatua dela adierazten du. Wittigek muga horiek zartarazteko giltzak baditu. Emazteak eta gizonak deseraiki behar et ahal direla aldarrikatzen du.

Ikerlariek jendartea heterosexualitatearen norman mugatzen duela kritikatzen dute. Heterosexualitatetik ateratzen diren bideak anormalak bezala agertzen dira eta helburua gizakiak binarismoan mantentzea da, menpekotasuna bermatzeko.

### 3.3 Bortizkeria sinbolikoa, literatura eta merkatua

#### 3.3.1 Kultura eta merkatu sexistaren antolakuntza

Eraikuntza sozialek bortizkeria sinbolikoak finkatzen dituzte. Ordre sozial desorekatua mantentzeko, jendartearen arlo ezberdinak inbestituak dira. Eskola, politika, aipatuak dira, baina kontsumo produktuak eta merkatu estrategiek bortizkeria sinbolikoa eta menpekotasuna bermatzen dute ere.

Literatura eta kultura, kontsumo produktu batzuk izan daitezke erosten eta saltzen diren neurrian. Neska eta mutikoei proposatutako tresnek genero femenino eta maskulinoak inposatzen dituen baloreei baikorki erantzungo diete eta sexuen arteko desberdintasuna inposatuko dute. Haurtzarotik, literatura, marrazki bizidun, filma, jostailu, jantzi eta jardueren bidez, estereotipoak mantenduko dira. Baina, 30. hamarkadan (Couture, 2009; 119-122.orr), mutiko eta nesken aisialdiak berdinak ziren, haien jostailuek ez zioten genero zehatz bati erantzuten eta testuinguru berdinean jostatzen ziren. 70. hamarkadan oraindik, publizitateetan, mutikoak panpinekin jostatzen eta neskak eraikitze jostailuekin agertzen ziren.

90. hamarkadak eta merkatuaren mundializazioak neska eta mutikoen arteko aktibitate eta jostailu ezberdinak orokortu ditu. 2012an, argitaratuak diren katalogo gehienetan jostailuak “neska”

eta “mutiko” sailen arabera adieraziak ziren. Alta, 90.hamarkada arte, jostailuak estiloka sailkatuak ziren. Ber maneran, joko espezializatuak sortu dira generoen arabera: neskentzako joko bideoak – *girl's games* – agertu dira eta neskentzako 60.hamarkadan desagertu ziren aldizkariak berpiztu ziren. (Contre les Jouets Sexistes, 2007) Literatura mota bereziak agertu dira, nesken hiztegiak, mutikoen hiztegiak bezala. Horrelako liburuek, estereotipo sexistak bideratzen dituzten tresnak dira. (Pépites sexistes, 2022).

Marketinak patriarka eta kapitalismoa bermatzen ditu, bi aldiz gehiago saltzeko helburuarekin. Familia batean mutiko eta neska bat baldin badira, bi jostailu mota ezberdin erosi beharko dira. Haurrak, marketinaren jomugak dira, haiek dituztelako jarduerak hautatzen (Vincent, 2001) Adibidez, *Character Merchandising* marketin metodologiaren bidez, famatua den pertsonaia bat helburu komertzial batekin ustiatua da (produktu eratorriak). Frantses etxebizitzen %97ak (Eveno, 2012) horrelako jostailuak ditu etxean. Kulturalki, mundializazioa orokortzeaz gain, genero estereotipoak bermatzen ditu. Neska eta mutikoentzako jostailuak bereizten dira eta unibertso ezberdinak sortzen dira. Alta, jendartea ulertzeko, ereduen bidez egiten da. Modu horretan, estereotipoak integratzen dira, literaturarekin bezala. Kontsumo produktuek, norbanakoari, sortzetik sexualitateari buruzko informazioak ekartzen dizkiote. Haurrek, familiarekin ereduak jasotzen dituzte eta egunerokoan gurasoen jarrerak imitatzen dituzte sexistak diren tresnak erabiliz. Neutroak diren jostailu asko – rol jokoak, bizikletak – ere maskulinoak bezala kontsideratuak dira eta feminizatuak dira (arrosa gehituz, aktibitateak bideratuz...). Sorkuntza industrialek errealitateak proposatzen dituzten ereduak baino errepresentazio estereotipatuago eta sexistago bat erakusten diete haurrei (Dafflon Nouvelle, 2006; 19..orr).

Neskek mutikoen jostailuak erabiltzen baldin badituzte, mutikoek muga sinboliko hori pasatzeko zailtasun gehiago dituzte. Jostailu misto bat sortu nahi delarik, ez da neska batek erabiltzen ahal duela erakutsi behar (Commissariat Général à la stratégie et à la prospective, 2014). Orduan, arrosa, edo pertsonaia femeninoen tokia desagerrarazi behar dira mutikoei saltzeko.

Sexismoa ez da bakarrik tresnetan agertzen. Gazteek kontsumitzen dituzten produktu numerikoek ere sexismoa bermatzen dute eta norma bezala definituak dira. 2020ean, HCE-ak Frantzian bere urteko sexismoari buruzko txostena argitaratu zuen (Haut Conseil à L'égalité Entre les Femmes et les Hommes, 2020). Komunikabideetan, telebistan, sare sozialetan, musika bideoetan agertzen diren modeloak sexistak dira eta nesken “hyper femeninotasuna” eta mutikoen “hyper maskulinotasuna” balorean emana da. Sortzaileen artean emazteen tokia gutxiengoan izateaz gain, agertzen direnak karikaturak dira. Askotan zozoak eta ahulak bezala erakutsiak dira. Maiz irain

sexistak agertzen dira: neskak haien sexualitatera eramanak dira ("putak" dira) eta mutikoak gutxiesteko, haien maskulinitatea dudan ematen da (irain homofoboak). Amatasuna zuhurtasunaren sinonimo bakarra da.

### 3.3.2 Feminismoa merkatua bilakatzen delarik

Kontsumo produktuen kritiken eta konkurrentziaren kontra joateko markek haien marketin estrategiak aldatzen dituzte. Haien helburua, jendartearen baloreak berreskuratzea da, markaren irudi positibo bat proposatuz. Hala nola, *Always* markak 2014ean *Like a girl* publizitatea sortu zuen, emazteen konfiantza nerabezaroan apaltzen zela erakusteko. *Lego* (Buisness Insider 2015) jostailu markak emazte zientifiko pertsonaiak sortu zituen. FIFA joko bideoek futbol ekipa femenino bat sortzeko aukera proposatu zuen 2016ean, besteak beste.

Iniziatiba horiek emazteei irudi positiboak emateko helburua dute. Enpresa kapitalistek irudi militante bat eskuratzen dute eta erosleek konfiantza gehiago egiten diete eta etikoki kontsumitzen dutela pentsarazten zaie. (Swaen, Vanhamme, 2006; 75–98.orr) *She Knows*-en arabera, publizitate feminista batek eragin positibo zuzena du erosle femeninoarentzat. (Times Magazine 2014) Erosle nagusiak femeninoak direnez[107], (familien erosketen %80 erabakitzaileak dira), haiek baloratu behar dira.

Marketinaren helburua, saltzea denez, enpresek feminismoa erabiliko dute gehiago saltzeko. Diskurtsoek ez dute engainamendurik eta aldarrikapenak saltzen dira modan izateko. *Greenwashing*-a bezala, *genderwashing*-a marketinaren oportunismo berria da. Funtsik gabeko labelak, partaidetzak sortzen dira, markei irudi garbi eta positiboa emateko (The Conversation, 2021). Zinismo honetan erori diren marken zerrenda bukaezina da (Baudet, 2015). Dior, H&M bezalako jantzi markek, luxuzkoak edo denei zuzenduak direnak, eslogan feministak inprimatzen dituzte haien atorren gainean, homosexualen harrotasunarentzat kolekzioak sortzen dituzte... Salmenta produktu horiek, ez dute egiazko aldarrikapenik. Alderantziz, Slimanirentzat (2020), marketinak, feminismoaz gauza polit, goxo bat sortzen du, egiazko eztabaidak eta borrokak ahantzaraziz. Emantzipazioa eta bortizkeria nahasten ditugu. Adibide bezala, zinemarentzat sortutako super heroi femeninoak aipatzen ditu Slimanik. Jendarteak pertsonaia horiek onartzeko, gizonen gaitasunak eskuratzen dituzte pertsonaia femeninoek: borrokatzen dira, indartsuak dira... Baina, feminismoaren helburua ez da menperatzaileen jarrera berreskuratzea:

---

107 Etude DataGem de Comscore, 2011

“Voyez ces films de superhéroïnes, dont les spectateurs se gaussent qu’elles sachent se battre comme les hommes et faire preuve de la même violence aveugle. Etre féministe peut-il consister simplement à faire concurrence aux hommes sur le terrain de l’appétit pour l’argent et pour le pouvoir ? La question de l’argent a toujours été au cœur de la réflexion féministe, puisque dépossédées de la moindre autonomie financière, les femmes ne pouvaient pas faire de choix réellement libres et ont vécu dans la dépendance à l’égard de leurs époux. Mais Virginia Woolf ou Simone de Beauvoir, lorsqu’elles défendent la nécessité d’avoir de l’argent à soi, n’en font pas le but de leur existence. Et elles étaient t outes les deux conscientes que le système capitaliste, dirigé par des hommes, était aussi responsable du fait que 70 %des personnes les plus pauvres de la planète sont des femmes.” Slimani, 2020.

#### 3.3.3.1 Nerabeak eta genero estereotipoak

Tesiak genero estereotipoen eragina nerabeen gain gogoetatuko du. Psikologia sozialean egindako ikerketek, ikasleen sozializazioa bi kultura ezberdinduen gainean oinarritzen dela adierazi dute (neskena eta mutikoena) (Leonova, Demont, Loing, 2006). Bi urtetik goiti, haurrek segregazio sexuala integratzen dute. Haurrak, sozialki bere sexuari lotutako aktibitateak egin behar dituela ulertu du bere haurtzaro txikitik goiti:

“ C’est aux alentours du deuxième anniversaire que les filles commençaient à se tourner davantage vers d’autres filles, tandis que les garçons, plus longtemps indifférents au critère de sexe, participaient activement à cette ségrégation à trois ans, et, à l’âge de cinq ans, dépassaient les filles dans leur préférence pour des camarades du même sexe. (...) Donc, le phénomène de la ségrégation sexuelle dans le choix de partenaires de jeu et de travail est attesté dans le comportement des enfants âgés de 2 à 14 ans.» (Leonova, Demont, Loing, 2006)

Psikologian, haurren eboluzioa generoarekiko hiru etapatan kokatzen ohi da (Leonova, Demont, Loing, 2006):

- Bi urterekin, “genero identitate” garaia da. Helduak bi entitatetan kokatzen dituzte haien karakteristika fisikoen arabera (gizon edo emazte). Haurrak bere burua bi generoen artean kokatzeko gaitasuna du.
- Hiru-lau urterekin, “genero egokitze” fasea da. Haurrak generoaren kontzeptua integratzen du. Generoa ez dela aldatzen ikusten du.
- Bost urterekin “generoaren iraunkortasuna” da. Generoa eta sexuaren arteko lotura integratzen ditu. Bere identitatea zazpi urtetan orekatzen da.

Beraz, identitate sexualizatua, transmisioari lotua da. Gure sexuaren taldeari identifikatzen

gara familia eta hezkuntza, komunikabide esparruetan jasotzen ditugun mezu eta jarrera estereotipatuen arabera.

Nerabezaroan, genero estereotipoak jadanik barnatuak dira eta sexismoaren transmisioko prebentzioa, haurtzaro txikian egin beharko litzateke. Alta, nerabezaroa androzentrismoaren barnatzeari aurre egiteko oinarrizko garaia da. Normaren pisua garrantzitsua da eta ikasleek talde bati lotuak direla sentitzeko beharra dute. Nerabezaroa oinarrizko sozializazio garaia da eta sexismoaren bortizkeria garai honetan zartatzen da. Ikasleak garai horietan eraikitze fase batean kokatzen dira eta baztertzeaz, bakardadeaz sufritzeko arrisku gehiago dituzte. Nerabeek genero estereotipoen eragin negatiboak jasateko aukera gehiago ezagutuko dituzte adin horietan. Sexualitatearen inguruko galdeketak hasten dira. Datuek, frantses estatuetako eskoletan neskak mutikoak baino gehiagotan bortizkeria sexisten biktimak direla erakusten dute (Simonis-Sueur, 2019):

> “Les jeunes utilisent un langage sexualisé et ordurier, en banalisant l’insulte : « c’est notre culture » ; « c’est pour rire ». Les garçons y associent ou non des actes physiques violents, des actes de contrainte, de soumission, dont les filles sont victimes. Pour certains adultes, ces comportements ne sont pas perçus comme de la violence.”

Orduan, bortizkeria nerabeen arteko harremanen oinarrian da. Jarrerak, identitateak etengabe normaren arabera inposatuak dira. Honek ondorio psikologikoak ditu estigmatizatuak diren ikasleentzat: LGBTQIA+ fobia kolegio eta lizeoetan orokortua da. LGBTQIA+ pertsonen %26k, ikastetxearen barnean mehatxu edo irainak jasan dituztela adierazi dute. %13k agresio fisiko bat edo gehiago jasan dituzte. Irain homofoboak normalizatuak dira (Ministère de l'éducation Nationale et de la Jeunesse, 2021). Bourdieuren tesiaren arabera, menperatzaileek eta menperatuek egoera “normala” bezala kontsideratzen dute eta onartzen dute (Léchenet, Mercader, 2019).

Heldu hezitzaileen tokia nerabezaroan zentrala da. Datuek irakaskuntza sisteman hezitzaileak eta irakasleak egoerari aurre egiteko ez direla adituak erakusten dute. Lehenik kontzientzia hartze eskasia agertzen da. Bortizkeria gutxietsi da edo ez da behar den bezala kontsideratua:

> “Ce sentiment que la mission des adultes de l’établissement s’arrête aux portes, si l’on peut dire, de l’intime et du privé peut se lire dans l’ensemble des interviews, sans que nous ayons pu dégager des lignes de divergences en fonction de la classe sociale ou même de l’âge des élèves : tout au plus dirons-nous que cette limite va davantage « sans dire » pour les

personnels des lycées que pour ceux des collèges." (Léchenet, Mercader, 2019)

Bestalde, jarrera batzuk ezdeusekoak bezala kontsideratuak dira, helduek itsutasuna edota harridura erakutsiko dute, ez dituzte bortizkeria harremanak ikusten. Minorizatuetan kokatzen diren ikasleek (batez ere transidentitatea dutenak), eskolarekiko beldur handia erakusten dute (Prévention de l'homophobie et de la transphobie dans les collèges et les lycées). Beldur hori ikaskide eta erakundearekiko da. Ikasle horien %72rentzat, ikasketen esperientzia txarra edo oso txarra bezala kontsideratua da. Homofobia eta transfobiaren erronkak garrantzitsuak dira: eragin psikologiko nabariak ditu ikasleengan.

Irakasleek ikasleen arteko harremanak hobekiago ulertu behar dituzte. Eskola, identitate pertsonalenen eraikitzeentzat oinarrizko gune bat da. Irakasleen erreakzioak identitate normak sortzeko erabakigarriak dira. (Léchenet, Mercader, 2019)

#### 3.3.3.2 Nerabeak, Internet eta sexismoa

Internetek, sexualitateari buruzko ikuspegi desbideratu bat ekartzen du. 2019ko *Nueva pornografía y cambios en las relaciones interpersonales* (Ballester Brages, Orte Socias, 2019) ikerketaren arabera, haurrek 8 eta 9 urteren artean ikusten dute lehen aldiz film pornografikoa. Frantses eta espainiar lurraldeetako emaitzak berdintzen dira: 14 eta 17 urte artean, nerabeek pornografia erregularki kontsumitzen dute. Kontsumo horiek eraginak dituzte. Nerabeen praktika sexualak pornografian oinarritzen dira:

> "L'étude révèle que 55 %des garçons et 44 %des filles ayant déjà eu un rapport sexuel disent que la pornographie a influencé leur « apprentissage de la sexualité » (p. 29). Aussi, 45 %des garçons et 43 %des filles affirment avoir déjà « essayé de reproduire des scènes ou des pratiques » vues dans des vidéos porno (p. 32). BALLEYS C (2017) Socialisation adolescente et usages du numérique" Synthèse de la revue de littérature, CNAF.

Gainera, tresna pornografiko horietan, sexua gizonaren gozamenean oinarritzen da eta emazteen gorputza tresba da.

> "Gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriaren imajinarioa sendotzen du, eta indarkeriazko praktika sexualak babesten jarraitzen du, eta gizona erdigunean jartzen du gozamenaren igorle eta hartzaile bakar gisa. Beraz, pornografiak lortu ezin diren itxaropenak sor ditzake bikotearen barruan, indarkeriazkoak izan daitezkeen praktikak egiteko nahiaz gain." UPV/EHU.

### 3.4 Emazteen egoera mugaz gaindi, politika eta legedia

#### 3.4.1 Espainiar lurraldeko generoari buruzko legeak

Espainiako gobernuak, 1988an, Emazteen erakundea sortu zuen. Osasun ministerioaren organo bat da eta haren ardura emazte eta gizonen berdintasuna sustatzea, mantentzea eta aitzinaraztea da. Institutua deszentralizatua da eta autonomia bakoitzak bere zerbitzua du.

Espainiako legeei dagokienez, 2007ko martxoaren 22an, emazte eta gizonen arteko berdintasun efektiboaren aldeko legea atera zen, 2013ko uztailaren 27an indartua izan zena. Hemen legearen laburpena euskaratuta da eta datu nagusiak agerraraziak dira[108]. Legea zortzi titulu nagusitan bereizia da, bakoitza azpititulu ezberdinetan sailkatua. Orotara, 38 artikuluk osatzen dute.

I- Berdintasun eta babes printzipioa diskriminazioaren kontra
II- Berdintasunerako politika publikoak
III- Berdintasuna eta komunikabideak
IV- Lan baimena eta aukeren berdintasuna
V- Berdintasun printzipioa lanbide publikoan
VI- Ontasun, zerbitzu eta eskaintzaren bidezko berdintasuna
VII- Enpresen ardura sozialen berdintasuna
VIII- Erakundeen antolamendua

Espainiar estatuan izan diren lege nagusiak emazteen eskubideen alde, batez ere, XX. mendean garatu ziren, errepublika garaian. Francoren diktadurak berdintasunari kalte handia egin zion: lege berririk ez sortzeaz gain, jadanik agertzen zirenak desager araziak izan ziren. Lehenik, politikoki, emazteek 1933an bozka baimena eskuratu zuten, frankismoaren garaian galdu zuten. 1977an berreskuratua zuten.

Zibikoki, 1931an, dibortzio eskubidea, 1931ko konstituzioan agertzen zen lehen aldiko, 1981eko ekainaren 22an, berriz ukan zuten. 1978an, pilula legalizatu zen eta emazte eta gizonen lanbideen berdintasunari buruzko legea sortu zen. 1985ko urrian abortatzearen de penalizazioa kasu berezi batzuetan (osasun arazoak, bortxaketa, malformazioak...) agertu zen. 2004ean genero

---

108 Jefatura del Estado *Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres*. «BOE» núm. 71, de 23 de marzo de 2007 Referencia: BOE-A-2007-6115

indarkerien kontrako legea sortu zen eta 2005ean ezkontza homosexuala ahalbidetu zen. 2010eko martxoaren 3an abortuaren de penalizazio osoa izanagatik, 2015ean murrizketa legeak agertu ziren. [109]

### 3.4.1.1 EAE-ko legeak eta erakundeak

Euskadin, Emakunde erakundea, emazteen aldeko eta babeserako erakundearen ardatza da. 1988an sortua, politikan, kulturan, ekonomian eta gizon eta emazteen arteko egiazko berdintasunaren alde obratzen du. Erakundea Eusko Jaurlaritzaren baitan da eta bere baimena behar da legeak bozkatzeko. Emazte eta gizonen arteko berdintasun planak sortu dituzte eta 2017an, VII.a landu zuten. *Berdinsarea* sortu zuten Euskadiko herriak sarean ematen diren bortizkeria sexisten kontrako legeak sortzeko.

Horrez gain, 2005ean, *Emakundek* eta *Emakume eta Gizon Berdintasunerako Legea* aurkeztu zuten eta 2005eko otsailaren 18an onartua izan zen Euskadiko gobernuan (EHAA, 2005). Emakume eta gizonen arteko lege nagusiak hirugarren artikuluaren barnean (Printzipio orokorrak) nagusitzen dira. Tratu berdina, aukera berdintasuna, aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea, genero ikuspegiaren integrazioa, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztean eta ordezkaritza orekatuan oinarritzen dira.

### 3.4.1.2 NFE-ko legeak eta erakundeak

Nafarroan, emazteen bortizkerien kontrako 2015eko lege forala agertu zen: *Ley Foral 14/2015, de 10 de abril, para actuar contra la violencia hacia las mujeres,* [110] 2002ko lege Forala [111] ezeztatuz eta 1982ko lege organikoari [112] segida emanez.

Legea bederatzi titulutan banatua da eta ardatz ezberdinetan zatitua da: disposizio orokorrak, informazio hartzeak, prebentzioa eta sentsibilizazioa, emazteen kontrako erasoei emandako arreta, errekurtsoak, autonomia ekonomikoa, polizien babesa, laguntza juridikoa eta legea errespetatua izateko medioak aipatuak dira.

109 https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con
110 https://violenciagenero.org/sites/default/files/lvg_navarra_2015.pdf
111 Ley Foral 22/2002, de 2 de julio
112 art. 22 de la Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto

Bestalde, NFE-n berdintasunaren zerbitzuak (*Igualdad*)[113], bortizkerien biktimak diren emazteak babesteko bokazioa du. Horrez gain, berdintasunaren promozioa egiteko laguntzak proposatzen ditu.

### 3.4.2 Frantses estatuko generoari buruzko legeak

Emazteen aldeko eta gizon eta emazteen arteko berdintasunaren aldeko legeak XX. mendetik goiti agertu ziren. Alde batetik, lege zibilak aipatzen ahal dira, hala nola, 1907-tik goiti, emazte ezkonduek haien hilabete saria libreki erabiltzen ahal zutela. 1967an Neuwirth legeak kontrazepzioa baimentzen zuen eta 1972an emazte eta gizonen arteko paga berdintasunaren printzipioa legean idatzia zen. 1975ean Veil legeak abortua onartzen du. Ber gisan, 1975ean dibortzioan elkarren onespena onartua da. Azkenik, 2012ko abenduaren 18ko 2012-1408 dekretuak enpresak bortxatzen ditu emazte eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzera, isunak pagaraziz.[114]

Bestalde lege politikoak garatu dira. 1938an emazteen ezgaitasun zibila kendua izan da eta 1944an emazteen bozka baimena eta hautagai izateko posibilitatea agertu da.

Bukatzeko, hezkuntzari lotutako legeak aipagarri dira. Hala nola, 1924ean bigarren mailako programak eta batxilergoa neska eta mutikoentzat berdinak bilakatzen dira. 1975ean eskolan nahasmena behartzea inposatzen da.

### 3.5.3 Legeak eta haien mugak

Estatuak sortutako legeek herritarrari babes bat proposatzen diote. Alta, legeen beharra kritikatua izan da. Mundu feministak emazteak babesteko legeak behar direla aldarrikatzen baldin badu, biktima sistema batean mantenduak direla suposatzen du, unibertsalismo bat inposatuz emazte guztiei. Badinterren erranez, emazteak bere buruaz defenditzen ikasi behar du legeak aldatu aitzin (2002).

Nahiz eta bortizkeriak instituzionalizatuak diren, horien interpretazioa eta aplikazioa

113 https://www.navarra.es/es/igualdad-y-violencia-de-genero

114 Estatu frantsesaren idazkaritza emazte eta gizonen arteko berdintasunaren alde, diskriminazioen kontra *Chronologie des dispositions en faveur de l'égalité femmes-hommes* 2014 Interneten ikusgai: https://www.egalite-femmes-hommes.gouv.fr/dossiers/actions-dispositifs-interministeriels/chronologie-des-dispositions-en-faveur-de-legalite-des-femmes-et-des-hommes/

arbitrarioa da eta legeek haien mugak dituzte. Biktima askok ez dutela salaketarik jartzen ez dutelako justizian sinisten adierazten dute. Biktimek haien zilegitasuna jendartea eta justiziaren parean frogatu beharko dutela kritikatzen dute gertakari traumatiko bat bizi ondotik. Legeek ez dute haien aplikazioa bermatzen. Prozedurak konplikatuak eta luzeak dira eta psikologikoki kaltegarriak dira. Beraz, jendea babesteko legeen eraikitzea inportantea izanik ere, ez dute arriskuetatik babesten.

Horrez gain, emazteek matxismoa integratuz jarrera sexistak bermatzen dituzte. Anaitasuna oinarrizko kontzeptua baldin bada, erasoen parean ahizpatasunik ez da agertzen. Nahiz eta emazte guztiak sexismoaren biktima – potentzialak – izan, askok jarrera sexistak, bortitzak berenganatu dituzte eta normalak bezala kontsideratzen dituzte. Haiek ere sistema patriarkala elikatzen dute matxismoaren keinuak berriz sortuz eta garatuz. (Bourdieu, 1998) Orduan, jendartea patriarkaren menpe izango den bitartean, legeen eraginkortasuna mugatua izango da.

### 3.5 Talde feministak Euskal Herrian

Ipar Euskal Herrian garaitze feminista nagusiak 2. mundu gerla ondotik izan dira. 1968ko maiatzak esperantza asko ekarri zien, jendartea aldatzeko helburua zutenei (PAF!, 2021). 70. hamarkada, Ipar Euskal Herriko feminismoarentzat oparoa izan zen, frantses feminismoaren eraginpean. Haien artean GLF *(Groupe de libération des femmes: emazteen askatasunerako taldea)*, EEBA (*Euskal Herriko Emazteak Beren Askatasunaren alde*), EI (*Emazteak Iraultzan, Emazteak Iraultzen* bilakatuko dena), *Donapauleko Emazte Taldea, Hazparneko taldea* (*Emazteek diote* bilakatuko dena), *Herriko Emazteak, Euskal Herriko Emazte Abertzaleen Kolektiboa,* azaldu ziren. *Patxa kolektiboak* bere aldarrikapenen artean, feminismoa zuen aipagai. 80 eta 90. hamarkadetan talde feministak ahultzen joan ziren eta *Emazteek diote* eta *Euskal Herriko Emazteen Kolektiboa* aparte, talde guztiak desagertu ziren.

Talde feministak birsortzeko 2000. hamarkada itxaron behar zen. 70. hamarkadako irabaziek ez zuten jendartea aldatu eta oraindik emazteen menpekotasuna mantendua baitzen. Geroztik, Ipar Euskal Herrian, *Baionako Familia plangintza 64*ak (1970, Baiona, Donibane Lohitzune) abortatzea, kontrazepzioaren promozioa... babesten du eta *Zutik!* (Baiona, 2004) ikasleen gaualdietan bortizkeria sexisten kontra mobilizatzen da. *PAF!* (*pour une alternative féministe!* ) 2009an sortu zen Baionan, genero gaiak, sexismoa eta diskriminazioak salatzeko asmoarekin, eztabaidak eta ekimenak sortuz. *Brigada Ubela* 2013an sortu zen feminismoaren inguruko gogoeta garatzeko EHZ-ren baitan. *Anderen Nahia* 2001ean sortu zen eta helburua eztabaidak eta mintzaldiak egiteaz gain, ko-garapena

eta elkarlaguntza proposatzea da emazte enpresariei. *Altxa Neskatxa* 2011an Lapurdin sortu zen, helburua, Euskal Herri aske eta feminista baten alde borrokatzea zen gazte eremuetan. 2017ko irailean *Aitzinako* talde feminista sortu zen. Aitzinaren dinamikan izateaz gain, talde feminista eraso sexisten kontrako lanketak egiten zituzten. Les Bask'Elles, Los Baskosen (Euskal LGBT elkartea) barne da, 2018an sortu zen, kultur eremua, besta, gorputza eta osasunaren inguruan gogoetak proposatzen dituzte. Bukatzeko, Bizi Ekofeminista 2018an sortu zen. Taldearen teoria bat proposatzea da gizakiak lurraldeari egiten dion esplotazioa eta gizonak emazteari egiten dionaren artean. *EBA* (Egiazko Berdintasunaren Alde) 2017an sortu zen sei egitura batuz: *Zutik!, Emazteek diote, PAF!, Planning Familial 64, Andere Nahia* eta *Bask'Elles*. Taldeak zinezko parekidetasunaren alde elkartzen ziren lurralde kolektibitateei aplikarazteko. *Feminismoaren genealogia Ipar Euskal Herrian* liburuak feminismoa eta abertzaletasuna lotuak izan direla azpimarratzen du:

> *"Euskal emazte militanteak ohartzen dira pixkanaka jasaten duten zapalkuntza hirukoitzaz: emazte gisa, proletario gisa (izan langile edo laborari) eta euskal herritar gisa." (*PAF! 2021; 77..orr)

2021ean EAEn, 4317 emazte bortizkerien biktimak izan ziren (2020ean 4177), Emakunderen arabera.[115] Nafarroako Foru Aldundian, 2021ean poliziak 1639 salaketa erregistratu ditu, joan den urtean baino %5,81 gehiago.[116]

Hego Euskal Herrian, *Euskal Herriko Bilgune Feminista* (EHBF, 2002 nazio mailako erakunde feminista abertzalea), *Beldur Barik* (EAEn, Emakundek sortua) aipatzeaz gain, Donostian bakarrik begiratuz, hogeita bat talde feminista kontatzen dira. Osasuna, kultura, hezkuntza, legedia, psikologia, formakuntzak eta mintzaldiak proposatzen dituzte. Horrez gain, Gipuzkoako hiriburuan emakumeen etxe bat bada, 2010ean ireki zena eta gizon eta emazteen arteko berdintasunaren alde borrokatzen dena, mugimendu feminista indartzeko helburuarekin. 53 elkarte baziren Gipuzkoan 2009an, Emakunderen zerrendaren arabera.

*Gasteizeko Berdintasun Zerbitzuak* Emakumeen etxe bat sortzeko prozesu bat martxan eman zuen 2017an. Gasteizeko herriko etxeak hogeita zortzi elkarte feminista zerrendatzen ditu eta Bilbon

115 https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/estatistikak.2021.12.pdf

116 https://www.navarra.es/eu/-/nabi-eta-foruzaingoa-elkarlanean-ari-dira-emakumeen-aurkako-indarkeriaren-aurrean-arreta-eta-babesa-eskaintzeko%C2%A0?redirect=%2Feu%2Fberdintasuna-eta-genero-indarkeria&pageBackId=4815173

Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Saila sortua izan da. Emazteen babeserako bost elkarte atzeman daitezke arlo sozialean, berrogei emazte elkarte eta lau laguntza talde lanbideko errekurtsoentzat. Bilbon ez da Emakumeen etxerik eta elkarte feministek herriko etxeari galdera egin diote. Bizkaian, Emakundek 102 elkarte feminista sailkatzen zituen 2009an.

Iruñean, *Coordinadora de Organizaciones de Mujeres y/o Feministas por la Igualdad en Navarra* (COMFIN) 2012ko agorrilaren 31an sortua izan zen. Honek Nafarroako talde feministak barne biltzen ditu, lan sare bat eta beharrean diren elkarteak laguntzeko. Xedea egiazko berdintasun bat sortzea da eta publikoaren harremanetan izateko espazioak sustatzea trukatzeko eta taldeak eta plataformak sendotzeko. 29 elkartek COMFINEN parte hartzen zuten 2017an. 2018an, elkarte feministak Iruñean Emakumeen Etxe bat sortzeko, berdintasun plan bat sortzeko (2016-2022 artean) eta jazarle sexisten kontra borrokatu ziren. Nafarroako Gobernuak Con-Juntas proiektua sortu zuen emazteen botere hartzea eta parte hartze soziala eta politikoa sustatzeko. Helburua emazteen elkarteak eta parte hartzaileek manera eraginkor batean eta baldintza onetan lan egin dezaten berdintasunera iristeko da.

### 3.6 Emazteen tokia euskal literaturan

1998an, Euskal Editoreen Elkarteak argitaratutako euskal idazleen katalogoan, 26 idazleen artean, bi emazte agertzen ziren (Olaziregi, 1999; 1-75.orr). Modu berean, Olaziregik, lurralde atzerritarretan HGLko idazle femeninoen kopurua orekatzen zela agertzen bazuen ere, Euskal Herrian ez zela kasua adierazten zuen. Bukatzeko, 1977-1994 artean, Kritika sari eta Euskadi sarien narratiba ukan zuten emazteen ehunekoa %0-koa zela adierazten zuen, emazte autoreak esfera nagusitik baztertuak zirela azpimarratuz.

Olaziregi Alustiak bere ikerketatik datu hauek ateratzen zituen:

> "Euskal emakume idazleen perfilari begiratuz gero, honako ezaugarriok osatuko lukete:
> • Orokorrean, emakume idazleak gizonezkoak baino gazteagoak dira (emakume idazleen %58,8k 40 urte baino gutxiago ditu).
> • Ia erdiak (%47k) irakaskuntzan egiten du lan (gizonezkoen kasuan, berriz, %37 da portzentaia hori).
> • Emakume ezkongabe gehiago dago (%41) ezkonduak baino (gizonezkoen kasuan, ezkongabeak %20, 9 dira).
> • Emakume idazle hauen lanak gizonezkoenak baino gutxiago itzuli dira (%94k ez du itzulitako lanik)."

Autore femeninoak urritasunean kokatzen dira. Hori, Olaziregi Alustiak promozio bide eta emazteen ahanzturan esplikatzen du. Alta, euskal literaturak idazle femeninoak ukan ditu, Petra Belaustegi, María Artiñano, Rosario Artola, Errosa eta Basilia Bustintza, Katalina Elizegi, Sorne Unzueta, María Dolores Elizondo, Inazia Pradere Arruti, Tene Muxika, María Dolores Agirre, María Etxabe, Rufina Azkue, Joakina Garaialde, Julia Gabilondo, Maddi Ariztia, María Pilar Lekuona, Josefa Martiarena, Julene Azpeitia, Julia Fernandez Zabaleta bezalakoak. Baina, nahiz eta emazte autoreen zerrenda anitza izan, ez zuten kulturgintzan tokirik ukan eta emazteen presentzia ez da agertzen euskal literaturaren bilakaeran. Ber maneran, emazteei formakuntza akademikoak debekatuak izan zaizkiela eta etxearen ardura inposatu izan zitzaiela azpimarratzen du Olaziregi Alustiak.

Euskal emazte autoreen aniztasunaren neurketa ez da literatura sorkuntzara mugatzen ahal baina argitalpenetan, saritzeetan eta promozio bideetan neurtu behar da. Lasarte Leoneten (2011) arabera, administrazioek, erakunde dibulgatiboek eta erakunde akademikoek emazteen ekoizpen eta zabaltze lanean rol bat daukate.

| Iturria | Garaia | Emakumeek idatzitakoak | Gizonek idatzitakoak | Ehunekoak: Gizonezkoenak | Ehunekoak: Emakumezkoenak |
|---|---|---|---|---|---|
| Olaziregi | 1975-2000 | 7 | 46 | % 84,79 | % 15,21 |
| Kortazar | 1975-2000 | 4 | 40 | % 90 | % 10 |
| Aldekoa | 1975-2003 | 4 | 70 | % 94,29 | % 5,71 |
| Zabala | 2003 | 3 | 23 | % 86,6 | % 13,04 |
| “ | 2004 | 1 | 23 | % 84 | % 16 |
| “ | 2005 | 1 | 22 | % 95,46 | % 4,16 |
| “ | 2006 | 3 | 23 | % 70 | % 30 |
| “ | 2007 | 2 | 18 | % 88,89 | % 11,11 |
| “ | 2008 | 2 | 23 | % 91,31 | % 8,69 |

**Irudia 12: Gemma Lasarte Leoneten 1975etik 2008ra bitartean gizonezkoek eta emakumezkoek eleberrigintzan ekoitzitakoa, ehunekotan**

Lasarte Leonetek bildutako datuen arabera, Olaziregi, Kortazar, Aldekoa eta Zabalak egindako azterketek emaitza berak erakusten dituzte: euskal literaturako autore nagusia maskulinoa da%87,26 kasuetan. Orduan, idazle femeninoak ez dauka protagonismorik euskal literaturan, euskal literaturaren zabaltzea androzentrikoa delako.

Alvarez Uriarentzat (2005), XX. mende bukaeran emazte literaturari buruzko gogoeta hasi

zen eta argitaletxe eta liburu dendak promozio kanpainak egiten hasi ziren emazte idazle batzuen lana zabaltzeko. *"Horrekin batera, gainera, Gutiziak ipuin bilduma argitaratu zen, Emakume Idazleen Lantaldearen egitasmo bat zen eta euskal emakume idazleen lana ezagutzera emateko helburua zuen liburu honek."* Gaur egungo euskal emaztearen produkzioa murritza dela eta bere estatutua ez duela bereganatu azpimarratzen du Alvarez Uriak. Emaztea genero femeninoetara mugatua da (amatasuna, lanbide femeninoak, eremu pribatua) euskal literatura ekoizpenean.

1997 - 2020 artean, autore femeninoek Euskadi sarien %21,73 eskuratu zuten. Hiru azkenak emazteek irabazi zituzten. Bestalde haur gazte literatura Euskadi sarien %29,16 emazteek jaso zuten[117]. Azken bost urteetan hiru autore femeninok jaso dute. Bide beretik, Euskal Editoreen Elkarteak argitaratutako 2020eko euskal idazleen katalogoko 36 lanen artean, %50 autore femeninoek idatzi zituzten. Emaitza berdintsua agertzen da Haur Gazte literaturan, 41 eleberriren artean %48,78 autore femeninoen eskuetatik heldu dira. Orduan, azken urteetan emazte idazleen ikusgarritasuna orokortu dela agertzen da. Baina emaitza horiek historia garaikideari orokortzeko datuak berdeegiak dira. Feminismoa eta berdintasuna jendartean orokortzen ari direnez edo erakundeek kritikei aurre egiteko mekanismoak planteatzen dituztenez jakiteko, ez dago gibeltasun aski.

Euskal literaturarekin bat, idazle femeninoak beti agertu dira. Beraz, gaur den euskal literaturaren historia subjektiboa da. Kanon maskulinoa sendotua eta zilegitua da (Alvarez Uria, 2005). Emazteak euskal literaturako historian ez baldin badira agertzen, historialariek eta kritikek baztertu dituztelako da. Alvarez Uriak XXI. mende hasieratik emazte idazleak gehiago agertzen direla adierazten du, batez ere diskriminazio positiboaren ondorioz kuotak eta kupoak bete behar izan zirelako. Euskal literaturaren historia osatzekoa da:

> "Diskurtso hegemoniko androzentrikoarekin amaitu eta euskal literatura aberastu behar dugu, feminizatu behar dugu, andrazkoen esperientzia eta kontamolde berriei bide emanez, estereotipo zaharrak apurtuz eta berriak sortuz, mundua ikusteko beste modu batzuk ezagutu eta zabaldu." Alvarez Uria, 2005.

## 3.7 Lan literarioen autoreak eta genero eraikuntzak

### 3.7.1 Idazlea eta ekoiztutako literaturaren eragina

Eneko Fernandezen tesiak haur eta gazte literaturako testu eta irudietan emazte eta gizonen profila aztertzen zuen. Bere lanak autore maskulinoak nagusitzen direla, eta autoreen generoen

117 https://www.euskadi.eus/web01-a2kulsus/eu/contenidos/informacion/euskadi_sariak/eu_sariak/presentacion.html

arabera pertsonaien tratamendua ezberdina dela erakusteko helburua zuen. (Fernandez, 2017)

*Idazleen Sexua*

| | | Liburua | | | Guztira (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 1980ko hamarkadakoa (%) | 2013. urtean argitaratutakoa (%) | Liburu sariduna (%) | |
| Idazlearen_sexua | Emakumea | **12 (% 17.6)** | **19 (% 34.5)** | **10 (% 52.6)** | 41 (% 28.9) |
| | Gizona | **56 (% 82.4)** | **36 (% 65.5)** | **9 (% 47.4)** | 101 (% 71.1) |
| Guztira | | 68 (% 100.0) | 55 (% 100.0) | 19 (% 100.0) | 142 (% 100.0) |

**Irudia 13: Taula: Eneko Fernandezen tesiaren emaitzak idazleen sexuari buruz**

Fernandezek ikertutako 142 liburuen artean, gizonak nagusitzen dira. 2013an zepoa txikitzen zen arren, oraindik nabarmentzen zen.

*Idazleen Sexua eta Protagonista Nagusia*

| | | Idazlearen_sexua | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Emakumea | | | Gizona | | |
| | | Liburua | | | Liburua | | |
| | | 1980ko hamarkada | 2013. urtea | Liburu sariduna | 1980ko hamarkada | 2013. urtea | Liburu sariduna |
| | | Ehunekoa zutabeko (%) | Ehunekoa zutabeko (%) | Ehunekoa zutabeko (%) | Ehunekoa zutabeko (%) | Ehunekoa zutabeko (%) | Ehuneko zutabeko (%) |
| Protagonista_ nagusia | Neska | **25.0** | **52.6** | **70.0** | **14.3** | **22.2** | **44.4** |
| | Mutila | **25.0** | **21.1** | **20.0** | **64.3** | **41.7** | **55.6** |
| | Mutilen taldea | 0.0 | 0.0 | 10.0 | 1.8 | 2.8 | 0.0 |
| | Nesken taldea | 0.0 | 0.0 | 0.0 | 0.0 | 2.8 | 0.0 |
| | Neska-mutilen taldea | 33.3 | 5.3 | 0.0 | 8.9 | 22.2 | 0.0 |
| | Animaliak | 8.3 | 21.1 | 0.0 | 8.9 | 5.6 | 0.0 |
| | Bestelakoak | 8.3 | 0.0 | 0.0 | 1.8 | 2.8 | 0.0 |

**Irudia 14: Taula: Eneko Fernandezen tesiaren emaitzak idazleen sexuari buruz**

Fernandezen arabera, idazle maskulino edo femeninoa izateak pertsonaiaren eraikuntzan eragina badu. 80.hamarkadan idazle femeninoek hainbat mutiko eta neska sortzen baldin bazituzten, 2013an, batez ere pertsonaia femeninoak birsortzen dituztela adierazia da. Alderantziz, autore

maskulinoek nagusiki pertsonaia maskulinoak sortzen segitzen dute. Alta, geroz eta pertsonaia femenino gehiago sortzen dituztela adierazia da. Horrez gain, Fernandezen analisia kualitatiboak emazteek idatzitako pertsonaiek gizonek sortutakoak baino aniztasun gehiago dituztela erakusten du. Hots, autore maskulinoek batez ere ezaugarri sexistak birsortzen dituzte.

Baina, emazteek ere ezaugarri sexistak birsortzen dituztela agerrarazia da. Pertsonaia femeninoak batez ere fisiko ederrari lotuak dira eta haiek dituzte nagusiki etxeko lanak egiten. Idazle femeninoa izateak irekidurak ekartzen ahal baditu ere, balore patriarkalak jendarte guztira zabalduak direla agertzen da. Lasarte Leonetek emazte idazle eta pertsonaia femeninoen eboluzioa aztertu du, Fernandezen emaitzei ñabardurak ekarriz. Bere azterketek erakusten dutena emazteek gizonen munduan esku sartze bat proposatzen dutelarik ikuspegi maskulino bat ukango dutela da. Alderantziz, ikuspegi femenino bat hartzean, pertsonaia femeninoak sortzen dituzte :

> "Esanguratsua da, bestalde, emakume idazleek hegemonikoki gizonezkoena den mundu ikuskera eskaini dutenean, protagonista femeninoen presentzia corpusaren %23,07 izatea (bosgarren eta seigarren kapituluan); 27 pertsonaia protagonistatik sei protagonista femenino, hain zuzen ere. Hegemonikoki emakumeena den mundu ikuskera landu denean, ordea, (beste kapitulu guztiak) protagonista femeninoen portzentajea %76,92ra igo da; 27tik 21 pertsonaia femenino protagonista, hain zuzen ere. Ondoriozta daiteke, beraz, emakume idazleek, hegemonikoki emakumeena den mundu ikuskera eskaintzen duten ardatz tematikoak lantzeko orduan, subjektu protagonista femenino gehiago sortzen dituztela, ez horrela hegemonikoki gizonena den mundu ikuskera dutenean; orduan askoz ere pertsonaia protagonista femenino gutxiago garatzen dituzte." Lasarte Leonet, 2011.

Idazlearen tokia literaturan zentrala da. Hark ditu pertsonaiak sortzen eta haiek kontzienteki ala inkontzienteki balore hegemonikoak bermatzen edo saihesten dituzte. Orduan, idazlearen generoak sexismoari buruz kontzientzia hartze bat proposa dezakeela agertzen da. Idazle maskulinoek nagusitasuna ukanez, pertsonaia sexistak eraikitzeko aukera gehiago ukango dute. Alderantziz, idazle femeninoei tokia utziz, aniztasun gehiago agertzen ahalko litzateke genero tratamendu orekatuago bat proposatzeko. Baina, patriarkatuak inposatutako balore sexistak jendarte guztian integratua dira. Horiek saihesteko literaturaren irakurketa soziopolitiko bat beharko litzateke. Autoreek balore batzuei zentzua ematen diete eta haiek kritikatzea zilegi da.

Smadja eta Brunoren arabera (2008, 29-36..orr), fikzioa ezin da errealitatetik urrundu eta ezin da erran obra baten zentzuari buruz gogoetatzen delarik zentsura dela. Zentsura eta kritika literarioaren artean ezberdintasuna bada:

> "La critique littéraire ne vise pas à stigmatiser mais à poser des questions, à montrer par delà le seul contenu du texte les contradictions idéologiques de la société et, par là, à inciter chacun de nous à une vigilance et à une

posture critique permanentes." Smadja eta Bruno, 2008.

### 3.7.2 Euskal idazleen maiztasuna testuliburuetan

Alonso Amezuaren (2010) azterketak, euskal testuliburu nagusietan (Bere analisian, Elkar, OT, Giltza, Ibaizabal aztertuak izan dira) agertzen diren autoreak errepikatzen direla argitaletxe batetik bestera erakutsi du. Idazleak zazpi multzotan bereiziak dira:

Nagusian, Txillardegi, Gabriel Aresti, Jon Mirande, Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria, agertzen dira. Ondokoan, Joseba Sarrionandia, Anjel Lertxundi eta Joxe Azurmendi dira. Hirugarrenean, Bittoriano Gandiaga, Juan Mari Lekuona, Koldo Mitxelena, Joxean Artze, Joan Mari Irigoien. Laugarrenean, Xabier Lete, Andoni Egana, Xabier Amuriza, Jesus Mari Mendizabal aurkitzen dira. Salbador Garmendia eta Jon Alonzo bosgarrenean dira. Seigarrenean, Txomin Peillen, Joxean Agirre, Jean Louis Davant, Mikel Zarate Rikardo Arregi, Arantxa Urretabizkaia, Mikel Lasa, Joxemari Iturralde, Xabier Mendiguren, Luis Haranburu eta Jon Sarasua dira. Bukatzeko, azken taldean gainontzekoak kokatzen dira.

Alonso Amezuak bi ondorio ateratzen ditu. Argitaletxeen autonomia idazle eta obra literarioen hautuan egiazkoa baldin bada, hautu berdinak eginak dira argitaletxe batetik bestera, hots literatura erdiguneetan kokatzen diren idazleak. Gisa berean, klasean lantzen diren idazleak nagusiki narrazio idazleak dira nahiz eta beste genero literarioetako idazle batzuk agertu.

Alonso Amezuaren emaitzek beste bi ondorio ekartzen dituzte. Lehenik, hogeita hemeretzi autoreen artean, bi autore Ipar Euskal Herrikoak dira, %5,13 osatzen dute. Euskal kulturgintza nagusituan Ipar Euskal Herriko autoreen tokia ahantzi da. Arantxa Urretabizkaia idazle femenino bakarra da idazleen zerrendan. Ondorioz, testuliburuek proposatutako autoreak zirkuito nagusietan kokatzen dira eta ez dira Ipar Euskal Herrikoak, ezta emazteak.

**III- Metodologia**

*"Curriculumari buruzko teorientzat bi dira aztergune nagusiak: bata, zer irakatsi, eta bestea, nola irakatsi."* (Ezkurdia, 2006)

Bigarren parte honetan, tesiaren azterketaren oinarri metodologikoak justifikatuak dira. Lehenik, ukan ditugun zalantzak eta metodoaren mugak aipatzen dira. Bigarrenik, tesi honek dituen oinarrizko hipotesiak zehazten ditugu. Hirugarrenik, ikerketa egiteko plana argitzen da: galdetegiak eta iritzi-zundaketa erabiliak izan dira eta haien erabilpena aipatzen da. Laugarrenik, gure lagina argitzen dugu: idazleen eta testuliburuen hautua, metodoa eraikitzeko ereduak eta oinarriak, analisiaren metodo kualitatibo eta kuantitatiboak agerrarazten dira. Bukatzeko, tesiaren metodologia eta ikuspegi hautuak argitzen dira.

1- Zalantzak

1.1 Iritzi-zundaketen datuen fidagarritasuna

Iparraldeko euskarako irakasleei zundaketa bat bidalia izan zitzaien haien literatura ohiturak klasean ezagutzeko. Galdetegia Interneten, zabaldua izan zen. Zundaketa anonimoa zen, ez dakigu zein ikastetxeetako irakaslek erantzun zuten (publikoa, pribatua edo Seaska). Internetek etxetik erantzuteko eta bakotxaren erritmoan erantzunak biltzeko aukera ematen du. Baina komunikazioaren aldetik mugak ditu: ez dakigu mezua nork jaso duen, nork erantzutea ahantzi duen, galderetan ulermen arazoak izan direnez... Bestalde, zundaketa denboran mugatu batean zabaldua izan zen, emaitzak aztertzeko epe muga behar zelako.

Euskara ikasten zuten ikasleei beste iritzi-zundaketa bat zabaldu zitzaien, hau ere Interneten bidez. Ehun ikaslek erantzun zuten. Haien ezagutzak generoaren gaiaren inguruan eta fikziozko pertsonaiekin zuten lotura hobekiago ulertzea zen helburua. Hemen ere oztopo berdintsuak aipatzen ahal dira: Interneten mugak komunikatzeko edota galdetegia denboran mugatua izatea. Beste hiru oztopo nagusi aurkitu dira:

- Iritzi – zundaketa euskarako irakasleen bidez zabaldua izan zen, konfinamendu garaia zen, ikastetxeak hetsiak ziren eta irakasleek etxetik lan egiten zuten. Beraz zundaketa hori ikasleei zabaltzeko eta helburuak argiki azaltzeko mugatua izan da.

- Iritzi – zundaketa Interneten bidez egina izan zenez, ikasleen ulermena arazo nagusi bat bezala agertzen da. Zundaketa aztertuz, ikasle guztiek ez dute galdera bati zentzu berdina ematen eta ikasle batzuek erantzun desberdinak eman dizkiote galdera berberari. Ez dakigu nahitara egina izan denez edo ikasleen akatsak direnez.
- Denboraren aldetik zundaketa egiteko aukera mugatua izan da (hilabete bat).

Zundaketaren oinarrizko helburua, zuzenean ikasleekin lotura egitea zen. Baina pandemiak eta pandemia ondoko egoerak ez digu ikasleekin zuzenean elkartzeko aukerarik utzi. Ikasleei egindako zundaketa anonimoa zen eta ez da haien adina ezagutzen.

Hautatutako euskal corpuseko zortzi eleberrien autoreei galdetegi bat bidali zitzaien. Haien artean, seik erantzun zioten. Hemen ere, trukaketa mezuz bideratu zen eta autoreekin ukan genituen harremanak, birtualak ziren. Tesiaren testuingurua esplikatzea eta galdetegiaren helburua zehaztea idatziz egin zen: pertsonaia nola eraikitzen zuten jakin nahi genuela argitua izan zitzaien. Generoaren tokia ez da galdetegiaren zentroan ezarri, erantzunak ez bideratzeko eta autoreen idazkera prozesuan zentratzeko. Galderak eta erantzunak mailez trukatuak izan ziren. Sei autoreen artean batzuek erantzun sakonak eman zituzten, beste batzuek sintetikoak. Harreman birtualak konfiantza eta elkarlana sendotzeko mugak ukaezinak ditu. Idazleen iritzi-zundaketa aipatzen delarik, haien obra literario bakarra aztertu dugula azpimarratu behar da. Haien lan ibilbide orokorra aipatzen baldin badute, gure ikerketa obra bakarrean zentratzen da. Ezin da idazle baten idazkera prozesu guztia eleberri baten analisira bakarrik mugatu, beraz erantzunak neurtzekoak dira gure emaitzen ondorioekin. Eleberriaren interpretazioak ez du autorearen ikuspuntua erakusten, testuinguru eta garai batean kokatu behar dira.

Bukatzeko, zundaketa batean, erantzunen zintzotasuna galdekatzen ahal da. Galdetegi bati erantzuten duen pertsonak errealitatearen elementuak bere ikuspuntuaren arabera adierazten ditu.

### 1.2 Metodoaren sendotasuna

Testuliburu eta eleberrien analisien metodoa pertsonaien analisia kuantitatibo eta kualitatiboan oinarritzen da. Analisi kuantitatiboak emaitza neutroak proposatzen ditu. Testuliburuetan, ipuinak beste testu multzoetatik bereizteko konplikatua izan da. Adibidez, *Bakarka* saileko lehen ipuinak txisteak bezala agertzen dira. Mamia eskasa nabarmentzen da: ipuinek ez dute estrukturarik, pertsonaiak ez dira garatuak. Ipuinekin irudiak doaz testuingurua argitzeko baina ez gara horietan oinarritu. Horrez gain, testuliburuetako eta eleberrietako analisi kualitatiboak bere mugak ditu: testuliburuen analisiek urte bat baino gehiago iraun dutenez, azterketa zorroztu da eta

pixkanaka ohitura batzuk hartuak izan dira: posible litzateke pertsonaien analisiaren metodoan eboluzio bat izatea, baina taulak lanaren zehaztasuna bideratzeko tresnak izan dira.

Analisi kualitatiboaren erabilpenak pertsonaiaren funtzionamendua eta estruktura hobekiago ulertzeko lagundu du. Baina, nahiz eta taulek itema nagusiak berriz hartzen dituzten, pertsonaia guztientzat mugak ager daitezke hor ere. Pertsonaia nagusi guztiak ezaugarri berdinekin aztertuak izan dira. Haien nortasuna, fisikoa, mugimendua, funtzio soziala, izena, akzioak ikertu dira. Baina ez dute pertsonaia baten psikea eta psikologia guztia kontua hartzen ahal. Elkarrizketen helburuak, ipuinaren testuingurua ez dira landuak. Pertsonaia baten sorkuntza ez da guk aztertutako sei ezaugarrietan mugatzen eta metodoak interpretazio aukerak uzten baldin baditu, ez du pertsonaia bere osotasunean kontsideratzen ahal.

### 1.3 Erreferentzien interpretazioa

Tesia Bourdieu eta Wittigen lanetan oinarritzen da. Bi autore horiek hautatuak izan dira generoari buruzko ikuspegi soziologiko bateragarri bat proposatzen dutela pentsatzen dugulako. Analisia gure interpretazioetan oinarritzen dugu eta baliteke gure ikuspuntua eztabaidagarria izatea. Testuen azterketa, haien teorietan oinarritzen da eta *habitusa,* menpekotasuna eta hetero norma bezalako kontzeptuak kontuan hartzen ditu.

Testuliburu corpusaren hautua irakasleen ritzi-zundaketan, oinarritzen da. Eleberri asko aipatu zituzten eta autore aipatuenak hautatu dira. Sarituak izan diren zazpi idazle nagusitu dira. Baina, corpusa eraikitzean, lehentasuna genero parekidetasuna errespetatzeak zuen lehentasuna, nahiz eta autore femeninoak maskulinoak baino gutxiagotan sarituak izan. Beraz, autore saritu femeninorik agertzen ez zenez, irakasleek gehienik aipatu zuten autore femeninoa aztertzea hautatu dugu.

Bukatzeko, ikerketa lan hori garai zehatz eta testuinguru berezi batean egin da. Proposatutako analisiak eta tresnak baliagarriak izaten ahal baldin badira, denborarekin zaharkituak eta desegokiak izanen direla argi dago.

## 2- Hipotesiak

Tesia, lau hipotesien gainean oinarritzen da.

1) Curriculum ofizialak ezartzen dituen eduki literarioek eredu sexistak biltzen dituztela uste dugu.

2) Genero estereotipoak ez direla euskal literaturako ereduetan oinarritzen baizik eta, mendebaldeko kultura ezaugarri orokortuetan oinarritzen direla uste dugu.

3) Idazleen generoek pertsonaien tratamenduak bideratzen dituztela uste dugu.

4) Curriculumak ezarritako ereduek jendarte patriarkala eta sexista birsortzera bideratzen dutela uste dugu.

2.1 Lehen hipotesia: Curriculum ofizialak ezartzen dituen eduki literarioek eredu sexistak biltzen dituztela uste dugu

Estatuek sortutako curriculumek, euskal literaturaren ikuspegi sexista bat ukan dezakete: pertsonaiak maskulinitate eta feminitate definitu batean mugatuak izateaz gain, modelo murritzak eta atzerakoiak proposatuko dituztela suposatzen da. Gure ustez, pertsonaia maskulinoa kantitatean nagusitzen da, bere rola erabakitzailea eta indarraren sinboloa da. Bakartia, seriosa, indartsua, espantua edota ernea izango da pertsonaia maskulinoa. Pertsonaia femeninoa aldiz, pertsonaia maskulinoa balorean emateko sortzen dela aurreikusten da. Bere fisikoa eta gaztetasuna balorean emanak dira. Emakumezkoen ezaugarriak dira. Goxotasuna, zintzotasuna eta pasibotasuna haien ezaugarri nagusiak izanen dira. Pertsonaia femeninoa pertsonaia maskulinoaren proiekzio bat izanen da, bere maitalea edo ama izan daiteke. Suposatzen da ez dela akzioaren zentroan izanen.

Ber maneran, familia ereduak eta sexualitateak jendarte androzentrikoaren estandarrei erantzungo dietela uste dugu. Familia nuklearraren sisteman oinarriturik, heterosexualitatea nagusitzen dela pentsatzen dugu. Nerabeei ez zaie bitarteko errealitaterik erakusten eta LGBTQIA+ taldeetako pertsonak literaturatik ezabatuak direla aurreikusia da. Pertsonaiak generotan, binarismo artifizial batean mugatuak izanen direla uste da.

Aztertua izango den lagin literarioak ez du seguruenik jendarteak ukan dituen aitzina pausuak adieraziko. Eredu literarioak ez dira 2010 hamarkadako jendartekoak izanen. Adibidez, 2016ean, Europar Batasuneko emazteen %61 lanbide bat zuten eta gizonen %72 [118]. Pertsonaia femeninoak lanean edo etxean batez ere kokatuko direnez jakin nahi da, gure ustez, corpusek, ordre sozial patriarkala, sexista eta kontserbadorea mantentzea bideratuko dutelako. Gurasotasun homosexualik ez dela agertuko eta familia dibortziatu gutxi agertuko direla pentsatzen da. Eleberriek jendartearen errealitatearekin zepo bat ukateaz gain, ideal atzerakoi bat proposatuko dutela aurreikusten da. Gizon zuri adintsuak eleberrien zentroan kokatuko direla pentsatzen dugu. Alderantziz, emazte adintsuak

118 Eurostat (2017), *La vie des femmes et des hommes en Europe, un portrait statistique.*

baztertuko direla igurikatzen da eta haien presentzia gizonaren zerbitzuan (biloben zainketan) edo etsaigoan (sorginaren irudia) agertuko dela pentsatzen da. Irakasleek, haien hautu literarioen bidez, euskal literatura kaninokoari lehentasuna emango dutela eta estandar heterosexualak – kontzienteki edo inkontzienteki – bideratzen dituztela igurika daiteke.

Honen ondorioz, curriculum sexista bat proposatuko dutela suposatzen da: autore eta pertsonaia maskulinoak nagusituko dira. Ber maneran, pertsonaia femeninoei proposatutako rolak ahulak, funtsik gabekoak izaten ahalko dira. Aldiz, pertsonaia maskulinoak garaileak eta akzioaren zentroan kokatuko dira. Orduan, jendartearen ikuspegia maskulinitatearen gainean oinarrituz, genero maskulinoak, genero femeninoak baino zilegitasun gehiago ukango duela suposa daiteke. Maskulinitatearen baloreak norma bezala kontsideratuko dira. Hots, jokabide maskulino bortitzak orokortuz, jarrera horiek jendarte guztiari zabalduko dira.

2.2 Bigarren hipotesia: Genero estereotipoak ez dira euskal literaturako ereduetan oinarritzen baizik eta mendebaldeko kultura ezaugarri orokortuetatik edaten dutela uste dugu

Euskal haur gazte literaturan dagoen sexismoa ez da euskal kulturari mugatzen. Hots, euskarazko irakaskuntzak eraikitako ereduak beste eskualdeetako curriculumek zabaldutako baloreekin bateragarria dira. Ipar Euskal Herriko euskararen irakaskuntza, frantses hezkuntza nazionaleko tresnetan oinarritzen da. Erreferentzia berdinak barnatuak direla suposa daiteke. Hipotesia baieztatzeko, frantses lurraldean sortutako testuliburu eta eleberri corpus batzuk aztertuko dira, euskal corpusarekin konparatzeko eta haiek harremantzeko.

Beraz, euskal literaturan eta testuliburuetan garraiatuak diren irudikapenak sexistak direla pentsatzen baldin badugu ere, mendebaldeko jendartearen sintomak direla uste dugu. Euskal literatura lurralde kultural misto batean kokatua da. Beraz frantses eta espainiar baloreekin elkarbizitzen eta elkar elikatzen dira. Mendebaldeko jendarte kapitalistaren baloreak barnatuak dira Euskal Herrian eta jarrera patriarkala lurraldean errotua da. Curriculuma eta irakasteko tresnak sexistak, androzentrikoak eta estereotipatuak direla uste dugu. Euskal literatura eta frantses literatura konparatuz, emaitza berdintsuak agertuko direla aurreikusten da.

2.3 Idazleen generoek pertsonaien tratamenduak bideratzen dituztela uste dugu

Testuliburuetako ipuinetako autoreak identifikatuak izango direlarik batez ere maskulinoak

izango direla suposatzen dugu. Era berdinean, irakasleek batez ere idazle maskulinoak landuko dituztela igurikatzen da.

Horrez gain, autore maskulinoek pertsonaia maskulinoak balorean emango dituztela hausnartzen dugu. Pertsonaia nagusiak maskulinoak izateaz gain, ezaugarri maskulinoak ukango dituztela suposatzen ahal da. Ber maneran, pertsonaia femeninoen tokia periferian kokatuko dituzte idazle maskulinoek. Autore maskulinoek merkatuaren sistema barnatua izango dutela uste dugu. Modelo androzentriko eta nagusitzen ereduetan oinarrituko dira, maskulinitate hetero normatuaren baloreak zabalduz.

Alderantziz, autore femeninoek bi jarrera ukanen dituzte: Lehenik haien baztertzeaz kontziente izan daitezke eta haien eskuetatik literatura anitzago eta aberatsago bat agertuko da. Pertsonaiek klixe matxistei ihes egiten ahalko dutela suposa daiteke. Pertsonaia femenino gehiago eta akzioaren zentroan kokatuko dira. Haien ezaugarriak ez dira ikuspegi maskulinokoak bezain estereotipatuak izanen. Beraz, aitzinamendua autore femeninoen eskuetatik etortzen dela pentsatzen da. Baina, autore femenino batzuk, literatura sistemaren menpe egongo direla pentsatzen da. Haiek, pertsonaien ezaugarri sexistak barnatu dituztela eta berritz sortuko dituztela aurreikusten dugu.

## 2.4 Hirugarren hipotesia: Curriculumak ezarritako ereduek jendarte patriarkala eta sexista birsortzera bideratzen dutela uste dugu

### 2.4.1 Literatura, curriculum hegemonikoa eta jendarte patriarkalaren ispilua

Literaturaren irakaskuntzan erreprodukzio asko agertzen dira. Euskal Herriko kulturan agertzen den maskulinitateak eredu bakar bati erantzuten dio eta modelo hori segitzen ez dutenak baztertuak dira. Jarrera eta kode femeninoak barnatzen dituzten mutikoak zirkuitu maskulinotik kanporatzen dira, haien zilegitasuna galdekatua da. Patriarkatuaren kodeak hausteko, eredu berriak eta ikuspegi anitzak proposatu behar direla uste dugu.

Curriculumak bermatzen dituen eredu sexistak ikasleen irudikapenean eraginkorrak direla agerrarazi nahi da. Nerabeek klasean integratu dituzten eredu sexistak eguneroko bizian ikusten dituzten modeloekin bateragarriak dira. Gaurko kontsumo ereduek, teknologia berriek edota sare sozialek genero berdintasunari buruzko ikuspegia arriskuan ematen dute. Sexualitatearen ikuspegi maskulinista inposatua da: gizona eta emaztearen irudi estereotipatuak, nagusitasun/menpekotasunean oinarrituak direnak.

Curriculuma legea da, literaturako curriculumean hautatzen diren lanetan pertsonaia eredu jartzen dute, kultura aktore batzuk lehenetsiz , bide bat inposatzen dute eta eskola sistemak eredu bakarra aurkezten du.

#### 2.4.2 Curriculuma, komunikabide berriak eta bortizkeria sinbolikoa

Eskola ezagutza akademikoen bihotza da. Baina eskolatik kanpo eraikitako ezagutzek, ikasleen kulturaren gan ondorioak dituzte. Internet gazteen arteko sozializazio tresna nagusia da eta xakeleko telefonoen bidez, egunerokoan eragiten dute (Balleys, 2017). Telefono horietan diren sare sozialek eta aplikazio ezberdinek patriarkatuaren eredu sexistak zabaltzen dituzte. 2023ko HEC-ren Sexismoari buruzko txostenaren arabera (2023), zundatuen %32 sare sozialak, berdintasun espazio bat dela estimatzen dute. (Emazteen %26 eta 15-23 urteko emazteen %21) Adostasun orokor honek gaurko jendartean emazte bat izatea gizon bat izatea baino zailago dela azpimarratzen du. Sare sozialetan, gizon asko ez dira sexismoaren arduraz kontziente (#notallmen mugimenduak adierazten duen bezala). Aldiz, azken bost urteetan, mobilizazio feministak garatzen dira sare sozialetan eta espazio publikoa geroz eta gehiago okupatzen dute. Presentzia honek ondorio zuzenak ditu jendartean:

> "De fait, elles ont un effet positif sur l'ensemble de la société puisque, selon le Baromètre Sexisme 2023, 83 % de la population interrogée a déjà entendu parler des mouvements #MeToo ou #balancetonporc, soit 2 points de plus que l'an dernier. Si ce chiffre peut être nuancé, car seulement 68 %des personnes interrogées précisent comprendre de quoi il s'agit et encore 14 %de la population n'en a jamais entendu parlé, il témoigne tout de même que ces mouvements et les vagues dedénonciations ont imprégné les esprits." HEC.

## 3 Ikerketa egiteko plana: Galdetegiak eta zundaketak

### 3.1 Zundaketak

#### 3.1.1 Irakasleei egindako zundaketa

Zundaketa 2017ko abenduaren eta 2018ko otsailaren artean sortua izan zen eta iparraldeko bigarren mailako (seigarrenetik terminala arte) euskarako irakasleei zuzendua izan zen. Ikastola, publiko eta pribatuko irakasleak gonbidatuak izan ziren zundaketari erantzuteko. Zundaketa anonimoa zen.

Zundaketa honen helburua bigarren mailako euskarazko irakasleen ohiturak euskarako

klaseetan ezagutzea da. Galderak literatura garaikideari lotuak dira. Helburua, landutako obra literarioak eta erabilitako testuliburuak ezagutzea zen. Erantzunen ondorioz, tesiaren testuliburu eta literatura corpusak eraikiak da.

#### 3.1.2 Autoreen idazkera prozesuari buruzko galdetegia

Idazleak ipuinei mamia ematen eta pertsonaiei sakontasuna ekartzen die. Idazlearen irizpide nagusiak ezagutu nahi dira eleberri bat idazten duelarik.

Gure helburuei erantzuteko, euskal corpuseko zortzi autoreei galdetegi bat zuzendu zitzaien, e-mail trukeen bidez. Autoreekin kontaktua 2020ko martxoaren 20ean hartua izan zen. Galdetegia pixkanaka bidalia izan zitzaien eta erantzunak martxoaren 25a eta apirilaren 23aren artean jasoak izan dira. Sei idazlek erantzun zuten.

#### 3.1.3 Ikasleei egindako zundaketa

Zundaketa 2020ko apirilaren 6ean Interneten bidez zabaldua izan zen eta 2020ko ekainaren 17an berreskuratua. 112 ikaslek erantzun zuten. Zundaketa anonimoa da, adina eta maila ez dira zehaztuak. Gure galdetegia sortzeko, Ipsos[119] zundaketatik abiatu gara. Zundaketa hori 2010ean egina izan zen eta gazteek haien burua nola jendartean integratzen zuten eta sexismoari buruzko ikuspegia agertzen zuen frantses estatuan.

## 4 Lagina

### 4.1 Eleberrien hautua

#### 4.1.1 Euskal eleberriak

Liburuen hautua Iparraldeko euskarako irakasleen zundaketen erantzunetan oinarritzen da. Eleberrien hautua zehazteko, laurogei hamarkadatik gaur arte idatziak izan diren obrak lantzea erabakia izan da. X. Etxanizen (1998; 237..orr) Euskal Haur Gazte Literatura 80 hamarkadan zartatu zen. Ber maneran, hamarkada guztiz bi obra sarituak hautatu ditugu. (Haur Gazte literatura arloan) Aldi guztiz, autore maskulino eta femenino bat dira. Hamarkada bakoitzan bi obra aztertuz, pertsonaiari buruzko ikuspegia nolakoa den agerrarazten ahalko da. Ber maneran, autore femenino

---

119 Ipsos, *Parité hommes-femmes les adolescents seraient-ils plus rétrogrades que leurs ainés?* https://www.ipsos.com/fr-fr/parite-hommesfemmes-les-adolescents-seraient-ils-plus-retrogrades-que-leurs-aines

eta maskulinoen parekidetasuna errespetatuz, haien pertsonaiaren errepresentazioa nolakoa den ikertzen ahal da. Bukatzeko, obra sarituak hautatuz, arrakasta eta oihartzuna ukan duten lanak aztertzen dira. Beraz, garai baten estandar edo ideal batzuei erantzuten diete. Bukatzeko, berrogei urteko tartea hartuz, EHGL-ren pertsonaien eboluzioa zehazten ahal da.

Orduan, corpus literarioa, azken berrogei urteetako zortzi haur gazte eleberri sarituen gainean oinarrituko da. Lau eleberri idazle femeninoen eskuetatik eta beste lau idazle maskulinoen eskuetatik etorriko dira.

#### 4.1.2 Frantses lurraldeko eleberriak

Frantses lurraldeko eskoletan 6.etik 3.a (DBH mailak) arte lantzen diren obrak aztertuak izan dira, eleberri bat mailaka hautatua da. Hezkuntza nazionalak 2016an bi zerrenda agerrarazi ditu (lehena 3. zikloarentzat, 6.a eta bigarrena 4. zikloarentzat 5, 4, 3.a) irakasleek eleberriak hautatzeko. Obra guztiak programaren nozio ezberdinei lotuak dira eta ikasleen irakurketa mailari egokituak dira.

**Taula 2: Frantses Hezkuntza Nazionaleko 6.eko 3. zikloko lehen obren aurkezpen partea**

| **Autorea** | **Titulua** | **Argitaletxea** | **Maila** | **Apustu literarioa** | **Apustuaren detailea** |
|---|---|---|---|---|---|
| ADAM Marie-Thérèse | Héros de la mythologie grecque | Gallimard | 6e | Le monstre, aux limites de l'humain | Découvrir des œuvres, des textes et des documents mettant en scène des figures de monstres |
| ADRIANSEN Sophie | Max et les poissons | Nathan | 6e | Résister au plus fort : ruses, mensonges et masques | Découvrir des textes de différents genres mettant en scène les ruses et détours qu'invente le faible pour résister au plus fort |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ARROU-VIGNOD Jean-Philippe | Mimsy Pocket et les enfants sans nom | Gallimard | 6e | Résister au plus fort : ruses, mensonges et masques | Comprendre comment s'inventent et se déploient les ruses de l'intelligence aux dépens des puissants et quels sont les effets produits sur le lecteur ou le spectateur |
| AUFRAY Gilles, GALEA Claudine, LEVEY Sylvain, PAPIN Nathalie, PILLET Françoise, SERRES Karin | Il était une deuxième fois | Espaces 34 | 6e | Le monstre, aux limites de l'humain | Découvrir des œuvres, des textes et des documents mettant en scène des figures de monstres |
| BARON Marc, ZAÜ | Petits poèmes en rang par trois | Bulles de savon | 6e | Récits de création ; création poétique | S'interroger sur le statut de ces textes, sur les valeurs qu'ils expriment, sur leurs ressemblances et leurs différences |

Iturria: https://eduscol.education.fr/114/lectures-l-ecole-des-listes-de-reference

Orotara, 472 lan proposatuak dira. 106 seigarrenean eta 366 hirugarren zikloan. Seigarrenean, 57 autore femeninoek eta 92 autore maskulinoek obrak sortu dituzte eta hirugarren zikloan 224 autore femeninoek eta 191 maskulinoek. Guztira, autore femeninoen kopurua %49,82koa da. Seigarrenean, %38,25koa da eta hirugarren zikloan %53,97koa da. Obra gehienak garaikideak dira eta nagusiki 2000. hamarkadatik goitikoak. Corpusa sortzeko, euskarazko corpusarentzat egindako hautuak egin dira: lau obren artean, bi autore femeninoek eta bi maskulinoek sortu dituzte. Bi 2000. hamarkadan sortuak izan dira eta bi 2010. hamarkadan.

**Taula 3: Taula: Hautatutako eleberri frantsesen deskribapena frantses hezkunde nazionalaren arabera**

| **Autorea** | **Titulua** | **Argitaletxea** | **Maila** | **Apustu literarioa** | **Apustuaren detailea** |
|---|---|---|---|---|---|
| GREVET Yves | C'était mon oncle! | Syros | 6e | Monstres aux limites de l'humain | S'interroger sur les limites de l'humain que le monstre permet de figurer et d'explorer. |
| GAVALDA Ana | 35 kilos d'espor | Bayard | 5e | Avec autrui : familles, amis, réseaux | Comprendre la complexité de ces relations, des attachements et des tensions qui sont figurés dans les textes, en mesurer les enjeux. |
| CHABAS Jean-François | L'arbre et le fruit | Gallimard | 4e | Individu et société : confrontations de valeurs ? | Comprendre que la structure et le dynamisme de l'action dramatique ou romanesque, ont partie liée avec les conflits, et saisir quels sont les intérêts et les valeurs qu'ils mettent en jeu. |
| HEURTIER Annelise | Sweet sixteen | Castelman | 3e | Agir dans la cité : individu et pouvoir | Découvrir des œuvres et textes du Xxe siècle appartenant à des genres divers et en lien avec les bouleversements historiques majeurs qui l'ont marqué. |

Iturria: https://eduscol.education.fr/114/lectures-l-ecole-des-listes-de-reference

### 4.2 Testuliburuen hautua eta azterketa

#### 4.2.1 Euskarazko testuliburuak

Argitaletxe askok euskaraz eta euskara ikasteko metodoak proposatzen dituzte, merkatu beharrari erantzuteko. Ikasleak kontsumitzaile nagusiak dira eta ikastetxeei, ikasleei testuliburuak

salduz, argitaletxeei diru iturri oparo bat segurtatzen die. Ikastetxe batzuek haien testuliburuak sortzen dituzte.

Testuliburu batzuk Euskal Herrian ekoiztuak dira (ELKAR, EREIN argitaletxeak, EKI proiektua...). Haien curriculum propioari erantzuten ahal dute haien tresnak sortuz. Gainera, ikasleei haien testuliburuak urte guztiz salduz, diru iturri bat ekartzen du. Beste testuliburu batzuek, kanpo eskema segitzen dute (ZUBIA-SANTILLANA, ANAYA-HARITZA...).

**Taula 4: euskarazko testuliburu garaikideen zerrenda labur bat**

| Egileak | Titulua | Argitaletxea | Data |
|---|---|---|---|
| Batzuk | Batx Euskara literatura gida | Elkar | 2006 |
| Batzuk | Eki Euskara | Ikaselkar | 2017 |
| Batzuk | Arian | Elkar | 2016 |
| Aa. Vv | Goazen Euskara koadernoa | Zubia | 2005 |
| Batzuk | Giltza Euskara eta Literatura | Giltza | 2016 |
| J.A Letamendia | Bakarka | Elkar | 2013 |
| Aa. Vv | Euskara eta literatura, eragin, egiten jakin | Zubia | 2015 |
| Batzuk | Euskara eta Literatura | Ibaizabal Texto | 2013 |

Euskara ikasteko testuliburuak aztertzeko, iparraldeko irakasleek zundaketei erantzun dutenaren gainean oinarrituko gara. Helburua klaseetan nagusiki aztertzen diren testuliburuen testuak aztertzea izango da eredu ezberdinak identifikatzeko.

### 4.2.2 Frantses testuliburuak

Frantsesa ikasteko testuliburuen analisia egiteko, Belin argitaletxeak sortutako *L'envol des lettres* sailean oinarritu gara. Kolegioko (6.a, 5.a, 4.a, 3a, beraz, DBH mailak) lau testuliburuak

aztertuak izan dira, euskal testuliburuen metodo berdina segituz. *L'envol des lettres* 2016ean argitaratua izan den saila da eta kolegioetako frantses erreforma berriei erantzuten duen testuliburua da, batez ere literaturari lotuak dira. 6.a erdi aroan eta mitologian oinarritzen da. 5.a esplorazioei zuzentzen da. 4.ak XVII eta XIX. mendea aipatzen ditu eta 3.ak bi gerla mundialak eta garai garaikideak aztertzen ditu.

#### 4.2.3 Metodoa sortzeko ereduak

Testuliburuetako lan literarioak aztertzeko, ikerketa ezberdinen metodoetan oinarritu gara. Ikerketa kuantitatiboari doakionez, Carole Brugeilles eta Elsa Garcinen *Les images dans les manuels de mathématiques analyse de quatre collections de l'enseignement primaire en france, (*2011) eta Jodeleten irudikapen sozialen metodoa, (1989) segitu ditugu. Metodoa errepresentazio sozialetan oinarritua da eta femenino eta maskulinoen irudikapenak aztertzea proposatzen du. Metodo kuantitatiboak testuliburuen pertsonaiak aztertzen ditu ezaugarri ezberdinen bidez : sexua eta adina barne. Pertsonaien identitateak, rol sozial sexualizatuak eta proposatutako genero sistema agertzen dira. Honen bidez, ikerketa zabal bat egin daiteke manera objektiboan.

Horrez gain, Carole Brugeilles, Sylvie Cromer eta Nathalie Panissalen *Le sexisme au programme? Représentatios sexuées dans les lectures de référence à l'école*, (2009) lanaren gainean oinarritu gara irudikapen sexualizatuen analisia egiteko. Haien emaitzak ezaugarri ezberdinetan oinarritzen dira, hala nola adina eta sexua, pertsonaiaren kategoria (humano, animalia, tresna), protagonistak edo bigarren mailako pertsonaiak.

Curriculumaren oinarrizko erreferentziak Gurutze Ezkurdia Arteagak, Begoña Bilbao Bilbaok eta Karmele Perez Urrazak egin zituzten ikerketetan oinarritzen dira. Ezkurdia Arteagak *Identitatea eta ingurunea Curriculumean* tesia egin zuen. Lan honetan, euskal nortasuna testuliburuek garatzen duten curriculumaren ondorioa denez aztertzen da.

> "Identitatearen eraikuntzari buruzko hausnarketa egitean, ingurunean eraikitzen den herri-identitatea giza ezaugarri funtsezkotzat hartzen du. Identitatea aldatzen eta moldatzen dugun ibilbidean, jendarte jakin bateko nortasunean kokatzen da. Identitatea modu sozialean eraikitzerakoan bi ingurune desberdindu ditu Euskal Herrian: hegemonikoa, nazio politikoarena, eta soziokulturala, nazio etnikoarena." (Perez Urraza, Bilbao Bilbao, 2005; 141-158..orr)

Begona Bilbaok *Kultur erreferenteak oinarrizko hezkuntzako curriculumean Euskal Herriko eskoletan* tesia egin zuen. Bere ikerketa oinarrizkoa izan da metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa

sakontzeko:

> "Metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabiliz, ikusten da zenbatekoa den euskal erreferentea Euskal Herriko testuliburuetan eta euskal erreferente hori nola gauzatzen den euskara eta euskal kulturaren trataeran argitaletxeen arabera. Horrekin batera, argitu egiten da gai horiekiko ezkutuko mezuaren izaera." Perez Urraza, Bilbao Bilbao, 2005)

Karmele Perez Urrazak (2003) *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan* tesia argitaratu zuen. Curriculuma eta testuliburuen legitimitatea aipatzen ditu bere lanean:

> "Hezkuntza-sistema estatalaren sorreran eta betekizunean gauzatzen den ezagutza legitimoa nola transmititzen den gure eskola-diziplina eta testuliburuen bitartez azalduz batera, ezagutza legitimo hori nola gauzatzen den azaltzen da, hain zuzen, zientzia, teknika eta ekonomiaren ispilutzat hartzen dena." (Perez Urraza, Bilbao Bilbao, 2005)

Ikerketa orokor batek, hiru tesiak burutzeko datuak eman zituen. Tresnaren diseinua eta hustuketa hiruen artean egin zuten eta edukiaren izaera neurtzeko kategorizazioan oinarritu ziren, haien testuliburuak aztertzeko. Ondorioztatu zuten euskal identitatea eraikitzeko edukiak Euskal Herrian euskaraz sortutako testuliburuetan lantzen zirela bereziki eta kanpoan sortutakoak espainiar edo frantziar testuliburuetako edukien itzulpena zela. Askotan euskal identitatea eraikitzen lagundu beharrean, erdal identitate estatala eraikitzen laguntzen du. Begoña Bilbaoren tesian emakumeen presentzia neurtuta dator. Datuak ikerketaren aroen arabera aldaketak dituzte, baina oso portzentaje txikia da emazteena.

Murua Uriak (1996; 93-94..orr), lehen hezkuntzako testuliburuetan Euskal Herriaren aipamena aztertu zuen. Bruno, Elkar-GIE, Giltza-Edebé, Erein testuliburuetako gai sozial eta kulturalak tratatu zituen. Murua Uriaren analisia kuantitatiboa ezaugarri horien gainean oinarritu da: hezkuntza proiektua eta gai sozialak separatu ondotik, gai sozialen barne, lurraldean hizkuntza eta kultura, historia eta jendarte antolamendua aztertu ditu. Bere ondorioek, testuliburuek Euskal Herriaren trataera bere osotasunean ez dutela sistematikoki egiten eta lehentasuna Hego Euskal Herriari ematen zaiola adierazia da. Ber maneran, espainiar lurraldea eredu bezala hartzen dutela erakusten dute:

> "Giltza-Edebék ez bezala, Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzen dute Bruñok, Zubia-Santillanak eta Ibaizabalek, baina ez beti. Euskal Herria zazpi probintziek osatzen dutela irakur dezakete argitaletxe hauen ikasmateriala darabilten ikasleek, baina sarritan Hego Euskal Herrira edo EAEra mugatuko zaizkie aztergaiak,

eta Espainia osora zabalduko beste askotan." Murua Uria.

Gure analisia kualitatiboa, Gema Lasarte Leonet eta Izarra Aizpurua Barinagarrementiaren *Literatura eta generoa euskal hezkuntzan: Bizkaiako haur eskola baten azterketa* (2015) eta *Metodología de representación educativa,* Bisquerra (2004) lanetan oinarritu da. Elkarrizketen bidez, hamahiru galdera ireki proposatuko zaizkie irakasleei. Helburua parte hartzaileek generoari buruz duten diskurtsoa eta praktika sozialak ezagutzea zen. Ondotik behaketa baten bidez, irakasleen generoaren integratzea haien praktiketan aztertua zen.

Aristizabalek (2010) Flick-en ikerketa kualitatiboaren berezko lau ezaugarri aipatzen zituen, gure azterketa kualitatiboaren oinarrian kokatuko ditugunak:

- Metodoa eta teoria egokitzea ezaguna dena aztertzea baino, berria dena izango da helburua, material enpirikoetan oinarrituz;
- Ikerketak parte hartzaileen ikuspuntu anitzak erakusten ditu eta haien praktikak eta usteak aztertzea da helburua.
- Ikertzaile eta ikerketaren subjektibitatea, hausnarketak, sentipenak, interpretazioaren parteak dira eta eguneroko testuinguruan oinarritzen dira.
- Ikerketa kontzeptu teoriko eta metodologikoa ez da kontzeptu bateratu batean oinarritzen eta hainbat fokapen metodologiko ditu.

Gorrotxategi Peredak eta Alvarrez Uriak (2017, 95–122..orr) genero identitateari buruzko galdetegiak proposatu zituzten irakasleei. Helburua, irakaskuntzan genero arauekin apurtzea zen. Irakasleek dituzten baliabideak eta ikastetxeen inplikazioa aipatuak direlarik, eskasia bat agerrarazi zuten. Alta, irakasleek inportantea bezala irudikatzen zuten generoaren gaia aniztasun ikuspegitik aztertzea. Ondorioz, ikerlariek, irakasleek formakuntza eta ezagutza teorikoa eskasa zutela adierazi zuten.

2015ean, Nerea Guijarrubia Garziak emazteen presentzia testu liburuetan ikertu zuen bere memorian. Zubia/Santillana, Edebe/Giltzak eta Ibaizabal aztertu zituen. Lehenean 52 idazle maskulino eta bi femenino agerrarazi zituen. Bigarrenean 82 gizon eta bi emazte. Azkenean, 329 gizon eta 17 emazte ziren. Emazte sortzaileak bazterketa soziokultural-politikoa jasan duela agerrarazten zuen.

Bukatzeko, Xabier Etxanizek, Eneko Fernandez Astigazek eta Rodriguez Fernandezek 1980 eta 2019 artean, euskal pertsonaiak aztertu zituen eta kantitate mailan pertsonaien orekatze bat

agerrarazi zuen 80. hamarkadan pertsonaia nagusien %58,6 maskulinoa, %15,7 femeninoa eta %27,7 neutroak ziren. 2019an %34,6 maskulino, %32,7 femenino eta %32,8 neutro agerrarazi ditu. Baina pertsonaia femeninoen orokortzea azaltzen baldin bada, ez du erran nahi kalitate mailan estereotipoetarik askatzen dela eta ez du berdintasuna segurtatzen haien tratamenduan, Etxaniz Fernandez Astigaz eta Rodriguez Fernandezentzat:

> "Datu hauek ez dutenez zertan berdintasunik bermatzen, ezta imitatuak izan daitezkeen eredu berrien transmisoa ziuratzen ere, arestian aipatu den bezala, genero-estereotipoak ikertuz, liburuetan emakume eta gizon horiek nola ageri diren arakatu behar da.".

### 4.2.4 Testuliburu eta eleberri edukien kontrako kontzeptuen azterketa

Testuliburu eta eleberrien analisia, kontrako kontzeptuetan oinarritzen da. Maskulino/Femeninoak diren ezaugarriak aztertu dira: nortasun, fisiko, jarrera maskulinoa edo femeninoa. Baina ere mugimendu/geldi, lanbidea/familia, adinari lotutako kontzeptu oposatuak interpretatzea bilatzen da. Kategoria oposatuak, ezaugarri neutroekin orekatuak dira. Hau da, pertsonaiaren generoa ez baldin bada ezagutua, ezezaguna da. Maskulinitateari edo feminitateari lotuak ez diren ezaugarriak, neutroak bezala kontsideratzen dira. Hala nola, ileen kolorea, nortasun optimista ukatea, hots, tradizionalki maskulinoa edo femeninoa bezala kontsideratuak ez diren elementuak dira.

Parekidetasun hauek, Bourdieuren (1998) oinarrizko oposizio egokien eskematik abiatzen dira. Gizon eta emazteen desberdintasun sozialak oposizioan oinarritzen dira. Kontrako kontzeptuak elkartzen dira, gizon eta emazteen arteko bitasuna azpimarratzeko. Kontzeptu horiek euskal munduari eta batez ere euskal haur gazte literaturari egokituak izan dira.

**Taula 5: parekidetasunen eskema**




4.3 Testuliburu eta liburuen analisiaren oinarri kualitatibo eta kuantitatiboak

4.3.1 Analisia kuantitatiboa

Analisia kuantitatiboa hiru ardatz nagusiren gainean oinarritua da: adina eta sexua, pertsonaia mota eta hierarkia. Testuliburu eta eleberrien pertsonaien datuak bi taulatan antolatuak izan dira.

Adina eta sexua: Ipuin batzuetan, adina eta sexua ez dira argiki adieraziak. Horrez gain, euskaraz ez da beti genero markarik, beraz ezin gara gramatika puntuetan oinarritu. Sexua identifikatzeko narratzaileak pertsonaiaren sexua, izena (epizenoak baldin badituzte, ez identifikatuak bezala kontsideratuak dira) eta familiaren funtzioak (ama, aita, alaba, emazte, senar, seme, anaia,

arreba, neba, ahizpa...) dira gure irizpideak. Beraz, hiru kategoria agertzen dira: maskulinoa, femeninoa eta ez identifikatua. Adinari dagokionez, hiru kategoria ditugu: haurra, heldua eta ez identifikatua. Nerabea haurren kategorian kokatzen da, nerabea eta haurraren arteko muga ez baita beti argia testuetan. Heldua azpikategorietan banatua da: gazte, adintsua edo identifikatuak ez direnak.

Pertsonaia mota: Hiru kategoria desberdin dira: humanoak, animaliak eta tresna humanizatuak.

Pertsonaiaren hierarkia: Pertsonaia, nagusia eta bigarren mailakoa izan daiteke. Ipuin bakoitzean pertsonaia nagusiak eta bigarren mailakoak mutikoa edo neska direnez bilatzen dugu.

Analisia kuantitatiboen emaitzak taulen eta diagramen bidez irudikatuak dira.

**Taula 6: Analisia kuantitatiboaren taula nagusia**

| Testuliburua | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| | | | |

**Taula 7: Analisia kuantitatiboaren adinen analisia taula**

<table>
<tr><td colspan="5">Maskulino</td><td colspan="5">Femenino</td></tr>
<tr><td>Haur-gazte</td><td colspan="3">Heldu</td><td>Ez dakigu</td><td>Haur-gazte</td><td colspan="3">Heldu</td><td>Ez dakigu</td></tr>
<tr><td rowspan="2"></td><td>Gazte</td><td>Adintsu</td><td>Ez dakigu</td><td rowspan="2"></td><td rowspan="2"></td><td>Gazte</td><td>Adintsu</td><td>Ez dakigu</td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

### 4.3.2 Analisia kualitatiboa

Analisia kuantitatiboak pertsonaien azterketa orokor bat proposatzen du. Baina ez ditu pertsonaiaren aspektu guztiak agerrarazten. Pertsonaien nortasuna, fisikoa, funtzio soziala, izena, guneak eta akzioak ikertuko dira analisia kualitatiboaren bidez. Ezaugarri ezberdin horiek aztertuz, genero estereotipoak hobeto ezagutuko dira

Analisia kualitatiboa taula ezberdinetan banatzen da. Lehenik ipuin bakoitzarentzat taula orokor bat osatu da. Lehen taula hori, testuliburuen analisiarentzat baizik ez da erabili.

**Taula 8: Analisia kualitatiboaren taula ipuin bakoitzarentzat**

| | |
|---|---|
| Ipuinak | |
| Akzioak | |
| Funtzio soziala | |
| Gunea | |
| Fisikoa | |
| Nortasuna | |
| Izena | |
| Bigarren mailako pertsonaiak | |

Guneak: taula hori egiteko hiru zutabe nagusi ezberdin ditu: Etxea, gune hetsiak (lana, taberna, saltegia...) eta kanpo aldea. Geroz eta etxetik gehiago urrundu eta geroz eta abentura gehiago biziko direla suposatzen da. Barna, etxea, ametsa, gogoeta, itxoitea eta etxeko lanen gunea da. Aldiz karrika, topaketak, trukaketa, ezagutzak, mugimenduaren gunea da. Haiek bien artean, dendak, taberna eta lana kokatuak dira.

**Taula 9: Analisia kualitatiboa: guneak**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emazte | | | | | | | |
| Gizon | | | | | | | |

Izena: Aipatutako pertsonaiek izenik ba ote dute? Edo “neska” “mutiko” “emazte” “gizon” izendatzen ote dira? Deiturarik ote dute edo izena bakarrik? Pertsonaien izena geroz eta zehatzagoa izan eta geroz eta errazkiago haiei identifika daiteke. Izenak pertsonaiei dimentsioa ematen die.

**Taula 10: Analisia kualitatiboa: izenak**

| | |
|---|---|
| Pertsonaia kopurua | |
| Pertsonaia nagusi kopurua | |
| Bigarren mailako pertsonaia kopurua | |

| | |
|---|---|
| Pertsonaia femenino nagusi kopurua | |
| Bigarren mailako pertsonaia femenino kopurua | |
| Pertsonaia femenino kopurua | |
| Pertsonaia maskulino nagusi kopurua | |
| Bigarren mailako pertsonaia maskulino kopurua | |
| Pertsonaia maskulino kopurua | |

Nortasuna: pertsonaien nortasuna definitzeko hautatutako adjektiboak aztertuak dira. Nortasunaren bi aspektu kontuan hartzen dira: ezaugarri egonkorrak (zintzoa, kuriosa, ausarta, lotsatia...) eta momentukoak (pozik, kexatua...). Pertsonaien nortasunaren ezaugarriak orokorrak izan daitezke, honek erran nahi du bi generoei lotzen ahal den nortasunak direla (alaia, triste...), femeninoak (feminitateari lotzen ahal diren nortasunak, jantzi zale, negarti, kalakari, beldurti..) edo maskulinoak (indartsuak, isilak, borrokalariak...) izan daitezke.

**Taula 11: Analisia kualitatiboa: nortasuna**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femenino nagusia | | | |
| Pertsonaia maskulino nagusia | | | |
| Orotara | | | |

Fisikoa: fisikoari lotutako bi elementu kontuan hartu dira: haien gorputz atalak (handitasuna, begien kolorea, ileak...) eta puskak (zein jantzi mota duten, makilajea, bitxiak janzten dituzten...). Pertsonaien adina ezaugarri fisikoa izan daiteke deskribapen bat bezala kontsideratua delarik.

**Taula 12: Analisia kualitatiboa: fisikoa**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femenino nagusia | | | |
| Bigarren mailako pertsonaia femeninoa | | | |
| Pertsonaia maskulino nagusia | | | |
| Bigarren mailako pertsonaia maskulinoa | | | |
| Orotara | | | |

Akzioak: pertsonaiek egiten dutena agerrarazten du. Atala bitan zatitua da. Lehenik pertsonaia

aktiboa, hark ditu akzioak egiten, mugimenduan da eta bestalde pertsonaia pasiboa, hari gauzak gertatzen zaizkio baina ez du iniziatibarik hartzen eta gelditasunari lotua da.

**Taula 13: Analisia kualitatiboa: akzioak**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| | | | |
| | | | |

Funtzio sozialak: pertsonaiek lanbide bat dutenez eta lanbide bat baldin badute nagusiki femenino, maskulino edo neutroa denez aztertuko da. Gizon, emazte eta lanbide neutroak desberdintzeko oinarria, Frantses estatuan sortutako berdintasun txostenean oinarritzen gara.[120] Funtzio soziala familiari ere lotua da. Pertsonaia, familia baten ingurumenean kokatua denez zerrendatua da.

**Taula 14: Analisia kualitatiboa: funtzio sozialak**

<table>
<tr><td></td><td colspan="3">Lanbide</td><td>Familia</td><td>Orotara</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Maskulino</td><td>Maskulino</td><td>Femenino</td><td>Neutro</td><td rowspan="2"></td><td rowspan="2"></td></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Femenino</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

Ardatz horien bidez, Haur Gazte Literaturako eta testuliburuetako pertsonaien ezaugarriak laburbilduak dira. Identitateak, rol sozialak eta bereziki genero estereotipoak agerrarazten dira: maskulinitatea eta feminitatearen irudiak nola adierazten diren eta zein maiztasunetan erakutsiak diren.

## 5 Tesiaren ikuspegi hautua

Tesia queer teorian eta feminismo konstruktibistan oinarritzen da. Gure ustez, emaztea edo gizona eraikutza soziala da eta ez du gure organoekin ikustekorik. Gure emazte edo gizon jarrerak,

120 Afera sozialen, lanaren eta elkartasunaren ministerioa eta paritate eta berdintasun profesionalaren ministerioa *La charte de l'égalité*, 2004eko martxoaren 8a interneten: https://travail-emploi.gouv.fr/IMG/pdf/charte_egalite.pdf

sortzez, jendartearen estimuluen ondorioz eraikitzen dira. Wittigen ildoa segituz, sozialki bi genero estereotipatu sortuak izan dira baina ez dute bakoitzaren egiazko izateari erantzuten. Norma maskulinoa gure jendartearen oinarrian da, beraz, existitzen den genero bakarra, zapaldua dena, genero femeninoa da. Menpekotasun hori jendarte guztiak barnatu du eta emazteak sistema desorekatu honetan murgiltzen dira. Orduan, alde batetik, gure organo sexualek ez luketela gure jarrera, izaera, fisikoa, nortasuna finkatzen defenditzen dugu. Bestalde, trans-identitateak eta homosexualitateak patriarkatuak sortutako opresioari bizkarra ematen dutela pentsatzen dugu.

Generoak, menpekotasuna mantentzeko tresnak dira. Genero estereotipoak deseraikitzeak, androzentrismoari aurre egitea eta patriarkatuaren oinarriak galdekatzea da. Androzentrismoa eta patriarkatua kapitalismoaren oinarriak dira. Ideologia honek jendartea menperatzaile eta menperatuen artean banatzen du patriarkatuaren boterea inposatzeko. Gizon txuri heterosexualari boterea emanez eta hori naturalizatuz, emazteak menpekotasunean mugatuak dira. Emazteak gutxietsiak dira eta haien tokia jendartean apaltzen da. Patriarkatua eta kapitalismoa elkar elikatzen dira.

Familiak, elizak, eskolak inposatutako normak eraikuntza sozialak direnez, deseraikitzen ahal direla sinisten dugu. Generoaren kontzeptua desegin behar dela pentsatzen dugu: bakoitzak bere burua identifikatzen ikasi behar du eta hezkuntza sistemak horretan lagundu behar du.

Gure ustez, mendebaldeko jendarteak ezagutzen duen sistema patriarkalak, matxismoa bideratzen du. Jendartearen arlo guztietan, tresna horiek barnatuak dira eta zabaltzen dira. Merkatua, komunikabideak, kultura, literatura, lotuak dira eta sistema binarista mantentzeko sortzen eta ekoizten diren produktuek ideologia patriarkala bideratzen dute.

## IV- Sozializazio-eragileak eta genero estereotipoak euskal haur gazte literaturan

"Neska-mutilek espazio, arau, ikasgai, irakasle, material eta antzekoak partekatzen dituzte eskoletan, baina askok, neska-mutilen arteko berdintasuna bermatu eta haien arteko aukera eta eskubide parekidetasuna sustatzen dutela pentsatu arren, errealitatea oso bestelakoa da." Reizabal Arruabarrena (2015)

Haur gazte literaturak gazteei, haien egunerokotasunean integratuko dituzten baloreak zabaltzen ditu. Literaturaren inguruko sozializazio eragile nagusiak idazleak eta irakasleak dira. Idazleek pertsonaiak sortuz eta egoera zehatz batzuetan kokatuz, protagonistei mamia, bizipen bat, ikuspegi bat ematen diete. Irakasleek, autoreak eta obrak hautatuz, ikasleekin lanketa bat egitea proposatzen dute eta autoreen ikuspegia, ideologia aztertzen dute. Bukatzeko, gazteak, sozializazio eragileen menpe dira, hartzaileak dira. Haiek, irakasleek irakasten dizkieten jakitateak, ezagutzak, kultura, literatura metatzen eta barnatzen dituzte eta haien munduaren ikuspegia haien ereduen arabera egokitzen dituzte.

### 1- Ibilbidearen arrazoiak

Irakasleak, sortzailea-idazlea, eta, hartzailea-ikaslearen arteko lotura egiten du. Bere hautuak nerabeei zabalduz, literaturarekiko engainamendu bat erakutsiko du. Irakasleek eleberrien hautuetan, estereotipo batzuk iraun erazten dituzte. Idazleen pertsonaien sortze prozesua desberdina ote da lana gazteentzat ala helduentzat zuzendua denean? Jendartean diren gogoetak, bere literaturan barnatzen ote dituzte? Ikaslea, euskal haur gazte literaturako irakurle nagusia da. Baina nerabearen eredu kulturalak ikasgelakoak ote dira nagusiki? Ikasleek duten generoen irudikapena argitu nahi da.

### 2 Iparraldeko euskarako irakasleen zundaketa

#### 2.1 Metodoa

Zundaketa iparraldeko bigarren mailako irakasleei bidalia izan zitzaien, Google Forms-en bidez, berrogeita zazpi irakasleei. Hogeita bat irakaslek zundatzeari erantzun zuten, %44,7k. Haien erantzunek, genero ikuspegitik, klasean lantzen diren corpusak argitzen dituzte. Zundaketa hamar galderaz osatua izan da, eta erantzunak diagramen bidez islatuak dira.

## 2.2 Emaitzak

### 2.2.1 Erantzunak




**Irudia 15: Literatura garaikidea**

Lehen diagramaren arabera, irakasleen %76,2k haien klaseetan euskal literatura lantzen zuten.




**Irudia 16: Obra garaikideak**

Literatura lantzen zuten iparraldeko irakasleen artean, literatura garaikidea irakasleen %86,7k aztertzen zuten.




**Irudia 17: Irizpideak**

Eleberri bat lantzeko irizpideak, lantzen zuten sekuentziari lotua izatea, ikaslearen euskara maila, helburu gramatikala, aktualitateari lotua izatea eta beste aipatuak dira. Aldiz, saritua, famatua izatea ez ziren kontuan hartzen. Helburu gramatikala, aktualitateari lotua izatea eta beste irizpide batzuk aipatu ziren, ondotik.

**Irudia 18: Obrak**

## Zein obra lantzen dituzu?

10 réponses

Beti oporretan Harkaitz Cano
33 ezkil Miren Gorrotxategi
Hobe isilik Garbiñe Ubeda
Mussche Kirmen Uribe
Euskaldun guztion aberria Iban Zaldua
+ beste hainbat obren zatiak edo ipuinak

Gizaki bakartiak Béatrice Urruspil

"Sugeak txoriari begiratzen dionean" , "Idazlana" (itzulpena), "Otto" (itzulpena), "Krokodiloa ohe azpian"

Gerra ez da konprenitzen ahal. Begoña Durruty

Haur koropiloak - barne bidaiak

adb : F.Morilloren Abadiaren sekretua

Aita Junes Cazenave Harigile -nak bereziki, ikasle gehienak xiberotarrak ditut?

Ezekiel eleberria; Idazlana albuma; Okatxu komikia; Nur

Aktualitateari lotuak direnak edo/eta nozioei.

Zein eleberri lantzen zen galdetua zelarik, hamar erantzun jaso ziren. Haien artean, hamahiru obra izendatuak ziren, klaseetan landuak zirenak.




**Irudia 19: Autore garaikideak**

Autore garaikideak lantzen dituztenez galdetu zen. Hamasei irakasleen artean, %75k baietz erantzun zuten.

Autore garaikideak aipatuak direlarik, hamaika erantzun agertzen dira. Autore batzuk behin baino gehiagotan agertzen direla nabarmentzen da eta ez dira baitezpada gorago aipatutako obra zerrendei lotuak.

**Zein metodo, testuliburu erabiltzen dituzu zure kurtsoak prestatzeko?**

18 réponses

| |
|---|
| Materiala sortzen dut (irakurketa fitxak) + prentsa artikulu (audio edo bideo) - Sautrela emankizuna adibidez |
| arian / goazen / euskara eta literatura |
| Batere ez. Nik ekoizten dut. |
| Ez dut erabiltzen: ikasleei egokitu sekuentziak sortu behar ditut.<br>Araiz IKAS-ek fitexko gauza berriak zintzilikatuko ditu bere webgunean! |
| ez dut metodo edo testuliburrurik erabiltzen. Ez dira egokiak Iparralderako |
| ahal bezala |
| frantses programako gaien antolaketa segitzen dut |
| Ez metodo berezirik, ainitzetarik zati batzu: ikas-ek ateraiak, aek-n erabiliak... |
| denetatik hartzen dut kurtsoen prestatzeko .... |
| Denetarik erabiltzen dut: material gehiena interneten aurkitzen dut, testuak, artikuluak, bideoak... Literatura ere pixka bat lantzen dut, baina garaikidea gutxi. Literatura kantuen bitartez ere lantzen dut. |
| bigarren eta hrugarren zikloko testo bildumak gazteendako |
| Pixka bat denetaz laguntzen naiz |
| Ikas-en metodoa, Eki (ikastolena) |
| Bakarka- Arian - |
| Bakarka eta han eta hemen atxeman testuak |
| Ikastolen Elkartekoak ( EKI proiektua mementu honetan), IKA euskaltegietakoak, IKASenak, Ibaizabal |
| Ostadar, Goazen, IKAS, eta frantseseko sekuentzien modeloa tarteka |
| Ezker-eskuin aurkitzen ditudan dokumentuak: prentsa, testuliburu gutxi... |

**Irudia 20: Testuliburuak**

Irakasleei erabilitako testuliburuak zein ziren galdetzerakoan, hemezortzi erantzun agertu ziren. Askok metodorik ez zutela adierazi zuten. Nagusiki aipatuak ziren metodoak Eki, Arian, Bakarka eta Ikas ziren. Azken hori ez da paperezkoa.

**Erabiltzen dituzun metodoetan literatura testuak ba ote dira?**

16 réponses




**Irudia 21: Testuak**

Hamasei erantzunen artean, irakasleek erabiltzen zituzten testuliburuetan, %56,3k literatura testuak bazirela agerrarazi zuten.




**Irudia 22: Testuen lanketa**

Erantzun zuten hamar irakasleek testuliburuetako testuak lantzen zituzten.




**Irudia 23: Literatura garaikidea**

Euskal literatura garaikidea lantzen ez zutenek, nagusiki ez ziotelako lehentasuna ematen, ikasleen euskara maila apalegia zelako, beste literatur mota bat lantzen zutelako edo testuak ez zirelako egokiak adierazi zuten.

### 2.2.2 Emaitzen laburpena eta interpretazioa

Zundaketaren emaitzek Iparraldeko euskarako irakaslek erantzun duten %76,2k euskal literatura garaikidea lantzen dutela erakusten dute. Literatura hautatzeko, gehienak ikasleen

gaitasunetan, (15), lantzen ari diren gaietan, (14) helburu gramatikaletan (9), aktualitatean (6) oinarritzen dira. Aldiz, sariak eta fama ez direla irizpideak adierazi dute hamabi irakaslek. Aktualitatea (5) eta gramatika (3) ez dira irizpide nagusienak beste irakasle batzuentzat.

Literatura lantzen duten irakasleen %86,7k eleberriak lantzen dituzte. Obren zerrendan hamazazpi idazlan ezberdin aipatuak dira, komikiak edota itzulpenak barne. Hamahiru eleberri zerrendatu ditugu, haietatik zazpi autore maskulinok eta sei autore femeninok sortuak dira. Hegoaldeko eleberriak hamar dira eta iparraldekoak hiru.

Euskal literatura lantzen duten %75en irakasleek autore batzuk lantzen dituzte. Sail honetan, hogeita lau idazle ezberdin aipatuak izan dira. Hiru taldetan banatzen ahal dira:

- Lau aldiz aipatutako idazleak: Atxaga, Morillo, Landart.
- Bi aldiz aipatutako idazleak: Uribe, Dolharre-Caldumbide, Sarrionandia.
- Behin aipatutako idazleak: Urruspil, Landa, Durruty, Zubizarreta, Igerabide, Erdozaintzi-Etxart, Apalategi, Arana, Zaldua, Osore, Martinez de Lezea, Dirazar, Artze, Bidegain, Montoia, Urretabizkaia.

Hogeita bi idazleen artean, hamabi sarituak dira. Hamalau idazle hegoaldekoak dira (EAE edo Nafarroakoak). Hogeita hamaika aldiz autore maskulinoak aipatuak dira. Autore femeninoak hamaika aldiz aipatuak dira.

Testuliburuei dagokionez, euskarako irakasleek erabiltzen dituztela adierazia da. Hamar testuliburu ezberdin izendatuak izan dira. Alta, gehienetan denetarik hartzen dute eta haien sekuentziak bakarrik sortzen dituzte, adibidez frantses programetan oinarrituz. Irakasle guztiek metodo bat baino gehiago erabiltzen dute eta hamaseiek bi baino gehiago. Gehien erabilia eta aipatua den metodoa Ikas da (lau irakasle); Ondotik Eki, Bakarka, Arian eta Goazen, (bakoitzak bi). Testuliburuen %58,3ren kasuan irakasleek literatura atzematen dute eta denek lantzen dutela diote. Ikas metodoari dagokionez, ez da literaturarik agertzen.

Bukatzeko, euskal literatura lantzen ez duten gehienek ez dutela lehentasuna hor ematen (4k) esplikatzen dute. Ondotik, literatura maila ez dela egokia ikasleentzat eta beste literatura motak (kantua, bertsolaritza...) lantzen dituztela azpimarratzen da.

### 2.2.3 Corpusaren hautua

#### 2.2.3.1 Corpus literarioaren osaketa

Irakasleek egiten dituzten hautuen arabera, Morillo eta Atxaga nagusitu dira. Ondotik, aniztasun handia agertu da eleberri eta autoreen ikerketen artean. Gure corpusa eraikitzeko ezaugarri horien gainean oinarritu gara:

- Irakasleak landutako eleberri edo autora bat izatea;
- Paritatea errespetatzea;
- Haur gazte literaturan saritutako idazlea izatea;
- Laurogei hamarkadatik gaur arte, hamar urte guztiz bi autore hautatzea.

Gure hautua egiteko faktoreen zehaztea:

- 80 hamarkadan emazte bat baizik ez zen saritua izan Lizardi Sarian, Mariasun Landa, *Txan Fantasma* liburuarekin, 1982an. Aldiz, laurogeita hamar hamarkadan, Lizardi Sarian eta Euskadi Sarian, ez zen emazterik saritua izan HGL-n. Beraz saritua ez zen emazte bat hautatzea edo gizon bat lehenestearen artean, paritateari nagusitasuna eman diogu, nahiz eta emazteak ez agertu 1990 hamarkadako sarietan azpimarratzekoa den faktore bat izan. Arantxa Urretabizkaiaren lana corpusean integratua izan da irakasleen erantzunen arabera.

- Euskadi Sarian, 2000 hamarkadan, emazte bat saritua izan zen (bi aldiz), Miren Agur Meabe. 2010 hamarkadatik goiti, aldaketa bat agertzen zen: 2017 arte, lau gizon eta lau emazte sarituak izan ziren. Ibilbide berdina ikus daiteke Lizardi Sarian: 2000 hamarkadaren bukaera arte, bi aldiz emazteak sarituak izan ziren – Marisun Landa eta Begona Bilbao – 2010tik 2017arte, sei emazte sarituak izan ziren eta bi sari emanak izan ziren, idazle maskulino bakar bati, Ramon Olasagastiri.

Hautatutako eleberriak:

| Autorea | Data | Titulua | Argitaletxea | Saria |
|---|---|---|---|---|
| Mariasun Landa | 1981 | *Txan Fantasma* | Elkar | Lizardi saria |
| Bernardo Atxaga | 1984 | *Sugeak txoriari begiratzen dionean* | Erein | Lizardi saria |
| Arantxa Urretabizkaia | 1992 | *Aurten aldatuko da nire bizitza* | Erein | - |
| Patxi Zubizarreta | 1998 | *Gizon izandako mutila* | Pamiela | Euskadi saria |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Fernando Morillo | 2004 | *Izar malkoak* | Aizkorri | Euskadi saria |
| Miren Agur Meabe | 2007 | *Urtebete itsasargian* | Elkar | Euskadi saria |
| Harkaitz Cano | 2013 | *Orkestra Lurtarra* | Pamiela | Euskadi saria |
| Yolanda Arrieta | 2014 | *Argiaren alaba* | - | Euskadi saria |

**Taula 15: Corpusa**

### 2.2.3.2 Testuliburuen corpusaren hautua




**Irudia 24: Testuliburuak**

Gorago ukan ditugun emaitzen arabera, irakasleek hainbat testuliburu aipatu dituzte. Arian (2), Goazen (2), Ikas (5), Eki (2), Bakarka (2), Ibaizabal, AEK, Ostadar... Klaseetan gehien landutako bost testu liburuak Arian, Goazen, Eki eta Bakarka dira. Nahiz eta Ikas metodoa nagusitu, ez da argitaratua eta ez da ipuinik. Orduan lau lehen horien analisia egitea erabaki da.

| Bilduma | Autorea(k) | Titulua | Data | Argitaletxea |
|---|---|---|---|---|
| Eki | Batzuen artean | *DBH1– Euskara eta literatura*<br>*DBH2 – Euskara eta literatura* | 2013<br>2013 | Ikaselkar |
| Bakarka | Jose Antonio Letamendia | *Bakarka 1 Frantsesez*<br>*Bakarka 2 Frantsesez*<br>*Bakarka 3 Frantsesez*<br>*Bakarka 4 Frantsesez*<br>*Bakarka 5 Frantsesez* | 2011<br>2013<br>2010<br>2013<br>2011 | Elkar |
| Arian | Joseba Ezeiza, Marian Urkizu, Itziar Etxabe | *Arian A1.1* | 2011 | Elkar |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Marian Urkizu, Itziar Etxabe, Ana Alkain, Beatriz Aio<br>Itziar Etxabe, Ana Alkain, Beatriz Aio, Beatriz Zabalondo, J.L Aranguren “Txiliku”<br>Itziar Etxabe, Beatriz Aio, Beatriz Zabalondo, J.L Aranguren “Txiliku”<br>Itziar Etxabe, Beatriz Aio<br>Itziar Etxabe, Beatriz Aio, Beatriz Zabalondo, J.L Aranguren “Txiliku” | *Arian A1.2*<br>*Arian A2.1*<br>*Arian A2.2*<br>*Arian B1.1*<br>*Arian B1.2*<br>*Arian B2.1*<br>*Arian B2.2* | 2011<br>2012<br>2013<br>2013<br>2014<br>2015<br>2016 | |
| Goazen | Kristina Bilbao, Marta Sainz-Bizkaia, Inaxio Lopez de Arana, Joseba Santxo, Xabier Monasterio | *Goazen DBH1*<br>*Goazen DBH2*<br>*Goazen DBH3*<br>*Goazen DBH4* | 2005 | Santillana |

**Taula 16: Testuliburuak**

Autoreei doakionez ohar bat: Eki bildumako sortzaileen konposaketa ez da zehaztua, baina Bakarka saila bi autore maskulinoen eskuetatik heldu da. Arian sailarentzat, autoreen %80 femeninoa da. Goazen sailean, autoreen %42,3 femeninoa da. Haien generoak testuliburu berdintzaileak sortzeko eragina dutenez agertuko da.

## 2.3 Ondorioak

### 2.3.1 Iparraldeko irakasleen literatura hautuak zundaketaren arabera

Irakasleek euskal literatura lantzeko irizpide ezberdinak kontuan hartzen dituzte. Irakasle batentzat testu batek proposatzen dituen puntu gramatikalak ezaugarri nagusi bat izan daiteke eta bere eleberria horrela hauta dezake. Baina, irakasle askok ez dute gramatika irizpide bat bezala kontsideratzen haien hautuan.

Ber maneran, irakasleek nagusiki literatura lantzen dutelarik sariei eta famari ez diotela garrantzirik ematen azpimarratzen dute. Aipatutako eleberriak ez dira baitezpada sarituak. Baina autoreen zerrenda ikusiz, idazle askok sari nagusiak (Euskadi Sariak eta Espainiako Saria bezala) ukan dituzte. Hogeita lau idazleen artean, erdia jadanik saritua izan da. Iparraldeko eskoletan aipatzen diren autoreak Bernardo Atxaga, Fernando Morillo eta Daniel Landart dira. Bi lehenak hegoaldekoak

dira eta biak haien lanetan sarituak dira. Aldiz, Daniel Landart, Nafarroa Behereko idazlea da. Iparraldeko erakundeentzat lan handiak egin ditu eta obra emankorra du. Ondotik, gehien landuak diren autoreak eskoletan Kirmen Uribe, Iban Zaldua eta Sarrionandia dira. Morillo eta Atxagarekin, denak hegoaldeko gizonak dira. Bukatzeko, ahantzitako autoreak daude. Adibidez, Itxaro Borda bezalako xiberotar idazlea, saritua eta obra oso emankor eta zabala du. Alta, ez da autore bezala aipatua eta bere lanak ere ez.

Irakasleek proposatutako eleberriek, aniztasun handia erakusten dute eta ez dute Haur Gazte Literatura bakarrik kontuan hartzen. Helduentzako literatura ere proposatua da nerabeei. Irakasleak garrantzitsuak bezala ikusten dituen obrak proposatzen ahal ditu bere ikasleei.

Hamasei eleberrien artean, sei, autore femeninoek idatzi dituzte, corpusaren %37,5 osatzen dute. Autoreen aldetik, %29 femeninoak dira. Ondorioz, autore maskulinoen obra kanonikoak nagusitzen dira kolegio eta lizeoetan.

### 2.3.2 Iparraldeko klaseetan lantzen den autorea ez da iparraldekoa

Iparraldeko euskarako irakasleek euskal literatura sistemak sortzen dituen kodeak berriz hartzen dituztela nabarmentzen da. Nahiz eta zundaketaren irakasleek lehentasuna ikasleen euskara mailari ematen diotela erantzun duten, ohar gaitezke euskal eleberrigintzari – beharbada prestigioa emateko beharraren eraginpean – egindako hautu literarioek ez dutela ikasleen irakurketa ulermena eta mailarekin bat egiten. Kultura eta literatura tradizio bat finkatzeko, eskola erakunde berezia da eta ikasitako normak definitzen ditu (Bourdieu, de Saint Martin, 1970, 147-175.orr). Beraz, obra edota autore baten kanonizazioarentzat, irakaskuntza oinarria da. Frantses estatuko irakasgai guztiek corpus tradizional bati erantzuten diote (Viala, 1992): tradizionalak bezala kontsideratuak diren obrak, adostasun orokor bat sortzen dute eta erakundeen curriculumak errespetatzen ditu. Frantses erakundeak garraiatzen dituen balioei aurre egiteko, Iparraldeko euskarako irakasleak euskal erdiguneko autoreen hautua egin dezake, euskal literaturaren indarra erakusteko.

### 2.3.3 Iparraldeko bigarren mailako klaseetan lantzen den idazlea ez da emaztea

Iparraldeko euskarako irakasleek sortutako corpusetan, emazte idazleak gutxiengoan dira. Miren Gorrotxategik, Garbine Ubedak, Béatrice Urruspilek, Mariasun Landak eta Jasone Osorok, corpusaren egileen %45 osatzen dute.

Baztertze honek gizonek literatura estandarrak sortzen dituztela suposatzen du, hizkuntza, gaien eta pertsonaien eraikuntzaren aldetik. Iparraldeko emazte idazlea periferiaren periferian kokatzen da. Literatura gizonen afera balitz bezala, euskal literatura "emazterik gabeko" literatura dela dio Itxaro Bordak (2001). Pertsonaia femeninoak, "emeak" deitzen dituenak, estereotipoz beteak dira eta ez dute sinesgarritasunik. Literatura unibertsala gizonek egiten baldin badute, zeren itxura dute pertsonaia femeninoek?

Irakaslearen rola ez da euskararen transmisioan eta testu batzuen hautuan mugatzen. Euskal literatura sistema berriz produzituz bere klaseetan, jendartearen makurrak zabaltzen ditu. Amaia Alvarrez Uriaren erranez (2014; 101-114.orr) :

> "Irudi sexistei bizkarra eman behar zaie, emakumeok batak besteari begiratu behar gara belaunaldietakoelkartasuna bilatu, subkultura femeninoan edertasun-irudiak bilatu, emakumeen biografiak bilatu isildutako heroinen historia ezagutarazi behar da". Orduan, literaturaren genero indarkerien aldaketaren abiapuntua kontzientzia hartzearekin hasten da. Baina, obra tradizionalak lantzea genero berdintasunaren ikuspuntua errespetatuz irakatsia ez den eginmolde konplexua da."

## 3 Idazlearen sorkuntza prozesua: galdetegia

### 3.1 Metodoa

Euskal corpuseko zortzi idazleen artean, seiek galdetegiari erantzun diete: Harkaitz Canok, Patxi Zubizarretak, Miren Agur Meabek, Arantxa Urretabizkaiak, Fernando Morillok eta Yolanda Arrietak.

Hauek dira pausatutako galderak:

- Lehen galdera: Pertsonaia bat sortzen duzunean, nola eraikitzen duzu? Zein aspektutan pentsatzen duzu (psikologian, fisikoan...) ? Zure irakurlegoaren gogoek zein toki hartzen dute eraikuntza prozesu honetan?
- Bigarren galdera: Eleberri bat idaztean, jendartearen eta ingurumenaren testuingurua kontuan hartzen ote duzu edo zure errealitateari nagusitasuna ematen diozu?
- Hirugarren galdera: Pentsatzen ote duzu HGL autoreak rol hezitzaile bat ukan behar duenik (batez ere nerabeei zuzentzen delarik)?

- Laugarren galdera: Argitaletxe batek zein eragin ote du zure lanetan? Ipuinaren estrukturan edo pertsonaietan aholkuak ematen ote ditu? Zure karreran zehar argitaletxeekin erdibideak edo negoziaketak eraman behar izan ote dituzu?
- Bosgarren galdera: Zure lana baieztatzeko zer da garrantzitsuena: irakurlegoaren oharrak ala kritikak eta sariak?
- Seigarren galdera: Pentsatzen ote duzu berrogei urtez HGL obra bat egiteko irizpideak aldatu direnik? Bai baldin bada, nola? Zein ziren lehen? Eta gaur? Ez baldin bada, zergatik?
- Zazpigarren galdera: Zure lana idazten duzularik iparraldeko irakurlearengan pentsatzen ote duzu?
- Zortzigarren galdera: Euskara bereganatzeko testuingurua desberdina dela pentsatzen ote duzu?

Galdetegiko erantzunen parte bat itxia da eta taula batzuen bidez erantzunak elkartu dira. Baina beste galderen parte bat irekia da, beraz osatzen eta berdintzen diren erantzunak batuak dira eta erantzun independenteak separatuak dira.

3.2 Erantzunak

1- Pertsonaia bat sortzen duzularik, nola eraikitzen duzu? Zein aspektutan pentsatzen duzu (psikologiko, fisiko...) ? Zure irakurlegoaren gogoek zein toki hartzen dute eraikuntza prozesu honetan?

| Idazlea | Nortasuna | Fisikoa | Akzioak | Ingurumena | Irakurlegoa | Beste |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urretabizkaia | | | | | "Ez diot irakurleaz galdetzen neure buruari." | "historia txiki bat izaten dut abiapuntu, entzun edo irakurri dudana eta oihartzuna sortzen duena nire barruan" |
| Zubizarreta | Bai | Bai | | | Irakurlegoari eskoletan pertsonaien izena sortzea proposatzen | Pasioa, Paisaia, ingurumena |
| Meabe | "psikologia ebolutiboaren | "deskribapen fisikoak beti-beti | | "testuinguruak izaten du eragina | | Adina |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | arabera adin jakin batean umeek izaten dituzten ezaugarriak" Introspekzioa nagusitzen da, maila diferenteetan. | saihesten ditut" "Oso xehetasun gutxi ematen ditut, estereotipoei ihes egiteko" | | haiengan, bai familiak, bai jendarteak" | | |
| Morillo | "Zer gustatzen zaion, zer ez duen jasaten, zer berezitasun duen, itsasoa edo mendia, pasioa edo kontrola…? Halako hamaika." " alderdi psikologikoa askoz garrantzitsuago a da" | "Aspektu fisikoa garrantzitsua da irakurleari ikuspegi zuzena emateko orduan, hasieran oro har pertsonaien irudi plastikoak sortzen baititugu geure baitan, irakurtzean." | | | | "Baina jarraian, arima eta bihotza dago, pertsonaiaren benetako izana." |
| Cano | Bai "mundu ikuskera eszentriko edo libre bat duten pertsonaiak" *"Outsider"* | Apenas "Askotan liburuak ilustratuak izaten direnez, nahiago dut pertsonaiaren aspektu fisikoak marrazkilariaren esku utzi" | - | - | Irakurleen gogoan ez dut sobera pentsatzen | - |
| Arrieta | | | "Pertsonaiak akzioen bidez agertzen saiatzen naiz" | | | "Zer kontatu nahi dudan da oinarria" |

Lehen galderak, autoreek protagonista sortzeko idazkera prozesua ezberdinak dituztela agerrarazi du. Batzuek pertsonaiari lehentasuna ematen diote (Zubizarreta, Cano, Morillo) eta beste batzuk akzioetatik abiatzen dira (Arrieta, Urretabizkaia). Batzuek pertsonaiaren psikologia eta testuingurua lantzen dituzte, (Meabe, Morillo) beste batzuek ez dituzte aipatuko.

Ezberdintasun nabariak aspektu fisikoa eraikitzerako orduan aurkitzen ditugu. Canok eta Meabek oso gutxi aipatzen dutela diote, irakurleak bere irudimeneko pertsonaia sor dezan. Beste batzuek detaile batzuk aipatzen dituzte, Zubizarretak bezala. Irakurlearen tokia idazketa fase honetan ezberdina izan daiteke. Urretabizkaiak eta Canok ez dute irakurlea kontuan hartzen, Zubizarretak irakurleekin harremana atxiki dezake eta adibidez bere pertsonaiei izen bat emateko laguntzen ahal dute.

Zubizarretaren erranetan:

> "Pertsonaiaren sortzeko eta irakurlegoarekiko, ezer baino lehen, irakurle sentitzen dela, beharbada horregatik sortzen dituela hark irakurri nahi lituzkeen pertsonaiak. Bila ibiltzen da, bizitzan zehar, liburuetan, filmetan, antzerkietan, eskoletan… eta esango luke pertsonaiek aurkitzen dutela hura, topaketa nolabait ere liluragarri hori gertatu arte ezin da idazten hasi.(...) Oro har, halako lilura bat, flash bat egoten da, inkontzientean geldi hasieran, eta gero, batzuetan, kontzienteki pertsonaia eta protagonista bilakatzen dena."

Baina benetan pentsatzen du, hura baino hobeki, kanpoko norbait ohartuko dela hautu horietaz bere eleberria irakurtzerakoan. Meabek irakurlearen gogoak kontuan hartzen saiatzen dela dio. *"Adibidez, euren kezka nagusiak (amodioa, etorkizuna, harremanak, gatazkak...) baina beti ez da posible euren gustuak betetzea."* Orduan, beretzat ezinezkoa litzateke misterioa, abentura, zientzia fikzioa eta horrelakoak lantzea, ez direlako bere trebeziak.

Ber maneran, Morillorentzat, pertsonaia nagusitzen da, hark du irakurlegoa ukituko:

> "Pertsonaiak du lehentasuna eta autoritatea, hark lortuko baitu irakurleak benetakoa balitz bezala sentitzea… edo batere ez. Pertsonaiaren arnasarik gabe ezinezkoa litzateke inongo irakurlerik barrentzea istorioan. Inongo irakurlerik orriotan galtzea. Eta hori gabe ez da literaturarik, ez bestelako arterik ere."

Arrietarentzat, aldiz, irakurleak pertsonaia bereganatu behar du eta bere nortasuna sortuko du:

> "Pertsonaiak akzioen bidez agertzen saiatzen naiz, irakurlea izan dadin, akzio horietaz jabetu ahala, pertsonaiaren izaera osatzen joango dena bere irudimenean."

2- Eleberri bat idaztean, jendartearen eta ingurumenaren testuingurua kontuan hartzen ote duzu edo zure errealitateari nagusitasuna ematen diozu? Pentsatzen ote duzu HGL autoreak rol hezitzaile bat ukan behar duenik (batez ere nerabeei zuzentzen delarik)?

| Idazlea | jendartea eta testuingurua | Haien errealitatea |
|---|---|---|
| Urretabizkaia | - | - |

| | | |
|---|---|---|
| Zubizarreta | | "Erroak gure historiarekin lotuta daude, gure iragana, ahozko tradizioa eta folklorea,<br>gerra, diktadura, auzi politikoa…" |
| Meabe | | "Askotan gu garenetik edaten dugu pertsonaiak sortzean, nire ustez." |
| Morillo | "gazte haien egunerokotasunak, grinak eta zauriak oso hurbiletik iristen zaizkit." | "Nolabaiteko barne-musika bati heltzen diot, eta hura jarraitzea da nire ardura eta ahalegina." |
| Cano | "Izatez, idazlearen lanak gehiago izan beharko luke nire ustez irakurle gazteak heziketak ematen dizkien estandarrekiko begirada kritiko eta jolasti bat gara dezan laguntzea." | |
| Arrieta | "SISTEMA bat da HGLa eta sistemaren adar asko daude ahul." | |

Zubizarretak nagusitasuna gure erroei ematen die, Meabek denetik abiatzen dela dio, bere ipuin guztietan bere biziaren parteak agertzen direla zehazten du. Canok, aldiz, idazleak jendartearen kritika bat proposatu behar duela suposatzen du. Morilloren erranetan, lehen etapa batean bere barne beharrei erantzuten baldin badie, ondotik, bere ingurumenaren eraginari erantzuten dio:

> "Adibide batez ahaleginduko naiz zehazten: jazarpenari buruz idazten ari nintzela, istorio latz (eta oso erreal) ugari jaso nituen. Min horrek guztiak hunkitu eta ia kolpatu egin ninduen. Horren eraginez, sortzean, barruan ereindako samin-olatu haiek istorioaren musikari eragiten zioten zuzenean. Baina betiere kreatiboki, arrazoiaz harago (ez nituen nik espreski mailuka iltzatzen istorioan). Izan ere, esan bezala, sortzean ezin baituzu "arrazoitu" (nik behintzat ezin dut, eta areago, ez dut nahi). Lehenbizi, buruari esperientziak eta datuak eman bai, baina gero bihotzari utzi behar diozu haria eramaten eta dantzatzen."

Arrietak, bukatzeko, euskal haur gazte literaturaren sisteman parte asko hobetu behar direla adierazten du (adibidez eskoletan literatura irakasteko maneran, nerabe guztiak ber taldean kokatzea nahiz eta denak ezberdinak izan...). Beraz, autore guztiek, irizpide desberdin askori erantzuten diete idaztean, ez diote baitezpada testuinguruari garrantzirik ematen baina honetaz kontziente dira. Haien barne biziak, gustuek eta kezkek garrantzi asko dutela argi da.

3- Pentsatzen ote duzu HGL autoreak rol hezitzaile bat ukan behar duenik (batez ere nerabeei zuzentzen delarik)?

| Idazlea | Rol hezitzailea | Rol hezitzailerik ez |
| --- | --- | --- |
| Urretabizkaia | | “Ez diot nire lanari helburu hezitzailea ematen.” |
| Zubizarreta | | “rol hezitzaileek dardaran jartzen naute, nik nire ideologia dut eta, ongi edo gaizki, hortik idazten dut, ez naiz robot bat, baina ez dut mezurik zabaldu nahi.” |
| Meabe | | “Rol hezitzailea arriskutsua da: literaturak ez du izan behar rol paternalista, ez ideologista, ez doktrinala, ez instrukzionista...”<br>“ Hala ere, iruditzen zait badaudela balio unibertsal batzuk, eta horien inguruan hausnarketa abiatzea beharrezkoa dela” |
| Morillo | “istorioak maiz hezitzaileak dira, guk geuk behar dugulako halakoak izatea.” | “Lehenbizi, buruari esperientziak eta datuak eman bai, baina gero bihotzari utzi behar diozu haria eramaten eta dantzatzen.” |
| Cano | | “Heziketa lanak, ordea, hezitzaileei eta gurasoei uzten dizkiet.”<br>“ Idazleok irakurleentzat ezin gaitezke guraso edo irakasle izan” |
| Arrieta | | “ez dut uste HGL-ko autoreak rol hezitzailerik jokatu behar duenik.”<br>“Haur eta Gazte Literatura berez izan daiteke hezitzailea, lehenik haurrak eta gero gazteak behar bezala hezten baditugu Letretan, Pentsamenduan eta Arteetan.” |

Idazleek orokorrean ideia berdina partekatzen dute: haien rola ez da hezitzailea. Neurri ezberdinean agertzen den pentsamendua da. Denak heziketaren kontuaz kontziente baldin badira, alde batetik autoreak bere askatasuna atxiki behar duela eta bestalde hezitzaileak, burasoak, eskola edo liburu berezituak sortzen dituztenak direla estimatzen dute. Arrietaren ustez, HGL hezitzailea izaten ahal baldin bada, inguruko ardatz guztiek (letrak, pentsamenduak, arteak) gazteak hezi beharko dituzte ere. Baina, Meabek balore unibertsalak zabaltzen ahal direla dio, Canok jendartearen kritika ironiko bat proposatzen ahal duela argitzen du eta Zubizarretak, nahiz eta ez duen hori helburu, ez duela kentzen bere ideiak eta baloreak dituela adierazten du. Morillok bere erantzuna neurtzen du esplikatuz ipuin guztiek rol hezitzaile bat dutela eta ipuin guztiek balore batzuk pasarazten dituztela. Baina bere lana sorkuntza dela azpimarratzen du. Morillok ez du bere obraren rol hezitzailea ukatzen, baina ez du hemen mugatzen eta bere mezuetaz kontziente egoten da sorkuntza eta alderdi artistikoa lehenetsiz. Ez ditu bi alderdiak baitezpada oposatzen.

4- Argitaletxe batek zein eragin ote du zure lanetan? Ipuinaren estrukturan edo pertsonaietan aholkuak ematen ote ditu? Zure karreran zehar argitaletxeekin erdibideak edo negoziaketak eraman behar izan ote dituzu?

| Idazlea | Bai | Ez |
|---|---|---|
| Urretabizkaia | | “Hizkuntzari buruzko zuzenketak egin dizkidate, ez obraren mamiari dagozkionak.” |
| Zubizarreta | | “Argitaletxeak, zenbaitetan, pizgarri sentitu ditut. Eskertuta nago, baita ere, Euskal Herrian ez naizelako zentsuratua sentitu.” |
| Meabe | “ Noiz edo noiz bai, eta eskertzen ditut, lanaren onerako izaten baitira” | “ Ez dira izan negoziaketa edo tirabira gogorrak, ez dute aldatu testuaren funtsa” |
| Morillo | “Neure burua eta lana hobeto ezagutzeko aukera eman zidaten argitaletxeek, eta eskertu baino ezin dut egin.” | |
| Cano | | “Normalean ttipia da argitaletxeek sormenean duten eragina” “ idazle bezala aski libre sentitu izan naiz beti” |
| Arrieta | | “ Nik nahiko libre jokatu dut neure ibilbidean” “harremanetan egoten gara eraikitze-prozesuetan.” |

Autore guztiek argitaletxeekin harreman ona dutela eta hautu askatasuna atxiki dutela diote. Arrietak bere eleberri batzuk ezeztatuak direlarik bere aldetik argitaratzen dituela esplikatzen du, *Argiaren alaba* bezala, honen bidez Euskadi Saria eskuratu zuen. “*Normalean, ni neu joan izan naiz lan eginak aurkeztera. Batzuetan onartu dizkidate eta beste batzuetan ez. Ezezkoen kasuan, egindako lanarekin ziur egon naizenean, nik neuk argitaratu dut.”* Autore guztiak libre sentitu dira eta argitaletxeen eragina txikia da. Batez ere estrukturaren aldetik aholkuak ematen dituzte. Meabek erdibideak atzeman behar izan dituela esplikatzen du, argitaletxeak eskergarri izan dira eta bere lana lagundu dute. Ber maneran, Morillok bere karreran argitaletxeekin zorte bikaina ukan duela dio, oharrak egin dizkiote baina beti positiboki:

> “Argitaletxe batek aholkuak eman ditzake, eta zure istorioa ukitzen eta hobetzen lagun zaitzake, noski. Editorearen lana horixe da gainera: egileari esan behar dio agian egileak ikusi ez, edo ikusi nahi izan ez duena. Hori normala eta beharrezkoa da. Eta eskertzekoa halaber. Sortzeko orduan, libre (hori negoziaezina da); baina ondoren iritziak edota egurra jaso behar badira ere, prest egon behar du idazleak.”.

Orokorrean, autoreek argitaletxeak laguntzaileak bezala ikusten dituzte, haien sorkuntza prozesuan libre uzten dituzte. Baina egoera hori pribilegio bat dela zehazten dute ere, batez ere euskal literatur sistemari lotua delako. Sistema pisuagoetan (espainiar sisteman), argitaletxeen eragina askoz tirabirakoagoa izan daitekeela adierazi da.

5- Zure lana baieztatzeko zer da garrantzitsuena: irakurlegoaren oharrak edo kritikak eta

sariak?

| Idazlea | Irakurlegoa | Kritikak / Sariak | Beste |
|---|---|---|---|
| Urretabizkaia | "Lanak irakurleak ditu helburu"<br>"Irakurleak, niretzat, sakratuak dira." | "Kritikak ere axola du, baina gutxiago."<br>"sariak eskertzekoak dira, batez ere diruz hornituak daudenak." | |
| Zubizarreta | "Eskoletara joaten naizenean oro har esker on-ona jasotzen dut." | "Sariek, zentzu horretan, lasaitasun ekonomikoa<br>eman izan didate." | Eskoletako maisu-maistrak eta bibliotekariak ezinbesteko konplize sentitzen ditut, eta isileko lan handia egiten ari direla iruditzen zait. Gauza bera<br>esango nuke EIE -euskal idazleen elkartea- eta batez ere Galtzagorri elkarteez. |
| Meabe | "Garrantzitsuagoa da irakurleen balorazioa" | "Idazleak ezin du egon sarien mende" | "Gure sisteman ume edo gazteengana iristeko, eskola da bitartekaria, eta irakasleek bai izaten dituzte kontuan sariak edota hedabideetako kritikak liburuak aukeratzeko orduan" |
| Morillo | "irakurleak hurbilagotik xuxurlatzen dizu iritzia" | "Pellokeria litzateke esatea, baina idazleak bizkor ikasi behar du, benetan ikasi, kritika latzenak ere jasotzen, eta di-da erabakitzen zerbait atera dezakeen haietatik, edo erabat baztertu behar dituen."<br><br>"Sariei dagokienez, berdin: asko laguntzen zaituzte emanez gero… baina lortu edo lortu ez, bixkor-bixkor pasatu behar duzu hurrengo kapitulura." | "entzun guztiei, baina batez ere zeure barruko ahotsari. Jarraitu *zeurekiko* zintzo sortzen. Hori eginez gero, kitto." |
| Cano | "Irakurlearen oharrak aintzakotzat hartzeak ez du, halere, haiekiko menpekotasunik dagoenik esan nahi." | "Sariek ez dute zerikusirik literaturarekin.<br>HGL kritika ez dago, zoritxarrez, oso garatua gurean." | "Idazle batek libre jokatu behar du, baita haren balizko irakurleengandik ere." |
| Arrieta | "Irakurleen oharrek poza ematen didate; berotasuna." | "Kritikek nire lana sektorearekiko nola ikusten den ulertzen laguntzen didate. Sariek prestigioa eta zabalkundea ematen diote lanari" | |

Idazle guztiek haien lana baieztatzeko irakurlegoaren garrantzia azpimarratzen dute. Batzuentzat baieztapen hori garrantzitsuena da (Meabe, Urretabizkaia) beste batzuentzat, ez da haien menpe egon behar (Cano). Haien lana irakurlegoari zuzentzen dela kontziente dira denak, baina batzuek haien publikoa lehenesten dute eta beste autoreek, haien lana manera independentean egiten segitu nahi dute.

Aldiz, sari eta kritikak neurri berdinean kontsideratzen dituzte autoreek. Sari bat eta kritika onak ukateak plazera (eta dirua) ekartzen baldin badute, haien helburua ez da hor kokatzen. Autoreak sarien sistemaz kontziente dira (epaimahaien estruktura, subjektibotasuna etb...) eta kritiken mugak argi dituzte. Bi faktore horiek nagusiki merkatu sistemari lotzen dituzte, alde batetik dirua ukateko aukerak dira sarien bidez eta bestalde zabalkuntza eta salmentak handitzeko posibilitate bat da kritiken bidez. Beraz, nahiz eta ez irizpide garrantzitsuenak izan, autoreek faktore horiek literatura sisteman beharrezkoak direla onartzen dute.

Bestalde Meabek et Zubizarretak eskolen garrantzia aipatzen dute. Irakasleen rola azpimarratzen dute haiek dituztelako obrak ikasleei zabalduko eta kuriositatea piztuko dietelako. Idazle baten garrantzia eskoletan, irakasleekin eta dokumentalistekin elkarlanean aritzea azpimarratzen dute. Bide berdinetik doa Arrieta eskoletan ez dela literatura behar bezala lantzen eta ondorioz topikoak sortuko direla estimatzen duelarik. Canok eta Morillok nahiz eta irakurlegoa eta beste faktoreak inportanteak izan, haien independentzia atxiki behar dutela eta batez ere haien buruarekiko zintzoak egon behar direla azpimarratzen dute.

6- Pentsatzen ote duzu berrogei urtez HGL obra bat egiteko irizpideak aldatu direnik? Bai baldin bada, nola? Zein ziren lehen? Eta gaur? Ez baldin bada, zergatik?

| Idazlea | Bai | Ez |
|---|---|---|
| Urretabizkaia | "Ez dut gogoeta finkorik horri buruz. Agian ipuin klasikoek sarritan egoera latzak dituzte abiapuntu eta gaur ez, gaur samurtu egiten zaie irakurle gazteei bizitza." | |
| Zubizarreta | "jendartea aldatu da eta irizpideak ere bai."<br>"Literatura,<br>estiloa… ahuldu egin dira, istorioak sinpletu eta pobretu, eta horixe da gure joko<br>eremua." | |
| Meabe | "Bai, dudarik gabe."<br>"Ordutik hona garapen kualitatibo eta estetiko handia gertatu da urteetan zehar: tonuak, estiloak, gaiak, egiturak, baliabideak, erregistroak... ugaritu egin dira. Kalitate | |

| | | |
|---|---|---|
| | handiko haur eta gazte literatura egin da.” | |
| Morillo | “Irizpideak baino gehiago, esperientzia eta ahala zabaldu eta sakondu zaizkigu. Oraingo gazteek milaka liburu dituzte euskaraz elikatzeko, guk orduan ez bezala.” | “Badira boladak eta modak, ados. Baina badira liburu eternoak ere. Irizpide eternoak. |
| Cano | “Alderdi positiboan, jenero irakurketa kritikoagoa da gaur egun, bazen garaia. Alde ezkorrean, politikoki zuzena izan beharra areagotu egin da, nabarmen.”<br>“ ez dago fiskalizazio eta zentsura lar” | |
| Arrieta | “HGL egiteko era ere aldatu egin behar.”<br>“ Gai sozialek hartu dute indarra, sare sozialek ere bai, idazkera arindu da, paragrafo laburrak eta kapitulu laburrak eskatzen dira, irudi grafikoa letrari laguntzen edota hura ordezkatzen...” | |

Idazle guztiek 80 hamarkadatik, HGLko irizpideak aldatu direla pentsatzen dute. Autoreen ideiak desberdinki aipatuak baldin badira, ikuspegi berdintsua dute. Zubizarretak kalitatearen ahultzea aipatzen du, batez ere hizkuntza eta estrukturaren aldetik. Ber maneran, Arrietak eta Canok gaiak (errealismoa) estandarizatu direla eta politikoki zuzena bilakatu dela diote. Alderantziz, Meabek gaiak aniztu direla, estetika ezberdinetako lanak agertzen direla eta ondorioz, EHGLk kalitate handia duela esplikatzen du. Baina bere hitzak neurtzen ditu:

> “Uste dut gaurko irizpide orokorrak haur eta gazte literatura sortzean hauek direla: entretenigarritasuna, hizkuntza landu baina ulerterraza eta giza balio positiboen transmisioa. (...) estankatuta gaudela eta antzeko gauzak egiten ditugula ia denok. Originaltasuna falta zaigu orohar. Fantasia handiagoko lanen premia dugu, errealismoaren olatuaren azpian jarraitzen dugulako oraindik.”

Ber maneran, Morillok eskaintza aniztu dela suposatzen du eta ikuspegi desberdin bat proposatzen du:

> “Gure gazte-garaian liburu askoz gutxiago genituen euskaraz, eta batzuetan ez ziren oso irensgarriak. Neure burua oroitzen dut, nerabea nintzela, euskarazko testu batzuk “ulertu” nahian. Asmo onenaz idatziak ziren, baina emaitza ez zen batere gozagarria, arin esatearren. Urteen joanean sekulako lana egin da alor horretan, eta oraintxe idazleok, kazetariek, itzultzaileek… egundoko corpusa dute eta dugu euskara zuzen-gozoan ideia korapilatsuenak ere adierazi ahal izateko. Asko dago eskertzeko horretan aritu direnei, sarritan oztopoak oztopo.”

Morillok EHGLn aldaketak izan baldin badira, obra onak direnek, denbora eta garaiak pasatzen dituztela zehazten du.

7- Zure lana idazten duzularik iparraldeko irakurlearengan pentsatzen ote duzu?

| Idazlea | Bai | Ez |
|---|---|---|
| Urretabizkaia | | "Batuan idazten dut eta ez dut lurraldeen artean desberdintasunik egiten." |
| Zubizarreta | | "Euskal Herri osoko irakurlegoa dut gogoan, badakit noiz erabili nahi dudan kalakaria, noiz berbontzia, noiz berritsua…, edo non ulertuko duten eta non ez." |
| Meabe | | "Iruditzen zait linguistikoki urrun samar gaudela oraindik, eta neketsua egingo zaiela nire testuak irakurtzea batez ere nire eskualdeko hiztegia erabiltzen dudalako" |
| Morillo | "Zenbait liburu ditut Iparraldean kokatuak." "Zenbait pertsonaia eta protagonista Lapurdin edo Nafarroa Beherean bizi dira. Eta ahalegintzen naiz, apurtxo batez, horixe kontuan hartzen." | |
| Cano | | "Egia esan, ez bereziki. Ez axola ez zaidalako, modu artifizialean ezarritako mugak modu natural eta ez derrigortu batean ezabatzearen alde nagoelako baizik." |
| Arrieta | | "Ez dut iparraldeko irakurlegoarengan espezifikoki pentsatzen, idazten ari naizenean, baina ezta nire herrikoengan ere." |

Morillok aparte, autore guztiek iparraldeko irakurlegoa ez dutela bereziki kontuan hartzen diote. Haien irakurleak osotasunean hartzen dituzte, euskal irakurleak bezala. Batzuek muga artifizialak ez dituzte sendotu nahi (Cano, Urretabizkaia), batzuek batuan idazten dutela adierazten dute (Urretabizkaia), beste batzuek haien euskara erabiltzen dute eta kontziente dira hegoaldean ere ulermen arazoak sortzen ahal direla (Meabe), beste batzuk euskalkien desberdintasunaz kontziente dira eta honekin jostatzea erabaki dute (Zubizarreta). Arrietak ez du irakurlego zehatzik kontuan hartzen. Idazleek irakurle guztiak maila berdinean ematen dituzte. Multzo bat bezala kontsideratzen dituzte. Irakurleak literaturari erakartzeko ez da estrategia ezberdin batzuei pentsatzen haien lurraldearen arabera.

Morilloren kasuan, iparraldean egindako lanek errealitatea zein den kontzientzia hartzera lagundu zuen. Luzaz teoria baldin bazen beretzat, orain, iparraldean ipuinak kokatzea, guneetako berezitasunak sortzea... entseatzen da, mugarik eman gabe.

8- Euskara haienganatzeko testuingurua desberdina dela pentsatzen ote duzu?

| Idazlea | Bai | Ez |
|---|---|---|
| Urretabizkaia | - | “ez dut lurraldeen artean desberdintasunik egiten.” |
| Zubizarreta | Gainera, Kanbon eman nuen denboraldian asko ikasi nuen: “Hitz hau espainoletik hartua da” esaten zidaten aitzakia gisa, esantza adibidez, hegoaldeko gasolina hitzaren ordez… | |
| Meabe | “Euskara bereganatzea zailagoa dute iparraldeko irakurleek, beren testuinguruagatik, baita ikasketa-programen ondorioz ere.”<br>“Bestalde, erakundeen aldetik, ekimenak eta laguntza ekonomikoa falta dira trukea sustatzeko.” | |
| Morillo | “ulertu nuen, barnetik ulertu, nolabait esatearren eta adibide ñimiñoren bat ematearren, “azkar” adibidez ez zela “bizkor” bakarrik, edo “gibel” errai-zatia…” | |
| Cano | “Aktualitateari edo mundu erreferentzialari dagokionez, hor bai, saiatzen naiz hitz jokoak eta aipamenak ez daitezen izan Espainian soilik ulertzen direna.” | |
| Arrieta | | “Saiatzen naiz dakidanetik balizko irakurleengana iristen, eta "balizko" horretan, irakurle ezagunak daude baina baita irakurle "utopikoak" ere.” |

Idazle gehienak testuinguru ezberdintasunaz kontziente dira. Zubizarretak eta Morillok hiztegi ezberdintasunak aipatzen baldin badituzte, Meabek euskararentzat iparraldeko testuingurua hegoaldekoa baino konplikatuagoa dela aipatzen du. Canok, horrez gain, aktualitatearekiko erreferentziak ezberdinak izan daitezkeela argi du eta hori moldatzea denentzat argi izan dadin entseatzen da. Beste autore batzuek, ez dute desberdintasunik egiten, Urretabizkaiak bezala. Arrietak ez du bere irakurlegoa gune geografikoen arabera kokatzen baina irakurle moten arabera (“balizkoak” eta “utopikoak”).

## 3.3 Ondorioak

### 3.3.1.Pertsonaiaren eraikuntza

Idazleek duten pertsonaien sortze prozesua anitza eta ezberdina da. Autore bakoitzak bere erreferentziak eta norabideak ditu. Batzuek idazte prozesuan irakurlearen hitza kontuan hartzen dute. Beste batzuek haien irudimenari lehentasuna ematen diote. Ber maneran, autore batzuek haien ipuina

pertsonaietan oinarritzen dute. Pertsonaien nortasunari, ingurumenari garrantzia ematen diete, baina beste batzuek, lehentasuna ipuinaren estrukturari ematen diote, honen arabera pertsonaia eraikitzen dute.

Aldiz, elementu fisikoak ez dira inportanteenak pertsonaia sortzeko. Gehienek ez baldin badute puntu hori aipatzen, beste bik pertsonaiei ezaugarri fisiko gehiegi ematea ukatzen dute. Fisikoarentzat, irakurleak ez orientatzea eta haien irudimena lan araztea nahiago dute. Zubizarretak elementu fisikoak lantzen dituela erraten du eta Meabek, pertsonaiak sortzeko, ez duela estereotipoetan sartu nahi dio.

Idazleek haien argitaletxeekin eskuz esku lan egiten ohi dute. Orduan, haien gaien hautuentzat, pertsonaien sortzeaz libre dira. Autore batzuek estereotipoak baztertu nahi dituztela eta baloreak dituztela azpimarratu dute:

Meabe: *"deskribapen fisikoak beti-beti saihesten ditut, ez bada datu bat nabarmendu nahi dudalako: itsua, herrena... Oso xehetasun gutxi ematen ditut, estereotipoei ihes egiteko*"

Cano: *"Idazleok irakurleentzat ezin gaitezke guraso edo irakasle izan: gehienez ere izeba-osaba edo aiton-amona… Distantzia, probokazio apur bat eta ironia zor diegu.*"

Zubizarreta: *"nik nire ideologia dut eta, ongi edo gaizki, hortik idazten dut, ez naiz robot bat, baina ez dut mezurik zabaldu nahi, (...) zentzu horretan, kontraesanak dituzten protagonistak maite ditut, hanka sartzen dutenak…"*

Idazleek haien independentzia aldarrikatzen dute eta haien pertsonaia sortzerakoan, gehienetan, normatik ateratzen direnak lehenesten dituzte, helburua estereotipoetatik at joatea dute.

### 3.3.2 Autore hezitzaileak

Autoreek ez dute hezteko idazten. Haien lanaren independentziaren izenean zaila iruditzen zaie hezitzaile ardura hartzea. Batzuek heziketa guraso eta irakasleen esku dela eta beste batzuek heziketa liburuak badirela adierazi dute. Ez dute literaturak dimentsio hezitzailea ukan dezakeenik ukatzen baina haien lana ez dute horretan ikusten.

Haien helburua irakurleari beste ikuspuntuak proposatzea, irudimena lantzea, irtenbide batzuk erakustea da nagusiki. Rola hezitzailea, beldurgarri bezala ikusia izan daiteke, artista lana ez delako haur batzuk orientatzea baizik haien irudimena, haien lanaren estruktura eta ibilbidearen ondorioa pertsona batzuekin partekatzea, plazera hartzeko.

Morillok ikuspegi honi ñabardurak ekartzen dizkio. Sormenari lehentasuna ematen baldin badio, jendarteaz eta ingurumenaz kontziente da eta gazte, nerabeekin trukatuz, bere ikuspuntua ernetzen du eta ikuspegi batzuk proposatzen ditu. Bere erranetan, ipuinak hezitzaileak dira, guk geuk behar dugulako horrela izatea. Ipuinen beharra dugu oreka bat atzemateko eta gure galderei erantzunak emateko, baina beharbada, guk sor genitzake erantzunak autoreak ikusi ez dituen tokietan.

### 3.3.3 Literatura eta merkatua

Autoreek argitaletxeak aipatzen dituztelarik, ez dute haien presioa sentitzen. Laguntzaileak bezala ikusten dituzte eta haien askatasun artistikoa errespetatua dela adierazten dute. Gehienek, argitaletxeek ez dutela eraginik ukan haien idazkera prozesuan adierazten dute.

Negoziaketak aipatuak direlarik batez ere hizkuntzaren aldetik aipatuak dira, baina haien lanaren onerako dela diote. Autoreek harreman berezi bat dute haien argitaletxeekin. Meabek "*badago eragin afektiboa ere: editorearekin zenbat eta harreman erosoagoa izan, gusturago aurkezten ditut lanak*" dio. Zubizarretaren erranez : *"Idazle bizimoduan enkargu horiek eta itzulpenak ezinbestekoak gertatu zaizkit aurrera egiteko eta oso eskertuta nago. Eskertuta nago, baita ere, Euskal Herrian ez naizelako zentsuratua sentitu."*

Eraikitze prozesuan, harremanetan egoten baldin badira haien argitaletxeekin, idazleek orokorrean haien askatasuna mantentzen dute, nahiz eta jakin, beste idazle batzuen kasuan, ez dela beti hain sinplea izan. *"Jakin badakit argitaletxe batzuk zure lana hobetzeko asmoz aholkuak ematen dizkizutela."* dio Urretabizkaiak.
Morillok gehitzen du: " *Beti jaso nituen haien aholkuak eta kritikak lagun on batenak balira bezala"*.

Euskal argitaletxeak ez dira sisteman sartuak eta idazleei oraindik askatasun bat uzten zaie, baina ez da beste erdigune literario batzuetako kasua. Zubizarretak Madrilgo argitaletxe bati buruz dio:

> "(...)oso kontziente naizela generoaren hautuaz eta nire pertsonaia asko emakumezkoak direla: Usoa, Magali, Maribeltxa… Ez da kasualitatea. Beharbada hor sumatu nuen behin Madrilgo argitaletxe baten presioa edo: Usoaren bilduma argitaratzekoak ziren eta esan zidaten argi izan behar nuela protagonista neska izanez gero mutikoak nekezago irakurriko zutela. Noski, ez dakit egia den eta ez zitzaidan axola izan."

Espainiar lurraldean, nerabe eta haurrei literatura saltzeko, pertsonaiaren generoa argiki zehaztu behar da. Honek erakusten du ezin dela genero ezezagun bateko pertsonaiarik sortu eta haurrak konformitatean sartzeko estandar klasiko batzuk sortu behar direla. Horrez gain, Zubizarretak bere posizioa adierazten du: alde batetik, pertsonaia femeninoak bere lanean nagusitzen dira eta bestalde, argitaletxearen aholkuak ez ditu kontuan hartu. Orduan, euskal idazleak sistemak inposatutakoarekiko autonomia bat du eta ez du ideologia zehatz bat segitu behar. Bestalde, euskal argitaletxeen independentzia eta ez formala izateak azpimarratzen dute autoreek, euskal literatura sistema ez da beste sistemak bezain baldintzatua.

Merkatua ez baldin bada asko aipatua, sarien eta kritiken garrantzia azpimarratua da idazleen ekoizpenerako. Idazleak haien lana produktu bat dela kontziente dira eta saldu behar dela argi dute. Kritikek eta sariek garrantzia baldin badute, irakurleak garrantzitsuagoak dira. Haientzat irakurlegoaren plazera, haiekin duten harremana inportanteena da lan prozesuan. Baina beste bi faktoreak ez dituzte baztertzen. Sariek diru iturri bat ekar dezakete eta idazle lanaren ezegonkortasunean laguntza nagusi bat bezala kontsideratuak dira. Kritikek ere rol garrantzitsua dute, haien lana aipatzen dutelako eta publiko zabalago batek ezagutu ahal izango dituelako.

Baina, autoreek hezkuntza sisteman ari diren aktoreei garrantzia ematen diete. Irakasleek, eleberriak azter erazten dituzte eta kuriositatea, gustua eman dute ikasleei. Idazleak eskoletara joatea aukera ona izan daiteke haien izena eta lana ezagutarazteko eta publikoarekin trukatzeko. Kritikek eta sariek merkatu sisteman rol inportante bat jokatzen baldin badute, haurrengandik hurbil diren langileek duten eragina inportanteagoa dela estimatzen dute, berehala haien publikoarekin trukatzeko eta haiek ukitzeko aukera delako.

## 4 Ikasleak eta sexismoa

### 4.1 Metodoa eta testuingurua

Zundaketa hamalau galderaz osatua da, euskaraz eta frantsesez. Galdera gehienak hautu ezberdineko forma hartzen dute, beste batzuk libreak dira. Ber maneran, galderak euskaraz eta frantsesez pausatuak dira, ikasleen ulermen maila errespetatzeko. Zundaketa anonimoa da, adina eta klasea ez dira zehaztuak.

### 4.2 Emaitzak




**Irudia 25: Sexua**

Pausatutako lehen galdera ikaslearen sexua identifikatzea izan zen. 121 ikasleren artean 68 neska eta 53 mutikoa bezala identifikatzen ziren. Denek galderari erantzun diote eta denak sexu zehatz baten arabera identifikatu dira. Orduan, taldearen gehiengoa femeninoa da. Haien generoa zein zen ez zitzaien galdetua izan. Ikasleentzat bi galderak nahasgarriak zirela iruditu zaigu. Haiekin ez denez harreman zuzenik izan, ezin izan dugu genero eta sexuari buruzko gogoetarik sakondu zundaketa egin aitzin. Beraz sexuaren kontzeptuan mugatzea erabaki zen.




**Irudia 26: Besteak bezala**

Ikasleei gure jendartean toki bat ukateko besteak bezala egitea sinpleago ote den galdetu zaienean, taldearen %66,1k baietz erran zuten eta %40,5k ezetz. Zortzi ikaslek bi galderei baiezkoan erantzun zioten. Orokorrean, ikasleen bi herenek baino gehiagok taldean konformatuz gehiengoak onartuko zituztela estimatzen zuten. Honek normak inposatzen dituen baloreak errespetatu behar zituztela suposatzen zuen.




**Irudia 27: Desberdintasuna lanjerosa**

Beste ikasleentzat, gure jendartean desberdina izatea lanjerosa izaten ahal zenez galdetu zaielarik, %60k ezetz eta %57,9k baietz zioten. Hor ere, ikasle batzuek bi galderei positiboki erantzun zieten. Normak garrantzia zuela eta taldearen arauetatik at joateak gogoetak sortzen zituela agertzen zen.




**Irudia 28: Xantza edo arazo**

Ikasle gehienek beste ikasleengandik desberdina izatea xantza bat bezala ikusten zuten %90,1k . %26,4k arazo bat zela zioten.

Beraz, taldearen erdiak desberdina izatea lanjerosa bezala ikusten zuten, %49,66k. Familiak, eskolak, ingurumen sozialak itxaroten dituen jarrerei erantzuten ez baldin badiegu kaltegarri izan daiteke. Alta, taldearen %90,1k desberdina izatea xantza bat dela estimatzen zuen. Bere nortasuna eta bere ezberdintasuna ukatea eta lantzea, ikasleengandik ongi ikusia da.




**Irudia 29: Besteetaz desberdina**

Haien burua beste ikasleengandik desberdina ikusten zutenez galdetu zaielarik, taldearen bi herenek ezetz zioten eta herenak baietz. Hor ere, hamar ikaslek bi erantzunak hautatu zituzten. Orokorrean, ikasleak nagusiki norman sartzen dira.




**Irudia 30: Sentimendua**

Ikasleen %77k beste arrazoi batzuengatik desberdinak sentitzen zirela adierazten zuten. %14k presio sozialari lotua zen, %6k eskolari, eta %2k etxeko giroarekin lotzen zuten. Nagusitzen den faktorea, presio soziala da.




**Irudia 31: Desberdintasunak**

Neska edo mutiko izateak desberdintasunak sortzen dituenez galdetu zelarik, %69,4k baietz zioten eta %32,2k ezetz. Hemen bi ikaslek bai eta ez erantzun zuten. Nesken %78k eta mutikoen %64,4k baietz uste zuten.




**Irudia 32: Gurasoak**

Neskak eta mutikoak berdin hezten direnez uste zutenez, %40k baietz zioten eta %70,2k ezetz. Lau ikaslek bi erantzunak hautatu zituzten. Orokorrean ikasle gehienek, gurasoen heziketa desberdina zela adierazten zuten. Nesken %78,18k eta mutikoen %62,22k estimatzen zuten gurasoek ez dituztela manera berdinean hezten.




**Irudia 33: Etxeko garbiketa**

Ikasleen %44,6k estimatzen zuten helduek mutikoak eta neskak berdin tratatzen dituztela eta %58,7k ezetz. Haien artean, lauk bi erantzunei positiboki erantzun zieten. Nesken %60k eta mutikoen %38k ezetz estimatzen zuten.

Etxeko garbiketak manera parekidean egin behar direnez, ikasleen %72,7k baietz erraten zuten, %33k dependitzen zuela eta %5k ezetz. Hor, lau ikaslek bai eta dependitzen du erantzun zuten. Nesken %71k eta mutikoen %64,4k baietz erantzun dute eta nesken %5,45k eta mutikoen %4,44k ezetz erantzun dute. Gehiengoarentzat etxeko lanak orekatu behar dira, eta mutiko gehiagok etxeko lanak ez direla desorekan izan behar zioten.

Beraz, ikasleek kasu gehienetan bi sexuek etxeko lan bezala kontsideratuak diren lanak manera orekatuan egin behar dituztela estimatzen zuten. Baina mutiko eta nesken emaitzak begiratzen direlarik, neskak egoeraz mutikoak baino askoz kontzienteago dira, batez ere haiek dutelako diskriminazioa jasaten. Bi generoek presio soziala bizitzen baldin badute, neskak, ahulak bezala kontsideratuak dira eta haiek zuten agerrarazten nagusiki. Alta mutiko gehienek neska eta mutikoak ez zirela berdin tratatuak kontzientzia dute. Bukatzeko, nesken %60 pentsatzen baldin bazuten helduek ez zituztela berdin tratatzen, mutikoen %38 hori pentsatzen zuten.

Zer da zuretzat emazte izatea? (c'est quoi selon toi être une femme?)

100 réponses

| |
|---|
| Neska bat girelarik emaztea gira. |
| la liberté |
| selon moi être une femme, c'est être gentille, intelligente |

| |
|---|
| etre pareil que les autres |
| Pertsona normal bat |
| Elle peux porter des enfants, elle est plus mature et multi-fonctionnelle |
| c'est avoir des organes féminins |
| C est un etre humainelle donne aissance aux enfantsElle a l autorité.La femme gère le quotidien de la maison plus que l homme en general . |
| Je sais pas |
| emazte izatea da ardura duna izan, ama untsa bat da |
| Ez dakit |
| Independentea eta gizonak bezain librea izatea, |
| Nirentzat emazte bat izatea chantza bat da, umeak egin ahal ditugu baina ere inegalitateak bada batzuetan lanetan et karikan ere. |
| Emazte bat eta gizon nere ustez berdina da |
| dependitzen da |
| ; |
| emazte izatea da emaztea zentitzea. |
| Emazte izatea nirentzat da neska bat 18 urte baino gehiago dituelako |
| Librea izaitea, sentimendu bat. |
| Emazte bat izatea sexu bat da |
| etre une personne libre |
| inegaliteateak ukatea |
| Emazte sexua ukatea |
| berdina da gizonarekin salbu fisikoa |
| Porter les charges quotidienne |
| Emazte bat izatea da emazte sentitzea bihotzan, buruan eta gorputzan. |
| Jantzi desberdinak badituzte |
| Emazte bat pertsona bat da besteen bezala librea eta ber deretxoak ukan behar ditu |
| Humano bat. |
| Emazte bat izatea nahi duzuna egiteko libre izan behar da eta gizonen berdintasuna izan behar da. |
| ez dakit |
| ez dakit |
| Da emazte bat izatea |
| Niretzat emazte bat izaitea da muttiko baino deretxo guttiago ukatea. |
| umanobat gizon bat bezala da |
| Neretzat emazte bat izatea gizatiar beste guzti bezala izatea da. |
| Emaztea bat izatea da deretxoak eta ikus puntuak ukatea. |

| |
|---|
| ez dakit |
| pertxonaia bat izaitea |
| ez dakit |
| être heureuse |
| EmazEzin dugu definizio bat ematen ahal denak desberdinak girelako. |
| Selon moi etre une femme cest (je sais pas ) |
| ? |
| Une personne qui a des valeurs. |
| Gizonen ber dretxoak ukatea eta librea izatea |
| ez dakit, ez naiz neska bat |
| emazte senditzen den pertsona bat (sexua ez da importantea) |
| Erresponsabilitate handi bat ukatea da eta maleruski presio handi bat sortu behar du. Emazteak haurdin direlako ta ez mutilak |
| emazte eta gizonen inegalitateak kontra borrokatu |
| Emaztea bat izaitea da dena egitea gizonak bezala eta lagundu eta berdinak izaiteak. |
| Pour moi être une femme c'est être indépendante, forte sans pour autant devoir avoir un cœur de pierre, faire ce que l'on veut de notre vie sans se soucier de ce que les autres vont penser tout en étant respectueuse évidemment. C'est se battre pour obtenir ce que l'on veut. |
| Emazte bat, pertsona bat da, aktibitateak egiten ditu, lanean ari da, lagunak du (gizon bat bezala) |
| Zu zeu izan |
| Hizaki bat izaite da, gizon batekin ber deretsoak eta ber beharrak dituzte |
| Ez gizona izatea |
| ez dut uste definizio zehatz bat badela, pertsonaren pertsonalitateari lotua izan behar da ene ustez |
| gizon bat izaitea bezala |
| Nirentzat, emazte bat izatea da emazteko gorputz bat ukaiteko eta hola sentitzeko. |
| Niretzat emazteek aurre iritzi gehio dituzte eta anitzetan debalorisatuak dira adb kirolan golak markatzean 2 puntu balio dute neska batek eman baldin badu eta kadratua baldin bazen puntu bat balio du. |
| Ez dakit |
| celle qui donne la vie |
| Dependitzen du,nor den emaztea, zer egiten du,beren engaiamenak ,bizi modua,pertsonalitatea etb... |
| ez dakit |
| être une femme c'est être payer 21%en moins que les hommes |
| Se battre pour l'égalité |
| Une personne avec un vagin |
| Emazte bat izatea da, gizaki bat izatea sexu femino batekin. |
| Emazte bat izatea da independentea izatea |

| |
|---|
| Pertsona bat izatea |
| je n'an n'est aucune ide |
| Emazte bat biztanle bat da eta dena ahal du egin muttiko bat bezala |
| Être un humain, et devoir respecter des règles de vies. |
| / |
| Ez dakit |
| ez dakit |
| femme ou homme ça 'a pas d'imprtance ce n'est que le sexe, du moment que l'on est bien dans ça peau. Une femme àla chence de pouvoir porter son enfant pendant neuf mois. |
| Ongi bizitzea |
| nahi dutena egiten ahal dute, ez dira kritikatuak izan behar |
| emazte bat da gizon bat bezala izaitea (independetzia berdina) |
| ez dut ezer idatzi nahi pentsatzen dudalako sexista bilakatzen ahal dela |
| vivre sa vie |
| Prendre plus soin de toi, pas avoir le même sexe et aussi si on se fait juger sa nous fait du mal. |
| azkar izatea |
| Ez dakit |
| Enentzat emazteak gizonak bezala dira, baina azkarragoak dira zeren eta oino egun diskriminatuak dira eta ahuleziak kontsideratuak dira (kultur desberdinetan) |
| emaztea bat izatea ez da erresa egun guzietan baina betzuetan ongi da. |
| ez dakit |
| c'est un être vivant qui a les mêmes droits qu'un garçon |
| Pertsona bat |
| Independentzia izaitea |
| Pas forcément faire que du ménage comme le font certaines mais aussi faire se que l'on a envie de faire font beaucoup de fille mais au |
| Ez dakit |
| ongi da |
| ez dakit |
| Ez dakit |
| Selon moi être une femme est très bien mais je trouve ça aussi difficile car il y a beaucoup d'inégalités entre les hommes et les femmes. |
| Être une personne de sexe féminin |
| C'est une personne qui a les mêmes droits qu'un homme |
| une personne qui veut etre une femme |
| Nire ustez emaztea izatea da berdin gizona izaitea bainan ez du sexua berdin |

| |
|---|
| Etre un humain femelle |
| Lana bat ukatea eta gizonarekin berdina (égaux) |
| Emaztea edo gizon bat izatea berdina da. |
| Pertsona bat neska bat dela, fisiko desberdin batekin mutikoen aldean |
| Nertzat, emazte bat etxearen barneko lanak egiten ditu gehienik. |
| Être une femme c'est être une personnes à part entière, libre de faire ce qu'elle veut et dire ce qu'elle veut, importante dans la vie de tout les jours, conçoit la vie. |
| Être polyvalente |
| Gizon bat izaitea sexu desberdin batekin |
| Etxean lardiriatsua izan behar da. |
| Ce faire belle, elle prend soin d'elle. |
| Emazte izaitea feminino sexua ukitea da |
| Etre une c'est que il faut toujour se coifer |
| Être une femme c’est faire partit des hommes en général sans avoir de différent avec eux |
| aucune différence avec un homme |
| gizaki bat da morfologi desberdin bat ekin |
| Une personne égal à l'homme |
| Une femme. |
| etre une femme c'est etre libre de ses choix de son mode de vie de se qu'elle veut faire de sa vie de qui elle veut dans sa vie, pour moi une femme doit etre egale a un homme pour le travaille par exemple, ce n'est pas la femme qui doit tout faire a la maison son marie doit l'aider, une femme doit avoir le droit de porter se qu'elle veut sans se faire argresser verbalement ou meme physiquement, elle doit etre libre de penser et de faire se qu'elle veut. |
| c une femme |
| c'est d'être un humain adulte de sexe féminin |

**Irudia 34: Emaztearen definizioa**

Galdera hori pausatua izan zelarik, 20 ikaslek ez zekiten edo galderazko ikur bat eman zuten. 38, erantzun sexista bat proposatu zuten. Emazte izatea askotan amatasunari lotua izan da edo bere organo sexualei. Fisikoa, zintzotasuna, ahulezia, maiz aipatuak ziren.

Aldiz, 50 erantzun sexismo arrastorik gabekoak dira: askok libre izatea dela adierazi zuten, gizonak bezala tratatuak izatea edo nahi dutena egitea aipatu da. Batzuk emazte izatea emazte sentitzea dela aipatu dute eta batek zehaztu du ez zuela sexuarekin harremanik. Emazte izatea zaila zela eta berdintasunarentzat borrokatu behar zela zehaztu zen.

Bukatzeko hamaikak erantzun ez bukatuak edo sailkaezinak proposatu zituzten.

Zer da zuretzat gizon izatea? (c'est quoi selon toi être un homme?

100 réponses

| Zer da zuretzat gizon izatea? (c'est quoi selon toi être un homme? |
|---|
| Mutiko bat girelarik gizona gira. |
| la sécurité |
| selon moi être un homme c'est être gentil, drôle, un peu intelligent, costaud |
| pareil |
| Pertsona normal bat |
| il est est immature et égoicentrique |
| c'est avoir des organes masculins |
| C est un etre humain.qui a l autorité, et est plus manuel que la femme en general |
| Je sais pas |
| gizon izatea aita untsa bat da, ardura duna izan |
| Ez dakit |
| Emazteak errepestatzea, eta ez emazteen gainean estimatzea |
| Ez dakit |
| Emazte bat eta gizon nere ustez berdina da |
| dependitzen da |
| ; |
| gizon izatea da gizona zentitzea. |
| Gizon bat izatea nirentzat da mutiko bat 18 baino gehiago dituelako. |
| Ez dakit |
| Mutiko bat izatea sexu bat da ere |
| etre une personne libre |
| indarra eta errespetua ukatea |
| Gizon sexua ukatea |
| berdina da emaztearekin salbu fisikoa |
| Assumer l'autorité |
| Gizon bat izatea da gizon sentitzea bihotzan, buruan eta gorputzan. |
| Jantziak desberdinak ukatea |
| Gizon bat pertsona bat da besteen bezala librea eta emazteran ber deretxoak ukan behar ditu |
| Humano bat. |
| Gizon bat izatea nahi duzuna egiteko libre da. |
| ez dakit |

| |
|---|
| ez dakit |
| Da gizon bat izatea |
| Niretzat gizon bat izaitea da emazte bat indar baino gehiago ukatea. |
| umanobat emazte bat bezala da |
| Neretzat gizon bat izatea gizatiar beste guzti bezala izatea da. |
| Gizon bat izaitea da deretxoak eta ikus puntuak ukatea. |
| ez dakit |
| pertxona bat izaitea |
| ez dakit |
| être heureux |
| Gizonak ere desberdinak dira beraz ez dut deretxorik definizio bat ematea gizon guztientzat. |
| Selon moi être un homme c'est (je sais pas ) |
| ? |
| Une personnes qui a des valeurs. |
| Emaztea errespetatu eta ez gainean izatea, libre izatea ere |
| mustatxa edo bizarra ukan eta koskoilak ere |
| gizon senditzen den pertsona bat |
| Emazteen erresponsabiliate honen laguntza eskaintzea da |
| ez dakit |
| Gizon bat ieaitea da ematzeak bezala egin eta langudu eta berdinak izaiteak |
| Être un homme c'est être indépendant, respectueux des autres notamment des femmes ne pas penser qu'elles sont inférieures et ne pas devoir se sentir obligé d'être tout le temps « viril », c'est d'avoir accepter ses faiblesses, |
| Gizon bat pertsona bat da lana egiten du, aktibitateak ere, lagunak topatzen ditu (emazte bat bezala) |
| Zu zeu izan |
| Emazteak bezala hizaki bat, bere nahi guztiak ditu batzutan nahi sobera |
| Ez emaztea izatea |
| ez dut uste definizio zehatz bat badela, pertsonaren pertsonalitateari lotua izan behar da ene ustez |
| emazte bat izatea bezala |
| Nirentzat, gizon bat izatea da gizonko gorputz bat ukatea et hola sentitzea. |
| Ez dakit sobera baina haientzat ere inegalitateak badira haurtzaroan neskei konfientzia gehio emaiten da, bestenaz kirol kurtsoetan abantail gutio dituzte, handitan ere bai adibidez haur baten zaintzeko ez dute beti konfientza egiten gizoneri eta garbiketarentzat berdin. |
| Ez dakit oino |
| une personne qui des fois se sent supérieur |
| Ber argumentuak baina ez da erraiten ahal orokorki niretzat zer den gizon edo emazte bat |
| ez dakit |

| |
|---|
| être un homme c'est être le patron de la maison |
| Ne pas se sentir supérieur |
| Savoir prendre les bonnes décisions et savoir régler les problèmes (et avoir un pénis) |
| Gizon bat izatea da, gizaki bat izatea sexu maskulino batekin. |
| Gizon bat izatea da podere gehiago ukatea sortzearengatik |
| Pertsona bat izatea |
| je n'an n'est aucune ide |
| Berdin |
| Être un humain, et devoir respecter des règles de vies. |
| / |
| Bien prendre soin de sa famille |
| ez dakit |
| Homme ou femme ç'a n'as pas d'importance même si dans certains milieux c'est plus simple d'être un homme. |
| Ongi bizitzea |
| nahi dutena egitten ahal dute, errespetatu behar dituzte emazteak |
| gizonak emazteen gaineago senditzen dira |
| ez dut ezer idatzi naiz pentsatzen dudalako sexista bilakatzen ahal dela |
| vivre sa vie |
| On peut les juger ils vont rien dire ils sont sale. |
| neska bat naiz beraz... |
| Ez dakit |
| Niretzat gizon bat ez da emaztea baino azkarrago, bezalak dira |
| emazte bezala da bada avantailak eta ez . |
| ez dakit |
| c'es un être vivant qi à les mêmes droits que la femme |
| Pertsona bat |
| Pertsonalitate bakoitz bat ukatea |
| Travailler et faire se que l'on veut |
| Ez dakit |
| ez dakit |
| ez dakit |
| Ere |
| Je ne sais pas car je ne suis pas un homme. |
| Être une personne de sexe masculin |
| C'est une personne qui a les mêmes droits qu'une femme |
| une personne qui veut etre un homme |

| |
|---|
| Nire ustez gizon izatea da berdin emaztea izaitea bainan ez du sexua berdin |
| Etre un humain male |
| Lana egitea, etxean ere |
| Emaztea edo gizon bat izatea berdina da. |
| Pertsona bat mutiko bat dela, fisiko desberdin batekin nesken aldean |
| Neretzat, gizon bat etxearen kanpoko lanak egiten ditu gehienik eta orokorki gizon bat azkarragoa da fisikoki emazteen baino. |
| Pareil qu'une femme |
| Manger des patates un steak et avoir une Porsche cf Florence Foresti |
| Emazte bat izaitea sexu desberdin batekin |
| Aukerak hartu behar ditu. |
| Ça travaille pour gagner de l'argent, et aussi il prend moins soin de lui. |
| Gizon sexua ukatea |
| un homme c'est de traguer des fille |
| C’est être à égalité avec les femmes sans avoir de différent avec elles |
| aucune différence avec une femme |
| gizaki bat da morfologi desberdin bat ekin |
| Une personne égal à la femme |
| Un homme. |
| un homme doit etre libre lui aussi mais doit etre au meme niveau que la femme par exemple pour le travail il doit aussi aider a la maison..... |
| c un homme |
| C'est d'être un humain adulte de sexe féminin |

**Irudia 35: Gizonaren definizioa**

Gizon bat izatea zer den galdetua izan zelarik, 121 erantzunen artean, 20ek ez zekitela erantzun zuten, 48k erantzun sexista proposatu zuten, haien sexua, indar fisikoa, gorputz maskulinoa aipatuak izan ziren baita ere ere familiaren ardura, lanbidea, eskuekin trebeago izatea, heldutasun falta zehaztuak izan dira.

37k erantzun ez sexista bat proposatu zuten, gutxi gora behera emazteen erantzunen parekoak: gizon sentitzea, libre sentitzea, nahi dena egitea...

Bukatzeko 13k erantzun sailkaezina edo ez oso bat proposatu zuten.

Orokorrean, askok emazte bat edo gizon bat izateari ez zekiten zein definizio eman. Batzuek organo fisikoei lotzen baldin bazuten, batzuek ez zekiten zer erantzun. Emazte edo gizon izatea ez da

hain sinplea eta ez da sexuari mugatzen. Beste batzuek, orokorrean estandar sexistak erabiltzen zituzten emazte edo gizon bat zer den adierazteko. Ikuspuntu estereotipatu horiek ikasle askok barneratu dituzte baina, beste askok bitarteko ikuspuntuak proposatu dituzte.

Filma, marrazki bizidun, liburu, komiki... Nor dira zure pertsonai maiteenak? (Film, dessin animé, livre, BD, qui sont tes personnages favoris?)

100 réponses

| |
|---|
| Cathy Cassidy eta India Desjardins. |
| kev adams |
| ez dakit |
| Flash, Arrow, Wonder Woman, .... |
| Rogue ( Harry Potter, Film eta liburua ) Gregory (Journal d'un dégonflé ) |
| Dani bonn, Arold et Krokmou, |
| Harry potter, naruto |
| Harry Potter |
| Harry potter, Astérix et obelix.. |
| jughead,lili et veronica dans riverdale |
| Eleven (stranger things) Katniss (Hunger games) |
| Ez dut ideia zehatzarik, baina kuraia duten pertsonaiak eta asumitzen direnak adibidez. |
| Nitepertsonaia maiteenak personaia prinsipalak dira |
| Elite, la casa de papel |
| Naruto eta fabien faisan |
| Dependitzen du |
| James Adams, Harry Potter, Katniss Everden, Sophie et Fitz |
| Aayla secura, Croods, Jeon Ji-heon, Byun Baekhyun... |
| Ez dakit |
| Sasha brauss |
| bd |
| forest gump |
| Super heroiak,pertsonaia irringarriak |
| pertsonai nagusiak |
| Superman |
| Nirepertsonaia maiteenak Hagrid (Harry Potter) eta Carlota (Las Chicas Del Cable) dira. |
| Vin diesel |
| filma luis de funez irringarria delako |

| |
|---|
| Ainitz badira... Baina Luna, Armin, Lancelot... |
| Nerepertsonaia maiteenak ainitz dire : Jack Sparrow (Pirates des Caraïbes); Albus Dumbledore, Hermione Granger, Harry Potter, Ron Weasley (Harry Potter); Gellert Grindelwald, Norbert Dragonneau (Les Animaux Fantastiques). Natsu, Lucie, Happy(Fairy Tail); Hayley, Louis (GreenHouseAcademy); Jughead, Veronica (Riverdale) |
| iron man |
| harry poter,jumanjiren pertsonaiak eta beste ainitz |
| Ez dutpertsonaia maiteen bat |
| Homer Simpson, Katniss Everdeen |
| gaston lagafe eta l'agen 212 flash |
| dependitzen da... |
| Tintin |
| errugbi jokalari bat Antoine Dupont |
| heroia |
| titeuf |
| ez dut pertsonarik |
| Eragon, Frodon, Monse, Olivia eta beste ainitz.. |
| Mes personnages favoris sont marina dans elite et jugead dans riverdale . |
| Marc Evans (inazuma eleven), Luffy (one piece). |
| Mes personnages favori sont autant des hommes que des femmes. |
| Tintin, Hermione Granger |
| son goku, mark evans, ben 10... |
| pertsonaia nagusiak eta interesgarrienak |
| The walking deaden Daril izenekono pertsonaia da nire gustukoena |
| dependitzen du |
| Batman,spiderman |
| Michael scofield, naomie clark, Lucifer, nairobi, les trois femmes du livre « la tresse » |
| Pertsonaiak historia bat kondatzen dutelarik, ekintzak egiten dituelarik |
| Lucrecia Elite sailetan |
| Akzioko pertsonak: Robin, Flash eta super girl |
| Iron Man |
| Anne Shirley, Jane Eyre (baina gehiago mutikoei identifikatzen naiz Fantasia edo Zientzia Fikzioarentzat) |
| superheroiak |
| Nirepertsonaia maiteenak jende txarrak dira zeren eta konportamenduak eta arrazoiak interresgarriak baidituzte. |
| Riki (h2o), pipigaltzaluze, light ( death note), peter pan, alice, |
| Michael scofield |
| Jeff Tuche |

| |
|---|
| Emma Marckey ,Ester exposito,Sophie Marceaux,Jeff Tuches |
| Senku Ishigami, Hisoka Morow, Kiyotaka Ayanokouji |
| les héros |
| Ez dakit |
| Sangoku (Dragon ball Z), Creed(film Creed II), Apash (série validé) |
| Sherlock Holmes, Hermion Granger. |
| Harley Queen |
| Ez dakit |
| je ne pues pas vous dire parce que c'est personnelle |
| Xavier Foster ( inazuma éleven) |
| Mickeal scofild |
| Will/ Eleven/ Nancy- Stranger things, Nadia-Elite, Hermione/Ron/Sirius-Harry Potter |
| Son goku |
| griezmann boule eta bill |
| La fille qui fait preuve d'un grand courage ou le garçon/la fille qui casse les codes et sort avec une personne moins bien vue dans la société |
| Adonis Creed (Creed 2) Kakashi (naruto) |
| dependitzen du |
| Azize Diabaté |
| Nausicaä (Miyazaki filma) ; Jo (Little Women liburua) |
| j’en est pas |
| Je n'ai pas de préférence car on est tous les même . |
| emazte independenteak orokorki |
| Ez dut ulertzen galdera hori |
| Elizabeth Benet, Heidi, Estebandia, Jack Sparrow |
| Isis pertsonaia "Je te hais a la folie" etan (liburu bat da) |
| ez ditut |
| le jour le plus long, Dr pol (vétérinaire),louis de funès... |
| Yoda |
| Ene pertsona maiteena historietetan pertsona nagusia da. |
| Je ne sais pas |
| Louis De Funés, Astérix |
| harry poter |
| ez dakit |
| Tokyo eta Eleven |
| Film je dirais Amélie Poulain dessin animé je dirais Lisa dans Les Simpson livre je dirais Virginia Woof et BD je ne |

| |
|---|
| sais pas. |
| James Adams de Cherub |
| Harry Potter, Jo March |
| je n'en ai pas |
| Millie bobie brown |
| Un personnage de jeu vidéo |
| Louis de funes |
| Leonardo DiCaprio, Julia Robert |
| Askotan herroia ( dependitzendu istorioa ) |
| Ez ditutpertsonaia maiteenik. |
| Souvent ce sont les personnes principaux, ce que l'on met le plus en valeur, des personnes gentil, respecteux |
| Harry Potter, Mikey et la avengers |
| Depende |
| Louis de Funès |
| J'en ai pleins donc je ne sais pas qui. |
| Ez ditut bortsaz |
| furous jumper |
| Je regarde beaucoup d'animés manga, la plupart du temps les garçons sont mes personnages principaux favoris |
| mortelle adele |
| ez dut |
| Harry Potter |
| J'en ai plusieurs. |
| cerise dans les carnet de cerise... |
| youtubeur et acteur |
| Mes personnages favoris sont Rick et Morty |

**Irudia 36: Pertsonaiak**

Ikasle guztiek erantzun bat proposatu zuten. Askok ez zekiten, eta beste askok pertsonaia bat baino gehiago aipatu zituzten. Ikasleen %20k ez zuten erantzun zehatzik eman, batez ere ez zekitelako, batek ez zuen galdera ulertzen. Ikasle batek sexu identifikaturik gabeko pertsonaia bat aipatu zuen Happy, Fairy Tailen. Orotara, 120 pertsonaia maskulino (Harry Potterreko pertsonaiak nagusitzen dira) eta 52 pertsonaia femenino aipatuak dira. Pertsonaien %69,43 maskulinoak dira, %30 femeninoak eta %0,57 neutroak dira. Mutikoek 56 pertsonaia maskulino eta zazpi femenino aipatu zituzten. Neskek 44 pertsonaia maskulino eta 50 pertsonaia femenino aipatu zituzten.

Heroi gehienak serietatik (*Stranger things, Elite, Riverdale...*) supereroi kulturatik (*Superman,*

*Wonder woman, Spider man, Super girl...),* liburuetatik (*Hunger games, Harry Potter...)* etortzen dira. Heroien %41 liburuetatik, %28,57 serietatik, %11,42 filmetatik, %7,85 animazioetatik etortzen dira eta %10,7 aktoreak dira. Nagusitzen diren pertsonaien jatorria literatura da (komiki, manga, eleberrigintza nahasiz) baina pertsonaia gehienak beste hedabide batzuetan berriz ekoiztuak izan dira (*Harry Potter*, *Hunger Games, Asterix et Obelix, Naruto...*)

Kultura amerikarra nagusitzen da, (aipatutako pertsonaien %40), ondotik, produktu kultural ingelesak agertzen dira (%17,85) kultura asiatikoak toki inportante bat du mangaren bidez (%15,71). Frantses kulturari erreferentzia batzuk egiten dira, (%.13,57) eta beste kultura guztiek %12,85 osatzen dute. Kultura anglosaxoiak ikasleen ereduen %57,85 adierazten du. Euskal kulturari ez zaio erreferentziarik egin.




**Irudia 37: Pertsonaien hautua**

Azkenik, ikasleei pertsonaia bat maite zutelarik, fisikoa, nortasuna edo bere abenturekin lotzen zutenez galdetu zen. Taldearen %62,8k bere nortasunari lotzen zuten, %35,5k bizitzen dituzten abenturei eta %2ak fisikoari.

Orokorrean, ikasle guztiek erantzun baldin bazuten, nagusitasun handian nortasunarekin lotzen zuten. Nortasuna, indarra eta sakontasuna duten pertsonaiek haien abenturak baino gehiago nerabeak erakartzen ditu. Fisikoak, azkenik, garrantzi oso gutxi du.

## 4.3 Ondorioak

### 4.3.1 Erantzunen analisia

Ikasleen %67k ez zuten haien burua besteengandik desberdina atzemateen. Orduan, haien burua norman sartzen dutela suposa daiteke. %33k haien zailtasun nagusiak presio sozialari lotzen

dituzte. Alderantziz, etxean bizitzen duten giroa azkenik heldu da. Beste guneek eta eskolak rol inportante bat dute ikasleen seguritate sentimenduarentzat.

Orokorrean, ikasleek normari eta taldearen eraginari garrantzi handia ematen diete. Haiek norman sartu nahi baldin badute, besteen ezberdintasuna onartzeko prest direla dirudi hein bateraino. Presio sozialak eragin azkarra du nerabeen genero identitatearen eraikuntzan.

Fikziozko eredu gehienak serietatik (*Stranger things, Elite, Riverdale...*) superheroi kulturatik (*Superman, Wonder woman, Spider man, Super girl...),* liburuetatik (*Hunger games, Harry Potter...)* etortzen dira. Aipatutako pertsonaiak filmetatik edo liburuetatik etortzen direnez jakiteko ez dugu argibiderik. Musikariak bi aldiz aipatuak izan dira, liburuak hogeita zortzi aldiz, filmak hogeita hamar aldiz eta serieak berrogeita bat aldiz. Ikasleek kontsumitzen duten produktu nagusia seriea baldin bada, literatura ez dute baztertzen eta filmek duten garrantziaren mailan dira.

Guztirat, laurogeita hamasei pertsonaia amerikarrak dira (edo ingelesak, *Harry Potterren* kasuan), hogeita lau asiatikoak (*Dragoi bola Z, Naruto, One Piece, Fairy tale,* Miazaki filmak*...)* dira eta beste hogeita lau frantsesak (*Tuches*, Louis de Funes, Kev Adams) dira. Hamahiru beste kultura batzuetatik etortzen dira (Batez ere, Espainiar eta belgikar kultura *Casa de Papel, Elite* eta *Tintin*-ren bidez). Euskal kulturak ez du erreferenterik.

#### 4.3.2 Ipsos zundaketarekin konparaketa

Ipsos (2010) zundaketaren emaitzek, nerabeen %49k ezberdina izatea lanjerosa izan daitekeela, %63 jendartean toki bat ukateko taldea bezala egin behar dela, %74k desberdintasuna xantza bat dela, %31k haien inguruko pertsonetaz desberdinak sentitzen direla, erakusten zuten. Zundaketan, ikasleen %51k ezberdintasuna lanjerosa bezala ikusten dute, %70k taldeari konformatu behar dela eta %88k ezberdintasuna xantza bat dela adierazi dute. Hamar urtez ikuspuntuak ez dira aldatu eta taldeari konformatzeko eraginak indar berdina du.

Berdintasunari buruzko gogoetak aztertuz, 2010ean, nerabeen %64k erreusitzeko xantza berdinak zituztela, burasoen %60k eta helduen %67k ez zituztela berdin tratatzen erakusten zuten. Nesken %92k eta mutikoen %69k etxeko lanak manera orekatuan egin behar zirela pentsatzen zuten. 2021ean, Iparraldean, ikasleen %73k desberdintasunak direla, burasoen %69k eta helduen %57k ez dituztela berdin tratatzen adierazten zuten. Bukatzeko, nesken %71k eta mutikoen %64,4k etxeko lanak partekatu behar zirela erran zuten.

Generoaren arabera, nerabeen ikuspuntua orokorrean gutxi aldatu da azken hamar urteetan. Ez da egiazko lan sakonik egin ikuspuntu sexistekin eta hausteko. Iparraldeko ikasleek, frantses nerabeen ikuspuntu berdintsua dute. Gogoeta hori baieztatua da haien heroien eta pertsonaien azterketa egiten delarik. Kultura nazional frantses batean murgiltzen dira.

Orokorrean, diskriminazioei buruzko kontzientziazioa gutxi emendatu da hamar urtez. Baina, ez da sail guztietan nabarmentzen. Nerabeek helduen makurrak berriz sortzen dituzte. Ipsosek eta guk sortutako zundaketetan emazteen autonomiaren aldeko ikuspegi irekiena neskek dute. Aldiz, ikuspuntu estereotipatuenak mantenduak dira eta hitz berdinak agertzen dira bi zundaketetan: “gizontasuna erakustea” (virilité), ardura materiala gizonen esku da eta amatasuna, etxeko lanak emazteen afera dela agertzen da.

### 4.3.3 Euskal literaturaren interesa nerabeentzat

Olaziregi Alustiak (1999; 127-146..orr) nerabeek batez ere eskolan irakurtzen zutela eta eskolaren mugan kokatuak egoten zirela nabarmentzen zuen. Ikasleei eskolako liburuek ez zuten emozio askorik sortzen. Olaziragi Alustiak gaztelaniako literaturarentzat arazoa ez zela berdina azpimarratzen zuen. Euskarak ez baldin bazuen ikaslea ukitzen, gaztelaniaz zen literaturak gehiago interesatzen zituen.

Ondorioz, gaurko ikasleek ez baldin badituzte euskarako literatura erreferentziak aipatzen, ez da literaturak ez dituelako interesatzen. Duela hogeita hamar urte aipatua izan zen sintoma bat orokortzen da. Orokorrean, euskal literaturak ez du gaztea erakartzen. Nahiz eta Euskal Herrian, haur gazte literatura gehien saltzen den literatura mota izan, ez da erreferentzia bat iparraldeko ikasle euskaldunentzat. Kultura orokortuaren errua izan daiteke: literatura produktu kontsumo bezala pentsatua da eta liburuaz gain, saltzen ahalko diren beste produktuei pentsatzen da, hots filmak, serieak, jantziak, jostailuak, etb[121][122]... Gazte guztiei irakurketa eredu berdinak proposatzen zaizkie, oinarri orokortuak sortuz. Beraz, euskal literaturak proposatutako modeloak eredu kapitalistaren parean bere tokia atzemateko zailtasunak ditu.

121 https://arbido.ch/fr/edition-article/2013/parlons-jeunesse-reden-wir-vom-jungen-publikum/la-litt%C3%A9rature-jeunes-adultes-une-invention-marketing
122 https://actualitte.com/article/75395/insolite/litterature-jeunesse-francois-busnel-autre-invention-marketing

V- Testuliburuen analisia

*" Irakaskuntzan eta ikasgeletan erabiltzen den tresna arrunt hau – batere aseptikoa ez dena, bestalde – sakon aztertu behar dugu, beraz, testuliburuaren bidez ezagutzera ematen diren gizarte eredua, eduki zehatzak, inguru soziokulturalen ezaugarriak, ikaslearen identitatearen eraikuntzan eragin zuzena duelako (...)."* Ezkurdia.

Iparraldeko euskarako irakasleek gehien erabiltzen dituzten lau testuliburuen analisia egiteko, testuliburuen analisia bi partetan zatitua da. Lehenik testu liburuen analisia kuantitatiboa eta ondotik analisia kualitatiboa.

Testuliburuen analisiari buruzko datuei buruzko informazioak:

- Agertzen diren zenbakiak, orotara adieraziak dira. Ehunekotan direnean, zehaztua da.
- Taulen analisia egiterakoan, datuak ehunekotan aipatzen dira.

1 Testuliburuen analisia kuantitatiboa

1.1Pertsonaiak

Pertsonaiak bi kategoriatan banatuak dira. Lehenik protagonistak, pertsonaia nagusiak dira. Ondotik, bigarren mailako pertsonaiak, periferian kokatzen direnak.
Gehienetan protagonista bakar bat dago, baina ipuin laburretan, bi protagonista izatea gerta daiteke. Protagonista akzioa egiten eta bizitzen dutena da. Hari buruz informazio gehienak jasoko dira. Bigarren mailako pertsonaiak protagonistaren helburuetan laguntzeko edo oztopo egiteko ekarpenak egingo ditu. Bere tokia ez da nagusia, baina istorioari informazioak ekartzen dizkio. Maiz, pertsonaia nagusia – protagonista – elikatzen du.

1.1.1 Pertsonaiak Bakarka sailean

1.1.1.1 Pertsonaiak orotara

**Taula 17: Pertsonaiak Bakarka testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Bakarka 1 | 18 | 22 | 2 |
| Bakarka 2 | 46 | 35 | 28 |
| Bakarka 3 | 41 | 11 | 12 |
| Bakarka 4 | 18 | 10 | 13 |
| Bakarka 5 | 14 | 5 | 7 |

Bakarka 1 testuliburuan, 18 testu “irakurgaiak” dira. Bakarka 1en, guztira42 pertsonaia agertzen dira. %42,8 maskulinoak, %52,4 femeninoak eta %4,7 ez dira identifikatuak. Guztira, Bakarka 1eko irakurgaietan, 18 pertsonaia maskulino aurkitzen dira eta 21 pertsonaia femenino. Bi pertsonaien sexua ez da identifikatua.

Bakarka 2ko irakurgaiak Bakarka 1ekoak baino luzeagoak eta anitzagoak dira. Hori, ikaslearen hizkuntza ezagutze maila igotzen delako justifikatzen da. Literatura multzo honetan, bi itzulpen daude, ez dira landuak izan, itzulpenak direlako (Nick McLever, *Aitatxiren hamaikakoa* eta Jeremy Taylor *Maite zaitut).* Azkenik, beste idazle baten lanak irakurgaietan agertzen dira, Angel Lertxundi (*Medikuaren etxean* eta *Zenbat urte dituzu).* Bakarka 2ko irakurgai gehienak txisteak dira, elkarrizketa forman. Bakarka 2-n 115 pertsonaia agertzen dira. Haien artean, pertsonaia femeninoak, maskulinoak, ez identifikatuak eta animaliak daude. Animalien sexua ez da identifikatua. Pertsonaien %24,3k ez du genero identifikaturik. Pertsonaien %40 maskulinoa da eta %30,4 femeninoa da. %5,2 animalak dira.

Bakarka 3n, irakurgaiak eta txisteak separatuak dira. Euskara maila igotzen denez, irakurgaiak ipuinak dira eta bigarren atal batek txisteak batzen ditu. Bakarka 2n ez zen banaketarik eta ipuin kopuruak askoz handiagoa zen baina mami gutxiagorekin. Hainbat ipuinetan pertsonaien kopurua ez da argiki identifikatu ahal izan. Adibidez, lehen ipuinean, gizon eta emazte multzo bat aipatua da, baina haien kopurua ez da zehaztua. Bakarka 3n, 20 ipuin aztertu dira, denak “irakurgaia” atalean agertzen direnak. Guztira, 64 pertsonaia aurkitu dira, maskulino, femenino, animalia, ez identifikatu, protagonista eta bigarren mailakoen artean. 64 pertsonaien artean, 41 pertsonaia maskulino dira, ipuinen pertsonaien %64 osatzen dute. 11 pertsonaia femenino agertzen dira Bakarka 3n, %17,25 dira, 12 pertsonaia ez identifikatu %18,75( eta hiru animalia, %4,7) badira.

Bakarka 4en, 24 ipuin “irakurgaiak” dira. Ipuin guztien artean, 53 pertsonaia atzeman ditugu animalia bat barne. Orotara, 27 pertsonaia maskulino, 14 pertsonaia femenino eta 13 ez dira identifikatuak. Maskulinoek, pertsonaien %50,94 osatzen dute, femeninoek %26,41 eta ez identifikatuek %24,52.




**Irudia 38: Pertsonaiak Bakarka testuliburuan**

Bakarka 5ek beste testuliburuekin konparatuz antolakuntza desberdina du. Besteetan bezala kapituluka zatitua da baina hemen 14 kapitulu dira eta testu bat kapitulu bakoitzean. Testuak geroz eta konplexuagoak dira. Ipuin askotan pertsonaien sexua edo generoa ez dira identifikatuak. Pertsonaia guztien artean, %53,84 maskulinoa da, %15,38 femeninoa eta %26,92 ezezaguna da.

Bakarka sailean gehien agertzen den pertsonaia maskulinoa da. Pertsonaia femeninoak nagusitzen dira Bakarka 1en. Pertsonaia ez identifikatuak ez dira inoiz nagusitzen baina Bakarka 3, 4 eta 5etan, pertsonaia femeninoak baino gehiago dira. Laburbiltzeko, Bakarka sailean, 282 pertsonaien artean, 137 maskulinoak (%48,9), 83 femeninoak (%29,4) eta 62 (%21,98) ez dira identifikatuak.

### 1.1.1.2 Pertsonaia nagusiak

**Tableau 1: Pertsonaia nagusiak Bakarka testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Bakarka 1 | 17 | 12 | 1 |
| Bakarka 2 | 30 | 21 | 18 |
| Bakarka 3 | 22 | 6 | 5 |
| Bakarka 4 | 19 | 4 | 4 |
| Bakarka 5 | 12 | 4 | 7 |

Bakarka 1en, 30 pertsonaia nagusi zenbatuak izan dira. Haien artean, 17 maskulinoak dira eta

12 femeninoak. Bat, ez da identifikatua. Orduan, pertsonaia nagusien %56,7 maskulinoa da, %40 femeninoa eta %3,3 ez dugu identifikatzen ahal.

Guztira, Bakarka 2n, 69 pertsonaia nagusi dira eta haien arteko %43,5 maskulinoa da, 30 dira. %30,4 femeninoa da, 21 dira eta %26,1 ez dira identifikatuak.

33 pertsonaia nagusi dira Bakarka 3n, 22 maskulino (animalia bat barne), sei femenino eta bost pertsonaia ez identifikatu (hiru animalia barne) dira. Pertsonaia nagusi maskulinoek %66,6 osatzen dute, pertsonaia femeninoek %18,2 eta pertsonaia ez identifikatuak %15,11 dira.

Bakarka 4en pertsonaia nagusiak 27 dira, 19 maskulino, lau femenino eta lau ez dira identifikatu. Maskulinoak %70,37 dira, femeninoak eta pertsonaia ez identifikatuek, bakoitzak %14,8 osatzen dute.

Bakarka 5en, 23 pertsonaia nagusi agertzen dira. Pertsonaia nagusi maskulinoen proportzioa %57,15, femeninoena %17,85 eta ez identifikatuena %25 da.




**Irudia 39: Pertsonaia nagusiak Bakarka testuliburu sailean**

Orduan, Bakarka sailean, nagusitzen diren pertsonaia nagusiak maskulinoak dira ale guztietan. Bakarka 4en, pertsonaia femeninoak eta pertsonaia ezezagunak berdintzen dira eta Bakarka 5ean, pertsonaia ez identifikatu gehiago badira pertsonaia femeninoak baino. Bakarka sailean, 182 pertsonaia nagusi badira, 100 maskulinoak dira, 47 femeninoak eta 35 ezezagunak dira. Beraz, pertsonaia nagusien %52 maskulinoa da, %24 femeninoa da eta %20 ezezaguna da.

#### 1.1.1.3 Bigarren mailako pertsonaiak

**Taula 18: Bigarren mailako pertsonaiak Bakarka testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Bakarka 1 | 1 | 10 | 1 |
| Bakarka 2 | 16 | 14 | 10 |
| Bakarka 3 | 19 | 5 | 7 |
| Bakarka 4 | 8 | 10 | 4 |
| Bakarka 5 | 2 | 1 | 0 |

Bakarka 1en, 11 bigarren mailako pertsonaia daude: bederatzi pertsonaia femenino, maskulino bakarra eta ez identifikatu bat. Bigarren mailako pertsonaien %83 femeninoak dira, %8,5 maskulino eta %8,5 ez dira identifikatuak.

Bakarka 2n, bigarren mailako pertsonaiak orotara 46 dira. Pertsonaia femeninoek %30,5, pertsonaia maskulinoek, %35, identifikatuak ez diren pertsonaiek %25 osatzen dute.

31 bigarren mailako pertsonaia atzeman ditugu Bakarka 3n. Haien artean, bost pertsonaia femenino, %16,1, dira, 19 pertsonaia maskulino, %61,3 eta zazpi %22,6 ez dira identifikatu.

26 bigarren mailako pertsonaia badira Bakarka 4en. Hamar pertsonaia femenino, zortzi pertsonaia maskulino eta zortzi ez identifikatu. Femeninoek %38,46, maskulinoek %30,77 eta identifikatuak ez direnek %30,77 osatzen dute. Azken talde honetan, animalia bat kontuan hartua da.

Bakarka 5en, hiru bigarren mailako pertsonaia dira. %66,66 maskulinoa da, %33,34 femeninoa eta ez da pertsonaia ez identifikaturik. Bakarka 5en, ez da animaliarik edo tresnarik.




**Irudia 40: Bigarren mailako pertsonaiak Bakarka testuliburuan**

Bakarka saileko bigarren mailako pertsonaia kopuruak ez du pertsonaia nagusien ibilbide berdina segitzen. Bakarka 1en eta 4en gehiengoa femeninoa da, Bakarka 3n maskulinoa da. Bakarka 2n eta 5en, gehiengoa maskulinoa da. Pertsonaia ez identifikatuak beti hirugarren posizioan dira Bakarka 3n izan ezik. Bakarka 5en, ez dira agertzen.

Bakarka saileko bigarren mailako pertsonaia kopurua 108koa da. 46 pertsonaia maskulino, 40 pertsonaia femenino eta 22 ez dira identifikatuak. Oreka bat agertzen da pertsonaia maskulino eta femeninoen artean, nahiz eta hor ere, pertsonaia maskulinoak nagusitu.

### 1.1.2 Pertsonaiak Arian sailean

Arian zortzi testuliburuen artean zatitzen da. Bakarka metodoarentzat bezala, geroz eta maila zailagoa izan eta testuak geroz eta mamitsuagoak dira. Arian testuliburuen kasuan, testu kopurua geroz eta handiagoa da ere. Lehen testuliburuetan den ipuin kopurua apala denez, Arian metodoaren A1.1 (zortzi ipuin), A1.2 (ipuinik ez), A2.1 (ipuin bat), A2.2 (ipuin bat) elkartzea erabaki dugu.

#### 1.1.2.1 Pertsonaiak orotara

**Taula 19: Pertsonaiak Arian testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Arian A1 A2 | 7 | 7 | 6 |
| Arian B1.1 | 10 | 16 | 2 |
| Arian B1.2 | 9 | 8 | 7 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arian B2.1 | 3 | 2 | 7 |
| Arian B2.2 | 6 | 7 | 6 |

Arian A1.1, A2.1 eta A2.2 artean, gure irizpideei erantzuten duten hamaika ipuin daude. Arian A1.2-n ez da ipuinik. Guztira, 20 pertsonaia atzeman ditugu. Pertsonaia maskulinoak %35, femeninoak %35 eta identifikatuak ez direnak%30 dira.

Arian B1.1n aztergai diren 17 testu atzeman ditugu. 17 horien artean, zazpik ez dute pertsonaiarik. Pertsonaia maskulinoak %35,7 dira, femeninoak %57,4 eta identifikatuak ez direnak, %7,1 dira.

Arian B1.2-n, 16 testu dira. 16 testuen artean, zazpitan ez da pertsonaiarik. Guztira 24 pertsonaia dira. %37,5 maskulinoak, %33,3 femeninoak eta %29 ez dira identifikatuak.

Arian B2.1n bederatzi testu badira, zazpi ipuin barne. Zazpi ipuinen artean, bostetan pertsonaiak badira eta guztira 12 pertsonaia dira. %58,3 ez dira identifikatuak, %25 maskulinoak eta %16,6 femeninoak dira.




**Irudia 41: Pertsonaiak Arian testuliburuan**

Arian B2.2-n, 14 testu atzeman dira. Haien artean, seitan ez da pertsonaiarik. Orduan, orotara, sei pertsonaia maskulino, zazpi pertsonaia femenino eta sei pertsonaia ez identifikatu agertzen dira. Pertsonaia maskulinoek eta ez identifikatuek pertsonaien %31,57a osatzen dute bakoitzak. Pertsonaia femeninoek pertsonaia guztien %36,84a.

Arian sailean, A2 testuliburua arte, berdintasun bat agertzen da pertsonaia femenino eta pertsonaia maskulinoen artean. Arian, B1.1 eta Arian B2.2n, pertsonaia femeninoak nagusitzen dira. Arian B1.2n pertsonaia maskulinoak gehiengoan dira eta B2.1en, nahiz eta pertsonaia ezezagunak nagusitu, pertsonaia maskulinoak nagusitzen dira. Orduan, Arian sailean, 108 pertsonaia dira eta nagusitzen diren pertsonaiak maskulinoak dira 41 pertsonaiekin, femeninoak 39 dira eta pertsonaia ez ezezagunak 28 dira.

1.1.2.2 Pertsonaia nagusiak

**Taula 20: Pertsonaia nagusiak Arian testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Arian A1 A2 | 6 | 5 | 0 |
| Arian B1.1 | 15 | 17 | 2 |
| Arian B1.2 | 9 | 8 | 7 |
| Arian B2.1 | 1 | 1 | 6 |
| Arian B2.2 | 5 | 3 | 6 |

Arian A1 eta A2n, 20 pertsonaia daude. 12 pertsonaia nagusi dira, sei maskulino eta sei femenino. Ez da pertsonaia ez ezezagunik.

Arian B1.1en, guztira, 34 pertsonaia nagusi dira, ez da bigarren mailako pertsonaiarik atzemana izan. Haien artean, 17 femeninoak dira, 15 maskulinoak eta bi sexu ez identifikatu dira. Pertsonaia femeninoek Arian B1.1an, %47,05 osatzen dute, maskulinoek %47,05 eta ez identifikatuek %5,88.

Zazpi ipuinen artean, 24 pertsonaia dira Arian B1.2n eta pertsonaia nagusiak dira. Ez da bigarren mailako pertsonaiarik. Bederatzi (%37,5) maskulinoak, zortzi (%33,33) femeninoak dira eta zazpik (%29,16) sexu ez identifikatua dute. Pertsonaia maskulino guztien artean, hiru egiazko pertsonak dira: Sigmund Freud, Jules Vernes eta Andoni Aresti. Ez da emazte famaturik aipatua.

Zortzi pertsonaia nagusi dira Arian B2.1n. Haien artean, pertsonaia maskulino bat, pertsonaia femenino bat eta sei pertsonaia ezezagun dira. Pertsonaia femenino eta maskulinoen kopurua %12,5 da bakoitzarentzat eta ez identifikatuena %75 da.

Arian B2.2n, 14 pertsonaia nagusi dira. Bost maskulino dira, %35,71 eta hiru femenino %21,42 dira. Sei pertsonaia ez dira identifikatuak, %42,85 osatzen dute.

Arian A1-A2n, B1.2n eta B2.2n orokortzen diren pertsonaia nagusiak maskulinoak dira. Arian B1.1 eta arian B2.1en, pertsonaia maskulino nagusiak eta femenino nagusiak berdintzen dira. Hemen Arian B2.2n eta Arian B2.1n, pertsonaia ezezagunak nagusitzen dira. Arian sailean, 91 pertsonaia nagusi dira. 37 maskulinoak, 33 femeninoak eta 21 ezezagunak dira.




**Irudia 42: Pertsonaia nagusiak Arian testuliburuan**

1.1.2.3 Bigarren mailako pertsonaiak

**Taula 21: Bigarren mailako pertsonaiak Arian testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Arian A1 A2 | 1 | 1 | 6 |
| Arian B1.1 | 0 | 0 | 0 |
| Arian B1.2 | 0 | 0 | 0 |
| Arian B2.1 | 2 | 1 | 1 |
| Arian B2.2 | 1 | 4 | 0 |

Arian A1-A2n, identifikatuak ez diren bost pertsonaia dira. Arian A1.1, A1.2, A2.1 eta A2.2-ko pertsonaia maskulinoen proportzioa %35 da, femeninoena, %35 eta ez identifikatuena %30 da.

Bigarren mailako pertsonaiak lau dira Arian B2.1n. Pertsonaia femenino bat, bi maskulino eta ezezagun bakarra dira. %25 femeninoa da eta %25 ez da identifikatua. Maskulinoak %50 dira.

Arian B2.2-n, bigarren mailako pertsonaiak bost dira. Gizon bat, %20 eta lau emazte dira %80. Denak identifikatuak dira.




**Irudia 43: Bigarren mailako pertsonaiak Arian testuliburuan**

Bigarren mailako pertsonaiak, pertsonaia nagusiak baino gutxiago dira Arian sailean. Arian B1.1n eta Arian B1.2n ez dira agertzen. Arian A1-A2n, pertsonaia maskulino eta femeninoen kopurua berdina da. Pertsonaia ezezagun gehiago dira. Arian B2.1en, pertsonaia maskulino gehiago dira eta Arian B2.2n pertsonaia femenino gehiago dira. Arian sailean, 17 bigarren mailako pertsonaia dira. Zazpi ezezagunak dira, sei femeninoak eta lau maskulinoak dira.

### 1.2.3 Goazen saila

#### 1.1.3.1 Pertsonaiak orotara

**Taula 22: Pertsonaiak Goazen testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Goazen 1 | 14 | 10 | 15 |
| Goazen 2 | 8 | 8 | 12 |
| Goazen 3 | 6 | 3 | 6 |
| Goazen 4 | 23 | 5 | 12 |

Goazen DBH1n 39 testu dira. Baina, horien artean, 27k ez da pertsonaiarik. Orduan, 12 ipuin agertzen dira pertsonaia batzuekin. Bostek pertsona ezagunak aipatzen dituzte. Haiek Amadeus Mozart, Shirley Temple, Lumière anaiak, Lazkao Txiki eta Elkano dira. Sei pertsonen artean %16,67

femeninoa da eta %83,33 maskulinoa. Orotara, pertsonaia ezezagunek %38,46, pertsonaia maskulinoek %35,89 eta femeninoek %25,6 osatzen dute.

Goazen DBH2-n, 20 ipuin dira baina pertsonaia gutxi. Lehenak artista ezberdin batzuk aipatzen ditu: Oteiza, Txillida, Ibarrola, Basterretxea. Gizonak baizik ez dira. Ondotik, ipuin batek haizea pertsonifikatzen du. Haizeak ez du generorik, naturak sortutako baliabidea da. Bi animalia dira: txakurkume bat eta kuku bat. Pertsonaia ezezagunak %42,85 dira, pertsonaia maskulinoak %28,57 eta femeninoak %28,57 dira.

Goazen DBH3n, testu kopuruaren arabera, pertsonaia gutxi agertzen dira. Guztira17 ipuin kontatu ditugu eta 16 pertsonaia agertzen dira. Horrez gain, zazpigarrenak Dominique Joseph Garatek Fenizia Berria sortutako proiektua aipatzen du, hamargarren testua Ignazio Ellakuria misiolariaren historia da eta hamabigarrenak euskarazko generozko kasua aipatzen du, Lizardiren eredua hartuz. Aipatutako hiru pertsona famatuak maskulinoak dira. Guztira, 16 pertsonaia dira, %37,5 maskulino eta %37,5 ez dira identifikatuak, femeninoek %25 dira. Ondorioz, 17 ipuinen artean, zazpik baizik pertsonaiak dituzte.

Goazen 4en, 29 testu dira eta ipuinak geroz eta sakonagoak dira. Hainbat testuen autoreak aipatzen dira. Haiek, Isaak Asimov, Roberto Puimmi, Heinrich Böll, Felix Rodriguez de LA Fuentera, Pedro Miguel Urruzundo, Azkue, Bernardo Atxaga, Luis Maleba, CH. Quinel eta A. Montgon dira. Idazle guztiak gizonak dira. Ber maneran, pertsona famatuak aipatuak dira, Euskal Herrikoak eta nazioartekoak. Hauek, Rafael, Da Vinci, Michel Ange, Rodin, Alfred Hitchcock, Sofia Loren, Charles Heston, Bo Derek, Peter Sellers, Liz Taylor, Luis Bunuel, Steven Spielberg, Bernardo Atxaga, Meyer eta Daneil Guggenheim, Beethoven, Pablo Saraste, Augusto Enperadorea, Leijzer Ludwik Zamenhof, James Naismith dira. 21 artean, bi emazteak dira, %9,5. Aldiz, %90,5 maskulinoak. Guztira, 23 pertsonaia maskulino (%%57,5), bost pertsonaia femenino (%12,5) eta 12 pertsonaia (%40) ezezagun agertzen dira Goazen 4en. Berrogei pertsonaia dira.




**Irudia 44: : Pertsonaiak Goazen testuliburuan**

Goazen sailean nagusitzen diren pertsonaiak maskulinoak dira, ondotik pertsonaia ez ezagunak dira eta bukatzeko femeninoak dira. Goazen 1en, pertsonaia ezezagunak, gero maskulinoak eta bukatzeko femeninoak dira. Goazen 2n, pertsonaia ezezagunak nagusitzen dira, ondotik pertsonaia femenino eta maskulinoak dira maila berdinean. Goazen 3n, pertsonaia maskulinoak eta ez identifikatuak nagusitzen dira, ondotik pertsonaia femeninoak. Bukatzeko, Goazen 4en, pertsonaia maskulinoak nagusitzen dira, gero ez dira identifikatuak eta bukatzeko femeninoak dira. Orduan, Goazen sailean 122 pertsonaia dira. Nagusitzen diren pertsonaiak pertsonaia maskulinoak dira 51 pertsonaiekin, ondotik pertsonaia ezezagunak dira 45 pertsonaiekin eta bukatzeko pertsonaia femeninoak dira 26 pertsonaiekin.

### 1.1.3.2 Pertsonaia nagusiak

**Taula 23: Pertsonaia nagusiak Goazen testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Goazen 1 | 10 | 7 | 7 |
| Goazen 2 | 5 | 5 | 5 |
| Goazen 3 | 5 | 2 | 4 |
| Goazen 4 | 17 | 1 | 8 |

Goazen 1n, 24 pertsonaia nagusien artean, hamar maskulinoak, zazpi femeninoak eta zazpi ez dira identifikatuak. %41,67 maskulinoak, %29,16 femeninoak eta %29,16 ezezagunak dira.

Goazen 2n, 15 pertsonaia nagusi dira eta haien artean, bost maskulino, bost femenino eta bost ezezagun dira.

Goazen 3n, 11 pertsonaia nagusi dira, %45,45 maskulino, %36,36 ez identifikatu eta %18,19 femenino dira.

Goazen 4en, 29 ipuinen artean, 26 pertsonaia nagusi dira. Haien artean, 17 maskulino, femenino bat eta zortzi pertsonaia ez dira identifikatu. %65,38 pertsonaia maskulino nagusi dira, femeninoak %3,84 eta ezezagunak %30,77 dira.




**Irudia 45: Pertsonaia nagusiak Goazen testuliburuan**

Goazen 1, 3 eta 4en, nagusitzen diren pertsonaiak, pertsonaia maskulinoak dira. Goazen 2n, berdintasun bat agertzen da hiru pertsonaia moten artean. Goazen testuliburuetan, 76 pertsonaia nagusi dira. 37 maskulinoak dira, 24 ez dira identifikatuak eta 15 femeninoak dira.

### 1.1.3.3 Bigarren mailako pertsonaiak

**Taula 24: Bigarren mailako pertsonaiak Goazen testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Goazen 1 | 4 | 3 | 8 |
| Goazen 2 | 3 | 3 | 7 |
| Goazen 3 | 1 | 1 | 2 |
| Goazen 4 | 6 | 4 | 4 |

Goazen 1en, bigarren mailako 15 pertsonaien %26,67 maskulinoa, %20 femeninoa eta %53,33 ezezaguna da. Orotara, pertsonaien %25,64 femeninoa da, %35,89 maskulinoa da eta %38,46 ezezaguna da. Bukatzeko animalia bat agertzen da (asto bat) eta ez da tresnarik.

Bigarren mailako 13 pertsonaia dira, hiru femenino, hiru maskulino eta zazpi ez dira identifikatuak Goazen 2n. Orduan, pertsonaia maskulinoak eta femeninoak %23,07 dira aldika eta identifikatuak ez direnak %53,84.

Guztira, Goazen 3n, 16 pertsonaia dira: %37,5 gizon eta %37,5 ez dira identifikatu. %25 emazte dira.

Goazen 4en, 14 bigarren mailako pertsonaia dira. Haien artean, Sei maskulino, lau femenino eta lau pertsonaia ez dira identifikatuak. Gizonak %42,86, emazteak %28,57 dira eta ezezagunak %28,57 dira.




**Irudia 46: Bigarren mailako pertsonaiak Goazen testuliburuan**

Goazen 1, 2 eta 3n, nagusitzen diren bigarren mailako pertsonaiak ez dira identifikatuak. Goazen 4en, maskulinoak dira. Pertsonaia femeninoak azkenik agertzen dira. Goazen sailean 46 bigarren mailako pertsonaia dira. 21 pertsonaia ez dira identifikatuak, 14 pertsonaia maskulino eta 14 pertsonaia femenino dira.

### 1.1.4 Eki saila

#### 1.1.4.1 Pertsonaiak orotara

**Taula 25: Pertsonaiak Eki testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Eki DBH1 | 12 | 10 | 5 |
| Eki DBH2 | 24 | 17 | 12 |

Eki DBH1en, 18 testu dira. Baina, ez da pertsonaiarik denetan. Ber maneran, DBH 1-n pertsona famatu batzuek tradizioa aipatzen dute: Ane Albisu, Igor Elortza, Jon Maia eta Aita Barandian dira. Txalaparta ere aipatua da eta tresna erabiltzen dituzten artista nagusien izenak ematen dituzte: Juan Mari Beltran, Mikel Laboa, Oskorri, Hertzainak, Kepa Junkera, Oreka TX eta Kalakan aipatuak dira.

Pertsona famatuak jadanik agertu dira beste testuliburu batzuetan, baina hemen kopurua biziki altua da. Bi izan, ezik denak euskaldunak dira eta haien bidez gazteek euskal kultura ezagutzeko eta bereganatzeko aukera dute. Orotara, 26 izen daude eta haien artean, lau emazte, %15,38 dira. Eki DBH1ean, 18 eleberri badira. 28 pertsonaia atzeman ditugu. 22 pertsonaia nagusi eta sei bigarren mailako pertsonaia dira. %42,8 maskulinoak, %35,7 femeninoak eta %17,85 ez dira identifikatuak.

DBH2-n 34 testu agertzen dira baina ez da beti pertsonaiarik. Nortasun famatu batzuk badira hemen ere: Iban Garate, Asier Altuna, Telmo Esnal, Itziar Urretabizkaia, Jorge Oteiza, Ricardo Arnegi, Uxue Alberdi, Xabi Paya, Bernhard Frantz, Pio Baroja, Unamuno, Luis Antonio de la Vega. Hamabien artean, hamar maskulino dira %83,33, femeninoak %16,67 dira. Guztira 34 ipuin dira eta 53 pertsonaia. DBH2n 24 pertsonaia maskulino, 17 pertsonaia femenino eta 12 ez dira identifikatu, %45,28 maskulino, %32,07 femenino eta %22,64 ez dira identifikatuak.




**Irudia 47: Pertsonaiak Eki testuliburuan**

Guztira 81 pertsonaia dira. Bi Eki testuliburuetan pertsonaia nagusiak maskulinoak dira, 36 dira. Ondotik 28 femenino dira eta bukatzeko 17 ez dira identifikatuak.

### 1.1.4.2 Pertsonaia nagusiak

**Taula 26: Pertsonaia nagusiak Eki testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Eki DBH1 | 8 | 10 | 1 |
| EKI DBH2 | 19 | 12 | 6 |

Eki DBH1en, 8 lehen mailako pertsonaia dira, %36,36 eta 10 femeninoak, %45,45 dira. Ezezagunak %18,18 dira.

Eki DBH2n, 37 pertsonaia nagusi dira. 19, (%51,35) 12 (%35,39) eta 6 (%17,64) ez dira identifikatuak.




**Irudia 48: Pertsonaia nagusiak Eki testuliburuan**

Eki testuliburuetan 59 pertsonaia nagusi dira. 27 pertsonaia maskulino nagusitzen dira. Gero 22 pertsonaia femeninoak dira. Bukatzeko 10 ez dira identifikatuak.

### 1.1.4.3 Bigarren mailako pertsonaiak

**Taula 27: Bigarren mailako pertsonaiak Eki testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Eki DBH1 | 4 | 1 | 1 |
| EKI DBH2 | 5 | 5 | 6 |

Bigarren mailako pertsonaien artean bi animaliak dira Eki DBH1en: zaldi bat eta txakur bat. Txakurra emea dela zehaztua da, beraz emazteen taldeari lotu dugu eta zaldiari buruz informaziorik ez da. Haien arteko pertsonaien %66,67 maskulinoa da, %16,66 femeninoa eta %16,66 ez da identifikatua.

Eki DBH2n, bigarren mailako pertsonaiak 16 dira. Bost pertsonaia maskulino (%31,25), bost (%31,25) pertsonaia femenino eta sei (%37,5) ez dira identifikatuak.




**Irudia 49: Bigarren mailako pertsonaiak Eki testuliburuan**

Guztira 22 bigarren mailako pertsonaia agertzen dira. Bigarren mailako pertsonaia maskulinoak nagusitzen dira, bederatzi dira. Ondotik identifikatuak ez diren zazpi pertsonaia agertzen dira eta bukatzeko sei pertsonaia femenino dira.

### 1.1.5 Testuliburuen emaitzak: pertsonaien kopurua

#### 1.1.5.1 Pertsonaiak orotara

**Taula 28: Pertsonaiak orotara**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Bakarka | 137 | 83 | 62 |
| Arian | 40 | 40 | 28 |
| Goazen | 51 | 26 | 35 |
| Eki | 36 | 27 | 17 |

Bakarka testuliburuak 282 pertsonaia biltzen ditu. Testuliburu sail honek pertsonaia kopuru handiena du. Pertsonaien %48,5 maskulinoa da. Pertsonaia femeninoak %29,43 dira eta %22 ez dira identifikatuak. Goazen sailean 112 pertsonaia dira eta hor ere pertsonaia maskulinoak nagusitzen dira, %45,5 dira. Femeninoak %23,21, hots pertsonaia ez identifikatuak baino gutxiago %31,25. Arian sailean 108 pertsonaia daude eta pertsonaia maskulino eta femeninoen artean parekidetasuna agertzen da. %37,07 dira. Pertsonaia ez identifikatuak %26 dira. Bukatzeko, Eki testuliburuak du pertsonaia kopuru apalena, 80 dira. Hemen, pertsonaia maskulinoak nagusitzen dira %45 dira. Ondotik

femeninoak, %33,75, eta ez zehaztuak %21,25 dira.




**Irudia 50: Pertsonaiak orotara**

Orduan, testuliburu guztietan, pertsonaia maskulinoa nagusitzen da (%40 baino gehiago). Arian saila salbuespen bakarra da pertsonaia maskulino eta femeninoen arteko berdintasuna dagoelako. Horrez gain, pertsonaia ezezagunak Goazen sailean pertsonaia femeninoak baino gehiago dira. Orotara, 582 pertsonaien artean, %45,36 maskulinoak, femeninoak %30,24 eta ez dira identifikatuak %24,39 dira.

### 1.1.5.2 Pertsonaia nagusiak

**Taula 29: Pertsonaia nagusiak**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Bakarka | 100 | 47 | 35 |
| Arian | 36 | 34 | 21 |
| Goazen | 37 | 15 | 23 |
| Eki | 27 | 22 | 7 |

Pertsonaia nagusiak aztertzen direlarik, testuliburuetako sail guztietan, pertsonaia maskulinoa nagusitzen da. Bakarka sailean %55, Arian sailean %39,51, Goazen sailean %49,33 eta Eki sailean %48,21 dira.

Pertsonaia femenino nagusiak bigarrenik heldu dira Goazen testuliburuetan izan ezik. Bakarkan %25,82, Arianen %37,36, Goazenen %20 eta Ekin %39,28 dira.

Pertsonaia ez identifikatuak %19,18 Bakarkan, Arianen %23,13, Goazenen %30,67 eta Ekin, %12,51 dira.




**Irudia 51: Pertsonaia nagusiak**

Pertsonaia nagusi maskulinoak nagusitzen dira testuliburu guztietan. Ezberdintasun nabarienak Bakarka eta Goazen testuliburuetan agertzen dira eta apalena Arian testuliburu sailean da. Orotara, 404 pertsonaia nagusien artean, %49,5 maskulinoak, %29,2 femeninoak eta %21,28 ez dira identifikatua.

### 1.1.5.3 Bigarren mailako pertsonaiak

**Taula 30: Bigarren mailako pertsonaiak**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| Bakarka | 46 | 40 | 22 |
| Arian | 4 | 6 | 7 |
| Goazen | 14 | 11 | 21 |
| Eki | 27 | 22 | 7 |

Bakarka sailean, bigarren mailako pertsonaiak nagusiki maskulinoak dira 108 pertsonaien artean, %42,59 dira. Ondotik femeninoak dira %37,03 eta bukatzeko %20,37 ez dira identifikatuak.

Arian sailean 17 bigarren mailako pertsonaia dira. Nagusiki pertsonaiak ez dira identifikatuak %41,17 pertsonaiekin. Gero, %35,29 femeninoak dira. Bukatzeko maskulinoak %23,52 dira.

Goazen sailean, 46 pertsonaia dira. Gehiengoa ez da identifikatua %45,65 da. Ondotik maskulinoak %30,43 dira eta bukatzeko %23,9 femeninoak dira.

Eki sailean, 56 pertsonaia dira. Pertsonaia maskulinoak %48,21, femeninoak %39,28 eta

%12,5 ez dira identifikatuak.




**Irudia 52: Bigarren mailako pertsonaiak**

Bigarren mailako pertsonaiak aztertuz, testuliburuen arabera ezberdintasunak daude. Oro har, pertsonaia maskulinoa nagusitzen da baina, Arian eta Goazen sailean, pertsonaia ezezagunak nagusitzen dira. Pertsonaia femeninoa bigarrenik heldu da Goazen sailean izan ezik. Arian sailean, pertsonaia maskulinoa azkenik agertzen da. Orotara, 227 bigarren mailako pertsonaia dira. Pertsonaia maskulinoek taldearen %40 osatzen dute, pertsonaia femeninoek %35 eta ezezagunek %25,11.

### 1.1.6 Pertsonaien kopurua: ondorioak

Pertsonaia kopuruen analisia kuantitatiboak 582 pertsonaia agerrarazi ditu. Orokorrean, pertsonaia nagusiak ala bigarren mailakoak aztertzen direlarik, pertsonaia maskulinoa nagusitzen da. Ondotik pertsonaia femeninoak badira eta bukatzeko identifikatuak ez diren pertsonaiak. Emaitzek, pertsonaia maskulinoen nagusitasuna bermatzen dute. Testuliburu batetik bestera ezberdintasunak agertzen dira. Arian testuliburuak oreka handiena proposatzen du pertsonaia maskulino eta femeninoen artean. Aldiz, tarte handiena, Bakarka sailean agertzen da.

Pertsonaia ezezagunen presentzia nabaria azpimarratu behar da. Maiz agertzen baldin badira, ez dira baitezpada autoreen neutraltasunaren ikuspuntutik sortuak, baina pertsonaien sakontasun eskasarengatik baizik. Horretarako pertsonaia ezezagun gehiago agertzen dira bigarren mailako pertsonaien artean. Orduan, testuliburu batzuetan, identifikatuak ez diren pertsonaiak nagusitzen direnean (Goazen sailean, pertsonaia femenino gutxiago dira ezezagunak baino), beste pertsonaia kategoriak oraindik gehiago gutxietsiak izan direla ondorioztatzen da.

## 1.2 Adina

### 1.2.1 Adina Bakarka testuliburuan

**Taula 31: Adina Bakarka testuliburuan**

| Pertsonaia maskulinoak | | | | | Pertsonaia femeninoak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur-gazte | Heldu | | | Ez dakigu | Haur-gazte | Heldu | | | Ez dakigu |
| 7 | Gazte | adintsu | Ez dakigu | 5 | 10 | Gazte | adintsu | Ez dakigu | 4 |
| | 24 | 25 | 87 | | | 16 | 13 | 41 | |

Pertsonaia maskulinoen %58,7 heldu maskulino eta ezezagunak dira. Ondotik, %16,89 heldu adintsuak dira eta heldu gazteak %16,21 dira. Gero, %4,7 haur eta gazteak agertzen dira. Bukatzeko %3,37 adin ezezaguna dute. Pertsonaia femeninoen %48,8 heldu ezezagunak dira. Gero, %19 heldu gazteak eta %15,48 heldu adintsuak dira. Ondotik %12 haurrak eta bukatzeko %4,7 ez dira adin zehaztuak.




**Irudia 53: Adina Bakarka testuliburuan**

Bakarka sailean, nagusitzen den adina, heldu maskulinoa da heldu femeninoa aitzin. Hirugarrenik, gizon adintsu heldua da eta gizon gazteak segitzen du. Gero gazte femeninoak, adintsu eta haur femeninoek segitzen dute. Bukatzeko haur maskulinoak, identifikatuak ez diren femeninoak eta identifikatuak ez diren maskulinoak dira.

### 1.2.2 Adina Arianen

**Taula 32: Adina Arian testuliburuan**

| Pertsonaia maskulinoak | | | | | Pertsonaia femeninoak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur-gazte | Heldu | | | Ez dakigu | Haur-gazte | Heldu | | | Ez dakigu |
| 6 | Gazte | adintsu | Ez dakigu | 9 | 3 | Gazte | adintsu | Ez dakigu | 9 |
| | 1 | 2 | 23 | | | 5 | 4 | 18 | |

:

Arian testuliburuetan, proportzionalki nagusitzen den adin tartea pertsonaia maskulinoen artean, %56 heldu ezezagunak dira. Ondotik, %22 adin ezezaguna da. Gero %14,63 haur gazte dira. Bukatzeko %4,8 heldu adintsu eta %2,4 heldu gazte daude. Pertsonaia femeninoen artean, %46,15 heldu ezezagun dira. Ondotik, %23,7 adin ezezaguna da. Gero, %12,8 heldu gazte eta %10,25 adintsu dira. Bukatzeko %7,7 haur-gazteak dira.




**Irudia 54: Adina Arian testuliburuan**

Nagusitzen den adina heldu maskulinoa da. Ondotik heldu femeninoa da. Hirugarrenik, adin ezezagun maskulino eta heldu femeninoak dira. Gero, haur maskulinoak, gazte femeninoak, adintsu femeninoak, haur femeninoak, adintsu maskulinoak eta gazte maskulinoak segitzen dute. Heldu maskulinoak 23 dira eta heldu femeninoak 18. Identifikatuak ez diren maskulino eta femeninoak bederatzi dira bakoitza. Haur maskulinoak sei dira, gazte femeninoak bost, adintsu femeninoak lau, haur femeninoak hiru, adintsu maskulinoak bi eta gazte maskulinoak bat.

### 1.2.3 Adina Goazenen

**Taula 33: Adina Goazen testuliburuan**

| Pertsonaia maskulinoak | | | | | Pertsonaia femeninoak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur-gazte | Heldu | | | Ez dakigu | Haur-gazte | Heldu | | | Ez dakigu |
| | Gazte | adintsu | Ez dakigu | 3 | 3 | Gazte | adintsu | Ez dakigu | 12 |
| 5 | 0 | 3 | 40 | | | 1 | 5 | 10 | |

Proportzionalki, pertsonaia maskulinoen artean, %78,43 adin ezezaguneko helduak dira. Ondotik, haurrak %9,8 dira. Bukatzeko adineko helduek eta adin ezezagunek %5,88 osatzen dute bakoitzak. %38,7 pertsonaia femeninoak ez dira identifikatuak. %32,25 heldu ez dira identifikatuak. %16,12 heldu adintsua dira eta %9,1 haurrak. Bukatzeko, %3,22 heldu gazteak dira.




**Irudia 55: Adina Goazen testuliburuan**

Nagusitzen den adin tartea heldu maskulinoa da, Goazen 1, 3 eta 4en. Goazen 2n, adintsu femeninoa nagusitzen da. Heldu maskulinoa eta gero, femenino ezezagun eta heldu femeninoa dira. Pertsonaia guztien artean, berrogei pertsonaia heldu maskulinoak dira. Pertsonaia femenino ez identifikatuak 12 dira eta emazte heldu hamar. Segitzeko, bost adineko femenino eta bost haur maskulino dira. Gero, hiru adintsu maskulino, maskulino ez identifikatuak eta haur femeninoak dira. Bukatzeko gazte femenino bat bada.

### 1.2.4 Adina Ekin

**Taula 34: Adina Eki testuliburuan**

<table>
<tr><td colspan="5">Pertsonaia maskulinoak</td><td colspan="5">Pertsonaia femeninoak</td></tr>
<tr><td>Haur-gazte</td><td colspan="3">Heldu</td><td>Ez dakigu</td><td>Haur-gazte</td><td colspan="3">Heldu</td><td>Ez dakigu</td></tr>
<tr><td rowspan="2">7</td><td>Gazte</td><td>adineko</td><td>Ez dakigu</td><td rowspan="2">7</td><td rowspan="2">7</td><td>Gazte</td><td>adineko</td><td>Ez dakigu</td><td rowspan="2">4</td></tr>
<tr><td>4</td><td>9</td><td>10</td><td>2</td><td>2</td><td>10</td></tr>
</table>

Pertsonaia maskulinoen artean, %37 heldu ezezagun dira. Nagusitzen den adin tartea da. Ondotik %33,3 heldu adineko dira. Gero %26 haur gaztea eta %26 adin ezezagun dira. Bukatzeko %14,8 heldu gazte daude. Pertsonaia femeninoen %40 heldu ezezagunak dira. Gero %28 haur gazte dira. Segitzeko, %16 adin ezezagun eta bukatzeko %8 heldu gazte eta %8 adineko dira.



**Irudia 56: Adina Eki testuliburuan**

Eki 1en nagusitzen den adina, heldu femeninoa da. Ondotik, haur maskulino eta femeninoa, heldu maskulinoa eta maskulino ez identifikatua agertzen dira. Hirugarren parte batean, gazte maskulinoa eta adineko maskulinoa dira. Bukatzeko, femenino ez identifikatua, adineko femeninoa eta gazte femeninoa agertzen dira.

Eki 2n, adineko maskulinoa eta heldu maskulinoa eta heldu femeninoak nagusitzen dira. Ondotik, maskulino ez identifikatua, haur maskulinoa eta femeninoek segitzen dute. Gero, femenino ezezaguna, gazte maskulinoa eta bukatzeko gazte femeninoa eta adineko femeninoa agertzen dira.

Orokorrean, pertsonaia maskulino helduak nagusitzen dira. Ondotik adineko maskulinoak

dira. Segitzeko maskulino ez identifikatuak eta haurrak dira. Bukatzeko gazteak agertzen dira. Pertsonaia femeninoen adina nagusiki heldua da. Ondotik haurrak dira. Segitzeko pertsonaia femenino adin ez identifikatuak dira eta bukatzeko, adineko pertsonaiak eta gazteak dira.

### 1.2.5 Testuliburuen emaitzak: Adina




**Irudia 57: Adina testuliburuetan**

Pertsonaien %52,41 heldu ezezagunak dira. Beste lau kategorien artean (haur %10,52, gazte %11,62,adineko %13,81, ez identifikatu %11,62) oreka bat agertzen da.




**Irudia 58: Pertsonaia maskulinoen adina testuliburuetan**

Pertsonaia maskulinoen %57,76ak heldu ezezagunak dira. Ondotik, %14 heldu adintsuak dira. Gero, %10,46 heldu gazte dira. %8,66k ez dute adin identifikaturik eta %9 haur maskulino dira.




**Irudia 59: Pertsonaia femeninoen adina testuliburuetan**

Pertsonaia femeninoen %44,13 heldu femeninoak dira. Ondotik, %16,2 ez dute adin identifikaturik. Gero,%13,4 gazte eta %13,4 adineko femeninoak dira eta bukatzeko %12,84 haur femenino dira.

Pertsonaia femenino eta maskulinoen emaitzak konparatzen baldin baditugu, bi kasuetan nagusitzen diren adinak heldu ezezagunak dira. Aldiz, bigarrenik adineko maskulinoa agertzen da pertsonaia maskulinoen artean baina pertsonaia femeninoek adin ezezaguna dute. Ezberdintasun honek bi informazio ekartzen dizkigu. Pertsonaia maskulino adintsu bat proposatuz, esperientzia duen pertsonaia bat sortzen da. Aldiz, adinik gabeko pertsonaiek, sakontasun eskasa erakusten dute.




**Irudia 35: Pertsonaien adina testuliburuetan**

Ber maneran pertsonaia femeninoen artean, haur gehiago agertzen dira maskulinoak baino.

Orokorrean, adin gaztea pertsonaia femeninoentzat gehiago agertzen da. Orduan, gaztetasuna eta honekin etortzen diren ezaugarriak, edertasuna, inozentzia bezala emazteari lotuak dira. Gizonentzat adintsua nabarmentzen da beraz gizona esperientziarekin, bidea erakusten duena, zuhurra bezala adierazia da.

Heldu maskulinoa kasu guztietan nagusitzen da eta ondotik heldu femeninoak eta adin ez identifikatu femeninoa agertzen dira. Gaztetasunaren presentzia testuliburu batetik bestera aldakorra da. Azpimarra dezakegu haurren proportzioa apalenetariko bat dela. Alta, testuliburu horiek gazteentzat sortzen dira. Helduek idatzitako ipuinak haien ikuspegitik egiten dituztela edo ikasle gazteei heldu modeloak proposatu nahi zaizkiela eredu bezala pentsa daiteke.

1.3 Analisia kuantitatiboaren emaitzak

Testuliburuen analisia kuantitatiboak bi ondorio nagusi ditu. Lehenik, pertsonaia maskulinoa nagusitzen da. Ondotik, pertsonaiak batez ere helduak dira. Aldiz, pertsonaia adintsua maskulinoa da eta pertsonaia gaztea pertsonaia femeninoa.

Corpusean proposatutako ereduak batez ere maskulinoak dira. Testuliburuen sortzaileak maskulinoak direlarik, nagusiki pertsonaia maskulinoak sortuak dira. Adibidez, Bakarka saileko pertsonaien %48,5 maskulinoak dira eta gizonezko autore batek egin du. Aldiz, testuliburuetako autore taldea nagusiki femeninoa denean, pertsonaia maskulinoen eta femeninoen artean parekidetasuna agertzen da (Arian). Gure ondorioak Ezkurdia, Bilbao eta Perezen emaitzekin bateragarriak dira[123].

Testuliburuen azterketa kuantitatiboaren ondotik, corpusa, jendartearen antolakuntza androzentrikoaren ispilua dela agertzen da. Maskulinitatea arlo guztietan nagusitzeaz gain, profil estandar bat proposatzen du. Heldu adintsuek jendartea kudeatzen dutenen itsurakoak dira. Haien ideologia berriz sortua da testuliburuen pertsonaien bidez. Ber maneran, pertsonaia femeninoek ere jendarteak inposatutako ereduari erantzuten diote. Hor ere adinik gabeko heldua nagusitzen baldin bada, gaztetasunaren presentzia pertsonaia maskulinoentzat baino altuagoa da. Femeninoa inozentziari, freskotasunari eta lotzen da.

Horrez gain, testuliburu gehienetan pertsona famatuak aipatuak dira (batez ere Goazen eta Eki

123

Ikus *Curriculumeko eduki gorakariak 2000. urtetik hona.*

sailetan). Emaitzek, gehiengo handienean maskulinoak direla erakusten dute: Ekin %84,62 gizon famatu eta %15,38 emazte famatu dira, Goazenen %83,33 gizon famatu %16,67 emazte dira. Ber maneran, testuliburuetan idatzi duten autoreak izendatuak direnean, gehiengoak maskulinoak dira. Ezaugarri horiek curriculuma ideologia maskulino batean oinarritzen dela baieztatzen du: euskal kulturako eredu famatuak maskulinoak dira. Testuliburuetan agertzen direnean, ikasleei proposatzen zaizkien eredu positiboak bezala aurkeztuak dira. Haiek kultura, politika, teknologiaren zentroan dira. Emazteak baztertuz, testuliburuek, jendarteak egiten duena baieztatzen du. Emazteak bizitza publikotik kanporatuak eta ahantziak dira.

Bukatzeko, pertsonaia neutroak toki handi bat dauka testuliburu corpusean. Baina, sexurik ez baldin bazaie lotzen, gehienetan ipuina ez delako aski garatua da. Ez du autoreen intentzio bat erakusten kode sexistak hausteko. Orduan, pertsonaia neutroak pertsonaia femeninoak baino gehiagotan agertzen direnean, Goazen testuliburu sailean bezala, pertsonaia femeninoa garatzeko borondate eskasia bat adierazten du.

Emaitza kuantitatiboak mendebaldeko jendarte androzentrikoaren isla dira. Baina, pertsonaien ezaugarri fisikoak, haien nortasuna, estereotipo sozialekin bat egiten dutenez aztertuko da.

## 2 Analisia kualitatiboa

### 2.1 Nortasuna

#### 2.1.1 Bakarka

**Taula 36: Nortasuna Bakarka testuliburuan**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **9** | **8** | **6** |
| Bakarka 1 | 4 | 1 | 0 |
| Bakarka 2 | 2 | 6 | 4 |
| Bakarka 3 | 2 | 0 | 2 |
| Bakarka 4 | 0 | 0 | 0 |
| Bakarka 5 | 1 | 1 | 0 |
| Pertsonaia maskulinoak | **20** | **2** | **27** |
| Bakarka 1 | 1 | 0 | 5 |
| Bakarka 2 | 6 | 1 | 9 |
| Bakarka 3 | 9 | 0 | 6 |
| Bakarka 4 | 3 | 0 | 4 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Bakarka 5 | 2 | 1 | 3 |
| Orotara | **29** | **10** | **33** |

Bakarka 1eko ipuinetan bederatzi pertsonaien nortasuna zehaztua da. Pertsonaia nagusienak dira. Bost pertsonaia femeninoen nortasuna zehaztua da (%42) eta sei pertsonaia maskulinoena (%35,3). Lau pertsonaia femeninoek nortasun orokor baten ezaugarriak dituzte eta batek ezaugarri femeninoak ditu. Aldiz, bost pertsonaia maskulinoek ezaugarri maskulinoak dituzte eta batek ezaugarri orokor bat du. Pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarri maskulinorik eta pertsonaia maskulinoek ez dute ezaugarri femeninorik.

Bakarka 2n pertsonaia nagusi guztien nortasuna ez da zehaztua eta pertsonaia batzuek elementu ezberdinak dituzte. Gizonen ezaugarrietan, gerla zaletasuna, borrokalari, futbol zaletasuna, trufati, alferra, lapurra... agertzen dira. Emazteen nortasunean, negartiak, tristeak, diru zaleak (bi aldiz), gizon zaleak elementu batzuk dira. Guztira, 28 nortasun adierazle daude. Horietarik bederatzi neutroak, zazpi femeninoak eta 13 maskulinoak dira.

Bakarka 3n sei pertsonaia femeninoen artean, lauk nortasun marka bat dute, pertsonaien %66,66 dira. Haien artean erdiak nortasunaren ezaugarri maskulinoak dituzte eta besteak nortasun neutroa dute, bi generoei lotzen zaizkien ezaugarriak dira. 22 pertsonaia maskulinoen artean, 15 nortasun ezaugarriak dituzte. Haien artean, bederatzik nortasun neutro bat dute eta seik nortasun maskulinoa. Orduan nortasun duten pertsonaia maskulinoen %60 nortasun orokorra eta pertsonaia maskulinoen %30 nortasun maskulinoa dute. Pertsonaia maskulino eta femeninoen artean ez da ezaugarri femeninorik atzeman nortasunaren aldetik. Orotara, pertsonaia guztien artean, 11k (%57,89) nortasun neutroa eta zortzik (%42,11) nortasun maskulinoa dute.

Bakarka 4n, nortasunak oso gutxi aipatuak dira. Guztira zortzi elementu dira, baina bat pertsonaia neutro bati lotua zen. Lehenik, testuliburu honetan ez da pertsonaia femeninoen nortasun markarik atzeman. Pertsonaia maskulinoen artean, ez du inork nortasun ezaugarri femeninorik, hiruk neutroa dute eta lauk maskulinoa. Orotara pertsonaien %57,14k nortasuna maskulinoa dute, %42,86k neutroa. Ez da nortasun marka femeninorik agertzen.

Bakarka 5eko lau pertsonaia femeninoen artean, bik nortasun marka bat dute. 12 pertsonaia maskulinoentzat, seik nortasun marka bat dute. Pertsonaia femeninoen %50k nortasun neutro bat dute eta %50k nortasun femeninoa (denda zalea). Ez du inork nortasun maskulino ezaugarririk. Pertsonaia maskulinoen %33,34k nortasun neutroa dute, %16,67k nortasun femeninoa dute (negar egin) eta

%50k nortasun maskulinoa dute (ausarta, bi aldiz etortzen da). Nortasun guztien artean, gehien agertzen direnak, nortasun neutroa eta maskulinoa dira %37,5 bakoitzarentzat. %25k nortasun femeninoa dute.




**Irudia 60: Pertsonaia femeninoen nortasuna Bakarka testuliburuan**




**Irudia 61: Pertsonaia maskulinoen nortasuna Bakarka testuliburuan**

Bakarka sailean, pertsonaia femeninoen nortasuna bereziki femeninoa da. Gero orokorra eta maskulinoa da. Pertsonaia maskulinoen nortasuna nagusiki maskulinoa da. Ondotik nortasun orokorra dute eta proportzio apal batean nortasun femeninoa dute.

### 2.1.2 Arian

**Taula 37: Nortasuna Arian testuliburuan**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **8** | **1** | **1** |
| Arian A1. A2 | 2 | 1 | 0 |
| Arian B1.1 | 5 | | 1 |
| Arian B1.2 | 0 | 0 | 0 |
| Arian B2.1 | 0 | 0 | 0 |
| Arian B2.2 | 1 | 0 | 0 |
| Pertsonaia maskulinoak | **15** | **4** | **4** |
| Arian A1. A2 | 3 | 1 | 1 |
| Arian B1.1 | 5 | 1 | 1 |
| Arian B1.2 | 6 | 1 | 1 |
| Arian B2.1 | | | 1 |
| Arian B2.2 | 1 | 1 | |
| Orotara | **23** | **5** | **5** |

Arian A1.A2-n pertsonaia femenino nagusientzat, hiru ezaugarri atzeman dira. Sei pertsonaia maskulino nagusientzat, bost elementu agertu dira. Pertsonaia femeninoen %66,66 nortasun neutro bat dute eta %33,34 nortasun femeninoa. Pertsonaia femeninoek ez dute nortasun maskulinorik. Pertsonaia maskulinoen %60 nortasun neutroa dute, %16,66 femeninoa eta %16,66 maskulinoa dute. Orotara, nortasun neutroak %62,5 osatzen du, nortasun femeninoak %25 eta maskulinoak %20.

Zazpi pertsonaia femenino eta zazpi pertsonaia maskulinoek nortasun ezaugarri bat dute Arian B1.1en, pertsonaia maskulinoen %71,42k nortasun neutroa dute, %14,28k femeninoa eta %14,28k maskulinoa dute. Pertsonaia femeninoen emaitzak berdinak dira, %71,42k nortasun neutroa dute, %14,28k femeninoa eta %14,28k maskulinoa dute.

Arian B1.2n, %85,74 pertsonaiek nortasun neutroa dute. Guztira sei pertsonaia femeninoek eta pertsonaia maskulinoek nortasun neutroa dute. Pertsonaia femeninoen %100k nortasun neutroa dute. Ez da nortasun femenino edo maskulinorik.

Sei pertsonaia maskulinoek nortasun neutroa dute Arian B2.1en, batek femeninoa (dantza zalea) eta batek maskulinoa (zientzia zalea). Pertsonaia maskulinoen %75k nortasun neutroa %12,5k nortasun femeninoa eta %12,5k nortasun maskulinoa dute.

Bi pertsonaien nortasuna atzemana izana da Arian B2.2. Pertsonaia maskulino batena eta pertsonaia femenino batena. Pertsonaia femeninoen %100 nortasun femeninoa dute eta pertsonaia maskulinoen %100 nortasun maskulinoa.




**Irudia 62: Pertsonaia femeninoen nortasuna Arian testuliburuan**




**Irudia 63: Pertsonaia maskulinoen nortasuna Arian testuliburuan**

Arian sailean, pertsonaia femeninoen nortasuna nagusiki orokorra da. Ez dute ezaugarri maskulinorik Arian B1.1 testuliburuan aparte. Ezaugarri femeninoak Arian A1 eta B1.1 sailean bakarrik agertzen dira. Pertsonaia maskulinoen aldetik ere, nortasun ezaugarri nagusia orokorra da.

Baina, elementu maskulinoak eta femeninoak agertzen dira manera orekatuan, lau elementu bakoitzarentzat. Ezaugarri orokorrak 14 dira guztira. Pertsonaia maskulinoek informazio gehiago dituzte haien nortasunari buruz.

### 2.1.3 Goazen

**Taula 38: Nortasuna Goazen testuliburuan**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **5** | **3** | **0** |
| Goazen 1 | 1 | 0 | 0 |
| Goazen 2 | 3 | 2 | 0 |
| Goazen 3 | 1 | 1 | 0 |
| Goazen 4 | 0 | 0 | 0 |
| Pertsonaia maskulinoak | **10** | **2** | **8** |
| Goazen 1 | 1 | 1 | 1 |
| Goazen 2 | 3 | 1 | 1 |
| Goazen 3 | 1 | 0 | 1 |
| Goazen 4 | 6 | 0 | 5 |
| Orotara | **15** | **5** | **8** |

Goazen 1en, 24 pertsonaia nagusien artean, lau nortasun ezaugarri atzeman dira. Hiru pertsonaia maskulinoek dituzte, %75 dira eta %25 pertsonaia femeninok. Pertsonaia femeninoen %100 nortasun ezaugarria neutroa da. Pertsonaia maskulinoen %33,34 nortasuna neutroa dute %33,33 femeninoa eta %33,33 maskulinoa dute.

Goazen 2n, hamar pertsonaia nagusik nortasun adierazgarri bat dute. Nortasun ezaugarri neutroak %40, femeninoa %40 eta maskulinoa %20 dira. Pertsonaia femeninoek, nagusiki ezaugarri neutroa %40 eta femeninoa %40 dute. Ondotik maskulinoa %20 da. Emaitza berdinak agertzen dira pertsonaia maskulinoentzat: neutroa %40 eta femeninoa %40, maskulinoa %20 dute.

Aldiz, bi ohar gehitu behar dira: Lehenik, *printzesa ederrak* ipuinean, mutikoak, Enekok, printze batek neska askatzea kritikatzen du erranez printzesak ez duela inor itxoiteko beharrik. Ondotik, *Argazki-Safaria* ipuinean, pertsonaiek jarrera arrazista dutela azpimarratu behar da. Emazteak dio "*Gizon beltza, safariko gida oso ongi portatu zela haiekin*", eta beste pertsonaiak "*eta guztiak jator-jatorrak*" direla gehitzen du. Izaki zuriaren supremazia eta mesprezua adierazia dela salatu behar dugu.

Zazpi pertsonaia nagusien artean, lauk nortasun ezaugarriak dituzte Goazen 3n. Pertsonaien %50k nortasun neutroa, %25k nortasun femeninoa eta %25k nortasun maskulinoa dute. Pertsonaia femeninoen %50k nortasun femeninoa dute eta %50k neutroa dute, ez dute nortasun maskulinoen ezaugarririk. Pertsonaia maskulinoen %50k nortasun neutroa dute eta %50k nortasun maskulinoa dute, ez dute nortasun ezaugarri femeninorik.

Goazen 4en, hamaika pertsonaiek nortasun adierazgarri bat dute 18ren gain. Denak pertsonaia maskulinoak dira Pertsonaia maskulinoen %54,54k nortasun neutroa dute eta %45,46k nortasun ezaugarri maskulinoa dute. Ez da nortasun femenino ezaugarririk.




Irudia 64: Pertsonaia femeninoen nortasuna Goazen testuliburuan




Irudia 65: Pertsonaia maskulinoen nortasuna Goazen testuliburuan

Goazen sailean, pertsonaia femeninoen nortasuna nagusiki orokorra da (5). Ondotik femeninoa da (3). Ez da nortasun ezaugarri maskulinorik agertzen. Pertsonaia maskulinoen nortasun elementu nagusia orokorra (11) ondotik maskulinoa (8) eta bukatzeko, bi ezaugarri femenino dira.

### 2.1.4 Eki

**Taula 39: Nortasuna Eki testuliburuan**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **10** | **4** | **4** |
| Eki DBH1 | 3 | 2 | 2 |
| Eki DBH2 | 7 | 2 | 2 |
| Pertsonaia maskulinoak | **11** | **3** | **10** |
| Eki DBH1 | 3 | 2 | 6 |
| Eki DBH2 | 8 | 1 | 4 |
| Orotara | **21** | **7** | **14** |

Eki DBH1en, 23 pertsonaientzat, 18 ezaugarri atzeman ditugu. Ikusten ditugun zenbakien arabera, orokorrean, %44,44k nortasun adierazgarri nagusia maskulinoa dute. Ondotik, %33,33k nortasun neutroa dute eta %22,22k femeninoa dute. Gizonek ezaugarrien %61,11 dute eta emazteek %38,89 dira. Pertsonaia femeninoek, zazpi adierazgarri dituzte. Hiru neutro, %42,85, bi femenino %28,57 eta bi maskulino. Pertsonaia maskulinoen aldetik, 11 ezaugarri aurkitu ditugu. Hiru neutro (%27,27), bi femenino (%27,27) eta sei maskulino (%54,54).

Eki DBH2n, 31 pertsonaien artean, 24k nortasun ezaugarri bat dute. Nagusia neutroa da, %62,5. Ondotik, maskulinoa (%25) eta femeninoa (%12,5) dira. Pertsonaia femeninoen kasuan, 11 ezaugarri atzeman ditugu 12 pertsonaia nagusirentzat. Zazpik nortasun neutroa dute, %58,33 dira. Ondotik bik nortasun femeninoa (%18,18) eta beste bik (%18,18) maskulinoa dituzte. Pertsonaia maskulinoek, 13 ezaugarri dituzte 19 pertsonaientzat. Zortzik nortasun neutroa dute, %61,54 dira. %30,76 nortasun maskulinoa eta %7,69 nortasun femeninoa dute.




**Irudia 66: Pertsonaia femeninoen nortasuna Ekhi testuliburuan**




**Irudia 67: Pertsonaia maskulinoen nortasuna Ekhi testuliburuan**

Ekin pertsonaia femeninoek nortasun orokorra dute, zortzi dira. Ondotik, femeninoa eta maskulinoa dute ber mailan.

Orduan, Eki sailean pertsonaia femeninoek nortasun orokorra dute, ondotik femeninoa eta maskulinoa. Eki DBH1en nagusitzen den nortasun marka maskulinoa da sei elementurekin. Ondotik nortasun orokorra eta bukatzeko femeninoa da. Eki DBH2n, nortasun marka nagusia orokorra da. Ondotik maskulinoa da eta bukatzeko femeninoa. Ondorioz, nagusitzen den nortasun ezaugarria, orokorra da 11 elementurekin. Nortasun maskulinoak segitzen du hamar elementurekin eta bukatzeko nortasun marka femeninoa da hiru elementurekin.

### 2.1.5 Testuliburuen emaitzak: Nortasuna




**Irudia 68: Pertsonaia femeninoen nortasuna testuliburuetan**




**Irudia 69: Pertsonaia maskulinoen nortasuna testuliburuetan**

Lau testuliburuen sailen emaitzak aztertuz, neutraltasunak toki nagusi bat duela agertzen da. Pertsonaien nortasuna nagusiki orokorra da. Baina, xehetasunak begiratuz, pertsonaia femeninoen nortasun neutroa nagusitzeaz gain, ondotik nortasun femeninoa dute. Nortasun maskulinoa azkenik heldu da. Hemen, ezberdintasunak agertzen dira: testuliburuen arabera, ezaugarri maskulinoak ikusezinak (Goazen) edo azkenik etor daitezke (Bakarka). Aldiz, bi testuliburu multzoetan ezaugarri femeninoak eta maskulinoak berdintzen dira (Arian, Eki).

Pertsonaia maskulinoen kasuan, nortasun ezaugarri nagusiak neutroak dira. Aldiz Bakarka sailean ezaugarri maskulinoak nagusitzen dira. Arian testuliburuetan aparte, nortasun ezaugarri femeninoak beti azkenik agertzen dira. Orduan, nahiz eta nortasun neutroak nagusitasuna ukan, desorekak agertzen dira testuliburuen artean. Arian eta Eki sailak oreka bat proposatzen dute, aldiz, Bakarka eta Goazenek estereotipoak mantentzen dituzte.

## 2.2 Fisikoa

### 2.2.1 Bakarka




**Irudia 70: Pertsonaia femeninoen fisikoa Bakarka testuliburuan**




**Irudia 71: Pertsonaia maskulinoen fisikoa Bakarka testuliburuan**

**Taula 40: Fisikoa Bakarka testuliburuan**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **16** | **2** | **0** |
| Bakarka 1 | 6 | 2 | |
| Bakarka 2 | 3 | | |
| Bakarka 3 | 5 | | |
| Bakarka 4 | 2 | | |
| Bakarka 5 | | | |
| Pertsonaia maskulinoak | **31** | **3** | **9** |
| Bakarka 1 | 6 | | 3 |
| Bakarka 2 | 9 | 1 | 2 |
| Bakarka 3 | 9 | 1 | 3 |
| Bakarka 4 | 4 | | |
| Bakarka 5 | 3 | 1 | 1 |
| Orotara | **47** | **5** | **9** |

Bakarka 1en, 17 pertsonaiek ezaugarri fisikoak dituzte eta nagusiki pertsonaia nagusiak dira (bi bigarren planokoak dira, eta 15 nagusiak). Beraz, pertsonaia femenino nagusien %58k ezaugarri fisiko bat dute. Haietariko %28,5ren kasuan, haien generoari lotua da. Ber maneran, %47 pertsonaia maskulino nagusiek ezaugarri fisiko bat dute eta %60en kasuan, haien generoari lotua da. Bukatzeko, pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarri fisiko maskulinorik eta pertsonaia maskulinoek ez dute ezaugarri femeninorik.

Bakarka 2n, 13 pertsonaiek ezaugarri fisiko neutro bat dute, %76,48 osatzen dute, bik ezaugarri fisiko femeninoa %11,76 dute.

Bakarka 3n 14 ezaugarri fisiko neutroak dira, %77,77 osatzen dute. Pertsonaia femeninoek bost ezaugarri fisiko dituzte, denak neutroak dira. Pertsonaia maskulinoek 13 ezaugarri fisiko dituzte. Bederatzi neutro (%64,2), femenino bat (%7,69) eta hiru maskulino (%23,07) dira.

Bakarka 4en sei ezaugarri fisiko agertzen dira eta haien artean bosten adina da, ezaugarri neutroa bezala adierazia da. Ez da ezaugarri maskulinorik edo femeninorik.

Bakarka 5en pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarri fisikorik. Pertsonaia maskulino nagusientzat, bost ezaugarri atzeman ditugu: hiru neutro (%60), bat femeninoa (%20) eta bat

maskulinoa (%20).




**Irudia 72: pertsonaia maskulinoen fisikoa Bakarka testuliburuan**




**Irudia 73: Pertsonaia femeninoen fisikoa Bakarka testuliburuan**

Bakarkan pertsonaia femeninoen ezaugarri fisiko nagusiak neutroak dira. Bakarka 1 eta 2n ezaugarri fisiko femeninoak agertzen dira. Emazteek ez dute ezaugarri fisiko maskulinorik. Pertsonaia maskulinoek nagusiki ezaugarri neutroak dituzte Bakarka sailean. Pertsonaia femeninoentzat ez bezala, ezaugarri fisiko maskulinoek ikusgarritasun gehiago dute. Pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarri fisiko maskulinorik salbu Bakarka 4en. Gizonek ezaugarri fisiko femeninoak dituzte, Bakarka 2, 3 eta 5etan. Ezaugarri fisiko neutroak bi kasuetan nagusitzen dira.

### 2.2.2. Arian




**Irudia 74: Pertsonaia femeninoen fisikoa Arian testuliburuan**




**Irudia 75: Pertsonaia maskulinoen fisikoa Arian testuliburu**

**Taula 41: Fisikoa Arian testuliburuan**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|

| | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **7** | **5** | **1** |
| Arian A1. A2 | 5 | 5 | 1 |
| Arian B1.1 | 1 | | |
| Arian B1.2 | | | |
| Arian B2.1 | | | |
| Arian B2.2 | 1 | | |
| Pertsonaia maskulinoak | **10** | **0** | **1** |
| Arian A1. A2 | 3 | | |
| Arian B1.1 | 3 | | |
| Arian B1.2 | | | 1 |
| Arian B2.1 | 2 | | |
| Arian B2.2 | 2 | | |
| Orotara | **17** | **5** | **2** |

Arian A.1 A2ko pertsonaia femeninoen %45,45k ezaugarri neutroa dute eta %45,45k nortasun femeninoa. %9,09k ezaugarri maskulinoa dute. Pertsonaia maskulinoen kasuan, ezaugarri fisiko guztiak neutroak dira. Orotara, 14 ezaugarri badira eta zortzi neutroak dira (%57,14), bost femeninoak (%35,71) eta bat (%7,14) maskulinoa da.

Arian B1.1 sailean, bi elementu fisiko dira: bat pertsonaia femenino batentzat eta beste bat pertsonaia maskulino batentzat. Ezaugarri neutroak dira. Ez da ezaugarri fisiko femenino edo maskulinorik.

Arian B1.2n ezaugarri fisiko maskulino bat baizik ez dugu atzeman eta pertsonaia maskulino batena da.

Arian B2.1n, bi ezaugarri fisiko badira. Pertsonaia maskulinoen ezaugarri fisikoen %50 maskulinoak dira eta %50 neutroak dira. Pertsonaia femeninoek ez dute informazio fisikorik.

Arian B2.2n, hiru ezaugarri fisiko agertu dira eta denak neutroak dira. Pertsonaia femeninoen %33,33k informazio fisiko bat dute eta pertsonaia maskulinoen %40k. Bigarren mailako pertsonaiek ez dute informazio fisikorik.




**Irudia 76: Pertsonaia femeninoen fisikoa Arian testuliburuan**




**Irudia 77: Pertsonaia maskulinoen fisikoa Arian testuliburuan**

Pertsonaia femeninoen ezaugarri fisiko nagusiak neutroak dira Arian sailean. Ezaugarri fisiko femeninoek segitzen dute bost ezaugarrirekin. Bukatzeko, ezaugarri fisiko maskulino bat agertzen da. Pertsonaia maskulinoen kasuan, ezaugarri fisiko nagusiak neutroak dira. Ezaugarri fisiko maskulino bat baizik ez da agertzen eta ez da ezaugarri fisiko femeninorik.

2.2.3 Goazen




**Irudia 78: Pertsonaia femeninoen fisikoa Goazen testuliburuan**




**Irudia 79: Pertsonaia maskulinoen fisikoa Goazen testuliburuan**

**Taula 42: Fisikoa Goazenen**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **1** | **1** | |
| Goazen 1 | 1 | 1 | |
| Goazen 2 | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Goazen 3 | | | |
| Goazen 4 | | | |
| Pertsonaia maskulinoak | **1** | | **2** |
| Goazen 1 | | | |
| Goazen 2 | | | |
| Goazen 3 | | | |
| Goazen 4 | 1 | | 2 |
| Orotara | **2** | **1** | **2** |

Bi elementu fisiko izan dira Goazen 1en. Biak pertsonaia femeninoei lotuak dira. Lehena neutroa da eta bestea femeninoa da. Ez da elementu fisiko maskulinorik agertzen. Pertsonaia maskulinoek ez dute ezaugarri fisikorik.

Goazen 4en pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarririk. Aldiz pertsonaia maskulinoentzat hiru badira: ezaugarri neutro bat, eta beste bi maskulino dira. Pertsonaien %66,6k ezaugarri fisiko maskulino bat dute eta %33,34k neutroa. Ez du inork ezaugarri fisiko femeninorik.




**Irudia 80: Pertsonaia femeninoen fisikoa Goazen testuliburuan**




**Irudia 81: pertsonaia maskulinoen fisikoa Goazen testuliburuan**

Pertsonaia femeninoen ezaugarri fisiko nagusiak neutroak dira. Ondotik femeninoak dira. Ez da ezaugarri fisiko maskulinorik agertzen. Ezaugarri fisiko nagusiak maskulinoak dira, ondotik ezaugarri fisiko neutro bat bada. Ez da ezaugarri fisiko femeninorik.

2.2.4 Eki




**Irudia 82: Pertsonaia femeninoen fisikoa Eki testuliburuan**




**Irudia 83: Pertsonaia maskulinoen fisikoa Eki testuliburuan**

**Taula 43: Pertsonaia femeninoen fisikoa Eki testuliburuan**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **3** | **0** | **0** |
| Eki DBH1 | | | |
| Eki DBH2 | 3 | | |
| Pertsonaia maskulinoak | **5** | **0** | **2** |
| Eki DBH1 | 1 | | 2 |
| Eki DBH2 | 4 | | |
| Orotara | **8** | **0** | **2** |

EKI DBH1en pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarri fisikorik. Pertsonaia maskulinoek hiru dituzte. Pertsonaien %66,67k ezaugarri maskulinoak eta %33,33k neutroak dituzte. Ez du inork ezaugarri femeninorik.

EKI DBH2n pertsonaia femenino nagusien %25k ezaugarri bat badu eta pertsonaia maskulinoen %21,05k. Pertsonaia nagusi guztien %22,58k adierazle fisiko bat badu. Informazio guztiak neutroak dira, ez da ezaugarri femenino edo maskulinorik agertzen.




**Irudia 84: Pertsonaia femeninoen fisikoa Eki testuliburuan**




**Irudia 85: Pertsonaia maskulinoen fisikoa Eki testuliburuan**

Eki saileko pertsonaia femenino guztiek ezaugarri fisiko neutroak dituzte, hiru ezaugarri dira. Ez da ezaugarri maskulino edo femeninorik. Eki saileko pertsonaia maskulinoen ezaugarri fisiko nagusiak neutroak dira, bost ezaugarri dituzte. Beste bi ezaugarri fisiko maskulino dituzte. Ez dute ezaugarri fisiko femeninorik.

### 2.2.5 Testuliburuen emaitzak: Fisikoa




**Irudia 86: Pertsonaia femeninoen fisikoa testuliburuetan**




**Irudia 87: Grafiko 59: Pertsonaia maskulinoen fisikoa testuliburuetan**

Testuliburu corpuseko ezaugarri fisikoak aztertuz, ezaugarri gutxi agertzen dira. Orokorrean, nagusitzen direnak neutroak dira pertsonaia maskulino eta femeninoentzat. Pertsonaia femeninoen kasuan, testuliburu guztietan ezaugarri fisiko femeninoak agertzen dira Eki sailean aparte. Aldiz, ezaugarri maskulinoak Arian sailean baizik ez dira agertzen.

Pertsonaia maskulinoen kasuan, ohar berdina egin daiteke: testuliburu sail guztietan ezaugarri maskulinoak agertzen dira. Bakarka sailean ezaugarri femeninoak dituzte. Orduan, fisikoa nagusiki neutroa da baina pertsonaien ezaugarriak haien genero estereotipoekin bat egiten dute. Nortasun

ezaugarriei konparatuz, fisikoarenak estereotipatuagoak dira testuliburu guztietan.

## 2.3 Guneak

### 2.3.1 Bakarka




**Irudia 88: Guneak Bakarka testuliburuan**

**Taula 44: Guneak Bakarka testuliburuan**

| Guneak | Etxea | Saltegia | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo | Ezezaguna |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Maskulino | 22 | 7 | 10 | 14 | 26 | 51 | 12 |
| Femenino | 16 | 5 | | 7 | 14 | 13 | 8 |

Pertsonaia maskulinoak batez ere kanpoan kokatzen dira. Ondotik, beste barneetan edo etxean dira. Gero, lanean eta gune ezezagunetan dira. Bukatzeko, tabernan eta saltegian dira. Pertsonaia femeninoak, gehienak etxean kokatzen dira. Ondotik beste barne batean eta kanpoan dira. Segitzeko, gune ezezagun baten, lanean edo saltegian dira. Ez da emazterik tabernan kokatzen. Bi taldeen artean, proportzioan gizon gehiago kanpoan kokatzen dira eta emazte gehiago etxean eta barneetan dira. Ber maneran, emazte gehiago saltegian dira gizonak baino, baina emazte gehiago lanean dira gizonei konparatuz.

### 2.3.2 Arian




**Irudia 89: Guneak Arian testuliburuan**

**Taula 45: Guneak Arian testuliburuan**

| Guneak | Etxea | Saltegia | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo | Ezezaguna |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Maskulino | 4 | | | 3 | 2 | 6 | 9 |
| Femenino | 2 | | | | 1 | 6 | 13 |

Pertsonaia maskulino gehienak gune ezezagunetan dira. Ondotik, kanpoan dira gero etxean, lanean eta bukatzeko beste barne batean dira. Ez da inor taberna edo saltegian kokatzen. Pertsonaia femenino gehienak gune ezezagunetan kokatzen dira, ondotik kanpoan, gero etxean eta bukatzeko beste barne batean dira. Ez da inor lanean, saltegian edo tabernan kokatua.

### 2.3.3 Goazen




**Irudia 90: Guneak Goazen testuliburuan**

**Taula 46: Guneak Goazen testuliburuan**

| Guneak | Etxea | Saltegia | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo | Ezezaguna |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Maskulino | 4 | | | 3 | 2 | 6 | 9 |
| Femenino | 2 | | | | 1 | 6 | 13 |

Pertsonaia maskulino gehienak gune ezezagunetan kokatzen dira. Ondotik kanpoan eta lanean dira. Segitzeko, etxean, beste barne batean eta tabernan dira. Ez da inor saltegian. Pertsonaia femenino gehienak etxean dira. Ondotik kanpoan dira, gero beste barne batean eta bukatzeko lanean dira. Ez da inor saltegi, taberna edo lanean.

### 2.3.4 Eki




**Irudia 91: Guneak Eki testuliburuan**

**Taula 47: Guneak Eki testuliburuan**

| Guneak | Etxea | Saltegia | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo | Ezezaguna |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Maskulino | 3 | 1 | | 1 | 3 | 1 | 13 |
| Femenino | 2 | 1 | | 1 | 3 | 4 | 20 |

Orokorrean gune ezezaguna nagusitzen da, batez ere, pertsonaia femeninoentzat. Bigarrenik beste barnea agertzen da. Ondotik kanpoa eta etxea ikusten ditugu. Bukatzeko saltegia eta lana dira. Ez da inor tabernan Eki sailean. Pertsonaia maskulinoak nagusiki gune ezezagunetan dira. Ondotik etxean edo beste barne batean. Bukatzeko saltegian, lanean edo kanpoan dira. Ez da inor tabernan.

### 2.3.5 Testuliburuen emaitzak: Gunea




**Irudia 92: Pertsonaia femeninoen guneak testuliburuetan**




**Irudia 93: Pertsonaia maskulinoen guneak testuliburuetan**

Nagusitzen den gunea, ezezaguna da pertsonaia guztientzat. Ondotik, desberdintasunak agertzen dira testuliburuen arabera. Pertsonaia maskulinoak Bakarkan, Arian eta Goazenen kanpoan nagusitzen dira. Etxea, beste barneak eta lana ondotik agertzen dira. Taberna, saltegiak ez dira testuliburu guztietan. Aldiz, pertsonaia femeninoak etxean nagusitzen dira Bakarka sailean. Ondotik kanpoan kokatzen dira. Lana eta saltegiak Eki eta Bakarka sailean agertzen dira. Beste barneak testuliburu guztietan agertzen baldin badira, ez da pertsonaia femeninorik tabernan kokatzen.

Orduan, gune ezezagun asko agertzen baldin badira, kanpoaldea, etxea eta beste barnak maiz aipatuak dira. Pertsonaia maskulinoak batez ere kanpoan kokatzen dira, pertsonaia femeninoak etxean eta kanpoan dira. Lana testuliburu guztietan agertzen da pertsonaia maskulinoentzat. Saltegia eta lantokia kopurua orekatuan adierazia da pertsonaia femeninoentzat. Kontsumo guneetan pertsonaia femeninoak nagusitzen dira. Taberna pertsonaia maskulinoen tokia da. Hemen, testuliburu estereotipatuenak Bakarka, Arian eta Goazen dira. Ekik pertsonaien tratamenduan oreka handiena proposatzen du.

## 2.4 Izena

### 2.4.1 Bakarka

**Taula 48: Izena Bakarka testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak |
|---|---|---|
| Pertsonaia nagusiak | **61** | **16** |
| Bakarka 1 | 14 | 1 |
| Bakarka 2 | 9 | 7 |
| Bakarka 3 | 12 | 4 |
| Bakarka 4 | 17 | 1 |

| | | |
|---|---|---|
| Bakarka 5 | 9 | 3 |
| Bigarren mailako pertsonaiak | **23** | **8** |
| Bakarka 1 | 11 | 4 |
| Bakarka 2 | 4 | 1 |
| Bakarka 3 | 7 | 1 |
| Bakarka 4 | | 1 |
| Bakarka 5 | 1 | 1 |
| Orotara | **84** | **24** |

Bakarka saileko pertsonaia femenino nagusien %34,78k izen bat dauka. Bigarren mailako pertsonaien %21k izen bat du. Bakarka saileko pertsonaia maskulino nagusien %63,5k izen bat badute. Bigarren mailako pertsonaien %50k izen bat badute. Pertsonaia nagusiek bigarren mailako pertsonaiek baino izen gehiago dituzte. Pertsonaia nagusiak balorean emanak dira haien izenen bidez.

2.4.2 Arian

**Taula 49: Izena Arian testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak |
|---|---|---|
| Pertsonaia nagusiak | **35** | **31** |
| Arian A1. A2 | 5 | 6 |
| Arian B1.1 | 16 | 16 |
| Arian B1.2 | 9 | 8 |
| Arian B2.1 | 1 | 1 |
| Arian B2.2 | 4 | 0 |
| Bigarren mailako pertsonaiak | **1** | **1** |
| Arian A1. A2 | | |
| Arian B1.1 | | |
| Arian B1.2 | | |
| Arian B2.1 | | |
| Arian B2.2 | 1 | 1 |
| Orotara | | |

Arian sailean 31 pertsonaia femeninok izen bat badute. Bigarren mailako sei pertsonaia femenino dira eta batek izen bat du. 35 pertsonaia maskulino nagusiek eta bigarren mailako pertsonaia batek izen bat dute. Orokorrean, pertsonaia nagusi gehienek izen bat dute baina bigarren mailako pertsonaia gehienek ez dute izenik.

### 2.4.3 Goazen

**Taula 50: Izena Goazen testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak |
|---|---|---|
| Pertsonaia nagusiak | **20** | **11** |
| Goazen 1 | 2 | 3 |
| Goazen 2 | 5 | 5 |
| Goazen 3 | 3 | 2 |
| Goazen 4 | 10 | 1 |
| Bigarren mailako pertsonaiak | **3** | **3** |
| Goazen 1 | 0 | 1 |
| Goazen 2 | 1 | 0 |
| Goazen 3 | 1 | 0 |
| Goazen 4 | 1 | 2 |
| Orotara | **23** | **14** |

37 pertsonaia nagusi maskulinoen artean, 20ek izen bat dute. 14 bigarren mailako pertsonaia maskulinoen artean, hiruk izen bat dute. Goazen saileko 15 pertsonaia femenino nagusien artean, 11k izen bat dute. Zortzi bigarren mailako pertsonaien artean, hiruk izen bat dute. Orduan, pertsonaia maskulinoek pertsonaia femeninoek baino izen gehiago dituzte. Aldiz pertsonaia femeninoek gizonek baino izen gehiago dituzte, pertsonaia nagusi eta bigarren mailako pertsonaien kasuan. Pertsonaia nagusiek bigarren mailako pertsonaiek baino izen gehiago dituzte.

### 2.4.4 Eki

**Taula 51: Izena Eki testuliburuan**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak |
|---|---|---|
| Pertsonaia nagusiak | **19** | **20** |
| Eki DBH1 | 7 | 9 |
| Eki DBH2 | 12 | 11 |
| Bigarren mailako pertsonaiak | **4** | **6** |
| Eki DBH1 | | |
| Eki DBH2 | 4 | 6 |
| Orotara | **23** | **26** |

19 pertsonaia nagusi maskulinoek eta 20 pertsonaia nagusi femeninoek izen bat dute. Bigarren

mailako lau pertsonaia maskulinoek eta sei pertsonaia femeninoek izen bat dute. Orotara pertsonaia femeninoek pertsonaia maskulinoek baino izen gehiago dituzte. Pertsonaia nagusiek bigarren mailako pertsonaiek baino izen gehiago dituzte.

### 2.4.5 Testuliburuen emaitzak: Izena




**Irudia 94: Pertsonaien izena testuliburuetan**

Pertsonaia guztien artean, gehien izendatuak diren pertsonaiak maskulinoak dira Eki sailean aparte. Nahiz eta Arian sailean orekatik hurbil izan, Bakarka eta Goazen sailek ezberdintasun handiago bat erakusten dute. Orokorrean, pertsonaia maskulinoa femeninoa baino zainduagoa eta landuagoa dela agertzen da.

## 2.5 Akzioak

### 2.5.1 Bakarka




**Irudia 95: Akzioak Bakarka testuliburuan**




**Irudia 96: Pertsonaia femeninoen akzioak Bakarka testuliburuan**




**Irudia 97: Pertsonaia maskulinoen akzioak Bakarka testuliburuan**

Bakarka 1en, orotara 24 akzio mugimenduan dira. 18, (akzioen %50) pertsonaia maskulinoek egiten dituzte eta sei pertsonaia femeninoek (akzioen %18,6). Gelditasunean 12 akzio badira, pertsonaia femeninoek %50a eta pertsonaia maskulinoek %50a egiten dute. Orotara, 36 akzio badira. Pertsonaia femeninoek akzio guztien %33,3a egiten dituzte eta horien erdian geldiak diren akzioak nagusitzen dira (%16,6). Gizonen akzioen %50en mugimenduan dira.

45 akzio dira Bakarka 2n. Pertsonaia batek akzio desberdinak egiten ahal ditu. 27 akzio mugimenduan eta 18 geldiak dira. Mugimenduan diren akzioen %77,78 pertsonaia maskulinoek egiten dituzte eta femeninoek %22,22. Aldiz, geldiak diren akzioen %44,45 pertsonaia maskulinoek eta %55,55 femeninoek egiten dituzte. Pertsonaia femeninoen akzioen %62,5 geldiak dira. Pertsonaia maskulinoek %72,41 mugimenduan diren akzioak egiten dituzte.

Bakarka 3n, 34 akzio daude. 29 akzio mugimenduan eta bost geldiak dira. Pertsonaia maskulinoek 26 akzio osatzen dituzte, pertsonaia maskulinoen %63,41 dira. Zortzi pertsonaia

femeninoek akzioak egiten dituzte, pertsonaia femeninoen %72 dira.

Mugimenduan diren akzioak 29 dira. 24 maskulinoek eta bost femeninoek egiten dituzte. Akzioak egiten dituzten pertsonaia maskulinoen artean, %92,3 mugimenduan dira. Akzioak egiten dituzten pertsonaia femeninoen artean, %62,5 mugimenduan dira. Bi kasuetan, mugimenduan eta iniziatibak hartuak diren akzioak nagusitzen dira, baina pertsonaia femenino guztien artean, %27,27k ez dute mugimenduko akziorik egiten eta pertsonaia maskulinoen %4,8k ez.

26 akzioen artean, 21 mugimenduan dira, beraz bost geldiak dira Bakarka 4en. Mugimenduan diren akzioen artean, 18 pertsonaia maskulinoek egiten dituzte eta hiru femeninoek. Bestalde, bost akzio pasibo badira. Lau pertsonaia maskulinoek egiten dituzte eta bat pertsonaia femeninoak. Pertsonaia maskulinoek akzio pasiboen %80 egiten dute, femeninoek %20. 22 gizonek akzio bat egiten dute. %81,81k mugimenduan diren akzioak dira. Pertsonaia femeninoek aldetik, %75ak mugimenduan den akzio bat egiten dute.

Bakarka 5en, 19 pertsonaien artean, zortzik mugimenduan den akzio bat egiten dute eta 11 geldirik egoten dira. Pertsonaia maskulinoak mugimenduan, pertsonaien %36,8 osatzen dute, pertsonaia femeninoak mugimenduan %5,26 osatzen dute. Halaber, gizonak gelditasunean %36,8 osatzen dute eta emazteek %21,05. Maskulinoen erdiak mugimenduan den akzio bat egiten du eta bestea geldia da. Pertsonaia femeninoen aldetik, %20k mugimenduan den akzio bat egiten du eta %80 geldirik egoten da.

Pertsonaia maskulinoek 111 akzio egiten dituzte. 84 akzio mugimenduan dira eta 27 geldiak dira. Bakarka 5ean aparte, haien akzioen gehiengoa mugimenduan da. Pertsonaia femeninoek 44 akzio egiten dituzte. 21 akzio mugimenduan dira eta 23 geldiak dira. Bakarka 1en, mugimendu eta gelditasunean diren akzioak berdinak dira. Bakarka 2 eta 5ean, gelditasuna, pasibotasuna nagusitzen dira eta Bakarka 3 eta 4ean mugimendua nagusitzen da.

### 2.5.2 Arian




**Irudia 98: Akzioak Arian testuliburuan**




**Irudia 99: Pertsonaia femeninoen akzioak Arian testuliburuan**




**Irudia 100: Pertsonaia maskulinoen akzioak Arian testuliburuan**

Zortzi akzio atzemanak izan dira Arian A1 eta A2ren artean. Bost geldiak (%62,5) eta hiru mugimenduan dira, (%37,5). Pertsonaia maskulinoek, sei akzio egiten dituzte, %75a dira. Haien akzioen %66,66 geldiak eta %33,34 mugimenduan dira. Bestalde, pertsonaia femeninoek bi akzio egiten dituzte, akzioen %25 dira. Haien artean, bat mugimenduan da eta bestea geldia da.

Arian B1.1n orotara 16 akzio atzemanak izan dira pertsonaia maskulinoentzat eta beste 16 pertsonaia femeninoentzat. Denak geldiak dira.

Arian B1.2n bederatzi akzio dira pertsonaia maskulinoentzat eta zortzi pertsonaia femeninoentzat, denak geldiak dira. Pertsonaia maskulinoek akzioen %52,94 egiten dituzte eta femeninoek %47,06.

Arian B2.1n, lau pertsonaiek mugimenduan diren akzioak egiten dituzte eta pertsonaia batek geldia den akzio bat egiten du. Mugimenduak %80 osatzen du da eta gelditasunak %20. Hiru

pertsonaia maskulinoek eta bi pertsonaia femeninoek akzioak egiten dituzte. Pertsonaia maskulinoen %100k mugimenduan diren akzioak egiten dituzte eta femeninoen %50k. Pertsonaia femeninoek akzio geldien %50, mugimenduan diren akzioen %25 eta geldiak diren akzioen %100 egiten dituzte.

Arian B2.2-ko zortzi pertsonaia nagusien artean, lauk mugimenduan den akzio bat egiten dute eta beste lauk akzio geldi bat. Pertsonaia maskulinoen artean, hiruk (%60) mugimenduan den akzio bat egiten dute eta bik (%40) akzio geldia. Pertsonaia femeninoen artean, batek (%33,33) mugimenduan den akzio bat egiten du eta bik (%66,67) akzio geldi bat egiten dute. Mugimenduan diren akzioen %75 pertsonaia maskulinoek egiten dituzte eta %25 femeninoek. Geldian diren akzioen erdia pertsonaia maskulinoek egiten dituzte eta beste erdia femeninoek.

Pertsonaia maskulinoek 39 akzio egiten dituzte. 31 akzio mugimenduan dira eta 8 geldiak dira. Pertsonaia femeninoek 31 akzio egiten dituzte. 28 geldiak dira eta hiru mugimenduan dira. Orotara, Arian saileko akzio gehienak geldiak dira. Gizonek mugimenduan diren akzio gehienak egiten dituzte.

### 2.5.3 Goazen




**Irudia 101: Akzioak Goazen testuliburuan**




**Irudia 103: Pertsonaia femeninoen akzioak Goazen testuliburuan**




**Irudia 102: Pertsonaia maskulinoen akzioak Goazen testuliburuan**

Guztira 13 akzio dira Goazen 1en. Mugimenduan diren akzioak %38,45 dira. Mugimenduan diren akzioen %60 pertsonaia femeninoek egiten dituzte eta pertsonaia maskulinoek %40. Geldiak diren akzioak %61,55 dira. Geldiak diren akzioen %37,5 pertsonaia femeninoek egiten dituzte eta pertsonaia maskulinoek %62,5 egiten dituzte.

Goazen 2n bost pertsonaiek mugimenduan diren akzioak egiten dituzte eta hiruk geldiak direnak. Pertsonaia maskulinoek egiten dituzten akzioen %60 mugimenduan eta %40 geldiak dira. Pertsonaia femeninoek egiten dituzten akzioen %50 mugimenduan eta %50 geldiak dira. Bestalde, mugimenduan diren akzioen %60 pertsonaia maskulinoek egiten dituzte eta femeninoek %40. Akzio geldien %66,66 pertsonaia femeninoek egiten dituzte eta maskulinoek %33,33.

Goazen 3n, pertsonaia nagusien akzioen %57,14 mugimenduan dira eta geldiak %42,86 dira. Lau pertsonaia maskulinoek mugimenduan diren akzioak egiten dituzte eta batek akzio geldi bat egiten du, %14,28 da. Bi pertsonaia femeninoen akzioak geldiak dira, %28,58 dira. Pertsonaia femeninoek ez dute mugimenduan diren akziorik egiten. Akzio geldien %66,67 pertsonaia femeninoek egiten dituzte eta mugimenduan diren akzioen %100 pertsonaia maskulinoek egiten dituzte.

Guztira14 akzio dira Goazen 4en. Bederatzi akzio (%64,28) geldiak dira eta bost (%35,71) mugimenduan dira. Pertsonaia maskulinoen akzioen %61,53 geldiak eta %38,46 mugimenduan dira. Pertsonaia femeninoen akzioen %100 geldiak dira. Mugimenduan diren akzioen %100 pertsonaia maskulinoek egiten dituzte. Geldiak diren akzioen %88,89 pertsonaia maskulinoek egiten dituzte eta pertsonaia femeninoek %11,11.

Pertsonaia maskulinoen akzioak 29 dira. 15 akzio geldiak dira eta 14 mugimenduan agertzen dira, Goazen sailean. Pertsonaia femeninoen aldetik 13 akzio agertzen dira. Bost akzio mugimenduan eta zortzi geldiak dira. Guztira, Goazen saileko akzio gehienak geldiak dira. Baina, pertsonaia maskulinoek pertsonaia femeninoek baino akzio gehiago egiten dituzte.

### 2.5.4 Eki




**Irudia 104: Akzioak Ekhi testuliburuan**




**Irudia 105: Pertsonaia femeninoen akzioak Eki testuliburuan**




**Irudia 106: Pertsonaia maskulinoen akzioak Goazen testuliburuan**

Eki 1ko bederatzi pertsonaia maskulinoen artean, zazpik (%77,78) mugimenduan den akzio bat egiten dute eta bik (%22,22) geldiak egiten dituzte. Zortzi pertsonaia femeninoen artean, hiruk (%37,5) mugimenduan den akzio bat egiten dute eta bostek (%62,5) akzio geldia egiten dute. Pertsonaia guztien artean, maskulinoek mugimenduan diren akzioen %70 eta femeninoek %30 egiten dituzte. Ondotik, maskulinoek akzio geldien %28,57 egiten dituzte eta femeninoek %71,42.

Eki 2n pertsonaia maskulinoek lau akzio mugimenduan egiten dituzte (%13,33) eta pertsonaia femeninoek bat (%3,33). Pertsonaia maskulinoen aldetik, akzio geldi guztien %36,67 egiten dituzte

eta femeninoen %46,66. Pertsonaia maskulinoen akzioen %73,33 geldiak dira eta %26,67 mugimenduan dira. Pertsonaia femeninoen akzioen %93,33 geldiak dira eta %6,67 mugimenduan dira.

Eki 1 sailean mugimenduan diren akzioak nagusitzen dira. Eki 2n, geldiak dira. Pertsonaia maskulinoek 11 akzio mugimenduan eta 13 geldi egiten dituzte. Akzio gehienak geldiak dira. Pertsonaia femeninoek 23 akzio egiten dituzte guztira. Haien artean, 19 geldiak dira eta lau mugimenduan. Guztira, Eki saileko akzio gehienak geldiak dira. Baina, pertsonaia femeninoek akzio geldi askoz gehiago egiten dituzte pertsonaia maskulinoei konparatuz.

### 2.5.5 Testuliburuen emaitzak: Akzioak




Irudia 107: Pertsonaia maskulinoen akzioak testuliburuetan




Irudia 108: Pertsonaia femeninoen akzioak testuliburuetan

Pertsonaien akzioak aztertzen direnean, orokorrean geldiak direla agertzen da. Pertsonaia maskulinoak mugimenduan aurreikusi baldin baziren, emaitzek hiru testuliburuetan nagusiki akzio geldiak egiten dituztela eta batez ere pasiboak direla adierazten dute. Goazen eta Eki sailetan oreka bat agertzen da. Aldiz Bakarka sailean mugimenduan diren akzioak nagusitzen dira pertsonaia maskulinoentzat. Pertsonaia femeninoen kasuan akzioak testuliburu sail guztietan geldiak dira. Hemen, pertsonaien arteko oreka handiena Bakarka sailean agertzen da eta ondotik Goazenen. Aldiz, zepo handi bat agertzen da Arian eta Eki sailetan. Hor, pertsonaia femeninoak batez ere pasiboak dira eta akzioak jasaten dituzte. Orduan pertsonaia maskulinoen akzioak femeninoenak baino orekatuagoak dira eta elementu estereotipatuenak pertsonaia femeninoen kasuan azaltzen dira.

## 2.6 Funtzio soziala

### 2.6.1 Bakarka

**Taula 52: Funtzio soziala Bakarka testuliburuan**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Perts femenino | 3 | 6 | 10 | 15 | 24 |
| Perts maskulino | 25 | 2 | 27 | 28 | 82 |




**Irudia 109: Pertsonaia femeninoen funtzio soziala Bakarka testuliburuan**




**Irudia 110: Pertsonaia femeninoen funtzio soziala Bakarka testuliburuan**

Bakarka 1en 30 funtzio sozial aipatuak dira. 12 pertsonaia femeninoei zuzentzen dira. Gehienetan haien lanari lotuak dira (%66,7) eta orokorrean haien lanbidea neutroa da (%71,4). Pertsonaia maskulinoek 18 funtzio sozial dituzte (%60). 14 aldiz haien lana aipatua da, eta lau aldiz familia. %77,7 kasutan, pertsonaia maskulinoak lanean dira. Zazpik lanbide neutro bat dute, batek lan femenino bat eta seik lanbide maskulinoak dituzte.

Bakarka 2n, pertsonaia femeninoen %54,54 haien familiaren arabera definituak dira. Bostek lanbide bat badute. Batek lanbide maskulino bat badu, bik lanbide femeninoak dituzte eta bik lanbide neutroa dute. Pertsonaia maskulinoen %19,04 haien familiaren arabera definituak dira. Zortzik lanbide maskulinoa dute eta bederatzik lanbide neutroa dute. Ez du inork lanbide femeninorik. Orotara, pertsonaien lanbideen %50 neutroa da, %40,90 maskulinoa eta %9,10 femeninoa da.

Bakarka 3n 23 funtzio sozial aipatuak dira. 20 erreferentzia lanari egiten dira eta hamar familiari. Pertsonaia femeninoen kasuan, hiru funtzio lanari lotuak dira. Pertsonaia maskulinoen kasuan, hamazazpi lanbide badira, hamaika maskulinoak dira eta sei neutro edo ez dira zehaztuak. Orduan, pertsonaia femeninoen %60 eta pertsonaia maskulinoen %70,83 haien lanaren arabera definituak dira. Pertsonaia maskulinoek ez dute lanbide femeninorik eta pertsonaia femeninoek ez dute lanbide maskulinorik. Ber maneran, pertsonaia femeninoen bi funtzio familiari lotuak dira eta

pertsonaia maskulinoen zortzi funtzio.

Bakarka 4en, hiru pertsonaia femeninoek lanbide bat badute, %21,42 dira. Haien artean, batek lanbide maskulinoa, batek lanbide femeninoa eta beste batek lanbide neutro bat du.
Bi pertsonaien familia zehaztua da, pertsonaia femeninoen %14,2 dira. Bakarka 4eko 27 pertsonaia maskulinoen artean, 12k lanbide bat badute, pertsonaia maskulinoen %44,44ak dira. Lauk lanbide maskulino bat dute, batek lanbide femenino bat eta zazpik lanbide neutroak dituzte. Lauk familiaren funtzioa dute (%14,81).

Bakarka 5en, pertsonaia femenino batek lanbide bat badu, %20 osatzen du. Pertsonaia femenino baten familia aipatua da (%20). Testuliburu honen 14 pertsonaien gain, bederatzi pertsonaia maskulinoek lanbide bat badute, %64,28 dira. Haien artean, seik lanbide maskulinoa eta hiruk lanbide neutroa dute. Pertsonaia maskulinoen %10 familiari lotuak dira.

Bakarka sailean, pertsonaia maskulinoen funtzio soziala, nagusiki lanari lotua da. 77 artean, 54 lanbide baten arabera identifikatuak dira. 27 kasutan neutroa da, 25etan maskulinoa eta bitan femeninoa da. 23 aldiz familiaren arabera identifikatuak dira. Bakarka sailean, pertsonaia femeninoen funtzio soziala nagusiki lanaren arabera agertzen da. 34 funtzio sozialen artean, 19 lanari lotuak dira. Gehienetan, lanbide neutroa dute, hamar kasutan. Ondotik lanbide femeninoa dute sei aldiz eta lanbide maskulinoa hiru aldiz. Familiaren arabera 15 pertsonaia femenino identifikatuak dira.

### 2.6.2 Arian

**Taula 53: Funtzio soziala Arian testuliburuan**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Perts femenino | 1 | 1 | 6 | 18 | 26 |
| Perts maskulino | 5 | 1 | 6 | 19 | 34 |




**Irudia 111: Pertsonaia femeninoen funtzio soziala Arian testuliburuan**




**Irudia 112: Pertsonaia maskulinoen funtzio soziala Arian testuliburuan**

Arian A1-A2n, 16 funtzio sozial dira 12 pertsonaia nagusientzat. 16 funtzioen artean, 11 pertsonaia femeninoei zuzentzen dira, %78,57 dira. Zazpi familiari lotuak dira (%63,63) eta bost lanari (%45,45). Batek lanbide maskulinoa du (%25), batek lanbide femeninoa (%25), eta bi neutroak dira (%50). Bost funtzio, pertsonaia maskulinoek betetzen dituzte, funtzio sozialen %21,43 dira. Lau familiari lotuak dira (%80) eta bat lanari (%20).

Guztira, 21 funtzio sozial atzemanak dira Arian B1.1en. 21 funtzioen artean, hamar pertsonaia femeninoenak dira (%47,61). Sei familiari lotuak dira (%60) eta lau lanbideari. Denek lanbide neutro edo ezezagunak (%40) dituzte. Pertsonaia maskulinoek funtzio sozialen %52,39 osatzen dute. Bederatzi familiari lotuak dira eta bi lanari. Lanbide bat maskulinoa da eta bestea neutroa. Pertsonaia maskulinoen %81,8a familiari lotuak eta lanari, %18,19 dira. Lan maskulinoa dutenek %9,1 dira eta lan neutroa %9,1 dira. Ez du inork lanbide femeninorik egiten.

Arian B1.2n sei funtzio sozial dira, bat pertsonaia femeninoei zuzendua da (%16,66). Funtzioa familiari lotua da. Pertsonaia maskulinoek bost funtzio sozial dituzte (%83,34) eta denak lanari lotuak dira. Bi lanbide maskulinoak dira, bat femeninoa da eta beste bi neutroak dira. Lanbideen %40 maskulinoa da, beste %40 neutroa eta %20 femeninoa da.

Bost funtzio sozial ateratzen dira Arian B2.1en: bi (%40) pertsonaia femeninoei lotuak dira eta hiru pertsonaia maskulinoei (%60). Pertsonaia guztien funtzio sozialak familian kokatzen dira, pertsonaia maskulino batena izan ezik. Pertsonaia femenino guztiak haien familiari lotuak dira. Pertsonaia maskulinoen funtzio sozialen %75 familiari lotuak dira eta %25 lanari.

Arian B2.2n, zazpi pertsonaien funtzio sozialak agertzen dira. Sei pertsonaia maskulinoenak eta bi pertsonaia femeninoenak. Orotara pertsonaia maskulinoen hiru (%50) funtzio sozial lanari

lotuak dira eta beste hiru (%50) familiari. Lanbide bat maskulinoa (%33,33) da eta beste bi (%66,67) neutroak dira. Pertsonaia femeninoen kasuan, bi elementu funtzio sozialari lotuak dira. Pertsonaia femeninoen funtzio sozialen %100 familiari lotuak dira.

Pertsonaia maskulinoen funtzio sozial nagusia familiari lotua da. 26 funtzioen gainean, 19 familiari lotuak dira. Ondotik, 12 funtzio sozial lanari lotuak dira. Arian sailean, pertsonaia femeninoen funtzio soziala ere nagusiki familiari lotua da. 26 funtzioen artean, 18 familiari eta zortzi lanari lotzen dira .

### 2.6.3 Goazen

**Taula 54: Funtzio soziala Goazen testuliburuan**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Perts femenino | 3 | | 4 | 7 | 14 |
| Perts maskulino | 16 | | 2 | 10 | 28 |




**Irudia 114: Pertsonaia femeninoen funtzio soziala Goazen testuliburuan**




**Irudia 113: Pertsonaia maskulinoen funtzio soziala Goazen testuliburuan**

Goazen 1eko pertsonaia maskulinoek sei funtzio sozial dituzte, pertsonaia nagusien %60k funtzio bat dute. Pertsonaia maskulinoen funtzioen %100 familiaren arabera definituak dira. Pertsonaia femeninoek, sei funtzio sozial dituzte, pertsonaia nagusien %85,71k funtzio sozial bat dute. Pertsonaia femeninoen funtzioen %83,34 familiari lotuak dira eta %16,67 lanbideari. Lanbide neutroa da. Guztira, zazpi pertsonaien funtzio sozialak atzemanak izan dira.
Goazen 2n, zazpi pertsonaiek funtzio sozial bat badute. Bi pertsonaia femenino familiari lotuak dira (%66,67) eta batek lanbide bat badu (%33,34). Lanbide neutroa da. Bi pertsonaia maskulinok lanbide bat badute (%50) eta bi familiari lotuak dira (%50). Lanari lotuak diren pertsonaien %66,66 maskulinoak dira eta %33,37 femeninoak. Lanbideen %66,67 neutroa da eta %33,33 maskulinoa da. Ez du inork lanbide femeninorik egiten.

Orotara zazpi funtzio sozial dira Goazen 3n. Denak haien lanaren arabera definituk dira, ez da inor familiaren esferan. Bi pertsonaia femeninok lanbide bat dute. Bost pertsonaia maskulinok lanbide maskulinoa dute. Pertsonaia maskulinoen lanbideek, %85,71 adierazten dute. Lanbide neutroak %44,71 dira. Ez du inork emazte lanbiderik egiten.

Goazen 4ko 18 pertsonaia nagusien artean, 14ek funtzio sozial bat badute. Pertsonaia femeninoen %100 lanbidearen arabera identifikatuak da. Pertsonaia maskulinoen %85,71 lanaren arabera eta %14,28 familiaren arabera definituak dira. Pertsonaia maskulinoen lana %91,67 kasuetan maskulinoa da eta %8,33 neutroa da. Pertsonaia femeninoen lanbideen %100 neutroa da.

Orduan, pertsonaia maskulinoen funtzio sozial nagusia lanari lotua da. Ondotik familiari. Lanbide maskulinoa 16 egoeratan nagusitzen da. Gero familia hamar ezaugarrirekin agertzen da eta bukatzeko lan neutroa bi ezaugarrirekin. Ez du inork lan femeninorik egiten.
Pertsonaia femeninoen funtzio soziala nagusiak familiari lotuak dira (7). Ondotik lan neutroari lotuak dira (4) eta bukatzeko lan maskulinoari (3). Ez du inork lan femeninorik egiten.

### 2.6.4 Eki

**Taula 55: Funtzio soziala Eki testuliburuan**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Perts femenino | 5 | 1 | 12 | 3 | 21 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Perts maskulino | 8 | | 9 | 3 | 20 |




**Irudia 116: Pertsonaia femeninoen funtzio soziala Eki testuliburuan**




**Irudia 115: Pertsonaia maskulinoen funtzio soziala Eki testuliburuan**

Eki DBH1en, 14 funtzio sozial agertzen dira. Zortzi pertsonaia femeninoei lotuak eta zazpi pertsonaia maskulinoentzat dira. Ez da inor bere familiako funtzioaren arabera definitua. Pertsonaia femenino batek lanbide maskulinoa du (%12,5), batek lanbide femeninoa (%12,5) eta seiek neutroa (%75). Pertsonaia maskulinoen artean, lauk lanbide maskulinoa dute (57,14,) eta hiruk (%42,85) lanbide neutroa dute. Guztira, pertsonaien artean, bostek (%33,34) lanbide maskulinoa, batek (%6,66) lanbide femeninoa eta bederatzik (%60) lanbide neutroa dute.

Eki DBH2n, 26 funtzio sozial agertzen dira. 13 pertsonaia femeninoentzat eta 13 pertsonaia maskulinoentzat. Sei funtzio sozial familiari lotuak dira (%23,07) eta 20 lanari (%76,92). Zortzi pertsonaiek lanbide maskulinoa dute, lanbideen %40 da. Hamabik lanbide neutroa dute, %60 dira. Ez du inork lanbide femeninorik. Baina proportzionalki pertsonaia femeninoen %76,47k funtzio sozial bat dute eta gizonen %54,17k.

### 2.6.5 Testuliburuen emaitza: Funtzio soziala






**Irudia 117: Pertsonaia femeninoen funtzio soziala**

**Irudia 118: Pertsonaia maskulinoen funtzio soziala testuliburuetan**

Testuliburu guztietan familiaren tokia nagusitzen da. Pertsonaia femeninoen familia testuliburu guztietan gehiengoa du Eki sailean aparte. Arian sailak batez ere familia balorean ematen du. Pertsonaia maskulinoen familia nagusitzen da Eki sailean aparte.

Pertsonaia maskulinoen lanbidea nagusiki neutroa da testuliburu guztietan, Goazen sailean aparte. Lanbide maskulinoak sail guztietan agertzen dira. Lanbide femeninoak Bakarka eta Arian sailean agertzen dira. Pertsonaia femeninoen lanbidea nagusiki neutroa baldin bada ere, ez da lanbide femeninorik agertzen Goazen sailean. Ber maneran, Eki sailean, ez da lanbide maskulinorik. Orokorrean, pertsonaia maskulinoek batez ere lanbide maskulinoak egiten dituzte eta alderantziz pertsonaia femeninoentzat. Pertsonaia femeninoek lanbide maskulinoak praktikatzen dituzte nagusiki. Orduan, maskulinitatearen baloreak orokortzen direla agertzen da. Horrez gain, lanbide maskulinoak batez ere erabakiguneetan kokatzen dira (zuzendari, politikariak... dira) aldiz, lanbide femeninoak periferiako lanbideak dira, artari lotuak dira.

## 2. 7 Analisia kualitatiboaren emaitza

Analisia kuantitatiboak pertsonaia maskulinoen nagusitasuna azaldu du. Xehetasunak aztertuz, elementu neutro asko agertzen dira. Baina, ez dira hautuzkoak: analisia kuantitatiboarentzat bezala, ipuinak laburrak direnez, sakontasun eskasari lotua da.

Orokorrean, pertsonaien jarrerak haien genero estereotipoekin bat egiten dute. Pertsonaia femeninoek nortasun eta fisiko femeninoa dute. Kanpora joaten baldin badira, pertsonaia maskulinoak baino gutxiagotan da eta etxean gehiagotan agertzen dira. Ber maneran, saltegietan nagusitzen baldin badira, gune batzuk hetsiak zaizkie. Pertsonaia femeninoek lanbideak badituzte baina familian nagusitzen dira. Pertsonaia guztien kasuan akzio geldiak orokortzen dira baina tartea askoz handiagoa da pertsonaia femeninoentzat. Hots, testuliburuen ezaugarrien arabera, pertsonaia femeninoa etxean, familian egoten da, akzioak jasaten dituzte.

Aldiz, pertsonaia maskulinoek nortasun eta fisiko maskulinoak dituzte. Haien nagusiki kanpoan eta etxean kokatzen dira. Lanean egoten dira askotan ere. Familiari lotuak dira, baina lanbideak askoz gehiagotan definitzen ditu. Haien lana, maiz maskulinoa da, oso gutxitan femeninoa da. Haien akzioak nagusiki pasiboak dira, nahiz eta askotan mugimenduan izan. Taberna gizonei

lotzen den gunea da.

Pertsonaia maskulinoak, femeninoak baino gehiagotan izendatuak dira. Honek pertsonaiari sineskortasuna eta sakontasuna ematen dio. Dimentsio bat ematen du irakurlegoa hari identifikatzeko, nahiz eta pertsonaia femeninoen izenak ere agertu.

Orokorrean, pertsonaia maskulinoek ezaugarri orokorrak eta maskulinoak dituzte eta ezaugarri femenino oso gutxi lotzen ahal zaizkie. Pertsonaia femeninoek ezaugarri maskulino gehiago dituzte. Hots, pertsonaia femenino gehiago kanpoan egoten dira, lanbide maskulino bat dute, fisiko maskulinoa dute eta haien nortasun maskulinoa erakutsia da. Bi ondorio suposa daitezke:

1- Femeninoak diren ezaugarriek ez dute pertsonaia balorean ematen. Pertsonaia maskulino bati ezaugarri femeninoak lotzen zaizkiolarik, gehienetan hark balioa galtzen du. Ahulezia sinboloak dira. Ezaugarri femeninoek menpekotasuna erakusten dute eta boterea galtzea suposatuko luke pertsonaia maskulinoentzat.

2- Maskulinoa orokortzen den ezaugarria da, segitu behar den eredua da. Pertsonaia femeninoari ezaugarri maskulinoak ekarriz, unibertsaltasuna ematen zaio. Unibertsala neutroa izateko ordez, maskulinoak du eredu hori ordezkatzen. Maskulinoari noblezia letrak ematen zaizkio. Wittigek teorizatzen zuen bezala, genero bat baizik ez da: femeninoa. Genero maskulinoa norma da eta desberdintasuna femeninoa.

Arian sailak oreka handiena pertsonaien artean erakutsi du kantitatearen aldetik. Aldiz Bakarka sailak desoreka handiena du. Orokorrean, Bakarka sailak elementu sexistenak proposatzen ditu eta estereotipo tarte handienak testuliburu horretan dira. Ondotik, Goazen sailak estereotipoak bermatzen ditu kantitatean eta kalitatean. Orokorrean, Eki sailak eredu berdintzaileenak proposatzen ditu. Analisia kuantitatiboan, pertsonaia maskulinoak nagusitzen zirela agerrarazia izan baldin bada, haien tratamendua orekatuena da.

Ondorioz, euskarako klaseetan landutako testuliburuen corpusak pertsonaia maskulinoak nagusitzen direla erakusten du. Horrez gain, balore maskulinoak lehenetsiak dira. Pertsonaiak maiz haien estereotipoetan mugatuak dira. Balorean emandako eredua maskulinoa da. Testuliburuak maskulinitate bortitzean eta indartsuan oinarritzen dira.

## VI Euskal literaturaren analisia

" Haur gazte literatura garaikideko irudi femeninoak legenda tradizionalei konparatzen baldin baditugu, gauza gutxi aldatu direla ohar gaitezke." Gianini Belotti, 1974.

Haur gazte literaturako zortzi eleberrien analisia egiteko, lehenik eleberriak aurkeztuko ditugu, sinopsia eta pertsonaien bidez. Gure azterketa eta interpretazioekin osatuko dugu lehen parte hori.

Ondotik testuliburuen analisiarentzat egina izan den bezala, eleberriak manera kuantitatiboan eta kualitatiboan aztertuko ditugu ezaugarri eta ibilbide berdinarekin. Izan ere, metodo kuantitatiboan autorearen generoa kontutan hartuko dugu pertsonaiaren eraikuntza ulertzeko. Azterketa horren harira, euskal eleberri eta testuliburuen ipuinen emaitzen bateragarritasuna aipatuko dugu.

1- Eleberrien aurkezpena

1.1 Mariasun Landa (1984), *Txan Fantasma*

1.1.1 Sinopsia

Txan Fantasma Mariasun Landaren bosgarren eleberria da, Lizardi saria jaso zuena. 1984an argitaratua izan den ipuin honek, fantasma txiki baten historia kontatzen du.
Txan, Karmentxu deitzen den neskatxo batekin lagun bilakatzen da. Ipuina singularraren lehen pertsonan kontatua da, Txan fantasmaren ikuspuntutik. Txanek bere mamu taldea utzi zuela eta, haur lagun bat bilatzen zuela aipatzen du. Horrela Karmentxuren ezagutza egiten du. Karmentxu neska berezia bezala kontsideratua da. Bere izeba Edurnerekin bizi da, eta umezurtza da. Bizi bakarti bat duela eta bere jostailuekin asko jostatzen dela adierazia da. Behin, bere izebak jakiten du Karmentxu fantasma batekin laguna dela. Bere izebak, Karmentxu fantasma batekin laguna dela sinetsi ezinik, Don Felipe medikua deitzen du. Hark, haurra arraroen etxera bidaltzea proposatzen du. Karmentxu eta Txan fantasma eskapatzen dira eta ondoko herri bateko besta batzuetara iristen dira. Zoritxarrez, helduek berriz atzematen dute eta Karmentxu arraroen etxera bidalia da. Txanek, bertara sartu ezinik, farol baten gainean itxaroten du.

Ipuinaren bi pertsonaia nagusiak Txan fantasma eta Karmentxu dira. Ondotik, izeba Edurne eta Don Felipe medikua aipagarri dira.

1.1.2 Pertsonaiak

Txan fantasma

Txanek bere burua txikia eta potoloa bezala deskribatzen du. Fantasma talde batean bizi izana dela badakigu baita jendea ikaratu ordez, irri araztea eta haurrekin jostatzen zuela gustuko.

Nortasunaren aldetik, Txanek ez du inoiz hitz egiten, fantasmak ez direlako mintzatzen. Horrez gain, lotsatia da eta erran daiteke aski xaloa dela. Karmentxuren fantasia asko segitzen du, berekin irri egiten du eta zaldiko-maldikoak egiten dituztelarik, ez du ulertzen ez direla egiazko abereak. Txan beldurtia da, ez ditu auto-txokeak maite eta zaldi jokoetan beldur du. Bidaian emozio handiak ukan dituela aipatzen digu eta Karmentxurekin harreman leiala sortu dutela ulertzen dugu.

Txan, fantasma bat da eta ez dakigu nolakoa zen bere gizaki bizia lehenago. Ez dakigu Txanek sexu maskulinoa edo femeninoa duenez. Txan pertsona fidagarria da Karmentxurentzat, bere burasoak hil ondotik. Ez du Karmentxu epaitzen eta den bezala onartzen du. Txan mamuen mundutik baztertua da berezia delako, Karmentxu gizakien mundutik bezala. Txanen rola Karmentxu babestea eta zaintzea da. Bere izena neskatxak eman dio, bere buru gainean Txano bat zuela iruditzen zaiolako.

Karmentxu

Karmentxu neskatila bat da. Bere adina ez dugu ezagutzen, baina jostailuak, panpinak, baloiak gustatzen zaizkiola bai. Ikastolara doa, baina bakar solasak dituela dio bere izebak Don Feliperi. Haurra bere izeba Edurnerekin bizi da, baina harreman zaila dute. Karmentxuren burasoek heriotzaren arrazoina ez dakigu baina haurraren familia hurbilena Edurne dela dirudi. Ez du neba-ahizparik.

Haurrak jadanik Arraroen Etxean egonaldi bat egin duela errana da ipuinean. Arraroen etxea, buruko eritasunak dituzten etxe bat bezala adierazia da. Ospitale psikiatriko bat da. Baina kontatua den moduan, beti negatiboki deskribatua da etxe hori eta badirudi onura baino min gehiago egiten diela bertakoei. Arraro Etxean direlarik, jendeak ez du kanpo aldearekin harremanik eta kartzela bat bezala deskribatua da "*Karmentxu bahitu zutenez geroztik*" (Landa, 1981; 60..orr).

Karmentxu haur berezi bat dela errana da hasieratik baina bere berezitasuna zehazki zer den ez da esplikatua. Bukaeran (56.orr) Txanek galdetzen du *"Karmentxu neskatila arraroa al zen ba? Eta zer? Zer kalte egiten zuen?"*. Haur gehienak Txanetaz urruntzen edo beldurtzen diren bitartean, neskatila, berehala irriz hasten da bere zapatan fantasmatxo hori ikusten duelarik. Ez du haur gehienek

bezala pentsatzen, behar bada bere ikuspuntua inozenteagoa delako.

Lasarte eta Aristizabalen erranez (2014; 149-169), Karmentxu haur autista da, nahiz eta ipuinak ez argiki adierazi. Baina, haurra jadanik ospitale psikiatriko batera joan zen, haur berezia zelako. Behar bada haurra, bere burasoen hiltzearen ondotik, bakarrik sentitu zela. Haurra mutu izaiteak bere eskolan eta ospitaleratua izaiteak, depresiboa izan zitekeela pentsarazten ahal du. Adibidez, ipuinean, kukuak dio Mentxuk karinoaren hutsune bat baduela (18.orr). Neskatila desberdina dela eta sentsibilitate berezia duela argi da.

Mariasun Landak sortu duen munduan, jostailuak mintzatzen dira eta fantasmak egiazkoak dira. Gure heldu munduan, holakorik ez da onartua. Medikuntza konbentzionalari buruzko kritika bat ikus daiteke, Mariasun Landak Don Felipe deskribatuko duen maneran. Autorea haurraren aldean ematen da eta posizio hori hartuz, heldutasuna, autoritatea kritikatzen ditu. Irudimena eta desberdintasuna defenditu nahi ditu ipuin honekin. Horretarako Txan eta Karmentxu lagunak bilakatzen dira. Biak baztertuak diren pertsonak dira, biak haien taldean gaizki sentitzen dira eta urruntzea erabakitzen dute. Mariasun Landak, ulertuak ez diren haurrei bere literaturari esker babes bat atzeman dezaketela idazten du. Haien desberdintasuna eta berezitasuna ulertuak izanen direla esplikatzen die. Mezua unibertsala da, haur guztiak baztertuak sentituak izan dira helduen munduan, haien irudimena isildua izan da. Idazlea, haurren alde ematen da haien irudimenari mugak emanen dituena heldua dela agerraraziz.

Edurne

Edurne Karmentxuren izeba da. Autoritatearen itxura du, haurraz arduratzen da bere burasoak hil direnetik. Oso fite, Edurnek Karmentxu ez duela ulertzen ikus daiteke. Ez da goxoa eta zorrotza dela dirudi. Adibidez, jostailuekin mintzatzen direlarik, mahai gaineko puzleak dio “atxo zahar” bat dela (17..orr) eta Kukuak (18.orr) izebak ez dakiela bere iloba nola maitatu dio. Karino falta dela errepikatua da. Hasieratik, Edurnek itxura negatiboa du. Bere fisikoa ez zaigunez deskribatua, bere nortasunaren deskribapenaren arabera baizik irudikatzen dugu emaztea. Edurneren barne bizia ez dugu ezagutzen: ez dakigu haurrik, bikotekiderik, lagunik baduenez. Edurnek, Karmentxurekiko desadostasuna eta helduaren itxura pertsonifikatzen ditu. Edurneren deskribapenak sorgin bati pentsarazten du. Mona Cholleten (2018) arabera, haurrik ez duten emazteek errepresentazio zaharkitu batzueri n erantzuten diote:

> “Des représentations archaïques traînent dans les esprits au sujets des femmes qui n'ont jamais enfanté. L'insistance sur l' “épanouissement” et le “rayonnement” attribué d'office aux futures mères (...) implique d'accorder une foi persistante, par contraste, aux images de vieilles filles au corps desséché par la vacuité de leur utérus. (...) Celles qui refusent la maternité sont aussi confrontées au préjugé selon lequel elles détestent les enfants, telles des sorcières dévorant à pleines dents de petits corps rôtis durant le sabbat ou jetant un sort mortel au fils du voisin.”

Sorgina mendebaldeko mitologian haurrak beldurtzen eta jaten dituen pertsonaia bezala adierazia da. Errealitatean, patriarkatuak eta elizak inposatzen zituzten legeei konformatzen ez zen pertsona zen. (Chollet, 2018)

Alta, bigarren parte batean, Edurneren pertsonaia eztitzen da eta bere iloba egiazki maite duela ikusten dugu. Adibidez, ez du bere iloba ospitale psikiatrikora joatea nahi. Neskatila maite duela baina ez duela asmatzen berarekin dio. (32.orr) Erraten du ezin duela lagundu, eta ulergarria izan daiteke haurrak arazo psikiatriko bat baldin badu, maitasunak ezin dituela arazo guztiak konpondu. Don Felipek erraten duelarik Arraroen etxera joan behar dela, pena handia duela eta hunkitua dela adierazia da (33.orr). Horrez gain, nahiz eta Edurne emazte gogorra izan, gibeltasuna hartzen ahal duela dirudi. Karmentxurengana itzultzen da eta samurki hitz egiten dio, besarkatzen entseatzen da. Alta, nahiz eta Edurneren intentzioak onak izan, helduen munduari lotua da eta berak du Don Felipe deitzea erabakitzen. Hark du bere iloba ospitale psikiatriko batean sarraraztea onartzen. Edurnek haurra traditzen du, ez du beste mundu bat posible dela onartzen.

### Don Felipe

Don Felipe bigarren mailako pertsonaia da *Txan fantasma* ipuinean. Gizon heldu, kartesiar eta zientzia zalea gorpuzten du. Hark Edurneri haurra ospitale psikiatrikora eraman beharko dela erraten dio. Hasiera batean, Don Felipe gizon aski sinpatiko bat bezala erakutsia da (“irribarre batez begiratzen zuen Karmentxu” 29.orr). Karmentxuren logelara doa eta galderak pausatzen dizkio. Haurrak ez dio erantzuten, beldurtua delako (“beldurrezko dardarak astindu zuen Karmentxu” 28.orr). Gizona biboteduna eta argala bezala deskribatua da. Medikua denez, maleta txiki bat badu, bere materiala hor biltzen duelako. Zientziaren parean, Edurnek ez daki gauza handirik, Don Felipek oroitarazten dion bezala. “Han baino hobeto ez da inon egongo – Don Felipek hotz-hotz – Espezialista onenak han daude, ondo tratatzen dituzte kasu hauek eta zenbait kasutan ondorio oso onak lortu izan dira!” (33.orr)

Don Felipek, nahiz eta hasiera batean, haurraren aitzinean atsegina izan, bere egiazko natura

Edurneri erakusten dio. Hotza da, presaka dabil eta emaztearen oharrak ez ditu entzuten, ez eta bere dudak aipatzen uzten ere. Edurne eta Don Feliperen elkarrizketa arrazionala eta emozioaren arteko elkarrizketa bat da. Lehenak aurpegi larria duenean, bestea hotz-hotza da. Batek pena aipatzen duelarik, besteak teoriari erreferentzia egiten dio. Pasarte honen ondotik Don Felipek pazientzia gutxi duela eta ezin duela beste errealitate bat onartu ikus daiteke. Desberdintasuna tratatzen du, haurraren tristura eta fantasia ez ditu ulertu nahi, bere liburuetan eta zientzia formalari mugatzen da. Don Felipe pertsonaia antagonista da. Alde batetik, gizona da, heldua eta zientifikoa da. Medikuntza arrazionalari buruz, Mona Cholletek (2008) dio:

> "De façon frappante, la médecine concentre aujourd'hui encore tous les aspects de la science née à l'époque des chasses aux sorcières: l'esprit de conquête agressif et la haine des femmes; la croyance de la toute puissance de la science et de ceux qui l'exercent, mais aussi dans une séparation du corps et de l'esprit, et dans une rationalité froide, débarrassée de toute émotion".

### 1.1.3 Ondorioak

Poesia asko agertzen da haurraren ibilbidearen inguruan, bere ihes egiteko gogoari buruz, baina ere fantasmaren leialtasunari buruz. Autoreak lan honekin garaiko kodeak (eta gaurkotasuna dutenak oraindik) hautsi nahi ditu. Txan Fantasma pertsonaia neutroa da eta haur guztiak hari identifika daitezke.

Mariasun Landak haurrak libre utzi behar direla adierazten digu, burasoek konfiantza egin behar dietela eta haien irudimena zabaltzen utzi behar zaiela.

Don Felipek figura maskulinoaren papera betetzen du: erabakiak hartzen ditu, kontseilaria eta seriostasunaren irudia da. Mariasun Landak pertsonaia hori kritikatzen du, karinoaren etsai handiena bezala adierazia delako. Edurne sorgin bat, ipuinetako amaorde bat bezala ikusia da. Samindua den emazte bat da, haurra ez du ulertzen eta nahiko gaiztoa da. Pixkanaka bere pertsonaia askoz ñabarduraz beteagoa dela eta haurra maite duela ohartzen gara.

### 1.2 Bernardo Atxaga (1984), *Sugeak txoriari begiratzen dionean*

#### 1.2.1 Sinopsia

Bernardo Atxagak idatzitako eleberria 1984an argitaratua izan zen Erein argitaletxean Auskalo Bumeran bilduman. Urte honetan, idazleak beste bi lan plazaratu zituen: *Bi leter jaso nituen denbora gutxian* eta *Bi anai*. Hiru ipuinek haurtzaroa eta zahartasuna aipatzen dituzte eta Obaban, idazleak sortutako herri paraleloan, kokatzen dira, 1989an *Obabakoak* eleberria argitaratu aitzin. Liburu honentzat, idazleak Lizardi saria eskuratu zuen.

Eleberriak, Sebastian, 14 urte eginen dituen mutiko baten ibilbidea kontatzen du. Bere udako oporrak Obaban, bere amaren familiaren etxean pasatzen ditu. Izeba, osaba eta aitonaren etxean egoten da. Aitona Martin eta Sebastianen arteko harremana liburuaren ardatz nagusia da. Herritarrek eta familiak, (besteak beste Sebastianen aitak) Martin eroa dela diote. Bere ametsa Terranovara joatea da. Sebastian, bere aitonarekin mendira joatean, animaliekin mintzatzeko gai dela ohartuko da. Baina haiekin trukatu ondotik, aitona ez da gehiago humanoetaz oroitzen eta amnesiak baditu. Bere desberdintasunarengatik, Obabako jendartean gutti integratua dela ulertzen dugu. Herritarrek erotzat dute. Bere biloba tabernara mozkortzera eraman ondotik, osaba eta izebak erabakiko dute Martin eta Sebastian bereiztea. Sebastianek, udan zehar Mariatxo ezagutuko du, Obabako neska bat. Hartaz maiteminduko da eta maitasun istorio bat hasiko dute. Bere sentimenduak eta haien harremanaren garapena bere egunerokoan idatziko ditu. Orduan, nahiz eta narrazioa singularreko hirugarren pertsonan idatzia izan, pasarte batzuk protagonistak kontatzen ditu eta hartaz hurbilago sentitzen gara. Ipuinaren pertsonaia nagusia Sebastian da eta ipuinean zehar aitonaren presentzia txikituz joanen da osoki desagertu arte, ipuinaren bigarren partean, Mariatxoren tokia handituz joango delarik.

Testu hori nerabeei zuzentzen da, bereziki nerabe baten ikuspuntutik kontatua delako baina eleberriaren poesia eta gaiak unibertsalak dira : zahartasuna, desberdintasuna, baztertzea, natura, maitasuna dira aipatuak diren gai nagusiak. Protagonista Sebastian da,

baina aitona Martin bigarrenik heldu den pertsonaia da. Bestalde, Mariatxo, tabernako emakumea, izeba eta osaba aipatuak izanen dira.

### 1.2.2 Pertsonaiak

#### Sebastian Bera

Sebastian Bera hiriko hamahiru urteko mutiko bat da. Laster hamalau urte ukanen ditu. Aitona bere amaren aita da. Sebastianek badaki jendeak aitona Martin erdi eroa dela pentsatzen duela: "*Aitonak ez dio ondo erregadiatzen burumuina*" eta amets eroak dituela dio aitak (9.orr), baina fite ohartuko da duintasun berezi bat duela animaliekin harremanetan sartzeko (16.orr). Oihanera joanen direlarik, txantxangorri batekin mintzatuko da, erdi hitzez erdi txistuka (12.orr). Nahiz eta Sebastian hiriko haurra izan, natura eta animaliak maite ditu. Aitonak txori baten gainera harri bat botatzea galdetzen diolarik, ez du egin nahi "*piztiari izaten dion maitasun naturala*" duelako. Aitonarekiko miresmena duela sentitzen ahal da. Bere sekretua ezagutzen du.

Udaren parte luze bat bere adineko gazteak jostatzen begiratzen pasatzen du. Haietariko bat Mariatxo deitzen da eta pixkanaka hartaz maitemintzen da. Bere egunerokoan neskak begiratzen duen aldi guztiak zerrendatzen ditu. Pixkanaka berekin mintzatzen hasten da eta bere aitonak animaliekin mintzatzen dakiela erraten dio. Irailaren 5ean Sebastian eta Mariatxo musukatzen dira eta bere koadernoan poemak idazten dizkio. Baina gau batez, Sebastianek Martin segitzen du eta oihanean basurdeekin mintzatzen ari dela ikusten du. Beste behin, aitona Sebastianen logelara doa eta biak mintzatzen hasten dira. Sebastianek bere maitasun kontuak kontatzen dizkio eta aitonarekin ukanen duen azken elkarrizketa dela ohartzen da, joanen dela adierazten diolako. Ez du bere aitona berriz ikusiko eta Mariatxok kontsolatuko du.

Sebastian mutiko sentikorra eta diskretua da. Beste gazteak bakean uzten ditu haien artean jostatzen, haiekin joatera ez da ausartzen. Bere egunerokoan, Mariatxorekin ukan

dituzten interakzio guztiak idazten ditu. Ber maneran, Martinek azken agurrak egiten dizkiola ulertzen duelarik negar egiten du. Ipuina bukatzen delarik, Sebastianek bakardadea eta tristura sentitzen ditu.

Baina, bestalde, Sebastianek bere gizontasuna erakutsi nahi du. Tabernan mozkortzen hasten delarik, alkoholaren efektuarengatik eraginez, helduarena egiten du. "*Nagusi sentitzen zen, tabernako jende guztiren parekoa*" (24.orr). Alkohola gehiegi edaten du kolpez. Tabernariak bere osasunaz urduritzen dela adierazten dionean, gorrotoa pizten dio. Baina "gizondu" dela erraten dionean xarma atzematen dio emazteari. Orduan pentsatzen du lehen emaztea ederra izan zela. Bere fisikoari garrantzia emanen dio eta bere nortasuna honen arabera epaitzen du.

Aitona Martin

Aitona Martin Obabako eroa bezala kontsideratua da. Sebastianen aitak Terranovara joateko duen obsesioa ez dela sanoa dio. Obaban, herritarrek, aitonari tabernan uko egiten diote. Sebastianek bere aitonak animaliekin mintzatzen dakiela diolarik, Sebastian "traidore" (26.orr) bat bezala kontsideratua da sekretu hori publikoki zabaldu duelako. Etxera joatera behartuak sentitzen dira. Etxera iristean, berriz ere, nerabeak bere teoria osaba eta izebari aipatzen dielarik, izeba "negarti" ematen da. Bere biloba mozkorraraziko duen egunaz ondotik, ez dugu gauza handirik jakinen Martini buruz eleberria bukaera arte. Gau guztiz aitona animaliekin mintzatzeko oihanera joaten dela eta behin, bere bilobari agurrak egin ondotik, desagertuko dela errana izanen da. Bere gorputza ez da berriz atzemana izanen baina utzi duen hitz batean aurkituko da *"Ternovara joan naiz"* idatzia. Suposatzen ahal dugu aitona desagertuz bere amets eroena beteko duela.

Aitona Martin bakartia eta baztertua da. Martin, goxotasun eta errespetuarekin deskribatua da. Sebastianek haien bereizketa injustizia bat bezala bizitzen du. Ipuinak suposatzen duenez, Sebastian bere aitonaren sekretua ezagutzen eta bere izaera ulertzen

dituen bakarra da. Konformismoaren kontra joaten den pertsonaia bakarra baztertua da eta autoreak, nahiz eta bihotz onarekin ikusten duen, bere baztertzea ezinbeste bat bezala aipatzen du. Pertsonaiak ez du inoiz taldean integratua izateko aukerarik. Bere desberdintasunak beti Obabako herritarretaz bananduko duela adierazia da. Martinen pertsonaiak Mixel Labeguerriren *Xorieri Mintzo zen* kantuarekin lotura asko ditu: animaliekin mintzatzen denaren istorioa da. Biak zoroak dira eta jendarteak baztertzen ditu. Hor ere, sentibera izateak jendartetik baztertzen eta mozten du. Jendartetik banatua den gizon bakartiaren irudia ez ote da gizon euskaldunaren irudia, bere hizkuntzak jendarte nagusietatik mozten duena?

Terranovara joatea aspaldiko obsesio bat da eta denek bere inguruan xede hori ezagutzen dute. Terranova (edo Ternua) Kanadako uharte bat da eta hitzak, lur berria erran nahi du. Alta, aitona egiazki hara joan ote da? Alde batetik, hitz bat uzten du bere helburua emanez eta ez da inon berriz azaltzen baina bestalde, bere zakurra berriz atzemana da. Ber maneran, animalia guztiak isilik egoten dira, antzarek "AIO MARTIN" idazten dute (53.orr) eta giro ilun horrek delako lur berria heriotzaren lurraldea dela pentsarazten ahal digu. Posible ote da osaba Martinek bere buruaz beste egin izana edo bere gorputza desagerrarazi izana mundu honetatik ihes egiteko? Terranova, bizi goxoago baten metafora bezala ikus daiteke.

Mariatxo

Mariatxo hirugarrenik gehien agertzen den pertsonaia da. Obabako neska bat da, baina ez dakigu gauza handirik hari buruz. Bere itxurari dagokionez, Sebastianek bere egunerokoan begi grisak eta belaun borobilak dituela idazten du. Ileak.orraztatzen dituela eta tomate hostoen usaina duela errana da. Beste herriko gazteekin laguna da eta fuegoan jostatzen uda pasatzen du haiekin. Sebastianen aitona ezagutzen du, eta bere fama entzuna du *"Baina zure aitona ez dago oso ondo, ezta? (...) Terranovara joateko kontuekin ibiltzen omen da beti"* (43.orr). Mariatxok neska goxoa dela ematen du, Sebastian triste delarik

laguntzen duelako, besoetan hartzen duelako eta bere arazoak kontatzen entzuten duelako. Alabaina, ez dakigu beste gauza handirik beri buruz. Mariatxoren pertsonaia ez da hor Sebastiani alter-ego bat sortzeko baina bere amets bat, fantasma bat irudikatzeko. Neska polita eta oso goxoa da. Irakurtzen dugunaren arabera, Sebastian bere arazoetaz mintzatzen da baina ez dakigu zer pasatzen den bere lagunaren bizi pribatuan. Mariatxo Sebastianekin baizik ez da mintzatzen.

### Izeba

Sebastianen izebari buruz gauza gutti dakigu. Bere izena edo adina ez zaizkigu azalduak. Aldiz, ezkondua dela eta aitonarekin bizi dela badakigu. Eleberri hasieran, izeba sortzez pixka bat herrena dela badakigu. Baina, Sebastianen aitaren arabera, (28.orr) izebaren arazoa bere obsesioa herrena izatearekin da. Sebastian mozkortzen dela ikusten duelarik, bere aitaren kontra haserretzen da. Krisia momentu honetan fededuna dela suposatzen dugu "Jauna, jauna" errepikatzen duelako (30.orr). Emaztea sentikorra da, negarrari ematen dio bere aitak Terranovara joateko asmoa duela aipatzen duelarik (40.orr). Bere aktibitateen aldetik, sukaldaritzen duela eta mantala duela zehaztua zaizkigu. Ez dakigu haurrak dituenez.

### Osaba

Osaba ez da askotan aipatua. Hark ere ez, ez du izenik. Sebastianen izebaren senarra da. Martin eta izebarekin bizi da eta Sebastian aterpetzen du bakantzetan. Hura ere, Sebastianek tabernan edan duela ohartzean, Martinekin asko haserretzen da. Berak egoera kontrolatzen du eta hark ditu erabakiak hartzen. Osabak aitonari ohera joatea agintzen dio (31.orr) eta Sebastiani berekin ohera joatea momentu berdinean inposatzen dio. Ber maneran, ipuin bukaeran, Martinek utzitako hitza berak irakurtzen du. "*Terranovara joan naiz*" idatzia da. Berak ditu obabatarrak eta bere emaztea Martinen joateaz abisatzen. Detaile honek sinbolikoki argitara ezartzen du etxeko bizia eta erabakiak hark kudeatzen dituela.

Tabernako emakumea

Tabernako emakumea hiru.orrialdetan bakarrik aipatua da. Bere deskribapen fisikoa beste pertsonaia askorena baino zehatzagoa eta luzeagoa da. Aldiz, ez dakigu ezer emaztearen ingurumenari buruz: bere izena, bere aktibitateak, bere jatorriak... Bere lanbidea tabernan zerbitzaria izatea da eta iduriz ez da hain gaztea. Fisikoki gazteago zelarik "ederra izana zela" gogoetatzen du Sebastianek (24.orrialde), "Aspaldiko neska polit hura" pentsatzen du orrialde bat berantago. Urrezko hagin bat ere erakusten du. Besoetan giharrak ditu, irri egiten du eta arinki mugitzen da ostatuaren gibelean basoak garbituz.

Horrez gain, Sebastianek ikuspuntu zehatz bat du emazteari buruz. Hasteko emaztea gorrotatzen du, ez diolako alkolarik zerbitzatu nahi. Bere harridura Martinek erraten duen guztia errepikatuz erakusten du. Nerabea gaitzitzen da baina alkolak lagundurik, emazteari xarma atzematen dio. Honek agindurik, etxera sartzen dira. Martin ongi ezagutzen du bezeroa delako, ikusiz nola hitz egiten dion. Ber maneran, Martinek zerbitzaria "emakume" deitzen du eta aginteak ematen dizkio "atera egiozu ardoa (22.orr) "zuk atera ezazu ardoa!" (23.orr). Emazteak, nahiz eta bere desadostasuna erakutsi, gizonak manatzen diona egiten du eta gizon mundu batean lan egiten duela agertzen da. Tabernan diren beste pertsonaia guztiak maskulinoak direla dirudi : "ostatuaren mostradorean hamar gizon zeuden ilaran" (22.orr) "ilaran ziren beste gizonen begiratu zien" (24.orr) "gizon batek aulkietatik jausten lagundu zien" (27.orr). Beraz, tabernako emazte hori gizonen eta emazteen arteko munduko pasabide bat bezala ikusten ahal da. Aitonak gizon bat ukan balu bere parean, horrela hitz egingo ote zion? Sebastianek gizon baten gaztaroko edertasunari pentsatuko ote zuen?

1.1.3 Ondorioak

*Sugeak txoriari begiratzen dionean* eleberrian, Sebastianek bere aitonarekin duen harremana zentrala da. Aldiz ipuinean agertzen diren pertsonaia femeninoen rolak eztabaidagarriak dira. Hiru pertsonaia femeninoek emaztearen estereotipo desberdin bati erantzuten dute. Izeba etxeko anderea da, tabernaria antagonista da eta Mariatxo fantasma edo maitasun objektua da. Hiruak gizonen zerbitzuko dira eta pertsonaia nagusi maskulinoen intriga garatzeko eraikiak izan dira. Hiruak bihotz onekoak bezala agertzen dira, sentsibilitate batekin, gizona entzuteko eta laguntzeko gaitasunarekin. Emazteei buruzko aurreiritzi hori indartzen da *"Mariatxok, emakume gehienek izaten duten senari jarraituz, bere besoen artean hartu zuen"* esaldiarekin. Emazteen irudikapena estereotipatua da eta jendarteak inposatzen dituen aurreiritziak mantentzen ditu.

Edertasuna emazteak adierazteko askotan etortzen den adjektibo bat da. Mariatxo ederra da, usain ona du, belaun borobilak ditu. Aldiz, tabernako emaztea gaztetan ederra izan zen, irriak egiten ditu, arinki ibiltzen da. Tratamendu desberdintasun hori sendotzeko, ez dakigu Sebastian mutiko ederra denez eta aitonaren fisikoari buruz gauza gutxi dakizkigu, baina gaztetan ederra izan zenez ez da zehaztua. Ipuinak sistema patriarkalak sortu dituen kodeak berriz erabiltzen ditu eta ustiatzen ditu. Pertsonaia femeninoek ez dute iraganik eta helbururik ere ez. Horrez gain, ez da interakziorik emazteen artean.

Osabak parte txikia jokatzen du eleberrian – bi aldiz agertzen da – baina badakigu hark dituela etxeko erabakiak hartzen. Izebak bere pasibotasuna erakusten du eta ardura desoreka bat sortzen du gizontasunarekin.

Pertsonaia maskulinoak ere errealitate oso estereotipatu batean kokatzen dira. Haiek tabernara joaten dira, erabakiak hartzen dituzte baita oharrak eta kritikak egiten ere. Emazteek gizonak entzuten baldin badituzte, gizonek haien ikuspuntua ematen dute. Sebastianen aita eta ama oso gutxi aipatuak dira baina haien harremanaren dinamikan aitak oharrak egiten dituela ikus dezakegu. Ez dakigu inoiz amak zer pentsatzen duen.

### 1.3 Arantxa Urretabizkaia (1997) *Aurten aldatuko da nire bizitza*

#### 1.3.1 Ipuinaren aurkezpena

Arantxa Urretabizkaiak *Zergatik Panpox* nobela 1979an plazaratu zuen. Bere lana berritzailea bezala kontsideratua izan da euskal kritika munduan: protagonista eta nobelaren narratzailea emaztea zen. Barrokismo estiloaren erabilpena emazte baten bizitzan aplikatzea berritasun bat zen, doinuak ezberdinak ziren, sentsibilitate berezi bat sortu zuen (Kortazar, 1979). Kritika horiek 1979 arte, euskal literaturan pertsonaia femeninoaren tokia ez zela ohiturakoa erakusten dute. Gainera, euskal kritikariak gizonak ziren eta haien literatur munduan emazte bat inposatzea berritasun bat zen. Arantxa Urretabizkaia mundu maskulino literarioan bide egiten duen lehen idazle femeninoa bezala kontsideratzen dute askok. Autoreak sari ezberdinak irabazi ditu baina Euskal Herri mailako sari nagusirik ez. Nahiz eta bere lana aitzindaria izan, Urretabizkaia euskal literatura mundutik askotan baztertua izana da.

> “Amaia Lasa zegoen, baina laster alde egin zuen Nikaraguara. Gero, Mariasun Landa hurbildu zitzaidan, artean idazten ez zuenean… Lur argitaletxeko garaia eta gero, oso bakarka egin dut nire bidea, outsider bat kontsideratzen naiz, kanpotik ari naiz, neure kabuz” Urretabizkaia, 2014.

*Aurten aldatuko da nire bizitza* 1997an idatzi zuen Urretabizkaiak. Singularreko hirugarren pertsonan idatzitako eleberriko protagonista Txanpi da. Nerabearen ibilbidea aipatua da, bere sentipenak, bakardadeak eta barne segurtasun eskasak kontatzen dizkigu ipuin intimistak. Txanpi, bere aita, amona eta aitonarekin bizi da eta bere bidean, txakur bat atzemanen du, Mendi deituko duena. Etxetik Madrilera ihes egiten duelarik, neska eta mutiko alemaniar batzuk ezagutzen ditu: Nina eta Karl. Ipuinak nerabezaroaren etapak aipatzen ditu eta nola dramak garaituz, heriotza, doluari aurre eginez, handitzen eta sendotzen garen kontatzen du. Txanpiren bakardadea eta barne gogoetak ipuinaren muinak eta puntu zentralak dira. Ez da elkarrizketarik agertzen pertsonaien artean, dena zehar estiloan idatzia da, honek Txanpi eta beste pertsonaien artean distantzia bat sortzen du. Harreman sakonena bere txakurrarekin du, Mendi.

### 1.3.2 Pertsonaiak

#### Txanpi

Txanpi nerabe bakarti bat da. Musika zale handia da: UB 40 (7.orr), Mickael Jackson (10.orr), Bruce Springsteen (43.orr), U2 (56.orr) entzuten ditu. Txanpi mutiko anti konformista bezala agertzen da. Zigarretak erretzen ditu eta bere munduan egoten da musika entzunez. Modak segitzen dituenak ez ditu maite eta ez du itxurari garrantzirik ematen. Haien irudiari kasu ematen dutenak gorrotatzen ditu (49.orr) eta hark etxetik ihes eginen duelarik eta ezingo delarik dutxatu momentu luze batez, bere fisikoak ez duela gehiago garrantzirik beretzat ohartuko da. (81.orr). Jendearekin harremana konplikatua du. Familiaz gain, bere adineko pertsonekin lotura gutxi ditu eta gazte zintzoak mesprezatzen ditu (55.orr). Txanpi bere ingurumenarekiko oso kritikoa da eta jendea baztertzen du, ziurrenik bere burua babesteko eta ez abandonatua izateko. Bere familiarekin ere harreman zaila du. Ama, bost urte lehenago galdu zuen, hura zen lasaitasunaren irudia. Bere ama hil zenetik, Txanpi oso bakartia sentitzen dela adierazia da. Honekin konplizitate handia zuen, ulertzen ziren. Orain bere aitarekin komunikatzeko oso konplikatua da. Aitak kasu gutxi ematen dio eta askotan haserretzen da. Mendi, bere txakurra hondartzan atzematen du, baina aitak erraten dio ez duela txakurra etxean onartzen. Azkenean amore emanen du. Bere amona maitasun figura bat da, Txanpi zaintzen du. Bere etxe azpian bizi da eta janaria prestatuko dio, berekin bazkaltzen du eta sostengatzen du bere txakurra duelarik. Etxetik ihes eginen duelarik, amona urduri da eta Txanpik maite duela erranen dio, sukaldaritzen dituen plateren falta sentituko du maiz.

Txanpi pertsona zuzena bezala aurkezten da. Bere ihesaldian, bi mutikok haur trisomiako bat erasotzen dute. Honen defentsa hartzera joaten da eta beste mutikoen kontra borrokatzen da, heroi bakarti batek egingo lukeen bezala. Ipuin guztian aipatuan den pertsonaia bere ama da. Bere dolua ez du egina eta bere falta egunero sentitzen du.

Bere bidaian zehar, Nina eta Karl alemaniarrak ezagutzen ditu. Haiekin Espainian zehar bidaiatzen du eta bere sozializazio prozesuan asko laguntzen dute. Bere bidai lagunak bere hizkuntza ez dakiten bi pertsona dira eta haiekin komunikatzeko zailtasunak sortzen ditu. Hala ere, nahiz eta isolatua izan, Txanpi haiekin egoten denetik, ez du gehiago bere walkmana entzuten. Zauritua delarik, Ninak sendatuko du.

Amatxi, ama eta Ninarekin dituen harremanak goxoak, babesleak eta begi onezko trukaketak dira.

Baina, beste neska eta emazteekin harreman arrotza du, gizonekiko garatu ez duen jarrera du. Hasteko, Txanpik eskolan oldartzea erabakitzen duelarik, zigarreta bat ahoan eta txakurrarekin klasera sartzen da. Bere irakaslea emaztea dela ikusten du eta bere erreakzioa negatiboa da. *"Kaka zaharra, pentsatu du, irakaslea neska da. Hori iruditzen zaio lehenengo seinale txarra"* (30.orr) Zertan irakasle femenino bat seinale txarra den ez zaigu esplikatua eta bere erreakzio negatiboa irakaslearen generoarekiko bortitza da. Berantago, Madrilera doalarik, Txanpik hanburgesak erosten ditu eta neska batek saltzen dizkio. Ez da bera baino zaharragoa *"eta aurpegia makilatua darama, ihauteriak balira bezala"* (45.orr). Neska honi buruz ez dugu besterik jakinen, baina berriz ere, kritikatua da bere fisikoarengatik eta bere makilatzeko manerengatik. Bukatzeko, beste andre batekin topo egiten du. Mutiko trisomiakoaren ama *" ehun kiloko emazte bizarduna"* da. (64..orr). Emazteekin harremana sortzen duelarik, aldi guztiz, haien fisikoa kritikatzen du.

Txanpik haurra babestu ondotik, etxe mina sentitzen du eta negar egiteko gogo handia du. Auto stopa egiten du, baina txoferrak, gizon batek, (65.orr) belauna ukitzen dio, goitik behera eta bere etxera pausatzera joatea proposatzen dio. Agresio sexual horrek Txanpiri bere arrazoinatzeko gaitasuna kentzen dio, baina semaforo gorri batean autotik alde eginen du. (67.orr) Ez da gehiago gertakari hori aipatua izanen eleberrian zehar.

Mendik, bere txakurrarekin oso fite konfiantzazko harreman estua sortzen du.

Elkarrekin lo egiten dute, bere planoak aipatzen dizkio eta denetara eramanen du berekin. Txakurra ezagutzen duelarik, bakardadetik ateratzen du (42.orr). Txanpi eta Mendiren arteko harremana oinarrizkoa da eleberrian. Orduan, bukaeran txakurra hiltzen delarik, Txanpiren tristura eta bakardadea oraindik gehiago sentitzen ditugu. Baina, nahiz eta hasieran bezala, Txanpi berriz bakarrik den eleberri bukaeran eta maite duen pertsona bat galdu duen, bere esperientziaz handitua ateratzen da. Etxera itzultzen ahal da, ez da gehiago kateatua sentitzen (89.orr), aberatsago sentitzen da eta joan nahi baldin badu, berriz egiteko gai dela daki. Orain, familiarengana itzultzen baldin bada, hara joan nahi duelako eta bere erabakia delako da.

## Aita

Txanpiren aitari buruzko azalpen gutxi daude. Gizon bakartia da eta ez du bere semea ulertzen. Bi pertsonaiak elkarri ihes ari dira. Aita etxetik goiz joaten da eta berant sartzen da, arratseko 9ak aldean. Bere izena eta bere fisikoa ez dira aipatuak, Txanpik "zaharra" deitzen du (37.orr). Txanpirekin tentsioak badira baina ez dakigu horiek ama hil zenetik agertu direnez edo jadanik existitzen zirenez. Txanpik Mendi etxera ekartzen duelarik, aita haserretzen da eta erraten dio ez duela beste pizti bat haien etxean nahi, "beste" hitza azpimarratuz. Ez dakigu aitak zer pentsatzen duen bere semeaz. Espazio berdina partekatzen dute, etxe berdinean bizi dira baina elkarrekin egoten direlarik ez da komunikaziorik. Txanpik ez du arazorik aita engaiatzeko, estimatzen duelako hark ez duela entzuten (21.orr). Txanpik etxetik ihes egitea erabakitzen duelarik, aita ez da deusetaz ohartzen, ez du bere semaren urduritasuna ikusten. Ber maneran, egunerokotasunean, ostegun guztiz elkarrekin afaltzen baldin badute ere, ez dute hitzik trukatzen eta telebistaren beharra dute dibertsioa egiteko (36.orr). Bukatzeko, Txanpi etxetik kanpo delarik, amona deitzen du, ez aita.

## Amona

Amonak Txanpiren heziketan rola nagusia du. Hark nerabearekin bazkaltzen du eta hark du "*emakumerik gabeko etxea zaintzen*" ama hil denetik (16.orr). Ez dakigu amona Txanpiren aitaren ama denez edo amarena zenez. Txanpik Mendi etxera ekartzen duelarik, amonak ez dio oharrik egiten eta aita ez trabatzeko asteburuan txakurra bere etxean uztea erraten dio. Amonak txakurra bere izenarekin deitzen du Txanpiren bizian garrantzitsua dela adierazteko. Bere ihesaldian, amona deitzen duelarik, ez da kexatuko, bere emozioak erakusten dizkio, triste da, zotinka, negarrez, maite duela erraten dio (82.orr). Amona bere bilobarentzat urduri da eta zaindu nahi du. Ez dakigu nola amona deitzen den, zein diren bere beste ezaugarriak.

### Nina

Nina neska alemaniar bat da. Ninak Karlekin bidaiatzen du, bikotean direla ematen du deskribatzen dituelarik baina ez da argiki adierazia. Ninak ile kizkurrak eta gorriak ditu. Txanpirekin ingelesez komunikatzen du, ez dira ongi ulertzen baina keinuen bidez laguntzen dira. Hura eta Karl burasoen onespenarekin Europa bisitatzera joan dira unibertsitatera sartu aitzin (73.orr). Txanpi borrokatzen delarik, hark sendatzen du eta mutikoaz arduratzen da (71.orr). Hura, taldeari ordainketaren sistema aipatzen duena da. Ninak goxotasuna eta ardura erakusten ditu haien abenturan zehar. Elkarrekin etxalde batera joaten dira lan egiteko, mahatsa biltzeko. Ninaren egiazko izena ez dugu ezagutzen. Neskak izen hori hartzea erabaki zuen Nina Haggenen ohorez (74.orr). Mendi hil ondotik, Nina eta Karl joanen dira eta Txanpik bakarrik bukatuko du.

### Karl

Karl mutiko alemaniarra da eta unibertsitatera joanen da. Gaztea da eta bere ile hori luzeak soka batekin lotzen ditu. Hegoaldera joateko asmoa dute Ninareik, Txanpik bezala. Hura ere ingelesez mintzatzen da baina ez Nina bezain ongi. Karlen izena aski berant ezagutzen dugu (74.orr) eta Ninaren kasuan ez bezala, bere egiazko izena da. Karl armonika jolea da (77.orr) eta Mendi hil ondotik Ninarekin joaten da.

Aitona

Aitona Amonaren senarra da. Baina ez dakigu zein harreman mota duen Txanpirekin. Eskola eta gero, eguerditan haiekin bazkaltzen du eta elkarrizketa egiten diote.

### 1.3.3 Ondorioak

*Aurten aldatuko da nire bizitza*-k Txanpiren barne eboluzioa deskribatzen du bere ihesaldiaren bidez. Mutiko honen bakardadea eta irekitzea, pixkanaka aipatuak dira. Doluari aurre egitea, amaren falta eta heriotza gainditzea gai zentralak dira. Ihes egin aitzin, bere egoera psikologikoak depresioan dela pentsarazten digu. Bere buruaz beste egitea pentsatzen du eta beste jendeaz isolatua da, ez du inor atzematen berekin trukatzeko.

Pertsonaia bakoitzak funtzio zehatz bat betetzen du Txanpiren ingurumenean eta nahiz eta ipuina singularreko hirugarren pertsonan kontatua den, gertakariak Txanpiren begietatik eta ikuspuntutik erakutsiak dira. Txakur batekin harreman estu bat sortzen du eta haien arteko lotura ukigarria da. Ez du beste inorekin hori bizitzeko aukera ukan duela aspaldi. Hala ere, Txanpiren jarrera beste pertsonekiko hotza eta epailea da. Bere adineko gazteak ardiak bezala ikusten ditu, ez ditu moda segitzen eta makillajea erabiltzen dutenak ez ditu maite. Txanpik sufritzen duen protagonista da baina bere harremana neskekin aurreiritziz betea du, irakaslea eta Madrilgo zerbitzariarekin dituen interakzioek adierazten duten bezala.

Txanpiren agresioa momentu labur batez aipatua da baina garrantzitsua da. Autoan delarik, gizon batek belaunak ukitzen dizkio eta bere etxera joatea proposatzen dio. Txanpi beldurtzen da eta autotik ihes egiten du. Puntu ezberdin batzuk azpimarratu behar dira: Txanpiri gertatzen zaiona, gehienetan pertsonaia femeninoen gertatzen zaie. Autoreak agresio sexualak denetan eta edonori gertatzen ahal zaizkiela adierazten du. Aldiz,

homosexualitatearen irudi bakarra da eleberri guztian eta makurra, okerra bezala deskribatua da. Hemen, homosexualitatea pedofilia eta bortxatzaileari lotzen dira. Gertakari bortitz hori, ipuinean parentesia bat bezala agertzen da, biziaren lanjerak denetan direla erakusten du.

## 1.4 Patxi Zubizarreta, (1997) *Gizon izandako mutila*

### 1.4.1 Ipuinaren aurkezpena

Patxi Zubizarretak bi aldiz Euskadi Saria eskuratu zuen, 1998an *Gizon izandako mutila* eleberriarentzat eta 2006ean, *Pantaleon Badoa*rekin. *Gizon izandako mutilak* lapur talde baten ipuina kontatzen du, XVI. mendean, Isabel eta Fernando Erregearen arteko gatazka garaian (72.orr). Fabianek istorioa kontatzen du singularraren lehen pertsonan, baina denek Tximino deitzen dute. Bere helburua Gizon izandako mutilaren edo Antonio Mariaren abenturak kontatzea da. Antonio Maria taldeko buruzagia da. Haien inguruan pertsonaia ezberdinak agertzen dira, Harakina, Pistolet edo Zabaleta bezalakoak.

Ipuinaren hasieran lapur taldeak Zabaletaren gaztelua erasotzen du eta Antonio Maria hila bezala kontsideratua da. Pistoletek bere tokia hartzen dio. Baina, Antonio Maria taldera itzultzen da eta Fabianekin beste behin lapurtzen dute. Baiona aldera ihes egin behar dute eta Antonio Mariak bere bidaia Pirinioetako mendi batean bukatzen du. Hango erretorea hiltzean, herritarrek Antonio Maria erailketaz akusatuko dute atzerritarra delako. Zigorra, lepoa moztea izanen da. Bi gizonen arteko laguntasuna eta errespetua adieraziak dira ipuinean zehar. Bigarren mailako pertsonaiek garrantzia badute intriga aitzinarazten dutelako, antagonistak (Pistolet, Zabaleta) edo laguntzaileak direlako (Harakina).

Eleberriak mendiei eta naturari garrantzi asko ematen die. Pertsonaiak mendietan bizitzen eta murgiltzen dira eta izadiaren presentzia *Gizon izandako mutil*an oso garrantzitsua da, alde batetik pertsonaien lapur bizi modua ulertzeko eta bestalde haien

harremanak eta loturak mendiekin haien sentsibilitatea erakusten dutelako.

### 1.4.2 Pertsonaiak

#### Fabian

Fabian ipuinaren narratzailea eta protagonista da. Irakurleak ezagutzen duenean, lapurtzen ari da. Neska eta neskame bat gatibutzen ditu. Haien taldeko bat, Malestruka hiltzen da eta haien buruzagia, *Gizon izandako mutila* edo, Antonio Maria, hila bezala kontsideratua da. Fabianek Antonio Maria Sevillako kartzelan ezagutu zuen eta berekin ihes egin zuen: haien ihesaldia kontatzen du. Bi gizonen arteko laguntasuna berezia da, Antonio Maria bakarra delako lapur taldean errespetuz hitz egiten diona. Beste guztiek "Tximino" deitzen dute. Bere izengoitia bere fisikoari lotua da: hanka labur eta beso luze bezala deskribatua da. Horretarako, aurrelari da eta ez gidaria. (55.orr). Honek erran nahi du, bere lana mandoen buru izatea dela. Fabian taldeko bakarra da Gizon izandako mutila Antonio Maria deitzen duena. Fabianek Antonio Maria eta Maria Bautista, Zabaletaren neskamea maiteminduak direla daki.

Fabian gizon ikasia da, irakurtzen eta idazten dakielako. Orduan, Antonio Mariarekin Baionarako ihesaldian izanen direlarik, buruzagiaren maitasun gutunak idatziko dizkio Maria Bautistari. Horrez gain, leiala da, bere laguna epaitua delarik egin ez duen krimen batentzat, laguntza bila joanen da Maria Bautistarengana. Baina azken hura jadanik hila da eta gutun bat utzi dio Gizon izandako mutilarentzat. Bere laguna hiltzen da, orduan bere diru pizarra hartzen du eta Andorrara joaten da erretiratzea (121.orr)

Fabian pertsonaia sentikorra dela agertzen da. Antonio Maria kondenatua delarik negar egiten du (116), bere lotsa (86), beldurrak (89) aitortzen ditu eta nahiz eta lapur bizi bat ukan, *"tartean, sutondoa atsegiten"* duela (91) aitortzen du. Bere zuzentasuna agertzen da Fabianek erraten duelarik ez dela besteen istorioetan sartzen, uzten dituela haien bizia egiten.

Protagonista amodioetan ez da oso ibilia beraz balentria faltsuak kontatzen ditu. (49..orr) Alta Fabianek emazteei buruzko diskurtso oso matxistak eta sexistak ditu. "Emeak" izendatzen ditu. Nahiz eta ez esperientzia askorik ukan, emazteei buruz orokortasun misoginoak egiten ditu:

> "Lau gauza esnea bezalakoak izan behar ditik: aurpegia, ile arteko lerroa, hortzak eta begien zuria; lau gauza gaua bezain beltzak: betileak, bekainak, begininiak eta ilea; lau gauza marrubiak bezailakoaxeak: mihia, ezpainak, masaila, eta bere larruazal zuripeko haragia; lau gauza ilbetea bezail niribilak: bernak, eskumuturrak, ipur masailak eta sabelaldea; lau gauza handi: lokiak, kopea, begiak eta bularrak; lau gauza ttiki: ahoa, sudurra, belarri zuloak eta emakumeek gu galtzeko dute sarbidetxo hori..." (49.orr)

Fabianen familiari buruz ez da informaziorik, itsasoa ezagutzen duela badakigu eta askotan Antonio Mariari kontatzen dio nolakoa den, bidaiak aipatzen dizkio. Bere testamentuan, bere kaskezurra kuadro batean ematea galdetzen du, saloiko hormetan ematea. Honen bidez, jendeak zer garen eta nora joaten garen jakin dezan, aginduko du. Hemen, Fabianok biziaren absurdotasunari eta zentzugabetasunari erreferentzia egiten du banitateak aipatuz.

### Antonio Maria

Antonio Maria, lapur taldeko kudeatzailea da eta bere izengoitia *Gizon izandako mutila* da. Eleberri hasieran etxe bat erasotzen du eta hila bezala kontsideratua da baina Zabaletaren neskameak, Maria Bautistak, sendatzen du. Hori aitzin, Somosierra aldean ibili zen eta armada ezberdinetan egon zen. Hamasei orduz torturatua izan zen ere bai (58.orr). Sevillako kartzelara joan zen baina bere delitua ez da jakina izan. "Hil edo bizirik" bilatua da. Zabaletak berriz topatzen duelarik, ihes egiten uzten du.

Antonio Mariak jakiten duelarik Pistoletek bere tokia hartu duela, "urde ustel" bat

dela dio eta honekin borrokatzen da. Baina Fabian, Antonio Maria ihesaldi luzetik itzultzen delarik aldatu dela ohartzen da. Burua beste nonbait du, Maria Bautistaz maitemindua delako.

Hasieratik, Antonio Mariak Fabianekin mintzatzea maite zuen (28.orr), (60.orr) eta Fabianekin Baiona aldera ihes eginen du. Han, bilatuak direla jakinen dute. Pirinioetako mendietan ezkutatzen dira eta bere lagunari maite duen emazteari gutunak idaztea galdetzen dio. Bi gizonen arteko lotura sendotzen da. Baina, herriko erretorea hiltzen delarik, herritarrek Antonio Maria akusatzen eta bahitzen dute. Nahiz eta Fabian entseatu den bere laguna salbatzea, erailtzen dute. Fisikoki, pertsonaiak, ile labur, aurpegi hezurtsu eta sudur estua ditu (17.orr) Fabianek bere talde kudeaketan "*esku bat berunezkoa eta bestea belusezkoa*" duela dio.

Antonio Maria jadanik ezkondua izan zen. Lapur munduan sartzeko, bere izena, seme eta emaztearekin moztu zuen (57.orr). Kasualitatez Baionan emaztea ohia gurutzatzen du. Emazteak ezagutzen direnez galdetzen diolarik, hozki erantzuten dio, mesprezuarekin "*behar bada bai, dagoeneko ni ez naiz hura"*(107). "*Emaztea abandonatu zuenetik, izotza hoztuan bizi izan*" zela kontatua da (77orr). Zorrotza, beldurgarria, baina zuzena bezala agertzen da Antonio Maria. Bere lehengo biziaz ez du ezer atxikitzen, alta amari lotua egoten da eta bere urtebetetzearentzat opari bat helarazten dio.

Antonio Maria heroi tragiko bat bezala kontsideratua da ez delako legalitatean bizi. Fabianen begietatik aipatua da eta miresmena eta errespetua agertzen dira bere kontaketan.

Zabaleta

Ipuin hasieran Zabaletaren dorretxea erasotua da. Lapur taldearen proiektuak porrot egiten du eta Zabaletak Antonio Maria bere zerbitzuan atxikitzen du, bere menpe. Bere

helburua maizter berria hiltzea da. *"Behin akatatzen dugularik, maizter berriarekin infernua milatan mila bider beltzagoa izango duk"* (44.orr). Bere alaba, musika irakasleaz haurdun da eta Antonio Mariari hilaraztea agintzen dio. Zabaletaren emazteak, alabaren alaba berea bezala hezten duela errana da (53.orr). Zabaletaren neskamea Maria Bautista deitzen da, han Antonio Maria ezagutu zuen. Zabaleta manipulatzailea eta mendekaria da, ipuineko pertsonaia antagonista nagusia da.

### Pistolet

Pistolet lapur taldekoa da. *Gizon izandako mutila* hila dela uste delarik, taldearen burua hartzen du. Kideek ez dute maite. Harroputza (46), suge (97) bat bezala ikusia da. Taldea kudeatzen duelarik, *"berunezko eskuak erabilita besterik ez"* zuela adierazia da (35.orr). Harakinak ez du maite baina badaki Malestruka maizter bezala okerrago izanen zela. Pistoletek, neska bat taldera ekartzen du, Katalin. Neska hori besarkatzen du baina ez du gauza handirik aipatzen pertsonaia honi buruz.

Antonio Mariak ez du Pistoletek *Gizona izandako mutika* izena hartzea onartzen eta berriz topatzen direlarik, borrokatzen dira. (88..orr). Pistolet Madrilera eramana da eta egoera txarrean da, "*Pistolet, total eginda, eta besoak bizitza osorako guztiz indargabeturik"* (97.orr).

### Harakina

Harakina taldeko sukaldaria da. Aho handia da eta hitz bortitz asko erraten ditu, ("Zakilberde" (48.orr, 104.orr)) pertsonaia sinpatiko bat bezala deskribatua da. Malestruka ez zuen batere maite, bere ustez infernura joan da. (36.orr). Emazteak aipatzen dituelarik, *"emeak"* deitzen ditu eta bere balentriak kontatzen ditu (49.orr). Ber maneran, Katalina aipatzen duelarik, errespetu falta ageri da: *"Ez dakizu "zer nolako gizon gosea izaten duen. Halakoetan asetuko duenik ez duk jaio"*. Emazteak haien sexualitateari mugatzen ditu eta haien bizi moldea epaitzen du, aldiz, ez du arazorik emazte desberdinekin ukan dituen

harremanak kontatzeko.

Harakinak, bukaeran, Malestruka bere arnoa pozoinduz hil zuela aitortzen du. Hori Antonio Maria hil zela pentsatzen zuelako egin zuen. Bera ordezkatzeko Malestruka okerrena izanen zela pentsatzen zuen, nahiz eta ez Pistolet maitatu. Ipuin bukaeran, Harakina, egiazko izenez Fernando Manuel Lizarragabengoa, hiltzen dute, albiste batean agertzen den bezala (108.orr).

Maria Bautista

Maria Bautista, Zabaletaren neskamea da. Dorretxea erasotua delarik, Antonio Maria atzematen du, sendatzen du eta ihes egiten laguntzen du. Maria Bautistak eta Antonio Mariak gutun harreman bat dute, Fabianek Antonio Mariarentzat idatziko du. Antonio Maria epaitua delarik, Fabian, Maria Bautistaren bila joaten da bere laguntza ukateko, baina berantegi da, emaztea jadanik hila da, bihotz arazoak dituelako. Hil aitzin, bi intxaurrondo landatu zituen *"santa Engrazia baselizaren albo batean, gure maite hitzak entzun zituen intxaurrondoaren oroigarri.*" xoko batean (118.orr). Maria Bautista neska goxo eta erromantiko bat da. Bere gutunean ezteiak, amodioa aipatzen ditu (118.orr).

### 1.4.3 Ondorioak

*Gizon izandako mutila*ren pertsonaia nagusiak Antonio Maria eta Fabian dira. Biek rola zehatz bat betetzen dute. Antonio Maria, gizon bakartia, iragan iluna duena eta mendekaria da, heroi maskulino klasikoaren ezaugarri nagusiak ditu: indartsua, iluna, bakartia, seriosa da. Ulises (*Odiseoa*) edo Tristan (*Tristan et Iseult*) pertsonaia mitologikoak bezala, bidai luzeak egiten dituelako, bere gibelean maite zituenak utzi behar dituelako. Maite duen emazte bat ezagutzen du eta tragedia handiak bizitzen dituzte. Bukaera arte, bere duintasuna atxikitzen du. Aldiz, Fabianek lagun leialaren tokia hartzen du. Heroia sustengatzeko eta bere psikologia sakontzeko sortua da. Antonio Maria heroi karismatikoa da. Fabian gizon ez erakargarria, baztertua eta maitasun kontuetan

esperientziarik gabekoa bezala agertzen da.

Pertsonaia asko agertzen dira *Gizon izandako mutila* eleberrian, baina gutxi femeninoak dira. Maria Bautistaren pertsonaiak emaztearen estereotipo baikorra erakusten du. Emazte zintzoa eta maitemindua da. Aldiz, Katalina aipatua delarik, bereziki Harakinaren hitzetan, misoginia agertzen da. Sexu zale maltzur bat bezala deskribatua da (48.orr). Pertsonaia maskulinoen iduriko ez du errespeturik merezi, Marikutzu bat bezala ikusia da. Katalina emazte “txarra”, makurra da. Orokorrean, emazteek ez dute akzioetan parte hartzen. Antonio Mariak abandonatu zuen emaztea mesprezatua da eta Fabianek emazteak aipatzen dituelarik harreman fisikoei baizik ez ditu lotzen. Feminitatea objektu bezala kontsideratua da. Proiekzio sexistak dira pertsonaia maskulinoen ikuspegi androzentrikoetatik. Errespetatua den feminitate forma bakarra, amatasunari lotua da goxotasuna, maitasuna adierazten duelako. Feminitate estereotipo hori errespetatzen ez dituzten pertsonaia femeninoak gutxietsiak eta apalduak dira.

### 1.5 Fernando Morillo, (2002) *Izar Malkoak*

#### 1.5.1 Ipuinaren aurkezpena

Fernando Morillo Euskal haur gazte literaturako idazle oparoa da. Hainbat sari irabazi ditu (JUUL Saria zortzi aldiz) eta hogeita hamar eleberri baino gehiago argitaratu ditu. *Izar malkoak* 2002an argitaratua izan zen Aizkorri argitaletxean eta 2003an Euskadi saria irabazi zuen. 2016an, berriz argitaratu zen Fernando Morillok sortutako Gaumin argitaletxean.

Eleberriak, Beñat, hamasei urteko nerabe baten gorabeherak kontatzen ditu. Besta egiten ari delarik diskoteka batean bere lagunekin, neska baten ezagutza egiten du, Maider deitzen dena. Beñatek Maider ametsetako neska bezala deskribatzen du eta nahiz eta bere lagunek abisatu ez dela egokia beretzat, obsesio bat garatuko du. Maider neska oso polita

da eta sexualki irekia da. Ideiak argi ditu eta heldutasun sexual bat erakusten du. *Izar malkoak* singularreko lehen pertsonan idatzia da, Beñatek kontatzen du, baina Maiderri zuzentzen du bere ipuina. "Zu" deitzen du eta galderak pausatzen dizkio, gu irakurleok, Maider bagina bezala.

Orain arte aztertutako obrak ez bezala, Fernando Morillok euskararen diskurtsoa nerabeei egokitzen ditu. Eleberriak pasarte gordinak ditu sexualitateari buruz. Liburua nerabeei zuzentzen da eta haien kezkei eta dudei erantzuteko lagungarria izan daiteke. Beñat birjina da eta bere esperientziak aipatzen ditu: hilabetekoak, masturbazio femeninoari buruz gogoetatzen du. Gai tabuak lotsarik gabe aipatzen ditu Morillok. Nesken gorputza, hilabetekoak eta plazeraren nozioak aipatuak dira. Pertsonaia maskulino baten ikuspuntutik etortzen diren gogoetak dira. Irakurleentzat, kontzientzia hartze bat izan daiteke. Beñatek Maiderrekin duen plazera aipatua da. Hirugarren pertsonaia batek, Jaionek, Maider eta Beñaten harremanari dinamika berri ekartzen dio.

*Izar Malkoak* tituluak, zeruko konstelazioei erreferentzia egiten die eta preseski greziar mitologiari. Eleberrian kontatua den bezala, Orionek (ehiztari erran nahi duenak) zazpi ahizpak (Pleiadak) harrapatu nahi zituen. Neskak ihes egiteko uxoz eta ondotik konstelazioz transformatuak izan ziren. Orionek haien edertasuna harrapatu nahi zuelako bere izeneko izarra ukan zuen. Horretako zeruan, Orion izar malkoen gibeletik doa. Beñat eta Maiderren harremana mito honen gainean oinarritzen da.

### 1.5.2 Pertsonaiak

#### Beñat

Beñat Euskal Herrian bizi da. Bere familiari buruz ez dakigu gauza handirik. Bere aita arkitektoarekin bizi da, baina ez dugu informaziorik ama edo anai – arrebei buruz. Lagun kuadrilla bat badu eta bere lagun hoberena Ibon da, "*amak baino hobeto ezagutzen ninduen*" (38.orr). Amari egiten dion erreferentzia bakarra da. Beñaten beste lagunak ez

dira ezagutzen, nahiz eta jakin inguratua dela, diskotekan bezala. Bestalde, Jasonerekin harremana du. Eskolan elkarrekin dira eta liburutegian ezagutu ziren. Asko urbildu ziren eta musukatu ziren, baina neskak erran zion maitemindua zela eta geroztik harremana hoztu zen Beñatek ez dakielako zertan den berekin.

Beñatek erreferentzia kultural eta ezagutza asko ditu. Printze txikia, izarrak, Pleiada, Michael Jackson, Nietzsche, Dolby Surround aipatzen ditu. Beñat fisika eta batez ere ordenagailu zalea da. Logizialak egitean, hackatzean, denbora asko pasatzen du Ibonekin. Beñaten gogoetak eta dudak azalduak zaizkigu nahiz eta bere fisikoari eta ingurumen hurbilari buruz gauza gutxi dakizkigun.

Eleberriaren zentroan, Beñaten maitasuna Maiderrentzat kokatzen da. Hasieratik bere adorazioa agertzen da. Oso ederra atzemanten du *"lehen iruditu zitzaidan baino are ederragoa zinela konturatu nintzen. Min hartzeraino."* (12.orr). Ber Maneran, diskotekatik ateratzean eta izarrak begiratzera joaten direnean, Beñatek Maiderri Pleiadaren istorioa kontatzen dio. Maiderrek Orion izateko prest denez galdetzen dio. Mutikoak ez du erantzuten. *"Ez nekien zer erantzun, baina begira zintudan oraindik. Nire indar guztiak batu nituen. Zu ezustean harrapatzea erabaki nuen itsumustuan*" (27.orr). Beñaten helburua Maider harrapatzea zen. Sedukzio joko bat hasten dute eta batek ihes egiten duelarik besteak segitzen dio. Harremana dinamika desorekatu kaltekor batean oinarritzen da.

Alta, Beñatek badaki Maiderrek ez duela maite. Askotan hotza izatea leporatzen dio. *"Zure portaera hotz hori ohikoa ote zenuen?*" (73.orr) "*Nitaz aprobetxatzen zinela oso argi nuen" "Menperaturik nindukazun"* (88.orr) *"Begirada hoztu zitzaizun"* (109.orr). Mutikoak haien harremana ez dela orekatua eta Maiderren gibeletik korrika egiten duela badaki. Baina ez du harremana moztea gainditzen. Nahiz eta Maiderrekin gauza asko ikasi sexualki, sentimenduen aldetik, Beñat bakarti sentitzen da, ez da entzuna sentitzen. Bere harremanean, agertzen da mutiko irekia dela eta bere neska lagunaren gorputza entzuteko

gai dela. Adibidez, nahiz eta Maiderrek hilabetekoak ukan haien harreman sexualean zehar, ez du arazorik eta segituko du berekin larrua jotzen (72.orr). Ber maneran, masturbazio femeninoa aipatua da. Beñatek hasieran neskek ez zutela hori maite pentsatzen zuen, bere lagunek hori erraten zutelako. Bere ustez, "*mutil asko gezurtero hutsak dira edo ez dira gauza handiz jabetzen*" (86.orr), Beñatek mutiko asko ez direla nesken sexualitateari interesatzen eta haien afera egin ondotik estimatzen dutela harreman sexuala bukatua dela pentsatzen du. Ez da lehen aldia Beñatek bere generoaren makurrak gutxiesten dituela. Hasieran, diskotekan zirelarik, mutikoen jarrera kritikatzen du Maiderrekin mintzatzen delako. *"Batzuetan, onartzen dut, mutilak aski patetikoak izan gaitezke*" (15.orr).

Baina Maiderrek gezurra erran dio Beñati eta beste mutiko batekin joan da. Beñat triste eta traditua sentitzen da. Bere sentimenduak ez dira errespetatuak izan, manipulatua izan da.

Beñatek Jaione gustuko du baina ez du Jaione miresten Maider bezala, nahiz eta neska zuzena eta zintzoa izan. Horretarako, Jaionerekin tabernara joan ondotik eta musukatu ondotik, neskak galdetzen dio ea hurrengo batean egongo diren eta Beñatek "*Ea*" (56.orr) erantzuten dio. Ez duela ezertan engaiatzeko asmorik ulertarazten dio eta Maiderrekin bikotean ematen da. Orduan, Maiderrek Beñati biziarazten diona, Beñatek ere Jaioneri biziaraziko dio. Bere sentimenduekin jostatzen da eta Maiderrek uzten duelarik, Jaionerekin ateratzen da. Beñaten harremanak neskekin erakusten digu ez duela harreman orekaturik irudikatzen. *Izar malkoak* titulua dion bezala beti norbait bestearen gibeletik doa eta azkenean beti batek sufritzen du.

Maider

Maiderri buruz jakiten ditugun lehen elementuak bere fisikoari lotuak dira. Neska ederra da "*Oso polita"* (8.orr), "*katu begi*"ak ditu (9.orr) eta *"aingeru itsura*" (73.orr) du. Ipuin guztian zehar, bere fisikoak presentzia asko hartzen du. Bere irria, ileak, begiak

aipatuak dira, baina gorputza ere bai. Jantziak "*galtza estuak, elastiko estua*" (22.orr) "*Egundoko gorputza zenuen eta bazenekien*" (70.orr). Bere ileak luzeak eta argiak dira, begiak berdeak ditu, Maiderrek neska ederraren estereotipoek garraiatzen duten itsura du eta fisiko honek bere nortasunarekin kontrastatzen du. Maider neska hotza bezala deskribatua da. "*Zure portaera hotz hori ohikoa ote zenuen galdetu nion neure buruari*" (73..orr) *"Izotz puxka*" (86.orr) "*Begirada hotza*" (88.orr).

Hasieratik Beñat manipulatzen duela dirudi: Orion bezala bere gibeletik joateko prest izanen denez galdetzen dio. Maiderrek ez du haien harremana bi zentzuetan joaten den istorio bat bezala ikusten. Gutizia tresna bezala kontsideratua da. Protagonistak bere desilusioa adierazten du lehen aldiko Maiderrekin larrua jo ondotik, bere jarrerak aingeru itxurarekin kontrastatzen duelako. "*Zure aingeru itxurak (...) ez zidan hori sinesten uzten*" (73.orr). Eleberrian zehar, Beñat ez da Maiderren nortasunari interesatuko eta bere fisikoarekin liluratua egongo da. Maiderren adina edota ikasketak ez dira aipatuak. Burasoak askotan etxetik kanpo direla eta ez dutela haien alabak harreman sexualak ukatea nahi badakigu. Anai – arrebarik ba ote du? Nor dira bere lagunak? (Bere lehengo mutil laguna Urko aipatua zaigu eta Maiderren kuadrilla diskotekan eleberri hasieran agertzen da) Maider misterio bat egoten da irakurlea eta protagonistarentzat.

Bere fisikoaz gain, Maider bere bizi sexualaren arabera definitua da. Badakigu Maider ez dela birjina eta Beñatek Urkoren ezagutza egiten duelarik besta batean, azken honek haien bizi sexualari buruz detaile asko ematen dizkio. *"Maider laostiako beroa duk, e? Behin lau aldiz jardun gintuan.*" (60.orr) Maider objektu sexual bat bezala kontsideratua da bere lehengo bikotekideen partez eta Beñatek ez du arazorik diskurtso haiekin. Ez dugu inoiz Maider sedukzio esferatik kanpo ikusten. Bakarrik pasiera joan nahi duela dakigu eta bukaeran ulertzen dugu Sebas, beste mutiko bat jeloskor izateko dela. Alta hasieratik Maiderrek erraten dio Beñati "*oso gozozalea*" dela (25.orr), gazte batentzat bere sexualitatea onartzen du, gorputzaren plazerak integratu ditu eta ardura sexual bat duela adierazten du (kondoia ematen du, 70.orr).

Maiderrek Sebas jeloskor izateko eta maitemintzeko, Beñat erabiltzen du. Baina Beñat neskaz maitemintzen da eta manipulatua sentitzen da. Maiderrek gezurra erran dio Beñati maite duela adierazten diolarik. Neskak bere jarrera onartzen du: "*Sebas ezagutu nahi nuen eta ia edozer gauza egiteko prest nengoen"* (109.orr). Beretzat pertsonen arteko harremanak *"jolasaren araudia*"ri lotuak dira. Maider bere harremanetan jostatzen da, nahi duena ukateko besteak erabiltzen ditu. Maiderri leporatzen zaiona mutiko jarrera bat ukatea da. Normalki ehiztaria maskulinoa da eta hura doa neskaren gibeletik, baina Maiderrek rola maskulino hori betetzen du. Jarrera hori oraindik gehiago leporatua zaio bere fisikoarekin kontrastatzen duelako. Baina, Beñatek Maider hobekiago ezagutzea erabaki baldin bazuen, ordenagailuekin oso aditua dela eta hackeatzailea dela jakingo zuen. Honen ondorioz, Beñatek ez luke bere logiziala galduko Maiderrengatik.

## Jaione

Jaione ipuineko bigarren pertsonaia femeninoa da. Neska goxoa eta txikia bezala deskribatua da. Maiderrek aingeru aurpegia baldin badu, Jaionek "*oso aurpegi polita*" du. Begiak beltz beltzak, ile beltzaran luzea, eta ahula badirudi ere, "*pentsatzen dena baino gogorragoa da*" (17.orr). Jaione oso era xelebrean janzten da. Neska oso argia da, "argiegia", protagonistaren erranez, eta literatura zalea da. Ez dakigu gauza handirik bere bizi pribatuari buruz. Bere burasoak behin aipatuak dira. Beñatekin ezagutzen dira erabakitzen dute elkarrekin lan egitea eta pixkanaka maiteminduko da Jaione, *"Uste dut zurekin maitemintzen ari naizela*" (18.orr). Baina Beñat beldurtzen da. Jaione neska goxoa eta diskretua da. Beñat diskotekan ikusten duelarik Maiderrekin, ez du deus erraten, *"untxi izutu baten begiak*" dituela (21.orr) dio protagonistak. Bere pena beregain hartzen du eta isilik egoten da. Berantago, Jaione Beñaten etxera joaten denean jakiteko zertan diren Maider eta bera, oso argiki bere sentimenduak berriz azaltzen dizkio *"aukerak ditudala esan nahi du horrek*" (51.orr), erraten dio jakiten duelarik Beñat ez dela Maiderrekin. Musukatuko dira baina Beñatek ulertaraziko dio ez duela ezer seriosik nahi. Berriz ere Jaione mindua da baina ez dio ezer erraten.

Jaione istorioan berriz agertzen da Beñat eta Maiderren harremana bukatzen delarik. Etxeko lanen estakurua erabiltzen du Beñat beregana erakartzeko. Nahiz eta Jaionek jakin Beñatek ez duela Maider ahantzi, "*banekien berak bazekiela oraindik zurekin txoratuta nengoela*" (114.orr) egoera onartzen du. Bere helburua betetzen du, Beñatekin bukatzen du. Baina zein preziotan? Beñatek Jaionerekin ukan duen jarrera ez da zintzoa izan. Jaionek Beñaten jarrera barkatzeaz gain – ez dio inoiz ezer leporatzen – menpekotasun jarrera erakusten dio. Beñatek Jaioneren izateko manera gustuko eta eskertzen du *"Jaionek ez zidan ezer aurpegiratu – Ibon ez bezala.*" (114.orr). Jaione neska ideala bezala ikusia da Beñaten inguruko pertsonen ikuspuntutik. Hasieratik, Beñatek bere koadrilak erotzat hartzen du ez duelako Jaionerekin bikotean izan nahi. (19.orr). Ondotik, Protagonistak Ibonek "*Jaione zuela ametsetako printzesa*" (90.orr) susmatzen du. Jaioneren sexualitatea ez da inoiz aipatua, pertsonaia zintzoa eta leiala bezala kontsideratua da.

Aita

Beñaten aitak ezaugarri gutxi ditu. Etxean lan egiten du, arkitektoa da eta denbora asko proiektu berriei pentsatzen pasatzen du. Buraso figura izateaz gain, Beñaten aitak neskei atea irekitzen die (Jaione eta Maiderri) eta aldi guztiz azpi-erranak egiten dizkio semeari. Irri maltzurrak egiten dizkio kanpora doalarik neska batekin (48.orr) eta bere semeak hainbeste neska ukatea bere inguruan gustuko du "*poza ematen zion, antza, bere semeak hainbeste arrakasta izatea*" (104.orr). Aitak jarrera patriarkala klasikoa erakusten du, konplizitate maskulinoan oinarritua. Maider eta Jaioneren burasoak kezkatzen dira haien alabak mutiko batekin direlarik. Hemen, aita bere semeaz arro da neskekin arrakasta duelako.

Ibon

Ibon Beñaten lagun hoberena da. Berekin diskotekan da Maider ezagutzen duelarik,

koadrila berdinekoak dira. Ibonek keinuak egiten dizkio Beñati diskotekan Maiderrekin mintzatzen delarik (37.orr), mutiko gazteen arteko broma bat bezala aurkeztua zaigu. Bi pertsonaiek pasio komunak dituzte: ordenagailuak eta nesketaz mintzatzea. Biek denbora asko Beñaten ganbaran programak asmatzen pasatzen dute. Ibonek pentsatzen duena Beñati erranen dio Maiderrekin delarik. Bere ustez, Maiderrek burua itzultzen dio eta Jaionerekiko ez du jarrera egokia ukan. Azken honen defentsa hartzen du. Ipuinean, Ibon Beñaten erabakiak eta hautuak berriz galdekatzeko eta irakurlearen ikuspuntuari berritasuna ekartzen du. Beñatek Ibonek Jaione maite duela suposatzen du. Baina ez dio deus aipatuko eta halere Jaionerekin ateratzen da.

Urko

Beñatek Urko bestan ezagutzen du. Urkok Maider sexu zalea dela erraten dio eta manera oso gordin batez mintzatuko da "*Goseak behintzat ez haiz egongo"* (66.orr). Gaua Beñatekin kalakan pasatzen du. Protagonistak Urko sinpatikoa atzematen du nahiz eta Urkoren jarrera Maiderrekiko errespetu faltakoa izan "*Tipo jatorra ematen zuen*" (33.orr). Berantago, Urkok Beñati aitortzen dio aspalditik badakiela Maider Sebasen gibeletik ibiltzen dela. Beñatek Urkorekin ukan duen elkarrizketa Maiderri errepikatzen dio. Urko bi aldiz agertzen da eta aldi guztiz Maiderretaz mintzatzen da. Bere sexualitatea eta intimitateri lotuak diren ezaugarriak aipatuak dira.

### 1.5.3 Ondorioak

*Izar malkoak* eleberrian, Maider eta Jaione oposizioan sortutako pertsonaiak dira. Fisikoki, bata txikia eta ile beltza da, bestea ilehoria da katu begiekin. Bat oso literatura zale da, oso argia, bestearen ikasketei buruz ez dakigu ezer baina hackeatzailea da. Nortasunaren aldetik, Jaione neska diskretua da, Beñati lotzen da, ez dakigu ezer bere sexualitateari buruz. Maider independentea da eta sexua eta sentimenduak desberdintzen ditu, besteak manipulatuz ere. Haien nortasuna dikotomikoa da. Goxotasuna hotzaren

kontra, maitasuna, sexuaren kontra.

Jendartean mutikoek dituzten kodeak bereganatu ditu Maiderrek eta antipatikoa iruditzen zaigu pertsonaiak. Alderantziz, Jaionek ezaugarri femenino estereotipatu positiboak janzten ditu. Bere pertsonaia maitasunaren gainean oinarritzen da eta ez dio inoiz Beñati bere jarrera leporatzen. Bukaeran bere menpekotasuna erakusten du Beñat berekin itzultzea onartzen duelarik. Beraz, Jaionek nahi duen mutikoarekin bukatzen badu ere, bere irabaztea oso samina da. Jaionek ez du Maider maite eta alderantzizkoa egia da ere. Alta ez dakigu bata eta bestea elkarrekin interakzioan izan direnez baina mutiko baten inguruko jeloskortasun estereotipatua elikatua da.

Beñatek Maiderrek egiten diona oso gaizki hartzen du eta tradizio bat da. Baina Maiderren "izar malkoa" ez zen Beñat, nahiz eta Beñatena Maider izan. Hori oso gaizki hartzen du, sufritzen du eta hura ahanzteko Jaionerekin bukatuko du. Azkenean, Beñatek Maiderrek egin duena birsortzen du.

*Izar malkoak* eleberriak, beti beste norbaiten gibeletik ari garela eta pertsona honek beti ihes egiten duela kontatzen du. Orion eta Izar malkoen metaforak ez du mutikoak nesken gibeletik joaten direla adierazten baina gure maitasun harremanak aitzina ihesaldiak direla ( ...Ibon -> Jaione -> Beñat -> Maider -> Sebas...) erakusten du. Alta Orion eta Izar malkoen mitoa, harreman bortitz baten gainean oinarritzen da.

## 1.6 Miren Agur Meabe, (2006) *Urtebete itsasargian*

### 1.6.1 Eleberriaren aurkezpena

Miren Agur Meabek *Urtebete Itsasargian* eleberria 2006ean argitaratu zuen. Idazleak, hogeita hamaika lan plazaratu zituen eta horien artean, hamasei haur gazte literaturakoak eta hamabost sari literario jaso zituen. Horien artean, hiru aldiz Euskarazko Haur literaturazko Euskadi saria ukan zuen. *Urtebete Itsasargian*-ek Euskarazko Haur eta

Literaturazko Euskadi saria irabazi zuen 2007an eta Liburu Gazte Saria 2008an. Meabek, liburu hori idaztean, "*istorio entretenigarri bat kontatu eta gazteek gerraren inguruko hausnarketa*"-ra pusatu nahi zituen.[124]

Eleberriak, Bilboko 13 urteko mutiko baten ikuspuntutik Espainiako gerla zibila kontatzen du. Jon Iturri Mendieta bere osaba, Alejandro Mendietaren etxera doa. Hura itsasargi batean bizi da, Garraitzetan. Meaberen erranez, Garraitzeta, Lekeitioren izen literarioa da, autorea hangoa baita. Amak Jon han uzten du bere aita gerlara joan delako eta haurra babesteko. Urte bat han pasatzen du eta nerabeak gerla zibilaren eboluzioa kontatzen du. Ipuina bi partetan zatitua da. Lehena "Txo" deitzen da eta nerabearen uda aipatua da. Gerla urrundik bizitzen du eta nahiz eta bere ondorioak jasan eta bizi, osabarekin harremana eta bere lagun taldea aipatuak dira. Ondotik, bigarren partea " Gerraren izua" deitzen da, Espainiako gerlaren pizua indartzen da. Eguneroko bat bezala, kapitulu bakoitzak hilabete bat deskribatzen du eta gerlaren eboluzioa, beldurra eta mehatxuaren igotzea, gosea, euskaldunen baztertzea eta errepublikanoen galtzeak aipatuak dira. Istorioa historiari lotua da eta garai latz batean sartzen gara erreferentzia eta elementu zehatz batzuei esker. Itsasargian, Jonek Mirra ezagutzen du, hamahiru – hamalau urteko neska buhame bat da. Jonen amak, Miren edo *Maritchu* espainolez, Mendieta izena du. Ipuin hasieran haurdun da ondotik Libe alaba sortuko da. Jonen aita, Alberto Iturri deitzen da, medikua da eta gerla egitera joan da errepublikanoekin. Bukatzeko, Katalin, osaba Alejandroren maitemindua da. Alejandroren itsasargiak Katalinen izena hartzen du bere ohorez.

### 1.6.2 Pertsonaiak

#### Jon

Jon Iturri Mendietak hamahiru urte ukanen ditu. Izenak hautatzeko Meabek bere inguruko pertsonetatik hurbil hautatzen duela dio. Jon ez da inori erreferentzia baina bere inizialak, JIM, bere semearenak bezalakoak dira, beraz "keinutxo afektibo" bat egiten dio

124 Agur Meabe M, *Urtebete itsasargian, literatur solasaldia,* Literatura/Idazlean ikastetxean DBH2/07/08 ikasturtea Zubizahar ikastola 2008ko maiatzaren 30a

hemen[125] Jon, Bilboko mutikoa da. Normalki ikaslea da baina, gerlarekin bere osabaren itsasargian pasa behar zuen uda urte oso bat bilakatzen da. Bere osabak Txo deitzen du pertsonaia nagusia. Mirra ezagutzen duelarik maitemintzen da. Neskak ez daki ongi euskaraz mintzatzen, baina hondartzan ikusten duen bezain laster erakarria sentitzen da. Entseatzen da neska hori laguntzea eleberrian zehar.

Gau batez, Mirra zauritua agertzen da. Jonek salbatzen du eta itsasargira eramaten du. Momentu honetan, neska erdi biluzik eta ahula da. Alta, hor, Jonek bere lehen pultsio sexuala ukaten du:

> "Unetxo batean baizik ez nuen ikusi Mirra biluzik. Hala ere, bere burmuinaren zokondoetan betiko marraztuta geratu zitzaizkidan haren sorbaldak, bularrak, zilborra, eta aldaka hezurtsuen artean, huntz-orriaren antzera zabaltzen zen bilo iluna". (47.orr)

Neska eri da eta laguntza behar du, Jonen menpe da. *"Lastoetan etzanda zegoen, ez esna, ez lo, eldarnio hutsean baino, sukarrak jota. Lasto printzek arantzak ematen zuten haren buru izerdituan".* Nahiz eta ez ezer gertatu, Jonen sexualitateari buruzko aipamena ez da egokia egoera honetan.

Jon osabarekin ongi konpontzen da baina etxe – mina du. Amarekin lotura berezi bat du. Haurdun dela ikusten duelarik, pozten da badakielako burasoek beste haur bat nahi zutela (bat galdu zutelako txikia zelarik). Eleberria hasten delarik, Jon familiari oso lotua da, fededuna da eta elizara doa. Abertzaletasunak eta gerlaren bortizkeriek aldatzen dute. Katalinen ideologia feminista entzuten du. Eleberria bere ikuspegitik kontatua da eta bere haur begirada eleberrian zehar geroz eta helduagoa bilakatzen da. Bukaeran, euskal familia arrunt bat zuen pertsonaiak, pertsona suntsitu bat bilakatzen da, bere ideal eta ideologia guztiek zartatu dute.

---

125 Agur Meabe M, *Urtebete itsasargian, literatur solasaldia,* Literatura/Idazlean ikastetxean DBH2/07/08 ikasturtea Zubizahar ikastola 2008ko maiatzaren 30a

Istorioak nerabezaroaren sartzea kontatzen du. Inozentzia, maitasuna, laguntasuna, familia agertzen dira. Idealaz betea den haurra da baina testuingurua berezi honek bere errealitatearen ikuspegia aldatuko dio. Gerlaren traumatismo guztiak biziko ditu urte batez. Mehatxuak, gosea, beldurra, errepresioa, erasoak, tortura, erailketak, ezagutuko ditu. Aldiz, ikusiko duen lehen gorpua ez da gerlarengatik izanen. Honek asko traumatizatuko du, gizon hori talaiara joatean, itsasontzitik atzemanen duelako eta Mirra jotzen zuen gizona zelako.

Pertsonaiaren antolakuntzari dagokionez, Jonen fisikoa ez da aipatua baina, bere nortasuna garatua eta landua da. Mutiko zuzena da eta jendea laguntzeko prest da. Ez du aurreiritzirik eta bihotz onekoa da. Hilabete asko itsasargian pasatzen ditu eta herriko bizian parte hartzen du. Bere osabaren lagunekin nahasten da, emazteak eta Mirrarekin ospitalera joaten da, hondartzara joaten da, bere lagunekin pilotan ari da, itsasora arrantzatzera joaten da... Baina bere abentura handiena udan pasatzen du, bere amak erraten diolarik itsasargitik ihes egitea aitaren bila joateko, faxistek osaba hil dutelako. Bilboraino bakarrik joaten da eta aita atzematen erreusitzen du Santonan. Biek plano bat muntatzen dute familiak ihes dezan eta erbestera joateko. Bukatzeko itsasargira itzultzen da ama abisatzeko. Bere tristezia aipatua da bere etxea faxistek hartu dutela ikusten duelarik. Baina bidaiaren zailtasunari buruz ez dakigu besterik. Bukaeran familiaren heroia Jon da, urte batez mutikoa gizona bilakatu da.

Alejandro

Alejandro Mendieta Garraitzetako farozaina da. Gerla hasten delarik, agorrilean, bere ilobari harrera eginen dio. Alejandrok bere itsasargia Katalin deitzen du. Hark dio saindu bati lotua dela baina bere ilobak sumatzen du Katalin, herriko neska batez maitemindua delako dela. Alejandro gizon anti-konformista da. Jonek dituen baloreak eta aurreiritziak bultzatzen ditu.

Haurrak elizara joan nahi duelarik, Alejandrok ez dela giristinoa argiki erraten dio "*erlijioak lausotu egiten ditu begiak batzuetan*" eta kritika bat euskaldun fededunari buruz egiten du: *"Ikusten dut nire arrebak ondo erakutsi dizula Sabinoren leloa: "Jaungoikoa eta lege zaharra""*. Baina abertzalea eta errepublikazalea da. Bilkurak egiten ditu eta bere lagun taldean politika maiz aipatua da. Gainera armak gordetzen ditu errepublikarentzat bere itsasargian. Bestalde, pertsonaia itsaso zalea da eta askotan talaiara doa.

Alejandro pertsonaia enpatikoa da: otsailean zehar, populakuntza gerlan sartua delarik, janari gehiena besteei ematen die. Ber maneran, Mirra zauritua atzematen duelarik, hartaz okupatzen da bere itsasargian. Horrez gain, Alejandro pertsonaia ausarta da, Molina jeneralak bere arreba iraintzen duelarik, defenditzen du eta tua botatzen dio. Jonentzat bezala, ez da elementu fisikorik agertzen eta ez dakigu zein adin duen.

Horrez gain, Katalinetaz maitemintzen da eta berekin bikotean ematen da urrian zehar. Apirilean, Katalin hilko delarik, burua galdu bezalakoa da Alejandro. Jonek osaba ez dela ohetik jaikitzen (112.orr) dio Militantea da eta honengatik bizia galduko du. Frankistek ikasten dutelarik nazionalistei oposatzen dela bere itsasargia okupatzen dute maiatzean eta ekainean, torturatu ondotik, erailtzen dute.

Alejandrok bere iloba handitzen lagundu du. Bere ilobarentzat afekzio asko du, Jonen konplizea eta laguntzailea da. Alejandro pertsonaia alaia, soziala eta modernoa da. Ez da beldurtzen borrokatzea bere ideologia eta maite dituenak defenditzeko. Honengatik hilko da, zutik egonez bukaera arte. Alejandro gerlaren biktima bat da eta bere desagertzearen gordintasunak irakurleari pena eta haserrea sortzen dizkio. Injustiziaren sinbolo bat da, baina Alejandro bere biziaren bukaera arte aktore izan da, ez da inoiz pasiboa izan.

Mirra

Jonek Mirra itsasargiaren azpian ezagutzen du, hondartzan. Ez dakigu gauza handirik bere jatorriari buruz, bakarrik buhamisa talde batekin zela. Komendianteekin egoten zen herriko bestak ospatzeko baina gerlarengatik ez dira egon eta Mirra gabe joan dira.

Mirrak ez daki euskaraz ongi mintzatzen eta gure jendartearen jarrerak ez ditu osoki integratu. Hasiera batean, Jonek ikusten duelarik, lapak hartzen eta gordinik jaten ditu. Berantago, gizon batek Mirra deitzen du eta Jonen aitzinean jotzen du. Hark neskarentzat lilura bat elikatzen du eta bere ikuspuntutik baizik ez da aipatua. Laster, mutikoa Mirrataz maitemintzen da. Berriz ikusten duelarik *"Orienteko printzesa zirudiela"* (23.orr) dio Jonek. Baina, berantago Mirra berriz atzematen du bere osabaren itsasargian. Norbaitek berriz jo du eta itsuski zauritua da. Ikasten dugu jo zuen gizona, uretan atzemana izan den gorpu bat dela eta bere burua defenditzeko Mirrak pusatu duela. Hasiera batean Jonek bere osabari Mirraren presentzia ezkutatzen dio eta oilategian gordetzen du. Baina, berantago Mirra sendatzen dute. Neska babesteko beste identitate bat ematen diote, Mirari deitzen da, eta familia batean neskamea bilakatzen da. Ospitalean lan egiten du ere beste emazteekin gerlako zaurituak sendatzen laguntzeko. Jon maiz ikusten du eta musu bat trukatzen dute otsailean. Baina apirilean, Gernikako bonbardaketaren garai berdinean, Jonek Mirra eta bere familiak ihes egin dutela ikasten du. Ez du inoiz berriz ikusiko, bere ametsetan aparte.

Mirra salbaia, zintzo eta exotikoa bezala deskribatua da. "*Bon sauvage*[126]" mitoan bezala, Mirra, inozentea eta biluzik aipatua da eta esploratzaileek beste mundu bat ezagutuko luketen bezala, Jonek itsasargira eta itsasora iristen delarik, Mirra, naturari lotua den neskatoa ezagutzen du. Horrez gain, hainbeste deskribapen fisiko dituen pertsonaia bakarra da. Jonentzat Mirra gutizia proiekzio bat da. Bere bainu jantzia, belarritakoak, berokitxo zirtzildua eta bere gorputza biluzik aipatuak dira. Bere tresnifikazioa indartua da ez dakigulako ezer bere bizi pribatu eta jatorriei buruz. Pertsonaien fisikoak ez dira aipatuak baina haien nortasuna zabala eta nabartua da. Mirraren kasuan alderantziz da.

126 https://www.universalis.fr/encyclopedie/le-bon-sauvage/

Mirra pertsonaia aitzakia bat da Jonen nerabezaroko bihotz pilpirak aipatzeko.

Miren

Eleberriaren hasieran, Mirenek bere semea bere anaiaren etxean uzten du. Uda bukaeran, ama itsasargira itzultzen da eta nebari galdetzen dio haurra berekin atxikitzea gerlaz babesteko. Momentu honetan, Jonek bere ama haurdun dela ikasten du. Haur bat galdu zuten eta Jon ez zen haur bakarra hautuz. Gero, haurrak bere ama berriz Bilbon ikusten du bere arreba sortu ondotik. Baina, maiatzetik, Miren Liberekin, itsasargira joaten da eta han instalatzen dira. Ipuinaren bukaera arte itsasargian egoten da eta bere semea aitaren bila haiek salbatzeko bidaltzen du. Molina jeneral faxistak Miren bi aldiz erasotzen du. Lehen aldian bere anaiak babesten du. Bigarren aldian, anaia hila izanen denez, ez du inor bere burua babesteko:

"Todo tiene arreglo, si tu quieres, - esan zioten amari – Solo tienes que ser un poquito... Ya sabes.- Baina oraingo horretan osaba ez zegoen han Molinari tu egiteko." (113.orr)

Miren amatasunaren irudikapena da. Semeari balore giristinoak pasarazten ditu eta anaiak erraten duenaren arabera euskaldun fededun zintzoa dela suposa daiteke. Ez da informaziorik bere fisikoari buruz, salbu haurdun delarik tripa borobila duela. Bere nortasunari buruz hipotesiak baizik egin daitezke. Ez dakigu lanbide bat baduen eta zer egiten zuen Bilbon bere senarra gerlan zelarik eta semea itsasargian

Jon Bilbotik itzultzen delarik, amak Molina jenerala eta bere lankidea giltzaperatu dituela arma batekin mehatxatuz ikasten dugu. Akzio horrek, nahiz eta harrigarria izan, Mirenen nortasunaren alderdi berri bat erakusten du. Bere burua defenditzen daki eta hura ere bere familia babesteko gai da. Kuraia eta indarra erakusten ditu gerla garaian. Nortasun ezaugarri hori ipuinaren azken orrialdeetan agertzen da.

Alberto

Alberto Iturri Jonen aita eta Mirenen senarra da. Ipuinean zehar haur bat ukaten du, Libe. Alberto ez da asko agertzen baina anitz aipatua da. Medikua eta abertzalea da. Gerlara joaten da irailean, eta bere semeak bilatzen duelarik, uztailean, bere egunerokoa atzematen du. Familiari oso lotua da, emaztea eta haurrak asko aipatzen ditu baina bere engaiamendua gerlan ere aipatua da. Jatorriz, Alberto Bilbotarra da, baina gerlarengatik burdineko hesian da. Bukaeran Santonan da eta bere semea atzematen du. Elkarrekin plano bat sortzen dute familia guztia elkartzeko eta erbestera joateko. Hitz horiek erraten ditu semeari amari helarazteko: "*Lur berri bat dugu zain. Eta edonon gaudela ere, biok gauden tokia, hori dela gure etxean*."(129.orr).

Albertok heroi estatutua du ipuinean. Bere lanbideak gizon ikasia eta bere gaitasunak jendearen zerbitzuan ematen dituela adierazten du. Mediku bilbotarra denez, hark diru iturria ekartzen duela etxera suposa daiteke. Ama etxea eta familiaren babeslea da eta aita kanpoa eta aberriarena da. Ama emozioen irudia delarik, aita politika eta arrazoiarena da.

Katalin

Katalin Garraitzetan bizi da eta andereñoa da. Aspektu askotan, Mirraren antza du: Mirrak bezala ez du deiturarik, bere bizi pertsonalari buruz gauza gutxi dakizkigu eta pertsonaia nagusienetariko baten maitasun interesaren zerbitzuan da. Baina bere nortasuna Mirrarena baino garatuagoa da. Eleberri hasieran Katalin antifaxista eta feminista dela jakinen dugu. Kultura duen pertsonaia da. Osaba eta Katalin bi pertsonaia anti konformistak dira, haien ikuspuntuak eta haien oposizioak argiki erakusten dutelako:

*"Katalinek erresuminez segitu zion osabaren jardunari:*

– *Eta emakumeok oztopoa edo pentsatzeko ezgauza garelakoan, etxeetan eta*

*sakristietan sartuta nahi gaituzte." (29.orr)*

Berantago, Katalinek "*gizartea aldatzeko eta emakumeon eskubideak lortzeko*" (77.orr) bere engaiamendua aipatzen du. Pertsonaia nazionalismoaren kontrako borrokan sartua da, munizioak gordetzen laguntzen du baina ere gizonak ordezkatzen ditu haien lanbideetan Garraitzetako jendartea biziarazteko.

Katalinen fisikoari buruz gauza gutxi dakizkigu, salbu neska gazte bat dela. Alejandrorekin bilkuretan parte hartzen du eta lagun edo ezagutza zirkulu berdina dute. Albertorekin bikotean da urrian zehar baina apirilaren 26an, Gernikako merkatura joaten da eta bonbardaketan hiltzen da.

### 1.6.3 Ondorioak

Meabek Euskal Herriko nerabe baten istorioa kontatzen du eta pixkanaka Espainiako gerla zibilaren ondorioak eta eraginak bere egunerokotasunean aipatzen ditu. Pertsonaiek psikologia sakona eta landua dute.

Mirraren pertsonaiak paradoxak ditu. Alde batetik, neska ausarta eta independentea bezala aurkeztua da. Baina bestalde, bere feminitatean mugatua den pertsonaia da. Gizon baten babesa behar du eta bere fisikoari mugatua da.

Katalinen bidez, Meabek emaztearen tokia 30 hamarkadan aipatzen du. Baina pertsonaia maskulinoek ez dute feminismorik aldarrikatzen, gizon – emazteen arteko berdintasuna emazteen afera dela dirudi.

Miren etxean egoten da eta haurdun izan ondotik alabaz okupatzen da. Aita, aldiz, gerlara joaten da errepublikano eta euskaldunen alde borrokatzeko. Bakoitzak toki

estereotipatu bat atxikitzen du. Familia nuklearrak gerlari bizirauten du. Ondorengorik ez dutenek, Katalin eta Alejandro bezalakoek, gerlaren biktimak dira.

Ondorioz, hiru pertsonaia femeninoak pertsonaia maskulinoen maitasun interesak dira. Pertsonaia maskulinoen proiekzioak dira, ikuspegi maskulino batetik eraikiak dira, nahiz eta idazlea femeninoa izan. Pertsonaia mamitsuenak maskulinoak dira. Pertsonaia femeninoen artean desberdintasunak badira. Baina haien rol nagusia goxotasun, maitasun babeslekuak izatea da, gerlaren tragediaren bihotzean. Gizonek gehienetan politika aipatzen dute, haiek gerlara joaten dira eta haiek akzio gehienak bizitzen dituzte.

### 1.7 Harkaitz Cano, (2013) *Orkestra lurtarra*

#### 1.7.1 Ipuinaren aurkezpena

*Orkestra Lurtarra* 2013an Elkar argitaletxean Xaguxar edizioan argitaratua izan zen eta Euskadi Saria jaso zuen. Eleberriarentzat, Harkaitz Canok Haur Gazte literatura Euskadi saria irabazi zuen. 10 urtetik aurrera gomendatua den liburua da.

Manuk, pertsonaia nagusiak, orkestra bat, musika tresna ezberdinak dituzten protagonista ezberdinekin sortu nahi du. Orkestra honen istorioa kontatua da eta aipatutako gaiak musika klasikoa, talde baten bidaia, bira, New-Yorken ezagutza, traumak... dira. Harkaitz Canoren erranez *"sormenaren apologia bat bada"*[127] bere helburua haurrak sormenaren bidetik jotzen bultzatzea da, irakurleak animatzeko. Liburua gaztelaniaz eta galegoz itzulia izan da. Eleberria singularreko hirugarren pertsonan kontatua da eta hitz joko asko ditu. Narratzailearen tokia garrantzitsua da irakurle gazteari elementu asko ematen dizkiolako eleberria hobekiago ulertzeko. Besteak beste, musikari lotuak diren informazioak, *pizzicatoa* jotzea bezala edo triangelu kontzeptuaren definizio ezberdinak

127 Youtuben Elkarrek argitaratutako bideo bat, 2013ko maiatzaren 13an. https://www.youtube.com/watch?v=5gy3z3QbdNs

emanak dira. Pertsonaiak bereziak dira eta Euskadi Sariak umorea, egoera barregarriak goraipatzen ditu[128].

Eleberriko pertsonaia nagusia, orkestraren sortzailea, Manu da. Orkestra osatzen duten pertsonaiak Aldika Etxeberria biolin jolea, Osoki triangelu jolea, Lurinetti Anaiak tronpetistak, Crocanti kantaria dira. Haiek aparte, Presidente ahuntza, kardantxiloa, Renzo Panini, K emakumea eta Hip Hop – lariak aipatuak dira. Pertsonaien psikologia, jatorria ez da askotan aipatua eta garatua, mamia akzioetan agertzen da.

### 1.7.2 Pertsonaiak

#### Manu

Manuk gatu bat bazuen Trauma deitzen zena eta desagertu zitzaiona. Manuk bere amarekin harreman estua du. Bere amak katuak madarikatuak zirela erran ondotik, Manuk pentsatu zuen katuak madariondoetan bizi zirela. Manuren adina ez da errana baina heldua dela suposatzen ahal da. Musikazalea da eta bira bat egiten du mundu guztian, berak erabakitzen du ez hegazkina hartzea eta bere orkestrarekin itsasontzia hartzen dute, denak eroso izateko. Alta, itsasontzia urperatuko da. Manuk haur izpiritua du. Errazki haserretzen ahal da eta inozentea dirudi, gauzak ez ditu beti ulertzen eta haur arimarekin erantzuten du. Adibidez, K Andereak haien orkestra ez dela beste mundukoa erraten diolarik erantzuten dio orkestra lurtarra dela. Haien taldearen izena hortik heldu da. Bere helburua, musikan jendeari oilo ipurdia ematea da. Egiten duen musika tresna jatsa da.

Manuren pertsonaia motibazioz betea da. Pixkanaka Aldika, Osoki, Lurinetti Anaiak eta Crocanti ezagutuko ditu eta orkestra muntatuko dute. Denen ego eta beldurrekin konposatu beharko du taldean harmonia eta oreka bat izateko. Atzerrira joatean dira,

128 2014ko Euskadi Literatura Sariak, Epaimahaiak ikusitako merituaren arabera http://www.euskadi.eus/euskadi-literatura-sariak/web01-a2kulsus/eu/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/euskadi_litera_2014/eu_literatu/infantile.html

Italiarat, Mongoliarat, Marseillesera edota New Yorkera. Bukaeran, asperraraz, taldea separatuko da. Manu karrika garbitzaile izanen da, honi esker bere jatsa erabiltzen du, beti jendeari oilo ipurdia emateko asmoarekin.

Ez dakigu ezer Manuren fisikoari buruz testuei bakarrik fidatzen baldin bagara. Ber maneran, Manuren ingurumenari buruz ez dugu informaziorik: lagunik ba ote du? Ikasketak egin ote ditu? Ama aparte familiarik ba ote du? Non bizi da? Aldiz, Manu determinatua da, taldea lotzeko borondatea du eta irudimena du. Berak orkestra sortzen eta zuzentzen du abentura guztietan. Taldearekin irri egiten dute baina dramak bizitzen dituzte eta Manu gertakari horien eramailea da. Horrez gain, taldea zaintzen du eta kontseiluak ematen ditu: Osokiren jeloskeriari aurre egiteko aholkuak ematen dizkio edo itsasontzian beldur direnei tisana bat egiten die.

Manuren izena maiz maskulinoa da baina epizenoa izan daiteke. Bere generoa maskulinoa dela argiki adierazteko ez dugu elementu asko. Ez dakigu nork eta zerk erakartzen duen eta bere jarrerak pailazo bati pentsarazten digu maskulinitate kodifikatu batean murgiltzen den gizon bati baino. Androginoa dirudi eta anbiguotasun bat bada, nahiz eta pertsonaiak ezaugarri maskulino gehiago dituen femeninoak baino.

### Aldika Etxeberria

Orkestran integratua izanen den lehen pertsonaia eta pertsonaia femenino bakarra Aldika Etxeberria da. Izen eta deitura bat dituen pertsonaia bakarra da ere. Ez dakigu ezer bere jatorriei buruz, salbu bere aita farmazialaria dela. Eleberriak ez du informaziorik ematen bere fisikoari buruz. Manuk Aldika bere etxeko leihotik biolina jotzen aritzean ezagutzen du. Hasieratik Aldika emazte bat dela errana zaigu. Hura biolin jolea da baina berezitasun bat badu: estresatua sentitzen delarik, hatza badu besazpian eta ezin du gehiago biolinik jo. Honen kontra joateko metodo bat sortu du eta biolina eskuekin jokatzen du, pizziacatoa deitzen da, eta oso ona omen da, musikari barrokeroa da.

Aldikak itsasontzietan beldur du eta hori Titanic filma ikusi duelako. Biolin jole guztiak urperatuak izan direla erraten du. Pertsonaia hori zorrotza bezala ikus daiteke, bere publikoa hautatzea erabakitzen du: haiek kontzertura sartu aitzin, zer den gehien maite duten soinua galdetzen die, kalitatezko entzuleak ukanen dituela segur izan nahi du. Ipuinean zehar, Osokiz hurbiltzen da. Haien izenak bateragarriak dira eta biek bitxikeriak ukatea musika jotzen dutelarik komunean dute. Gainera, bi aldiz hurbil agertzen dira biak zinemaz mintzatuko direlarik eta berantago narratzaileak esplikatuko du bi pertsonaiak beti ados direla. Orkestra lurtarra desegin ondotik, Aldika eta Osoki munduaren itzulia egitera joaten dira musika jotzeko eta haur bat dute, Betty deitzen dena.

Osoki

Osoki bere musika eskolako hoberena bezala kontsideratua da. Triangelu jolea da. Osokik berezitasun bat du: musika jotzen duelarik, kardantxilo bat ateratzen zaio. Horrez gain, fite agertzen da Osoki jeloskorra den pertsonaia dela ez duelako bere kardantxiloa libre uzten Presidente ahuntzaren gainera joan nahi duelarik. Manuk *Txoria txori* kantua erabiliz hegoak ebakitzen badizkio, ez dela gehiago kardantxiloa izango esplikatuko dio. Oxokik kardantxiloa uztea erabakitzen duelarik, Aldikaz maitemintzen da. Bere fisikoari buruz ez dakigu deus. Aldikarekin ezkondu aitzin eta munduaren itzulia egin aitzin, berekin beti bat egiten zuela biran zehar aipatua da. Osokiren jatorriak eta ingurumena ez ditugu ezagutzen.

Lurinetti Anaiak

Bi pertsonaiak, abantzu bukaera arte elkarrekin aipatuak dira. Zirkotik ateratzen diren bikiak dira. Haien zurubia eta ahuntzarekin – Presidente – dira. Fisikoki altuak, serioak eta sudur luzea dute. O itxurako aho ziloak dituzte ere. Zirko batetik heldu dira eta beti batera mintzatzen dira. Manuri zirkokoek bi tronpetistak lapurtzea leporatzen diote.

Haien ahuntzarekin orkestran segitzen dute. Umilak dira, garbitasunari garrantzi asko ematen dute. Biek gustu berdinak dituzte eta Marx anaiak aipatzen dituzte filma egile maiteenak bezala. Presidente hiltzen delarik, oso triste dira eta New Yorken beste ahuntz bat bilatzen dute. Eleberri bukaeran, bi pertsonaiak banatzen dira. Alde batetik bat horma pintatzailea da bere eskailerarekin eta bestea Finlandian aizkolaria da. Mozketa honek orkestraren ondotik, pertsonaia bakoitzak bere identitatea bereganatu duela adierazten du.

Crocanti

Manuk Crocanti azkenik ezagutu duen pertsonaia da. Gizon bizardun gizena italiar izozki saltzailea da eta kantatzen du. Hasieran Manuk pentsatzen du emazte bat dela ahotsa gora duelako. Baina Crocanti kontra-tenorea da, lehen c*astrati* deitzen zirenak.

Crocanti berehala Lurinetti anaiekin lagun bilakatzen da eta taldearekin bira egiten du. Haien taldea desegiten delarik, lehen bezala, berriz izozkiak saltzen ditu. Bere kasuan ere ez, ez dakigu bere ingurumena eta nortasuna zein diren.

Presidente

Presidente Lurinetti anaien ahuntza da, eta erregularki garbitzen dute. Hasieran Osokiren jeloskortasuna sortuko du kardantxiloak berekin egotea nahiago duelako, baina bukaeran talde kide guztiek maite dute. New Yorkera joateko, Manuk, Presidenterentzat itsasontziz joatea hobekiago dela erabakitzen du. Alta animalia itsasontziz zorabiatzen da. Talde guztia estresatua delako, kamamila (anti-Titanica deitua dena) eskainiko die Manuk eta denek edanen dute Presidentek aparte. Itsasontzia urperatzen delarik, bizirauten ez duen bakarra Presidente da. Ez dakigu Presidente arra edo emea denez. Orkestraren elkarrizketetan parte hartzen du. Kexatzen delarik “meeeee” egiten du. Presidente bigarren mailako pertsonaia da eta animalia denez ez du orkestran parte hartzen. Baina taldearen maskota da eta jendea erakartzen du. Bere heriotza momentu larri bat da pertsonaia guztientzat eta doluaren esperientzia kontatua da.

### 1.7.3 Ondorioak

*Orkestra lurtarrak* pertsonaien arteko dinamikari indarra ematen dio. Orkestra batean bezala, musika tresna bat bakarrik entzuten baldin bada, ez du interes asko ukanen, aldiz denak batzen baldin badira, harmonia bat sortuko da eta liluragarria izan daiteke.

Manu, nahiz eta haur handi bat bezala ikusia izan, besteen beldurrei erantzuteko eta lasaitzeko gai da.

*Orkestra lurtarra-n* pertsonaia femeninoen tokia mugatua da. Agertzen diren hamahiru pertsonaien artean (orkestra eta K Emakumea, hiru raperoak, Presidente, Renzo Panini eta kardantxiloa) bi femenino agertzen dira. Bost pertsonaien generoa ez da argitua (raperoak eta bi animaliak). Baina sei pertsonaia nagusien artean emazte bat baizik ez da, Aldika. Bere erreferentziek, ( *Titanic* aipatzen du, filma erromantikoa) feminitateari lotuak dira. Nahiz eta pertsonaia femeninoa ez etxeari mugatua izan, (bira bat egiten du, munduaren itzulia) hasieran bere etxean deskubritu da eta bukaeran, ezkondua eta haur batekin den pertsonaia bakarra da Osokirekin.

Pertsonaia femeninoek ez dute informazio fisikorik baina maskulinoek badituzte (Bereziki Crocantik eta Lurinetti anaiek), informazio horiek karikatura forma hartzen dute (sudur lodia, gizena, bizarra...). Hemen feminitatea edo maskulinitatea ez dira ezaugarri garrantzitsuak bezala adieraziak. Ipuinaren pertsonaiak absurdoak dira eta haien bitxikeria eta xelebrekeriak kontuan hartu behar dira.

## 1.8 Yolanda Arrieta Malaxetxebarria, (2014) *Argiaren alaba*

### 1.8.1 Ipuinaren aurkezpena

Argiaren alaba 2014ean argitaratua izan zen Markina Xemeingo udalaren laguntzarekin auto – edizioan, ondotik 2015ean Denonartean argitaletxerekin. 2015ean

Arrietak Euskadi Saria jaso zuen. Idazleak HGL-n eta heldu literaturan berrogei obra baino gehiago idatzi ditu. Pertsonaien psikologia eta haien arteko harremanak manera finean kontatzen du eta narrazioaren estruktura azpimarragarria da *Argiare alaba* eleberri hibridoan.

Mirari, hamazazpi urteko neska bat da. Bere izeba, Amaia deitzen da. Elkarrekin, Bizenta Mogel idazleari buruzko ikerketak egiten dituzte. Bi mende lehenago baino gehiago bizi zen emazte idazle euskaldunaren istorioa ulertzen eta idazten saiatzen dira. Amaiak eta Mirarik idazkera prozesuari, Bizenta Mogelen biziaren ikuspegiari buruz gogoetatzen dute. Eleberrian zehar, Bizenta Mogelen ezkutuko eguneroko faltsu bat eta egiazko gutun, hiztegi, itzulpen batzuk aztertzen dira. Meta fikziozko eleberria da, beraz liburua ez da bakarrik eleberri formari mugatzen (Arrieta, 2014), biografia, saiakera ere nahasten baitira. Arrietak bizkaitar asko erabiltzen du bere eleberrian.

Kapituluak desberdinki antolatuak dira. Amaia eta Mirariren eguneroko lan prozesua, Bizentaren biografia, fikziozko egunerokoa, Bizentaren idazkeraren interpretazioak lerrokatzen dira. Ikerketa horiek Arrietak egin ditu. Liburuaren helburu nagusi bat Bizenta Mogelen bizia ezagutaraztea eta euskal literaturari egin dion kontribuzioa baloratzea izan da.

Lan hori egitean, Yolanda Arrietak Bizkaiko autore bat aztertzeko xedea zuen. Hasieran, Juan Antonio Mogeli pentsatu zuen, *Peru Abarka*-ren idazlea. Baina bere iloba gazteari pentsatu zuen, hogeita bi urterekin *Ipui Onak* idatzi zituenak. Ez zelako bere osaba bezain famatua eta neska bat zelako, Bizenta Mogel ikertzea erabaki zuen Arrietak.

Hiru pertsonaia nagusi nabarmentzen dira ipuin honetan: Mirari, Amaia eta Bizenta. Euleterio, Juan Antonio eta Maria Bizentaren inguruko pertsonaiak dira. Mirari eta Amaia, kapituluen arabera narratzaileak dira. Bizentaren egunerokoa irakurtzean, bera bere biziaren narratzailea da.

### 1.8.2 Pertsonaiak

#### Mirari

Mirari New Yorken bizi da eta Euskal Herrira bere familiarekin uda pasatzeko etorri da. Bere izebarekin egoten da eta elkarrekin Bizenta Mogeli buruzko ikerketak egiten dituzte. Mirarik hamazazpi urte ditu eta neska argi bat da. *"Dohain paregabeen jabe naizela entzun dut, ia-ia neure izena ahoskatzen ikasi nuenetik, eta horrengatik nabil neure adinekoak baino ikasturte bat aurretik, jada unibertsitatean"*. Puntako ikasketak egiten ditu New Yorken (91.orr) eta oso goiz idazten ikasi zuen (139.orr). Bere aita amerikarra da eta Australian da. Bere ama euskalduna da eta AEBn bizi da. Amaia amaren ahizpa da eta amak galdetu zion uda harekin pasatzea. Eleberriak Mirarik bizi sozial bat baduela, lagunak badituela eta bere ingurumenean integratua dela aipatzen du (sare sozialen bidez, besteak beste) (91.orr). Mirarik bere etxetik joateko gogoa zuen, beste zerbait ezagutzeko asmoarekin. Bere fisikoari buruz gauza gutxi dakizkigu, pisu-neurri bataz bestekoa duela aparte. Mirarik nortasuna irekia du, nahiz eta bere gaztetasuna ukan.

Ikerketaren arian, mutiko baten ezagutza eginen du, Blayney, erromes bat. EHU-n inskribatu nahiko du heldu den ikasturtean, Mirari bezala. Beretzat, "*Blayney, nire bidea partekatzeko konplize bat da. Hona badator primeran; baina ez badator ere, hor gaude...*" Gauzak positiboki hartzen ditu, ez du dependentzia harremanik sortzen bere maitasun harremanetan. Blayney ez da fantasma tresna bat bezala deskribatua, bere harremana gibeltasunarekin hartzen du, ez du oztopatzen bere proiektuak aitzinatzeko. Blayneyek ez ditu bere pentsaerak inbaditzen eta Mogeli buruz egiten dituen lanak ez ditu trabatzen.

Baina bere hamazazpi urteen inozentzia agertzen da ere. Mirarik Blayney Amaia eta bere aterpetxera eramaten du. Amaiak leporatzen dio, mugak ezagutu behar dituelako eta errespetuz aritu behar delako (41.orr). Gainera, Bizenta Mogeli buruzko kritikak egiten dituelarik, bere izebak oroitarazten dio garaiak aldatu direla eta bere erabakiak eta

nortasuna testuinguru bati egokitu behar direla.

Izeba eta ilobaren arteko harremanak sanoa eta orekatua dirudi. Asko mintzatzen dira eta haien ideiak trukatzen dituzte. Mirarik Amaia pertsona libre eta xelebrea dela atzematen du (17.orr) Baina nahiz eta adin desberdintasun bat izan, konplizitate azkarra dute eta proiektu sendoak eraikitzen dituzte elkarrekin. Haien konfiantza harremana ipuin bukaeran agertzen da. Mirarik Amaiari bere ikasketak antropologian eta biologian Euskal Herrian segitzeko aukera duela beka bati esker erraten dio. Ilobak bere etxean egoten ahal denez galdetzen dio. Amaia bere tutorea izateko prest da.

Amaia

Amaia pertsonaia libre bat da. Txikitan Ameriketan bizi zen (142.orr) eta Donostian finkatu zen lau edo bost urte lehenago (24.orr) Bere lanari esker – dokumentuetako gidoilaria da – mundu guztian bidaiatu du. Lanari toki asko ematen dio eta bakardadea maite du. (145.orr). Amaiak ez du bikotekiderik eta ez du haurrik. Bakarrik bizi da eta ipuinak hautu bat dela adierazten du. Ez da egoeraren biktima, lanak aberastasun asko ekarri dizkio eta orekatua da. Jendea ezagutzen du eta bizi sozial oparoa du "*Munduan sakabanaturik dituen ezagunak munduko mapan puntu koloretsuz markatu bagenitu, benetako izartegi batekin aurkituko ginateke"*. Mari Eli bere lagun zaharra gurutzatzen duelarik (129.orr) *"beste Markinako ilustratu bat"* bezala erakutsia da.

Bere bidaiei esker sei hizkuntza dakizki. Bizentari buruzko inkesta egiterakoan, berrogeita hamar urte baino gehiagoko gizon erromes batek berekin bidaia egitea galdetzen dio, bere eskuak hartu ondotik (88.orr). Hurrengoan izanen dela erantzuten dio. Amaiak bere independentzia eta askatasuna atxikitzen ditu. Ez du trabatua izan nahi eta bere bizia den bezala maite du. Bere erranez, "*urteek ez dute askorik esaten, Mirari, nahiz eta egunak badoazen gehiago ez itzultzeko*." (73.orr). Amaia emazte jakintsu eta zuhurra da.

Bizenta Mogel aipatzen duelarik, bere iloba baino neurtuagoa da. Bere ustez, idazlea ezkondu da, nahiz eta libre izan. Baina garaian oso zaila zela konbentzio sozial horiei uko egitea. *"Bizentak badaki emakume izateagatik beraz espero den rolari eutsi behar diola: hezitzailea eta laguntzailea izan behar du"* (138.orr) Mogelen *Ipui onac* aipatzen dituelarik, erraten du "*xede moralista hor dago"*-ela (140.orr), baina, gaztetxoei eta nekazariei alegi onak eskaini nahi dizkie, eta haur analfabetoei lehen material pedagogikoa eskaintzen diela, euskararen kategoria altxatuz "paperezko hizkuntza klasikoen parera" (141.orr). Amaiak, Bizenta Mogel bere garaian kokatzeko eta irakurlearentzat testuinguruak zehaztu behar direla dio. Bere iturriak ematen ditu, irakurlearentzat bere erranak oinarrituko ditu eta pertsonaiari dimentsio intelektual sendoago bat ematen dio.

Bizenta Mogel

Bizenta Mogel pertsona historiko bat da. Azkoitian 1782an sortu zen eta Abandon 1854an hil zen. Bizenta Mogel, Juan Antonio Mogel, bere osabarekin handitu zen eta etxean eskola ematen zion. Bizentak hogeita bi urtetan *Ipui Onac* idatzi zituen, EHGL-n lehen liburua bezala kontsideratua da.

Ipuinak Bizentak zortzi urte zituenetik idazle izan nahi zuela kondatzen du. Neska eta idazle izatea ez direla oso ongi konpontzen garaian (52.orr) daki. *"Ni igual handitan medikua izango naiz baina osabak esan dit Zaragozan ez dagoela neskentzako eskolarik. Ez Zaragozan, ez hemen. Ba, orduan, idazlea izango naiz; baina hori, oraindio, ez diot inori be esan".* Pertsona kontrolatua bezala deskribatua da, bere espazioa behar du. (60.orr). Bere kontrola sentimenduen gainean agertzen da *"borondatea sentimenduen gainean"* ematen duelako bere fikziozko egunerokoan arabera (35.orr). Luma zorrotza du eta euskaltzale handia da. Kritika handiak egiten ditu frantses eta espainolei buruz. Bizentaren aita, medikua zen eta hil zen haurra zelarik. Bere ama, Maria Eustatia, baserritarra zena, bi ahizpa eta Katalina eta Felipa, anaia, Juan Jose eta osabarekin handitu

zen. Osaba apezak, aitaren rola hartzen du eta bere anaiari eta hari kurtsoak ematen dizkie. Osaba, Basozabal jauna eta Euleterio semearekin *Ipui Onac* idatziko ditu. 1801an, osabak gaztelaniaz idatzitakoak euskaraz itzultzen laguntzen du. Berantago, Alexander von Humboldt-en ezagutza egiten du. Bizenta ingurumen intelektual batean murgiltzen da. Bere liburua osaba hil ondotik argitaratua da.

Bizentak bere fikziozko egunerokoan *"maitasuna bada gauzarik handiena eta iraunkorrena zergatik pertsona bakar bati mugatu?"* (72.orr) idatzi du. Euleterio eta Bizentaren artean erakarpena agertzen da. Batak besteari zerbait ekartzen ahal dio. Biak errespetuko pertsonak dira baina Euleteriorentzat Bizentarentzat baino errazagoa da bere sentimenduak erakustea. Bizentak bere espazioa behar du, eta "*Euleterio txikikerietan gal zitekeen eta Bizentak mundua ireki ahal zion.*" (60.orr) 1817an, 37 urterekin Euleterioekin ezkontzen da.

Testuinguruaren aldetik, bere haurtzaroa frantses iraultza eta Bizkaiko Konbentzio gerla artean pasa zuen. 1813an, gerla Napoleondarrak izan ziren eta 1832an Karlistadak. Bizenta Mogelen bizia gerlen erritmoan iragan zen. Gosea eta diru eskasa zer ziren jakin zuen. Bere amarekin bakarrik bizi zelarik, beharrean ziren eta Euleteriok lagundu zituen.

Eleberriak Bizentak eta Euleteriok ezin zutela haurrik ukan iradokitzen du eta Bizentaren egunerokoan frustrazio hori agertzen da. Baina, Mirarik Bizentaren hautu bat izan zitekeela aipatzen du. Euleterio 1848an hiltzen da. Bizentak bertso asko idatzi zituen. Bere senarraren ondorengoa berreskuratzeko epaitegian borrokatzen denbora asko pasa zuen.

Amaiak ohartarazten duen bezala, Bizenta bere garaiarentzat emazte libre eta aitzindaria zen. Bere nahia segitzea ausartu zen liburu bat idatziz eta emazte ikasi bat bilakatuz. Horrez gain, berant ezkondu zen. Lehentasuna ez zuen familia bizi bati ematen baina ikaskuntzari. "*Agian ez zuten nahi izeko. Marijo Olaziregiri irakurri diot agian*

*umerik ez zeukatelako jarraitu zuela Bizentak lanean, Abanora mundatu ondoren."* (146.orr).

Juan Antonio Mogel

Juan Antonio Mogel Euskal Herriko idazle historikoa da. 1745ean sortu zen eta 1804ean hil zen. Lanbidez apeza zen eta bere anaia Juan Ignacioren haurrak kudeatu zituen hil ondotik. Batez ere Juan Joseren hezkuntzaz arduratzen zen baina Bizentarenaz ere, nahiz eta neska izan, oso kuriosa eta "*gaitasun handiko nerabea*" (27.orr) zelako. Latina, espainola, euskara irakasten zizkion. Juan Antonio Mogel famatua da *Peru Abarka* euskal literaturako eleberria idatzi zuelako.

Eleberrian, Juan Antonio pertsonaia zorrotza baina zuena da. Hark aitaren figura du. Bere etxean liburu asko dira eta kulturaren inguruan murgiltzen da (Humboldt, Ponce... ezagutzen zituen). *"Osaba izango du maisu; berezko jakin nahia akuilua"* (39.orr). Gizon jakintsuen artean murgiltzen da, haiek literaturaren monopolioa dutelako. Zahartzean, eztulka ari da, ez du jaten eta ez du gehiago lorik egiten "*Osaba Mogel ez da lehengoa, begi zuloak ditu eta, ezpainak jaso arren, ez dio irribarreari eusten"* (75.orr). Bizentaren anaia abade delarik, osabak bere iloba hirugarren esku bezala hartzen du (75.orr). 1804ean Juan Antonio nafarreriaz hiltzen da, kasualitatez, bere anaiak eta aitak asko ikertu zuten eritasuna medikuak zirelarik (76.orr). Bizentaren *Ipui Onac* Juan Antonio hil ondotik argitaratua da, ez du inoiz liburua bere eskuen artean ukan.

Maria Petronia Joakina Elgeazabal Uriguene

Maria Petronia baserritarra zen eta Juan Jose Mogel medikuarekin ezkondu zen hogeita lau urterekin. Bizkaitik Gipuzkoara bizitzera joan zen, bere senarra segitzeko eta lau haur ukan zituzten, hiru neska eta mutiko bat. Bere senarra zendu zen eta Juan Antonio,

bere koinataren etxera bizitzera joan zen. Maria Petronia emazte fededuna da eta bere bizia haurrak zaintzea eta familiaz arduratzen pasa du. Bizentaren jantziak josten ditu *afal ostean, alabaren soinekoa konpontzen hasi da ama*" (50.orr), osaba laguntzen du eri delarik *"Burura datozkion guztiak egiten dizkio kiniatak etxeko patriarka txikiari, susper dadin: enplastoak ipini, belar-ura eman, ama zenaren ortariko xabara egunean hiru aldiz..."* (75.orr). Besteentzat lanean ari da. Bere hiru haur zaharrenak joan ondotik eta osaba zenduz gero, Bizentarekin bakarrik bizi da Markinako Guen kale 34an. Bere koinataren dolua luzaz janzten du eta bere alaba ezkontzean bakarrik bizitzen da hil arte, 1826an. Bizentak egunero gutunak idazten dizkio Bilbotik. Bi emazteen arteko harremana estua zen Maria Petroniaren heriotza arte. Maria Petronia pertsonaia diskretua da eta garaiko bizimoldeak integratzen ditu. Eleberriaren arabera, ez da inoiz bere alabaren emantzipazioaren kontra izan eta bere idazle ibilbidea segitzen utzi du.

Euleterio

Euleterio Basozabal, Jose Basozabal zilarginaren semea da eta 1778ko apirilean sortu zen Bilboko alde zaharrean. Hark inprenta bat badu eta biak Markinara joaten dira Juan Antonio Mogelen ezagutza egiteko. Han Bizentaren ezagutza egiten dute eta *Ipui onac* idazten laguntzen dute.

Euleteriok diru kontuak eramaten ditu eta bere anaia, Jose Bizente, agiriak sinatzeko laguntzen du (54.orr). Fisikoki ez da oso handia (84.orr). Nortasunez, bere idazkeraren analisiaren arabera, arreta mantentzeko ahalmen handia du eta dirua aurrezten daki. Komunikazioan pixka bat mugatua sentitzen da baina errespetua erakusten du eta konstantzia du bere baitan. Lasaia, kontrolatua da eta besteekiko menpetasuna erakusten ahal du. Bizentaren osaba hiltzean, bere bisitak geroz eta gehiago biderkatzen dira, berekin ezkondu arte 1817an. 1821ean auzi asko ditu bere merkatal elkarteak porrot egin zuelako. 1824ean kontuak kitatu ditu eta lasaitu da. Bere aita 1828an hiltzen da eta inprenta berreskuratzen du. 1848an hiltzen da, bere emaztearekin etengabe irakurtzen eta itzulpenak

egiten egon ondotik.

### 1.8.3 Ondorioak

*Argiaren alaba* liburu corpusaren obra helduena bezala agertzen da. Eleberriak estruktura berezia du: fikzio eta errealitatearen arteko nahasketak badira, gutunen analisiak aipatuak dira, fikziozko egunerokoaren pasarteak badaude eta inkesta garaikideari integratuak dira. Obra konplexua eta korapilatsua da. Kapitulu bakoitzak bere estruktura du eta ari berri bat luzatzea proposatzen du. Irakurlea erne egon behar da, idazkera maila sendoa delako. Haur gazte literaturaren barne kokatzen baldin bada obra hori, ezin da gazte guztien eskuen artean eman euskara zorrotza delako eta bizkaitarraren erabilpena, oztopo bat izaten ahal delako iparraldeko irakurle gazte batzuentzat.

Eleberriaren heldutasuna gaiaren hautuan agertzen da ere. Pertsonaia zentrala Bizenta Mogel da eta Arrietaren helburua, emazte idazle bizkaitarra irakurleei ezagutaraztea izan da. Bizenta Mogel Euskal Herriko lehen emazte idazlea bezala ezagutua da. Baina Juan Antonio Mogelen itzalean bizi izan da. Arrietak ikerketa sakon bat eraman du idazlearen biografia zehatz bat proposatzeko. Obrak ez du Bizenta Mogelen bizia kontatzen bakarrik, bere inguruan beste pertsonaia batzuk sortzen ditu, Mirari eta Amaia. Bi pertsonaiek gaurko bi belaunaldi ezberdinetako bi feminitate mota erakusten dituzte. Amaia emazte xelebrea da, jende asko ezagutzen du, asko bidaiatzen du eta bere lanbidean oso irekia da. Mirari, ernea eta izpiritu finekoa da. *Argiaren alaba*n pertsonaia nagusiak femeninoak dira eta haien interakzio nagusiak artea, literatura, soziologia, harremanen gainean oinarritzen dira.

Eleberrian zehar, emazteen irudia positiboa da. Arrietak ez ditu pertsonaia femeninoen estereotipoak segitzen. Autoreak bere lana pertsonaien psikologian eta nortasunean oinarritu du. Amaiak eta Mirarik ez dute inoren beharrik haien bizia sendoki zuzentzeko eta nahi duten norabidea emateko. Etxetik kanpo dira, tabernara joaten dira,

harreman afektiboak dituzte bakoitzak haien nortasuna dute. Mirarik Bizentaren bizi moldeei buruz kritikak baditu, Amaiak bere hautuak testuinguru zehatz batean kokatu behar direla oroitarazten dio. Honek, gaurko ikuspegi kritikoak neurtu behar direla adierazten du. Kritika feminista eta generoei buruzko gogoeta testuinguru bati lotu behar direla adierazia da.

Bizenta Mogelen ausardia obran Jane Austeni konparatua da, garaikidea zuen autore ingelesa zen. Nahiz eta biek ez gai berdinak aipatu (orohar, Austenek gizon emazteen arteko harremanak eta Mogelek euskara eta ohitura onak aipatzen zituzten), neska argiak ziren, idazle oparoak eta biak haien barne espazioa garatu zuten (134.orr).

Yolanda Arrietak emazteen egoerari buruz gogoeta ezberdinak plazara ekartzen ditu: *Argiaren Alaba* eleberriak euskal emazteei tokia ematen die. Mirari eta Amaiak eleberriari gaurkotasuna ekartzen dute eta euskal tradizio klasikoekin moztura bat egiten dute.

Mirari eta Amaia belaunaldi desberdinetakoak dira baina biak argiak eta independenteak dira. Mezu indartsua da neska gazteentzat. Eleberriak maitasuna ez dela helburu bat eta uros sentitzeko ez dela gakoa erakusten du. Obra hibrido hori saritzean, epaimahaiek berrikuntzari tokia utzi diotela ageri da. Emazteen tratamendua zaharberritua da eta pertsonaiak sakonak, mamitsuak dira.

## 2 Eleberrien analisia kuantitatiboa

2.1 Pertsonaiak




**Taula 119: Pertsonaiak eleberrietan**

Berrogeita lau pertsonaien artean, hogeita zazpi maskulinoak eta hamasei femeninoak dira. Txan ez da identifikatua, *Txan fantasma*-n eta Manu *Orkestra lurtarra*-n pertsonaia maskulinoa baldin bada, ez da argiki adierazia. Lau eleberritan pertsonaia gehienak maskulinoak dira: *Orkestra lurtarra, Izar malkoak, Gizon izandako mutila* eta *Aurten aldatuko da nire bizitza*-n. Hiru idazle maskulinoek eta idazle femenino batek eleberri horiek idatzi dituzte. *Argiaren alaba* eta *Txan fantasman* pertsonaia femeninoak nagusitzen dira. Biak idazle femeninoen eleberriak dira. Bi eleberrietan protagonista kopurua orekatzen da: *Sugeak txoriari begiratzen dionean* eta *Urtebete itsasargian.* Autore maskulino bat eta femenino bat badira. Hautatutako corpusean, berrogeita lau pertsonaien artean, gehienak maskulinoak dira. Ondotik femeninoak eta bukatzeko, bat ez da identifikatua.

Pertsonaia nagusiak




**Irudia 120: Pertsonaia nagusiak eleberrietan**

Zortzi eleberrien artean, seitan pertsonaia nagusia maskulinoa da. *Gizon izandako mutila*-n, bi pertsonaia nagusi maskulino dira. *Argiaren alaba*-n hiru protagonistak femeninoak dira eta *Txan fantasman* protagonista femenino bat bada eta bestea ez da identifikatua. Orokorrean zazpi protagonista maskulinoak dira. Ondotik lau femenino dira eta bukatzeko bat ez da identifikatua.

2.3 Bigarren mailako pertsonaiak




**Irudia 121: Bigarren mailako pertsonaiak eleberrietan**

Hogeita hamabi bigarren mailako pertsonaien artean, hemezortzi maskulinoak eta hamalau femeninoak dira. *Argiaren alaba*-n, *Orkestra lurtarra*-n*, Gizon izandako mutila*-n gizonak nagusitzen dira bigarren mailako pertsonaien artean. Aldiz, *Urtebete itsasargian*

eta *Sugeak txoriari begiratzen dionean* eleberrietan, pertsonaia femeninoak nagusitzen dira. Bukatzeko, *Izar malkoak*, *Aurten aldatuko da nire bizitza* eta *Txan fantasma*-n parekotasuna agertzen da. Orotara 18 pertsonaia maskulino eta 14 pertsonaia femenino badira.

## 2.4 Pertsonaien sorkuntza autorearen generoaren arabera




**Irudia 122: Pertsonaien sorkuntza autorearen generoaren arabera**

Autore maskulino guztiek pertsonaia nagusiak maskulinoak eraiki dituzte, bost pertsonaia dira orotara. Autore femeninoek lau pertsonaia nagusi femenino eta bi maskulino plazaratu dituzte. Bi autorek protagonista femeninoaren hautua egin dute eta beste bik protagonista maskulinoarena. Autore maskulinoek batez ere bigarren mailako pertsonaia maskulinoak sortu dituzte, 11 dira guztira, nahiz eta zazpi pertsonaia femenino agertu. Idazle femeninoek, sei pertsonaia femenino eta maskulino sortu dituzte. Bukatzeko, identifikatua ez den pertsonaia bakarra, idazle femenino batek ekoiztu du.

## 2.5 Adina

Lau pertsonaia femenino nagusien adinak ezberdinak dira. Bat haurra da, bestea nerabea eta hirugarrena heldua da. Azkenari ezin zaio adin tarte bat eman, bere biografia baita. Pertsonaia maskulinoen aldetik, lau helduak dira eta lau nerabeak dira.

Bigarren mailako pertsonaia gehienek heldu adin ezezaguna dute. Hamabi

pertsonaia maskulino eta zazpi pertsonaia femenino dira. Ondotik, nerabeak agertzen dira, lau pertsonaia femenino eta hiru pertsonaia maskulino dira. Haurrak bakarrik pertsonaia femeninoen artean kokatzen dira.

### 2.6 Analisia kuantitatiboaren ondorioak

Idazle maskulinoek protagonista bat sortzen dutelarik pertsonaia maskulinoak dira. Nahiz eta pertsonaia femeninoak agertu, bigarren planoan kokatzen dira. Aldiz, autore femeninoek protagonista femeninoak eta maskulinoak sortu dituzte manera orekatuan.

Autore maskulinoek proposatutako ereduak maskulinoak dira, maskulinitatea norma bat bezala proposatua da eta ez da aniztasunik, *Orkestra lurtarra* eleberriko Manu aparte. Berrogei urteko eboluzioak ez du aldaketa nabaririk agerrarazi pertsonaia maskulinoen tratamenduan. Corpuseko aitzinamendu handiena Yolanda Arrietaren eleberrian agertzen da: eleberri garaikideenak pertsonaia femeninoak nagusiki erakusten ditu.

Bigarren mailako pertsonaien artean, nahiz eta pertsonaia maskulinoak nagusitu, tartea apalagoa da. Autore maskulinoek batez ere pertsonaia femeninoak bigarren mailako pertsonaiak bezala irudikatzen dituzte eta maiz pertsonaia maskulinoen gutiziaren zerbitzuan dira. Identifikatua ez den pertsonaia bakar bat agertzen da corpusean: Txan fantasma.

Pertsonaien adina aztertuz, testuliburuetan baino aniztasun gehiago agertzen da. Alta, heldutasuna nagusitzen da eleberri corpusean ere. Pertsonaia femeninoen kasuan, adinak ezberdinak dira. Pertsonaia maskulinoentzat, heldutasuna nagusitzen da. Pertsonaia maskulinoa eredu bat bezala erakutsia da, esperientzia duen pertsonaia jakintsuaren estereotipoari erantzuten du.

Orduan, testuliburuen analisia kuantitatiboari konparatuz, emaitza berdintsuak agertzen dira: pertsonaia maskulinoak nagusitzen dira. Pertsonaia maskulinoak du

ikusgarritasun handiena eta pertsonaia femeninoa ez da bere parekoa. Orduan, Bourdieuk aipatutako *habitus*-ak barnatuak dira. Gazteen ereduak maskulinoak dira. Maskulinitatea norma, unibertsala bezala agertzen da eta feminitatea eta honi lotutako ezaugarriek desberdintasuna, "bestea" adierazten dute. Nerabe guztiak pertsonaia maskulinoei identifikatzen ahal baldin badira, pertsonaia femeninoak neskei zuzenduak direla suposatu behar da.

# 3 Eleberrien analisia kualitatiboa

## 3.1 Guneak

### 3.1.1 *Txan Fantasma*

**Taula 56: Guneak *Txan Fantasma*-n**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 2 | - | - | | | 2 | |
| Mask | | | | 1 | | 1 | |

Bi pertsonaia femeninoak etxean eta kanpoan dira. Pertsonaia maskulinoa lanean eta kanpoan da.

### 3.1.2 *Sugeak txoriari begiratzen dionean*

**Taula 57: Guneak *Sugeak txoriari begiratzen dionean*-n**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 1 | | | 1 | | 1 | |
| Mask | 3 | | 2 | | | 2 | |

Pertsonaia femenino bat etxean da eta hiru maskulino etxean dira. Tabernan bi pertsonaia maskulino dira. Emazte tabernaria lanean da. Kanpoan, bi pertsonaia maskulino eta pertsonaia femenino bat dira.

### 3.1.3 *Aurten aldatuko da nire bizia*

**Taula 58: Guneak *Aurten aldatuko da nire bizian*-en**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 1 | | | 1 | 1 | 1 | |
| Mask | 3 | | 1 | 3 | 2 | 2 | |

Pertsonaia nagusia, Txanpi, asko mugitzen da eta etxetik kanpo doa eskolatik eta tabernatik pasatuz. Amona eta aitona beti etxean dira aita lanean eta etxean da. Nina eta Karl batez ere kanpoan dira. Barnean dira ere lo egiteko eta lan egiteko.

Pertsonaia maskulinoen %75 eta pertsonaia femeninoen %50 etxean agertzen dira. Pertsonaia maskulino bat tabernan da eta haien arteko %50 kanpoan da.

### 3.1.4 *Gizon izandako mutila*

**Taula 59: Guneak *Gizon izandako mutila*-n**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 1 | | | 1 | | | |
| Mask | 1 | | | 4 | | 4 | |

Ipuineko pertsonaia femenino bakarra etxean da eta bere lan tokia da. Zabaleta, bere etxean da eta beste lau pertsonaiak (Fabian, Antonio Maria, Harakina, Pistolet) kanpoan eta barnean dira, Zabaletaren etxean agertzen direlako.

### 3.1.5 *Urtebete itsasargian*

**Taula 60: Guneak *Urtebete itsasargian*-en**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 1 | 1 | 1 | 2 | - | 3 | |
| Mask | 2 | | 2 | 1 | | 3 | 1 |

Narratzailea eta bere osaba haien etxean dira. Alejandroren lan tokia, itsasargia, bere etxea da. Miren pertsonaia femeninoa etxean da. Bi lanean dira. Pertsonaia guztiak kanpoan ikusten dira.

### 3.1.6 *Izar malkoak*

**Taula 61: Guneak *Izar malkoak*-en**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 1 | | 2 | 1 | | 1 | |
| Mask | 2 | | 2 | 2 | | 2 | |

Pertsonaia gehienak gune ezberdinetara joaten dira. Etxean, diskotekan, tabernan edo lanean dira. Neska eta mutiko gazte guztiak diskotekan kokatzen dira. Etxean bakarrik egoten den pertsonaia aita da, bere lana han du ere.

### 3.1.7 *Orkestra lurtarra*

**Taula 62: Guneak *Orkestra lurtarra*-n**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emazte | 1 | - | - | - | - | 1 | - |
| Gizon | 1 | - | 1 | 4 | - | 5 | - |

Pertsonaia guztiak kanpoan dira. Bost pertsonaia maskulinoen artean, bat etxean kokatzen da. Aldiz pertsonaia femenino bakarra etxean da bakarrik.

### 3.1.8 *Argiaren alaba*

**Taula 63: Guneak *Argiaren alaba*-n**

| Genero | Etxe | Barne (denda) | Barne (taberna) | Barne (lana) | Barne (beste) | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 2 | - | 2 | 2 | 2 | 2 | - |
| Mask | 2 | - | - | - | 1 | - | - |

XIX. mendeko emazteak batez ere etxean egoten dira, Maria Petronia bakarrik bere etxean da, Bizenta bere etxetik Euletorien etxera joaten da. Aldiz, pertsonaia garaikideak, Amaia eta Mirari ez dira inoiz haien etxean agertzen. Komentuan, tabernan, liburutegian, karrikan... izan daitezke. Pertsonaia maskulinoek haien denbora gehiena barnean pasatzen dute. XIX. mendeko pertsonaiak dira.

### 3.1.9 Guneak: ondorioak




**Taula 64: Pertsonaia femeninoen guneak**

Corpuseko hamar pertsonaia femeninoen gune nagusia etxea da eta 11 pertsonaiena kanpoan da. Ondotik, lanean dira sei eleberritan. Taberna hiru testutan agertzen da eta beste barneak bi eleberritan. Saltegia ipuin batean aipatua da. Pertsonaia guztiak kokatuak dira, ez da gune ezezagunik.




**Taula 65: Pertsonaia maskulinoen guneak**

19 pertsonaia maskulinoak nagusiki kanpoan dira. Ondotik 16 lanean dira. 14 pertsonaia etxean dira. Taberna sei eleberritan da. Gune ezezagunak eta beste barneak eleberri batean dira. Ez da pertsonaiarik saltegietan agertzen.

Ondorioz, pertsonaien guneen kokapena ezberdina da pertsonaien generoaren arabera. Pertsonaia femeninoa etxean eta barnean nagusitzen da nahiz eta kanpoan egon daitekeen. Aldiz, pertsonaia maskulinoak batez ere etxetik kanpo dira: kanpoan edo lanean dira. Pertsonaia femeninoak behin bakarrik saltegietan kokatzen baldin badira, bost aldiz tabernan aurkitzen ahal dira. Aldiz ez da pertsonaia maskulinorik saltegian agertzen eta haietariko zortzi tabernan dira.

Pertsonaien kokapena guneetan haien generoei estereotipoekin bat egiten dute orokorrean. Pertsonaia femeninoak etxeari, barnari, familiari lotzen dira. Gizonak, kanpoari, abenturari lotzen dira. Haien jarrerak gunearen arabera baldintzatuak dira. Aldiz, nahiz eta tabernetan gizonak nagusitu, pertsonaia femeninoei atea idekia zaie eleberri batzuetan.

## 3.2 Nortasuna

### 3.2.1 *Txan Fantasma*

**Taula 66: Nortasuna *Txan Fantasma*-n**

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 3 | 4 | |
| Pertsonaia maskulinoa | | | 1 |
| Orotara | 3 | 4 | 1 |

Orotara pertsonaia femeninoek zazpi nortasun ezaugarri dituzte. Aldiz informazio bat dugu pertsonaia maskulinoen nortasunari buruz.

Pertsonaia femeninoek hiru nortasun ezaugarri orokor dituzte eta lau femenino. Ez du inork nortasun ezaugarri maskulinorik. Pertsonaia maskulinoen nortasun ezaugarri bakarra maskulinoa da.

### 3.2.2 *Sugeak txoriari begiratzen dionean*

**Taula 67: Nortasuna *Sugeak txoriari begiratzen dionean*-n**

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | | 4 | |
| Pertsonaia maskulinoa | 2 | 1 | 3 |
| Orotara | | | |

Pertsonaia maskulinoen nortasunak desberdinak dira haien artean. Helduek erabakiak hartzen dituzte, mozkortzen dira... ezaugarri maskulinoak dira. Ezaugarri neutroak daude (animaliekin mintzatzea). Baina Sebastianek ezaugarri femeninoak ditu ere (sentikorra da). Aldiz, pertsonaia femeninoek bakarrik ezaugarri femeninoak dituzte (goxoak, negartiak, babesle, entzuleak...).

### 3.2.3 *Aurten aldatuko da nire bizitza*

**Taula 68: Nortasuna *Aurten aldatuko da nire bizitza*-n**

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | | 2 | 1 |
| Pertsonaia maskulinoa | 1 | | 3 |
| Orotara | 1 | 2 | 4 |

Pertsonaia guztien artean, sei nortasun ezaugarri aipatuak dira. Amona, goxoa da eta etxeaz arduratzen da, ezaugarri femeninoak ditu. Nina, ordea abentura zale da, Europaren itzulia egiten du, ez da etxean egoten, ezaugarri maskulinoak dira. Txanpi zauritzen delarik, Ninak sendatzen du, arta ardura du. Aita hotza da eta bere semearekin komunikatzeko arazoak ditu, ez ditu bere sentimenduak aipatzen. Txanpi pertsonaia bakartia da, musika entzuten du eta jendeaz isolatzen da. Pertsonaia maskulino guztiek bederen ezaugarri maskulino bat dute eta pertsonaia femenino guztiek, ezaugarri femenino bat. Pertsonaia femenino batek ezaugarri maskulinoa du eta pertsonaia maskulino batek ezaugarri neutroa du.

### 3.2.4 *Gizon izandako mutila*

**Taula 69: Nortasuna *Gizon izandako mutila*-n**

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | | 1 | |
| Pertsonaia maskulinoa | | | 5 |
| Orotara | | | |

Pertsonaia femeninoak ezaugarri femeninoak ditu: goxoa da, maitemindua eta jendeaz arduratzen da. Bost pertsonaia maskulinoek ezaugarri maskulinoak dituzte.

Maltzurrak, mendekariak, borroka zaleak, aho handiak... dira.

### 3.2.5 *Urtebete itsasargian*

**Taula 70: Nortasuna *Urtebete itsasargian*-n**

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 1 | 1 | 1 |
| Pertsonaia maskulinoa | 1 | | 2 |
| Orotara | 2 | 1 | 3 |

Orotara, pertsonaia maskulino batek eta femenino batek nortasun ezaugarri orokorra dute. Mirenek pertsonaia femeninoaren nortasun ezaugarri nagusiak ditu, Katalinek nortasun maskulinoaren ezaugarriak ditu. Albertok eta Alejandrok nortasun ezaugarri maskulinoak dituzte.

### 3.2.6 *Izar malkoak*

**Taula 71: Nortasuna *Izar malkoak*-n**

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | | 1 | 2 |
| Pertsonaia maskulinoa | 2 | 2 | 5 |
| Orotara | | | |

Pertsonaia maskulinoek nortasun ezaugarri ezberdinak dituzte. Beñat, ordenagailu zale handia da, Ibon bezala. Mutikoek harrotasuna erakusten dute. Beñat sentikorra da, bere sentimenduak erakusten ditu. Beste mutikoekiko kritikoa da. Sentsibilitatea ukan dezakete intimitatean. Beñaten aitak jarrera maskulino estereotipatua adierazten du.

Jasoneren nortasuna femeninoa da. Seriosa da, ikasle argia da. Pazientzia badu eta

isilik egoten da. Maiderrek jarrera maskulinoa du. Sexua maite du, ez da neska goxoa, hotza da eta sentimenduak joko bat bezala ikusten ditu. Hackerra da, mutikoei lotzen den aktibitatea da.

### 3.2.7 *Orkestra lurtarra*

**Taula 72:** ***Nortasuna Orkestra lurtarra*-n**

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 1 | 1 | |
| Pertsonaia maskulinoa | 3 | | 2 |
| Orotara | 4 | 1 | 2 |

Pertsonaia maskulino gehienek nortasun orokorra dute Aldiz pertsonaia femeninoak nortasun femeninoa eta neutroa ditu. Pertsonaia maskulino batek (Manuk) bi ezaugarri maskulino ditu. Pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarri maskulinorik eta pertsonaia maskulinoek ez dute ezaugarri femeninorik.

### 3.2.8 *Argiaren alaba*

**Taula 73: Nortasuna *Argiaren alaba*-n**

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 4 | | 3 |
| Pertsonaia maskulinoa | 1 | | 3 |
| Orotara | 5 | 0 | 6 |

Hiru pertsonaia femenino nagusiek nortasun ezaugarri maskulinoak dituzte, libreak, independenteak, erneak eta neurtuak direlako. Haien espazioa behar dute, haien borondatea segitzen dute eta ez dituzte haien emozioak uzten haien gogoak eta helburuak kontrolatzen. Ber maneran, ezaugarri orokorrak dituzte: xelebreak edota argiak dira. Euleterio eta Juan

Antonio gizon neurtuak eta seriosak dira. Nortasun ezaugarri maskulinoak dituzte, ondotik nortasun marka orokorrak dituzte. Ez da nortasun ezaugarri femeninorik agertzen.

### 3.2.9 Nortasuna: ondorioak

Pertsonaia femeninoak




**Irudia 123: Pertsonaia femeninoen nortasuna**

14 pertsonaia femeninok nortasun ezaugarri femeninoa dute. Ondotik, bederatzik neutroa dute eta bukatzeko zazpik maskulinoa dute. Eboluzio bat ikus daiteke: geroz eta ipuinak berriagoak izan eta geroz eta nortasuna ezaugarriak femeninoetatik urruntzen dira. Ber maneran, nortasun ezaugarri maskulinoak gutxiengoan dira baina azken belaunaldietako eleberrietan gehiago agertzen dira. Horiek, nagusiki autore femeninoek sortzen dituzte. Horrez gain, pertsonaia femenino estereotipatuak, autore maskulinoek sortu dituzte.




**Irudia 124: Pertsonaia maskulinoen nortasuna**

24 pertsonaia maskulinoek eleberri guztietan nagusiki ezaugarri maskulinoak dituzte. Ondotik hamarrek nortasun ezaugarri orokorrak dituzte. Bukatzeko hiruk ezaugarri femeninoak dituzte. Orduan, idazle guztiek pertsonaia maskulinoei gizontasunaren jarrerak lotzen dituzte. Pertsonaia femeninoen eboluzioak ñabardurak agerrarazi ditu eta autoreen generoak ñabardurak ekartzen ditu. Pertsonaia maskulinoek ez dute eboluziorik ukan denboran eta idazleen ikuspuntuetan.

Pertsonaia femeninoak estereotipoetatik urruntzen hasten dira nahiz eta ez orokortua izan. Pertsonaia maskulinoen tratamenduak ez du eboluziorik ukan eta maskulinoa indarrean mugatzen du. Pertsonaia femeninoei jarrera maskulinoak lotzen ahal baldin badira, pertsonaia maskulinoen kasuan femeninoa erakustea askoz zailago agertzen da.

## 3.3 Akzioak

### 3.3.1 *Txan Fantasma*

**Taula 74: Akzioak *Txan Fantasma*-n**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2 | 2 | - | 2 |

Hiru pertsonaiek akzioak egiten dituzte. Karmentxuk mugimenduan (ihes egitea) akzio bat egiten du eta beste bat geldia (etxean egotea). Karmentxu askotan isilik eta mugimendurik egin gabe gelditzen da bere ohean (Don Felipe edo Edurne bere lo gelara etortzen direlarik). Edurne etxean egoten da eta bere ilobaren bila doa Don Feliperekin.

### 3.3.2 *Sugeak txoriari begiratzen dionean*

**Taula 75:** ***Akzioak Sugeak txoriari begiratzen dionean*-en**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 2 | 1 | 1 | 2 |

Bi pertsonaia maskulinoek mugimenduan diren akzioak egiten dituzte: ibili, kanpora joan... eta etxean gelditzen dira. Alderantziz, bi pertsonaia femeninoek mugimendurik gabeko akzioak egiten dituzte: jendea zerbitzatu, etxean egotea... Pertsonaia femenino bat akzioan da, herriko lagunekin jostatzen da.

### 3.3.3 *Aurten aldatuko da nire bizitza*

**Taula 76:** ***Akzioak aurten aldatuko da nire bizitza*-n**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 3 | 1 | 1 | 1 |

Pertsonaia maskulinoen %75k mugimenduan diren akzioak egiten dituzte. Aldiz emazteen %50 geldirik egoten dira. Pertsonaia guztien artean, %66,67 mugimenduan dira eta haien artean, %50 pertsonaia maskulinoak dira eta %16,67 femeninoak dira.

### 3.3.4 *Gizon izandako mutila*

**Taula 77: Akzioak *Gizon izandako mutila*-n**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 4 | | 2 | 1 |

Maria Bautista pertsonaia femeninoaren akzioak geldiak dira. Antonio Maria sendatzen du, idazten dio. Zabaletak tranpak egiten ditu, jendea manipulatzen du baina ez du akziorik mugimenduan egiten. Aldiz, Pistolet, Harakina, Antonio Maria eta Fabian mugimenduan dira. Dorretxeak erasotzen dituzte, gordetzen dira, ihes egiten dute, borrokatzen dira... Fabianek, horrez gain, gutunak egiten ditu, mugimendurik gabeko akzioa da.

### 3.3.5 *Urtebete itsasargian*

**Taula 78: Akzioak *Urtebete itsasargian*-n**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 3 | 1 | 1 | 2 |

Hiru pertsonaia maskulinoek mugimenduan diren akzioak egiten dituzte: aita gerlara doa, semea aitaren bila joaten da, osaba talaiara. Pertsonaia femenino batek mugimenduan den akzio bat egiten du, Mirra itsasora doa.

Beste bi pertsonaia femeninoek geldiak diren akzioak egiten dituzte: ama haurretaz arduratzen da eta Katalin bilkuretan mintzatzen da. Alejandrok bere faroa zaintzen duelarik, geldia den akzio bat egiten du.

### 3.3.6 *Izar malkoak*

**Taula 79: Akzioak *Izar malkoak*-n**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 2 | 2 | 3 | 2 |

Pertsonaia nagusiak mugimenduan eta geldiak diren akzioak egiten ditu. Nesken aldetik, Maiderrek mugimenduan eta geldiak diren akzioak egiten ditu. Jasonek ere mugimenduan diren akzioak egiten ditu: diskotekara doa, ibiltzen da. Baina bere akzio geldiak markatuagoak dira: mintzatzen da, liburutegian ikasten du... Orokorrean, pertsonaia guztiek mugimenduan eta geldiak diren akzioak egiten dituzte.

### 3.3.7 *Orkestra lurtarra*

**Taula 80: *Akzioak Orkestra lurtarra*-n**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 5 | 1 | | |

Pertsonaia guztiek mugimenduak egiten dituzte, denak talde baten partean direnez, akzio berdinak egiten dituzte. Pertsonaia maskulinoek bost akzio egiten dituzte mugimenduan eta pertsonaia femeninoak bat.

### 3.3.8 *Argiaren alaba*

**Taula 81: Akzioak *Argiaren alaba*-n**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 1 | 2 | 2 | 2 |

Pertsonaia femeninoen tratamendua garaiaren arabera desberdina da. Mirari eta Amaia toki batetik bestera informazioen bila joaten dira. Bizentak eta Maria Petroniak geldiak diren akzioak egiten dituzte (irakurketa, idazkera, josketa, sukaldaritza). Bi

pertsonaia maskulinoek geldiak diren akzioak egiten dituzte (idaztea, irakurtzea). Batek mugimenduak egiten ditu ( Bizentari bisitak...).

### 3.3.9 Akzioak: ondorioak




**Irudia 125: Pertsonaia femeninoen akzioak**

Eleberri corpuseko 12 pertsonaia femeninoen akzioak geldiak dira. Ondotik bederatzi mugimenduan dira. Belaunaldi aldaketek ez dute eboluziorik erakusten pertsonaien akzioen aldetik. Autore maskulinoek nagusiki pertsonaia femeninoak pasibotasunean mugatzen baldin badituzte, autore femeninoek ere jarrera hori ukan dezakete.




**Irudia 126: Pertsoaia maskulinoen akzioak**

*Argiaren alaba* eta *Izar malkoak* eleberrietan aparte, pertsonaia maskulinoen akzioak nagusiki mugimenduan dira. Orotara, 22 akzio mugimenduan agertzen dira eta 11 geldiak dira. Autore femenino eta maskulinoen ikuspuntuen arabera, edozein hamarkadatan, pertsonaia maskulinoa mugimenduan da. Hark akzioa egiten eta bizitzen du.

Pertsonaiak haien estereotipoen menpe dira eta ez da eboluzio nabaririk agertzen akzioen aldetik. Pertsonaia femeninoak nagusiki pasiboak dira. Pertsonaia maskulinoek akzioak eta abenturak bizitzen dituzte, eleberrien zentroan eta oinarrian kokatzen dira.

## 3.4 Fisikoa

### 3.4.1 *Txan Fantasma*

**Taula 82: Pertsonaien fisikoa *Txan Fantasma*-n**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | | 1 | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia maskulinoa | 1 | | 1 |
| Orotara | 1 | 1 | 1 |

Pertsonaiek argibide fisiko gutxi dituzte: Karmentxuri buruz ez dakigu ezer. Aldiz, Edurne atxo zaharra da. Don Felipe heldua da eta seriosa dirudi. Orokorrean ezaugarri fisiko gutxi dira baina gehienek haien genero estereotipoekin bat egiten dute.

### 3.4.2 *Sugeak txoriari begiratzen dionean*

**Taula 83: Pertsonaien fisikoa *Sugeak txoriari begiratzen dionean*-n**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 3 | 4 | |
| Pertsonaia maskulinoa | | 1 | 1 |
| Orotara | 2 | 5 | 1 |

Guztira zortzi ezaugarri fisiko agertzen dira. Sei pertsonaia femeninoei zuzentzen dira eta bi pertsonaia maskulinoei. Emazteen edertasuna, arintasuna, aipatua da baina informazio neutroak badira ere (begien kolorea, zahartasuna, hortzak) Pertsonaia maskulinoek, bi ezaugarri dituzte. Aitona mehea dela eta bizarra baduela adierazia da.

### 3.4.3 *Aurten aldatuko da nire bizitza-n*

**Taula 84: Pertsonaien fisikoa *Aurten aldatuko da nire bizitza*-n**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | | 1 | |
| Pertsonaia maskulinoa | 1 | 1 | |
| Orotara | 1 | 2 | |

Fisikoari buruzko argibide gutxi dituzte pertsonaiek. Ninaren ile luzeak aipatuak dira, ezaugarri femeninoa da. Karlek ere ile luzeak ditu. Txanpik, pertsonaia nagusiak, ez du ezaugarririk zehaztua. Aita “zaharra” dela errana da baina irain bat da. Ezaugarri gehienak femeninoak dira. Pertsonaien %50k ezaugarri bat dute.

### 3.4.4 *Gizon izandako mutila*

**Taula 85: Pertsonaien fisikoa *Gizon izandako mutila*-n**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | | | |
| Pertsonaia maskulinoa | | | 2 |
| Orotara | | | 2 |

Bi pertsonaia nagusiek ezaugarri fisikoak dituzte eta bien kasuan maskulinoak dira. Fabianek tximino baten antza du eta Antonio Mariak aurpegi hezurtsua, ile motzak, sudur estua ditu.

### 3.4.5 *Urtebete itsasargian*

**Taula 86: Pertsonaien fisikoa *Urtebete itsasargia*-n**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 1 | 1 | |
| Pertsonaia maskulinoa | 1 | | |
| Orotara | 2 | 1 | |

Pertsonaia gehienei buruz ez da informazio fisikorik, Mirrarentzat aparte, bere edertasuna aipatua da. Katalin eta Jonen gaztetasunak aipatuak dira.

### 3.4.6 *Izar malkoak*

**Taula 87: Pertsonaien fisikoa *Izar malkoak*-n**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | - | 2 | - |
| Pertsonaia maskulinoa | - | - | - |
| Orotara | - | 2 | - |

Pertsonaia maskulinoek ez dute ezaugarri fisikorik, baina bi pertsonaia femeninoek bai. Biak haien edertasunari lotuak dira.

### 3.4.7 *Orkestra lurtarra*

**Taula 88: Pertsonaien fisikoa *Orkestra lurtarra*-n**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | - | - | - |
| Pertsonaia maskulinoa | - | - | 6 |
| Orotara | | | 6 |

Ez da ezaugarri femeninorik agertzen eta sei ezaugarri maskulino badira. Pertsonaia maskulinoek ezaugarri horiek dituzte. Pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarririk.

### 3.4.8 *Argiaren alaba*

**Taula 89: Pertsonaien fisikoa *Argiaren alaba*-n**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 1 | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia maskulinoa | 1 | | |
| Orotara | 2 | - | - |

Aipatutako deskribapenak neutroak dira eta Mirari eta Euleterioren tamaina, pisua aipatzen dituzte.

### 3.4.9 Fisikoa: ondorioak




**Irudia 127: Pertsonaia femeninoen fisikoa orotara**

Ipuin guztiek ez dute pertsonaia femeninoen deskribapen fisikorik egiten. Orotara zortzi pertsonaia femeninok ezaugarri fisiko femeninoak dituzte eta bost neutro. Ez dute ezaugarri fisiko maskulinorik. Pertsonaia femeninoa bere feminitatean mugatua da. Guztira hamahiru ezaugarri fisiko agertzen dira.




**Irudia 128: Pertsonaia maskulinoen fisikoa**

16 pertsonaia maskulinok ezaugarri fisikoak dituzte. Hamar ezaugarri fisiko maskulino dituzte, lau neutro eta bi femenino. Eleberri batean ez da ezaugarri fisikori agertzen.

Ondorioz, corpusean, ezaugarri fisiko gutxi agertzen dira, baina adieraziak direlarik, pertsonaiak haien generoan mugatuak dira. Pertsonaia maskulinoek ezaugarri fisiko gehiago badituzte, baina pertsonaia maskulino gehiago dira. Orokorrean pertsonaia femeninoek ez dute ezaugarri fisiko maskulinorik. Pertsonaia femeninoa fina eta ahula bezala deskribatua da gehienetan. Aldiz pertsonaia maskulinoa indartsua, azkarra da. Ezaugarri neutroak agertzen dira baina ez dira nagusitzen.

## 3.5 Izena

### 3.5.1 *Txan Fantasma*

Pertsonaia guztiek izen bat dute baina ez dute deiturarik.

### 3.5.2 *Sugeak txoriari begiratzen dionean*

Pertsonaia nagusiak bakarrik izen eta deitura bat ditu. Aitonak eta neska lagunak

izen bat dute baina izebak, osabak eta tabernariak ez dute izenik.

### 3.5.3 *Aurten aldatuko da nire bizia*

Ez da inoren deitura ezagutzen. Mendi txakurraren izena ezagutzen dugu. Nina ez da neskaren egiazko izena eta Karlena berant ezagutuko dugu. Biak luzaz eleberrian "neska" eta "mutikoa" deituko dira. Aita, amona eta aitonaren izenak ez dira zehaztuak.

### 3.5.4 *Gizon izandako mutila*

Pertsonaia baten izena baizik ez osoki ezagutzen: Manuel Lizarragabengoa (Harakina). Pertsonaia nagusiek, Fabian eta Antonio Mariak izen goiti bat dute baina deitura ez da ezagutua. Zabaletaren izena ez dakigu, Pistoleten egiazko izena ez da zehaztua eta Maria Bautistak ez du deiturarik.

### 3.5.5 *Urtebete itsasargian*

Pertsonaia guztiek izen eta deitura bat dute, Mirrak aparte.

### 3.5.6 *Izar malkoak*

Jasonek, Urkok, Maiderrek, Beñatek izen bat dute, baina deiturarik ez. Beñat, Jasone eta Maiderren burasoek ez dute izenik, "aita" eta "ama" dira.

### 3.5.7 *Orkestra lurtarra*

Pertsonaia femeninoak aparte Aldika Etxeberria, ez du inork izen osorik. Deiturarekin izendatuak dira Crocantti eta Lurinetti anaiak. Bestenaz izena bakarrik dute, Manuk bezala. Osokik bere izenak deitura funtzioa duela ere bai dio.

### 3.5.8 *Argiaren alaba*

Pertsonaia guztiek izen bat dute. Pertsona historiko guztiek izen eta deitura osoa dute. Mirari eta Amaiaren deiturak ez dira zehaztuak. Istorioa Mirariren ahotik kontatua delarik, Amaia nagusiki "izeko" izendatua da.

#### 3.5.9 Izena: ondorioak

Pertsonaia maskulino eta femeninoen izenek oreka bat dute. Maiz, deiturarik ez dute. Baina pertsonaia nagusi guztiek izen identifikatua dute.

### 3.6 Funtzio soziala

#### 3.6.1 *Txan Fantasma*

**Taula 90: Funtzio soziala *Txan Fantasma*-n**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Fem | | | 1 | 2 | 3 |
| Mask | 1 | | | | 1 |

Edurne eta Karmentxuri buruz hiru informazio agertzen dira. Edurne bere familiaren arabera deskribatua da, izeba da. Karmentxu bere izebaren arabera definitua da eta ikaslea da. Don Felipe medikua da. Beraz ipuinaren pertsonaia femeninoen %100 familiari lotua den funtzio soziala dute eta %50 lana edo aktibitateen arabera. Pertsonaia maskulinoen, %100 lanbide ezaguna dute.

#### 3.6.2 *Sugeak txoriari begiratzen dionean*

**Taula 91: Funtzio soziala *Sugeak txoriari begiratzen dionean*-n**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Fem | 1 | | | 1 | 2 |
| Mask | | | | 3 | 3 |

Pertsonaien lanbidea ez da ezagutua, emazte tabernariarena aparte. Pertsonaia maskulino guztiak familiaren bidez kokatzen dira eta pertsonaia femenino bat familiari lotua da. Mariatxoren funtzio soziala ez da zehaztua.

### 3.6.3 *Aurten aldatuko da nire bizitza*

**Taula 92: Funtzio soziala *Aurten aldatuko da nire bizitza*-n**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Fem | | | 1 | 1 | 2 |
| Mask | | | 3 | 3 | 6 |

Pertsonaia femeninoen erdia haien familiaren arabera kokatuak dira. Beste erdia haien lanaren arabera. Pertsonaia maskulinoen %70 haien lanaren arabera deskribatuak dira. Hiru pertsonaia maskulino haien familiaren arabera definituak dira, Karl aparte.

### 3.6.4 *Gizon izandako mutila*

**Taula 93: *Funtzio soziala Gizon izandako mutila*-n**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Fem | | 1 | | | 1 |
| Mask | 5 | | | 2 | 7 |

Pertsonaia femeninoa bere lanaren arabera kokatua da. Bere lanbidea femeninoa da, neskamea da. Pertsonaia maskulino guztien lanbideak maskulinoak dira. Lapurrak edo jauntxoak dira. Bi pertsonaia maskulinoen familiak aipatuak dira. (Zabaletaren eta Antonio Maria)

### 3.6.5 *Urtebete itsasargian*

**Taula 94: Funtzio soziala *Urtebete itsasargia*-n**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Fem | | 2 | | 1 | 3 |
| Mask | 2 | | | 3 | 5 |

Miren bere familiaren arabera ezaugarritua da. Beste bi pertsonaia femeninoak haien lanaren arabera agertzen dira. Haien lanbideak femeninoak dira, andereño eta neskameak dira. Pertsonaia maskulino guztiak haien familiaren arabera deskribatuak dira. Bi lanbide maskulinoak dira, mediku eta farozain dira.

### 3.6.6 *Izar malkoak*

**Taula 95: Funtzio soziala *Izar malkoak*-en**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Fem | | | 1 | 2 | 3 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Mask | 1 | | 2 | 1 | 4 |

Bost pertsonaien artean, denek funtzio sozial bat dute. Maider eta Jasoneren funtzio soziala familiari lotua da. Jasone ikaslea da ere. Beñaten funtzio sozialak eskola eta familiaren artean orekatzen dira. Ibonen funtzio soziala eskolari mugatzen da. Beñaten aita familia eta lanaren artean kokatzen da.

### 3.6.7 *Orkestra lurtarra*

**Taula 96:** ***Funtzio soziala Orkestra lurtarra*-n**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Fem | 1 | | | 3 | 4 |
| Mask | 5 | | | 4 | 9 |

Pertsonaia femenino bakarra bere familia eta lanaren arabera deskribatua da. Pertsonaia maskulino guztiak haien lanbide maskulinoaren arabera eraikiak dira eta denek familiari lotutako ezaugarria dute Crocantik aparte.

### 3.6.8 *Argiaren alaba*

**Taula 97:** ***Funtzio soziala Argiaren alaba*-n**

| | Lanbide | | | Familia | Orotara |
|---|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | | |
| Fem | 2 | | 1 | 4 | 7 |
| Mask | 2 | | | 2 | 4 |

Pertsonaia guztiak haien familiaren arabera ezaugarrituak dira. Bi pertsonaia

maskulinoek lanbide maskulinoak dituzte. Maria Petronia familiaren arabera deskribatua da. Aldiz bi pertsonaia femeninok gizon lanbidea dute, Amaia gidoi egilea da, eta Bizenta idazlea da. Mirarik lanbide neutroa du, ikaslea da.

### 3.6.9 Funtzio soziala: ondorioak




**Irudia 129: Pertsonaia femeninoen funtzio sozialak Orotara**

Hamabost pertsonaia femenino familiaren arabera ezaugarrituak dira. Ondotik lanbide neutroak agertzen dira lau ezaugarrirekin. Gero, lanbide femeninoak eta maskulinoak dituzte. Eleberri guztiek *Gizon izandako mutila*-k aparte pertsonaia femeninoa haien familiaren arabera definitzen dute.




**Irudia 130: Pertsonaia maskulinoen funtzio sozialak orotara**

Hogeita bat pertsonaia maskulino lanaren arabera ezaugarrituak dira. Haien artean hamasei maskulinoak dira eta bost neutroak dira. Pertsonaia maskulinoek ez dute lanbide femeninorik egiten. Pertsonaien familia hemezortzi aldiz agertzen da, salbu *Txan fantasma*-n. *Sugeak txoriari begiratzen dionean*-n, ez da lanbiderik agertzen.

Orokorrean pertsonaia guztiak maiz familiari lotuak dira. Pertsonaia femeninoak familiaren arabera deskribatuak dira. Alderantziz, lanbidea pertsonaia mota guztiei lotua baldin bada, batez ere pertsonaia maskulinoen ingurumenean nagusitzen da. Haien kasuan, ez da lanbide femeninorik. Pertsonaia femeninoen lanbideek, aniztasun gehiago erakusten dute.

### 3.7 Ondorio kualitatiboak

Eleberri corpuseko analisia kuantitatiboak pertsonaiak haien genero estandarretan mugatuak direla adierazten du. Pertsonaia femeninoen nortasuna nagusiki femeninoa da. Haien fisikoak nortasunarekin bat egiten du eta goxotasuna irudikatzen dute. Fisikoa nortasuna baino gutxiago aipatua da eleberrietan, *Izar malkoak* eleberrian aparte.

Gehienetan, akzioa jasaten dute eta pasibotasunean dira. Ez dira asko mugitzen eta nagusiki etxean dira, nahiz eta maiz kanpoan izan. Pertsonaia femeninoak batez ere familiaren arabera deskribatuak dira, baina askotan lanbide bat badute.

Pertsonaia maskulinoak haien maskulinitatearen arabera deskribatuak dira: fisiko eta nortasun maskulino estereotipatua dute nagusiki. Hor ere, fisikoa nortasuna baino gutxiago erakutsia da eleberri corpusean. Kanpoan kokatzen dira, nahiz eta lanbideak toki handia ukan. Lanbidea familia aitzin aipatua da. Haien akzio gehienak mugimenduan dira, haiek dira akzio ikusgarrien egileak.

Orokorrean, pertsonaia femeninoa, pertsonaia maskulinoaren proiekzio bat bezala eraikia da (*Urtebete itsasargian, Gizon izandako mutila, sugeak txoriari begiratzen dionean, Izar malkoak, Aurten aldatuko da nire bizitza)*. Pertsonaia femeninoa maitale, fantasma irudiak bat da. Akzioak jasaten dituzte eta haien nortasuna baino gehiago, bere fisikoa gustuko dute protagonista maskulinoek.

Pertsonaia femeninoek ez dutelarik menpekotasunari erantzuten, maiz, negatiboak dira. *Txan Fantasma*-ko Edurne, sorgin bat da, *Izar Malkoak* eleberriko Maider, manipulatzaile bat da eta *Gizon izandako* Katalin azalekoa da.

Pertsonaia femeninoak tresna bezala kontsideratuak izan daitezke *Gizon izandako mutila*-n: pertsonaia maskulinoek jarrera eta diskurtso sexistak dituzte eta ez da oposizioan den diskurtsorik proposatua. Emazteak edo sexu tresnak edo maitale menpekoak dira. *Urtebete itsasargian* eleberrian ñabardura gehiago dira, hiru pertsonaia femeninoek emaztearen hiru aspektu ezberdin ezaugarritzen dituztelako, baina hiruak pertsonaia maskulinoen maitaleak dira. Mirraren fisikoa bakarrik ez da aipatua eta agresio bat jasan ondotik, pertsonaia nagusiak Mirrarekiko duen gutizian zentratzen da. Eredu hegemonikoa ipuin gehienetan agertzen da: *Orkestra lurtarra* eleberrian, pertsonaia femeninoa taldearekin nahasia da eta haien ibilbidea du baina bukaeran, ezkontzen da eta haur bat badu.

*Txan fantasma* eleberriko Karmentxuk eta *Argiaren Alaba*-ko pertsonaia femeninoek eredu horiekin moztura bat erakusten dute. Karmentxu haur bat da eta nahiz eta neska bat izan bere ezaugarriak unibertsalak dira, haur guztiak identifikatu daitezke. *Argiaren alaba* eleberrian, pertsonaia femeninoak nagusitzeaz gain, ezaugarri anitzak dituzte eta denak sakonak dira. Ipuinaren aktoreak dira, ez dira fantasma irudiak edo proiekzio batzuk. Pertsonaia femenino independenteak agertzen dira, ikuspegi neutro batekin.

Pertsonaia maskulinoa bere maskulinitatean mugatua da. Ezaugarri femenino gutxi ditu, ez dituzte pertsonaia maskulinoak balorean ematen. Pertsonaia maskulinoak oinarri berdinen gainean antolatuak dira: haien barne gatazkei aurre egin behar diete, dudak eta zauriak badituzte. Neska batez maiteminduak dira, pasio bat badute. Pertsonaia batzuk bakartiak dira, beste batzuk munduari irekiagoak dira. Orokorrean, pertsonaia maskulino nagusiak, zuzenak eta leialak bezala deskribatuak dira.

Corpus literarioa 80 eta 2010 hamarkada artean idatzia izan da. Baina ez da aldaketa nabaririk agertzen pertsonaien tratamenduan. Autoreen generoak eragin bat daukala agertzen da: idazle maskulinoek pertsonaia mota berdinak balorean ematen dituzte. Aldiz autore femeninoen eskuetatik eboluzio batzuk agertzen dira. Pertsonaia femeninoak ipuinen zentroan ematen dituzte gehiagotan, eta pertsonaia femeninoen tratamenduak sexismo gutxiago erakusten du. Alta, maskulinitate hegemonikoaren erreprodukzioa idazle femeninoengandik agertzen da ere, pertsonaia maskulinoak eleberrien zentroan emanez, pertsonaia femeninoen tokia periferian mantenduz eta genero estereotipoak birsortuz.

*Sugeak txoriari begiratzen dionean, Urtebete itsasargian* eta *Aurten aldatuko da nire bizitza* eleberriek topiko berdina erakusten dute: istorioa pertsonaia maskulino nerabe baten ikuspuntutik idatzia da eta pertsonaia femeninoa proiekzio bat bezala adierazi da, maitasun objektua da. *Gizon izandako mutila* eleberrian pertsonaia maskulinoek pertsonaia femeninoekiko jarrera sexista dute. Baina nerabeen arteko harremanak mutikoen sentimenduetan oinarritzen dira eta nesken izaerari buruz funts gutxi ematen da.

*Orkestra lurtarra* poesiaz josia da. Baina, pertsonaia femeninoak ipuinean gutxi agertzen dira. Pertsonaia femenino bakarrak, eleberri bukaeran familiari lehentasuna ematen dio eta perspektiba artistikoak ez dira gehiago aipatuak.

*Txan Fantasma* eleberriak pertsonaia nagusi neutro bat aurkezten du eta berekin den neskatxaren deskribapena ez da estereotipatua. Baina, haien inguruan diren helduak jendartearen makurretaz kutsatuak dira: izeba sorgina da eta Don Felipe zorrotza da.

*Argiaren alaba* eleberriak pertsonaia orekatuak proposatzen ditu. Pertsonaia femeninoak nagusitzen dira. Haien eraikuntza ez da sexista eta jarrera neutroak dituzte. Baina, orokorrean, ezaugarri femeninorik ez da agertzen. *Argiaren alaba* eleberri garaikideena da, eta bere jendarteak bizitzen dituen aldaketekin bat egiten du.

3.8 Euskal testuliburu eta eleberrien emaitzen bateragarritasuna

Euskal eleberri corpusaren eta testuliburuen emaitzak bateragarriak dira. Pertsonaia femeninoak nagusiki ezaugarri femeninoetan mugatuak dira eta pertsonaia maskulinoak maskulinoetan. Eredu estereotipatu eta sexistak sortzeaz gain, aniztasun gutxiko pertsonaiak proposatuak dira. Pertsonaia guztiek eredu heterosexualari erantzuten dute. Norma androzentrikotik ateratzen den pertsonaiarik ez da. Ber maneran, ez da nahitara familia nuklearretik ateratzen den eredurik agertzen. Haur bat ez baldin bada bere burasoekin bizi, haien heriotzari edo gerlari lotua da (*Txan Fantasma, aurten aldatuko da nire bizitza, Urtebete itsasargian).* Eleberri corpusak proposatzen duen errealitateak, ez du jendartearen eboluzioarekin bat egiten. Eleberrien ereduak murrizgarriak dira.

Testuliburu eta eleberrien artean agertzen diren ezberdintasun nagusiak neutraltasunari lot daitezke: testuliburuetan pertsonaia eta ezaugarri neutroak nabarmentzen badira, eleberrietan gutxiago dira. Garatzeko aukera agertzen delarik,

autorea detaileetan sartzen da eta ezaugarriak zehazten ditu. Orduan, maskulinitatea nagusitzen dela ohar gaitezke. Testuliburu eta eleberrietan, norma bezala agertzen diren ezaugarriak eredu maskulinoak dira. Ber maneran, pertsonaia femeninoari ezaugarri maskulinoak agertzen zaizkio baina pertsonaia maskulino gutxiagok ezaugarri femeninoak dituzte. Femeninoak diren ezaugarriak gutxietsiak dira eta pertsonaia femeninoentzat hein bateraino onargarriak baldin badira, pertsonaia maskulinoentzat lotsagarriak dira. Pertsonaia femeninoek ezaugarri maskulino gehiegi janzten baldin badituzte, pertsonaia negatiboak bilakatzen dira.

Testuliburuetan pertsonaia femeninoak nagusiki etxean kokatzen dira. Baina eleberrietan pertsonaia femeninoak gehiagotan kanpoan eta tabernan agertzen dira, gune maskulino eta publikoetan gehiago agertzen dira.

## VII- Frantses testuliburu eta eleberriak

"Testuliburuek haien genero sistema sortzen dute, aspektu askotan ez dira berdinak. Makur batzuen errepikakortasuna (...) deigarria da." Brugeilles C, Garcin E. 2013.

Parte honetan, lehenik frantses testuliburuak aztertuak dira, euskal testuliburuen metodoan bezala, ikuspegi kuantitatibo eta kualitatiboaren aria segituko da.

Ondotik, frantses eleberri corpusa landua da. Sinopsia eta pertsonaiak aurkezten dira, hemen ere analisia kualitatibo eta kuantitatiboan bermatuz.

Bukatzeko, analisiaren ondorioak eta ezaugarri nagusiak agerrarazten dira.

1- Testuliburuak

1.1 Testuliburuen hautua

Belin Education argitaletxeko *L'envol des lettres* frantses testuliburu corpusa lau partetan banatua da, 6eme, 5eme, 4eme eta 3eme. Testuliburu bakoitzak ikasgelaren gaitasunen arabera egokituak diren testuak proposatzen ditu. Testuliburuek 2016eko programen helburuak bermatzen dituzte. Testuliburuen egile guztiak irakaskuntzan agregatuak edo zertifikatuak dira.

Hauek dira lau testuliburuen autoreak:

Florence Randannen zuzendaritzapean, Jennifer Cléry, Florence Cognard, Martine Dewald, Patricia Fize, Cedric Hannedouche, Emilie Manidren, Mirita Meckaert Ribiero Martine Schwebel, Elvire Sergheraert, *L'envol des lettres cycle 3 6ème*, Belin Education 2016.

Hamar egileen artean, bat maskulinoa da.

Florence Randannen zuzendaritzapean, Emmanuel Broc, Gaelle Brodhag, Alexis Buffet, Florence Cognard, Martine Dewald, Patricia Fize, Claude Gaspaillard, Cedric Hannedouche, Nathalie Marin, Eva Mouillard, Delphine Roualt, Martine Schwebel, *L'envol des lettres cycle 4 5ème*, Belin Education 2016.

14 egileen artean, bost maskulinoak dira.

Florence Randannen zuzendaritzapean, Emmanuel Broc, Gaelle Brodhag, Alexis Buffet, Jennifer Cléry, Florence Cognard, Nicolas Drapeau, Claude Gaspaillard, Matthieu Genet, Cedric Hannedouche, Emilie Manidren, Nathalie Marin, Mirita Merckaet Ribeiro, Delphine Roualt, Martine Schwebel, Elvire Sergheraert, *L'envol des lettres cycle 4 4ème*, Belin Education 2016.

15 egileen artean, bost maskulinoak dira.

Florence Randannen zuzendaritzapean, Céline Barraud, Emmanuel Broc, Gaelle Brodhag, Alexis Buffet, Florence Cognard, Martine Dewald, Nicolas Drapeau, Patricia Fize, Claude Gaspaillard, Matthieu Genet, Emilie Manidren, Nathalie Marin, Mirita Merckaet Ribeiro, Delphine Roualt, Elvire Sergheraert, *L'envol des lettres cycle 4 3ème*, Belin Education 2016.

16 egileen artean, bost maskulino dira.

## 1.2 Testuliburuen analisia kuantitatiboa

### 1.2.1 Pertsonaiak

#### 1.2.1.1 Pertsonaiak Orotara

**Taula 98: Pertsonaiak**

| | Pertsonaia | Pertsonaia | Pertsonaia ez |
|---|---|---|---|

| | maskulinoak | femeninoak | identifikatuak |
|---|---|---|---|
| *L'envol des lettres 6* | 50 | 27 | 3 |
| *L'envol des lettres 5* | 73 | 28 | 1 |
| *L'envol des lettres 4* | 53 | 30 | 7 |
| *L'envol des lettres 3* | 34 | 8 | 1 |

*L'envol des lettres 6eme*-n, 34 testu eta 110 pertsonaia daude. Haien artean hiru pertsonaien generoak ez dira identifikatuak. *L'envol des lettres 6ème*-n*,* pertsonaia maskulinoak guztira 80 dira, pertsonaien %74,76 osatzen dute. Pertsonaia femeninoak 27 dira eta pertsonaien %25,23 osatzen dute.

*L'envol des lettres 5ème* testuliburuan, 102 pertsonaia agertzen dira 44 ipuinetan. Pertsonaia maskulinoak 73 dira eta pertsonaien %71,56 osatzen dute. Pertsonaia femeninoak 28 dira eta pertsonaien %27,45 osatzen dute. Pertsonaia neutro bat bada, pertsonaien %0,98 osatzen du.

*L'envol des lettres 4ème*-n 43 ipuinen artean, 90 pertsonaia agertzen dira. Guztira, pertsonaia maskulinoek corpusaren %58,88 osatzen dute, pertsonaia femeninoek %33,33 eta identifikatuak ez direnek %7,79. Ez da animaliarik edo tresnarik.

Orotara, *L'envol des lettres 3ème*-n pertsonaia guztien artean, %77,27 maskulinoak dira, 34 pertsonaia dira, gero, %18,18 femeninoak, zortzi pertsonaia dira eta %2,27 ez dira identifikatuak, pertsonaia bat da.

Belin saileko lau testuliburuetan pertsonaia maskulinoa nagusitzen da. Ondotik, pertsonaia femeninoa agertzen da eta bukatzeko pertsonaia ezezagunak.

315 pertsonaien artean, berrehun eta hamar pertsonaia maskulino dira, 93 femeninoak dira eta 12 ez dira identifikatuak. Proportzionalki, pertsonaia maskulinoek %66,67, femeninoek %29,52 eta ezezagunek %3,8 osatzen dute.




**Irudia 131: Pertsonaiak**

1.2.2.2 Pertsonaia nagusiak

**Taula 99: Pertsonaia nagusiak**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| *L'envol des lettres 6* | 29 | 13 | 3 |
| *L'envol des lettres 5* | 45 | 5 | |
| *L'envol des lettres 4* | 29 | 12 | 5 |
| *L'envol des lettres 3* | 21 | 4 | |

*L'envol des lettres 6ème*-n, pertsonaia nagusiak 42 dira. %69,04 maskulinoak dira eta %30,96 femeninoak.

*L'envol des lettres 5ème*-n, pertsonaia nagusiak 50 dira. %90 maskulinoak dira eta %10 femeninoak.

*L'envol des lettres 4ème*-n, pertsonaia nagusiak 46 dira. %63,04 maskulinoak dira, %26,08 femeninoak eta %10,88 ez dira identifikatuak.

*L'envol des lettres 3ème*-n 25 pertsonaia nagusi dira. %91,3 maskulinoak dira %8,7 femeninoek dira. Lau pertsonaia femenino dira baina aldi guztiz berdina aipatua da, Marie

Curie.

Belin sailean nagusitzen diren pertsonaia nagusiak maskulinoak dira, ondotik femeninoak eta bukatzeko ez dira identifikatuak. 166 pertsonaia nagusien artean, 124 maskulinoak dira, %74,7 dira, 34 femeninoak dira, %20,48 dira eta zortzi ez dira identifikatuak, %4,8 dira.




**Irudia 132: Pertsonaia nagusiak**

### 1.2.2.3 Bigarren mailako pertsonaiak

**Taula 100: Bigarren mailako pertsonaiak**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak | Pertsonaia ez identifikatuak |
|---|---|---|---|
| *L'envol des lettres 6* | 51 | 14 | |
| *L'envol des lettres 5* | 28 | 23 | 1 |
| *L'envol des lettres 4* | 24 | 18 | 2 |
| *L'envol des lettres 3* | 13 | 4 | 1 |

*L'envol des lettres 6*-en, hirurogeita bost bigarren mailako pertsonaia badira, %78,46 maskulinoak dira eta %21,54 femeninoak. Ez da animalia edo tresna pertsonifikaturik.

*L'envol des lettres 5*-en, 51 bigarren mailako pertsonaia badira, %53,84 maskulinoak dira, %44,23 femeninoak %1,92 ez dira identifikatua.

Bigarren mailako pertsonaiak orotara berrogeita lau dira *L'envol des lettres 4*-en. Pertsonaia maskulinoak %54,54, pertsonaia femeninoak %40,9 eta identifikatuak ez direnak %4,56 dira.

*L'envol des lettres 3*-n 18 bigarren mailako pertsonaia dira. Pertsonaia maskulinoak %72,22, pertsonaia femeninoak %22,22 eta identifikatuak ez direnak %5,56 dira. Ez da animalia edo tresnarik agertzen.

Bigarren mailako pertsonaiak nagusiki maskulinoak dira. Pertsonaia femeninoak ondotik datoz. Bukatzeko identifikatuak ez diren pertsonaiak badira. 179 pertsonaien artean, 116 maskulinoak dira, %64,8 osatzen dute. 59 pertsonaia femeninoak dira, %32,96 osatzen dute eta lau ez dira identifikatuak, %2,23 dira.




**Irudia 133: Bigarren mailako pertsonaiak**

1.2.2.4 Adina




**Irudia 134: Adina**

Belin sailean pertsonaia maskulino helduak 161 dira. Ondotik haur maskulinoak 26, gazteak 19 eta adinekoak 14 dira.

Pertsonaia femenino helduak 36 dira. Haurrak 12, adinekoak zazpi eta gazteak sei dira.

1.2.3 Idazleak




**Irudia 135: Idazleen generoa**

Testuliburu guztietan nagusitzen diren idazleak, maskulinoak dira. 143 autoreen artean, 119 maskulinoak dira, %83,21 dira eta 24 femeninoak dira, taldearen %16,79 osatzen dute.

## 1.3 Analisia kualitatiboa

### 1.3.1 Nortasuna

**Taula 101: Pertsonaien nortasuna**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | 10 | 27 | 11 |
| *L'envol des lettres 6* | 4 | 11 | 3 |
| *L'envol des lettres 5* | 1 | 11 | 3 |
| *L'envol des lettres 4* | 4 | 5 | 1 |
| *L'envol des lettres 3* | 1 | 0 | 4 |
| Pertsonaia maskulinoak | 45 | 3 | 64 |
| *L'envol des lettres 6* | 8 | 2 | 21 |
| *L'envol des lettres 5* | 13 | 1 | 19 |
| *L'envol des lettres 4* | 14 | | 13 |
| *L'envol des lettres 3* | 10 | | 11 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Orotara | 55 | 30 | 75 |

Pertsonaia femeninoen nortasuna %56,25 ezaugarrirekin femeninoa da. %22,9 ezaugarrirekin maskulinoa da eta %20,83 ezaugarrirekin orokorra da. Pertsonaia maskulinoen nortasuna %57,14 ezaugarrirekin maskulinoa da, ondotik %40,17 ezaugarrirekin orokorra da eta bukatzeko %2,68 ezaugarrirekin femeninoa da.

Ipuinetako pertsonaien nortasunak estereotipatuak dira. Pertsonaia femeninoek nortasun ezaugarri maskulinoak ukaiten ahal dituzte baina ezaugarri horiek dituztelarik ez dira balorean emanak. Aldiz, pertsonaia maskulinoek ezaugarri femenino gutxiago dituzte.




**Irudia 137: Pertsonaia femeninoen nortasuna**




**Irudia 136: Pertsonaia maskulinoen nortasuna**

### 1.3.2 Fisikoa

**Taula 102: Pertsonaien fisikoa**

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoak | **1** | **19** | **8** |
| *L'envol des lettres 6* | | 6 | 6 |
| *L'envol des lettres 5* | | 7 | 2 |
| *L'envol des lettres 4* | 1 | 6 | |
| *L'envol des lettres 3* | | | |
| Pertsonaia maskulinoak | **14** | **0** | **21** |
| *L'envol des lettres 6* | 4 | | 7 |
| *L'envol des lettres 5* | | | 6 |
| *L'envol des lettres 4* | 7 | | 4 |
| *L'envol des lettres 3* | 3 | | 4 |
| Orotara | **15** | **19** | **29** |




**Irudia 138: Pertsonaia femeninoen fisikoa**




**Irudia 139: Pertsonaia maskulinoen fisikoa**

Pertsonaia femeninoen fisikoa nagusiki femeninoa da, 19 ezaugarrirekin. Ondotik zortzi ezaugarri maskulino dituzte eta neutro bat dute.

Pertsonaia maskulinoen 31 ezaugarrien artean, 17 maskulinoak dira eta 14 neutroak dira. Ez da ezaugarri fisiko femeninorik agertzen.

Orduan, bi taldeen kasuan, ezaugarri fisiko nagusia haien generoari lotua da. Pertsonaia femeninoek ezaugarri maskulinoak baldin badituzte, pertsonaia maskulinoek ez dute ezaugarri femeninorik. Aldiz, pertsonaia maskulinoek femeninoei konparatuz ezaugarri neutro gehiago dituzte.

### 1.3.3 Guneak

**Taula 103: Pertsonaien guneak**

| Guneak | Etxea | Saltegia | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Maskulino | 27 | 8 | 4 | 23 | 64 | 72 |
| Femenino | 20 | 6 | 1 | 6 | 12 | 16 |

Pertsonaiak orokorrean kanpoan eta beste barne batean kokatzen dira. Etxea eta lana nagusitzen dira. Azkenik, saltegian eta tabernan agertzen dira.




**Irudia 140: Pertsonaien guneak**

72 pertsonaia maskulino kanpoan, 64 beste barne batean, 27 etxean eta 23 lanean, zortzi saltegian eta lau tabernan dira. 20 pertsonaia femenino etxean, 16 kanpoan, 12 beste barne batean, sei lanean, sei saltegian eta bat tabernan dira.

Bi taldeen artean, gunen lehentasuna ezberdina da. Pertsonaia maskulinoak kanpoan dira. Pertsonaia femeninoak etxean dira. Lana gune nagusi bat da pertsonaia maskulinoentzat. Pertsonaia femeninoentzat, lana, saltegia bezain garrantzitsua da.

### 1.3.4 Izena

**Taula 104: Pertsonaien izenak**

| | Pertsonaia maskulinoak | Pertsonaia femeninoak |
|---|---|---|
| Pertsonaia nagusiak | **89** | **23** |
| *L'envol des lettres 6* | 27 | 7 |
| *L'envol des lettres 5* | 32 | 4 |
| *L'envol des lettres 4* | 17 | 8 |
| *L'envol des lettres 3* | 13 | 4 |
| Bigarren mailako pertsonaiak | **65** | **24** |
| *L'envol des lettres 6* | 27 | 6 |
| *L'envol des lettres 5* | 24 | 12 |
| *L'envol des lettres 4* | 8 | 6 |
| *L'envol des lettres 3* | 6 | |
| Orotara | **154** | **47** |

Pertsonaia femenino nagusien 0,67k izen bat dute. Bigarren mailako pertsonaia femeninoen 0,4k izen bat dute.

Pertsonaia maskulino nagusien 0,72k izen bat dute. Bigarren mailako pertsonaia maskulinoen 0,55k izen bat dute.

Bi generoentzat pertsonaia kopuru berdintsuak izen bat du. Pertsonaia nagusien gehienek izen bat dute. Bigarren mailako pertsonaia maskulino gehienek izen bat dute, baina pertsonaia femeninoek ez.

1.3.5 Akzioak




**Irudia 141: Pertsonaien akzioak**




**Irudia 142: Pertsonaia femeninoen akzioak**




**Irudia 143: Pertsonaia maskulinoen akzioak**

Pertsonaia femeninoen akzioak orekatuak dira mugimendua eta geldialdiaren artean. %49,29 mugimenduan dira eta %50,71 geldiak dira.

Pertsonaia maskulinoen akzioak nagusiki mugimenduan dira, %60,18 dira. Akzioen %39,82 geldiak dira.

1.3.6 Funtzio sozialak

**Taula 105: Pertsonaien funtzio soziala**

| | Lanbide | Familia |
|---|---|---|

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | Maskulino | Femenino | Neutro | |
| Perts femenino | 4 | 3 | 6 | 33 |
| Perts maskulino | 48 | 3 | 9 | 31 |




**Irudia 144: Pertsonaia femeninoen funtzio soziala**




**Irudia 145: Pertsonaia maskulinoen funtzio soziala**

Testuliburu guztietan 48 pertsonaia maskulinok lanbide maskulinoa dute, 31 familiaren arabera definituak dira, 9k lan neutroa eta 3k lan femeninoa dute. Pertsonaia femeninoen %71,79 nagusitzen den funtzio soziala, familia da. Ondotik %13k lan neutroa, %8,69k maskulinoa eta %6,52k femeninoa dute.

1.4. Ondorioak

Belin testuliburuaren corpusak jendartearen ikuspegi hegemoniko estereotipatua islatzen du. Testuliburuen sortzaileak nagusiki femeninoak dira, taldearen %75 osatzen dute, baina proposatutako ereduak maskulinoak dira, aipatutako autore maskulinoak %83 dira eta pertsonaiek irudikapen sexista dute. Orduan, erabakiguneetan emazteak kokatzen direlarik, ez dute berdintasuna bermatzen. Menpekotasun maskulinoa integratua dute eta birsortzen dute. Beraz egile femeninoak curriculum sexistaren sortzaileak dira. *L'envol des*

*lettres* testuliburuak erdi arotik, garai garaikidea arteko testuak aurkezten ditu. Corpusak idazle femeninoen bazterketa historikoa birsortzen du, haien presentzia hainbeste gutxituz.

Testuliburu guztietan nabarmentzen den pertsonaia maskulinoa da. Euskal testuliburuei konparatuz, desoreka nabariagoa da. Euskal testuliburuetan bezala elementu maskulinoak nagusitzen dira baina pertsonaia maskulino eta femeninoen artean den zepoa azpimarragarria da hemen. Testuliburu frantsesetan ez da oreka kuantitatiborik pertsonaia maskulino eta femeninoen artean. Horrez gain, euskal testuliburuen egileak femeninoak direlarik, pertsonaia femenino gehiago agertzen dira.

Pertsonaia maskulinoak nagusitzeaz gain, pertsonaia femeninoak aipatuak direlarik, estereotipo sexistetan mantenduak dira: nortasuna eta fisikoa nagusiki femeninoa dute eta maskulinitatea adierazten dutelarik maiz, negatiboak dira. Pertsonaia femenino indartsuak sorginak edo munstroak dira, heroien etsaiak. Pertsonaia maskulinoek haien maskulinitatea inposatzeaz gain, ez dute ezaugarri femeninorik. Pertsonaia femeninoari maskulinitate parte bat onartzen zaio rol antagonista ukan dezan. Pertsonaia maskulinoari feminitatea ukatzen zaio.

Pertsonaien guneek eta aktibitateek genero estereotipoak bermatzen dituzte: pertsonaia maskulinoak kanpoan dira eta akzioak bizitzen dituzte. Aldiz pertsonaia femeninoak, etxean dira eta akzioa jasaten dute. Haiek, gehienetan familiari lotuak dira. Pertsonaia maskulinoak lanean ari dira. Pertsonaia femeninoak askotan heroien maitale edo emazteak dira. Bestenaz, etsaiak dira. Pertsonaia femeninoak idazkera maskulino baten ikuspuntutik sortuak dira.

Koherentzia eta oreka agertzen dira pertsonaia femenino eta maskulinoen adinen artean. Nagusitzen den adina heldua da pertsonaia femenino eta maskulinoen kasuan.

Bukatzeko, pertsonaia femeninoa estereotipoen menpe baldin bada, pertsonaia maskulinoak ere jasaten ditu. Pertsonaia maskulinoa sexista, hotza, indartsua da,

maskulinitate hegemonikoari erantzun behar du. Ezaugarri neutroak eta orekatuak agertzen dira baina estereotipo kopuruaren azpian lehertuak dira. Maskulinitateak neutraltasunaren tokia hartzen diola agertzen. Sindrome hori euskal testuliburuetan agertzen zen.

Euskal testuliburuetan bezala, maskulinitatea hetero norman integratua da. Maitasun harremanak edota familia ereduak heterosexualak eta nuklearrak dira. Homosexualitatea edo queer ereduak ez dira agertzen testuliburuko eleberri corpusean. Modelo patriarkala sexista oinarri bakarra da.

## 2. Frantses haur gazte literaturari begirada bat

### 2.1 Anna Gavalda, (2002) *35 kg d,'espoir*

#### 2.1.1 Sinopsia

Anna Gavaldaren *35 kilos d'espoir* eleberriak, Grégoire, 13 urteko mutiko baten istorioa kontatzen du. Grégoirrek ez du eskola maite, zailtasun handiak ditu eta laztura iturri handia da beretzat. Bere burasoekin oso konplikatua da, presioa ematen diotelako. Heien laguntza saiakerak ez dira egokiak eta semearekin duten urruntasuna handitzen dute. Baina ez dute hura laguntzen erreusitzen. Bere Léon aitatxirekin, harreman berezi bat du, hark beti sustengatzen duelako. Leon amatxi Charlottekin ezkondua da. Grégoirrek bigarren aldiko errepikaturik, bere eskolatik kanporatua delarik, aitatxi kexatzen zaio eta burasoak urduritzen dira ez dakitelako zein eskolara joaten ahalko den sarreran. Grégoirrek uda auzokoaren etxean, lanak egiten pasatzen du eta sarrera auzoko eskola batean egiten du azken finean. Bere burasoentzat eskola hori kalitate txarregikoa dela eta, barnetegi batera bidaltzen dute. Ber momentuan, aitatxi Leon eritzen eta koman sartzen da. Bukatzeko, Grégoirrek maite duen eskola bat atzematen du, tematsu bilakatzen ikasten du eta aitatxi Leon sendatzen da.

#### 2.1.2 Pertsonaiak

Grégoire Dubosc

Grégoire seigarrenean da. Bi aldiz errepikatu du, ez du batere eskola maite. Askotan, ipuinean zehar, eskolak bizia usteltzen diola adierazten du (7.orr). Bere klase kideak hartaz trufatzen dira zozoa dela pentsatzen dutelako. Aski isolatua da. Alta, nahiz eta ez eskola zalea izan, Grégoire bere eskuekin oso trebea da. Adibidez, udan bere auzokoa etxeko lanetan laguntzen du eta bere ama eta aitarentzat tresnak konpontzen ditu: amari lisatzeko mahaia apaltzen dio lisaketak jarrita egiteko eta aitari soropil mozkailua konpontzen dio. Ama eskolan, maitatu zuen irakasle bat ukan zuen, Marie. Hark irakurtzeko gogoa eman zion liburu bat eskainiz, *1000 activités pour les petites mains*. Gregoirrek bere ahalmenetan konfiantza galdu du eta eskolara joatea oso zaila zaio. Eskolatik kanporatua izan da kirolean bere klase kideak irri arazi nahi izan zituelako eta irakaslea ez zuelako entzuten. Bere arabera, pailazoarena egitea aukera bakarra da besteek positiboki kontsidera dezaten. Fisikoki, Grégoirrek bere burua ez oso handia eta ez oso lodia bezala deskribatzen du. Liburuaren izenburuak dion bezala, 35 kilo egiten ditu, bere adineko nahiko mehea da beraz. Erraten du ez dela indartsua (23.orr) eta eskuak Hulk bezala dituela brikolajearen ondorioz.

Bere burasoekin presiopean da. Etxeko lanak egitean beti gaizki pasatzen da: norbaitek negarrez edo kexatua bukatzen du aldi guziz. Gainera, bere burasoak ez dira konpontzen haien artean eta giro txar hori jasan behar du. Aitatxiren tailerrean baizik ez da ongi sentitzen. Bere toki maiteena da (35.orr) eta han denbora asko pasatzen du bere aitatxirekin xintxuketa egiten. Udan zehar, bere izeba, Fannyren etxera doa eta bere lehengusu txikiarekin Legoetan aritzen da. Grégoire bihotz oneko mutikoa da, haurrak dena hausten diolarik, nahiz eta hasieran haserretu, lasaitzen da bere irria asko maite duelako (82.orr). Ber maneran, auzoko eskolan delarik, beste ikasleen jarreraz beldurtzen da, batez ere ikustean zein manera agresiboan erantzuten dieten irakasleei (63.orr). Honek Grégoire errespetuko mutikoa dela eta probokatzeko asmorik ez duela adierazten du. Eskola berri bat bilatzen duelarik, gutun bat idazten du erranez "*hogeita hamabost kilo esperantza pisatzen*" dituela. Azterketa batzuk pasa behar ditu bertan onartua izateko. Nahiz eta galdua sentitu, bere aitatxi bere ondoan sentituz azterketak gainditzen ditu. Eskola berrira sartzen da eta bertan ongi integratzen ere. Baliteke eskola hori mutilena bakarrik izatea, neskarik ez delako aipatzen eta giroa maskulinoa baita *"Ils riaient forts, ils étaient bêtes. Mais de*

*la bonne bêtise. De la bêtise de garçon.*" (87.orr) Ber momentuan, Grégoirren aitatxi eritzen da eta ospitalera doa. Grégoire oso gaizki sentitzen da eta bere aitatxiri ahal bezainbat indar bidaltzen entseatzen da. Adibidez, kirola egiten duelarik, bere mugak gainditzen entseatzen da. Tematua, deliberatua, zurruna bilakatzen da (108.orr). Autoreak hiru adjektiboak erabiltzen dituelarik manera positiboan aipatzen ditu. Lehen, Grégoire ez zen aski zuzena bere ideietan beraz helburuak finkatzea eta burutzea lortzen duelarik "*egiazko gizon*" bat bilakatzen dela adierazia da. Bere indarrek aitatxi ez dutela laguntzen ikusten duelarik ordea, dena abandonatzen du eta desesperatzen da. Grégoirrek emozioekin gora beherak ditu nahiz eta ipuin bukaeran handitua agertzen den.

Aitatxi Léon

Léon Grégoirren aitatxi da eta bere biloba bezain xintxuketari ona da (32.orr). Bera ez bezala Aitatxi Léon ikasle oso ona zen eta nota oso onak zituen eskolan, Grégoirren arabera. Ikasketa handiak egin zituen eta planoak egiten zituen, zubiak eraikitzeko. Tailer bat badu eta han denbora asko pasatzen du bere bilobarekin tresnak konpontzeko. Biloba asko sustengatzen du baina berriz errepikatzen duela jakiten duelarik, kexatzen da, indar aski egiten ez duela eta bere jarrera ulertezina dela argudiatuz. Berantago, Grégoirrek bere tailerraren pareta gainean *"lagundu nazazu*" idazten dio. Helburu horrekin, Aitatxi Léonek Grégoire laguntzen du berak hautatutako eskolara sartzeko gutun bat idaztera animatuz. Laguntzailearen rola du ipuinean. Horretarako, bere burasoek barnetegira bidali nahi dutelarik, aitatxik etxeko giro itogarriaz urruntzeko bere ideia dela onartzen du. Aitatxi Leonek asko erretzen du, geroz eta eztul gehiago egiten du eta ospitalera doa azkenean. Koman sartzen da eta bere tratamendua gelditzea erabakia da. Eleberriaren azken orrialdeetan aitatxi bere bilobaren eskolara joan dela ikus dezakegu. Gizona sendatua da, mirakulu bat da. Behar bada Grégoirren indarrek lagundu dutela: inplikazioaren emaitza izan dela. Honek, indarrak egiteak beti saritzen duela suposatzen du. Aitatxi Léon eta Charlotten artean, afekzioa badela agertzen da, bere emaztea beretzat kezkatua baita. Baina tentsioak badira eta momentu horietan bere tailerrera joaten da. Erraten du bere emaztea kakingarria dela "*emmerdeuse*" (31.orr).

## Aita

Aitaren izena ez da zehaztua. Bere fisikoari buruz ez da informaziorik eta Grégoirren ikuspuntuaren arabera definitua da. Aita amaren senarra da baina ez du gehiago sobera maite (26.orr). Pertsona "normala" bezala deskribatzen du bere aita Grégoirrek (22.orr). Ez dugu bere lanbidea ezagutzen. Okupazioen aldetik, badakigu belarra mozten duela etxean eta afaltzeko tenorean telebista begiratzen duela. Grégoirren aita askotan bere semearen kontra kexatzen da eta burasoek haurra erabiltzen dute haien arteko gatazken pizteko. Etxeko lanen momentuek tentsio eta krisiak sortzen dituzte. Aitak semea negar arazten du (21.orr) esplikatuz zergatik eskola garrantzitsua den eta enpresa bat nola muntatu behar den. Haserretua delarik, aita isila egoten da edo oihuka hasten ahal da (11 – 12..orr). Grégoire burasoekin oporretara joaten delarik, ohartzen da biak txandakatzen direla bera hondartzara eramateko, haiek elkarrekin ez egoteko. Bere bikotea krisian da eta frustrazioaren parean haserrea eta kexadurarekin erreakzionatzen du. Hala ere aitatxi Léon ospitalera joaten delarik, bere tristura erakusten du aitak. Bukaeran, bere semeari tipo ona dela erraten dio. (101.orr). Hemen autoreak adierazten digu, nahiz eta aita pertsonaia zorrotza eta hotza izan, bere semea maite eta errespetatzen duela. Estimatzen du eta bere kalitateak maite ditu nahiz eta berak nahi duena bezalakoa ez izan. Aitak ipuinean jarrera maskulinoaren itxura du.

## Ama

Amari buruz gauza gutxi dakizkigu ere. Bere izena, fisikoa eta bere lanbidea ez dira zehaztuak. Ama "*normala*" bezala kontsideratua da (22.orr). Ama aitatxi Léonen alaba izan daiteke, nahiz eta ez zehaztua izan ipuinean. Bera ere, Grégoirrekin askotan haserretzen da eskolarengatik. Txikia zelarik zartako bat eman zion ez zuelako eskolara joan nahi (10.orr). Etxeko lanentzat laguntzen duelarik, askotan amak negarrez bukatzen du (21.orr). Bere senarra ez du gehiago maite (20.orr) eta askotan kexatzen dira. Hark lisaketak egiten (43.orr) ditu baita janaria prestatzen ere (44.orr). Bere semea kanporatua delarik, deialdiak pasatzen ditu eskola ezberdinetara joateko. Auzoko eskola publikoan delarik, amak "histeria krisia" bat egiten du eta hortik aterako du ez baitu aski lan egiten. Aitatxi Leon

ospitalera joaten delarik, ama “bihotz minak jota” da, negarrez. Bere semea eskola berrian delarik, aste guztiz deitzen du eta behin erraten dio aitatxiren tratamendua gelditzen dutela ez delako ibiltzen (109). Amaren nortasuna oso emotiboa da. Aita hotza baldin bada, ama afekzioz betea da eta estereotipo femeninoak betetzen ditu. Histerikoa bezala deskribatua da: irain peioratiboa da emazteei bakarrik zuzendua dena. Aita “egiazko” gizon bat den bezala, ama “egiazko” emazte bat da. Horrez gain, amak familiarentzat sukaldaritzen du eta etxearen entretenitzeaz okupatzen da.

Amatxi

Amatxi, Charlotte deitzen da eta Léonen emaztea da. Ez da etxetik kanpo ikusten eta gehienetan sukaldaritzen du (64.orr). Bere bilobarentzat desertak egiten ditu. Aitatxik Charlotte aspergarria dela estimatzen du. Askotan haserretzen dira baina haien errutinari lotua da. Ber maneran, Charlottek Grégoirri aitatxiren zigarreta kontsumoa zaintzea bere osasunarentzat urduri delako galdetzen dio. Amatxi Charlotte beste jendeetaz okupatzen da eta haientzat kezkatzen da. Bere senarra ospitalean delarik, bere bilobak negarrez atzemanen du, sukaldean (97.orr). Fisikoki emaztea mehea eta ahula da baina bere senarraren osasun istripuaren ondotik oraindik okerrago da (97.orr). Bere senarrarentzat kezkatzen dela agertzen bada, ez dakigu ezer bere nortasunari buruz.

### 2.1.3 Ondorioak

Ondorioz, *35 kilos d'espoir* transmisioa eta belaunaldien arteko harremanari buruzko istorio bat da. Testu sentikorra eta unibertsala da, nerabe batek bere ingurumenean bere tokia nola egiten saiatzen den kontatzen du.

Aitatxi eta amatxiren izenak ezagutzen baldin baditugu, ez dakizkigu Grégoirren burasoenak. Despertsonalizazio horrek, aita eta amaren figura karikaturalak indartzen ditu. Estereotipo adibideak baizik ez balira bezala aurkeztuak dira. Burasoen arteko arazoei aurre egiteko, ez da dibortzioaren ideia aipatua.

Burasoak egoistak eta galduak bezala erakutsiak baldin badira, aitatxi pertsonaia sendoa eta fidagarria da. Eredua da, Grégoirrek bere antza du aspektu askotan eta egiazko konplizitate bat agertzen da bien artean. Aitatxi eritzen delarik, Grégoirren nortasuna aldatzen da eta borrokatzeko prest da.

Gizonen estatutua *35 kilos d'espoir* eleberrian estereotipatua da. Aitaren adibidea hartuz, bere emozioak haserrea eta isiltasunaren bidez adieraziak dira. Aitatxi Léonek ere, isiltasuna erabiltzen du gaitzitua edo kexatua delarik. Arrazionalizazioaren irudia da. Horrez gain, ipuinean zehar Grégoire pertsonaia ahula bezala erakutsia da baina bukaeran, tematua, deliberatua, zurruna bilakatzen da. Kalitate batzuk bezala erakutsiak dira adjektibo bortitzak badira ere. Ber maneran, pertsonaia maskulino gazteak aipatuak direlarik, azkar irri egiten dutela, zozoak direla aipatua zaigu (86.orr) Grégoire bere eskola berrira joaten delarik. (Baina) haien zozokeria “ona” dela errana zaigu, mutikoen zozokeria delako. Zer den zozokeria txarra ez dakigu eta zertan mutikoen zozokeria ona den ez da zehaztua. Neskek ez dakitela zozokeria onik egiten suposatzen du. Mutiko bihurria eta neska seriosaren estereotipoak sendotzen ditu.

Pertsonaia femeninoak agindu sexisten pean dira. Etxean dira, besteentzat urduri dira eta sukaldaritzen dute. Amatxik senarraren zigarreta kontsumoa kontrolatzen du. Amak aste guztiz bere semea deitzen du barnetegian delarik bere berriak hartzeko. Horrez gain, emazteak oso sentiberak emotiboak dira.

Ipuinaren bukaeran, Grégoire, “egiazko” mutiko sendo bat bilakatzen da. Aitatxik zion ez zituela pertsona ahulak maite eta bere buruari desafioak emanez, bere ideiak bururaino eraman ditu. Nahiz eta ipuin bukaeran ez esperantzarik izan, aitatxi esnatzen da. Honek Grégoirrek egin dituen indarrek pagatu dutela erakusten du. Indar intelektuala ez da aipatua edo balorean emana. Min ukatea, eginahalak egitea, gorputza urrunago pusatzea, hauek dira balorezko indarrak.

2.2 Yves Grevet, (2006) *C'était mon oncle*

### 2.2.1 Sinopsia

*C'était mon oncle!* 2006ean argitaratua izan zen. Noé Petitek, narratzaileak, bere osaba hiltzean, gizon hori existitzen zela ikasten du. Gizona, Armand Petit, eskale bat zen. Noék dituen aurreiritziak baztertuko ditu pixkanaka. Noéren burasoek berriki etxez aldatu dute eta gaztea bere herri berrian aspertzen da. Anai bat badu, Marc, asteburuetan bakarrik ikusten duena barnetegian delako. Bere aita Jeanek bi anai ditu, Raymond eta Armand alkolikoa eta eskalea zena. Mutikoak Eguberriko bakantzak amatxi Marie Jeannen etxean pasatzen ditu, Clermonten. Han, bere Jean Pierre lagunarekin, Armandi buruzko informazio gehiago ukaten entseatzen da. Noéren amatxik Armand asko maite du. Bere osaba poeta eta bidaiaria zela jakiten du. Berantago, Armanden eskale lagunen ezagutza egiten du (Yoyo eta Riton). Ipuinaren pertsonaia nagusia Noé da nahiz eta Armandek toki asko ukan. Gutunen eta Marie Jeannen lekukotasunen bidez, beri buruzko informazioak ukaten ditugu.

### 2.2.2 Pertsonaiak

#### Noé Petit

Noé Petit CM2ko ikaslea da. Duela bi urte Clermont utzi zuen bere burasoekin eta herrian bizi dira. Noé asko aspertzen da, lagunik ez duelako eta bakarrik sentitzen delako. Bere anaia handia amatxiren etxean egon da Clermonten. Amatxiren etxean dena maite du. Berekin Armandetaz asko mintzatzen da, erosketak eta sukaldaritzen laguntzen du... Noé mutiko sentikorra eta zintzoa da. Bihotz onekoa da, amatxik eskaleei Eguberriko afaria erosten dielarik, Noék dirua eman nahi dio laguntzeko. Horrez gain, bere osaba eskalea zela ikasten duelarik, bere nortasunari interesatzen da, berari buruz inkestak egiten ditu eta entseatzen da bere oroitzapena garbitzea - batez ere Raymond bere osabarekiko – poema liburu bat eginez. Ber maneran, nahiz eta ez dugun informaziorik Noéren fisikoari buruz, badakigu begirada goxo bat duela (50.orr). Askotan bere osabaren antza duela adierazten zaio, nortasuna, sentsibilitatea eta bakardadea komunean dute (63.orr).

Clermontera itzultzean, Noé Jean Pierre, bere laguna, asko aldatu dela ohartzen da; lehen elkarrekin asko jostatzen baldin baziren, orain, Jean Pierrek joko bideoak nahiago ditu. Noek ez du hori nahi, Armandi buruzko informazioak xerkatzen ditu. Hala ere, egun batez Jean Pierrek onartzen du Noé laguntzea bere ikerketen eramateko. Noé ez da bere adineko gazteak bezala, ez ditu besteen interes zetroak partekatzen eta giza harremanei garrantzi gehiago ematen die.

Armanden ehorzketetara joaten denean haren lagun eskaleak ikusten ditu. Momentu honek Noé ukitzen du. Bere aitak, Armanden poema kaier bat ematen dio, haien ganbaran zena. Poesia horiek irakurriz eta maitatuz, sentsibilitate bat garatzen du. Jean Pierrekin eskaleengana joaten da bere osabari buruz galderak pausatzeko. Hasieran haietaz beldurtzen da (39.orr) baina hala ere hara itzultzen da, dituen galderei erantzunak ukateko xedez. Amatxi Marie Jeannekin, Armanden argazkiak eta gutun zaharrak begiratzen dituztelarik, erraten dio Armanden lagunak ikusi dituela eta Eguberriko janaria eman nahi diela. Amatxi ados da. Eguberri biharamunean, Yoyo, eskale bat Noérengana doa pakete batekin. Barnean, Armanden poema kaier bat bada. Bere testu guztiak ordenagailuan jotzea erabakitzen du gazteak, bai eta familiarentzat argitaratzea ere. Bukaeran, Noék bere amatxik egin dion Eguberriko oparia poema liburu bat dela ikusten du. Pozik da, bere osaba bezala, poesia zale bilakatu delako.

Armand Petit

Armand Petit, Jean eta Raymonden anaia zaharrena da. Noé eta Marcen osaba da. Bere ama, Marie Jeanne Petit bere semeaz beti okupatu da, eskale bilakatu delarik ere. Poesia zalea eta gizon kuriosa bezala deskribatua da (23.orr) Bere anaiak, Raymondek alkoholiko bezala deskribatzen du baina gizon sentikorra zela dio Marie Jeannek, kalitate bat dela zehaztuz (37.orr). Armand alkolikoa bilakatu zen desesperatua zelako. Sofripena baizik ez zela dio (80.orr) bere amari bidalitako gutun batean. Fisikoki, bere bilobak bezala, begirada goxoa zuen (50.orr) eta oso ederra bezala deskribatua da, atzemandako argazki baten arabera (62.orr).

Gizonak asko bidaiatu zuen bere aita hil ondotik. Ameriketara eta Karibeetara joan zen eta dirua irabazi zuen. Bogotan, emazte bat ezagutu zuen, Consuela eta berekin hiru urtez ezkondua egon zen. Consuela haurdun zelarik auto istripu batean hil zen, haurra galduz. 1980an, Kolonbiatik joan zen eta 1983an Jamaikan itsasontziak konpontzera joan zen. Oso triste egon zen bere emaztea hil zenetik. Bere amari idatzitako gutunetan anaiak ikusi nahi zituela eta itzultzeko asmoa zuela erraten zion. 1985ean, itzuli ondotik, aldatua eta zahartua zen. Hasieran maiz Marie Jeannen etxera joaten zen, baina behin, alkola usaina zuen eta bere amak erran zion ez zuela holakorik onartzen. Karrikan egon zen bere bizi bukaera arte eta Marie Jeannek janaria ekartzen zion, erregularki. Batzuetan hain mozkorra zen non ez zuen bere ama ezagutzen ere ez, berekin gaiztoa zen mozkorregia zelako. Yoyok Noéri emandako paketean Armanden gutun bat bada, zeinetan bere amari maite duela erraten dion (81.orr). Honen ondorioz, Noék bere poemak ordenagailuz idaztea erabakitzen du. Bere osabak poema bat idatzi ziola ikusiko du (83.orr). Pentsa daiteke bere egoera ilunak du heriotzera ereman.

Marie Jeanne Petit

Marie Jeanne, Armand, Raymond eta Jeanen ama da. Bere bilobak Noé eta Marc dira. Ez dakigu Raymondek beste haurrik duenik nahiz eta jakin Noék lehengusuak dituela. Marc amatxiren etxean egoten da barnetegian urtean zehar. Noék bere amatxi asko maite du, ongi okupatzen delako (24.orr). Emaztea bihotz onekoa da ez duelako inoiz Armand abandonatu eskalea zelarik ere. Beretzat beti beldur eta triste zen (72.orr). Emaztea fededuna da eta mezara doa Eguberriz (61.orr). Bere semearen lagun eskaleentzat Eguberriko gauean janaria erosten du, denek pixka bat ukan dezaten. Emaztea maitasunez eta sentsibilitatez betea da. Bere semeak, Raymondek, bere anaia kritikatzen duelarik ehorzketetan gaizki hartzen du (51.orr).

Marie Jeannek, Noék Armanden antza duela estimatzen du eta konplizitate bat agertzen da haien artean. Armanden argazkiak eta gutunak erakusten dizkio. (34.orr) Eguneroko bizian, Marie Jeanne ile apaindegira edo merkatura doa... Bere bilobarekin

zinemara doaz, James Bond ikustera. Maitatu duela dio baina Noék ez daki egia den edo beri plazer egiteko erraten duen. (60.orr).

Marie Jeannek beti Noéri opari bikainak egiten dizkio nahiz eta ez zerrendarik ukan (72.orr). Eguberriko poema liburu bat eskaintzen dio bilobari eta elkarrekin Armanden poemak argitaratzen dituzte.

Jean Petit

Jean, Noéren aita da, Marie Jeannen semea eta Raymond eta Armanden anaia. Armandekin hamar urte desberdintasun dituzte. Jeanek autoritate itsura du ipuinean. Zorrotza da (16.orr), erasiatzen du (17.orr) eta karratua da, biltzeko zentzua du (27.orr). Jean ipuin hasieran agertzen da batez ere. Berriki etxez aldatu dute eta baratze handi bat dute. Baratzeaz okupatzea maite du.

Bere anaia hil dela jakiten du, bere semeak poliziaren dei bat ukan duelako (14.orr). Aitak Noé ehorzketetara etortzea nahi du nahiz eta ama ez ados izan (15.orr). Bere semeak galderak dituelarik, berekin iragana aipatzen du eta Armanden poesia kaiera ematen dio. Armand Ameriketara joan zelarik bere kontra kexatua izan zela erraten dio, haien aita galdu berri zuelako. Baina Clermontera itzuli zelarik, halere bera ikusteko prest izan zen (22.orr). Orduan, Jean gizon zorrotza eta zuzena da. Bere semearekin mintzatzen da eta Armand nor den jakiteko laguntzen du.

Ama

Noéren amak ez du izenik. Ama Jeanen emaztea da eta aitaren zorroztasunarekin kontrapisua egiten du. Goxoki mintzatzen da (17.orr) eta bere senarrak bezala, biltzeko zentzua du (27.orr).

Amak, aitak ez bezala, Noé Armanden ehorzketetara eramatea ideia txarra dela uste du. Ehorzketak haurrarentzat zailegi izateaz urduri da (23.orr), baina aitak azken hitza du.

Ehorzketak eta gero, ama Noé ikustera doa nola sentitzen den jakiteko. Bere sentimenduentzat kezkatzen da. Bukaeran, bere lagun bat deitzea erraten dio eskolako kurtsoak errekuperatzeko. Hark bere ikasketetan garrantzia ematen du. (25.orr). Eguberri gauean, bere semea deitzen du berriak ukateko (73.orr). Ama afekzioa emateko agertzen da. Bere semearen ongi izateaz axolatzen da eta bere eskolatzeari pentsatzen du. Bere babesle rola amatxirekin bakantzetara joaten delarik gelditzen da. Hor amatxi afekzio eta goxotasun sinboloa bilakatzen da.

Riton

Riton Armanden lagun eskale bat da. Lehen aldiko elizan agertzen da, ehorzketetan. Ondotik, Noé haiengana joaten delarik agresiboa (50-51) eta ironikoa (74.orr) da. Azkar kantatzen du eta Marie Jeanne eta Noétaz trufatzen da janaria ekartzen diotelarik Eguberriz. Heien eskuzabaltasunaz jabetzean, jarreraz aldatzen du, lasaitzen da eta oso ukitua agertzen da (74.orr).

Yoyo

Yoyo Armanden eskale lagun bat da. Haurrekin mintzatzen da (49-50.orr) eta Armandi buruz informazioak emateko prest da. Gizon goxo eta zintzoa bezala deskribatua da (74.orr). Eguberri biharamunean, Marie Jeanne eta Noé ikusi ondotik, Noéri gutun bat eta kaier bat ematen dizkio, barnean, Armanden azken nahiak eta poemak dira.

### 2.2.3 Ondorioak

*C'était mon oncle!* eleberriak pertsonaia maskulinoei nagusitasuna ematen die. Narratzailea hamar urteko mutiko bat baldin bada, bere obsesioa eta interes zentroa bere osaba da, Armand. Bi pertsonaiak paraleloan emanak dira lotura asko dituztelako. Noé eta Armanden inguruan beste pertsonaia maskulino batzuk ibiltzen dira: Jean, Raymond, Marc, Jean Pierre, Yoyo eta Riton. Raymond eta Riton pertsonaia maskulino bortitzak eta tematuak bezala irudikatuak baldin badira, Jean eta Yoyo gizon orekatuak eta zuzenak bezala ikusiak dira.

Bi pertsonaia femenino agertzen dira Noeren inguruan: Noéren ama, izenik ez duena eta Noéren amatxi, Marie Jeanne. Emazteak eleberrian, diskretuak dira. Ama eta amatxi haien semeentzat urduri dira. Marie Jeanne bere seme eta bilobentzat sakrifikatzen da. Besteei dena ematen die, haietaz okupatzen da. Janariaren bidez lotura sortzen du: Armandi ogitartekoak ematen dizkio, Noé nahi duena jaten nahi duelarik uzten du, Eguberriko afaria prestatzen du... Ama askoz gutxiago agertzen da eta aitaren erabakien menpe dela ikusten da. Goxotasuna, berotasuna eta malgutasuna irudikatzen ditu, aitak, zorroztasuna eta autoritatea erakusten dituen bitartean.

Bestalde, maskulinitatearen nagusitasuna poesiaren bidez agertzen da. Aipatutako poeta guztiak maskulinoak dira: Jacques Prévert, Guillaume Appollinaire, Paul Verlaine, Jules Supervieille, Philippe Soupault, Claude Roy, Louis Aragon, René Char, Léon-Paul Fargue, Blaise Cendrars, Paul Eluard, Pierre Reverdu, Paul-Jean Toulet, Paul Claudel, Boris Vian, Henry Michaux, Henri Pichette eta Chares Ferdinand Ramuz (27.orr). Emazte poetarik ez da agertzen. Emazteen rola musak izatea da, Consuela bezala. Ez dakigu ezer pertsonaia honi buruz, salbu Armandek miresten eta osoki maite zuela eta hil ondotik Armand ez dela inoiz lehen bezala izan. Consuela ameskeria bat da: perfekzioa dirudi (argazki batek oso ederra dela adierazten du) baina ez dakigu ezer bere nortasunari buruz: ez da mintzatzen, ez du akziorik egiten, bere gustuak ez ditugu ezagutzen. Irudi bat baizik ez da, Armandek maitatzen zuen irudia.

### 2.3 Annelise Heurtier, *Sweet sixteen*, 2013

#### 2.3.1 Sinopsia

1957an, Arkansasen, Estatu Batuetan, Molly Costellok laster 16 urte ukanen ditu. Neskak bere lehen sartzea eskola txuri batean egiten du beste zortzi gazte beltzekin, integrazio programa baten kari. Bere ama eta amatxirekin bizi da Little Rockeko auzo pobre batean. Hegoaldeko estatua oso arrazista da eta neskak estremismoei eta bortizkeriari aurre egin behar du onartua izateko.

Lizeo Zentralean, ikasle zuriak baizik ez dira eta haien artean, Grace Anderson, neska polita eta popularra bada. Familia aberats batean bizi da eta garrantzi asko jantziei eta mutikoei ematen die. Arrazakeria eta beltzen kausatik urrun bizi da eta nahi gabe, Mollyren etorrerak bere ikastetxean, bere bizian eragina ukanen du.

Eleberria, egiazko gertakari batzuen gainean oinarritzen da. 1950 hamarkadako Estatu Batuetan, Segregazioaren bihotzean, beltzak eta zuriak separatuak direlarik, Auzitegi Gorenak eskola publikoetan segregazioa debekatzen du. Little Rockeko lizeo zentralean sartu ziren 9 gazte beltzak urte batez baizik ez dira egonen, etengabe jazarriak, apalduak eta arriskuan direlako. Molly Costello, Melba Patillotaz inspiratua izan da. Beste pertsonaia gehienak fikziozkoak dira baina gertakari nagusiak egiazki pasatu dira. Ipuin honen helburua, Annelise Heurtiek liburuaren aitzin solasean dion bezala, ez da historia kurtso bat ematea baina Melba Patilloren egunerokotasunaren bortizkeria salatzea.

### 2.3.2 Pertsonaiak

#### Molly Costello

Molly Costello integrazio proiektu baten barnean den hamabost urteko neska ausarta da. Bere eskola beltza uzten du eskola txuri batera joateko urte batez. Alde batetik, laztura sentitzen du baina bestalde ezinegona da (21.orr). Bere erabakia eztabaidatua dela badaki baina mugimendu berri bat martxan emanen duela espero du. Bere ama lehena izan da Molly abisatzea: hautu lanjerosa izan daiteke, zuriek dena eginen dute neska arriskuan emateko. Bere aitak, nahiz eta etxetik joana den, bere erabakia dudan emateko deitzen du (31.orr). Karrikan, pertsona batzuek erraten diote ez eskola horretara joatea, bera, bere auzokoak arriskuan ematen dituelako eta hobe duela bere xokoan egotea. Bere lagunek ere pixkanaka bizkarra itzultzen diote eta azkenean, bere amatxi eta amaren sustengua aparte, aski bakartia sentitzen da Molly. Baina bere amatxik, Shirik, beltzen eta zurien arteko berdintasun ideiarekin hezi du (24.orr) eta bere hautua justiziaren alde egin duela segur da. Molly ipuinean zehar erregularki umiliatua da.

Hasieratik, jasan behar duen diskriminazioa sentitzen da: karrikan emazte txuri batek bere sudurra tapatzen du gurutzatzen duelarik (25.orr), saltzaileak ez dio esnerik saldu nahi beltza delako (27.orr). Baina lizeo zurira joaten delarik bere kontrako erasoak biderkatzen dira. Eskolara joan aitzin, Ku Kux Klanek sutan den gurutze bat pizten du bere baratzean gauaz (66.orr). Ber maneran, bere lehen eguna eskolan egin behar duelarik, estatu guztitik zuriak etorri dira ikasle gazteak ez sartzen uzteko. Mollyk eta bere amak, Erinek, korrika ihes egin behar dute talde arrazista batek ikusten dituelarik eta haien gibeletik korrika egiten duelarik (79.orr). Molly maiz errudun sentitzen da bere familiari pena egiten diolako eta arriskuan ematen duelako. Erregularki mehatxu deialdiak dituzte eta norbaitek hilko dituela erraten dielarik, amatxi Shirik gaua esnaturik pasatzen du fusilarekin eskuen artean.

Eskolara sartzen erreusitzen duelarik, Molly berehala jazarria da. Kirolean neskek baloia aurpegira botatzen diote, Ama Zurien Ligak erasotzen du eta korrika gordetzera joan behar da. Eskolara militar batzuekin inguratua joan behar da babesteko. Baina ikasleek haien probokazioak segitzen dituzte eta helduek begiak hesten: tinta beltza buru gainera botatzen diote (143.orr), berina bere kadiraren gainean ematen dute (194.orr)... Beste beltzak ere mehatxatuak dira, haietariko bat Madeleine, eskaileretan pusatua da eta koman egoten da (188.orr), azken urteko ikasketetan den Conrad, arriskuan da bere diploma pasatzen duelako (188.orr). Ez du inork Mollyri hitz egiten eta ez du laguntasun harremanik sortzen ikastetxean. Kiroleko irakasleak normalki hitz egiten dion lehen zuria da. Ber maneran, Grace Andersonek, bere klaseko neska zuri batek, azken hilabeteetan sustengua erakusten dio.

Molly oso haserre da, politikaren injustizien kontra, ikastetxearen kontra eta ikasleen kontra “haserre azidoa” (54.orr), “umiliazio” (28.orr) sentimenduak ditu. Baina ez du bere ikasturtea uzten eta honengatik bere lagunak urruntzen dira. Bere 16 urteak ospatzean (*Sweet Sixteen*) besta eder bat egitea espero du, bere lagunekin eta familiarekin. Baina ama eta amatxirekin bakarrik da, lagun bat baizik ez da pasatzen, Vince, hautu txarra egin duela Lizeo zentralera joanez adierazteko.

Conraden diploma ematearen egunean, ez da beltzik sustengatzera etortzen lanjerosegi delako, baina Mollyk irratiaren bidez entzuten du. Mutikoak bere bizia arriskatzen du bere saria eskuratzeko. Ez du inork txalotzen publikoan eta Molly triste eta pozik da. Egin duten guztia ez da debalde izan eta egina izan den lehen pauso hori aitzinamendu askoren hasiera dela, nahiz eta luzea izan, daki.

Molly neska sendo eta tematua da. Bere erabakiak bururaino eramaten ditu kausa bat justu dela estimatzen duelarik. Nahiz eta bere familia ingurugiro pobre batean murgildu, bere deskribapenean, beti garbia eta jantzi ongi lisatuak ditu. Itxura ona ematen du eta bere ama eta amatxik garrantzia ematen dute bere aurkezpen fisikoari. Ez dakigu gauza askorik Mollyren fisikoari buruz, salbu Gracek polita atzematen duela (114.orr). Orduan, Molly bere adinarentzat pertsonaia heldua da eta ideiak argiak ditu. Baina nahiz eta kausa justu batentzat borrokatu, jasaten duena oso bortitza da eta integrazio esperientzia honek bere inozentzia galarazi diola adierazia da (211.orr). Bukaera arte, Mollyk esperantza atxikiko du.

Grace Anderson

Grace Anderson, Molly bezala, 15 urteko nerabe bat da. Little Rock hirian bizi da eta ikaslea da. Baina, Molly ez bezala, zuria da eta hiriaren “alde onean” bizi da. Bere burasoak aberatsak dira eta langile beltz bat badute, Minnie deitzen dena. Grace beltzen segregazioaz urrun bizi da eta bere interes nagusiak jantzi eta mutikoetan zentratzen dira. Anai bat badu eta beltzen integrazioa bere ikastetxean aipatzen dutelarik, agertzen da burasoek – beste zuriei konparatuz – irekidura forma bat dutela. Aitak dio:

> “Je crois qu'il ne faut pas s'inquiéter outre mesure. Dans cette histoire, ce ne sont pas nos enfants qui ont le plus à craindre. Si danger il y a, c'est certainement pour ces neuf malheureux qui s'archarnent à vouloir intégrer le lycée” (63..orr)

Bere lagun hoberenak, Brook, Dorothy eta Judy dira. Gracek Brooken anai handia, Sherwood asko maite du, oso ederra atzematen du eta bere helburua urte bukaerako dantzaldira mutikoarekin joatea da.

Gracen bizia Mollyrenarekin paraleloan emana da, bizitzen dituzten oztopoak konparatuak dira. Gracek hasiera batean Brooken amak antolatzen dituen Emazte Zurien Ligako bilkuretan parte hartzen zuen (37.orr). Ez da arrazista nahiz eta ez sinpatiarik ukan beltzentzat (36.orr), ezjakina da. Bilkura horietara joaten da Sherwood ikusteko esperantzarekin. Aldiz, nahiz eta bere laguna Brook baino neurtuagoa izan, ez du beltzen egoeren defentsa hartzen inoren aitzinean. Bere motibazio nagusia lizeoan popularra izatea da (40.orr) eta bere jantziei, fisikoari garrantzi asko ematen die. Gracen fisikoa hasieratik aipatua da. Neska blonda eta fina da (13.orr) Gerri eta zango finak ditu eta bular gutxi du (41.orr). Azkazalak egiten ditu eta badaki zein jantziekin bere gorputza balorean eman (131.orr). Neska baten errepresentazio estereotipoari erantzuten duen fisikoa du eta Gracek bere itxurari denbora asko eskaintzen diola azpimarratua da. Ber maneran, mutikoen begiradari garrantzi asko ematen die: eskola babesten duen soldadu gazte eta lotsati batek begiratzen duela ohartzen delarik, egunero bere aitzinetik pasatzen da zein efektu egiten dion ikusteko (128.orr).

Horrez gain, Gracek ez du inongo elkartasunik erakusten beste neskei. Adibidez, Molly lehen aldiko ikusiko duelarik, bere fisikoa epaitzen du (114.orr) Bere lagunen fisikoa nahiko luke, batez ere Dorothyrena bular lodiak dituelako, baina kontsolatzen da pentsatuz sudur okerra duela (41.orr). Brookek arropa berri bat duelarik, ez dela ederra bere gainean adierazten du (165.orr). Etengabeko konkurrentzian da haiekin eta fisikoari lehentasuna ematen dio.

Gracek Mollyren etorrerari buruz ez du ikuspuntu berezirik. Harritua da neska beltz bat bere klasean izatea. Nahiz eta ez duen bere burua "beltza-filoa" (*philonègre* testuan) bezala ikusten, (129.orr) Molly polita atzematen du. Pixkanaka Emazte Zurien Ligarentzat mesprezua baizik ez du (82.orr) eta Brooken jarreraz aspertua da (129.orr). Beltzak ez direla ikastetxean integratua eta ez dutela beste ikasleekin jaten (132.orr) ohartzen da. Baina ez du "integrazionista" bezala pasa nahi, bere populartasuna ez galtzeko. (146.orr). Horretarako, bere lagunek Mollyren gainera tinta botatzen dutelarik, pena ukanen du eta ofentsatua da. Baina ez die deus erraten ondorioen beldurra duelako.

Paraleloki, Gracek bere harremana Sherwoodekin garatzen du eta mutikoak berekin ateratzea proposatzen dio Bowling bat egiteko (146.orr). Bere sehiarekin janzten da (150.orr). Sherwoodekin beltzen baldintzaz mintzatzen dira. Mutikoak ikuspuntu erradikala erakusten du:

> “S'ils s'imagient qu'un nègre puisse être diplômé du Lycée central ils se fourrent le doigt dans l'oeil. Ils se croient où? Chez ces tarés de New – Yorkais? Crois – moi on va le faire dégager.”

Gracek ez du oposiziorik adierazten. Hitz orduaren bukaeran ez du Sherwood musukatzen, konbentzio sozialek itxaron behar dela diotelako, ez arrazista delako. Berantago Sherwoodekin bikotean da eta elkarrekin urte bukaerako dantzaldira joatea erabakitzen dute. Baina Gracek Sherwood Ku Kux Klaneko partaide bat dela ulertzen du (170.orr) eta Conrad Bishop azken urtean den mutikoan lanjerean dela jakiten du. Momentu honetan, Gracek bere ausardia erakusten du. Mollyrekin diskretuki harremanetan sartzen da Conradi arriskuan dela jakinarazteko (182.orr). Hortik goiti, Sherwoodekin bereizten da (192.orr). Mollyri sinpatia markak erakusten dizkio geroz eta gehiagotan, besteen ikuspuntuari kasurik eman gabe. Agurtzen eta abisatzen du beste ikasleek tranpak eginen dizkiotelarik (194.orr). Baina bere ausardiak kostu bat du. Grace etxera sartzean, KKK-ko partaide batzuek erasotzen dute. Hiru mutikok jotzen dute, ileak mozten, aurpegia beltzez estaltzen eta bere galtza irekitzen diote. Norbait etortzen da Grace laguntzeko. Hiru pertsona horien artean Sherwood bada (200-201.orr).

Azkenean, nahiz eta Grace azaleko pertsonaia bat bezala deskribatua izan, pixkanaka, bere ingurumenaz nagusitzea erreusitzen du. Honek kostu bat du, bere bizia lanjerean ematen du eta agresio bat jasaten du. Grace 15 urteko neska da eta bere adineko arrangurak bizi ditu, nerabetasun baketsu batean. Dena duen pertsonaia bat da. Pixkanaka, Gracek bere egiazko nortasuna erakusteko indarra du. Bere *Sweet sixteenak* ospatu ondotik, bere familiarekin hiriz aldatuko dute, Minnie gibelean utziz, Gracek faltan botako duen pertsona bakarra da. Neska, Minnie ezagutzeko ez duela denborarik hartu, gehiegi bere gainean zentratua zelako ohartzen da. Mollyk aldaketa bat ekarri dio, orain, besteei

interesatzen da. Aldaketa hori fisikoki agertzen da. Bere ileak moztu ditu erasoaren ondotik, bere feminitatearen sinbolo bat ezabatzen du, bere barne edertasunari tokia eginez.

Erin Costello

Erin Mollyren ama da eta bere ama Shirirekin bizi dira, senarra joan denetik. Emazte pragmatikoa da (46.orr). Bere alaba zuri eskola batera joanen dela jakiten duelarik, urduri da (25-26.orr). Baina Molly sustengatzea erabakitzen du. Hark eskolara eramaten du lehen aldi batez eta erraten dio ez dela bortxatua, iritziz aldatzen ahal duela. Baina ez da kasua (73.orr). Berantago, nahiz eta ez duen nahi Molly eskolara itzultzea (125.orr) lanjerosegi atzematen duelako, bere alabaz arro dela erraten dio. (107.orr). Erinek Molly beti sustengatzen du, bere urtebetetze garaian eta eskolako azken egunak arte, ondoan da.

Badakigu Erinek lan egiten duela baina ez dakigu non. Fisikoaren aldetik, Erinek matelen hezurrak zorrotzak ditu eta batzuetan bere afro amerikar ileak lisatzen ditu. Ile afro amerikarra gai politiko bat da: Estatu Batuetan, esklabotza garaian, esklaboak garestiago salduak ziren ilea lisatua zutelarik, balore gehiago ematen zieten. Pixkanaka, afro-amerikarrek kolonizatzaileen balore estetikoak integratu zituzten, zurien menpe izan beharrez. Alienazio mentala dela erraten da (jatorrizko hizkuntzen baztertzea, europarren jantzteko manera birsortzea...). Hirurogei hamarkadatik goiti, Angela Davis, Black Power mugimenduarekin, afro.orrazkera askatasun mugimenduaren sinbolo bat bilakatu zen (Sall, 2015). Erinen.orrazkerak ez du funsgabekeriarik eta bere nortasunari buruz asko adierazten du. Erin emazte beltza da eta bere bizi guztian diskriminatua izan da.

Shiri

Mollyren amatxi, Shiri, emazte fededuna da (34.orr, 47.orr, 210.orr...). Ipuin bukaera arte, nahiz eta Mollyk jazarpen larriak jasan, jainkoan sinesten du haiek laguntzeko, optimista da (47.orr). Bere alaba eta bilobarekin bizi da eta pertsonaia goxo bat bezala deskribatua da. Bere fisikoak ere goxotasuna erakusten du, adibidez, besoak borobilak ditu (46.orr) Mollyk integrazio proiektuan sartzea erabakitzen baldin badu,

Shirik bere ardura partea du. Betidanik, beltzen eta zurien arteko berdintasunaren alde borrokatu da eta ideia horiek pasarazi dizkio. Mollyri afekzio asko erakusten dio eta sustengu sendo bat da.

Hasieran Shiri pozik den bakarra da Molly Lizeo zentralera joaten delarik (49.orr). Shiri gehienetan etxean egoten da, sukaldaritzen du, Mollyren jantziak garbitzen ditu bere aurkezpen fisikoa oso inportantea baita beretzat. Inpresio ona egin behar da, nahiz eta pobreak eta beltzak izan, aberats zuriek bezainbat balio dutela erakusteko. Molly eskolatik sartzen ikusten duelarik lehen aldiko, negarrak heldu zaizkio, galdetuz zer egin dioten. Hark du nerabeari aitzinatzeko kuraia ematen eta hark ditu alde positiboak ikusten egoera zailenetan ere. (138.orr)

Baina, Shiri emazte indartsu bat da eta bere familia babesteko prest da. Mehatxatuak direlarik, arma hartuko du eta etxea zaintzen du gau guztian lorik egin gabe. Biziki urduri dela agertzen da (121.orr). Alta, ez du inoren laguntza galdetzen eta bere burujabetza erakusten du, nahiz eta adineko emazte bat izan. Conradek bere diploma duelarik, aitzinamendu ikaragarria izan dela eta handituko delarik, Mollyk ikusiko duela esperientzia honek kuraia eta indarra eman dizkiola dio. Pentsatzen du behar bada ere pozik izanen zela proiektu honetan parte hartu izanik. (211.orr)

Ondorioz, Shiri, amatxiaren irudi baikorra eta klasikoa da. Bere biloba sustengatzen du edozein egoeratan. Sukaldean denbora pasatzen du, janaria prestatzen du. Baina, bestalde nortasuna duen pertsonaia da. Ez ditu besteak bere burua apaltzen uzten, berdintasunean sinisten du eta aldarrikatzen du. Ez du gizon baten laguntza behar egunerokoak eta ezustekoak kudeatzeko.

### 2.3.3 Ondorioak

*Sweet sixteen* 50 hamarkadan pasatzen den eleberria da Estatu Batuetan. 50 hamarkadako giroa kontatua da, testuinguru soziala kontuan hartu behar da: gizonen eta emazteen rolak zorrozki definituak ziren eta familia nukleoa Estatu Batuetako oinarri bat

zen. Molly eta Grace etengabe konparatuak dira eta ipuinak elementu guztiek oposizioan direla adierazten du, nahiz eta adin berdinekoak izan eta toki berdinean bizi.

Arrazakeria eleberriaren oinarrizko gaia da baina Grace eta Mollyren arteko ezberdintasunak etengabe azpimarratuak dira: Gracek jantzi garestiei garrantzia ematen die. Aldiz, Mollyk jantzi garbiak ditu, baina klasikoak eta merkeak. Gracen familia diruduna da eta auzo aberatsetan bizi da, langile beltz batekin, Minnie. Aldiz, Molly bere ama eta amatxirekin bizi da, auzo pobre eta zikin batean. Gracek Elvis, jantziak eta mutikoak maite ditu eta ez du beltzentzat interes asko. Mollyk Nat Cole entzuten du, beltzen eta zurien arteko berdintasunean sinisten du eta zuriek dituzten aukerak ukan nahi ditu. Molly bere tokia egiteko borrokatzen baldin bada, Grace ez da bere pribilegioetaz ohartzen eta nahiz eta ez beltzen kontra izan, nahiago du ez haiekin nahasi bere itsura ez apaltzeko.

Alta, bukaeran Gracek bere egiazko bisaia erakusten du eta bere ausardia agertzen da. Mollytaz urbiltzen da eta ulertzen du beltzen kausa justua dela. *"En fait, peut-être qu'elle avait toujours su que ce combat était juste, mais qu'elle n'avait jamais eu l'aplomb de se l'avouer. Elle ne savait plus très bien".* (214..orr). Grace, Mollyren etorrera ondotik, handitua eta sendotua da nahiz eta irain fisikoak jaso dituen.

Molly justizia eta bere baloreentzat borrokatzen da. Arriskuak hartzen ditu eta isolatua da. Baina bukaera arte, Mollyk indarra eta burugogorkeria erakusten du, defenditzen duen kausa justua dela dakielako eta hark ere eskola onetan bere tokia merezi duelako.

Bere amak eta amatxik eragin nagusia dute Mollyren nortasunaren eraikuntzan, biek Mollyri haien indarra eman diote. Bi pertsonaiak etxeaz arduratzen dira, haien jendartean onartuak izatea entseatzen dira baina emazte independenteak dira, nahiz eta 50 hamarkadan izan. Etxea bi emazteek dute eramaten, gizonen laguntzarik gabe.

Gizonak gutxi agertzen dira eleberrian. Mollyren aita ez da agertzen. Conrad eta

Danny soldadua, konfiantzazko pertsona seriosak bezala deskribatuak dira. Baina beste pertsonaia batzuk Sherwoodek bezala, gizonen bortizkeria adierazten dute. Arrazista eta jazarlea da. Gracen agresioa hiru mutiko zurik eramanen dute. Agresioa fisikoa da (bisaia beltzez estaltzen diote, ileak mozten dizkiote) eta sexuala (galtza kentzen diote, norbait kasualitatez etorri aitzin).

### 2.4 Jean François Chabas, *L'arbre et le fruit*, 2016

#### 2.4.1 Sinopsia

Eleberria bi pertsonaien gainean zentratzen da. Lehenik Jewel Fairhope, 1980an zazpi urteko neskatxa bat. Ondotik, bere ama, Grace Fairhope. Hura, pixkanaka bere gainean kurubilkatzen da, William, bere senarraren bortizkerien pisu pean. Bere alaba alderantziz, urteak pasata heldu bilakatzen eta indartzen da familiaren egoerari aurre eginez. Bi pertsonaiek bihotz gabeko pertsonaia maskulino arrazista eta koldar baten eragin psikologiko eta fisikoak bizitzen dituzte. Grace depresioan sartzen da. Bere alabak Jewel eta Esther salbatzeko ezintasunaren erruduntasuna sentitzen du eta ospitale psikiatrikoan egonaldiak biderkatzen ditu. Jewel kolpe eta irainen artean bere ahizpa txikia, babestea entseatzen da eta Williamen eragin toxikotik aterako dira. Ipuina hiru garaietan pasatzen da: lehenik 1980ean, amaren lehen egonaldia da psikiatrian. Ondotik 1988an, Jewel nerabea da. Berea amak egonaldi ugari egin ditu ospitale psikiatrikoan eta ezin izan du aitaren eraginpetik ihes egin. Gracen azken egonaldiaren ondotik, bere buruaz beste egiten du etxera itzulita. Azken garaia, 2015ean da, Jewel heldua bilakatu da, ezkondua da eta haur bat badu. Bere burua berriz eraiki du, aitatik urrun. Estherrekin harreman sendoa atxiki du. Ipuineko arbola, aita da eta fruitua Jewel da. Nahiz eta gehienetan erran fruitua ez dela sekulan arbolatik urrun erortzen, Jewelek ipuinean zehar, familiaren ondorengotzaren parean bere erabakitzeko askatasuna atxiki duela erakusten digu.

#### 2.4.2 Pertsonaiak

Jewel Fairhope

Jewel Fairhopek zazpi urte ditu eleberriaren hasieran. Bere ama desagertu da, ez

daki nora joan den. Beldur du, baina ez du negar egiten handiena delako (14.orr). Ipuin guztian zehar, bere ahizpa txikiari Esther, afekzio asko erakusten dio. Egiazko konplizitate bat agertzen da. Esther pertsonaia oso irringarri da eta Jewelen helburu nagusia aitak ez ahizpa jotzea da. Kolpeak bientzat biltzea nahiago du. Haien ama hiltzen denean, bere ahizparekin bloke bat sortzen dute aitaren bortizkeriaren parean. Haien elkar maitasunak bizirauten du *"Je prends Esther dans mes bras, et je la serre. Notre amour est une force. Nous sommes une citadelle."* (116.orr). 2015ean, Esther eta Jewel ez dira inoiz separatu, zentro batean emanak izan direlarik ere ez. Bizi guztirako lotuak dira (125.orr).

Ama ez delarik hor, bere rola janzten du etxean: sukaldaritzen du, garbitzen du, familiaz okupatzen da, nahiz eta haurra izan. Aita bortitza dela daki, baina ama ez delarik hor berekin lo egitea galdetzen dio. Ber maneran, badaki ez dela normala norbait jotzea eta gero musukatzea, baina hala ere onartzen du. Handitzean, aitarekin dituen harremanak aldatzen dira. Beldurra oraindik hor baldin bada, bere ama eta Esther defenditzen ditu, aitari aurre egiten dio (96.orr). Oporrak beldurgarriak dira beretzat, aitarekin egon behar delako. (100.orr) Ama hil ondotik, aita Esther jotzea entseatzen da eta Jewelek aitari kolpe bat ematen dio, (118.orr) bi ahizpak poliziarengana joaten dira.

Grace eta Jewelen artean afekzio harreman bat eraikia da. Bere haurtzaroan, Jewelek ez du ulertzen nora bere ama joaten den eta zer den bere eritasuna, baina, bere burua beti amaren alde kokatzen du. Bere ama bere urtxintxa begiekin ederra atzematen du (15.orr). Bederatzi urterekin, gau batez soinuak entzuten ditu eta bere ama uspelez estalia dela ikusten du (73.orr). Handitzean, 1988an, Jewelek bere amarekin gau bat elkarrekin bakarrik pasatzen dute. Gracek alkohola eta medikamentuak hartzen ditu eta bere buruaz beste egiten entseatzen da. Jewelek larrialdiak deitzen ditu, ez da lehen aldia (74-75.orr). Paraleloki zergatik ama aitarekin bikotean eman den ulertzen entseatu nahi du eta amak bere aitarekin ezkondu zela ez zuelako beste inork berekin ezkondu nahi baina, honi esker bere alabak ukan dituela dio. Baina Jewelek erokeria dela estimatzen du. Nola ama bilakatuko zen gizon zintzo batekin ezkondu baldin bazen jakin nahiko luke (112.orr).

1988an, Jewelek boxarentzat pasio bat garatzen du eta konfiantza hartzeko asko

laguntzen du. Joe, irakaslearen ezagutza egiten du et konfiantza harreman sendo bat garatzen dute. Nahiz eta Joe bera baino zaharragoa izan, Jewelek afekzio sentimendu bereziak ditu beretzat. Ez du erakarpen sexualik baina beregain bakarrik kontatzen du. Joe eta Jewelen arteko harremanak iraunen du, 2015ean bere alabaren aitabitxia delako. Jewelek bihotzeko familia bat sortzea eta harreman sendoak ukatea erreusitzen du.

Jewellek gizonen beldurra du. Baina etxetik kanpoko emazteekiko jarrera negatibo bat erakusten du. Berak baino bizi errazagoa dutenek kritikatzen ditu eta haien azalkeria leporatzen die. Jantziak, makillajea maitatzea, atentzioa bakarrik bilatzen duten pertsonek erabiltzen dituztela pentsatzen du, hark berotasun eta maitasun eskasa dituelarik. Jewelek orokortasunak egiten ditu beste neskak mutikoei baizik interesatzen direla eta arazoak berak bakarrik dituela estimatzen baitu. Ber maneran, bere kirol taldeko neska bakarra da eta bere ustez, neska guztiak kirol irakaslea ligatzera joaten dira haien mutil lagunen aitzinean. Jewelek ez dela holakoa eta horretarako irakasleak hura bakarrik jasaten duela zehazten du (83.orr).

Jewelek bere aitarekin bizi izan duen harremanaren ondotik traumatismo ezberdinak ditu. Jendeak ukitzen duelarik, auto defentsa mekanismo bat garatzen zaio (59.orr). Ber maneran, mutikoekin ez du harremanik nahi, ez du ukitua izan nahi eta 15 urte dituelarik nahi duen azken gauza harreman sexualak ukatea da.

2015ean, Jewelek berrogeita bi urte ditu. 15 urteko alaba bat badu, Lara, eta 16 urte egiten ditu gizon batekin bikotean dela. Bere bizi berria xantza sinestezin bat da. Bere senarra printze bat bezala ikusten du (125.orr) eta estimatzen du ez duela hori guztia merezi.

Grace Fairhope

Grace Fairhope, Jewel eta Estherren ama da. Ipuinaren hasieran, etxetik desagertzen da, bere senarrak, alabei erraten die oso eri dela eta behar bada hilko dela. Ospitale psikiatrikora sartzen da bere biziaren lehen aldiko 1980ko otsailaren 5ean. Bere

lehen egonaldia ospitalean pasatzen duelarik, jakiten dugu 44 kiloko eta 1m60ko emazte kirolaria dela. Muskulutsua da eta igeriketa egiten du hiru aldiz astean. Txapelketak irabazi zituen gaztea zelarik (27.orr) eta *All America* taldean igerikatzen zuen. Bere alabak emazte zintzoa bezala deskribatzen du eta bere ozeanografo lanbideaz gain, familiaz eta etxeaz okupatzen da. Oso ongi sukaldaritzen du (30.orr) Emazte argia bezala deskribatua da, hiru hizkuntza dakizki eta Ivy Leageko eskola batean bere ikasketak egin zituen (30.orr).

Nortasunaren aldetik, Grace emazte isila da eta zaila da jakitea zer pentsatzen duen (30.orr). Horretarako, bere lehen egonaldia psikiatrian egin zuelarik, ez zuen esplikatu zer gertatzen zitzaion. Lotsatua zen eta bere sekretua beretzat atxikitzea nahiago zuen. Grace perfekzionista da, gauzak gaizki egitea gorrotatzen duo, beraz bere egoera ez du onartzen: jendeari, medikuei korrikaz erori dela erranen die bere kolpeak justifikatzeko.

Ospitalera joaten delarik, oso beldurtua eta estresatua da. Bi hilabetez han egoten da eta pixkanaka bere egoera okertzen da. Medikamentuengatik, ez du gehiago bere gorputza mugitzeko gogorik eta lo egitea aparte ez da beste gauza handirik egiteko gai. Berantago, ospitalera joan baldin bada, saltegi batean krisia bat egin duelako dela jakiten dugu. Bere senarrak egun guztian iraindu zuen eta aurpegira tua bota zion. Azpi humano bat zela erran zion. Karriketan ihes egin zuen eta saltegi batera sartu zen euriaz babesteko eta edertasuna begiratzeko. (43.orr) Han, oroitzapenak igo zitzaizkion eta negarrez hasi zen, geroz eta gehiago kontrola ezina izan arte. Saltzaileak larrialdiak deitu zituen eta ospitalera eramana izan zen.

Bere senarrak erregularki jo eta psikologikoki apaldu du. 1988arte, Gracek beste egonaldi asko egin zituen ospitalean, hamar baino gehiago. Lotsaz betea da eta bere denbora librea jaten eta alkohola edaten pasatzen du. Ez du gehiago kirolik egiten eta medikamentuak hartzen ditu. Gracek 78 kilo egiten ditu, bigarren mailako diabetea du eta ez du gehiago depresiotik ateratzeko gaitasunik.

Bere senarraren bortizkeria salatzeko zaila da Gracentzat. Alta, bi aldiz kanpoko norbaiti bizitzen duen egoera aipatzen entseatu da. Lehen aldiko, bere anaiarengana joaten

da baina bikoteen istorioak pribatuan egon behar direla erantzuten dio. Bere lagun guztiak galdu ditu, denak ihesarazi dituelako, bere egoeraren gaitik (105.orr). 1988a bere senarrak jotzen duela psikologoari aipatzen dio. Azkenean gertatzen zaiona azaltzea erabakitzen du. Baina psikologoak ez du deus egiten. Mintzatzen uzten du eta haien hitz orduaren bukaera dela erraten dio (102.orr). Gracen azken esperantza zen kanpoko pertsona batek hura eta bere alabak salbatzeko, ez delako gai eta ez delako aski indartsua sentitzen bakarrik, bere baitatik ihes egiteko. Jendarteak ez du Grace sustengatu.

Gracek bere aita miresten zuen. Gizon sozialista zen eta bere bi burasoak bigarren mundu gerla garaian esparruetara eramanak izan ziren. Handik atera ziren baina bere bi burasoak hil ziren geroztik. Bere aitak balore asko pasarazi zizkion. Gracek askotan bere ikuspuntuari pentsatzen du. Aita zorrotza eta zuzena zen. Justizia eta zuzentasuna goraipatzen zituen.

Baina bukaera arte Grace bizirik mantenduko duena bere alabentzat duen maitasuna da. Maiz haiei pentsatzen du, bere alabak, bere “maiteak” deitzen ditu, bihotzak bezain ederrak direla dio (88.orr) eta sentimendu hori lotsari nahasten ditu. Bere alabak arriskuan ematen dituela badaki eta bere alaben barkamena xerkatzen du (45.orr). Behin, bere alabak aitaren ikuspuntuaz babestea entseatzen da, kontrazepzioa aipatzen die erranez emazte batek nahi duena egiteko dretxoa duela bere gorputzarekin. Baina William garrasika bere gainean hasten da eta beldurrez apaltzen da (85.orr).

Bere alabak galdetzen diolarik zergatik William bezalako munstro batekin egon den hasieran ez zela holakoa erantzuten dio. Pixkanaka aldatu dela adierazten du. Alta, gazteagoa zelarik, Grace Sacharekin engaiatu zen, baina Israelera joan zen ingeniaritza izateko. Bere burasoek mutiko hori ezagutu zuten baina ez William. (44.orr). Grace entseatu da ihes egitea baina bere senarrak mehatxatu eta beldurtu du. Bere alaben zaintza galduko duela eta ez duela inork sinetsiko, ero batentzat pasako dela erraten dio. Pixkanaka, Gracek bere esperantza guztia galtzen du. Entsegu kopuru handi baten ondotik, Gracek bere buruaz beste egitea erreusitzen du 1988ko agorrilaren 29an. Bere azken pentsamendua bere alabei zuzentzen die (113.orr).

William Fairhope

William bere alaba eta bere emaztearen ikuspuntutik deskribatua da. Gracek gizon hotza eta asmo txarrekoa dela dio. Jewelek Williamen ahots gaiztoa aipatzen du. Gracen ospitale psikiatrikoan lehen egonaldiaren hasieran, negarrez ari da eta bere emaztea hiltzeaz beldur du (14.orr). Ipuinean, William giristinoa da, otoizten du eta mezara doa. Bere baloreak kontserbadoreak dira, adibidez kontrazepzioaren kontra da. Ber maneran, giristinoa baldin bada, ez ditu beste konfesio edo jatorri ezberdinak onartzen eta ohar arrazistak eta antisemitak ditu (85.orr) Williamek whisky asko edaten du eta Jewelek, edan ondotik zintzoena gaiztoena bezala izan daitekeela dio (31.orr). Horrez gain, Williamek Jewel eta Grace jotzen eta iraintzen ditu. Esther, txikiena behin jotzen du. William arrazista, bortitza, koldarra eta sadikoa da (69.orr). Jewelli kolpeak ematen dizkio eta alabak ikaratzen ditu bere heziketa metodo bereziekin.

Bere emaztea bere buruaz beste egitera pusatu arte suntsituko du. *"Les coups de William, ses viols, ses insultes. Tout ce que mon mari m'a fait subir depuis tellement d'années.*" (100.orr). Alta publikoki, Williamek gezurra erraten daki. Notarioa da eta jendearen aitzinean inpresioa egiten du. (104.orr).

Fisikoki, informazio gutxi dira eleberriaren bukaera arte. 2015ean, Jewellek ikusten duelarik, ile txuriak ditu, hauskorra da espalda apalak ditu, begirada galdua du, lehen handia eta sendoa zelarik (124.orr).

William ipuineko antagonista da. Hark mehatxua eta beldurra irudikatzen ditu. Bere familia, ikaratzen eta suntsitzen du. Bere inguruko pertsonak menperatzea eta lehertzea maite du. Williamek 2017ko Gabriel Tallenten *My Absolute Darling* ipuineko aitari pentsarazten du. Bere alaba fisikoki eta mentalki torturatzen eta bortxatzen du. Heziketa metodo dorpeak ditu eta bere alabak, Turtle bere burua babesteko auto defentsa estrategiak garatzen ditu – bere inguruko jendeekin harremana zaila du, indar fisiko handi bat garatzen du – Jewelen kasuan bezala.

Esther Fairhope

Eleberri hasieran Esther bost urteko neskato bat da. Jeweli oso lotua da eta konplizitate handia agertzen da haien artean. Jewelek Esther babesten du. Estherrek bere aitaz biziki beldur du, jadanik bere kuleroan pixa egin du William bere kontra kexatu zelarik (29.orr). Baina bere amari oso lotua da eta lehen aldiko ospitale psikiatrikoan egonaldi bat egiten duelarik urduri da. Bere aitak eta ahizpak bezala, jainkoan sinisten du. Haur oso komikoa dela errana da, munduko komikoena, (66.orr) bere ahizparekin jokoak egiten ditu eta saltzailea egiten duelarik, ahots potoloak hartzen ditu. Handitzean umore hori atxikiko du. Esther, nahiz eta aitaren irainak jasan eta ikusi, hiru emazteen artean bakarra da joa ez dena. Hark du bizipoza handiena erakusten eta dantzatzea maite du.

Baina Estherrek traumatismoak ditu: oporretan izateaz beldur du Jewelek bezala, beretzat aitarekin izatea suposatzen duelako. Ber maneran, mutikoek ligatzen dutelarik, ez du interesik atzematen honetan, ez du engaiatzeko gogorik. 1988an, ama hiltzean, aitak Esther jotzen du. Jewelek bere ahizpa bulego azpian atzematen du. Ihes egiten dute elkarrekin umezurtz etxe batera joaten dira.

2015ean, Jewelen alaba, Lararekin, oso ongi konpontzen da eta asko maite du. Esther emazte eder eta erakargarri bat bezala deskribatua da, gizonek asko begiratzen dute. Bere fisikoa asko aipatua da. Baina, Estherrek ez du finkatzea erabaki "*Elle qui fait tourner les têtes ne s'est jamais fixée*". (125.orr). Esther dantzaria da. Jewel baino arinagoa bezala deskribatua da. Jewelek dio "*je crois qu'elle a décidé de jouer les papillons et je ne suis pas celle qui la critiquera"* (125.orr). Bi emazteek, nahiz eta ingurumen berdinean handitu, haien biziaz nahi dutena egitea erabaki dute azkenean uros sentitzeko: batek bere familia sortu du, besteak bere pasio artistikoak bizitzen ditu.

2.4.3 Ondorioak

*L'arbre et le fruit* eleberrian, Jean-François Chabasek maskulinitate hegemonikoak,

nola emazteak suntsitzen dituen kontatzen du. Ipuina bortitza da eta detaileak zehatzak dira. Nerabeentzako irakurketa aberatsa eta interesgarria da jendarte arazoak aipatzen dituelako. Bi emazteen ikuspuntutik kontatua eta Williamen pisua eta eragina aipatzen dute urteetan zehar.

Jewelen aterabidea bere aitaren eraginpetik ihes egiteko, oposizioan eraikitzea izan da. Nahiz eta gizonen beldurra ukan, bere barnean indarra atzematen du bere bizia gizon batekin eraikitzeko. Jewelek gizon bat ezagutzen du, printze bat bezala dena berekin eta alaba bat dute. Baina, hasieratik Jewel haur oso argia bezala deskribatua da eta 2015ean profesionalki zein bide hartu duen ez dakigu. Bere poza familiaren prisman oinarritzen da eta “Printze” hitzak, eleberria ipuin moderno bat bezala bukatzen dela dirudi, bere ezaugarri sexistak integratuz.

Alderantziz, Estherrek beste bide bat hartu du, “pinpirina” egiten du, gizonen begiradak erakarriz eta dantzatzen segituz. Jewelek Esther kontatzen duelarik beti afekzioarekin egiten du eta bere bizi hautuak ez dituela kritikatzen dio.

Jewelek elkartasun handia erakusten du bere familiako emazteei. Alta, bere ahizpatasuna familiako esferan mugatzen da, kanpoko neskak azalekoak bezala estimatzen dituelako. Patriarkaren eragina agertzen da Jewelen jarreran, nahiz eta bera izan sistema honen lehen biktima. Jewelek emazteen arteko bortizkeria elikatzen du besteen bizi moldeak kritikatuz.

Williami buruz informazio gutxi ditugu. Bere nortasunak maskulinitatearen alde txarrenak biltzen ditu: bortitza, beldurgarria, gaiztoa, manipulatzailea... da. Aldiz, Joe, Jewelen boxa irakaslea, Williamen oposizioan eraikia da. Baina nortasun marka maskulinoa estereotipatuak mantentzen ditu: kirol maskulino bat egiten du, neskak erakartzen ditu, jarrera paternalista du.

Aldiz, pertsonaia femeninoek aniztasun gehiago dute. Jewel sendoa eta ausarta da. Borrokatzeko gai da eta mutikoen kodeak berriz erabiltzen ditu. Alderantziz, Esther

femeninoa da, airean den neska da, saltoka ari da, dantzatzen du eta irringarria da. Haien nortasunak osatzen dira. Bukatzeko, Grace, ospitale psikiatrikora joan aitzin emazte argia zen, oso kirolaria eta etxeaz arduratzen zena. Independentea eta indartsua zen. Azpimarratzekoa da, hiru pertsonaia femeninoak kirolariak direla, hiruak grinatuak dira. Gorputzaren mekanikari garrantzia ematen diote eta osasun mentala osasun fisikotik pasatzen dela ere adierazia da.

## 3Eleberrien analisia kuantitatiboa

### 3.1 Pertsonaiak

18 pertsonaien artean 11 femeninoak dira eta zazpi maskulinoak. Ez da identifikatua ez den pertsonaiarik agertzen. *Sweet sixteen*-en pertsonaia femenino nagusiak baizik ez dira agertzen eta *L'arbre et le fruit* -en pertsonaia femeninoak hiru laurdenez nagusitzen dira. *Sweet sixteen*-n idazlea idazle femenino bat da *L'arbre et le fruit* ipuinean gizon bat da. Aldiz, *C'était mon oncle* eta *35 kilos d'espoir* eleberrietan, pertsonaia maskulinoak nagusitzen dira. Hemen ere, *C'était mon oncle*-eko idazlea maskulinoa da eta *35 kilos d'espoir*-ekoa femeninoa da.

### 3.2 Pertsonaia nagusiak




**Irudia 146: Pertsonaia nagusiak**

*Sweet sixteen* eta *L'arbre et le fruit* eleberrietan bi pertsonaia femenino nagusi dira. Aldiz, *C'était mon oncle* bi pertsonaia maskulino nagusi dira eta *35 kilos d'espoir* eleberrian bat da. Guztira, zazpi pertsonaia nagusi agertzen dira corpusean. Haietariko lau pertsonaia femeninoak dira eta hiru maskulinoak. Pertsonaia femeninoak nagusitzen dira.

3.3 Bigarren mailako pertsonaiak




**Irudia 147: Bigarren mailako pertsonaiak**

11 bigarren mailako pertsonaia dira. Haietariko zazpi femeninoak dira eta lau maskulinoak. *Sweet sixteen, C'était mon oncle* eta *35 kilos d'espoir*-en bigarren mailako bi pertsonaia femenino dira eta L*'arbre et le fruit*-en bat. Pertsonaia maskulinoen aldetik, *35 kilos d'espoir*-en bi, *C'était mon oncle* eta *L'arbre et le fruit*-en bat dira.

3.4 Pertsonaien sorkuntza autorearen generoaren arabera




**Irudia 148: Pertsonaien sorkuntza eta autorea**

Autoreek ez dute automatikoki haien generoaren araberako protagonistarik sortzen. *C'était mon oncle* eta *Sweet sixteen* eleberrietan, autore maskulinoak pertsonaia nagusi maskulino bat hautatu du eta autore femeninoak pertsonaia nagusi femeninoak. Baina beste bi eleberrietan, autore femeninoak *35 kilos d'espoir*-en pertsonaia nagusi maskulino bat lantzen du eta *L'arbre et le fruit*-eko autore maskulinoak pertsonaia nagusi femeninoak.

Bigarren mailako pertsonaiak begiratzen baldin baditugu, idazle femenino eta maskulinoek pertsonaia femenino gehiago sortzen dituzte maskulinoak baino. Hala ere, autore femeninoek autore maskulinoek baino pertsonaia femenino gehiago sortzen dituzte.

Pertsonaia femeninoak nagusitzen dira. 11 pertsonaia femeninoen artean, lau pertsonaia nagusiak dira eta zazpi pertsonaia maskulinoen artean hiru pertsonaia nagusiak dira. Pertsonaia femeninoen %36,36 pertsonaia nagusia dira eta pertsonaia maskulinoen %42,85 pertsonaia nagusia dira.

# 4 Eleberrien analisia kualitatiboa

## 4.1 Guneak

### 4.1.1 Anna Gavalda, *35 kilos d'espoir*

**Taula 106: Guneak *35 kg d'espoir***

| Genero | Etxe | Saltegi | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 2 | | | | | 1 | |
| Mask | 3 | | | 1 | 2 | 3 | |

Pertsonaia guztiak etxean kokatzen dira. Emazteen %50 kanpoan dira, gizonen %100 kanpoan dira. Gizon bat baizik ez dugu lanean ikusten, Grégoire da, eskolan. Beste bi gizon beste barne batean agertzen dira, Grégoire eta bere aitatxi, jatetxean dira.

### 4.1.2 Yves Grevet, *C'était mon oncle!*

**Taula 107: Guneak *C'était mon oncle!***

| Genero | Etxe | Saltegi | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 2 | 1 | | | 2 | 1 | |
| Mask | 2 | 1 | | 1 | 3 | 2 | |

Bost pertsonaia nagusien artean, lau etxean dira. Amatxi eta Noé saltegira joaten dira. Denak beste barne batean dira: elizan, Marien Jeanen etxean, zineman... Bi pertsonaia maskulino eta pertsonaia femenino bat kanpoan dira.

### 4.1.3 Annelise Heurtier, *Sweet sixteen*

**Taula 108: Guneak *Sweet sixteen***

| Genero | Etxe | Saltegi | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 4 | 1 | 0 | 3 | 1 | 3 | |
| Mask | | | | | | | |

Pertsonaia femenino guztiak haien etxean dira. Pertsonaia femenino bat saltegira doa, Molly, esnea erosteko. Hiru pertsonaia femenino lanean dira (Molly eta Grace eskolan, Esther lanean). Grace Brook bere lagunaren etxera doa ere. Molly, Grace eta Esther kanpoan agertzen dira.

### 4.1.4 Jean François Chabas, *L'arbre et le fruit*

**Taula 109: Guneak *L'arbre et le fruit***

| Genero | Etxe | Saltegi | Taberna | Lana | Beste barne | Kanpo | Ez dakigu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fem | 3 | 3 | | | 1 | 3 | |
| Mask | 1 | 1 | | | | 1 | |

Pertsonaia guztiak etxean, saltegian, eta kanpoan agertzen dira. Ez da inor tabernan edo lanean. Grace beste barne batean kokatzen da, ospitale psikiatrikoan.

## 4. 2 Nortasuna

### 4.2.1 Anna Gavalda, *35 kilos d'espoir*

**Taula 110:Nortasuna *35 kg d'espoir***

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | | 3 | |
| Pertsonaia maskulinoa | 1 | 1 | 10 |
| Orotara | 1 | 4 | 10 |

Pertsonaia femeninoek nortasun femeninoa dute: besteentzat urduri, histeriko, besteen zerbitzuan dira. Ez dute nortasun orokor edo maskulino ezaugarririk. Pertsonaia maskulinoek gehienetan nortasun maskulinoa dute. Isilak, eskuekin trebeak, seriosak, tematuak, deliberatuak, zurrunak... dira. Guztira hamar elementu maskulino dituzte. Pertsonaia maskulinoen nortasuna femeninoena baino garatuagoa da.

### 4.2.2 Yves Grevet, *C'était mon oncle!*

**Taula 111: Nortasuna *C'était mon oncle!***

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 1 | 5 | - |
| Pertsonaia maskulinoa | 3 | 2 | 2 |
| Orotara | 4 | 7 | 2 |

Pertsonaia femeninoen nortasunen %83,33 femeninoa da %16,67 orokorra da. Pertsonaia maskulinoen %42,8 orokorra da eta %28,57 femeninoa eta %28,57 maskulinoa da.

### 4.2.3 Annelise Heurtier, *Sweet sixteen*

**Taula 112: Nortasuna *Sweet sixteen***

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 4 | 5 | 6 |
| Pertsonaia maskulinoa | | | |
| Orotara | 4 | 5 | 6 |

Pertsonaia femeninoek nagusiki nortasun maskulinoa dute. Grace eta Molly batez ere tematuak dira. Gracek umorea badu eta Mollyk kuraia erakusten du, gizonei ematen zaizkien adjektiboak. Erin pragmatikoa da. Baina pertsonaia femeninoen aldetik ezaugarri femeninoak ere agertzen dira. Shiri goxoa eta optimista da, Gracek populartasunari garrantzi asko ematen dio... Bukatzeko nortasun marka orokorrak dituzte: haien ideologiak orokorrak dira eta haien gustuak (Elvis maitatzea bezala) ez dira genero bati lotzen.

### 4.2.4 Jean François Chabas, *L'arbre et le fruit*

**Taula 113: Nortasuna *L'arbre et le fruit***

| | Orokorra | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femeninoa | 3 | 6 | 4 |
| Pertsonaia maskulinoa | - | - | 5 |
| Orotara | 3 | 6 | 9 |

Pertsonaia maskulinoen bost ezaugarriak maskulinoak dira. Bortizkeriari lotuak dira. Pertsonaia femeninoen artean desoreka bat agertzen da. Pertsonaia femenino guztien artean, sei ezaugarri femenino, lau maskulino eta hiru orokor dira.

### 4.3 Fisikoa

#### 4.3.1 Anna Gavalda, *35 kilos d'espoir*

**Taula 114: Fisikoa** ***35 kg d'espoir***

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femenino nagusia | | | |
| Bigarren mailako pertsonaia femeninoa | | 2 | |
| Pertsonaia maskulino nagusia | 2 | 2 | 1 |
| Bigarren mailako pertsonaia maskulinoa | | | |
| Orotara | 2 | 3 | |

Fisikoari buruz elementu gutxi dira. Grégoire batez ere 35 kilo eta indar gutxirekin deskribatua da, elementu fisiko femeninoak dira. Ez da oso handia eta ez oso lodia. Bere amatxi mehea eta ahula bezala deskribatua da, elementu femeninoak dira. Feminitatea ahuleziaren bidez agertzen da, maskulinitatea indarraren bidez erakutsia da.

#### 4.3.2 Yves Grevet, *C'était mon oncle!*

**Taula 115: Fisikoa** ***C'était mon oncle!***

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femenino nagusia | | 1 | |
| Bigarren mailako pertsonaia femeninoa | | | |
| Pertsonaia maskulino nagusia | | 2 | 1 |
| Bigarren mailako pertsonaia maskulinoa | | | |
| Orotara | | | |

Agertzen diren ezaugarri fisiko gehienak pertsonaia maskulinoentzat dira. Pertsonaia maskulinoek nagusiki marka femenino bat dute, begirada goxo bat dute(Armand eta Noé). Armandi buruz gizon ederra dela erraten da ere bai. Marie Jeannek ile urdinak ditu, amatxiek duten bezala.

#### 4.3.3 Annelise Heurtier, *Sweet sixteen*

**Taula 116: Fisikoa *Sweet sixteen***

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femenino nagusia | 3 | 6 | 1 |
| Bigarren mailako pertsonaia femeninoa | 2 | 2 | 1 |
| Pertsonaia maskulino nagusia | | | |
| Bigarren mailako pertsonaia maskulinoa | | | |
| Orotara | 5 | 8 | 2 |

Pertsonaia femeninoen ezaugarrien %53,33 femeninoak dira. Mollyren fisikoa bakarrik Gracen begiradatik deskribatua da, polita da. Horrez gain, Shiriren besoak borobilak dira eta Erinek ileak lisatzen ditu. Ezaugarri fisiko neutroak %33,33 dira eta azal eta ileen koloreei lotua da. Azkenik bi ezaugarri fisiko maskulino agertzen dira: Erinen masailezurrak zorrotzak dira. Bigarren ezaugarria Gracena da, ileak motzak ditu ipuin bukaeran.

#### 4.3.4 Jean François Chabas, *L'arbre et le fruit*

**Taula 117: Fisikoa *L'arbre et le fruit***

| | Neutroa | Femeninoa | Maskulinoa |
|---|---|---|---|
| Pertsonaia femenino nagusia | 1 | 1 | 3 |
| Bigarren mailako pertsonaia femeninoa | 1 | 1 | 2 |
| Pertsonaia maskulino nagusia | | | |
| Bigarren mailako pertsonaia maskulinoa | | | |
| Orotara | 2 | 2 | 5 |

Bi alabek ez dute ezaugarri fisikorik. Aldiz burasoen eboluzio fisikoa agertzen da. Ama hasieran kirolaria, indartsua zen, ezaugarri maskulinoak dira. Gero, lodia zen. Aita lehen sendoa eta indartsua zen, eta gero, zuria eta hauskorra bilakatu da, ezaugarri femeninoa da.

### 4.4 Akzioak

#### 4.4.1 Anna Gavalda, *35 kilos d'espoir*

**Taula 118: Akzioak *35 kg d'espoir***

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 7 | 1 | 5 | 6 |
| %36,84 | %5,26 | %26,31 | %31,58 |

Pertsonaia maskulinoek nagusiki mugimenduan diren akzioak egiten dituzte, %58,33 dira. Pertsonaia femeninoen akzioen %85,71 geldiak dira.

### 4.4.2 Yves Grevet, *C'était mon oncle!*

**Taula 119: Akzioak *C'était mon oncle!***

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 8 | 4 | 6 | 5 |
| %34,78 | %17,39 | %26,08 | %21,74 |

Pertsonaia maskulinoen akzio gehienak mugimenduan dira. Pertsonaia femeninoen akzio gehienak geldiak dira. Pertsonaia maskulinoen akzioen kopurua pertsonaia femeninoen akzioen kopurua baino handiagoa da. Hiru pertsonaia maskulinoek akzioak egiten dituzte bi pertsonaia femeninoek egiten dituztelarik.

### 4.4.3 Annelise Heurtier, *Sweet sixteen*

**Taula 120: Akzioak *Sweet sixteen*-en**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| | 5 | | 13 |
| | %27,78 | | %72,22 |

Lau pertsonaia femeninoek 18 akzio egiten dituzte. Baina akzioen %72,22 geldiak dira. Mugimenduan diren akzioak eskolara joatea, Sherwoodekin ateratzea, lanera joatea dira.

4.4.4 Jean François Chabas, *L'arbre et le fruit*

**Taula 121: Akzioak *L'arbre et le fruit*-n**

| Mugimendu | | Geldia | |
|---|---|---|---|
| Maskulino | Femenino | Maskulino | Femenino |
| 3 | 6 | 2 | 9 |
| %15 | %30 | %10 | %45 |

Akzio geldiak bederatzi pertsonaia femeninok egiten dituzte eta bi pertsonaia maskulinok. Mugimenduan diren akzioak batez ere pertsonaia femeninoek egiten dituzte.

4.5 Izena

4.5.1 Anna Gavalda, *35 kilos d'espoir*

Grégoire pertsonaia bakarra da izen eta deitura batekin. Aitatxi eta amatxien izenak ezagutuak dira eta burasoena ez.

4.5.2 Yves Grevet, C'était mon oncle!

Pertsonaia nagusi guztiek izen eta deitura bat dute amak aparte.

4.5.3 Annelise Heurtier, *Sweet sixteen,* Casterman

Pertsonaia nagusi guztiek izen eta deitura bat dute. Aldiz, Gracen familiako bi pertsonaia maskulinoek izen bat dutela azpimarratzen ahal da, Aita Robert da eta semea Keith, baina amak ez du izenik, Mrs Anderson da.

4.5.4 Jean François Chabas, L'arbre et le fruit

Pertsonaia nagusi guztiek izen eta deitura bat dute.

4.6 Funtzio sozialak

4.6.1 Anna Gavalda, *35 kilos d'espoir*

**Taula 122: Funtzio sozialak *35 kg d'espoir***

| | Lanbide | | | Familia |
|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | |
| Fem | | | | 2 |
| Mask | 1 | | 1 | 3 |

Nahiz eta aitatxi erretretan izan bere garaiko lanbidea kontuan hartua izan da, ingeniaria zen, lanbide maskulinoa da. Beste hiru helduak (aita, ama amatxi) familiaren arabera deskribatuak dira. Grégoire ikaslea da.

4.6.2 Yves Grevet, *C'était mon oncle!*

**Taula 123: Funtzio soziala *C'était mon oncle!***

| | Lanbide | | | Familia |
|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | |
| Fem | - | - | - | 2 |
| Mask | 1 | - | 1 | 3 |

Pertsonaia guztiak haien familiaren arabera deskribatuak dira. Aldiz, pertsonaia femeninoak ez dira haien lanbidearen arabera ezagutze. Pertsonaia maskulinoen kasuan, bi pertsonaia maskulinoren aktibitateak hiruren gain aipatuak dira.

4.6.3 Annelise Heurtier, *Sweet sixteen*

**Taula 124: Funtzio soziala *Sweet sixteen***

| | Lanbide | | | Familia |
|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Fem | | | 2 | 4 |
| Mask | | | | |

Lau pertsonaia femeninoen funtzio soziala haien familiaren arabera da. Molly eta Grace haien ikasketen arabera deskribatuak dira ere. Badakigu Erinek lanbide bat duela baina ez dakigu zer den.

4.6.4 Jean François Chabas, *L'arbre et le fruit*

**Taula 125: Funtzio soziala *L'arbre et le fruit***

| | Lanbide | | | Familia |
|---|---|---|---|---|
| | Maskulino | Femenino | Neutro | |
| Fem | 1 | | 2 | 3 |
| Mask | 1 | | | 1 |

Pertsonaia guztiak haien familiaren arabera ezaugarrituak dira. Aitak eta amak lanbide maskulinoak dituzte (notario eta ozeanografo) eta bi alabek funtzio neutroa dute, ikasleak dira.

5 Frantses corpuseko ondorioak

Analisia kualitatiboak pertsonaia femeninoak nagusitzen direla erakutsi du. Pertsonaia femenino eta maskulino nagusiak orekatik hurbil dira, aldiz bigarren mailako pertsonaia femenino gehiago daude.

Autore maskulinoek ez dituzte baitezpada pertsonaia maskulinoak zentroan ezartzen. Kasua da *C'était mon oncle* eleberrian. *L'arbre et le fruit* eleberrian pertsonaia femeninoak nagusitzen dira, urrats honek ikuspuntu aniztasun bat erakusten du. Autore maskulinoek pertsonaia femeninoak eta maskulinoak haien eleberrien zentroan ematen dituzte. Orduan, pertsonaien trataera euskal eleberri corpusari konparatuz anitzagoa da: maskulinitatea ez da norma bat bezala agertzen eta eredugarriak izan daitezkeen

pertsonaiak femeninoak izan daitezke ere.

Testuliburuen analisiari konparatuz, pertsonaia femeninoak kantitatean nagusitzen dira. Protagonistak izateaz gain, periferian ere orokortzen dira. Ez da pertsonaia neutrorik agertzen eleberri corpusean eta denak genero heterosexual maskulino eta femeninoan bermatuak dira.

Analisia kualitatiboak pertsonaia maskulinoak, maiz estereotipo berdinak segitzen dituztela erakutsi du. Aitek autoritatearen figura dute, *Sweet sixteen* eleberriko Mollyren aitak aparte. *L'arbre et le fruit* eleberriak maskulinitatea bere toxikotasunaren estremora eramaten du. *35kg d'espoir* eta *C'était mon oncle* eleberrietan aitaren autoritate figura nabaria da. Pertsonaia maskulino gazteek ere makur sexistak dituzte: *C'était mon oncle* eleberrian, Noé pertsonaia sentikorra eta poeta da. Hala ere, jarrera heroikoa eta ausarta agertzen zaizkio. Aitzina doa, bere proiektua segitzen du. Noé, pertsonaia maskulino fidagarri, sendoa da. *35 kilos d'espoir* eleberrian maskulinitatearen idealizazioa nabariagoa da: Grégoire hasieran mutiko ahula eta galdua da. Gero indartsuagoa bilakatzen da, tematua eta lehiakorra bilakatzen delako. Grégoirren heldutasuna, maskulinitatearen baieztapenaren bidez agertzen da. Bere ezaugarri femeninoak baztertuz, Grégoire handitzen da.

Pertsonaia femeninoen profila anitzagoa da baina ez dute estereotipoei ihes egiten. Hala nola, eleberri gehienetan etxeko anderearen itxura agertzen da, amatxiaren bidez: *35 kilos d'espoir, C'était mon oncle* eta *Sweet sixteen*-en. Hiru kasuetan, amatxi maitasun eta goxotasun figura da. Hark du bere biloba ulertzen eta sustengatzen. Haien rola nagusiki familian eta sukaldean – ez da pertsonaia maskulinorik sukaldaritzen agertzen – mugatua da. *Sweet sixteen* eleberrian amatxiak ezaugarri guzti horiek betetzen ditu baina beste jarrera bat dauka ere: bere burua eta familia defenditzeko gai da, ez du biktima jarrerarik. Ber maneran, corpusean ezaugarri femeninoak askotan azpimarratuak dira baina maiz negatiboak bezala agertzen dira: *Sweet sixteen*-en, Grace azaleko neska bezala deskribatua da jantziak eta mutikoak maite dituelako. Ber maneran, *L'arbre et le fruit* eleberrian, Jewelek beste neskak ez ditu maite, kiroleko irakaslea ligatzen dutelako edo bere klase

kideen kezkak azalekoak atzematen dituelako. Bi kasuetan, itxurari interesatzea negatiboa da. Fenomeno hori euskal corpusean argiki agertu da. Baina, pertsonaia femenino batek ezin du bere fisikoaren garrantziaz kontziente izan, azalekoa bezala kontsideratua izan gabe. Jendarteak inposatzen dizkion balore fisikoak barnatzen dituen pertsonaia femeninoak gutxietsiak dira. Emazte sentikorregiaren estereotipoa behin baino gehiagotan agertu da. Batez ere *35 kilos d'espoir* eleberrian agertzen da ama eta amatxiren pertsonaiekin. Amak bere kezkak eta arrangurak negarren bidez erakusten ditu eta "histerikoa" dela errana da. Ama gutxiesten duen ohar sexista da.

Aipatutako gaiak eta pertsonaien tratamenduak ez dira sexistagoak autorearen generoaren arabera. *L'arbre et le fruit* eleberriak, bortizkeria maskulinoa salatzen du eta basakeriari bizirautea zer den kontatzen du. Baina feminitatea ez da beti baloratua eta maskulinitatea beti indarraren ikuspegitik adierazia da. Hiru pertsonaia femeninoak sakonak eta ezberdinak dira. Feminitatea ez da estandar batean mugatzen. Aldiz, *35 kilos d'espoir* eleberriak maskulinitatea eta feminitatea estandar estereotipoetan mugatzen ditu. Orduan, frantses eleberri corpusean, autoreen estereotipo sexistak ez dira baitezpada generoaren arabera sortzen.

Testuliburuen analisiak ondorio sexista eta murritzak erakutsi ditu: maskulinitatea nagusitzen da arlo guztietan eta generoen eraikuntza estereotipatua da. Pertsonaia femeninoak salbatu behar diren biktimak, maitaleak edo etsai sorginak dira. Pertsonaia maskulinoak heroiak, modeloak edo antagonistak dira. Pertsonaia maskulinoek, femeninoei konparatuz ñabardura eta aniztasun gehiago dituzte.

Euskal literaturako pertsonaia femeninoei konparatuz, bi ezberdintasun nagusi azpimarratuko dira. Frantses literaturan, pertsonaia femeninoak nagusitzen dira eta autore maskulinoek zentroan emateko nahikeria gehiago erakusten dute. Ber maneran, pertsonaia femeninoen irudia anitzagoa da. Euskal corpusean nagusiki pertsonaia femeninoa pertsonaia maskulinoaren proiekzio bat bezala agertzen baldin bazen, hemen, eleberrien eta akzioen zentroan dira. Baina, orokorrean estereotipo berdinak agertzen dira pertsonaien sorkuntzaren aldetik. Maskulinitatearen irudikapena indartsua, leiala, tematua, seriosa,

fidagarria da. Pertsonaia femeninoen eraikuntzan, amatasunaren irudiak toki nagusi bat dauka eta etxea, familiaren kudeaketa bere esku da. Frantses corpusean ere, elementu neutro gutxi daude. Neutroak bezala kontsideratuak diren elementuak, ezaugarri maskulinoak dira, femeninoa dena baztertuz eta gutxietsiz.

## VIII- Ondorioak

Ondorioak, marko teorikoan formulatutako lau hipotesien gainean oinarritzen dira:

1) Curriculum ofizialak ezartzen dituen eduki literarioek eredu sexistak biltzen dituztela uste dugu.

2) Genero estereotipoak ez direla euskal literaturako ereduetan oinarritzen baizik eta, mendebaldeko kultura ezaugarri orokortuetan oinarritzen dela uste dugu.

3) Idazleen generoek pertsonaien tratamenduak bideratzen dituztela uste dugu.

4) Curriculumak ezarritako ereduek jendarte patriarkala eta sexista birsortzera bideratzen dutela uste dugu.

### 1 Hipotesien erantzuna

#### 1.1 Curriculum ofizialak ezartzen dituen eduki literarioek eredu sexistak biltzen dituztela uste dugu

##### 1.1.1 Pertsonaia nagusiaren profila

Euskal corpusean nagusitzen den pertsonaia maskulinoa da. Batez ere, heldua edo nerabea da. Ezaugarri fisiko maskulinoak ditu: aurpegia markatua du, giharrak ditu, ile gutxi edo laburrak ditu. Nortasun kexakora eleberri ezberdinetan agertzen den ezaugarria da. Ber maneran, deliberatua, fidagarria, ausarta da. Mehatxu edo arazoen parean ez da beldurtzen (Sebastian, Antonio Maria, Jon, Alejandro, Alberto...). Maiz sentikortasun gutxi erakusten du baina neskek emozioak pizten dizkiote. Pertsonaia nagusia heterosexuala eta zisgeneroa da. Familia nukleo baten baitan handitu da. Aldiz, bere funtzio sozial nagusia lanari lotua da. Ez baldin bada ikaslea, lanbide maskulinoak egiten ditu, orkestra zuzendari, gerlari... bezala. Pertsonaia nagusiak bere denbora gehiena etxetik kanpo pasatzen du eta bere akzio gehienak mugimenduan dira. Borrokatzen da, besta egiten du. Baita ere, joko bideoetan edo informatikan, aritzen da. Pertsonaia nagusia maskulinitate hegemonikoaren

figura da eta ez die beste maskulinitate formei agertzeko tokirik uzten.

Aldiz, pertsonaia femeninoa bigarren mailan kokatzen da. Lehenik ameskeria, amatasunaren irudia dauka. Pertsonaia femeninoa positiboki irudikatua delarik, menpekotasuna erakusten du: isila da, bere tokian egoten da, besteak entzuten ditu eta haietaz arduratzen da (Jaione, Mirra, Katalin, Miren, Mariatxo, Maria Bautista, Aldika, Maria Petronia, Nina, Txanpiren amona, Sebastianen izeba...). Femenino ideal bati erantzuten diote: pazienteak eta goxoak dira. Maitasun objektuak dira. Femenino idealizatuak dira eta nagusitasun maskulinoa integratu du. Sentsibilitatea, emozioan, malgutasunean oinarritua, femeninoak, jendartearen alde txar eta ahulak adierazten ditu. Femeninoa sakratua da, pasibotasunean eta besteen zaintzean bermatzen delako, (Jaione, Miren, Maria Bautista, Txanpiren ama...) eta patriarkari hedatzeko tokia uzten diolako. Feminitateak ez baldin badu ezaugarri horiei erantzuten, galgarria da. Emazteek sistema patriarkalari oposizio bat erakusten diotenean, maltzurrak bezala agertzen dira. Corpusean, inposatua zaien sexualitatearekin bat egin ez duten pertsonaiek edo familia normatiboa ukatu duten pertsonaiak, antagonista bezala irudikatuak dira. *Txan Fantasma* eleberrian, Edurnek sorginaren figura dauka. Irudi honek sinbolika dauka ipuinetan eta historian: emazteek estrategia sinbolikoak erabili dituztelarik menpekotasun maskulinoari aurre egiteko, identitate ezkorra eskuratu dute (Bourdieu). Edurne, Maider eta Katalinak haien bidea segitzen duten pertsonaiak dira eta haien ez ohikotasuna leporatua zaie. Orduan, sistema androzentrikoa etengabe justifikatua da. Oposizioan kokatuko diren emazteak haien kontrako aurreiritziak baieztatuko dituzte (Bourdieu, 1998).

Eleberri corpusak, ipuin zaharren dikotomiarekin bat egiten du, printzesa eta sorginaren irudiak mantentzen ditu. Proposatutako ereduak proiekzio maskulino menperatzaileen irudiak dira. *Sugeak Txoriari begiratzen dionean*, *Urtebete itsasargian* eta *Aurten aldatuko da nire bizitza* eleberrietan maitalearen irudiak badaude, *Gizon izandako mutila*, eta *Izar malkoak* eleberrietan bi figurak agertzen dira. *Argiaren alaba* eleberriak aniztasun handiena erakusten du.

#### 1.1.2 Genero maskulinoa, neutroaren sinboloa

Testuliburu eta literatura corpusek jendartea bi generotan mugatua dela adierazi dute. Genero maskulinoa eta genero femeninoa inposatzen dira, bi sexuen ezaugarrietan oinarrituz. Eraikuntza sozialak dira eta ikuspegi hegemoniko batetik sortuak dira. Harreman arbitrario horiek jarrerak, gustuak, ibilbideak, definitzen dituzte eta hierarkia heterosexualean oinarritzen dira.

Markatua den genero bakarra femeninoa da, genero unibertsala maskulinoa delako. Neutraltasunik ez da agertzen. Landutako corpusek, normak maskulinitatean (indarra, bakardadea...) oinarrituak direla erakutsi dute. Eleberrietan agertzen diren ezaugarri femeninoak ahulezia bezala agertzen dira (sentikortasuna, enpatia...). Pertsonaia maskulino gutxik ezaugarri femeninoak dituzte eta, kasua denean, maiz negatiboak bezala adieraziak dira. Maskulinitatea gogorra, indartsua izan daiteke, bere aspektu bortitza inoiz kritikatuz, *Gizon izandako mutila* eleberrian, adibidez. Femeninoak, maskulinoaren alde negatiboa erakusten du. Bourdieu eta Wittigen teoriak baieztatzen dira: sexu bat baizik ez da, femeninoa. Maskulinoaren ikuspuntutik, "Bestea", femeninoa sortzen da. Norma eta neutroa bezala kontsideratuak direnak, maskulinoak dira. Baina, balore maskulino hegemonikoak goraipatuz, maskulinitatea rol bakar batean mugatzen da eta jendartea horien menpe da.

Maskulinitatek neutroaren tokia hartu du. Ondorioz, jendartea bortizkerian eta menpekotasunean oinarritzen da. Arrakasta eta erreusitzea baloratuak dira. Beraz, frustraziok orokortzen dira, ikuspegi hierarkizatu baten barnean. Neskek eta emazteek frustrazio hori geroz eta gehiago jasaten dute, ez dutelako tokirik haien mugatik ateratzeko. Orduan, ez baldin bazaio bortizkeriari aterabiderik proposatzen, neskek eta emazteek, jarrera maskulinoak bereganatzen dituzte eta haien bortizkeria indartuko da frustrazio soziala eta sexismoaren presioengatik (Badinter, 2003). Jendartea berdintzailea izateko, balore binaristak desagerrarazi behar dira eta egiazko neutraltasun bati tokia utzi behar zaio.

### 1.1.3 Familiaren tokia eta baztertutako ereduak

Eleberri corpusak inposatzen duen familia eredua, nuklearra da. Haurrak haien familiaren estruktura klasikotik ateratzen baldin badira, drama pertsonal bati lotua da (*Txan fantasma*-n Karmentxuren gurasoak hilik dira, *Aurten aldatuko da nire bizitza*-n Txanpiren ama zendu zen...). Pertsonaia batzuk haien familiaz separatuak baldin badira, haiengana itzuliko dira bukaeran (*Urtebete itsasargian* gerla bukatu ondotik Jon familiari berriz lotzen da, *Sugeak txoriari begiratzen dionean* eleberrian Sebastianen oporren ondotik etxera sartzen da...). Bitarteko eredu bakarra *Argiaren alaba*-n agertzen da Amaiak Mirariren ardura hartzeko prest delarik bere ikasketa azken urtearentzat.

Agertzen diren familia modeloek ez dute gizartearen eboluzioarekin bat egiten, eredu nagusitua segitzen dute, ez da aniztasunik. Dibortzioa ez da aipatua eta buraso bakar bateko familiak fatalismoaren ondorioak dira. Ber maneran, familia berreraikiak eta homosexualak corpusetik kanpo dira.

Euskal eta frantses eleberri corpusek aitaren itsura nagusitua zabaltzen dute. Bere figurak autoritatea adierazten du. *Aurten aldatuko da nire bizitza* eleberrian aitaren tokia ez da agertzen. *Sugeak txoriari begiratzen dionean, Argiaren alaba, Urtebete itsasargian, Izar Malkoak, Gizon izandako mutila* eleberrietan, aita erabakiguneen zentroan da, bere ikuspegia oinarrizkoa da familiaren bizitzan.

Ondorioz, ikuspegien aniztasuna eskas da. Familiak eleberri guztietan garrantzia du baina beti eskema berdina erakutsia da eta gezurrezko ikuspegi utopista bat inposatua da. Norma heterosexuala nagusitzen da. Idazle maskulinoek haien itsurako pertsonaiak sortzen dituzte. Beraz pertsonaiek tonu bakarreko itsura dute eta ez dute gaurkotasunik. Pertsonaiaren eraikuntza bi modelo estereotipatuetan mugatua da. Aniztasunik ez da agertzen, identifikazio ereduak murritzak dira.

Perez, Bilbaok eta Ezkurdiak (2006) testuliburuak androzentrikoak direla azpimarratu zuten. Gure emaitzek haiekin bat egiten dute. Neska eta mutikoen arteko desoreka landua da eta haien tratamendu ezberdina testuliburuen eduki literarioetan eta

literatura corpusetan agertu da. Testuliburuetako eduki literarioak sexistak baldin badira, haien ikerketa ikonografietara zabaldu dituzte emaitza berdinak agerraraziz. Testuliburuetan gizonak nagusitzeaz gain, euskal kulturako eragile gehienak maskulinoak direla azpimarratua da. Euskal kultura gizonek egiten dute. Emazteak familiaren ingurumenean kokatuak egoten dira, estereotipo patriarkalak eta sexistak bermatuz eta naturaltzat pasa araziz.

Pertsonaiek jatorri etniko berdinak dituztela agertu da. *Urtebete itsasargian* eleberrian Mirra pertsonaia aparte, denak zuriak eta asko jatorriz euskaldunak dira. Mirra beltzarana da eta *salbai ona*ren irudia garraiatzen du: ez ditu gure jendartearen kodeak menperatzen eta ondorioz, ez da kutsatua.

Talde osoak baztertuz eta desagerraraziz, irakurle gazteen sentsibilitateak eta orientazioak ez dira onartzen. Pertsona bat eraikitzen ari den garaian, modelo ezberdinak eta anitzak ukatea garrantzitsua da, bere izatea normala eta onartua dela jakin dezan. Homosexualitatea, eskoletan, oraindik tabu nagusi bat da. Eskoletan agertzen den testuinguru homofobo eta bortitzarengatik, bakoitzak bere orientazio sexuala ezagutzeko aukera gutxi ditu.

#### 1.1.4 Adina eta bere zentzu ezberdinak

Gizon zuria izateaz gain, boteretik hurbileko ezaugarri garrantzitsu bat adina da. Gizonak adina hartzen duelarik, bere sinesgarritasuna emendatzen du. Gizon helduak, jakintsuak eta modeloak bezala kontsideratuak dira. Modelo hori haur gazte literaturako corpusetan agertzen da: Mogel *Argiaren alaba*-n, osaba *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, Alberto eta Alejandro *Urtebete itsasargian*, Don Felipe, *Txan fantasman,* Antonio Maria *Gizon izandako mutila*-n, frantses corpusean, Armand *C'était mon oncle*-en, Leon, *35 kilos d'espoir*-en edo Joe *L'arbre et le fruit*-en. Denek haien maneran maskulinitate ideala adierazten dute: gizon fidagarri, sendoak, esperientzia dutenak eta helduak. Gehienetan, modelo batzuk dira pertsonaia nagusientzat.

Alderantziz, emazte heldu gutxi agertzen dira landutako corpusetan. Amatxi goxoaren irudia erakutsia da: *35 kilos d'espoir, C'était mon oncle, Aurten aldatuko da nire bizitza, Argiaren alaba, Sweet sixteen*-en. Bestenaz, emazte heldua ez da modelo bezala adierazia, ez du karrera handirik ukan edo esperientzia handirik bizi izan. Gehienetan hor da protagonista sostengatzeko eta maitasuna emateko. Oposizioan, emazte adintsuak sorginaren irudia har dezake, pertsonaia maskulinoak ez duen ezaugarria. Bere zahartzea mehatxu bat bezala kontsideratua da eta bere jarrera samina, gaiztoa bezala adierazia izan daiteke, Edurne bezala *Txan fantasma*-n. Amaia *Argiaren alaba*-n salbuespen figura bezala agertzen da. Independentea da, lanbide aberatsa du eta Mirarik modelo bezala har dezake.

Neska gaztea fantasma bezala kontsideratua baldin bada, emazte heldua gozotasunaren eta ulermenaren metafora da. Emazteak ez baldin badu objektu idealaren irudiari erantzuten rol negatiboa du. Protagonista gehienak maskulinoak direnez, pertsonaia femeninoak bere ikuspegi maskulinotik eraikiak dira. Pertsonaia femenino batek adina duelarik, bere rola anekdotikoa bilakatzen da eta geroz eta gehiago familiari eta etxeko eremuari mugatzen da. Pertsonaia maskulino gazteak bizitzaren iniziazio bat segitzen du, gehienetan gizon zaharrago batek laguntzen du, gidari bat bezala da. Literaturan eta testuliburuetan adina duen irudiak, jendartean diren estereotipoak islatzen ditu. Esperientzia duten gizonen artean boterea transmititzen da, zaharrenak bere ezagutzak segida hartuko duenarekin partekatzen du, erritual prozesu bat segituz.

1.2 Genero estereotipoak ez dira euskal literaturako ereduetan oinarritzen baizik eta mendebaldeko kultura ezaugarri orokortuetan oinarritzen direla uste dugu

1.2.1 Iparraldearen tokia euskal haur gazte literaturan

Frantses bizi moldea, kultura, hizkuntza euskal lurraldeko iparraldean orokortua da eta euskarari toki gutxi egiten dio Ikasle elebidun askoren euskara maila ez da aski altua eleberri bat euskaraz irakurtzeko. Hori, politika estrategien eta borondate eskasen emaitza da. Ikasle horiek euskal literaturaren sisteman integratzeko egiazko buru hauste bat da autoreentzat haien lana lurralde txiki bateko irakurle guztiei zuzendu nahi dietelako.

Miren Agur Meabek galdetegian proposatutako pista aipagarria da: trukeak biderkatu beharko lirateke iparraldeko irakurle eta hegoaldeko idazleen artean. Denek irabaziko lukete jakitea euskara ez zaiola errealitate bakar bati mugatzen. Euskara mugaz gaindikoa da, bizi moldeak ezberdinak dira, literaturari heltzeko estrategiak ezberdinak dira. Nahiz eta autore eta irakasleak lotura eskasiaz kontziente diren, arazoa diru baliabideei lot dakioke ere. Trukeak, loturak anizteko sistema ofizial bat antolatu behar da, legitimoa izateko. Baina hor ere, estatuen eta kolektibitateen borondatea beharrezkoa da.

### 1.2.2 Frantses literatura eta testuliburuen emaitzak

Euskal literatura eta testuliburu corpusak frantses corpusei konparatuz, orokorrean bateragarriak dira.

Testuliburuek pertsonaia femenino eta maskulinoen trataera sexista erakutsi dute. Belin saileko testuak frantses literaturako klasiko nagusiak dira. Euskal testuliburuen kasuan, ipuinak nagusiki anonimoak dira. Frantses testuliburuetan aipatutako autoreen gehiengo handia maskulinoa da eta pertsonaia maskulinoak nagusitzen dira. Pertsonaiak oso estereotipatuak dira. Gizonak heroi indartsu bakartiak dira. Pertsonaia femeninoek, ameskeria objektu proiekzioak edo sorgin gaiztoaren rola dute. Pertsonaia femeninoak periferian dira, aitzakiak baizik ez dira heroia balorean emateko. Obra horiek aztertuz frantses ondare kulturala lantzeko xedea dago. Euskal testuliburuek estereotipoak garraiatzen dituztela agerrarazian izan baldin bada, ez dira Belin frantses testuliburuen heinerat iristen. Euskal ondare literarioa ez denez frantses estatala bezain antolatua, testuak anitzagoak izan daitezke.

Ikasleei ez zaie beste ikuspegirik proposatzen. Autore femeninoak corpusetik baztertuak dira eta agertzen direlarik salbuespenak eta berezitasunak bezala kontsideratuak dira. Pertsonaia femenino indartsu, bakarti eta ausartik ez da agertzen, bere homologo maskulinoa goraipatua delarik. Pertsonaia estereotipatuak mantenduz, norma eta indar maskulinoa balorean ezartzen da.

